


Antonio Zavala

# PEDRO M. OTAÑO

## ETA BERE INGURUA (I)



Bo-7759-I

# **Pedro Maria Otaño eta bere ingurua**



**EUSKALTZAINDIA**  
AZKUE BIBLIOTEKA

**Auspoaren Sail Nagusia**



B. UGALDETXO, S/N  
☎ 49 35 51 / 49 35 52  
FAX: 49 35 48  
20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)



**Antonio Zavala**  
(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

**Pedro María Otaño**  
**eta bere ingurua**  
**(I)**

© SENDOA Argitaletxea.

ISBN: 85-85846-80-X

Legezko gordailua: SS/716/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza, S.A.L.



Pedro María Otaño Barriola (1857-1910)

# ITZAURREA

## ITZAURREA

Otañotarrena eta Pello Errotarena izango dira nere belarrietara aurrena iritxi ziran bertsolari-izenak. Udara pasatzera Adunara joaten giñan eta antxe. Erri au eta Zizurkil eta Asteasu alkarren ondoan izanik, ez da arritze-koa.

Ingurumari orretan oietxek baitziran, garai artan beintzat, bertsolaririk aitatuenak.

Are geiago: aldamenean, Sonola izeneko baserrian, zizurkildar senar-emazte bi bizi ziran: Pedro eta Juana. Aurrik etzuten eta, ango sukalderañño sartzen giñanean, ez genduan pentsatzen besteren etxean geundenik. Senar-emazte oietaz zer kontaturik asko neukake, baiña arratsalde batekoa papereratuko det.

Gerra bukatu berria zan eta asmo bat artu zuan alderdi artako jendeak: gerrak odoldutako tokietan gurutze bana jartzea. Besteak beste, orduan altxa ziran, oker ez banago, Amasako Belabietakoa, Adunako Belkoingoa eta Larraulko Murgilmendikoa, irurak alkarren bistan.

Gurutze berriarentzat bear ziran gaiak -porlana, burnia eta gaiñontze-koak alegia- Adunako baserritar bakoitzak gurdikada bana eramanez igo ziran. Sonolako Pedro arek ere bai berea.

Kaleko umeentzat jolas bat izaten da baserri-lanetan lardaskatzea, eta Sonolako Pedro ari nik lagundu nion bere gurdikada eramaten. Noizean bein utziko zidan akuilluarekin beien aurrean joaten, eta ni pozik.

Gaillurrera iritxi giñanerako, langilleak beren lana asia zeukaten. Eta gurutzearen zimendua nun jarriko eta gerrako trintxera batean. Zuloa eginda billatu, alegia. Ori orduan gogoan artu nuan eta geroztik etzait aaztu: gerrak mendian idikitako zauri batetik altxa zala pakearen seiñalea.

Pedro ura ere Arjentinan izana zan, eta an egindako diruarekin Sonola baserria eresia. Erderaz ere moldatzen zan, baiña ez emengoaz, Ameriketean ikasitakoaz baizik. Orregatik, gurekin gazteleraz asi eta *che, vos, ustedes* eta abar jaulkitzen zigunean, guk parrari ezin eutsirik egoten giñan. Baiña ari ajola gutxi, gizon lasaia eta patxarosoia zan eta.

Apalondoetan antxe egoten giñan bi etxeetakoak atarian, gaueko freskura artzen, kontu kontari. Orduan leenengoz entzun nuala uste det Otañotarren izena: nungotarrak ziran, Errekaldekoak alegia, eta abar. Baita Pedro arek parienteak zituala esan ere. Ameriketatik etorri eta osaba-illobak etxeko ate ondoan alkarri kantatu zizkieten bertsoak aiatu ere bai.

Aduna eta Zizurkilko muga egiten duan Adunibarko errekarara joaten giñan igeri egitera. Bitartean, antxe aurrean ikusten genduan baserri luze bat, intxaur aundi bat atarian zuala. Ura Errekalde zala eta Otañotar bertsolariak angoxeak zirala norbaiten aotik entzun ere egin genduan.

Zizurkil aldera ere joaten giñan noizean bein. Mendi-bide bat erabiltzen genduan ortarako, kamiotik buelta luzea zan eta. Azpikoeta baserri ondolik pasa eta urrena Belen izeneko etxea genduan. Etxe zabal samarra, bere balkoi eta erlojuarekin. Eta ura ere Otañotarrena zala entzuten genduan. Andik urbil zan Errekalde ere.

Pedro ura Pedro Anjel Bengoetxea Otaño zeritzan, eta Otañotarrek zer aaidetasun zeukan garbitu nai izan det liburu au prestatzerakoan. Zizurkilko eliz-artxiboan azaldu danez, 1869-ko apirillaren 23-an jaio zan, bertako Adunibarko errotan. Aren gurasoak Sebastian eta Salvadora izan ziran; eta Salvadora onenak, Juan Jose Otaño eta Maria Bernarda Etxenagusia. Juan Jose au, berriz, Pedro Maria Otaño bertsolariaren aitonaren anaia zan, eta Jose Bernardoren osaba. Gure Pedro Anjel ori, beraz, auen leengusu eta illoba txikia. Bazuan, beraz, motiborik asko Otañotarren berri zerbaiz jakiteko.

Pedro Anjel orrek illoba bat bazuan Emiliano izeneko. Ura ere zana orain. Gu besoetan artu eta gora eta beera nola erabiltzen ginduan gogoan det. Gu umeak, eta zer besterik naiko genduan? Orain, berriz, liburu au molda-

tzerakoan, aren aitamena bein baiño geiagotan egin didate zizurkildarrak: uraxe zala Otañotarren bertsoak eta gertaerak sustraitik eta ondo zekizkianna.

Udara batez, 1935 urtea zala uste det, Adunara joan giñanean, aldame-neko baserri artara, Sonolara, illoba bat ekarria zuten Adunibarko errotatik, amalau bat urtekoa: Serapio Mendizabal beraren izen-abizenak. Alkarrekin jostatzen eta abar an ibiltzen giñan.

Orain zer gertatuko eta Serapio ori berri-emale ugarienetakoko bat izan det liburu onentzat. Bera ere Otañotarren kastakoa, amona Salvadoraren bitartez.

Geiegi luzatu naiz oroipen auekin. Baiña adierazi nai nuana auxe da: Otañotarren liburu au prestatzea aur-denbora berritzea izan dala neretzat. Lan onek orduko bideak korritu arazi dizkit. Baita ezagututako zenbait gizon gogora ekarri ere; eta, bizi badira, aiengana berri billa joatera beartu ere bai.

Ondoren, Loiolan sartu eta denbora asko igaro zan Otañotarren oroipenik berritu ere gabe. Baina andik zazpi bat urtera, 1952-an, Burgos probintziaren ipar aldeko Oña izeneko errian ikasketak egiten ari giñala, gure euskal liburutegian antxe arkitu nuan *Alkar* izeneko liburu bat. Zer izango eta bertsoak. Norenak eta *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak*. Nere buruan itzulpena egin eta *Pedro Maria Otañoren bertsoak* irakurri nuanean, gustorago gelditu nintzan. Orduan ulertu, alegia, bera zala aur-denboran entzuten nuan zizurkildar bertsolaria.

Irakurtzen asi eta nere gozamina!  
 Uraxe zala euskera eta aiek bertsoak!  
 Denbora berean, ura zan, gorputzez  
 Gaztelako txoko batean nengoala, bu-  
 ruaren barruan Zizurkil eta Adunako  
 parajeak bertan banengo bezela bizi-  
 -bizi ikustea!

Andik bereala, etxekoei enkargu  
 berezi bat eman nien: Tolosako  
 Zerkausira bertso-saltzailleren bat  
 agertzen bazan, paper bat erosi eta  
 bialtzeko faborez. Ala egin zuten eta  
 ale batzuen jabe egiten asi nintzan.

Era ortan, Otañoren liburua zala eta  
 etxetik bialdutako bertso-paperak zira-  
 la, batere uste gabean, bertso-biltzeari  
 ekin nion. Sarritan orrela gertatzen da:  
 geren bizitzako erabakirik garrantziz-  
 koenak ia oartu gabe eta nola ez daki-  
 gula artzen ditugu.

Gero, langintza ortan buru-belarri  
 sartu ondoren, Don Jose Antonio  
 Loinaz Otaño apaiz jauna zanarengana  
 jo nuan. Andoaingo semea zan be-  
 ra, eta Soraluzen koadjutore zegoan.  
 Otañotarren famili-arteke izateko bi  
 lotura zituan: bere amona eta ama Jose  
 Bernardoren arreba eta alaba zirala.  
 Gerra aurrean Asteasun apaiz egona;  
 eta, andik Zizurkilla bi pauso baitaude,  
 Otañotarren bertsoak eta berriak bil-  
 tzen gogotik saiataua.

Orri-mordoska bat ere bazeukan ja-  
 so zuanarekin idatzia, eta kopia bat ne-  
 re eskuetan jarri zuan. Orri oiek bein  
 baiño geiagotan aitatuko dira liburu  
 ontan.

Berri-emale izan zitezkean aiton-  
 -amon zaar batzuen izenak ere eman  
 zizkidan: alako tokitan bizi zirala eta

aiengana joateko. Adibidez, Adriana,  
 Jose Bernardoren alaba. Ura bezin itu-  
 rri oparorik ez nuala arkituko. Ala, bi  
 edo iru bider bisitatu nuan. Izketaldi  
 aietatik atera nuana liburu ontan arki-  
 tuko du irakurleak.

Bide-gurutze batean arkitu nin-  
 tzan, ordea, une artantxe. Adriana  
 onek larogei ta bi urte zituan. Pello  
 Errotaren alaba Mikelak, berriz, laro-  
 gei ta amairu. Noren oroipenak biltzen  
 asiko nintzan? Zalantza ortan denbora-  
 rik galdu gabe, zaarrenarengana jo  
 nuan. Orrela osatu zan *Pello Errotaren  
 bizitza bere alabak kontatua* liburua.  
 Beste aldera artu izan bagendu, *Jose  
 Bernardo Otañoren bizitza bere ala-  
 bak kontatua* liburua izango genduan.  
 Bitartean, ordea, Adrianari mundu on-  
 tatik joan bearra iritxi zitzaion.  
 Mikelak, berriz, beste sei urteko bizi-  
 tza izan zuan.

Pedro Mari Otañoren alaba Maria  
 Teresaren zuzenbidea eman zidana,  
 Don Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz  
 jauna izan zala uste det. Emendik Ar-  
 jentinara eta andik onera eskutitzen  
 batzuk alkarri egin genizkion, eta Ma-  
 ria Teresak orduan bialdu zizkidan be-  
 re aita zanaren esku-idatzien argaz-  
 kiak. Dirudianez, Pedro Marik bere  
 bertsoen bilduma edo aukeraketa egi-  
 ña zuan, eta *Oroimenak* ezarri zion  
 izenburutzat. Argitara ere emango zi-  
 tuan arek, artarako laguntza izan balu.  
 Dana dala, esku-idatzi oiek liburu on-  
 tarako oiñarri sendo bat izan dira, eta  
 sarritan aitatuko ditugu. Are geiago,  
 argazkiz agertu bearrak zirala pentsatu  
 degu, eta azken orrietan arkituko ditu  
 irakurleak.

Pedro Mariren alaba Maria Teresa ori bi bider etorri zan Euskal-Errira, gu langintza ontan asi ezkeroztik. Batean, Donostiako *Orly* ostatuan alkar agurtu genduan; eta bestean, 1981-eko ilbeltzaren 6-an, egun artan ospatu zan bertsolari-txapelketan. Oltzadurara igo eta jendeari itz batzuk ere egin zizkion berak.

Otañotarrena lan luzea eta zailla izango nuala garbi ikusten nuan asi aurretik ere, eta orrek agian atzeratu egiten ninduan. Ortaz gaiñera, Otañotarren bertsoak eta bizitza argitaratzeko liburu aundia bearke zala igertzen nion. Ez *Auspoa*-ren neurrietakoa alegia; eta nik orduan *Auspoa* beste argitarabiderik ez neukan.

Ala, 1970-eko San Antonio eguna iritxi zan; garagarrillaren 13-garrena alegia. Ereñozuko festak egun orrekin dira eta Uztapide eta Lasarte an ziran bertsotan. Ni ere an nenbillen; eta alakoren batean, ez dakit nork, onela esan zidan bat-batean:

- Aizu: Don Jose Antonio Loinazek atakeren bat izan du. Oso gaizki egon bear du.

Il-berria ere bereala zabaldu zan. San Antonio egun ortan itzali zan, irurogei ta sei urterekin, Soraluzen.

Galera aundia izan zan ura liburu onentzat. Nere lan ontan irakurleak arkituko dituan utsune eta illun-puntu asko, aretxek bete edo argituko zizkigula dudarik ez det egiten. Leen esan bezela, orri-mordoska bat bazeukan idatzita. Baiña ori baiño aberatsagoa zan berak buruz zekiana eta idatzi gabe zeukana. Otañotarrei buruz artxibo bat gordetzen zuan arek buruan. Argi-

bide oiek liburu a egiten asterakoan jasoko nizkiolakoan nengoan. Baiña gizonaren usteak erdi ustelak omen dira, eta aldi artan erioa izan zan esaera zara ori egiztatu zuana.

Galtze orrek asko oztu ninduala aitortu bearra daukat. Liburu onentzatan iturririk oparoena bat-batean agortu eta galdu egin zitzaidan. Bestela ere lan-faltarik ez neukan eta beste zer egin oietan aurrera jarraitu nuan. Baiña Otañotarrak ez nituan ala ere aaztutzen. Aien liburu a Euskal-Erriari zor niola eta pentsamentu orrek ar batek bezela zulatzen zuan nere barrua.

Azkeneko, bi gauza izan dira nere aitzaki guziak baztertu eta Otañotarren lanean buru-belarri sararazi nautenak.

Bata, Zizurkilko Udalaren deia. Bazkari bat egin genduan bertako Pantxikaenea ostatuan, alkate jauna, Kamio-txikiko Migel Jose Garmendia adiskidea eta irurok. Arren eta arren Otañotarren liburu a lenbailen prestatzeko eskatu zidaten.

Urrena, berriz, *Sendoa* argitaldariaik *Auspoaren sail nagusia* sortzeko asmoak artu zituan. Bertsolari onenen emaitza bildu alegia, baiña liburu aundietan. Otañotarrena zerrenda ortan sartu bearrekoa zala ere berealaxe esan zan: eta saillaren txarrena izango etzala ere bai.

Ekin nion, beraz; baiña uste baiño zer egin luzeagoa eta zaillagoa gertatu zait.

Leenengo lana, Otañotarren bertsoak prestatzea izan da. Ortarako, iturri jakin batzuk banituan.



Bata, Pedro Mariren *Oroimenak* izeneko esku-idatzia, leen ere aitatu deguna.

Pedro Mari Donostian bizi zalarik (1890-1898), aren izena goruntz zijoan euskaltzaleen artean, eta beraren bertsoekin liburuska bat argitaratu zan: *Zerbait* izenekoa, *Donostiyan Victoriano Iraola-ren moldizkiran 1895-garren urtian* argitara emana.

Bere bigarren liburua Arjentinan argitaratu zuan Pedro Marik. Aren izenburua: *Alkar - Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma euskaro) - Buenos Aires - Tipografía "La Baskonia" - Victoria 1058 - 1904*. Liburu au Arjentinatik bialdu zidan Pedro Mariren alaba Maria Teresak.

Andik urteetara, 1930-ean, liburu au berriro kaleratu zan. Izenburutik *Alkar* itza errespetatu zioten, baiña gaiñontzeko adierazgarriak beste onela jarri zituzten: *Otaño'tar Pedro M'ren olerki onenak*. Moldiztegiaren izena: *Iñaki Deunaren irarkolan - Garibay, 28. - Donostia - 1930*. Eta 1904-eko *Alkar* liburuan ez dauden bertsoeren batzuk ere erantsi zizkioten.

Zarauzko *Itzaropena* argialetxeak *Pedro Maria Otaño'ren bertsoak* izeneko liburua atera zuan 1959 urtean, *Kuliska sorta-ren* 31-32 zenbakian, I. Unzurrunzagak prestatuta. Onak 1930-eko *Alkar* liburua du oiñarri, baiña beste bertsoeren batzuk ere eransten dizkio, eta Pedro Mariren bizitzaren berri eman ere egiten du.

Liburuak ez-ezik, aldizkariren batzuk ere kontuan artu bear ziran, Otañotarren bertsoak prestatzeko lan

ontan: *Euskal-Erria, Baserritarra, gerra aurreko Argia, Bertsolariya, Zeruko Argia* eta abar.

Iturri oiek bistan genituala, sail bakoitza aztertu egin bear zan, Pedro Mariren esku-idatzitik asita. Gero, bertso-sail bakoitzaren leenengo argitaraldia zein izan zan ikusi, urrengo argitaraldiak zituzten aldaketak berezi eta abar. Baita ere bertso-sail bakoitza ondo ulertzeko, aal ziran argibide guztiak bildu.

Ontan ari giñala, Pedro Marik Arjentinan moldatutako bertso-sail baten izenburuak arritu egin ginduan: *Urte berri*. Onela pentsatu genduan: "Urte berri? Olakorik ez da liburu batean adierazten; egunkari eta aldizkarietan bai, oiek argitaratze-eguna berekin baitute. Bertso-sail au aldizkariaren batentzat moldatu zituan, beraz, Otañok. Zein, ordea? Euskal-Errikoak jorratu ditugu eta aietan ez dago. Arjentinako batean, beraz. Eta, angoa bada, *La Vasconia* izan liteke, garai artan Buenos Airesko euskaldunak ateratzen zutena. Baiña aldizkari orren kolezioa nun izango ote da?"

Donostiako Udal-liburutegira dei egin genduan, eta bertan etzegoala erantzun ziguten; baiña Bilbon nunbait ere bazala uste zutela.

Bilbora joan eta leenengo atea Diputazioko liburutegiarena jo genduan. Eta baietz; antxe zala *La Vasconia*-ren kolezioa. Zizurkilko bertsolari aundia Arjentinan bizi izan zan urteetako zenbakiak eskatu genituan. Ekarri zizkiguten, aztertzeari ekin genion eta antxe asi ziran Pedro

Mariren bertso-lanak barra-barra azaltzen, batzuk ezagunak eta besteak ezezagunak, guretzat berri-berriak alegia. Ezagunak genituan oietan ere bertso oien leendabiziko argitaraldia uraxe zan askotan. Ortaz gaiñera, Pedro Mariren bizitzaren berri asko ere antxe ematen ziran. Altxor ugaria, beraz, al-dizkari ortan arkitu genduana.

Orrelaxe menderatu genduan liburu onek eskatzen zuan leenengo lana: bertsoak bildu, aztertu, konparatu eta argibidez jantzi alegia.

Bigarren lana artxiboetakoa izan genduan. Zizurkilko eliz-artxiboa aurrena; udalarena urrengo. Ondoren, Donostiako Artzai Onaren, San Bizente eta Santa Mariko eliz-artxibok. Baita Adunakoa ere. Eta, azkenik, Donostiako Udalarena. Otaño-tarrak munduan egindako pausoak eta ibilitako bideak orrela aztertu genituan.

Iruugarren lana, aotik aorako tradizioa biltzea. Leendik ere baneukan olakorik zerbait jaso. Baiña beste berri-emale batzuk baziran eta aiek bisitatu. Zizurkilko Errekalden bertan jaiotako Jesus Iztueta Otaño, gaur Billabonan bizi dana; Madrillen bizi dan Manuela Otaño Lopez-Alen; Donostiako Juana Garmendia Otaño; Billabonako Marina; leen aitaturako Zizurkilko Serapio Mendizabal eta Teodoro Mujika; eta abar eta abar. Guziak aitaturerik ez dagoenez, barka dezaidatela, arren, izendatu gabe utzi ditudanak.

Beste batzuetan, berriz, kolpe utsak ere eman genituan, eta ez gutxi. Zerbaiten ustean etxetik irten eta ezer ere gabe itzuli. Baita beste batzuetan

berandu iritxi ere. Onelatsu esaten zidaten:

- Bai; olakoak asko zekian. Arek gauza guztiak sustraitik esplikatuko zizkizun. Baiña il zala orrenbeste denbora da...

Laugarren lana, berriz, egunkariena izan da. Pedro Mari Arjentinatik bigarren aldiaren etorri eta Donostian bizi izan zan urteetan, 1890-etik 1898-ra alegia, etorri berrian ezezagun bat izango zan noski. Baiña bere bertsoak an eta emen azaltzen asitakoan, egillearen izenak eta ospeak goraka zijoa-zen. Ala, Donostiako egunkariak aren aitamenak gero eta maizago egiten asi ziran. Pedro Mari Arjentinara joan ondoren ere, artaz itzegiten zuten, irakurleak ikusiko duanez.

Lau lan oiek -bertsoena, artxiboena, aotik aorako tradizioarena eta egunkariena- naiko zeatz eta sakon egin diralakoan gaude. Oraindik ere andik eta emendik beste berri batzuk bildu ditezkelakoan nago. Baiña gerorako utzi bear ko dira, edo beste baten-tzat. Bestela ere liburu onen agerpena asko atzeratu da, eta lan oiekin luzapen berriak izango zituan.

Bostgarren lan bat bear zuan liburu onek. Baiña Arjentinan egin bearre-koa. An argibide asko bildu ditezke- la ez det dudarik egiten. Bertara joateko pentsamentuak ere erabili ditugu. Baiña zeregin au ez da amabost egu- nean bete ditekeana. Ara joanda ere, zein atetan jo bear dan eta nundik nora ibili bear dan batere ez dakigu. Arrotza beti arrotz izaten baita. Oiek danak ikasi eta lana egiterako, denbora asko bear ko genduan. Orregatik, azter-

keta ori beste aldi baterako edo beste norbaitentzat uztea obe zala pentsatu degu. Ondoan, gure iritzirako, ango batek egingo luke. Gure aldetik, berriz, garbi ikusten eta aitortzen degu liburu onek ortxe daukala bere utsunerik aundiena edo zatirik argalena: Pedro Mariren Arjentinako urteetan.

Ala ere, Otañotarren bertsoen bildumarik ugariena eta osoena liburu auxe dala derizkiogu. Aien bizitzaren berri ere iñun baiño zeatzago ematen da emen. Gure lanaren fruturik onenak oietxek izango dira, eta ez det uste guretzat beste saririk bear danik.

A.Z.

**“ERREKALDE ZAARRA”**  
**Pedro Maria Otaño Tapia**  
**(1803 - 1883)**

## BIZITZAREN ARGIBIDEAK

Pedro Maria Otaño izeneko bi bertsolari izan dira Euskal-Errian, alkarren artean aiton-billobak ziranak.

Leenengo Pedro Maria Otaño, aitona alegia, 1803-ko apirillaren 2-an jaio zan, Larraulen(1), Larrunbide base-rrian. Pedro Maria Otaño oni *Errekalde Zaarra* esaten zioten.

Larrunbide baserri ori ezagutzearen, Larraula joan giñan Zizurkilko Teodoro Mujika adiskidea eta biok arratsalde batez. Baiña izen ortakoak lau baserri badirala jakin genduan, eta Otañotarrena zein izan zan iñola ere ezin somatu, naiz eta bertako zaarrei galdezka jardun.

Baiña Teodoro Mujika ez izan nunbait ere etsitzen erreza, eta azkenean arek atera zuan argibidea. Lerro auk bialdu zizkidan, gu izan eta andik illabete batera:

“Asteastutik Larraulko errira kamioz goazela, erdi bidean ezkerretara kamio estu bat arturik, berealaxe lau etxe segidan arkitzen dira, eta laurak Larrunbide izenekoak.

Oietako batean jaio eta azi omen zan, gero Zizurkilko Errekaldera bizitzera etorriko zan Errekalde Zaarra bertsolari entzutetsua.

Pedro Maria Otaño bere izen-abizenak; *Baria* izengoitia omen zuen.


Onen billoba izan zan izen-abizen berak eramane zituen Pedro Maria Otaño bertsolari eta olerkari ospetsuak.

Egun batzuetan ezjakiñean egon gera lau etxe oietan zein zan Errekalde Zaarraren jaiotetxea.

Baiñan Larraulko gizon jator batek esan zigun Larrola baserriko Jeronimo Tejeriak bere adin aundiarekin oso memori ona zeukala eta berak jakin zezakela ziurrena.

Bereala galdetu genion beste gizon oni, Jeronimori alegia, eta berak etzuen zalantzarik: Larrunbide baserrietara bide arturik, leenengo etxea zala; gaur *Labaka-enea* deitzen zaiona, baiñan garai batean *Baria-enea* esaten zitzaiona.”

Pedro Maria Otaño onek, Errekalde Zaarrak alegia, senide auk izan zituan, Larraulko bataio-agirietan arkitu degunez: Maria Josefa, 1795-I-27-an jaioa; Inazio, 1798-III-15-ean; Pedro Joseph, 1800-IV-13-an; Juan Jose, 1806-XII-20-an; eta Josefa Antonia, 1811-VI-11-n.



Larrunbide baserria (Labaka-enea edo Baria-enea), Larraulen.

Beraren gurasoak Pedro Antonio eta Teresa Antonia izan ziran, larrauldarrak auek ere.

Zein urtetan ez dakigula, Zizurkillan aldatu zan famili au, Errekalde baserrira.

Errekalde baserria Zizurkilko plazaatik eguzki aldera dago, ibar polit batean eta, etxearen izenak adierazten duanez, erreka baten ertz-ertzean. Batek onela esan digu:

"Ujolde batek artu, errekan beera eramán eta bazterrera botea ematen du etxe orrek".

Erreka orrek Zizurkil eta Aduna bertarteko muga egiten du; eta bi izen somatu dizkiogu: bata, *Adunibarko erreka*; eta bestea, *Zubiaurretxoko erreka*, Zubiaurretxo izeneko etxearen ondoan Oria ibaian sartzen dalako.

Esan degunez, Pedro Mari au ere bertsolaria izan zan, Otañotarren aurrenekoa. *Errekalde Zaarra* deitzen zioten. *Errekalde*, bizi zan baserritik noski; eta *Zaarra*, familian gazteagoko bertsolaririk ere bazegoalako: leenengo, Jose Bernardo, semea; eta ondoren, Pedro Maria, billoba, aren seme Juan Pedroren semea. Orregatik, Errekalde Zaar orri *Pedro Mari Zaarra* ere esaten zioten.

Leendabiziko Pedro Maria Otaño ori, *Errekalde Zaarra* alegia, Maria Mikaela Lasa Rotetarekin ezkondu zan, Zizurkilko alaba bera.

Seme-alaba auek izan zituzten, Zizurkilko bataio-liburuetan arkitu degunez: Juan Pedro, 1829-ko abenduaren 28-an jaioa; Josefa Antonia, 1832-II-13-an; Josefa Inazia, 1834-II-12-an; Juan Jose, 1836-VIII-31-n; Maria

Josefa, 1840-IV-30-can; Jose Bernardo, 1842-X-11-n; Maria Bautista, 1845-VI-18-an; Juana Martina, 1848-I-30-ean; eta Juana Mikaela, 1850-XI-13-an.(2)

Senide auen aita, Pedro Maria Otaño Tapia, *Errekalde Zaarra* bertsolaria alegia, 1883-ko abenduaren 27-an il zan, "*a causa del mal llamado asma*", larogei urterekin.(3)

Illetak, eta ez nolanaikoak, beraren seme Jose Bernardok pagatu zituan: "*Se le hizo la función de entierro diaconado de primera clase, y tiene novenario diaconado de primera clase, que costea su hijo Dn. José Bernardo Otaño*".

*Novenario* ori nola egiten zan adieraztearren, onako lerro auek idatzi eta bialdu dizkigu Zizurkilko Teodoro Mujika adiskideak:

"Gerra baiño zerbait leenago egin zala esango nuke azkeneko aldiz Zizurkillen, eta Otegitar Migel jesuitaren amarentzat ain zuzen.

Garai artan iru maillako illeta-elizkizunak egiten ziran: *primera* deitzen zitzaiona, *segunda* eta *tercera*. Tamalez, beartsuenei azkeneko au. Diruz zerbait aberats ziranei, leenengo maillakoa; eta, orretzaz gain, *novenario* deitzen zitzaion bederatzi aldiko illetak ere egiten zizkieten.

Elizkizun auek bigarren maillako edo *segunda*-ko illetak bezela egiten ziran. *Nocturnoak* izena zuten salmopak abesten zituzten leenengoz, apaizak silla eder batzuetan eseririk, koroak erantzuten ziela. Ordu erdi inguruko kontuak izaten ziran. Ondoren, *Requi-*

em izeneko meza ematen zan ildakoa-  
ren izenean.

Beraz, goian aipatzen dedan bezela,  
bigarren maillako illetak ziran bede-  
ratzi aldi onetan egiten ziranak.  
*Requiem* izeneko meza au lengo libu-  
ruetan garbi ikusten da, orduan oi zan  
bezela, baiña latin utsez”

Errekalde Zaarraren emaztea, berriz,  
andik sei urtera il zan, 1889-ko aben-  
duaren 19-an, larogei ta lau urterekin.(4)

1. *A las cinco horas de la tarde del día dos de Abril de mil ochocientos y tres nació Pedro María, hijo legítimo de Pedro Ant<sup>o</sup> de Otaño y M<sup>a</sup> Teresa de Tapia, naturales ambos de este Lugar de Larraul; Nieto igualmente legítimo de parte paterna de Pedro de Otaño, natural de la Universidad de Bidania y de María Ignacia de Otaegui, que lo es de este expresado Lugar de Larraul; y de la materna de Juan Ant<sup>o</sup> de Tapia y María Magdalena de Legarra, naturales él de la V<sup>a</sup> de Asteasu y ésta de la de Alquiza; y el día tres del mismo mes y año bauticéle yo Dn. Pedro de Sorarrain, Presb<sup>o</sup> Beneficiado de Asteasu, de comisión de Dn. Fran<sup>o</sup> Ant<sup>o</sup> de Irazusta, Presb<sup>o</sup> Rector interino de esta Parroquia de Larraul, siendo Padrinos Dn. Pedro Antonio de Legarra, Presb<sup>o</sup> Beneficiado de Alquiza y M<sup>a</sup> Gregoria de Celaya, a quienes recordé la obligación de instruir a este su ahijado en los rudimentos de la fe, igualmente que de la Cognación Espiritual que habían contraído. Y para que conste firmé dho. día, mes y año, a una con el sobredho Rector Interino. Dn. Fran<sup>o</sup> Ant<sup>o</sup> de Irazusta. Dn. Pedro Sorarrain.*

(Larraulko 1743-tik 1822-raiñoko bataio-libu-  
ruan, 113 orrian.)

2. Zizurkilko eliz liburuetatik ateratako argibideak.

3. *”Como Cura Párroco y Vicario Propio de la Iglesia Parroquial de San Millán de la Villa de Cizúrquil, Provincia de Guipúzcoa, Obispado de*

*Vitoria, mandé hoy día de la fecha dar sepultura eclesiástica al cadáver de Dn. Pedro María de Otaño, Labrador, natural de Larraul, consorte de D<sup>a</sup> María Micaela de Lasa y Roteta, labradora, natural de ésta, e hijo legítimo de Dn. Pedro Antonio de Otaño y de D<sup>a</sup> Teresa Antonia de Tejería, naturales de Larraul, labradores. Falleció dos días antes a causa del mal llamado asma a los ochenta años de edad, después de haber testado ante el Señor Dn. Miguel Lanz, Escribano de Villabona, y haber recibido tan solamente el Sacramento de Confesión. Fueron testigos de su enterramiento Dn. Miguel María de Loinaz y Dn. José Lorenzo de Zabala, naturales de ésta, labradores. Se le hizo la función de entierro diaconado de primera clase y tiene novenario diaconado de primera clase, que coste su hijo Dn. José Bernardo de Otaño. Y para que conste firmo en la Villa de Cizúrquil a veinte y nueve de Diciembre de mil ochocientos y ochenta y tres. Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti”.*

Aldaketa bat arkitu degu Pedro Maria Otaño onen bataio-agiritik criotz-agiri ontara. An esaten dancz, M<sup>a</sup> Teresa de Tapia-ren semea da. Ontan, berriz, Teresa Antonia de Tejería-ren semea dala irakurtzen da. Eta Jose Bernardo eta bere senideen bataio-agiritan ere, Teresa Antonia de Tejería esaten zaio. Ez dakigu alda-keta ori nundik eta nola sortuko zan.

Baiña Pedro Maria Otaño onen aitaren criotz-agirian, Pedro Antonio Otañorenean alegia, onela esaten da:

*”A las diez de la noche del día dos de Julio de mil ochocientos treinta y seis murió Pedro Antonio de Otaño, natural de este lugar de Larraul, viudo de Teresa Antonia de Tapia, nil de este referido lugar, a la edad de sesenta y ocho años cumplidos...”.*

Ikusten degunez, aldaketa asita zegoan: Maria Teresa Tapia zeritzana Teresa Antonia Tapia biurtuta zegoan; eta gero, Teresa Antonia Tejería izango zan. Baiña naiz era batera cdo hestera deitu, beraren eriotz-agiririk ez degu iñun arkitu.

4. Zizurkilko irugarren criotz-liburuan, 8 garren orrian.

Baiña agiri ontan ere izen-aldaketa bat arkitzen degu. Andre onen seme-alaben bataio-agiritan, Maria Mikaela esaten zaio. Emen, berriz, Ana Mikaela.



## BERTSO BATZUK ETA GERTAERA BAT

Pedro Maria Otaño Tapia edo *Errekalde Zaarra* bertsolaria zala, beraren billobak aitortzen digu, Pedro Maria Otaño Barriola ospetsuak alegia, *Amets bat* izeneko saillean:

Ni jaio nintzan Euskal-lurreko  
leku pozgarri abetan  
eta euskera irentsi nuben  
lenbiziko asnasetan,  
amak siaskan nedukanian  
edo bere besuetan,  
kontu politikak esanaz beti,  
kantatuaz batzubetan,  
geren aitonak moldatutako  
itz neurtu ta bertsuetan.

*Errekalde Zaarra*-ren bertso batzuk iritxi dira guregana. Danak aotik aorakoak noski; baiña paperetan jarritakorik bat ere ez, olakorik agian moldatu ere etzuan egingo eta.

Bein batean, Lezoko festak omen ziran. Azkoiti-Azpeitiko bi bertsolari, Kortazar (1838-1900) eta Uztarri (1841-1899), ara zijoazen.

Bidea oiñez egin bear noski. Etumeta, Iturriotz eta Andazarratetik barrena joango ziran, eta Zizurkildik pasa bear. Otañotarren etxe ingurutik ain zuten.

Ara aillegatu eta bertso-saio txiki bat egin omen zuten. Orduko bertso


batzuk gorde dira.

Kortazarren billobak bere aitonarenak dirala esan zidan; eta Uztarriren billobak, bere aitonarenak dirala. Bertsolari oien odolekorik ez diranak, berriz, bertso oiek batek bat eta besteak bestea kantatuak dirala diote, baiña zein zeinena dan ez dakite bereizten.

Auzi ori bere ortan utzirik, ona emen bertsoak:

Kortazar ta Uztarri  
alkarren lagunak,  
gaztetatikan gera  
oso ezagunak;  
orain nola diraden  
Lezoko egunak,  
gu gera etortzea  
pentsatu degunak,  
lagundutzen badigu  
Jesukristo jaunak.(1)

Bizkarrian txamarra,  
eskuan makilla,  
Santa Krutz bezperakin  
gatoz Zizurkilla;  
lagun bat badet emen  
kantari abilla,  
apropos erten degu  
kontrario billa,  
ortako danik bada  
azaldu dedilla.(2)



Zizukiñ

Eta Errekalde Zaarrak, esan bezela  
Jose Bernardoren aita eta Pedro  
Mariren aitona zanak, onela erantzun  
omen zien:

Kortazar ta Uztarri  
onera etorrita,  
asko alegratzen naiz  
zuek ikusita;  
andria ta umiak  
etxian utzita,  
zer pentsatzen dezute  
orrela asita?  
Gauza orri ez nago  
ondo iritzita.(3)

\* \* \*

Beste batzuek diotenez, artean mul-  
til gaztea zan Pedro Maria Otañok  
erantzun omen zien, onelaxe kantatuz:

Ate ori jo eta  
egin zazu galde,  
ia etxian dagon  
Pedro Errekalde;  
norbait aterako da  
arrazoien jabe,  
etzera geldituko  
kontrariyo gabe.(4)

Eta beste bertso bat ere bai segidan:

Gure errian fiestak  
Ama Agoztukoz,  
antxe ikusi nai zaitut  
pozez eta gustoz;  
baita tripa bete're  
ogi eta artoz,

gurekin bazkaltzera  
egun ortan atoz.

Azkoitiko eta Zizurkilko festak  
abuztuko Ama Birjiñetan baitira, ain  
zuzen.

\* \* \*


Beste bi bertso auek ere jardunaldi  
ortakoak omen dira:

Kortazar emen ai da  
kantuan poztuta,  
esan leike daguela  
txit aberastuta;  
zarrak kantatzen ditu  
berriak aztuta,  
berriak asmatzeko  
modurik ezta-  
laster para biar det  
eguak moztuta.

Kantuan ari gera  
umill eta prestu,  
asi orduan dana  
ez gaituzu nastu;  
berririk ez dakitela  
ez geiegi poztu,  
gizon onek beizkitela  
nei eguak moztu,  
Errekaldek olako  
biboterik ezta.(5)

\* \* \*

Eta, azkenik, beste bertso bat, jar-  
dunaldi artakoa au ere, diotenez bein-  
tzat:



Errekalde baserria, Zizurkil, (*Album gráfico-descriptivo del País Vascongado. Años de 1914-1915*)

Naiz dala beetar da  
igual Goierrri,  
artarako zaudena  
neuk diot igerrri;  
gosaia egingo degu  
beriala jarri,  
bana edo biña emen  
kantatuz alkarri.(6)

\* \* \*

Zizurkilko Teodoro Mujikak, be-  
rriz, onela jaso dio bertako Errekalden  
jaio eta Jose Bernardo Otañoren billo-  
ba dan Jesus Iztueta Otañori:

“Azpeitian bai omen zan uztargille  
bat bertsolaria, eta enteratu omen zan  
bertsolari onen bat bazegoela Zizurki-  
llen. Jai egun batez mendiz etorri  
omen zan bera ezagutzera. Baiña, ber-  
tsoetan ikusten danez, etzegoen etxean  
Errekalde Zaarra. Onela kantatu omen  
zuen Uztarrik Zizurkilko ostatuan:

Bizkarrian txamarra,  
eskuan makilla,  
Santa Kruz bezperatik  
gatoz Zizurkilla.  
Erri ontan omen da  
gizon bat abilla,  
kantatzeko badago  
etorri dedilla.

Errekalde Zaarra enteratu zanean,  
berak bidaliko ziola uste degu eran-  
tzun au:

Atia kox kox jo ta  
egin zazu galde,  
etxian ote dagon

Pedro Errekalde.  
Ez izanagatikan  
almazenan jabe,  
etzerade juango  
erantzunik gabe."

\* \* \*

Bertso au era askotara jaso izan de-  
gu. Zizurkilko Serapio Mendizabalek,  
adibidez, onela eman zigun:

Ate ori jo eta  
egin zazu galde,  
laister aterako da  
Pedro Errekalde;  
egiten badiozu  
zerbaiteren galde,  
etzera geldituko  
arrazoyik gabe.

Eta doiñua onela kantatu zuan:

A - te  
o - ri jo e - ta e - gin  
za - zu gal - de, las - ter  
a - te - ra - ko da Pe - dro  
E - rre - kal - de; e - gi -



ten ba - di - o - zu zer - bai-  
te - ren gal - de, e - tze-  
ra gel - di - tu - ko a - rra-  
zo - yik ga - be.

\* \* \*

Urrengo beste bertso auek ez nuan  
apuntatu nori jaso nizkion. Baiña  
Errekalde Zaarrak onela kantatu omen  
zuan bein batean:

Gazterik il nai ez ta  
lan dago zartuta,  
lan . . . orrekin(7)  
ez nago poztuta;  
zenbait erraña gazte  
etxian artuta,  
antxan egon biarko det  
zokuan aztuta.(8)

Eta Jose Bernardok erantzun:

Larogei ta bat urte  
dauzka bizkarrian,  
batzuek ezin utzi  
ditu baztarrian;  
bateonbat laguntzeko  
dago biarrian,  
bestela ibilli biau  
itxura txarrian.

\* \* \*

Errekalde Zaarrak, bein batez,  
Karidadeko bentan egun pasa egin eta  
etxe aldera zijoala, irristatu, erori eta  
espalda atera egin zuan. Ezurra bere  
tokian jartzeko, sokarekin tolarako ar-  
datzean lotu omen zuten; eta, orrela  
zegoala, bertso au kantatu zuan:

Lengo osteguneko  
Kaidadeko galda,  
andik etxera bidian  
atera det espalda;  
utsa zan izan balitz  
aldapa edo malda,  
ala bear danian  
nunai ere igual da.(9)

\* \* \*

Bertso au beste era ontara ere jaso  
nuan:

Zizurkillen, Loidiko aldaparen gai-  
ñean, zelai batean, erori egin zan  
Errekalde Zaarra, eta espalda atera.  
Petrikillo sendagilleak ipiñi zizkion  
berriro ezurak beren tokian. Orduko-  
ak omen dira bertso auek:

Astearte gaubeko  
jendiaren galda,  
etxera netorrela  
atera espalda;  
utsa zan izan balitz  
aldapa edo malda,  
ala biar danian  
nunai ere igual da.

Juan Pellok esan ziyon:(10)  
“Betor, nere ama,  
antzeman diyot aita  
gaizki dagoana;  
gastatuko badegu’re  
ontzakotxo bana,

juatia pentsatzen det  
Petrikillo gana”.

Bi bertso auetan leenengoa, Jose Bernardorena ote dan ere entzun izan degu, aurrerago esango degunez.

\* \* \*

Jose Bernardoren biloba dan Jesus Iztueta Otañok kontatu digunez, bein batean, Zizurkilko plazan saio bat egin omen zuten aita-semeak; Errekalde Zaarrak eta Jose Bernardok alegia. Aitak, puntu bat onela zeukan bertsoa kantatu zuan:

Ardorik ez da sartuko  
Naparroatikan...

Semeak onela bukatzen zuan bertsoa batekin erantzun omen zion:

Eraten baldin bazu  
maiz eta purua,  
deskuidatzia ere  
ez da segurua.

Orduan jendea txaloka eta oiuka asi omen zan:

- Fuera aita! Emen semea dek egiazko bertsolaria, semea! Onek atera bear dik aurrera!

\* \* \*

Azkenik, Errekalde Zaarraren gertakari bat, Zizurkilko Teodoro Mujikak bertako Adunibar-errotako Orosia Bengoetxeari jaso eta idatzia:

"Joxe Bernardo bertsolariaren anai batek, mutil gaztea zala, Larraulkoa omen zuen andregai. Oso maitemindurik zebiltzan garai batean, despedi-

dako karta bat jaso omen zuen andregaiak. Ori irakurtzean, neskatxa au negarrez lertzen jarri omen zan, eta bere aitak galde egin omen zion:

- Zer gertatzen zaizu:

Eta alabak:

- Ara, aita: eskuetan dedan karta ontan irakurtzen dedanez, senargaiak utzi egiten nau.

Egun guztia negarrez zeramala bere aitak ikusirik, illunabar aldera Errekaldera joatea pentsatu omen zuen. Eta alaxe egin. Jo omen zuen Errekalden atea, eta Errekalde Zaarraren emaztea atera omen zitziaion, eta onela dio andregaiaren aitak:

- Gabon.

Ettxeko andreak erantzun:

- Bai zuri ere. Baiñan nolatan zu emen garai auetan?

- Bai; ez da garai ederra, baiñan bixita au egin bearra neukan. Etxean al dago nere alabarekin dabillen mutilla?

- Bai. Ikuilluan beiak jeizten ari da.

- Esaiozu datorrela pixka batean.

Etorri da mutilla eta onela dio nesKaren aitak:

- Zer gertatzen zaizute?

Mutillak:

- Zer, bada?

- Gure alabak zure despedidako karta artu du eta gaixoa negarrez lertzen dago. Ara: poltxikuan dakarkit karta ori.

Mutillak, arriturik:

- Nik despedidako karta idatzi diodala nere andregaiari? Ekatzu karta ori.

Eman dio karta eta, irakurtzen asi  
bezin laster, au dio mutillak:

- Au nere aitaren letra da.

Deitu omen zioten Errekalde  
Zaarrari eta, etorri bezin laster, seme-  
ak:

- Baiñan, aita! Zer egin dezu? Nere  
andregai gaixoari eman diozun atseka-  
bea! Zer burutaziok eman dizu lan au  
egiteko?

Eta Errekalde Zaarrak erantzun:

- Ik bai al uan oberik, andregai  
irekin pin zebillen edo ez jakiteko?

Errekalde Zaarrak danak ao zabalik  
utzi omen zituen".

1. Bertso aukeratuaren kantatzen dira. Guk or  
goien jarri deguna, jasotako era bakoitzetik egokiena  
artuta osatu degu. Ona emen aldaketarik gogoangarrie-  
nak: 3: Azpeitikan gatoz; Azkoititikan gatoz; 4: gizon  
ezagunak; gutziz ezagunak; 5: nola oraintxe diran; 6:  
Lezorako egunak; 7: gu berriz ara juaia; gu gerade jua-  
tia; 9: baldin laguntzen baigu; laguntzen baldin baigu.

2. Aldaketak: 1: bizkarrian pardela; bizkarrian txa-  
keta; txaketa bizkarrian; esku batean txamarra; besuan  
txaketa ta; 2: bestean makilla; 3: Santa Krutz bezperan;  
Santa Krutz Lezokotan; 4: nator Zizurkilla; nuan  
Zizurkilla; jo deu Zizurkilla; 5: erririk-erri gabiltz; erri  
erbestetik; lagun bat dakartala; 6: kantuan abilla; 7:  
gu baño obiaguak; erri ontan bai omen da; 8: ez dituk  
or milla; gizon bat abilla; 9: kontrariyoric bada; kapaz  
danikan bada; ortarako badago; orretakorik bada; arta-  
rakorik bada; baldin ortako bado; probatu nai duena;  
10: atera dedilla; agertu dedilla.

3. Bertso au Bonifazio Elorzak, Kortazarren billo-  
bak alegia, eta Azkoitiko Zendoia baserriko Tomas  
Zubizarretak eman zidaten.

4. Basarri, *La Voz de España*-n, ez dakigu zein  
egunetan.

Donostiako Oriamendi baillarako Sebastian  
Salaberriak beste onela:

Atea kux-kux jo eta  
egin zazu galde,  
aber etxian dagon  
Pedro Errekalde;  
etzaituzte utziko  
ezer eman gabe,  
batenbat egingo da  
arrazoian jabe,

etзера geldituko  
kontrariyo gabe.

Oiartzungo Ugaldetxo baillaran, Larria etxeko  
Patxi Labandibar zanaren aotik, era ontara jaso nuan:

Atia ori jo ta  
egin zazu galde,  
erakutsiko izute  
nun dan Errekalde;  
ni ere an izango naiz  
dudarikan gabe,  
t'etzaitut bigalduko  
ezer eman gabe.

5. Bi bertso aukeratu, Kortazarren eta Uztarriren billo-  
bei jaso nizkien. Kortazarrenari, or goien jarri degun  
eran; eta Uztarrirenari beste onela:

Goierrri aldetikan  
etorri al zera,  
kantari abillen bat  
laguntzat artuta?  
Geu ere ez gaude  
ziaro aztuta,  
laster utziko zaitut  
egualek moztuta.

Beti oi da igual  
zenbait gizon prestu,  
gaizki esaten oraindik  
etzaiote aztu;  
derrepente batian  
neri egualek moztu?  
Errekaldek olako  
bigoterik ezta.

6. Bertso au Azkoitiko Zendoia baserriko Tomas  
Zubizarretari jaso nion.

7. Lerro ontan zer idatzi genduan ezin orain iraku-  
rri.

8. Bergaran jaio eta Tolosan bizi dan Bizente  
Mujikari beste onela jaso nion bertso au:

Gazterik il nai ez ta  
lan dago zartuta,  
jaiuak eriotza  
munduan zor du ta;  
zenbait erraña gazte  
etxian sartuta,  
aitona egongo dek  
txokuan aztuta.

9. Adunan jaio eta Donostian bizi zan Antonio  
Mendizabal Otaño zana, Errekalde Zaarraren billoba.

10. Juan Pello, edo Juan Pedro, Errekalde  
Zaarraren semea zan, Jose Bernardoren anaia eta Pedro  
Mariren aita.



## ONDORENGOAK

Errekalde Zaarraren ongorengoak leenago izendatu ditugu. Baita beren jaiotegunak eman ere. Aiei buruz argibide batzuk bildu ditugu eta orain esan ditzagun. Zaarrena, Juan Pedro -Juan Pello ere esaten zioten-, Zizurkilko alaba zan Juana Bautista Barriolarekin ezkondu zan, bertako elizan, 1854-eko azaroaren 27-an. Auek izan ziran Pedro Maria Otaño Barriola bertsolari ospetsuaren gurasoak.

Juan Pedro edo Juan Pello onen berriak aurrerago emango ditugu.

\* \* \*

Bigarrena, Josefa Antonia, Zizurkilko Jose Frantzisko Etxenagusiarekin ezkondu zan, 1855-eko apirilaren 16-an.(1)

Jose Frantzisko au 1898-ko apirilaren 19-an il zan, pulmoniaz, irurogei ta bederatzi urterekin, Karidadeko bentan(2). Alargunduta omen zegoan. Baiña Josefa Antonia bere emaztearen eriotz-agiririk ez degu arkitu.

Irugarrena, Josefa Inazia, Larraulen il zan, 1834-eko apirilaren 30-ean, lau illabete ta erdi zituala, eta bertan lurperatu zuten.(3)

Laugarrena, Juan Jose, Arjentinara joan zan. Denbora luzean aren berririk

gabe egon ziran etxean. Bizi zala jakin zutenean, bertso batzuk moldatu eta bialdu zizkion bere anai Jose Bernardok. Aurrerago arkituko ditu irakurleak. Juan Jose au atzera Euskal-Errira etorri eta Donostian il zan.

\* \* \*

Bostgarrena, Maria Josefa, Adunako Eizagirre baserriko Jose Lorentzo Mendizabalekin ezkondu zan, 1862-ko abuztuaren 5-can, beraren anai Jose Bernardok testigu edo lekuko egiten zuala.(4)

Maria Josefa onen seme batek, Antonio Mendizabal Otaño zanak, onela esan zigun orain ogei ta amar bat urte:

"Errekalde baserria beeko txokoan dago; Eizagirre, berriz, kaxko-kaxkoan. Alkarrengandik urbil samar, baiña malkar aundia tartean. Gure ama zanak ezkonberritan ezin etsi zuan. Jaiotetxean, Errekalden, famili aundia; Eizagirren, berriz, gizona besterik ez, eta denbora ezin pasa. Orregatik, udaran, senarra siestara joaten zanean, gurdibidetik buelta emanda ez joateagatik, gonak gora jaso, malkar gaiñean eseri eta irristaka becraino jeisten zan, Errekalderaino, tximista bezela."

Bere aitarengatik, berriz, onela kontatu zigun Antonio Mendizabal Otaño onek:

"Gure aita arotza zan, eta Panplonan lan egiña. Trenik etzan eta larunbat illunabarrean, lanari uztean, jorñala artu eta etxera etortzen zan, gabaz eta oiñez. Goizerako Adunan. Eta igande illuntzean Adunatik atera eta goizerako Panplonan. Amasako mendietatik barrena joaten omen zan. Erderaz ere an zerbait ikasi zuan."

Bere jaiotetxeagatik ere bazuan zer kontatua Antonio Mendizabal zanak:

"Gure etxean sagardotegia izaten zan; eta Adunako gizonak etorri eta iru egun bertan pasatzen zituzten. Belar pillan eta lasto pillan billatzen zuten lo tokia. Baiña lotara baiño leen, gure amak tabakoa, pipak, poxpoloak eta danak kentzen zizkien, etxeari su eman etzezaioten."

Antonio Mendizabal Otaño onek okindegia eta pasteleria izan zituan Donostiako San Juan kalean. Adunako eta Zizurkilko bere aideak bisitatzera joaten zanean, pastel pilla bat eramaten omen zuan beti. Esan bearrik ez dago ume jendeak arrera ona egingo ziola; eta deitu ere, *osaba pasteleroa* deitzen omen zioten.

Eizagirreko Maria Josefa onek bere azken urteetan ez omen zuan besterik: errezatu eta bertsoak kantatu. Aien ganbaran bertso-paper sorta aundi bat omen zan. Baiña gero, etxea erre zanean, danak desegin ziran.

Izan ere, leen esan degunez, etxe-koandre au suaren bildurrez bizi zan, eta etorkizunaren berri bazekiala ema-

ten du. Andik urteetara Eizagirre baserria erre egin baitzan. Ori nola gertatu zan, Adunibar-errotako Serapio Mendizabalek kontatu digu:

"Gerra bukatu zan urtean zan, 1939-an; udazkenean, azaroan. Errekaldeko Paiko, gure beste bizitzako Orosiarekin ezkondu zana, orrek oituzuan apalondoan tertulia egitera gure etxera etortzea. Errekaldeko Iñaziok ere berdin egiten zuan. Gerra-denboran ere ia egunero gurean gosaltzen izaten zan. Oiek garaiz apaltzen zuten, eta askotan gu apaltzen ari giñala etorriko ziran. Gure arreba Mikela, berriz, alakoa izan; eta, taloak erretzen ari zan garaian, aiei katillu bana esne jarri eta taloa sartu. Eta aiek:

- Ez, maitea. Leporaiño beteta etorri naiz eta ez det jango.

- Jan, jan!

- Ez detala jango!

- Jateko esaten dizut ba!

- Jan araziko dit ba onek?

- Jan!

Azkenean jan arazten zien.

Ba, gau artan ere gure etxean zan Paiko zana, tertulia egitera joanda. Eta alako batean bere andregaiak, Orosik, orain alargunduta dagoan orrek, sukaldeko leioa jo zuan. Iriki genduan eta:

- Eizagirre sutan dala!

Danak korrika nola joan giñan go-goan det nik.

Beiak atera zituzten. Baiña Eizagirre baserria bi bizitzakoa zan, atzeko alderdian etxeordearekin. An zeuden txerriak; eta, etxea sutan zala, bertako Joxe Goenagak txerritegiko atea iriki



Errotamendi baserria, Zizurkil.

eta txerriak kanpora bialdu. Baiña zer egin du? Sarrerako atea itxi ez, eta txerriak berriz etorri, txerritegira sartu eta bertan erre. Aiek karrasiak!

Txerria, izan ere, itxu-itxu joaten da leengo tokira. Egaztia ere, *ras!*, egatzen da sutara.

Joxeri esan zioten zer gertatu zan eta ezetz; atera zitala. Bai; atera bai. Baiña atea itxi ez, eta txerriak ostera barrura eta barruan erre. Iru txerri dezentek gaiñera.

Seme zaarrenaren errua izan zala esaten zuten. Komunera joan eta argirik ez, eta kandelarekin deskuidatu.

Esan bezela, gerra bukatu zan urtea zan; eta or, Ulako oraingo etxe berri oietan, tallerra zan. Automobillak-eta or eukitzen zituzten soldaduak. Oiek kuadrillan joan ziran beren kamioiarekin Errekaldoko baratzaraiño, eta andik beetik gora Eizagirrera. Batek gure arreba Mikelari aurre-mantala eskatu zion. Erdalduna zan soldadua. Baiña olakoetan ibilitako gizona; sua zer zan leenago probatua. Eman zion eta burutik beera jarri zuan, lokarri batekin lotuta, sua goitik beera ez sartzeagatik. Orduan lan asko egindako mutillak baziran soldadu oien artean.

Etxea erre zitzairenean, Otañotarren kastakoak, Joxe Goenagak-eta, bi urte-edo egin zituzten koinaduaren etxean, Adunako Garagartzan. Gero Makura baserria erosi zuan Zizurkillen, eta Eizagirrek ganaduak eukitzen zituan txabola batean. Egunero goizean goiz joaten zan Makuratik Eizagirrera ango lanak egitera. Beste bizitzakoak, Martin eta Fernandok, bertan moldatu

zuten etxe txiki polit bat, eta bertan jarraitu zuten.

\* \* \*

Seigarrena, Jose Bernardo, or goien adierazi degun bezela, bertsolari ospetsua izango zan. Beraren berriak gero emango ditugu.

\* \* \*

Zazpigarrena, Maria Bautista, Zizurkilko Antonio Maria Gozategirekin ezkondu zan, 1866-ko ilbeltzaren 13-an.(5) Antonio Maria oni *Antton Iragorri* deitzen omen zioten. Jose Bernardo ere egun berean eta elizkizun berean esposatu zan.

Senar-emazte auengatik onela esan zigun arestian aitaturtako Antonio Mendizabal Otaño zanak:

“Maati esaten zioten Jose Bernardoren arreba bati, eta au Zizurkilko partean Asteasu aldera dagoan Errotamendi baserrira ezkondu zan.

Gizona, Antton Gozategi, nere aita-jauna(6), Karidadeko bentan bere lagunekin bildu zan igande batean, eta ostegunean oraindik bertan segitzen zuten. Ori egitea korrientea zan orduan. Osteguna etorri zanean, Antton orrek:

- Onezkero gure etxean kejatzen asiak dituk.

Eta bentako mutil koxkor bati:

- Joan adi gure etxera eta esan ondo gaudela.

Joan zan mutikoa, baita enkargua eman ere, eta andreak, Maati orrek:

- Onezkero, tabernan zeuden guztiak jan dizkitek.

Oillo bat arrapatu, anak lotu eta mutillari eman zion:

- Eraman zak au tabernara.

Eta gero:

- Alkandora ere onezkero zikin samar eukiko dik gure gizonak, eta eramaioak au ere.

Ala, oilloarekin eta alkandora garbiarekin bueltatu zan mutikoa.

Bai, alkarren moduko senar-emazteak. Garai artan gaizki bizi zirala esango dute orain!..."

Eta itz auekin bukatu zuan Antonio Mendizabal zanak:

- Aiek ziran emakumeak, aiek!

Gizon parranderoak baziran, beraz, garai artan ere. Gai ontaz onela esan digu Zizurkilko Adunibar-errotako Serapio Mendizabalek:

"Nik Anton Saratxota zanarena entzun izan det. Artoa egiten aritu, sagardotegira sartu, egunak bertan pasa eta, andik etxera joaterako, artoa erneta soroan. Eta pentsa: sei egun bear ditu artoak ortarako, eta lurra berotua.

Beste batean, Anton Saratxota ori bera beiarekin etorri zezenarengana. Zezena bota eta Pantxikaeneko tabernan sartu, beia kanpoan lotuta, eta gabeen barrura. Egun batzuen burura andrea etorri erroparekin, gizona etxera eramateko. Baiña onek esan:

- Onezkero, ogei ta bi aldia ikusita joan bearko det ba.

Ogei ta bi aldia bear izaten du beiak, ernari geratu dan edo ez dan jakiteko. Eta ogei ta bi aldia pasa ta etxera nola joan zan."

Saratxota Zizurkildik oso urruti dago. Ordubeta pasea bear da araiño joateko, oiñez beintzat. Ala ere, eskolara egunero zintzo etortzen omen ziran ango seme-alabak. Baita igandero mezetara ere gurasoak eta danak.

\* \* \*

Zortzigarrena, Juana Martina, Urnietako Jose Antonio Loinazekin ezkondu zan, 1867-ko azaroaren 26-an.(7)

Famili onen berriak aurrerago emango ditugu.

\* \* \*

Bederatzigarrena eta azkena, Juana Mikaela. Bere illoba Pedro Mari ospetsuarekin zazpi urteko aldea besterik etzuan. Ala, alkarrekin joaten omen ziran Errekaldetik Zizurkilla eskolara. Izebak eskutik-edo eramango zuan noski, illoba txikiaren kargu berari emango zioten eta.

Egun batean, Juana Mikaela eta biak Loidi-galtzadan beetik gora ba omen zijoazen, izebak illobari dotriña galdetuz.

Zerbait galdetu eta Pedro Marik etzuan nunbait ondo erantzun, eta Juana Mikaelak esan omen zion:

- Pedro Mari, ez dek ola. Au ola dek.



Juana Mikaela Otaño Lasa (1850-1939)

Berriz ere galdetu omen zion, eta berriz ere gaizki erantzun. Eta:

- Pedro Mari, ez dek ola. Beste era ontan dek.

Eta irugarren txandan galdetu zionean, Pedro Marik artu dotriña eta, *ras!*, sasira bota omen zuan bere amorruan. Baiña gero negarrari eman omen zion, dotriña bota zuala eta. Azkenean, ala ere, erriko bikarioak bezin ondo edo obeto ikasi omen zuan Pedro Marik dotriña.

Juana Mikaela au Donostian ere izan zan, eta amasei urteak arte eskolan ibili. Ala, asko omen zekian. Ondoren, inguruko baserritar asko arengana etortzen ziran, Ameriketara eskutitzen bat bialdu nai zutenean. Esatekoak ari esan eta arek idatzi.

Asteasuko Frantzisko Inazio Tapiarekin ezkondu zan, 1876-ko urriaren 3-an.(8)

Frantzisko oni Patxi Ubakiola esaten zioten. Aurrena, Asteasuko eliz ondoko Arbe baserrian jarri ziran bizi izaten. Gero, andik Zizurkilko Oakaztegiara aldatu ziran. Elbarrena baillaran zegoan baserri ori. Gaur egunean boatea dago.

Seme-alaba auek izan zituzten: Inazia, Leona, Bizente, Maria, Julian eta Plazida.

Frantzisko eta Juana Mikaela oien billoba bat, Marina, izan da argibide auek eman dizkiguna.

Beraren amona ori asko erreztatzen omen zuan. Orduero, etxeko erloju batek ordua jotzean, errezo jakiña: "Bedeinkatua izan dedilla Ama Birjiña

Pillarekoa Zaragozara etorri zan ordua...". Orregatik, *erloju sagradua* deitzen zioten etxekoak.

Gabean ere, oskarbi zegoanean beintzat, alako izarra zeruan agertzean, errezzateari ekiten zion. Etxekoak esaten zioten:

- Izarrak ere Jaungoikoak egiñak dira. Etzaie errezzatu bear.

Eta berak:

- Zuek zer dakizute nik zeñi errezzatzen diodan?

Otañotarrak beti oso alkar maiteak izan zirala esaten zuan amona onek. Bertso zaar asko zekiana omen zan. Baiña bere illoba Pedro Marirenak kantatzean, negar egiten omen zuan beti. Biotza ikutu egiten nunbait.

Larogei ta bederatzi urterekin il zan Juana Mikaela au, 1939-ko otsailaren 24-ean.

---

1. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 20-garren orrian.

2. Zizurkilko irugarren eriotz-liburuan, 73-garren orrian.

3. Larraulko 1745-etik 1875-eraiñoko eriotz-liburitik.

4. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 34-garren orrian.

5. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 46-garren orrian.

6. Antonio Maria Mendizabal Otaño onen aitajauna eta amandrea, Antonio Maria Gozategi eta Juana Mikaela Otaño izan ziran. (Adunako 5-garren bataio-liburuan, 142-garren orrian.)

7. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 52-garren orrian.

8. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 73-garren orrian.

**JOSE BERNARDO OTAÑO LASA**  
**(1842 - 1912)**





Goien erdian, Jose Bernardo Otaño Lasa bertsolaria (1842-1910); eskubian, beraren emaztea, Klara Inazia Odriozola Urbiztondo; ezkerrean, Bernardo Otaño Barriola, Jose Bernardoren illoba eta Pedro Mariren anaia.

(Argazki au talde aundi bat dagoan beste argazki batetik artua da. Beste argazki ori aurrerago eskeiñiko diogu irakurleari.)

## BIZITZAREN ARGIBIDEAK

Leen esan degunez, Jose Bernardo Otaño Lasa bertsolaria 1842 urteko urriaren 11-n jaio zan, Zizurkilko Errekalde baserrian, Pedro Maria Otaño Tapia eta Maria Mikaela Lasaren semea.(1)

Sendotzako sakramentua 1848-ko azaroaren 4-ean artu zuan, Juana Martina eta Maria Bautista bere arrebeekin batera, Zizurkilko elizan, Iruñeko gotzaia zan Severo Andriani jaunaren eskutik.(2)

Bera izan zan, leen aitaturako senide guzietatik, etxerako gelditu zana, Errekalde baserriko alegia, naiz eta anai zaarrena ez izan.

Ezkondu, 1866-ko ilbeltzaren 13-an egin zan, Zizurkilko elizan, ogei ta iru urterekin. Andregaia, Klara Inazia Odriozola Urbiztondo izan zan, Beizamako alaba, Oizabal etxekoa, ogei ta iru urtekoa bera ere.(3)

Bederatzi seme-alaba izan zituzten, Zizurkilko bataio liburuetan arkitu degunez: Plazida, 1867-ko otsaillaren 18-an jaioa; Pedro Maria, 1868-ko garagarriaren 30-ean; Inazio Maria, 1870-ko martxoaren 21-an; Juana Bautista, 1872-ko maiatzaren 19-an; Josefa Antonia, 1874-ko martxoaren 19-an; Maria Katalina, 1878-ko urriaren 28-an; Adriana, 1880-ko iraillaren

8-an; Frantzisko Maria, 1882-ko urriaren 12-an; eta Delfin Sabas, 1886-ko abenduaren 5-ean.(4)

Zizurkilko udaletxean gordetzen dan leenengo *Padrón Municipal*-a 1871 urtekoa da. Bertan ageri danez, Elbarrena auzoan, 16-garren zenbakian, onako lagun auek bizi ziran: Pedro Maria Otaño, Larraulkoa, ezkondua; Mikaela Lasa, zizurkildarra, ezkondua; Jose Bernardo Otaño, zizurkildarra, ezkondua; Inazia Odriozola, Beizamakoa, ezkondua; Mikaela Otaño, zizurkildarra, ezkongaiia; Plazida Otaño, zizurkildarra, ezkongaiia; eta Inazio Maria Otaño, zizurkildarra, ezkongaiia.

Zizurkilko urrengo *Padrón Municipal*-a 1884 urtekoa da. Onek esaten duanez, Otañotarren famili ontan lagun auek bizi ziran: Jose Bernardo Otaño Lasa, zizurkildarra, ezkondua, nekazaria, berrogei ta bat urtekoa; Inazia Odriozola Urbiztondo, Beizamakoa, ezkondua, nekazaria, berrogei ta bat urtekoa; ondoren, seme-alabak, Otaño Odriozola abizenekin: Plazida, amazpi urtekoa; Inazio Maria, amalau urtekoa; Juana Bautista, amabi urtekoa; Adriana, lau urtekoa; Frantzisko Maria, bi urtekoa; eta, azkenik, amona: Mikaela Lasa Roteta, Larraul-

koa, alarguna, jostuna, irurogei ta emeretzi urtekoa.

Urrengo urtean, 1885-ean, beste *Padrón Municipal* bat egiten da, eta lagun oiek berak izendatzen dira, urtebete geiagorekin.

---

1. "El día doce de Octubre de mil ochocientos cuarenta y dos, yo el infraescrito Vicario de la Iglesia Parroquial de San Millán de esta villa de Cizúrquil, bauticé en esta mi Parroquia un niño que dijeron haber nacido a las diez de la noche precedente; hijo legítimo y de legítimo matrimonio de Pedro María de Otaño, natural de Larraul, y de María Micaela de Lasa, natural y ambos residentes de ésta. Se le puso por nombre José Bernardo. Abuelos paternos Pedro Antonio y Teresa Antonia de Tejería, naturales y residentes de Larraul. Los maternos, Juan Bautista, natural y residente de ésta y Josefa Antonia de Roteta, natural de Aduna y residentes de ésta. Fueron sus padrinos José Antonio de Bengoechea y Bernarda de Echenagusía, a quienes advertí la cognación espiritual y obligaciones. Y firmé. Dn. Ignacio María de San Millán".

(Zizurkilko laugarren bataio liburuan, 150 orrian.)

2. Zizurkilko Sendotza liburutik.

3. "En la Villa de Cizúrquil, correspondiente a la Provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, yo Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti, Vicario. Cura Párroco propio de la Iglesia Parroquial de San Millán de la Villa de Cizúrquil, desposé y casé por palabras de presente y velé hoy día de la fecha a D. José Bernardo de Otaño, soltero, natural de ésta, de oficio cantero, de veinte y tres años de edad, hijo legítimo de D. Pedro María de Otaño, natural de Larraul, y de D<sup>a</sup> María Micaela de Lasa, natural de ésta, labradores, con D<sup>a</sup> Clara Ignacia de Odrizola, soltera, natural de Beizama, labradora, de veinte y tres años de edad, hija legítima de D. Ignacio de Odrizola, natural de la Villa de Azpeitia, y de D<sup>a</sup> Juana Francisca de Urbiztondo, natural de la Universidad de Beizama, labradores; habiendo precedido todos los requisitos necesarios para la validez y legitimidad de este sacramento; siendo testigos Dn. Tomás de Bengoechea y Dn. José Lorenzo de Zabala, naturales de ésta, labradores. Y por ser verdad firmo la presente en la Villa de Cizúrquil, a trece de enero de mil ochocientos sesenta y seis. Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti".

(Zizurkilko bigarren ezkontza liburuan, 45-garren orrian.)

4. Zizurkilko bostgarren bataio liburuan, 147, 170, 198, 232, 261, 316, 338 eta 366 orrian; eta seigarren bataio-liburuan, 27 orrian.

## UDAL - GIZONA

Zizurkilko udaletxean, bertako agi-rietan azaltzen danez, 1876-ko urte berri egunarekin, batzarra egin zuten erriko emeretzi gizonek, "*todos vecinos concejantes, mayor y más sana parte*", udal-gizon berriak aukeratze-ko asmoarekin:

*"para efecto de hacer la nueva elección de Alcalde, Regidores y Síndico que han de ser durante este presente año corriente, desde hoy día hasta otro semejante del año venidero de setenta y siete".*

Ortarako, zotz egin zuten, txartelak txarro batean sartu eta atereaz:

*"...se proceda a la suerte rigurosa acostumbrada de carteles, y en efecto, dispuestos estos, se echaron en un pichel y, bien revueltos en él, fueron sacándose uno en uno".*

Onako jaun auek aukeratuak izan ziran: Jose Domingo Etxeberria, Frantzisko Lertxundi eta Jose Frantzisko Mendiguren. Auek, zin egin, beste gela batera pasa, andik puska batera etorri eta beste aukerapen au egin zuten: Inazio María Mendizabal, alkatea; Jose Inazio Lejaristi, teniente alkatea; Manuel Inazio Oiartzabal, Juan Jose Irazu eta Jose Domingo Barriola, errejidoreak.

Baiña beste agiri batean irakurtzen danez, 1876-ko otsaillaren 19-an,

Zizurkilko udal-gizonak berriz ere bildu egin ziran. Baiña leengo agirian izendatutakoak etziran, beste batzuk baizik:

*"En la sala del Ayuntamiento de la Villa de Zizurquil, a diez y nueve de Febrero de mil ochocientos setenta y seis, hallándose reunidos con el objeto de tomar posesión de la Corporación municipal de la misma los señores D. José Bernardo Otaño, teniente, D. Juan Bautista Echenagusía, D. José Antonio Gorostidi, D. Ascensio María Otegui, D. Antonio Gozategui y D. Juan José Irazu, regidores, a falta de D. Ignacio Achaga, Alcalde nombrado, por no haberse encontrado en esta población, según lo ordenado por el Gobernador de esta provincia en su oficio de fecha quince del corriente mes, y enterados los constituyentes, dijeron que el expresado D. José Bernardo Otaño ejerza funciones de Alcalde hasta que regrese a su casa D. Jacinto Achaga, Alcalde nombrado por el expresado Gobernador de esta provincia. Acto continuo, el Señor Teniente Alcalde pasó a ocupar la presidencia y ha recibido las insignias de su cargo, y también los concejales los suyos, para que tenga cumplido efecto lo prevenido en el expresado oficio del quince del corriente, ordenando que se remitiera una copia de esta acta al Señor Gobernador, firmaron menos Echenagusía y Gozategui, por decir no saber, de que certifico yo, el secretario accidental.*

*José Bernardo Otaño. José Antonio Gorostidi. Asensio de Otegui. Juan José Irazu. Juan Bautista Larrandobuno."*

Oso bizitza laburra izan zuan, beraz, 1876-ko urteberri egunarekin aukeratu zan udalak. Illabete ta erdi bes-terik ez. Zergatik ote?



Bazkalondo batean ateratako argazki ontan ikusten ditugunak, 1880 urtean edo zerbait geroxeago Ameriketara joandako gazte batzuen familiko guraso eta senideak dira, geien-geienak zizurkildarrak.

Goiko illaran, ezkerretik: 1 eta 2: Juana Bautista eta Juana Mikaela Otaño Lasa, Jose Bernardo Otañoaren arrebak; 3: Juanita Iparragirre; 4: Mikaela Etxenagusia; 5: Bernardo Otaño Barriola. Pedro Mariaren anaia; 6: Jose Bernardo Otaño Lasa bertsolaria; 7: Inazia Odriozola, Jose Bernardoren emaztea; 8: Mariana Otaño Lasa, Jose Bernardo Otañoaren arreba; 9: X. X.; 10: Lorentzo Mendizabal (Lontxoperi), Maria Josefa Otaño Lasaren senarra; 11: X. X.

Erdiko illaran, ezkerretik: 1: Usandizaga, Asteasuko maixua; 2: Frantzisko Tapia (Patxi Ubakiola), Mikaela Otañoaren senarra; 3: Antonio Gozategi (Antton Iragorri), Maria Bautista Otaño Lasaren senarra; 4: Jose Leon Lasarte, Pedro Mari Otañoaren lagun aundia; 5: Juan Pedro Otaño Lasa (Juan Pello), Pedro Mari Otañoaren aita; 6: X. X.; 7: Jose Antonio Loinaz (Jainkua); 8: Dorronsoro, andoaindarra; 9: Juana Mikaela Barriola Arregi, Pedro Maria Otañoaren ama; 10: Jose Etxenagusia (Joxe Auniar); 11: X. Barriola, Ugartekoa; 12: X. Barriola, Ugartekoa; 13: X. X.; 14: Juan Luis Arizmendi.

Becko illaran, ezkerretik: 1: Juan Tomas Bengoetxea, Galardikoa; 2: nexka kokorra, Balentina Bengoetxea, Icengoaren alaba, Iturralden illa; 3: Juan Tomas Bengoetxcaren emaztea; 4: mutil kokorra, X. X.; 5: X. X.; 6: Josefa Antonia Otaño Lasa, Joxe Bernardoren arreba; eta besteak ezezagunak.

Bazkari au egiteko dirua Amerikan zeudenak biali omen zuten.

Urteberri egunean, karlisten bigarren gerrateak (1872-1876) artean su eta gar jarraitzen zuan.

Baiña liberalak, Alfonso XII errege-aulkira ekarri ezkeroztik, indarberritzen asiak ziran, kinta berriak deituta. Ala, 1875-eko udaran, Balentzia eta Aragoi aldeko karlistak menderatu zituzten. Gero, ango soldadu taldeak Euskal-Errira ekarri. Guztira, eun ta ogei milla gizon baiño geiago. Beren eraso 1876-ko ilbeltzean jo zuten. Karlistak, berriz, ogei ta amairu milla ere ez omen ziran, eta burua makurtu bearra izan zuten. Otsaillaren 28-an, Don Karlosek alde egin zuan Frantzi aldera Arnegitik barrena.

Bitarte ortan, liberalak leen itxas-bazterreko errietan estututa zeuden eta Gipuzkoa osora zabaldu ziran. Zizurkillen, beintzat, eta besteetan berdin egingo zuten, udala berealaxe aldatu zuten, otsaillaren 19-an, gobernadoreak illaren 15-ean emandako aginduz. Leengoak kendu eta beren gustoko gizonak jarriko zituzten noski. Ain zuzen, urteberri egunez bildu ziran gizonetatik, bat bakarrik izendatzen da udal berrian: Juan Jose Irazu.

Otañotarrak liberaletakoak ziran. Ala, urrengo gertakizun au Jose Bernardoren ondorengoak kontatu digute.

Karlistak, beren joan-etorrietan, Errekalde aldetik pasatzean, Jose Bernardoren galdera egiten omen zuten:

- Semea nun dezute?

Etxekoak onela erantzun:

- Donostian da.

Bein baiño geiagotan, ordea, galde-  
ra-erantzun oiek, eta azkenerako karlistak onela esaten omen zuten:

- Maiztxo entzuten degu ori, maiztxo!

Eta etxeakoak:

- Bai. Igeltsoa eta teillak eraman egin bear dira ta...

Aurrerago esango degunez, Jose Bernardok igeltsotegia eta teilleria izan baitzitian.

Bitartean, Adunako Eizagirren, arrebaren etxean alegia, gordeta egon ura.

Ala, beren alderdikoa zalako, Jose Bernardo *teniente alcalde* egin zuten agintari berriak, 1876-ko otsaillaren 19'an osatutako udal ortan. Eta, alkattea falta baitzan, aren lekua berak bete bear.

Baiña Jazinto Atxaga ori bereala etorri zan errira, eta etzuan Jose Bernardok alkate ordekoaren lanik egin.

Udal-agiriak ederki azaltzen dute urrengo batzarretan zer gai erabili zituzten: maisuaren soldata, salmentarako bete bear ziran baldintzak, erriaren aurre-kontuak aztertu, eta abar.

Andik bost urtera, 1881-eko uztailaren 24-ean, kontzejal bezela azaltzen zaigu Jose Bernardo. Eta egun artako gaia berezi samarra izan zan:

*"...el Señor Alcalde manifestó que esta reunión ordinaria tenía por objeto el nombramiento de una comisión a fin de que practiquen las conducentes diligencias para obtener el nombre verdadero de la estación del Ferrocarril nueva, construída en la Jurisdicción de este pueblo, dejando sin efec-*

to el nombre de Villabona, y nombran de común acuerdo a Don José Domingo Echeverría, Alcalde, Don José Domingo Barriola y Don Francisco Lerchundi...".

Geltoki ori Zizurkilko partean baitago.

Urrengo agirietan kontzejal bezela izenpetzen du Jose Bernardok.

Baiña 1883-ko uztaillaren 1-ean udal berria aukeratu bearra zuten. Alkatetzarako aukeraketa egin eta bi gizon berdiñean gertatu ziran, bein ez-  
ezik, bi bider ere: Jose Bernardo Otaño eta Jose Domingo Barriola. Barriola au Pedro Maria Otañoren amaren anaia zan; Jose Bernardoren koiñadua, beraz.

Aukeraketa nola egiten zuten jakiteko, orduko legeak aztertu bearko lirake. Baiña 1884-eko abuztuaren 12-ko agiri batek argi piska bat emango digu:

*"...a tenor de lo que dispone la ley de Ayuntamientos de 1877 y el Reglamento de 20 de Abril de 1870, cuya reunión ha sido anunciada por el edicto del día diez de los corrientes en la forma ordinaria, siendo ya las diez de la mañana, en presencia de los circunstantes que se presentaron, se procedió al acto dándose lectura en primer término de los artículos 68 y siguientes de la precita ley y del 15 al 20 del Reglamento, sin que hubiera ninguna reclamación que deba hacerse mérito, se pasó a realizar la operación leyéndose la lista de las respectivas secciones, los nombres de los vecinos comprendidos en las papeletas, e introducidas en bolas, y éstas en un globo proporcionado, y practicado cada sorteo con la debida separación, resultaron designados por la suerte como adjuntos los sujetos siguientes..."*

Orduan, 1883-ko uztaillaren 1-ean alegia, leenengo zenbakia atera zuanari eman zioten:

*"Por haber sacado número uno habiendo sucedido el pate dos veces, D. José Bernardo Otaño ha obtenido..."*

Onako jaun auek osatu zuten, aldi artan, Zizurkilko udala: Jose Bernardo Otaño, alkate; Jose Domingo Barriola, teniente alkate; gaiñontzekoak: Migel Jose Etxabe, Frantzisko Tapia, Jose Domingo Etxeberria, Jose Jazinto Atxaga, Juan Jose Irazu eta Antonio Maria Ibarbia.

Urrengo batzarretako agirietan, Jose Bernardoren firma azaltzen da beti aurrena, alkatea zan ezker. Erabili zituzten gaietatik banaka batzuk esango ditugu:

Erriaren osasunagatik arduratu ziran 1884-eko uztaillaren 1-ean:

*"...que se haga un blanqueo general de las casas, interior y exterior, incluso las cuadras... Que se extraigan todos los fiemos existentes en las cuadras, pocilgas y demás sitios a bastante distancia de las casas... Que se dé curso a todas las aguas sucias o estancadas y echar cal viva por los dueños o inquilinos de los terrenos en que radiquen..."*

Oso berezia izan zan 1884-eko abuztuaren 28-an artu zuten erabakia:

*"...con el objeto de nombrar una Comisión compuesta de dos individuos para ofrecer sus respetos a SS. MM. en representación del pueblo... acordó unánimemente nombrar dos individuos del seno de la Corporación, que son Dn. José Bernardo Otaño, Alcalde Presidente, y D. José Jacinto Achaga, Regidor, para marchar a la Capital de la Provincia a representar este Municipio..."*

Egun berean, beste erabaki au ere artu zuten:

"...habiéndose dado lectura a la instancia presentada por Dn. José Lorenzo Zabala, sacristán de la Iglesia Parroquial de esta Villa, pidiendo que se le abone el salario de los años 1881 a 1882, 1882 a 1883 y de 1883 a 1884, a razón de veinte y dos pesetas al año, que hacen sesenta y seis pesetas. En vista de lo expuesto y lo que arrojan los presupuestos de los años citados, el Ayuntamiento acordó por unanimidad de los asistentes que se extienda el libramiento a favor del referido Zabala...."

Urrengo udal berria 1885-eko uztaillaren 1-ean osatu zan, onako jaun auekin: Jose Jazinto Atxaga, Juan Jose Irazu, Antonio Maria Ibarbia, Frantzisko Tapia, Frantzisko Lertxundi, Baltasar Olano, Jose Domingo Etxenagusia eta Jazinto Agirre.

Ikusten degunez, etziran danak izen berriak. Agintaritzan sartzera zijoazek zintekin zuten, alkate zaarraren aurrean; Jose Bernardoren aurrean alegia. Agiriak onela dio:

"...Reunidos ya todos, dispuso el Sr. Alcalde que por el infrascrito Srío. se diese lectura a la ley de 2 de Octubre de 1877, art. 52 y siguientes. En su cumplimiento pronunció un pequeño discurso alegórico a la importancia de tan solemne acto, concluyendo por invitar a los Srs. Concejales actuales y entrantes a que se pusieran de pie para recibir su juramento a D. José Bernardo Otaño, y así se verificó bajo la fórmula: "¿Juráis por Dios y por los Santos Evangelios ser fiel a S. M. el Rey D. Alfonso XII y al cumplimiento de las leyes, conduciéndoos bien y fielmente en el desempeño de vuestro cargo?". "Sí, juro". "Pues si lo hacéis, Dios os lo premie; y, si no, os lo demande". Ocupando éste la Presidencia interina, se declaró posesionado el nuevo Ayuntamiento, retirándose los Srs. que cesan en los cargos, después de firmar todos los que saben esta parte primera del Acta..."

Urrena, alkate berria aukeratu zuten, era ontan:

"Seguidamente, constituido el Ayuntamiento bajo la Presidencia accidental de D. José Bernardo Otaño, se procedió al nombramiento de Alcalde Presidente en votación secreta por medio de papeletas que el interino fue recibiendo de manos de los Srs. Concejales, sin desdoblarlas ni leerlas, y depositándolas una a una en la urna que estaba preparada al efecto en cumplimiento exacto de lo que mandan los artículos 83 y 84 de la Ley municipal. Hecha la votación, fue sacando el Sr. Presidente de la urna las mencionadas papeletas una a una y leyendo en alta voz el contenido, que dio el resultado siguiente:

D. Juan José Irazu, siete votos.

D. José Jacinto Achaga, un voto.

Siendo pues por consiguiente D. Juan José Irazu el que reunió mayoría absoluta de votos, fue proclamado Alcalde Presidente, después de haber prestado juramento en forma."

Jose Bernardok orduan utzi zion, beraz, alkate izateari. Baiña 1890-ean regidor agertzen zaigu.

Bera kargu ortan zala, urte bereko martxoaren 16-ko agirian azaltzen denez, gai berezia erabili zuten udal-gizonak:

"...instalar en la torre de la iglesia, previa autorización del Sr. Cura párroco, un nuevo reloj, objeto muy necesario y reclamado con insistencia por el vecindario en general."

Erlojularia Benito Yeregi zan, usurbildarra. Onen egitekoa auxe zan:

"...colocará el reloj en la cantidad de mil pesetas pagaderas en dos plazos, a saber: el primero de quinientas pesetas, cuando el reloj empiece a funcionar, y el segundo al finalizar el año de su instalación."

Lau urtean, 1890-etik 1893-ra, kontzejal agertzen da Jose Bernardo. Urte oietan agiri-pilla dago, eta bera-



ren firma noiznai ikusten da.

Familiko guraso saiatua eta bertso-  
lari bikaiña izateaz gain, irugarren al-

derdi bat ere izan zuan, beraz, Jose  
Bernardo onek: erriaren onagatik kez-  
ka, udal-gizona zan aldetik.

## OGIBIDEA

Esan degunez, Jose Bernardok famili aundia izan zuan: bederatzi seme-alaba. Gogotik saiatu bearko zuan, beraz, andik edo emendik aientzat aiña ateratzeko.

Baserria baitzuten, ango lurretan nekazaritzan jardungo zala esan bearririk ez dago. Ganadu buru batzuk ere izango zituan. Baiña ezin asiko gera orain lan oiek nola egiten zituan adierazten, Euskal-Erriari orain arte beintzat ain arruntak eta ezagunak diran ezker.

Bazituan Jose Bernardok, ordea, beste lan mota batzuk berezi samarrak. Leenengoa, artaldea. Ez baitiduri Zizurkilko erriak ardi-lekua izan bear zuanik. Baiña 1960 urte inguruan artutako apunteetan, Jose Bernardoren alaba Adrianarekin egindako alkar-izketa bat arkitu det. Onela dio:

- Orduan, artaldea ere bazenduten etxean?

- Bai. An ibiltzen giñan ardi zai.

- Zenbat ardi?

- Larogei ta emeretzi bai. Artalde bikaiña ura. Urtean ogei ta bost bat bildots azitzen genituan. Aiek uzten ziran, eta ardi zaarrak salmentan atera. Etorri izan ziran urrutitikan ere bildotsak erostera. Zenbatean salduko eta ogei ta launa pezeta eta ogei ta bostna pezeta -asko garai artan-, bildotsik

onenak izaten ziralako. Morroi artzaiak aitari erritan ematen zion: ea zergatik bildotsak saltzen zituan, ardiak bezin ederrak zirala eta. Biak erdi asarretu, baiña gure aitak dirua artu nai, nun gastatu ere bazuan ta. Orrela ibiltzen ziran, morroiaren gustorik ezin egiñik.

- Morroi artzai ori nungoa zan?

- Amezketakoa. Bautista zuan izena.

- Eta nun izaten zenduten artaldea?

- Aurrena, bertan neguan. Arkumeak ateratzean, Uztartzara; Uztartzatik Ziortzara; Ziortzatik, udaberriari, Aralar mendira. Udazkenean, andik jeisten ziranean, ostera ere Ziortzara. Bi borda ere baziran. Orain, berriz, danak desegiñak seguru asko.

- Aralarren nun izaten zenituzten ardiak?

- Izena esaten zuten, baiña orain etzait gogoratzen. Txabola ere an euki-ko zuten. Naparroa eta Gipuzkoaren muga laster zan. Ardiak Naparroan sartzan baziran, naparrak baitu egiten zituzten, eta kastigua eman. Eta aitak morroiari onela esaten zion: "Geiennetan ez ditek kasorik egiten, baiña artaldeari errepara egiok ondo ango muga pasa gabe. Badaezpada ere, ardiak erabili itzak probintziko partean".

- Gaztak egiten al zenituzten?

- Bai. Neguan, etxean. Aralar mendira joaten ziranean, artzaiak egiten zituan. Gero, amabostean bein, zaldiarekin Tolosara ateratzen zituan saltzera. Emendik, berriz, Billabonara eramaten genituan. Neri beti gogoratzen zait amak batean nola bialdu niñuan, bakar-bakarrik, Billabonako merkatura gaztak saltzera. Ni artean neska koskorra, eta esan nion: “Bai; baiña bein ere ez naiz izan. Zenbat eskatu bear det?”. Eta arek: “Adunako Agerreko andreak eskatzen duana, zuk ere eskatu”. Agerreko andrea aundi bat zan; eta arek ere bazituan ardiak. Librako amabi txakur txiki eskatzen genituan, eta amaikan eman.

- Ardilleak ere zerbait baliokozuan, ba.

- Baita. Ederra izaten zan ardillea.

- Ardi zai ziñatenean, zer egiten zenduten? Denbora nola pasa?

- Paper bat letu-edo, al zan bezela. Trapu xaarrak konpontzen ere bai askotan.

- Eta noraiño joaten ziñaten?

- Andatz mendiko puntaraiño ere bai. Nik andik ikusi nuan leenengo al-diz Donostia, artaldearekin joanda.

- Igeltsotegia ere zuen etxeokoz izan zuten, ez da?

- Bai, bai. Igeltsotegia eta teilleria. Danak. Sinistatu ez diteken moduan jarrita ango martxak eta gauzak.

- Aitak kanpoko langilleak ere izango zituan jorñalean, lan oiek egiteko.

- Langilleak Oñatitik etortzen ziran udaran. Baiña baita anai-arrebak

ere. Gu aritzen giñan lanean gogotik antxe, igeltsotegian eta teillerian.(1)

\* \* \*

Oneraiño Jose Bernardoren alaba Adrianaren itzak. Gai ontaz Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok beste argibide au eman digu:

“Neronek ezagutu nituan ardiak Errekalden. Etxearen azpiko aldean to-larea zan, eta tolare azpi ortan izaten zituzten. Morroiren bat ere bai aiek zaintzeko. Ardi-mutillari, amabi-amalau urteko mutillari, *artxankoa* deitzen zitzaion”.

\* \* \*

Adunako Eizagirre baserriko Antonio Mendizabal Otaño zanak, berriz, onela esan zigun:

“Igeltsotegia eta teilleria berak erabiltzen zituan. Gertuago egoteagatik, etxe berria egin zuan, Belen izenekoa, balkoi eder batekin. Erlojua ere antxe jarri zuan.

Botana eta kanala ere bai, igeltsotegiarentzat. Mutil koskorretan ara joaten giñan gu igeri egitera.

Igeltsoa erretzen egun batean eukitzen zuten, eta gero igo edo txeeu errotan. Zakuetan sartu eta saltzera eramán.

Gure osaba Jose Bernardo ori gizon sendo bat zan. Soroak-eta bazituzten, baiña ez det uste an lanik asko egingo zuanik.

Egunik aundienetan ere abarka kuratuekin joaten zan mezetara; abarkak eta trajerik ederrena.

Igeltsoa eta teillak Billabonara eramaten ibili gabe kamiora ateratzeko, gurdibidez ibai ertzeraiño arrimatzen zituzten.

Emen kabarra aundi bat zuten, apropos egiña. Aurrean ezpaina ateratzen zitzaion, eta gurdia, idi eta guzi, barruraiño sartu. Ibaiaren alde batetik bestera soka fijo bat jarria; eta, ari eldu eta indar egiñez, kabarra alde bate-tik bestera eramaten zuten."

Ezin esango degu, beraz, Jose Bernardo gizon saiatua eta langillea etzanik.

\* \* \*

Zizurkilko Teodoro Mujika ere Otañotarren igeltsotegian lan egiña izan, eta onela esan digu:

"Igeltso-tegian langilleren batek min artzen bazuan, edo ondoeza egiten bazitzaion, leendabiziko kura Joxe Bernardoren alaba Adrianak egiten zion. Baita, ala bear bazan, oia eman ere. Biotz oneko emakumea uraxe!"

\* \* \*

Zizurkilko Adunibar-errotako Serapio Mendizabalek esan digunez, langille fama aundirik ez duten beste gizaki batzuekin ere izaten omen ziztuan artu-emanak Jose Bernardok: iji-toekin.

Sarritan etortzen omen ziran beren asto eta karroekin, eta Jose Bernardok

Errekalde aurreko eta erreka ondoko zelaitxoan egoteko baimena ematen omen zien.

Egunetan an gelditzen omen ziran, eta bein baiño geiagotan aurak jaio ere bai. Olako-etan, Jose Bernardo aitaponteko izaten omen zan, eta Bernardo edo Bernarda izena jartzen omen zien.

\* \* \*

Jose Bernardok izenpetutako kontu bat ere iritxi da gure eskuetaraiño. Onela dio:

"Cuenta que el que suscribe presenta a los herederos de D. Andres Zabala vecino de Aduna de los gastos procedentes de las obras egecutadas en la Tejeria llamada Zabaleco telleria, á saber -

1. Satisfechos al carpintero Martin Aizpurua vecino de Villabona .....	432 bñ.
2. Id. al albañil Angel Lizarraga vecino de id. ....	44 "
3. Por 2.600 tejas puestas por el que suscribe. ....	520 "
4. Por 900 ladrillos puestos por id. ....	100 "
5. Por 26 sacos de yeso puestos por id. ....	52 "
6. Por 26 atados de ripia puestos id. ....	286 "
Total. ....	1.434 "

Cizurquil 18 de Enero de 1883

Jose Bernardo Otaño

Recibí dicha cantidad

Jose Bernardo Otaño."

Txanpon-mota ori erderaz reales de vellón zeritzana zan.

Kontu au liburu onen prestatzaillearen etxean agertu da. Ain zuzen, Andres Zabala ori beraren aitonaren anaia zan, Adunako Zabale baserrikoa. Zizurkilko Errekalde eta Adunako Zabale bata bestearengandik gertuan daude, eta alkarren artean artu-emanik izatea ez da arritzeko gauza.

Cuenta que el que suscribe presenta a los herederos de don Juan de Labata y Nieto de Estreña de los gastos procedentes de las obras ejecutadas en la finca llamada La Alameda de Estreña, a saber

	Mon. cont.
1. Satisfechos al carpintero Manuel	
Vizcarra y a cargo de Matheua	122,
2. Id. al albañil Angel Lizarra	
ya mismo de id.	46,
3. Por 2600 tejas puestas por el que	
suscribe	520,
4. Por 900 ladrillos puestos por id.	100,
5. Por 26 sacos de yeso puestos por id.	52,
6. Por 26 maderos de biza puestos id.	286,
	Total. P. de 1126,

Estreña, quil. 18 de Enero de 1889

Jose Bernardo Otaño

Recibi' dicha cantidad

Jose Bernardo Otaño

Jose Bernardo Otañoren firma, lan-kontu batean.

Irakurleak barka dezaidala, arren, gure aurrekoen aitamenak liburu ontan sartu izana.

\* \* \*

Leen esan degunez, Jose Bernardok, 1901 urte inguruan, etxe berria egin arazi zuan Errekaldetik gertu samar, Adunako partean.

Onela esaten zuan Zizurkilko Teodoro Mujikak *Joxe Bernardo Otaño* izeneko idazlan batean, *El Diario Vasco* egunkarian, 1988-ko otsaillaren 14-ean:

“Garai aietan, Errekalden, ikulluko ganaduez aparte, ardi mordotxo bat ere izaten omen zan.

Joxe Bernardok bazituen bere mende igeltsotegi eta teilleria ere; eta oien alboan, berari gogozko zitzaion egutera gozo batean, etxe polit bat egin erazi zuen, erdian balkoi dotore batekin, urrutitik ikusten zan erloju eder bat etxearen aurpegi erdian zuela.

Etxe oni *Belen* izenez deitzen zitzaion. Gaur tamalez eroria arkitzen da.”

Jose Bernardo etxe berrira aldatu zan, eta Errekalden beraren alaba Juana Bautista gelditu. Onen ondorengoak bertan jarraitzen dute gaur egunean ere.

\* \* \*

Jose Bernardoren igeltsotegiak azken txarra izan zuan. Onela zion Zizurkilko Teodoro Mujikak, *Lana*

izeneko artikulu batean, *El Diario Vasco* egunkarian, 1988-ko maiatzaren 22-an:

“Ez dakigu egokia izango dan igarotako gure urte batzuek aipatzea; bañan arrobiko lanaren berri zerbait ikasiak geranez, bertako gertakari txiki batzuen berri ematea agian etzaio gaizki izango irakurleari.

Bederatzi urte osatuak ditugu arrobiko lanetan: 1938-ko amalau urte bete genituen egun berean asi eta 1947 bitartea, ain zuzen.

Zizurkilko Errekalde baserriko Joxe Bernardo bertsolari entzutetsuaren semea genduen nagusi(3), eta bere aitak zuen leku berean zuen igeltso-arrobia.

Neguko otzari eta udarako beroari iges egiteko benetan lantoki berezia, lan astuna bazan ere.

Amabost graduko tenperatura egoten zan, oker aundi gabe. Lanerako ezin ohea.

Zenbat tonelada igeltso-arri atera ote zan andik? Metro askotako galeri dotoreak zituen, bere pillare egokiakin.

Euskal-Errian geiago ere izan zitezkean arrobi dotoreak. Bañan Errekaldeko igeltsotegia bezin dotorerik izatea, zail iruditzen zaigu.

Tamalez, gaizki bukatu zuen lantegi onek. Beraren gañetik pasatzen zan uraren kanal batek, maltzur jokatu zuen.

1949-ko udaberriko egun batean, illunabarreko zazpietan langilleak lanari utzi, eta bederatzia inguruan lur

gorik zegoen arrobia. Zortzi-amar bat lagunek milagro batez salbatu zuten bizia.

Kanal arek, alegia, piskana-piskana ura sartu egin omen zuan, eta mendia beratu eta azkenean erori."

---

1. Jose Bernardo teillerian aritzen omen zan, eta

semea igeltsotegian. Oñatiarrak izaten omen zituan arek langilleak; lau lagun-edo. Baiña udaran bakarrik, iru edo lau illabete. Neguan ez. Eskuz egiten zuten tella.

2. Adunako 4-garren eriotz-liburutik.

3. Delfin, Pasuseneko txaletcan ezkondu bizi zana. Familirik etzuten izan. Bat-batean il zan, irurogei urterekin, 1946 urtean. Arrobi dana lurpean omen zan. Galeri izugarriak, ederrak. Ogei ta bost metroko putzua ere ba omen zan, goitik beera.

## AOTIK AORA

Bi bertso auk Jose Bernardok kantatuak omen dira. Otañotarren kastakoa zan Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanak eman zizkidan.

Zuaz Otabardira,  
jo zazu atia,  
an etorriko zazu  
estudiantia;  
pipa baldin badezu  
tabakoz betia,  
pipa bi artu arte  
badu aguantia.

Esaten badizute  
ez dala etxian,  
an nunbait izango da  
bere parajian;  
ez da joana izango  
mendi apartian,  
Goruatik Aldaiara  
biyen bitartian.

Otabardi, Gorua eta Aldaia Asteasuko baserriak dira, elizatik gora joanda daudenak.

\* \* \*

Onako bertso au, Jose Bernardok Goizuetako Xardiari kantatua, Otañotarren kastakoa egiten zan aitoren bati jaso nion. Baiña beraren izenik ez nuan idatzi.

Ez nau ikaratutzen  
gizonen orruak,  
ikusi izan ditut  
bajutzen arruak;  
urrin ogei ta beatziyan  
ziran enbarguak,  
adios Xardiaren  
idi ta karruak.

Xardiak beatzen batzuk falta-edo, eta aren eskuak sarde baten antza omen zuan.

Alperrik joan zitzaion Jose Bernardo, zor zeuzkan igeltsuak eta abar ko-bratzera.

\* \* \*

Zizurkilko Serapio Mendizabalek, berriz, beste onela eman zidan bertso au bera:

Ez naute ikarutzen  
gizonen marruak,  
orain dira umildu,  
len ziran arruak;  
abenduaren seian  
ziran enbarguak,  
adios Xardiaren  
idi ta karruak.

\* \* \*



Donostian bizi zan eta Otañotarren  
kastakoa zan Antonio Mendizabal  
Otaño zanari zor dizkiogu urrengo  
auek. Erriko bikarioari kantatuak  
omen dira:

Don Gillermo Arana  
da bikariyua,  
oraingo ontan dago  
goraño iyua.

Portatu da don Justo,  
baita ere don Juan,  
jauna onen premiya  
emen bazeguan.

\* \* \*

Beste auek ere Antonio Mendiza-  
bal Otañoren aotik jaso genituan.

Igande batez, Billabonako taberna  
batean, kontrariorik gabe jardun omen  
zan Jose Bernardo bertsotan.

Biamamonean, teillaz kargatutako  
karroarekin Tolosara zijoala, bertso au  
kantatu zion bateonbatek, Don Fidel  
Lizarragaren aginduz:

Asko izaten gaituk  
astelen goizetik  
begiya erdi more,  
ezin egon zutik;  
ez dek arronkaz aitzia basta  
bezpera arratsetik,  
orrek ondorenguak  
ekarritzen zetik.

Eta Jose Bernardok:

Aditu izandu det  
makiña bat bider,

goizetik jale ederra  
dala gure Fidel;  
len zeukan tripa ximur,  
orain dauka *nivel*,  
gutxienaz jan ditu  
kilo t'erdi gibel.

Fidel Lizarraga jaun ori, Billabona-  
ko alkatea izan zan 1879-tik 1883-ra  
arte.

\* \* \*

Azkoitiko Antonio Zubizarretari  
zor diogu urrengo beste bertso au.

Jose Bernardo, Usurbillen izan zan  
batean, Gaztelu bertsolariarekin jardun  
zan bertsotan, Au artean gaztea noski.  
Bukaeran bertso au kantatu omen zuan  
arek:

Amak eindako semiak  
toki askotan dire,  
gaur ikaratu eta  
gelditu naiz ni're;  
Gazteluk kenduko'igu  
danoi banderie,  
bestiak beste gerala  
au dek landarie!

Duda bat egin diteke: Jose Bernar-  
dok *banderie* eta *landarie* esango ote  
zuan? Zizurkil aldeko izkera ez da  
beintzat.

\* \* \*

Amezketako Garaikoetxea baserri-  
ko Jose Etxeberriak onela esan zigan:

“Gure aita zana artzai, eta osaba za-  
ar bat ere izaten genduan artzai, aita

zanaren osaba, eta aiek Beaskin izeneko saroi batean. Saroi esaten zaio txabol mordoxka dagoan puntu bati. Eta Beaskin ori, Igaratzako refujioa baiño Zaldibi alderaxeago, leenbiziko txabolak. Eta an ardiekin, artaldearekin, ezagutu omen zuten aiek Jose Bernardo Otaño."

Urrengo, gertaera eta bertso auek eman zizkigun:

"Bein batean, Jose Bernardo ori tabernan; eta baserritar kirtenen bat ganaduzale koskorra omen zan oso. Etxera ganadu asko ekarri, baiña denbora gutxian ona eduki.

Baiña beti erronkan eta ola:

- Nere idiak bezelakorik etzegok inguru ontan! Nere idi gorriak bezelakorik!

Eta bertso saioen bat egin du Jose Bernardo orrek, ezin egon ba, eta onako au kantatu omen zion:

Tiratzen dituk kolpe  
ikaragarriyak,  
onen esanai gaude  
ondo igarriyak;  
badaduzkala diyo  
iriyak larriyak,  
bizkorrak eta onak,  
kolorez gorriyak,  
beraz izango'ituzu  
ekarri berriyak."

Gertaera eta bertso auek beste onela eman dizkigu Zizurkilko Teodoro Mujikak, orri batean idatzita:

"Lakatx deitzen zioten itzai bat bai omen zan Sorabillan. Idi berriak ekartzten zituenean, gizenak izaten omen

ziran, baiñan bereala argaltzen omen zitzaizkan.

Erosi eta ekarri berriak zituen batean, bere idi oiek famatzen ari omen zan gogotik Lakatx itzai ori.

Onela kantatu omen zion Joxe Bernardok:

Lakatxen esanari  
gaude igarriyak,  
badaduzkala diyo  
iriyak larriyak,  
aundik eta gizenak,  
kolorez gorriyak;  
oiek ez ditu izaten  
nai ditun guziyak,  
beraz izango dira  
ekarri berriyak".

\* \* \*

Billabonako *Izkiña* tabernaren parean alkarrekin topo eginda, asierako puntu au kantatu omen zion bateonbategen Jose Bernardori:

- Emaztia zer moduz,  
Bernardo, aspaldian?

Eta Jose Bernardok onela erantzun:

- Etekiña maiz degu  
gure alderdian;  
urtian aur txiki bat  
badegu titiyan,  
belar berriya maiz dek  
gure barrutian.

\* \* \*

Bertso au onela kantatu digute Zizurkilko Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak, itzak zerbait aldaturik:

Emazti-a zer moduz Bernar-do, as  
pal - di - yan?  
e-ze-ren fal - tik ez da u-ra dan  
to - ki - yan;  
ur-ti - an aur txi - ki bat ba-de - gu  
ti - ti - yan,  
be-lar be-ri-ya maiz da gu-re ba-  
rru - ti - yan.

Izenik artu ez nion beste batek, ber-  
riz, onela esan zidan:

“Jose Bernardo Otañok famili aun-  
dia zuan. Ona emen Pello Errotari  
eman zion erantzuna, alkarrekin ber-  
tsotan ari ziran batean:

Nere andria sartu zan  
toki egokian,  
ura ez da galduko  
ni naizen tokian;  
aur bat sabelian da  
bestia titiyan,  
belar berriya maiz dek  
gure barrutian.”

Zizurkilko Teodoro Mujikak, *El  
Diario Vasco* egunkarian, 1989-ko  
otsaillaren 18-an, *Joxe Bernardo  
Otaño* izeneko idazlan batean, onela  
zion:

“Bernardoren emaztea oso ezaguna  
zuen batek, urte batzutan bera ikusi  
gabe zegoelako-edo, onela galdetu  
omen zion, bertso bati asiera emanez:

- Emaztia zer moduz,  
Bernardo, aspaldiyan?

Bernardok erantzun:

Argandik mixeriya  
dago urrutian.  
Urtian aur txiki bat  
badauka titiyan,  
belar berriya maiz dek  
gure barrutian.”

\* \* \*

Teodoro Mujika onek berak, idazlan berean, Jose Bernardoren beste gertaera au kontaktzen digu:

“Garai aietan bi morroi izaten omen ziran Errekalden. Bi oietako bat, Erreteriko semea, nere aitona, ain zuzen. Au gaixotasun larri batean erori.

Orduan Joxe Bernardo, zerbait kezkatuta-edo, bera zegoen oe ondora joan eta onela galdetzen dio nere aitona-ri:

- Zer moduz ago, Manuel?

Eta berak erantzun:

- Naiko gaizki.

- Ez al genikek obe izango ire aitari abixatzea?

Eta Manuelek:

- Obe izango da, bai.

Joxe Bernardok berriro:

- Erreterin zein kaletan bizi dek ire aita?

Manuelek:

- Kale Santa Marian. Bañan ez dakit etxearen zenbakirik. Eta nere aitak Fernando du izena.

Ostera Bernardok:

- Ez al dago an inguruan dendaren bat edo orrelakorik?

Manuelek:

- Panaderi bat aurrez-aurre.

Orduan artzen du Bernardok luma, eta orri txurian au idatzi omen zuan:

*"Renteria.*

*Calle Santa María,*

*Frente panadería,*

*Fernando Salaberría."*

Beraz, arkibide txukun au eman zion nere aitona-ri morroi lagunari, esanez:

- Esaiok gure etxera bidean jartzeko lenbailen Manuelen aitari."

Teodoro Mujikak, Jose Bernardoren illoba Pedro Mari aitatu ondoren, bertso onekin bukatzen zuan bere idazlana:

Alkar gozatutzeko  
ain biotz berakin,  
barruan zeramaten  
ainbeste berokin,  
munduan izan zuten  
maitasun berakin,  
goitar Jaunak ditzala  
betiko berekin.

\* \* \*

Beste au ez dakit noren aotik jaso nuan, txeetasun ori apuntatzea aztu egin zitzaidan eta. Baiña Jose Bernardok kantatua omen da:

Gizon au bizi zaigu  
komententziyan,  
atzo Tolosan zan da  
biyar Donostiyan;  
bera gañian eta  
biorra azpiyan,  
orrela ibiltzen da  
al duen guztiyan.

\* \* \*

Bein batez, Andoañen jaio eta Adunan bizi zan Pedro Santa Krutz

bertsolaria, txekorra saldu eta bueltan zetorrela, Karidadeko bentan sartu omen zan. Antxe topo egin omen zituau bi Otañotarrak -Errekalde Zaarra eta Jose Bernardo- eta Pello Errota.

Pello Errotak orduan:

- Lau bertsolari bildu gera. Bana edo bina kantatu bear degu.

Beste batek onela esan zuan:

- Astekotan, zaarrenetik asi.

Ala, Errekalde Zaarrak kantatu zuan leenbizi. Urrena, Pello Errotak. Irugarren, Jose Bernardok bertso au:

Asko egoten dira  
bizimouz etsita,  
gizonik ezin leike  
obeto ibilli ta;  
noizik bein egiten du  
Kaidaden bisita,  
iltzia lastima da  
orrela bizita.

Pedro Santa Krutz bertsolaria Ernaniko Ereñozu baillarako Alkatxuin baserrira aldatu zan gero bizi izatera, eta bertso eta gertaera aukeratu jaso genituan, beraren ondorengoan dan Martin Jose Santa Krutzen aotik.

\* \* \*

Urrengo iru bertsoak, eta aurreko adierazpenak ere bai, Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanaren pauperetatik artuak ditugu. Onela dio:

"Jose Bernardok onela kantatu omen zion bein batean Pedro Mariri:

Ezkondutzeko omen daukazu bildur aundiya ta lotsa, alare andrea ona aterako baldin balitzaizuke utsa; txarra gertatzen baldin bazaizu ura da alderdi motza, ark izango du oia berua eta sukaldea otza.

Orrela kantatu izan oi da beti Errekalden, entzuten danez; baña badi-ra tokiak era ontan agertzen dutenak:

Mutil zar oik ezkondutzeko bildur aundiya ta lotsa, danei andre onak portunatuko baldin balitzaizkike utsa; txarra egokitutzen bazaie dator burubide motza, ark seguru du oia berua eta sukaldia otza.

Andoain aldean, berriz:

Ezkondutzeko batzuek dute bildur aundia ta lotsa, alare andria ona aterako baldin balitzake utsa; txarra gertatzen baldin bazaie ura da alderdi motza, ark izango du oia berua eta sukaldea otza.

Dana dala, Bernardok Pedro Mariri botatakoa omen da, Donostian."

\* \* \*

Bertso pare au Pasai San Pedroko Antonio Salaberriari jaso nion. Bi-

garren bertsoaren beste era batzuk *Txirrita* liburuan (*Auspoaren Sail Nagusia*, I, 81 orrialdean, arkituko dituz irakurleak.

Bein batez, zazpi bertsolari bildu omen ziran Ernanin; eta, beren otordulegea egin ondoren, kantu lanari ekin zioten.

Zizurkilko Jose Bernardok izengoitia *Baria* omen zuan, eta Txirritari bertso au bota zion:

Joxe Bernardo ikasia da  
atia zefñi iriki,  
ta pamiliko buruzbidia  
jarri nai luke egoki.  
Mutil zintzoa nola zeran zu  
nere alabak badaki,  
gure etxera juan zaitez ta  
biziko zera ederki.

Txirritaren erantzuna au izan omen zan:

Zure alaba enpleatzeko  
artu dituzu idiak,  
orretarako biarko ditut  
etxeko eskubidiak.  
Terrenu oitan zabalduko'itut  
simaurrak eta kariak,  
muturra atzera biarko ditek  
inguru artan bariak.

\* \* \*

Zizurkilko Teodoro Mujikak, berriaz, onela esan digu:

"Joxe Bernardo bertsolariak Txirritari zortziko txikian kantatu zizkion bi puntu auek dakizkigu, eta Txirritak

zortziko aundian erantzundako bertsoa.

Joxe Bernardok:

Bost alaba badauzkat  
zure izenian,  
bat aukeratutzero  
atoz nai'zunian.

Nik uste det era ontan edo antzekoan osatua izango zala bertso au:

Piyatzen bazerade  
nere esanian,  
sartuko zaitut oso  
bide zuzenian.  
Bost alaba badauzkat  
zure izenian,  
bat aukeratutzero  
atoz nai'zunian.

Dana dala, Txirritaren erantzuna onela ikasi genduan:

Ni etxera sui eramateko  
artu dituzu idiak,  
orretarako libre biatut  
nik orrerako bidiak.  
Eramango'itut berealdiko  
simaurrak eta kariak,  
muturra atzian biarko ditek  
ango karakol bariak."

\* \* \*

Beste bi bertso auek ere Pasai San Pedroko Antonio Salaberriari jaso nizkion. Onela esan zidan:

“Beste batean, Txirrita Zizurkillera joan eta leenbizi Jose Bernardoren alaba ikusi omen zuan, zelaian paotxa ebakitzen ari zala.

Galdetu zion:

- Aita non da?

- Or da nonbait ere etxe aldean.

Eta bertsoa bota omen zion Txirritak Jose Bernardo edo *Baria*-ren alabari:

Gauz bat esango dizut  
modu ondraduan,  
noski ez naiz asiko  
emen endreduan.  
Nunbait egongo zera  
aldarte beruan,  
gaur orla zabiltzan  
udako beruan,  
ezta atsegin izango  
zure inguruan.

Eta Jose Bernardoren alabak erantzun au eman zion:

Arrazoi orrek badu  
bere parezera,  
konprendituko dezu  
mutilla bazera.  
Udarako beruaz  
kejatzen al zera?  
Lana ortan badezu  
egiten atzera,  
praille sartu ziñazke  
komentu batera."

\* \* \*

Ernaniko Pablo Zubiarrainek,  
Ernani-Txikia bertsolariak alegia, esan

zidanez, urrengo bertso auk Txirritak eta Jose Bernardok alkarrri kantatuak omen dira.

Txirritak:

Madriden daukat nik andregai  
ondo leiala ta fiña,  
Maria Cristina deitzen zaiona  
eta bera erregiña;  
erretratua bialdu zidan,  
badirudi Ama Birjiña,  
neroni ere iruditzen zait  
banaizela aren diña.

Jose Bernardok:

Agidanian zere esposa  
nai zenduke erregiña,  
zuk diyozunez izango da ura  
ondo leiala ta fiña;  
iruditzen zait ez dala izango  
ura zureztat egiña,  
arek dadukan neskamia're  
bada zuretzako diña.

Bertso auen beste era batzuk  
*Txirrita* liburuan (*Auspoaren Sail Nagusia*, I, 114 orrialdean, arkituko ditu irakurleak.

\* \* \*

Leen esan degunez, Jose Bernardo azmantarrekin eta abarkekin ibiltzen zan. Gai ontaz onela esan digu Zizurkilko Teodoro Mujikak:

“Jose Bernardok azmantar dotoreak ibiltzeko oitura zuen. Bertсотara joan zan batean, Txirrita eta biak gertatu zi-

ran. Aitona, Jose Bernardo, goiz joan zuan oera. Txirritak, berriz, tabernan segi.

Andik ordu pare batera, lotarako prestatu zanean, beste gela batera joan bear zuan, baiña Jose Bernardo zegoan artara zuzendu zuten, maleziz edo intentzios, ea nundik ateratzen zan edo zer egiten zuen.

Sartu zan gela barrura, eta bai erropak erazten asi ere. Garai artan eletrikarik ez eta argi gutxi izango zuten.

Ala, galtzak kendu zituan arte ez omen zan ezertaz konturatu. Baiña orduan berebiziko azmantarrak eta abarrak ikusi zituan lurrean. Eta galtzik gabe, alkandora utsean, eskaillera burura atera eta onela abestu omen zuen:

Alkandora utsik asi naiz orain,  
aspertu nintzan galtzakin,  
ni ez nau iñork engañatuko  
gezurra eta saltsakin;  
aitona batek ekarri dizkit  
amalau libra zazarkin,  
oik danak baño naiago nuke  
txerri buru bat azakin.

Azmantarrari *zazarkiña* ere esaten diote, ba."

\* \* \*

I. Unzurrunzagak, berak prestatutako *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburuaren itzaurrean (*Kuliska Sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz*), onela esaten du:

"Donostiko barrio Loyolan pestak omen ziran artean, 64 urte izango dira

au gertatu zala, an ziran, ala bearrez, Joxe Bernardo Otaño eta beste gazte bat bertso-guduan. Loiolako plazan tabloiez estradua jaso zuten eta antxe zeuden bertsolariak jendearen gain elkarri zirikatzen. Baña jendea nunbait geiegi plazarako eta ango estuasunean bertsolarien aldamioan zerbait etenda balantzan asi omen ziran estradua gañean Joxe Bernardo eta bere lagunak, bertsoan ari zirala. Ordukoa du Joxe Bernardok bertso au:

Jendea arrimatzen  
gogor zaigu asi,  
indarrean ari ta  
zeñek atzerazi?  
Ez bagerade joaten  
emendik igesi,  
laister gera lurrean  
pulpito ta guzi."

Bertso au noren aotik jaso zuan ere aitortzen du:

"Beste esku gogoangarri bat ere izan det lagun jardun kaxkar ontan: nere aitona maitea. Larogeita sei urte ditu, baña burua argi oraindik beste zenbait urtetarako. Otaño-familia nunbait auzoko zitun garai baten Donostian. Joxe Bernardoren Loyolako "pulpito"-koan, an zan nere aitona Patxi, Donostiko Ayuntamientoak bialitako Aginaga jaunaren ondoan, parrez lertu bearrean. Baita ere Pedro Mari aurrenengoz Ameriketara zijoanekoan Pasaiko kaian agurtzera bildu ziran jende tartean...."

\* \* \*



Beste bertso au Errekalde Zaarra-rena bezela eman degu or goien. Baiña Jose Benardorena dala dionik ere bada. Onen billoba dan Jesus Iztueta Otañori onela jaso zion Teodoro Mujika adiskideak:

“Astearte gau batez, Jose Bernardo bere famili arteko neska gazte batekin zijoan etxe aldera. Bertsoak dionez, etzan aldapatsua izango bide ori, eta garai artan ere ikutu txikiak egiteko oitura ere bazuten. Jose Bernardok ere orrelako zerbait egiña izango zion neskatx oni.

Baiña neskatxa etzegen galda edo tenple onean, Bernardok bertsoaren aseran adierazten digunez; eta bultza, erori eta espalda atera zuen Jose Bernardok.

Ondorengo egunen batean bertso au abestu omen zuen:

Astiarde gabeko  
jendiaren galda!  
Erorita atera  
ein nuen espalda.  
Utsa zan izan balitz  
aldapa edo malda,  
ala biar danian  
nun-nai're igual da."

\* \* \*

Zizurkilko Serapio Mendizabalek, berriz, onela esan zigun:

“Bertso ori Eguberri bezperakoa entzun izan nion nik gure ama zanari.

Xalbadora, gure amona zana, artean neska gaztea, Zizurkillen enkar-

guak egin eta plaza aldetik etxera zertorren. Jose Bernardo, berriz, artean mutilla, etxetik plaza aldera tertulia egitera-edo; eta Loiditikan San Migelko ermita bitartean alkarrekin topo egin zutela.

Izketan jarri dira eta neskari zirri egiten asi Jose Bernardo ori. Baiña neskak iskintxoak egin eta mutilla lurrera erori.

Lurrera erori eta espalda atera. Eta orduan segituan bere buruari bertsoa zeratu omen zion:

Eguarri bezperako  
gizonaren galda,  
Salbadorai zirri eginda  
atera espalda;  
utsa izandu balitz  
aldapa edo malda,  
ala biar danian  
nunai're igual da."

\* \* \*

Urrengo bertso au, Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañoren aotik jaso da. Onela esan zigun:

“Andoaiñen ba omen zan *Jainkoa* esaten zioten gizon bat, Loinaz zana. Besteren bat ere ba omen zan nunbait ere, Olatzo-edo deitzen zana, baiña *Jainkoa* esaten ziotena. Egun batean, alkarrengana bildu eta karta jokoa dirua jokatzeko aritu omen ziran, zeñek baiño zeñek gezur eta tranpa geiago egiñez. Biaramonean bertso au kantatu omen zuan Joxe Bernardok:

Bat dala Loinaz eta  
bestia Olatzo,  
neronek ikusiak  
Kaletxikin atzo.  
Memoritik apenas  
zeuden oso mantso,  
alkar ezin peaturik  
bi *Jaungoiko* paltso."

\* \* \*

Loinaz ori Jose Kaietano Loinaz Otaño zeritzan. Aurrerago esango degunez, Berrospe etxekoa zan. Beraren ama, Juana Martina, Jose Bernardoren arreba. Bera, berriz, Jose Bernardoren alaba batekin ezkondu zan: Maria Katalinarekin. Don Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna, berriz, auen semea. Oso famili tarteko bati kantatu zion, beraz, Jose Bernardok bertso ori.

## JOSE BERNARDO ETA PELLO ERROTA

Jose Bernardo Otaño eta Pello Errota alkarren parienteak ziran. Erri banatakoak izan arren, bien etxeak, Errekalde eta Goikoerrota, ez daude alkarrengandik ain urruti. Adiñez, berriz, kide samarrak. Orregatik, bi bertsolari auek alkarrekin artu-eman aundiak izango zituztela ez dago zer duda egin. Makiña bat aldiz agertzen dira bien izenak garai artako aldizkarietan, erriren batean bertsoan izanak zirala esateko. Ona orain emen alkarri kantatutako zenbait bertso.

- Ni bezela, Bernardo,  
zu bertsolariya,  
eztezu engañatzen  
Pello Errotariya;  
kantuzko lana dala  
diyozu urriya,  
nola egiña daukazu  
zuk traje berriya?

- Ara Pello Errotak  
zer esaten duban;  
beste irabazirik  
ez al da munduban?  
Lengua urratuta  
premiyan nenguan,  
ardi zarrak salduta  
igaz artu nuban. (1)

- Elgetako indiano bat  
guregana da juntatu,

gizon umilla eta prestuba,  
ezin lezake faltatu;  
egiñ diyogun mesedia da  
bertso batzuek kantatu,  
zer esanikan eztadukagu,  
gelditu gera kontentu.

- Agur, don Jose Oiarzabal da  
bere konpañi prestuba,  
alabantza bat erakustia  
ez al da arrazoi justuba?  
Sinista beza nere egunetan  
ez naiz izango aztuba,  
berriz noiz ikusiko deran da  
eman biar dit eskuba.

Lau bertso auek Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian agertu ziran, 1898-ko uztailaren 21'ean, izenburu gisan itz auek aurretik zituztela: "Pello Errota eta Jose Bernardo Otaño Elgetan".

Leenengo bi bertsoak zortziko txikiak dira, eta beste biak zortziko aundiak. Orrek zera esan naiko du: ez dirala alkarren segiran kantatuak izango.

Urteari arreta piska bat eman bear genioke. Bi bertsolari auek artean bizi zirala argitaratutako bertsoak ditugu. Bertsoarako sasoz beteta ibiliko ziran biak ere garai artan.

\* \* \*

\* \* \*

Otañotarren kastakoa zan Andoaingo Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanari zor diogu onako au.

Xenpelar bertsolaria etxe billa omen zebillen, nagusiak bialdu zualako; eta Jose Bernardori galdetu omen zion etxerik bai ote zekian.

Xenpelarren bertsoa galdu zan. Eta Otañorenari ere puska falta zaio. Asteasuko Zeendi baserrian kantatua omen da.

Emen ari gerade  
gaztañak jaten,  
aurretik sartu ta  
atzetik irten,  
jeneru onek ez dit  
onik egiten.

Xenpelar bertsolaria 1835-eko ilbeltzaren 12-an jaio zan; eta 1869-ko abenduaren 8-an il. Jose Bernardo, berriz, leen esan degunez, 1842-ko urriaren 11-n jaio, eta 1912-ko ilbeltzaren 8-an il. Kide samarrak ziran, beraz. Auxe bakarrik: Xenpelarrek mundualdi laburra izan zuala; eta Jose Bernardok, arekin kantatzekotan, ogei ta zortzi urteak baiño leen egin bearko zuala.

\* \* \*

Jose Bernardok, bederatzi puntuko bertso au bota omen zuan bein batez Pello Errotari buruz:

Pello Errota nuen  
txit gizon alaia,  
beti zeukan gizon bat  
probatu naia;  
ta iritxi zitzaion  
bear dan garaia,  
bitartean etzegon  
entero lasaia.  
Bazeukan sasoaia,  
pronto arrazoia,  
egñala saia,  
beti badu gaia,  
beññere agortuko  
ez dan ibaia.

\* \* \*

Jose Bernardo eta Pello Errotaren arteko beste gertaera au, Zizurkilko Teodoro Mujikkak kontatu zuan idazlan batean, *El Diario Vasco* egunkarian, 1988-ko otsaillaren 18-an:

“Beste egun batez, Pello Errota eta biak, erri batean bertso-saio bat egiteko aurretik, kopatxo bana artzera joan omen ziran ostatu batera.


Bernardok markako edari on bat eskatu omen zuen, eta bai serbitu ere. Artu zutenean, Bernardok pagatzen du bien gastua. Eta onela dio Pellok:

- Etzekiat edari galestia gorik santa sekulan artu ote dedan.

Eta Bernardok erantzun:

- Eta merkeagorik artu al dek?”

\* \* \*



Jose Bernardo eta Pello Errota bertso kantari, *Argia* astekaritik, 1925-VI-14.

Jose Bernardok bertso aukeratu omen zituan bein batez Elgoibarren, Pello Errotarekin joanda. Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunak eman zizkigun:

Atzo etxetik irten giñaden,  
gaur Elgoibarko kalia,  
garizumaren denbora da ta  
sermoi bat egin nayian;  
praile berriyak sartu gaituzte  
lengo konbentu zarrian,  
zer mutil geran ezagutzeko  
ez gaude leku txarrian.

*Buenos días* esaten diet  
erantzirikan txapela,  
ez det nik uste jaun oriek ni  
preso artuko nauela;  
poltsan urriak bañan geiago  
dadukagu guk papela,  
pasaportiaz gañera tori  
komunioko txartela.

Leenengo bertsoa, Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren paperetan ere arkitu degu. Beste onela, ordea:

Atzo goizean etxetik irten,  
gaur Elgoibarko kalia,  
garizumaren ondarrerako  
sermoi bat egin nayian;  
fraile gaztiak sartu gaituzte  
lengo konbentu zarrian,  
zer mutil geran probatuzeko  
ez gaude leku txarrian.

\* \* \*

Leenengo bertso ori, Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bil-

duman ere arkitu genduan, *Mendizabal' dar Alexander* izeneko batek bialduta:

Atzo goizian Ernanin negon,  
gaur Elgoibarko kalia,  
pralle berriak sartu gaituzte  
lengo konbentu zarrian;  
erronka jotzen oitu gerade  
lengo aspaldi denian,  
zein obe geran ikusteko  
ez gera le \*

Bertso ori bera, Teodoro Mujika adiskideak Jose Bernardoren biloba dan Jesus Iztueta Otañoren aotik jasoa:

“Jose Bernardok bertso saio baten aseran Elgoibarren kantatua dala uste degu ondorengo au:

Atzo goizian Astiasun da  
gaur Elgoibarko kalia,  
garizumaren garaian gatoz  
sermoi bat egin nayian.  
Praile berriyak sartu gaituzte  
lengo komentuz zarrian,  
zer gizon geran probatuzeko  
ez gaude leku txarrian”.

\* \* \*

Beste bertso au ere Jose Bernardok Pello Errotari kantatua omen da. Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunak eman zigun. Berak Asteasun bildu omen zuan.

Goierritikan etorri zaigu  
ari gaiztoko erropa,

nere barkua zuzen dijua  
jotzen ez badu arroka;  
kantu lanian ezin eingo dek  
oraindaño ain erronka,  
notizi onak bialdu itzak,  
adios, Pello Errota.

Lengo lege zarrean  
aneako zortzi,  
ona izan ezkeru  
igual beatzi.

Eta Pello Errotak:

Neri ematen dizten  
lotsak eta penak,  
zulatzen ditudalako  
zaku besterenak!

.....  
.....

nunbaitetik bear dik  
berak ez duenak.

Egia esateko, gure belarrietarako  
gogor samarra egiten da *Goierritikan*  
*etorri zaigu* esaera, Zizurkilko batek  
Asteasuko bati kantatua izateko. Baiña  
orrela jaso genduan eta orrela irakurle-  
ari eskeiñi.

\* \* \*

Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz  
jauna zanari zor dizkiogu urrengo bi  
bertso auk:

Jose Bernardok:

Aizak, Asteasuko  
Pello Errotari,  
zenbat kentzen diyok ik  
zaku aundiari?

---

1. Bertso auk Errezilko Loidisaletxe baserrian ere  
eman zizkidaten 1956 urtean, aldaketa aukin: 1/1:  
Bernardo, ni bezela; 1/3: baña ez dezu izurratzen; 1/7:  
nundikan egin dezu; 1/8: traje ori berriya?; 2/5: lengua  
puskatuta.

Amezketako Garaikoetxeko Jose Etxeberriak ere  
eman zizkidan 1976 urtean, aldaketa aukin: 1/1:  
Bernardo, zu bezela; 1/2: ni bertsolariya; 1/7: nundik  
egin dezu zuk; 1/8: soñeko berriya?; 2/8: igez egin nu-  
ban.

## ADUNA

Itxura danez, Adunako erriarekin artu-eman aundiak zituzten Otañotarrak.

Arritzekoa ere ez da. Alde batetik, Zizurkilko eta Adunako plazara ia bide berdiña dago Errekaldetik. Bestetik, leen esan degunez, bi erri auen muga egiten duan erreka ondoan dago baseri ori, eta ortik beraren izena. Ortaz gaiñera, Jose Bernardok Belen izeneko etxea Adunako partean altxa arazi zuan.

Orain irakurleari eskeiñiko dizkiogun bertsoak ere Adunan kantatuak omen dira; eta guzi-guziak Andoaingo Jose Antonio Loinaz Otañori zor dizkiogu. Leen ere esan degunez, Otañotarren kastakoa zan apaiz jaun au.

\* \* \*

Adunan oillo jatea egin omen zuten, eta ordukoak omen dira Jose Bernardoren bertso auk:

“Azari berri orrek  
sar lekua nun du?”  
makiña bat pertsonak  
galdetzen omen du.  
Jakiñ badaramala  
ta iñork ezin kendu,

gu ez giñake gaizki  
au ondo bagendu.

Nik ollo jate ori  
txit ondo deritzat,  
orrek eralki azi  
bear digu itzak; (1)  
baita sendatu ere  
len genduzkan gaitzak,  
nungua zan ez jakin,  
jan genuben beintzat.

.....  
.....  
.....  
.....

etorkizuna ez jakin,  
konta zagun juna,  
Adunan ollo jatia  
egin zan eguna.

\* \* \*

Bein batez, Karidadeko bentan iru egun igarota omen zeuden Manuel San Migel -Errekaldeko morroia-, Portotxa eta Lorentzo Iyartzakoa, Manuel Xusparrarekin batera, etxera joan gabe; eta, bildurrez beteta, auxe asmatu zuten: Adunako Sonolako Axentxiogana joatea, Jose Bernardoren laguna bera, konponketa egitera.



Bi bertso aukeratuak, berriz, ez dakigu norenak izango diren. Jose Bernardo-renak, bearbada. Baiña gure apunteetan argibide ori gabe daude. Onela diote:

Kaidatetik atera  
gera baliente,  
Adunako Sonolan  
berriz korriente.  
Lorentzo Iyartzako  
genduben alkate,  
Manuel Xusparroko  
arren asistente.

Zer egingo'gu bada  
ontara ezker?

.....  
.....  
Edozein mozkortzen da  
ardua edan ezker,  
guazengatxik etxera,  
Manuel Xusparro.

Adunako Sonola garai batean taberna izan omen zan. Gaur etxe-bizitza da. Gure aur-denboran ere alaxe zan. Baiña oraindik ere bertan zegoan taberna izan zan denborako mai aundi bat. Ol zabal batzuk zituan gaineko aldean. Aritza edo ez dakit zer izango ziran. Baiña zuloz beteta zeuden.

Batean galdera au egin genion bertako orduko etxekoandeari, Juana Tejeria zanari:

- Mai onek zulo aukeratuak nola ditu, bada?

Onelatsu erantzun zigun:

- Etxe au taberna zala, erriko gizonak-eta onera etortzen ziran jai-arrak

tsaldea pasatzera. Pipa erretzailleak ere baziran tartean noski. Eta pipa piztutzeko, sukaldera joan, illenti gorri-gorri bat tenazekin artu, maira ekarri, pipa piztu, illentia mai gainean utzi eta bertan segi lasai asko, berriketan-edo. Baiña illentia artean itzali gabe eta suak zulo oiek egin.

\* \* \*

Ona emen Adunarekin zer ikusirik daukaten beste bi bertso. Zer arazo zerabilkiten ez da igertzen erreza. Leenengo bertsoan Aitza baserria aitatzen da. Zubitik gora plaza aldera goazela, antxe dago baserri ori, kamioaren eskubi aldera, Santa Krutz ermitaren atzean.

Adunara bialdu det  
morroia publiko,  
lenengo Aitzara  
joan zan nereko;  
lagun estimatuba  
det Jose Benito,  
ez det asko pentsatu  
ez dala etorriko.

.....  
Axentxio Mari,  
ez dirazu estimatu  
konbite eder ori;  
ofrezituba neukan  
bazkari bat zuri,  
alabantzak emanaz  
Aita San Joseri.

Adunako Jose Benito ori bertako Etxeberri baserrikoa izan ditek,

Zizurkilko Serapio Mendizabal eta Teodoro Mujikak esan digutenez.

Indartsu ikaragarria omen zan. Billabonako almazenera jetxi eta, asto-arekin ekarri bearrean, larogei kiloko zaku baba bizkarrean artu eta etxera eramaten omen zuan.

Bein batean, ordea, urrena billa etortzen zanerako, plomo puskak jarri omen zizkioten zakuan, aren indarrak zenbateraiñokoak ziran probatzearren. Ala, beti bezela etorri eta bizkarrean artu zuala. Kosta egin zitziola, baiña eramane egin zuala etxera ura ere.

Gure ume-denboran entzun genituan guk ere Adunan Etxeberriko indartsu onen beste gertaera batzuk.

Madrid-Irungo burnibidea garai artan egiten ari omen ziran, eta burnizko karril edo pieza luze oiek -ez dakit zenbat metro izango dituzten, baiña luzeak edozein moduz ere- esku batekin artu eta erabiltzen omen zituan arek.

Bein batean, basora joan eta an bi gizon enbor bat ezin jasorik; eta Etxeberriko indartsu onek eldu eta enborra eta gizonak, danak altxa.

\* \* \*

Adunako *Ezkerra*-k -Agerre base-rrikoa bera eta Juan Jose Gorrotxategi izenekoa- seme-alabak Ameriketara omen zituan; eta auei dirua eskatuz, bertso au egin omen zuan Jose Bernardok, aren izenean:

Bi seme eta alabatxo bat  
Buenos Airesa bialdu,

eta bestia Frantzisko Mari Habanan degu soldadu;  
onek sokorrituko omen nau  
iñola ere al badu,  
oiengandikan jakiña degu,  
aitak esperantza ala du.

\* \* \*

Beste batean, *Ezkerra* orrek puntua jarri omen zion Jose Bernardori, eta onek erantzun.

*Ezkerra*-k:

Jose Bernardo Errekaldeko,  
semiaik maite nituan...

Eta Jose Bernardok:

Zuria ez da milagro aundia,  
guk ere ala genituan;  
kanpotar bat geiago ez dakit  
zeñek izango zituan,  
nere biotza poztutzen dago  
noiz ikusiko dituan.

\* \* \*

Adunako Agerreko *Ezkerra* onen beste gertaera au kontatu digu Zizurkilko Adunibarko Serapio Mendizabalek:

“Gari-metak egiten zituzten garaian, amar bala pillan jarri eta bala bat, amaikagarrengoa, aparte uzten zuten. Beste amar jarri eta bestea kanpora. Amarreko balak esaten zitzairen oiei. Meta bakoitzean zenbat bala ziran, andik kontatzen zan. Era ortan

meta aundiak egiten zituzten; berreun balakoak ere igoal. Baiña beti ere zenbat bala zeuden jakiñaren gaiñean zirala. Kontaduria eramateko era bat, alegia.

Gero, an illebeta-edo egonda, eguzkitan ondo zeratu ondoren, meta ura eguraldi onarekin zabaldu eta orduan garia jotzen zuten.

Ala, Adunako Agerren gari-metak egin dituzte, amarreko balak bazterrean utzita, eta an egunak zeramazkiten. Baiña gure amona zanak, Xalbadorak, aiek egunero ikusten; gure amona orren jaiotetxea, Adunibarko-errota, eta Adunako Agerre alkarrengandik gertu baitaude; eta gau batean-edo zer egin du? Joan da sokarekin, amarreko balakin sorta egin, etxera ekarri, jalki, iriña egin, saldu eta aren diruarekin gona gorria erosi.

Urrena, Agerrekoak ere gure etxera etortzen ziran errotara; eta, *Ezkerra* ori etorri zan batean, gure amona Xalbadora orrek:

- *Ezkerra*, amarreko balai zer egin ien?

Arek:

- Etzekiñat. Batenbatek eraman zizkiñan.

Eta gure amonak:

- Ire amarreko balakin egindako gona gorria emen zeukat nik."

\* \* \*

*Astua* omen zeukan izengoitia Adunako aguazillak; Aizti baserrikoa bera. Eta ona, ori dala-ta, bederatzi puntuko bertso bat:

Bernardo, zure karta artu det txit gogoz,  
eta ez det espero dala gorrotoz;  
gaur ez det azeptatzen kasua dalakoz,  
zu ere utsegiña zenbat orrelakoz;  
Frantzisko da txit poz,  
*Mendigorri* ez da otz,  
kontatu Benitoz,  
nai zunian atoz,  
serbituko zaitugu aguazil ta astoz.

\* \* \*

Beste bi bertso auk ere, leen esan bezela, Jose Antonio Loinaz Otaño jaunari zor dizkiot. Arek emandako kopian, itz auk irakurtzen dira bertsoen aurretik: "Agaitz'ko Jose Mari errotariyak". Ala bada, bertso auk ez dira Jose Bernardorenak. Baiña iturri beretik datozen urak dira eta emen ezarri ditugu.

Agaitz-ko errota Adunako zubiaren ondoan dago, baiña Billabonako partean.

Ogei ta amairu kuarto,  
iya pezeta egin,  
ez naiz osatzen bañan aldetxuan nabil;  
sakelak utsak eta poltxikuak arin,  
pobriaren dirua beti dantzan dabil,  
aida, idiya, aida,  
lenbailen joan adi.



Oraintxen aspertu nauk  
kalez ta ibilliz,  
ez nauk aldi batian  
etorriko berriz;  
bizimodu zintzo bat  
jua daukat begiz,

nere andriak zer poza  
au egiya balitz!

---

I. Bearbada, *dizkigu* bearke luke emen.

## "BERNARDOREKIN KANTETAN"

Agaitz-ko errotari orrek bertso au kantatu omen zion bein batez Jose Bernardori, Karidadeko bentatik abia-tzerakoan:

Bernardorekin kantetan  
Praisku asi da benetan;  
eran diagu ta juan biarra  
daukagu bide txarretan,  
ez dakit nola pasako geran  
Zubiaurretxoko errekan.

Zubiaurretxoko erreka ori Errekal-de baserriaren ondotik dijoana da.

Eta Jose Bernardok onela erantzun:

Atera diyat idia,  
eta ez oso gabia:  
aurrera juanda ipiñi ezak  
presa gañian saria,  
ia an arrapatzen ote dekan  
Errekaldeko *baria*.(1)

Otañotarren izengoitia *Baria* bai-tzan.

Bi bertso oiek ere Jose Antonio Loinaz Otañori zor dizkiogu. Berak Zizurkilko Adunibar baserrian bildu omen zituan.

Bertso auek onela kantatu dizkigute Zizurkilko Serapio eta Inazio Mendi-zabal anaiak:

Fran-tzis - ko - re-kin kan - te -  
 tan Ber-nar - do a - si da be - ne -  
 tan; Fran-tzis - ko - tan, e-ran de -  
 gu ta juan bia - rrak gau-de bas-tan - te  
 bi-de txa - rre- tan, ez da - kit  
 no-la pa-sa - ko ge-ran Zu-biau - rre -  
 txo-ko e - rre - kan.

\* \* \*

\* \* \*

Beste iru bertso auk, berriz,  
Asteasun jaso omen zituan Jose  
Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunak.  
Baiña, emen esaten zutenez, beste bi  
bertsolari eta Jose Bernardo omen zi-  
ran; beste biak asierako bi bertsoak  
kantatu omen zituzten, eta Jose  
Bernardok irugarrena.

Ari gerade kopletan,  
ta aguardiente kopetan;  
Jose Bernardo, juan biar dezu  
entero bide txarretan,  
kontu egin zazu sartu etzaitezen  
Zubiaurretxoko errekan.

Átera diat idia,  
ez dek izango gabia:  
aurrera joanda para baiok  
presa gañian saria,  
ia an arrapatzen ote dekan  
Errekaldeko *baria*.

Eta Jose Bernardok:

Zuk esan dituzun itzak  
dira utsaren peskisak;  
ni ez nazute an geldituko,  
alper-alperrik zabilta;  
zure saria nik autsiko det  
barku zar bateren gisa.(2)

Eta bertso onekin bukatu omen  
zuan Jose Bernardok bertso-saio ura:

Zuek zeratela meriyo  
neri dirubak ariyo;  
gordeta alperrik edukitzia  
da berriz al kontrariyo,  
nere gustua orlaxe da ta  
nori zer inporta diyo?(3)

1. Bi bertso auk Tolosako Manuel Urreta zanari  
ere jaso genizkion, aren letra ezin ulertuz leenengo  
bertsoan bi utsune gelditu badira ere:

Bernardo, .... kantetan,  
..... artu da benetan,  
eran dezu ta juan bearrean  
daukazu bide txarretan,  
ez dakit nola pasako zeran  
Zubiaurretxuko errekan.

Atera diat idia,  
ez ala ere gabia:  
Araizko presa gañian joanda  
ia zabal zak saria,  
an arrapatzen ote dekan  
Errekaldeko *baria*.

\* \* \*

Errezilko Loidisaletxe baserrian, berriz, beste onela  
jaso nituan:

Ari gerade kopletan,  
bai aguardiente kopetan,  
Joxe Bernardo, joan biazu  
gauaz ta bide txarretan,  
begirozula deskuidatu or  
Zubiaurreko errekan.

Jose Bernardok:

Atera diat idia  
eta ez oso gabia:  
Zubiaurreko presa gañian  
zabald ezak saria,  
ia arrapatzen ote dekan an  
Errekaldeko *baria*.

2. Bi ikutu egin dizkiogu bertso oni. Jose Antonio  
Loinaz Otañoren idatzian onela dago leenengo lerroa:  
*Zuek esan dezuten itzak;* eta seigarrena: *barkuzar bate-*  
*nen kitia*.

3. Bertso au beste onela jaso nion Zizurkilko  
Serapio Mendizabali:

Zuek zeratela meriyo,  
neri diruak ariyo;  
pillatu eta edukitzeko  
batek e ez du baliyo;  
nere gustua olaxen da ta  
zeñi zer inporta diyo?

## ERRIZ-ERRI

Jose Bernardo Otañok Euskal-Erriko plazetan ere kantatzen zuan noski. Garai artako aldizkariak aren ibilleren berri ematen digute noizean bein. Beste aitamen geiago ere egingo dituzte, baiña ona emen guk arkitu ditugunak.

Elizondon Euskal Festak izan ziran 1879-an, uztaillaren 25, 26, 27 eta 28-an. Erriko festetan, beraz, Santiagotan. Jose Bernardo eta Pello Errota ere an izan ziran kantu-lanera deituak.

Aurretik onela adierazi zan bertsolari-saioa:

“Elcargoc emanen du 80 pezetaco saria Biltzar batec berehico duen gaiaren gañean cantuz bertso oberenac egiten dituzten bi bertsolarieri”. *Elizondoco Bestac, Pamplona, 1 de Mayo de 1879. (Programa). Revista Euskara, Pamplona, 1879, 151 orrialdean.*

Oso festa ederrak izan ziran: euskal idazleentzat sariak, pelota-partiduak, euskal dantzak... Jendea erruz. Iparra-girre ere an izan zan.

Bertsolariak, Jose Bernardo eta Pello Errota. Aien lana onela juzkatu zan:

*“A las tres de la tarde se celebró, en la plaza pública, el certamen de versolaris o improvisadores, tomando parte en él José Bernardo Otaño y Pedro José Elicegui, de Cizúrquil y Asteasu, en Guipúzcoa, respectivamente, a los cuales se adjudicó por mitad el premio de 80 pesetas, entregándoles además una cantidad de consideración que reunieron algunos aficionados.*

*Otaño y Elicegui improvisaron durante horas, con una rapidez, una oportunidad y una perfección notabilísimas, en diferentes metros, siendo este espectáculo, tan genuinamente euskaro, el que más agradó al público y más sorprendió a los que hasta entonces no lo habían presenciado, pues es verdaderamente admirable el ver a unos hombres sin instrucción alguna literaria, rudos y dedicados a oficios mecánicos, versificar correctamente y emitir conceptos poéticos, satíricos o profundamente filosóficos con la misma o mayor facilidad con que en otros países se habla en la prosa más vulgar. Otaño y Elicegui no son una rara excepción en la Euskalherria, donde se encuentran innumerables improvisadores en aldeas, caseríos y montañas; pero su facilidad es asombrosa y así lo comprendió la inmensa muchedumbre que les escuchaba, prodigándoles entusiastas aplausos y aclamaciones”. (Las fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo”, “Revista Euskara”, Año II, Pamplona, 1879, pág. 232.)*

*“Los versolaris guipuzcoanos Pedro Elicegui (a) Asteasu-errotaria y Bernardo Otaño, de Cizúrquil, que concurrieron a las fiestas de Elizondo, han hecho verdadero furor en aquel valle, donde va desapareciendo la raza de los improvisadores en lengua vascongada. Así es que, no sólo alcanzó el premio de las 80 pesetas, anunciado por la Asociación Euskara, sino que se les hizo cantar en el Casino, en la plaza y en buen número de casas particulares, obteniendo en todas partes grandes aplausos. Los versolaris han regresado a sus casas justamente orgullosos de su triunfo.” (Donostiako El Urumca egunkaria, 1879-VIII-3).*

Elizondorako joan-etorri artaz bertsoak moldatu zituan gero Pello Errotak. Baiña sail osoa ez da gorde izan; zati batzuk bakarrik baizik. Ikus: *Pello Errota (Auspoaren Sail nagusia, V)*, 35 orrialdean.

\* \* \*

Donostian, 1880-ko iraillaren 26-an, bertsolariak izan ziran. Onela dio *Euskal-Erria* aldizkariak, bere leenengo tomoan, 1880-an, 138 orrialdean:

*"El domingo último, 26 del corriente, se verificaron en el Teatro Principal de San Sebastián el anunciado concurso de bersolaris-improvisadores y la solemne distribución de premios a los escritores laureados en el certamen literario organizado por la comisión de Juegos Florales.*

*...Poco después de las once de la mañana se presentaban en escena, acompañados de varios miembros de la Comisión y de su Jurado especial, los bersolaris Pedro Elicegui, (a) el molinero de Asteasu, Jose Bernardo Otaño, de Cizúrquil, José Martín Udarregui(1), de Igueldo, Juan Bautista Aurquia (a) Gorriya, de Usúrbil, e Isidro Arancegui y Francisco Echeberria, ambos de San Sebastián, que fueron saludados por el público, con una salva de aplausos.*

*Los espectadores ocuparon inmediatamente sus asientos, a fin de no perder una sola palabra de aquella popular e interesante sesión; los improvisadores ocuparon los suyos respectivos, y entre los individuos de la Comisión ocupó el puesto señalado el Jurado especial nombrado para esta pacífica lid, compuesto del Presidente, Juan Manuel Alcain, respetable anciano de más de ochenta años, afamado bersolari de otros tiempos, que se veía elevado al honroso sitio por su larga historia y honrosos merecimientos, y de los vocales José León Lasarte y Antonio Anza, ambos personas competentes también en materia de improvisación."*

Ondoren Kanuto Inazio Muñoz jaunak itzalditxo bat egin zuan. Urrena, bertsolariak asi ziran:

*"...el Presidente del Jurado abrió la sesión con una improvisada estrofa de diez versos (amar puntu-koa) (2), dando las gracias a la Comisión por la honra que se le dispensaba al permitirle ocupar aquel sitio, señalando a los bersolaris el orden en que debían terciar, y autorizando a dar comienzo a los que formaban la primera binca.*

*Eran éstos Isidro Arancegui y Francisco Echeberria, ambos de San Sebastián, cada uno de los cuales improvisó alternativamente diez estrofas de a diez versos, cantando las excelencias del bascuence y pregonando la importancia de estas pacíficas luchas. A*

*pesar de ser relativamente novicios en esta clase de lides, cumplieron ambos su misión satisfactoriamente, mereciendo aplausos, especialmente al terminar las tres últimas estrofas, que indudablemente fueron las mejores.*

*Ocuparon inmediatamente los primeros puestos los conocidos bersolaris Juan Bautista Urquia, de Usúrbil, más conocido por el sobrenombre de Gorriya (el rubio), y José Bernardo Otaño, de Cizúrquil, cada uno de los cuales improvisó alternativamente, y en brevísimo espacio de tiempo, 26 estrofas de a diez versos.*

*La sola presencia de Otaño y Gorriya despertó vivamente la curiosidad del público, que les conoce de antiguo, y su peroración, ya grave, ya chispeante, delicada o intencionada, fue interrumpida repetidas veces con grandes salvas de aplausos. Las estrofas más sentidas y de mayor mérito fueron indudablemente las que dedicaron a recordar los servicios y las virtudes del padre de uno de ellos (Otaño), antiguo y afamado bersolari, a quien tienen hoy arrinconado en el hogar la edad y los achaques, que presidió hace todavía dos años el segundo de los concursos de esta índole, instituidos en 1877 por el Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad, y que en la imposibilidad de asistir personalmente este día a formar parte nuevamente del Jurado, envió a su hijo a que continuara las tradiciones de su familia, aun a trueque de privarse de su compañía en el solitario hogar.*

*A Otaño y Gorriya sucedieron en el palenque los populares improvisadores Pedro Elicegui, (a) el molinero de Asteasu, y José Martín Alcain, (a) Udarregui, de Igueldo, que figuran hoy en primera línea entre los mejores bersolaris del país.*

*Agudo, punzante y mordaz el primero, grave, sesudo y pausado el segundo, el contraste era completo, y la lucha no podía menos de ser presenciada con interés.*

*Desde la primera estrofa, Pello comenzó por arrancar grandes aplausos, por la decisión y valentía con que se lanzaba a la pelea, y con su viveza y pasión comunicó el mismo ardor a su contrincante Udarregui, que aunque algo más parado, no le va en zaga, en intención y en facilidad.*

*Udarregui es el verdadero tipo del improvisador bascongado: grave y sesudo de ordinario, intencionado cuando se le hiere, incansable en la lucha, que le presta cada vez mayores bríos, como el olor de la pólvora y el ruido del combate encienden el ánimo del guerrero, hábil en la polémica, con una gran dosis de esa gramática parda y esa filosofía práctica sui generis, que distingue a nuestros caseros, hasta con una entonación especial, de oscuro colorido, puede ser presentado, por*



todo este conjunto de cualidades, como uno de los ejemplares más típicos que quedan de esta antigua raza de improvisadores populares.

El número de estrofas improvisadas por Udarregui y el Molinero ascendió a 37, por cada parte, dándose el singular caso de que, el primero, en los últimos momentos de la lucha, y después de dada ya la orden de suspensión, cambiase repentinamente de tono y de metro, sin que se alterase en lo más mínimo por esta mudanza su contrincante, que, sin pérdida de momento, contestó con la misma decisión y el mismo aplomo en el metro elegido por Udarregui.

Grandes aplausos pusieron término a esta primera parte de la sesión, que fue escuchada con religioso silencio y con general interés. Todavía faltaba, empero, otra prueba más dura, y de la que también salieron airosos nuestros bersolaris, con gran admiración del público que presenciaba esta pacífica lucha.

La Comisión, deseando dar el mayor interés y la posible variedad a estos ejercicios, con el fin de probar hasta dónde llegan las fuerzas y el ingenio de estos improvisadores populares, acordó someterlos a la dura prueba de contestar a pies forzados que les eran señalados por los individuos del Jurado.

La prueba dio resultados verdaderamente sorprendentes, pues no podían menos de admirarse la pasmosa rapidez, la asombrosa facilidad, y la gracia e intención con que se completaban las estrofas, apenas les eran señalados los dos primeros pies por los individuos de la mesa.

Y cuenta que el metro adoptado (amar puntukoa) es uno de los más difíciles para el caso, pues les ponía en el trance de tener que completar ocho versos y de encontrar, por tanto, cuatro consonantes, empresa verdaderamente penosa, cuando, como sucedía frecuentemente, el pie forzado era de consonantes difíciles o poco comunes.

...He aquí, ahora, un resumen del número de versos improvisados en la hora y media próximamente que duró la sesión.

El presidente del Jurado: 2 estrofas.

Isidro Arancegui: 10 id. más 5 con pie forzado.

Francisco Echeberria: 10 id. más 5 con pie forzado.

José Bernardo Otaño: 27 id. más 5 con pie forzado.

Juan Bautista Urquía, (Gorriya): 27 id. más 5 con pie forzado.

Martin Udarregui: 37 id. más 5 con pie forzado.

El Molinero de Asteasu: 37 id. más 5 con pie forzado.

Que hacen un total de 150 estrofas, más 31 con pie forzado, que suman un total de 1.810 versos. Es decir, sobre dos versos por minuto(3). ¿No es esto admirable?"

Gure iritzirako, "dos estrofas por minuto" esan bearko luke emen.

Epai-maiaren erabakia onela izan zan:

"...acordó considerar como iguales, en primer término, a los cuatro improvisadores Elicegui, Udarregui, Otaño y Urquía, concediéndoles de las cantidades señaladas para premios a veinticinco pesetas a cada uno, y como más inferiores ya, y en segundo término, a los dos restantes, a quienes se otorgó, como recompensa, a diez pesetas, de los mismos fondos.

...Diremos únicamente, para concluir, que terminado el programa oficial de la función, los bersolaris Pedro Elicegui y Martín Udarregui se prestaron espontáneamente a una nueva sesión de improvisación, que duró hasta después de las doce, y en la que ambos disertantes demostraron sus especiales condiciones, produciendo verdadero entusiasmo en el público, que les escuchó con verdadero deleite, y les colmó de atronadores aplausos, obsequiándoles con abundantes cigarrillos y llenando la escena de boinas y de sombreros."

\* \* \*

Urrengo urtean, 1881-ean, bertsolariak Santo Tomas egunean izan ziran, abenduaren 21-ean alegia, Donostiako Teatro Principal edo Teatro Zaarrean. Baiña Jose Bernardo epai-maikoa izan zan. Onela dio Euskal-Erria aldizkariak, bere laugarren tomoan, 1881-ean:

"Poco después de las cuatro ocupaban la mesa los individuos del Jurado especial D. José María Beguiristain (a) Lerchundi, de Aguinaga, D. José Zapirain, de San Sebastián, y D. José Bernardo Otaño, de Cizúrquil, y los individuos de la Comisión D. José María Beitia y D. José Manterola, presentándose ante el público los conocidos improvisadores Pedro Elicegui (a) Asteasu errotraria, Juan José Alcaín (a) Udarregui, de Usúrbil, Bautista Urquía (a) Gorriya, de

San Sebastián, Juan Cruz Elicegui (a) Oyarzungo erro-  
taria, de Asteasu, Isidro Arancegui, de San Sebastián, y  
Ugarte, de Cizúrquil, que fueron saludados con una  
salva de aplausos.

A las 4 y 20 dio comienzo la sesión, improvisando  
un zortzico cada uno de los tres individuos del Jurado,  
entrando inmediatamente en tanda Juan Cruz Elicegui  
y Bautista Urquía (Gorriya), que improvisaron 15 es-  
trofas de a ocho versos el primero y 14 el segundo, en  
el espacio de 12 minutos.

Siguieron inmediatamente Isidro Elicegui(4) y  
Ugarte, de Cizúrquil, cada uno de los cuales cantó 10  
estrofas en igual número de minutos.

Tras de ellos ocuparon los primeros puestos el  
molinero de Asteasu y el famoso Udarregui, notándose  
en el público un movimiento de concentración y silen-  
cio. El número de estrofas improvisadas por el primero  
ascendió a 30, y a 29 las del segundo, con la particula-  
ridad de haber cambiado de metro, sin que esta dificul-  
tad entorpeciera en lo más mínimo a los contendientes,  
en el último tercio de la lucha.

Acto seguido, los individuos del Jurado, Lerchundi  
y Otaño, improvisaron a 3 estrofas cada cual, indican-  
do el nuevo giro que iba a darse a la lid, obligándose  
a los bersolaris a improvisar con pie forzado. Otaño  
quedó encargado de dar los pies improvisando sucesi-  
vamente y por turno continuado a cuatro estrofas cada  
uno de los seis contendientes, y a dos más después con  
los pies señalados por el presidente Lerchundi.

Terminada esta parte, la más interesante sin duda  
de la sesión, los Jurados señores Zapirain y Otaño im-  
provisaron a ocho estrofas cada uno sobre el mérito  
mostrado por los contendientes, despidiéndose después  
todos y cada uno de ellos por turno alternativo, y po-  
niendo fin a la fiesta el Presidente con dos zortzicos  
más a las seis menos cuatro en punto de la tarde.

He aquí ahora un resumen del número de estrofas  
improvisadas durante la sesión por cada uno de los  
contendientes:

Lerchundi, presidente del Jurado:.....	6 estrofas.
J. Zapirain, miembro del mismo:.....	10 "
J. B. Otaño id. id. :.....	13 "
Elicegui mayor (el molinero) :.....	37 "
Juan José Alcain (Udarregui) :.....	36 "
Juan Bautista Urquía (Gorriya) :.....	21 "
Isidro Arancegui:.....	23 "
Juan Cruz Elicegui (el molinero de Oyarzun):.....	22 "
y Ugarte, de Cizúrquil:.....	23 "
que suman un total de 191 estrofas de a 8 versos.	

improvisadas en el espacio de 85 minutos, o sea sobre  
dos y medio versos por minuto."

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkariak adierazten  
duanez, Jose Bernardok-eta Ondarra-  
bian kantatu zuten, 1883-ko iraillean,  
ango Euskal Festetan. Onela dio:

"Amenizaron las fiestas, contratados al efecto por  
el Ayuntamiento de aquella Ciudad, los afamados im-  
provisadores José Bernardo Otaño, de Cizúrquil, José  
Martín Alcain (Udarregui), de Igueldo, Pedro Elicegui  
(el molinero de Asteasu), y Juan Bautista Aurquia  
(Gorriya), de Usúrbil, que hicieron las delicias del nu-  
meroso público que acudió a escucharles."

*Euskal-Erria* orrek berak, Ondarra-  
biko Klaudio Otaegik Donostiako Jose  
Manterolari zuzendutako eskutitz bat  
agertzen du, eta artan Euskal Festa  
aiek nolakoak izan ziran esaten digu,  
bertsolarien saioaren berri ere emanez:

"Guretzako jolasbiderik ederrenetako bat da bert-  
solariena, eta Bilgumak etzituen aztu. Nork esan lau  
bertsolari kaskazurik paratu zuten jostaera? Zeñek era-  
baki zein zan oberena? Nork zuzen esan aen itz ego-  
kiak, pentsamentu azkarrak, ziri zorrotzak, denak zu-  
zenduak, piska bateko bedeik ere, palta degun zorionta-  
sunaren alde? Ikusi egin bear dira gizon oek, bertsoetan  
ari diranean; aditu zer mintza diran, zeren ez da ñor  
oen itxura nolakoa dan esango duenik; eurak bakarrik  
dira aski piztuzeko, gartutzeko gure biotzak, euskara  
eta euskaldunok maite degun Amaren onean zernai egi-  
teko."

\* \* \*

Donostian, garai artan urtero egin  
oi zan bezela, euskal festa bat antolatu  
zan 1890-eko abenduaren 26-an, lite-

ratur sariak banatzearen. Bertsolariak ere izan ziran. Biaramonean onela esaten zuan *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak:

*"El espectáculo terminó con los indispensables versolaris Bernardo y Pello, que hicieron las delicias del público, excepto en el tema de Larramendi, que, dicho sea de paso, no se presta a esta clase de torneos, por ser más propios los asuntos picarescos. Por no saber qué hacer ya a Larramendi, uno de los improvisadores lo hizo santo. Todo sea por Dios."*

\* \* \*

Euskal festak ospatu ziran Azpeitian, 1893-an, irailaren 3, 4 eta 5-ean. Bertsolariak ere kantatu zuten leenengo egunean. Orduan asarretu ziran Pello Errota eta Udarregi. Bertso mitatzak bai jarri ere alkarri.

*Auspoa*-ren 27-garrenean, bertso oiek agertu ez-ezik, gauzak nola gertatu ziran azaltzen eta argitzen ere saiatu giñan.

Ona emen *Euskal-Erria* (XXIX tomoa, 1893) aldizkariak bertsolarien saiorearen berri nola ematen duan:

*"A las cuatro y media de la tarde se verificó el concurso de bersolaris improvisadores.*

*Cinco aspiraban al premio, pero se retiraron dos a última hora.*

*Lucieron, pues, su natural gracejo y habilidad en versificar en la rica lengua euskara tres individuos Pello Errota, molinero de Asteasu, José Bernardo, de Cizúrquil, y Juan José Alcaín (Udarregui), de Usúrbil.*

*El tribunal, compuesto de los muy competentes Sres. Azcue, Arrese y Aguirre(5), adjudicó por unanimidad el premio a Pello Errota, por el ingenio y donosura demostrados, así como por la relativa perfección con que construía las estrofas en un bascuence bastante castizo."*

\* \* \*

Jose Bernardo Otañoren izena 1896-an azaltzen da berriro *Euskal-Erria* aldizkarian, XXXV tomoan, Donostiako Santo Tomas eguneko jaialdien berri ematerakoan:

*"Puso término al espectáculo, que fue muy lucido, la sesión de bersolaris, en la cual tomaron parte José Bernardo Otaño, Bautista Urquía (Gorriya), Chirrita, Regino Sansinenea, Archaya y Chinchua. Sus improvisaciones, para las cuales les daba pie nuestro querido amigo D. José Zapirain, fueron celebradas con gran algarazara."*

Pedro Mari Otaño ere an omen zan, epaimaian, eta bukaeran bertso batzuk kantatu omen zituan berak ere, jendeak ala eskatuta:

*"También el conocido poeta bascongado Pedro Maria Otaño, que, en unión del Director y del Sr. Zapirain, formó el jurado de la sesión, fue ruidosamente aplaudido después de improvisar a petición del público de las alturas, compuesto, en su mayor parte, por honrados y sencillos jornaleros."*

\* \* \*

Donostian, 1897 urtean Santo Tomas egunarekin, bertsolari auek kantatu zuten:

*"Puso término al espectáculo la sesión de bersolaris, en la cual tomaron parte José Bernardo Otaño, José María Arregui, Chirrita y Regino Sansinenea. Les daba pie, con toda oportunidad, D. José Zapirain, y todos estuvieron felicísimos, siendo sus improvisaciones muy celebradas por la concurrencia."*

\* \* \*

Urrengo urtean ere, 1898-ko Santo Tomasetan, Donostian zan berriz ere Jose Bernardo Otaño bertso kantari:

"Terminó la fiesta con la sesión de bersolaris, en la que hicieron las delicias de la concurrencia José Bernardo Otaño, Pedro Elicegui, Regino Sansinenea y Juan José Lucambio".

\* \* \*

Zumarragako Euskal Festak 1899-ko iraillean ospatu ziran. Bertsolari-saioa illaren 17-an izan zan. Onela dio *Euskal-Erria* aldizkariak, bere XLI tomoan, 1899-an:

"A continuación se celebró la sesión de bersolaris, dirigidos por el popular D. José Zapirain, y en ella tomaron parte Pello-Errota, Chirrita, Regino y Otaño, haciendo, como siempre, las delicias del público."

Otañoren ponte-izena ez da esaten. Baiña Jose Bernardo da, dudarik gabe. Pedro Mari aurreko urtean, 1898-an alegia, Ameriketara joana baitzan.

Biaramonean beste saio bat egin omen zuten:

"Al anochecer hubo en el balcón de la Casa Consistorial sesión de bersolaris, quienes estuvieron más ocurrentes que el día anterior, siendo muy celebrados por el apiñado gentío que escuchaba desde la plaza..."

\* \* \*

Jose Bernardo Otañoren izena Donostiako 1902-ko Santo Tomasetan azaltzen da berririo. Orduan ere bertsolariaren jardunaldia izan baitzan. Onela dio *Euskal-Erria*-k (XLVII tomoa, 1903):

"En último lugar se verificó una sesión de "bersolaris".

En el escenario se hallaba constituido el jurado, compuesto de los señores siguientes: Don Antonio Arzac, don Miguel Salaverría, don Toribio Alzaga y don José Artola.

Colocados en dos filas de sillas, una en frente de otra, se sentaron los "bersolaris" siguientes: José Zapirain y José Bernardo Otaño, los dos veteranos bascófilos de esta provincia; Pedro Elicegui (Pello-Errota), de Asteasu; "Chirrita", de Rentería; "Gaztelu", de Usúrbil; y "Regino", de San Sebastián.

Estuvieron cantando versos desde las doce hasta la una de la madrugada.

Cantó primero la pareja "Zapirain-Otaño", que se contataron mutua e intencionadamente.

Después siguió a ésta la pareja "Chirrita-Gaztelu", y a continuación, la compuesta de "Pello-Errota-Regino".

Fueron ovacionados continuamente por las hermosas estrofas que cantaron y recitaron.

En resumen, la fiesta del día 22 del corriente dejará gratísimo e imperecedero recuerdo a todos los donostiarras.

Fue una fiesta brillantísima, muy grata y genuinamente de la "casa euskara".

Y hasta el año próximo."

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkariak (XLIX tomoa, 1903), Jose Bernardoren izena berririo agertzen du, Irungo urte artako Euskal Festen kronika egiterakoan:

"...se celebró el concurso de improvisadores populares, tomando parte el veterano y marrullero Pello Errota, de Asteasu; José María Lucambio y Berra (Tella Chiki), de Rentería; Bautista Gaztelu, de Usúrbil; Chirrita; José Bernardo Otaño, de Cizúrquil, y nuestro popular paisano Zapirain.

El acto se verificó en el kiosko de la plaza de San Juan y asistieron varios diputados provinciales y numeroso público, que rió grandemente.

En los primeros versos dirigió Zapirain un saludo a la Diputación y Ayuntamiento de Irún, siendo muy aplaudido.

La sesión se prolongó hasta después de las ocho, quedando a última hora la pelea entre Zapirain y Otaño."

1. Udarregik Juan Jose zuan izena; ez Jose Martin.
2. Amarrekoa izango zan, amar lerrokoa alegia; bost puntukoa, beraz.
3. *Verso* itza bi modutara erabiltzen da emen: lee-

nengo, aapaldi edo *estrofa* bezela; eta ondoren, bertso-lerro bezela.

4. *Arañcegui* esan bearko luke emen; ez *Elicegui*.

5. Resurrezion Maria Azkue, Felipe Arrese Beitia eta Txomin Agirre, alegia.

## ERIoTZA

Jose Bernardo nola il zan galdetu, eta onelatsu erantzun ziguten aren illoba Jesus Iztueta Otañok eta Teodoro Mujika adiskideak:

“Garai artan, *aldia* esaten zitzaiona egiten zan emen. Auzoko sei, zazpi edo zortzi baserritar bildu eta garotako garaian, eta belarretako garaian ere berdin, alkarri laguntzen zioten. Orri esaten zitzaion *aldia*.

Gero, garotakoa edo belarretakoa bukatutakoan, alkarrekin apariren bat egiten zuten. *Aldiko aparía* esaten zioten.

Ala, itzaiekin-eta aldiko aparía zuten batean, Jose Bernardo Zizurkilko Elbarreneko Teodosionean edo Pasusenean edo or zan nunbait ere. Eta bere illoba Julian Tapiari -bere arreba Juana Mikaelaren semeari- onela esan omen zion:

- Ez du ondo ematen kanpokoak etxean eta etxeakoak kanpoan, eta etxera nijoa.

Itxusia izango litzakela, alegia, aldiko aparira gonbidatuta zeuden kanpokoak etorri eta etxekoa faltatzea.

Ala abitua izango zan, baiña bidean zijoala perlesiak jo egin zuan, Adunako Eizagirretarren igeltsotegitik Otañotarren igeltsotegira bitartean.

Lurrean billatu zuten, artean bizi zala. Etxera jaso zuten, berak eragindako Belen etxera ain zuzen, baiña egun bat edo beste mututurik egon ondoren il zan.”

Irurogei ta bederatzi urte zituan, eta 1912-ko ilbeltzaren 8-garren eguna zan. Eriotz-agiriak dionez, “*de muerte natural, ocasionada, según certificación facultativa, por apoplejía*” il zan. Dakigunez, Belen etxea Adunako partean dago, baiña Zizurkilko kanposantuan lur eman zioten.(1)

Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, bere LXVI tomoan, 1912-an, Jose Zapirain eta Irastorzak eriotz onen berri lerro auen bidez eman zuan:

“Il onen zortziyan il zan Joxe Bernardo, bertsolari legun eta izkuntzalari gozua.

Zenbait aldiz kantatu degu alkarrekin, bai leku itxiyan eta bai zabalian ere. Euskal jaietan makiña bat aldiz entzun dira Joxe Bernardoren gain-gañeko neurtitzak.

Jaungoikoak jaso dezala bere beso errukitsuetan, biotz-biotzetik erregutzen dion bezela, beñere aztuko ez du ben adiskide onek.”

---

1. "En la Villa de Cizúrquil, provincia de Guipúzcoa, obispado de Vitoria, a diez de Enero de mil novecientos doce, previa licencia del Ilustrísimo Señor Obispo, fecha ocho de este mismo mes, di sepultura eclesiástica al cadáver de Don José Bernardo Otaño y Lasa, natural de esta Villa, de sesenta y nueve años de edad y de profesión labrador. Falleció a las once de la mañana del día de anteayer, en la Casa Belén, lugar de Aduna, provincia de Guipúzcoa, de muerte natural, ocasionada, según certificación facultativa, por apoplejía. Era hijo legítimo de Don Pedro María Otaño, natural de Larraul, provincia de Guipúzcoa, y de doña

María Micaela Lasa, natural de esta Villa. Se hallaba casado en el acto del fallecimiento con doña Clara Ignacia Odriozola, natural de la Villa de Beizama, provincia de Guipúzcoa. Recibió los sacramentos de Penitencia y Extremaunción. Otorgó testamento ante Don Lorenzo Saltarain, notario público de la Villa de Tolosa, provincia de Guipúzcoa. Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio Don Antonio Mendizabal y Don Ignacio Jauregui, de profesión labradores, naturales y vecinos de esta Villa. Para que conste lo firmo, fecha ut supra. Guillermo Arana."

(Zizurkilko laugarren eriotz liburuan, 41-garren orrian.)

## ONDORENGOAK

Jose Bernardok, leen esan degunez, bederatzi seme-alaba izan zituan. Beren jaiotegunak leenago emanda daude. Senide oiei buruz urrengo argibide aukeratu ditugu.

Zaarrena, Plazida, neska ederra eta bikaina omen zan; eta bertsoan ere moldatzen zana, Jose Bernardoren iloba dan Jesus Iztueta Otañoren aotik Teodoro Mujikak jasotako gertaera onak aditzera ematen duenez:

“Jai-bazkalondo batez, Errekaldeko sukaldean bertsoan ari omen zan Jose Bernardo, emezortzi urte besterik etzituen Plazida bere alabarekin.

Plazidak bere aitari bertso batean ari esan omen zion: edadez osatzen ari zala eta ezkontzeko asmoa zuela, eta beretzat dotetxea preparatzen asteko alegia.

Jose Bernardok erantzun:

Ezkondu bear denala,  
oi den baloria!  
Emezortzi urte den  
ire edadia.  
Pikara, gaizki azi,  
lotsarik gabia,  
ik aberastuko naun  
len banaiz pobria.

Plazidak aitari ostera:

Aita, zartu ta gero  
garai obia ezta,  
neska gaztiak ere  
badu bere kezka;  
illea zuriturik,  
nobiya ez-ta,  
orduaz alperrik da  
soñuba ta pesta”.

Ogei ta bost urterekin ezkondu zan, 1892-ko martxoaren 1-ean, Zizurkillen. Senargaia: Jose Bizente Zaldua Beitia, Amasakoa, ogei ta bost urtekoa bera ere, eta nekazaria.(1)

Ezkontzako agiriak *Jose Bizente* esaten dio. Ezagutu zutenak, berriz, *Jose Migel*. Ez dakigu zer izango dan. Emendik aurrera, ezagutu zutenei jasotako argibideak emango baititugu, *Jose Migel* idatziko degu.

Senar-emazte aukeratu Zizurkilko Benta izeneko etxean jarri ziran bizi izaten. Etxe ori beko auzoan dago, Elbarrenean alegia, Azken-Portuko parean, erreka bestetik.

Zizurkilko Teodoro Mujikak onela kontatu digu:

“Gure aitonak Manuel zuan izena, baiña San Migel esaten zioten. Errekalden morroi egona eta Plazidarekin





Juana Mikaela Otaño Lasa (1850-1939) eta Plazida Otaño Odriozola (1867-1954)

gustatzen asia izango zan. Baiña bera ez enteratu; kanpotik enteratu ura. Batean onela esan baitzioten:

- Aizan, Plazida: iretzako Manuel omen zegon gustatua.

Eta Plazidak:

- Manuel bezelakoak bi bear dizkiat nik.

Gurea txikia baitzan. Baiña Plazidak artu zuan ura ere txikia.

Ezkondu eta laster, Jose Bernardok onela esan omen zion bere langille bati:

- Aizak: joan adi Bentara eta Plazidari enkargu au emaiok.

Eta gure aitonak atzetik:

- Esaiok Plazidari Jose Migel bezelako bat naikoa al duan.

Plazidaren gizona, Jose Migel ori, beti karreteoan ibiltzen zana omen zan. Baiña urrutira joan gabe, enkargu motxak egingo zituan. Igeltsogetitik trenaren estazioraiñoiko karreteoan ere bera ibiliko zan, an bagoietan sartzeko.

Orain Lizarragak nola dauka talle-rra? Beste igeltsogetia or zan, eta andik ere bai bearbada. Zera oietara bide andik da eta etxe ataritik, Benta aurretik, askotan pasatzen. Eta andeari oju egiten omen zion:

- Neretzako gosaria pronto al daukazu, Plazida?

Onek:

- Oraindik ez. Urrengo biajerako preparatuko dizut.

Beste biajean etortzen omen zan, eta:

- Pronto al daukazu?

Eta:

- Ez. Zopa ta arraultza bakarrik falta zaizkit jartzea.

Eta aren gosaria zopa eta arraultza izaten omen ziran. Baiña Plazidari ere, beste askori bezela, kontutan eta tertulian gustatzen, eta artan denbora pasa."

Zizurkilko Serapio Mendizabali, berriz, onako auek jaso dizkiogu:

"Elegantea zan Plazida ori. Gero, gaiñera, alabak larruzko abrigoa erregalatu zion. Beti kartera edo poltsa batekin ibiltzen zan. Bein batean, Teodosioneko nagusiak ikusi eta onela esan omen zuan:

- Emen dek Plazida, bera baiño poltsa aundiagoarekin. Baiña pezta bat ez dik eramango.

Plazidak aditu eta:

- Aizak: zenbaitek diruz beteta baiño, nik utsik obeto luzitzen diat.

Otañotar guziak iztun egokiak ziran. Erantzuna beti prest."

Teodoro Mujikak onela jarraitu zuan:

- Alaba diruduna zuan orrek; diru puska bat zuana. Kanpoan izaten zan. Baiña, emen zegoan batean, Ama Birjiña Karmengoari urrezko errostariora erregalatu zion.

Garia bedeinkatzen ibiltzen ziran garai artan apaizak. Batean, ni monagillo nintzala, oien etxera ere joan -danetara aillegatzen baitziran orduan- eta bere bedeinkazioa egin zuan apaizak. Eta alabak eskua kolkoan sartu eta bost durokoa eman zion. Bost duro urte aietan diru asko zan."

Eta azkenik:

“Pedro Mari Otañori egin zitzaion leenengo omenaldia 1950-eko urriaren 15-ean izan zan. Omenaldi bildu eta gozoa ere bai ziur aski. Bertan izan ziran Migel Apeztegia apaiz jauna zana, Basarri eta Alzeta esaten zioten izlari bikaiña ere. Onek bertsolari eta bertso-laritzari buruz esan zituen itzak, benetan sakonak zirala esan bear; agian gaurko bertsolariei berriitu bear litzazkietenak.

Otañotar gizon aundi bat ere bazan donostiarra an; egun artatik laster il zan. Bera ere saiatu zan bertsolariei buruz goralmen ederrak egiten.

Tolosako Tximelak ere zerbait kantatu zuan. Urrena, berriz, Asteasuko Bautista Ondartza zanak, bertso bat onela bukatuz:

Nork du mingaña zu goitutzeko  
merezi dezun guzia?

Baiña gero, bazkaria Plaza-etxeberrin egin zan, eta bazkalondoan Plazidak Jose Bernardoren eta Pedro Mariren bertso batzuk ederki kantatu zituan.

Andik iru urte t'erdira il zan, 1954-eko otsaillaren 18-an, larogei ta zazpi urterekin.”(2)

\* \* \*

Bigarrena, Pedro Maria, 1869-ko urriaren 26-an il zan, urtebete eta iru illabeterekin.(3)

\* \* \*

Irugarrena, Inazio Maria. Igeltso-tegi eta teilleriaren ardura onek izaten zuan.

Zizurkilko alkatea ere izan zan. Etzan ezkondu.

Adunako Belen etxean il zan, 1918-ko urriaren 6-an, urte artako gripe gaiztoaz kutsatuta. Baiña Zizurkilko kanposantuan lurperatu zuten.(4)

\* \* \*

Leen esan degunez, Jose Bernardoren alaba Juana Bautista gelditu zan etxerako, Errekalderako.

Ogei ta lau urte zituala ezkondu zan, 1897-ko apirillaren 27-an, Zizurkillen. Senargaia, Inazio Maria Garmendia izan zan, ogei ta iru urtekoa, zizurkildarra bera ere, eta nekazaria.

Jose Bernardo eta familiko gaiñontzeko lagun guziak Belen etxera aldatu ziran. Or goien esanik daukagunez, etxe ori Jose Bernardok berak egin arazi zuan, 1901 urte inguruan, Adunako partean, Errekaldetik urbil samar, aldapatxo batean.

Inazio Maria Garmendia ori il eta Juana Bautista berriro ezkondu zan, 1902-ko garagarriaren 12-an, Zizurkillen. Senargaia, Jose Lorentzo Iztuetta Dorronsoro izan zan, Ikaztegieta jaio eta Lasarten bizi zana, langillea, ogei ta bost urtekoa.

Juana Bautistak, leenengo senarrangandik seme-alabak izan zituan: Jose eta Maria; abizenez Garmendia Otaño noski. Eta bigarren senarrangandik, Jesus, zaarrena eta gaur egunean bizi dan bakarra; Josefa Antonia;

Inazio, Aiako Joxemaritxoren alabarekin ezkondua eta Inazio Errekalde esaten ziotena; Frantzisko edo Paiko, Belenera ezkondua; eta Anita, Donostiako *Basollua* elkarteko etxe-koandrea.

\* \* \*

Aian bizi izan zan Inazio Errekalde orri buruz, onako gertaera aukeratu idatzi dizkigu bertako Jose Mari Lertxundi adiskideak:

“Iñaxio Errekalde arakiña zan bere ogibide edo ofizioz, eta Aiara ogei ta amar bat urterekin etorria izango zan. *Joxematxone* deitzen zitzaion etxean jarri zuan arategia. Etxe ortako nagusia zan Joxe Mari, eta ortik zetorkion izen ori.

Nagusi onek bi alaba zituan: Mercedes eta Maria. Bigarrenengo orrekin ezkondu zan Iñaxio, eta etxe berean bizitzen ziran Iñaxio eta Maria senar-emazteak, Joxe Mari aitagiarraba, Mercedes koiñata, Asun eta Iñaki seme-alabak. Asun, berrogei urterekin, oraintxe urte ingurua da il zala. Iñaxio eta Mariaren ondorengoetan Iñaki bakarrik bizi da, eta bera ere ezkondua da. Bi seme baditu eta Aian bizi da bere sendiarekin.

Iñaxio Errekalde irurogei ta amasei urterekin il zan. Bizi izatera, aurtan larrogei ta sei izango zituan. Amar urte badira, beraz, gure artetik ezkutatu zitzaigula.

Ez dakit, ziur esateko, nun jaioa zan. Baiña bizi badakit Zizurkilko Errekalde baserri sonatuan egin zala. Pedro Mari aundiaren odolekoa zan.

Iztueta Otaño zituen abizenak. Berari entzun izan nizekion gauzengatik dakit aren berri, eta adibidez oietako bat kontatuz asiko naiz.

Iñaxio oso joko edo apustuzalea zan, eta dirua jokatzan ere zekiena. Bein batean, artean Zizurkillen bizi zalarik, Tolosako zezen-plazan, eguerdian, korrika-apustua omen zan, eta Iñaxio zanak asko xamar galdu. Arratsalde berean aizko-apustua, eta goizean galdutakoak an kitatzeko asmotan jokatu eta berriro ere galtzaille gertatu.

Ondoren, parranda puxka bat egin eta goizeko irurak aldera etxeratu omen zan, eta berekiko omen zion: “Orain oera joaten banaiz, begirik ixterik etzedukat. Obe diat lanean asi”.

Orduan idiak uztartu omen zituan -illartargia omen zegoan- eta ondoren etxe ondoko erribera goldatzen ekin omen zion, eta urrengo goizeko amarrak alderako dana goldatu omen zuan. Baiña, ortarako, egunsenti inguru ortan auzoko gizon bat etorri omen zitzaion, arrituta bezela esanez berari:

- Baiña, Iñaxio! Gauez goldean? Ez al dakizu esaera zaarra: “gaueko lanak egunezko lotsa”?

Eta Iñaxiok bat-batean erantzun omen zion:

- Neri egunezkoak gauezkoak baiño lotsa geiago eman dit.

Ark artean ere galdua gogoan.

Gertakizun au eta beste geiagorengatik dakit Iñaxio gazte-denboran Errekalde baserrian bizi izandakoa zala.

Beingo batean, Iñaxio, Aian bizi zala, Tolosan aizkol-apustua ikusi ondoren, etorri eta Aiako Juanene ostatuan mai baten inguruan eseri eta zerbait artuz zegoala, dana dakitenak izaten dira eta oietako bat sartu omen zan ostatu ortan, eta an asi omen zitzaion Iñaxiori aizkol-apustuko gertakizunak kontatzen:

- Agidanean, apustu kaskarra izan da, Iñaxio. Bat lanak bukatu gabe erretiratu omen da.

Besteren bati entzundako kontuekin ari zitzaion nazkatzeko moduan; eta, ori entzutean, Iñaxiok esan zion:

- Ez, gizona, ez. Lanak biak bukatu dituzte.

Baiña berriro ere kaskagogor arek kontra egiten zion:

- Ezetz, ba, Iñaxio! Batek ez dituala bukatu!

Eta Iñaxiok orduan esan zion:

- Ederki! Bejondaikela! Nik ikusi eta ik jakin!

Ori entzutean, bapo gozatua zan ostatuan zegoan jendea.

Bazan Aian *Xapata* izeneko mutilzar bat, berez azpeitiarra, gazte denbora guzia juergan ibilia eta xoxik gabe gelditu zanean Aiara etorri, bertan bizi eta illa larogei ta bost urterekin. Azpeitikoa izaki eta gaztetan zezenenkin torero ere zerbait saiatura.

Aiako lagunik berezienak auetxek zituan: Leandro, Juanito Perrax eta batez ere Iñaxio Errekalde. Alkarrekin askotan ibili ziran karta jokoan eta juergan, baiña Xapata beti beste oien kontura.

Iñauteriak edo Karnabal batzuetan, leen esandako laukote ori erriko tabernetan komeriak egiñez zebiltzala, joan omen ziran *Bodega* izeneko tabernara. Erronda bat atera eta ondoren Xapata zezentzat artu eta beste irurak ura toreatzen. Batek serbilletarekin eta besteak etxekoandrearen mantalarekin, an omen zebiltzan jo ta autsi.

Alako batean, Iñaxiok, komunaren ondotik mantala astinduz, deitu omen zion; eta Xapata -zezena- aballa guzian ziyoala, Iñaxio aldameneratu bat-batean, eta Xapatak komuneko ate-markoa jo buruarekin eta ebaki koskor bat egin omen zuan. Orduan asi omen zan *ai!* eta *ai!* marruaz, eta bertako nagusia bildurtuta sukaldetik atera omen zan, “Zer da?” galdetuz.

Eta Iñaxiok erantzun omen zion:

- Ikaragarria gertatu zaigu: zezenak adarra bota. Baiña ondo gobernatzen badegu, berria laster jaioko zaio.

Apari bat debalde eman ezkeron min ura laster aztuko zitzaioala esan nai zuan.

Iñaxio Errekaldek, Andoaingo Bazkardotarrak, bi anai, Tomas eta Gregorio, oso lagunak zituan. Jokozale amorratuak ziran aiek ere, eta bearbada arremian ori orren bitartez izango zuten.

Sarritan etortzen ziran Aiara, eta etorritako bakoitzean Xapatarekin komeriak egin bear izaten zituzten.

Xapata bera ere ortarako prest egoten zan; baiña kafea, aparia edo zerbait eman egin bear. Bestela, laster aldegingo zuan aien ingurutik. Bi anai oiek Xapatarekin karta jokoan edo pelotan

saio bat egin gabe etziran Aiatik etxera iñoiz itzuliko.

Bein batean, beste askotako antzerira, Bazkardo bi anaiak etorri ziran Aiara. Xapata plazako tabernan arkitu zuten. Bereala asi ziran toreatzen, eta Tomasek desapio au eman zion Xapatari:

- Pelotan jokatuko dizkiat bost duro -gaurko milla pezta aiña izango zan-, ni bi eskuekin eta i eskubiaz bakarrik izatekotan.

Jardun ziran eztabaidan, baiña jokatzerara jarri ziran; eta Iñaxio juez zala jokatu zuten.

Xapatak, bearbada, Tomas ori irabazteko modukoa izango zuan; baiña, gero ohea arrapatzeagatik-edo, galdu egin zuan, eta amar duro jokatzeke berriro desapio eman zion Tomasi, baiña baldintza bat jarritz:

- Nik oraingoan ezkerra geiago. Alderik batere ez dago. Esaera dan bezela, nik ezkerreko eskua pixa egiteko det.

Eta orduan Iñaxiok erantzun zion:

- Ik pixa ezkerreko eskutik egiten al dek? Guk ortarako beste zerbait ibiltzen diagu.

Beste batean ere, Iñaxio Errekalde eta Zapata ari ziran karta jokoan Juaneko tabernan. Xapata oso tranposoa zan. Orregatik edo suerte txarragatik, Iñaxio galtzen ari zan.

Orrela zirala, an sartu ziran tabernara Xapata aspaldian ikusi gabeko bi lagun edo gizon; eta batek, bizkarrean joaz, esan zion:

- Zer gizon-modu, Xapata?

Eta Iñaxiok aldamenetik bat-batean erantzun:

- Au orain ere lapurra galanta!

Xapata oso aserre. Gaiñerakoak, danak pozik.

Iñaxio eta Xapata alkarrekin askotan ibili oi ziran.

Xapatak oitura aundia zuan, zer edo zer aundi xamarra berari esaten bazioten, orduan gaizki, baiña beti aitaren egiten zuan; eta egindako geietan esaten zion Iñaxiok:

- Ik, gizon piña izateko, gurutze geiegitan egiten dek.

Iñaxiok, urte batean, oso giro onak zijoztela ikusirik, otsaillarean azken aldera, *Naparrene-zarra* deitzen zitzaien baratzan -kale barruan zegoan baratza ori-, patata erein omen zuan. Baiña biaramonean, bere aitagiarrak, Joxe Mari edo Joxematxo arek, Luis lengusuari deitu eta, artean goizegia zan aitzeki orrekin, azi patata ereindako aiek danak atera arazi omen zizkion.

Joxematxo orrek Erramun deitzen zan anai bat bazuan, Bilbon bizitzen zana. Noizik eta bein Aiara etortzen zan bere aideak bixitatzera. Ala etorri zan batean, baratza ori ikustera joan omen ziran bi anaiak, eta Iñaxio zerbaitetan an ari omen zan. Inguratu ziranean, Erramun osaba orrek galdetu omen zion:

- Zer: lur ona al da baratza ontan?

Eta Iñaxiok erantzun:

- Bai! Auxe ona! Emen gertatu zaiugu egun batean patata erein eta biaramonean atera.

Ain ondo etorri Iñaxiori erantzuteko. Baiña Joxematxok, ori entzun zuanean, laster aldegin omen zuan ingurutik.

Joxematxo ori gizon buru azkarrekoa zan; modu edo diru aldetik ere ondo ibiliko zana. Orain berrogei ta amar urte ere kotxe baten jabe zan, eta garai artan inguru auetan asko etziran izango.

Iñaxio, azkenengo amar urteetan, bere arnasbide edo bronkioetatik naiko estu ibiltzen zan, eztulka saio aundiak egiñez, bolaraz itotzeko zorian. Bein batean, *Alkar* soziedadean arrantxoak egiñez zegoala, eztul saioak eman zion. Estu eta larri ari zala, aldamenen zegoan mutil kaxkar xamar batek esan omen zion:

- Errekalde, izurratu zera!

Bukatu ordurako erantzun omen zion:

- Ni izurratua eta ik lanik ez!

Aian bazan mutilzar bat, paltso kontua aitatu ezker bereala esango zuana:

- Naiago diat, paltsoa izatea baiño, mixeri gorrian bititza!

Eta abar eta abar jarduten zan.

Bein batean, Iñaxio Errekalde eta biak kontu kontari ari zirala, norbaitek egindako saldukeri edo paltsokeria aitatu zuan Juan tabernako nagusiak; eta orduan mutilzar orrek ekin bere buruaren alderdi txarrak kontatzen:

- Nik bazekiat txoroa, iñuxentea, aula, pobrea eta eskasa naizela; baiña paltsoa ez nauk!

Oiek danak entzutean, Iñaxiok esan zion:

- Barkatu, baiña bestela ere naikoa badaukazu.

Iruntxiberri korrikaria Aiako semea da, gaur Andoañen bizi bada ere. Sasoi betean zegoan garaian, Astearuko Irazurekin lau joko egin zituan, danak batera egin ere, erdi aukera esaten zaion baldintza oietan: zezen plazan eta aldapan gora Iruntxiberriren aukerakoak; eta beste bi, Tolosako Berazubiko pistan eta Andatz-zaratetik Billabonara, Irazuren aukera.

Lautatik iru aiarrak irabazi zizkion eta, laugarrena jokatu gabe, diruak eman zizkion Iruntxiberriri. Danak berretzat izan zituan.

Leenbizikoa zezen plazan jokatu zuten; eta, bigarrenkoa Berazubin jokatzeke zeudela, jakintsu tankerako bat, Iñaxio Errekalderekin apustu orren kontutan ari zirala, beste orrek Joxe Mari zuan izena eta Iñaxiori esaten zion:

- Zezen plazan irabazi dio, baiña *-pista* esan bearrean- *bistan* ez dio irabaziko.

Orduan Iñaxiok erantzun zion:

- Irazuk, ez bistan eta ez ezkutuan, ez dio irabaziko Iruntxiberriri.

Iñaxio Juanene tabernan askotan egoten zan, eta sukalde txokoan geienetan. Erriko erretorea ere, neskameak kanpora aldegiten zion egunetan, bazkaltzera taberna ortara joaten zan, eta Iñaxio toreatzea gustatzen zitzaion. Aserako itzak geienetan erderaz zuan oitura.

Bein batean sartu zan erretorea eta, Iñaxio ikusi zuanerako, asi zitzaion:

- *Aquí está el carnicero. ¡Este roba mucho! ¡Este roba mucho!*

Iñaxiok, maiaren ondotik:

- Al duanak arrapatzen du!

Berriro ere erretoreak:

- *¡Eso es pecado! ¡Eso es pecado!*

Iñaxiok:

- Pekatua ere batenbatek egin bear-ko du! Apaizak alperrik daude bestela!

Bazan mutilzar bat, batzuetan eskean, beste bolara batean morroi eta orrela ibiltzen zana. Ez dakit nongoa zan, baiña etzan Aiakoa.

Bein errira etortzen zanean, eguna eta gaua ere geiena bertan pasatzen zuan, Juanene tabernan sartu eta bertsoan, elizako kantak kantatzen eta abar.

Bein batean, egun guztia tabernan pasa eta gauean ere bertan jarraitzen zuan. Ala zebillela, Errekalde zegoan maiera joan eta asi zitzaion:

- Iñaxio, etxera noa. Badakit nagusia kezketan egongo dala; eta, deskuiduan ni bidean ilko banintz, gure nagusiak geiago ez luke onik izango. Bera ere bereala penaz ilko litzake.

Orduan Iñaxiok:

- I il aizelako penaz iltzen dan nagusia, bera ere ez dek normala izango. Barkatu zak, baiña eori baiño ere okerragoa izaten larri ibilliko dek.

Iñaxio, artean Aiara etorri baiño leen, bere erri alde artan bizi zala, arakintzan ikasi omen zuan, eta garai ar-

tako baserritarren elkarteari *ermandadea* deitzen zitzaion.

Amar edo amabi baserrik osatzen zuten taldea izaten zan; eta, baserri oietakoren batean bei, idi edo ganaduren batek min artu edo gaixotzen baldin bazan, etxean bertan iltzen zuten, eta elkarteko baserri danen artean banatu. Baserri bakoitzean bei eta idiak sartuta zenbat buru zeuden, proportzio artan ordaintzen zan galdutako ganadu ura.

Era ortako bei edo idiren bat gertatzen zanean Zizurkil, Asteasu eta Adunako baserrietan, Iñaxio izaten omen zan ura il, larrutu eta zatitze lanak egiteko.

Bein batean, Asteasuko baserri batera deitu omen zioten, idi bat naiko gaizki zeukatela eta lenbailen il bearko zala esanez.

Ala, Iñaxio etorri eta joan omen zan, eta albaitea artean iritxi ez, baiña idia azkenetan. Berez bukatu baiño leen il egin omen zuan. Larrutu eta barrunbeak atera ere bai.

Orduantxe iritxi omen zan albaitea. Oso gaztea noski, esperientzi gutxikoa; eta ark nonbait beia zala uste zuan il zutena. Ala, Iñaxio arakiñari leenbizi biotza ikusteko ekarri arazi omen zion. Gero, birikak eta giltzurdiñak. Zer gaitz izan zuan aztertzen ari zan nonbait. Aiek danak ikusi ondoren, esan omen zion:

- Ea! Orain umetokia ekarri zaidazu!

Orduan Iñaxioren erantzuna:



- Oraindik gaztea nonbait eta etzeukan umetokirik.

Gero esan omen zion idia zala eta oso ondo konpondu omen ziran.

\* \* \*

Iñaxiori karta jokoa asko gustatzen zitzaion. Neroni ere kuadrillan sarritan jardun izan nintzan bi-bitara, Iñaxio tartean zala, batzuetan alde eta bestee-tan kontra.

Bein batean, Kanuaneko tabernan saio bat egin genduan, eta nere lagunak eta biok Iñaxio ta lagunari berrogeina duro irabazi genizkion. Eta, ni ordurako Diputazioko langille nola nintzan, Iñaxiok, galdutako diruak emanaz, ala esan zidan:

- Diputazioak iri ez dik sekula orduko oinbeste ordaindu.

Ordubeteko saioan irabaziak baitziran berrogei duro aiek.

Olakoxea zan Iñaxio Errekalde zana, gizon atsegiña eta iztun egokia benetan. Goian bego!”

Oneraiño Aiako Jose Mari Lertxurdiren itzak. Milla esker berari.

\* \* \*

Inazio onen anaia da Jesus Maria Iztueta Otaño, larogei ta zazpi urtekoa, esan degunez, gaur egunean senideetan bizi dan bakarra. Onak onela esan digu:

“Nik zazpi urte nituan aitona Joxe Bernardo il zanean, 1912-an. Errekaldera askotan etortzen zan Belendik;

bai gu Belena joan ere, ondoan bizi giñan da.

Azmantarrekin eta abarkekin ibiltzen zan ura. Galtzak, azmantarren barruan sartuta.

Auntzak izaten zituan bide-bazterrak betean, baita aker bat ere; eta, guri adarra jotzeko, onela esaten zigun:

- Auntzekin kontuz ibili, joko zaituzte ta!

Ala, bildurrez ibiltzen giñan aien ingurutik; eta Errekaldeko zubitik pasa bearrean, Beibategin beste zubi kokor bat bazan eta andik barrena joaten giñan askotan.

Beibategi beste baserri bat da, Errekalde baiño beeraxeagoa dagoana, Billabona aldera.

Ordurako ortz postizoak gure aiton orrek, eta mingaiñarekin ateratzen zituan, gu ikaratzeagatik. Ola ibiltzen zan gurekin. Umezalea zan oso. Amona baiño geiago; amona Iñazi, Iñazi Aundia.

Eskolatik etxerakoan eramaten genduan guk ogia, eta egun batean eskolara joan ez eta ogirik ekarri ez. Amak esan zidan:

- Joan adi Belena, eta ogi bat emateko esaiok. Amak esan dikela.

Ala, eskatu nion ogia amonari, amona aundi orri, eta arek:

- Bat ere etzeukat.

Sukalde aurrean beste kuarto bat bazeukaten, kristalezko atea zuana. An eukitzen zituan amonak ogiak, apalean illeran jarrita, eta nik atetik begiratu eta bat bazeukala ikusi nuan. Baiña etzidan eman. Berak bearko zuan.

Patxikaenean(5) panaderia zan, eta andik zaldiarekin eramaten zuten ogia. Ez dakit zenbat, baiña zortzi edo amar bat ogi bai. Teillerigiñak ere, teillerian Joxe Bernardoren kontura aritzen ziranak, an jaten baitzuten, eta ogi mordoska ekarri bear."

Urrengo gertaera au ere Jesus Iztueta Otaño orren aotik jaso da:

"Beste batean, lau lagun joan giñan Belena: gu, iru anaiok: Iñaxio, Paiko eta ni. Eta arreba gazteena bestea: Anita.

Joan giñan Belena eta an izeba Adriana. Ura leiala zan, eta koziñan ere ondo zekiana; eta onela esan zigun:

- Sardin zaarrak jango al dituzute?

Nik baietz esan nion. Prestatzen asi zan, eta amona orduan etorri. Esan zion:

- Baiña, Adriana! Oieci sardin zaarrak jartzen asi aiz, ba!

Eta Adrianak:

- Zer egingo nuan, ba?

Jarri zituan beintzat sardin zaarrak erreta. Bean zuten sagardoa eta esan zidan:

- Ekar zak sagardoa.

Sagardoa ekarri nuan; eta gu, sardin zaarrak janez eta sagardoa edanez, kontentu."

Beste oroipen au ere bururatu zitzaion Jesus Iztueta Otaño orri:

"Errekalden beti famili aundia eta baserri txikia(6). Sobranterik ez eta ama zanak bein baiño geiagotan esan zidan:

- Joan adi Belena eta osaba Iñazio Mariri eskatu iok duro bat.

Osaba Iñazio Mari gizon ona zan. Leiala ere bai. Ura alkate egon izan zan Zizurkillen.

Arengana joan ezkerero, arek beti izaten zuan duroa. Baiña ura falta zala eta osaba Delfiñi eskatu izan nion. Arek, ordea, bein ere etzuan izaten. Osaba bat, beraz, duro zillarra beti izaten zuana; bestea, berriz, bein ere izaten etzuana..."

Europako gerraren bukaeran, 1918 urtean, gripea etorri zanean, Otañotarretatik sei lagun il omen ziran. Onela esan digu Jesus Iztueta Otañok:

"Gripe garaian, jende asko il zan. Zizurkillen ez dakit zenbat lagun: Abeletxen, ama-alabak; Saluagaraten ere bai; Benezin, Pello esaten ziotena; Saratxotan bi; beeko barrioan, auskalo zenbat; eta Belenen eta Errekalden sei, oso tarte gutxirekin; egun bat edo bi. Gaitz txarra ura. San Migeletan zan. (7)

Belenen, osaba Iñazio Mari zana eta morroia, *Barrabas* esaten ziotena, il ziran. Errekalden, iru: aita, ama eta alaba. Eta Beibategin, beste gure amona, aitaren ama, Dominika Dorronso-ro. Errekalden lekurik etzegoalako eramane zuten ura Beibategira.

Gu ere egon giñan pixka bat. Egund bat edo bi edo zerbait pasa genituan oian. Jateko gogo berealaxe egin zitzaigun, ordea. Gazteak izan, baiña gazteak ere iltzen ziran. Amar urtekoa il zan gure arreba eta... Nik ez dakit



*De izquierda a derecha;* sentados: D. Ignacio Otaño, alcalde; D. Fermín Arámburu, teniente alcalde. De pie: D. Victoriano Barandiaran, secretario; D. José Eizmendi, D. José Galarza, D. Valentín Urdampilleta y D. José Zaldua, concejales.



D. Guillermo Arana,  
párroco.



D. José J. Manterola  
coadjutor.

zerk egiten zuan: ariñago arrapatu edo...

Pratikante xarra Don Nikolas zan, eta arek esan izan omen zuan: gaitz ori arrapatzen zutenei odola galtzen zitzaiela; odola ur biurtu”.

Jose Bernardoren suia, Errekaldeko etxejoaun zegoana, Jose Lorenzo Iztueta Dorronsoro, 1918-ko urriaren 4-ean il zan, berrogei ta bat urterekin, Errekalde baserrian.(8)

Semea, Inazio Mari, andik bi egunera il zan, urriaren 6-an, leen esan degunetz.

Billoba, Josefa Antonia Iztueta Otaño, biaramonean il zan, 1918-ko urriaren 7-an, arratsaldeko bostetan, *”a consecuencia de gripe”*, Errekalden, amar urterekin.(9)

Neska onen ama, Jose Bernardoren alaba, Juana Bautista, biaramonean il zan, 1918-ko urriaren 7-an, berrogei ta zortzi urterekin, Errekalden, *”a consecuencia de gripe”* (10), gaueko amaketan.

Jose Bernardoren suiaren ama, Dominika Dorronsoro Garmendia, 1918-ko urriaren 13-an il zan, irurogei ta amabost urterekin, Beibategi baserrian.

Zizurkilko Teodoro Mujikak, berri, onela esan digu:

“Pelotariak etorri onera, beeko barriora, gripe garai artan, eta ez dakit bada: iru edo lau il omen ziran. Kutsuaren bildurrez, gurdi batean eraman zituztela kanposantura aditu izan det.

Don Jose Joakin Manterola, zarauztarra bera, Zizurkillen omen zegoan

apaiz, koadjutore, eta arek ez omen zuan batere bildurrik gripearentzat. Pantxikaenean ostatuz zegoan, eta bertako nagusiari esaten omen zion:

- Baltaxar, pattarrarekin egingo diogu kontra gripearri.

Baiña arrapatu zuanean, egun gutxiren buruan ain zuzen, ziplo erori zan bera ere.”

Eriotz-agiriak dionez, 1918-ko urriaren 8-an il zan, ogei ta amaika urterekin.(11)

\* \* \*


Bostgarren senidea, Josefa Antonia, 1901-eko otsaillaren 19-an ezkondu zan, Zizurkillen, ogei ta zazpi urterekin. Senargaia: Jose Maria Etxeberria Uranga, andoaindarra, ogei ta amabost urtekoa, langillea.(12)

Entzun izan degunetz, dendaren bat euki omen zuan gizonak Andoañen, eta dendako jeneroa artu eta zaldi eta karroarekin saltzen ibiltzen omen zan erriz-erri.

Urrengo berri auek, berriz, Zizurkilko Teodoro Mujikak Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañoren aotik jaso eta guri bialduak dira.

“Jose Bernardoren alaba Antonik taberna eta denda zuten Andoañen, eta Jesus Iztueta Otaño, beren illoba, Errekaldetik orrera joaten omen zan botika billa.

Egun batez, bere izeba Antoniren etxera sartu eta onek bere seme bati esan omen zion:



Grupo de niñas de las escuelas públicas de Cizurquil, con su maestra. Doña Maria Beain (x).

*(Album gráfico descriptivo del País Vascongado, Años de 1914-1915.)*

- Joan zaitezte Jesus eta biok goiko kuarto ondoko almazenera, eta emaitzakiok Jesusi naranja batzuk.

Baiñan Antoniren semea oso esku estukoa izan. Ikusi omen zituzten naranja ederrak, kuela bat betetzeko lain bai, baiñan Jesusen lengusu orri min ematen pillar eder ura ikutzeak, eta ez omen zion bat ere eman.

Beera jetxi ziranean, Jesusen izebak onela esan omen zion bere semea-ri:

- Eman al dizkazu naranjak Jesusi?

Semeak erantzun:

- Ez omen zaizka gustatzen eta...

Jesus, berriz, lotsati samarra izan eta ixilik gelditu.

Erderazko esaerak diona: lotsatzen dana, ez gosari eta ez bazkari gelditzen dala."

\* \* \*

Leen esan degunez, Jose Bernardoren arreba bat, Juana Martina, Urnietako Jose Antonio Loinazekin ezkondu zan, 1867-ko azaroaren 26-an, Zizurkillen.(13)

Jose Bernardoren alaba bat, berriz, Maria Katalina, senideetan seigarrena, 1902-ko apirillaren 9-an ezkondu zan, Zizurkillen, ogei ta iru urterekin. Senargaia Jose Kaietano Loinaz Otaño zuan, ogei ta iru urtekoa bera ere, tabernaria, Urnietan jaio eta Andoaingo Berrospe etxean bizi zana. Or goien aitaturako Jose Antonio eta Juana Martina oien semea zan, eta lengusu ezkontza egin zuten. Orregatik, ezkontza-agirian onela esaten da: "*con*

*dispensa del segundo grado de consanguinidad."* (14)

Berrospeko Loinaztar auei *Jainkoa* eta *Jainkotarrak* esaten zieten izengoitiz.

Beste onako auek, berriz, Zizurkilko Teodoro Mujikari zor dizkiogu.

"*Jainkoak* eta Kataliñek leengusu-*ezkontza* egin omen zuten. *Jainkoaren* ama eta Jose Bernardo bertsolaria anai-arrebak.

Garai artan, mutil gazteak gau-eskolan ibiltzen ziran Andoañen. Gau batean, mutil oiek onela esan omen zuten, Berrospeko baratzaren ondotik pasa ziranean:

- Azak ostu bear dizkiagu *Jainkoari*.

Baiñan Jose Bernardoren alaba, Katalin, leiotik begira omen zegoan, eta esan omen zien:

- Bai, baiñan Ama Santisima begira zegok gero!...

Lau seme izan zituzten guk ezagutu genituanak: Don Jose Antonio apaiza, Jose Inazio, Joanito eta Domingo.

Beren aitarekin oso suerte txarra izan zuten. Idi eta karroarekin karreteoan ibiltzen zanez, egun batean, Lasarteko Teresategiko aldapan goitik beera zetorrela, nolabait deskuidatu eta lepoa autsi omen zuan.

Ezbear ori gertatu eta laister, galde-tu omen zioten Jose Inaziori norbaitezuek:

- Zer gertatu zaizute?

Eta arek:

- Ez da ortaraiño grabea izan. Aitak lepoa autsi du, baiñan idiak eta karro-

ak ez dute ezeren okerrik izan beintzat eta...

Bi neskame omen zeuzkan Andoaingo orduko erretoreak; eta Jose Bernardoren alaba Katalin ori, berriz, senarra il eta bi morroirekin bizi omen zan.

Jakiña, jendea gaizki esaka asi zan bai batengatik eta bai bestearengatik. Baiñan erretorea enteratu zan nola jendeak oso gaizki itzegiten zuan Kataliñengatik, eta neskame bat bialdu zuan Berrospera, esanez alegia jendeak gaizki esaten ari zala eta etxetik apartatzeko aiek, bi gizon aiek, bi morroiak.

Baiña Kataliñek esan omen zuan:

- Gaizki esaka ari al dira? Ez naiz batere arritzen! Zuengatik ere olaxe itzegiten dute eta pentsa zazu! Esaiozu nagusi jaunari, ari bi neskameak palta egiten dioten bezelaxe, neri ere bi morroiak palta egiten didatela, eta ez nezakela olako lanik egin.

Don Jose Antonio oso apaiz jatorra ezagutu genduan. Gu meza-laguntzalle giñanean, mutiko guztiak berari lagundu nai izaten genion, bera zalako noski mutikoekin atsegiñena eta saririk geien ematen zuana.

Asteasun egona zan gerra aurretik, eta emen izan zituan norbaitzuekin gorra-beera batzuk, eta bidali egin zutela esaten zuten.

Egun batez, bere anai Jose Inazio Billabonako *Izkiña* izeneko ostatuan omen zegoan; eta norbaitzuek, zirikatu asmoz-edo, auxe esan omen zuten:

- Asteasu alde ortan ere jende gogorra egongo dek, ba!

Norbaitek galdetu:

- Zer ba? Zer gertatu dek?

Jose Inazio zirikatzeke zegoanak:

- Jaungoikoa ere bidaldu omen ditek edo...

Eta Jose Inaziok erantzun:

- Ura etzan Jaungoikoa. Ura zan Don Jose Antonio Loinaz Otaño, eta errezago bidaldu ditek, ostera ekarriko duten baiño.

Labordeeneko langillea zan ura eta, beste langilleei bezela, jornal arin samarra ordaintzen omen zioten-edo...

Egun batez, karretillarekin txatar karreteoan omen zebillen. Etzuan asko edo geiegi kargatzen nunbait, eta jorrala jaso berria omen zegoan.

Enkargatuak onela esan omen zion:

- Jose Inazio, karretilla orrek bazian toki geiago ere.

Eta erantzuna:

- Bai nere patrikan dagoan zorroak ere.

Geiago edo gutxiago, anai geienak musikoak ziran.

Baiñan Joanito beintzat soiñu-jole ederra eta Andoaingo bandan ere jotzen zuan orrek. Mitxelinenean lan egin zuan.

Beste anai Domingo, berriz, Zizurkillen maisu egon zan.

Gero, Labordeenean ofizinako buru izan zan urte askoan, erretiroa artu zuan arte. Au benetan gizon errespetokoa eta ixilla zan”.

Lau anai auetatik, Don Jose Antonio apaizari asko zor dio liburu onek. Asteasun zalarik, Zizurkillan edo

bear zan tokira joan eta oso gogoz saiatu zan Otañotarren bertsoak eta berrriak biltzen. Beraren izena noiznai aitaturik ikusiko du irakurleak orri aue-tan.

\* \* \*

Zazpigarrena, Adriana, 1928-ko azaroaren 24-ean ezkondu zan, Lezoko parrokian, Inazio Bengoetxea Martiarenarekin. Senar-emazte auek Adunako Belen etxean bizi izan ziran.

Baratza ederra izaten zuten. Ganadurik ez. Egazti batzuk, koneju batzuk, auntza pare bat edo ola. Eta ukuilluan sagardo ederrak.

Teodoro Mujikak onela esan digu:

“Joxe Bernardoren alaba gaztee-na, Adriana, ongi ezagutzeko zoriona izan genduen, bere senarrari illea eta bizarra moztera sarritan joaten nintza-nez.

Egun batez, auxe galdetu nion:

- Adriana, zure aitak bai al zuen oiturarik etxean edo familian bertsotan aritzeko?

- Bai, mutil, bai. Geienean bere semeren bat edo alabaren bat izaten zian lagun egiteko, eta bakarrik ere kantatzen zian arek, etxean edo fami-lian. Ura artarakoxea uan, eta ari etzi-txion ori kentzerik”.

Adrianaren senarra Amasako Pirrille baserrikoa zan. Gizon indar-tsua benetan. Ari buruz onela esan di-gute Zizurkilko Serapio Mendizabalek eta Teodoro Mujikak:

“Gaztetan, Andoaingo mutil batek Inazioren arrebari segitzen omen zion, eta onek nai ez mutil arekin ibiltzea. Egun batean, arrebak anaiaari:

- Orain ere emen zegok ba!

Anaiak:

- Nun den?

- Or dek meta atzean!

Anaia joan eta egurtuta bialdu omen zuan.

Inazio ori Ameriketara izana eta in-diano gogor oietakoa omen zan. Askotan kontatzen omen zuan, zaldia-ren gaiñean zijoala ango beltzak-edo nola esaten zioten:

- *Oye, vasco: vamos a pelear.*

Eta, nai ezik ere, artara jarri bear. Zaldiak defenditzen zuala esaten omen zuan. Jetxi, zaldiari rienda bota aurrera eta etzitzaiola mugitzen. Kortxo-zko sonbreroa erabiltzen omen zuan, bero gutxiago zeratzeagatik; eta esku bate-an puñala eta bestean sonbreroa, abe-rea atzean zuala, nola burrukari ekin bear izaten zion.

Baiñan jale bikaiña ere bazan. Egun batean, kazuela ederra preparatu omen zuten, eta lagun asko ura jateko. Baiña arek zer egin du? Kazuelaren gaiñetik zapoa pasa, eta besteak ura ikusi, nazkatu eta atzera egin. Arek, berriz, dana jan.

Garai artan rasionamentua zegoan eta batek onela zion:

- Donostian kuadrilla bat lagun ogi zuria jaten arrapatu omen dituzte, eta multa eman.

Eta Inazio orrek:



- Ni ogi zuria jaten arrapatuko baniñuteke, eta multa bota, "nik ez det zuekin ezer ere nai" esan eta biktima eginda utziko nituzke."

Onako au Serapio Mendizabali jaso genion:

- Gero ura gangrenarekin il zan. Iñauteriko egun batean, basoan orbelentan aritu ta banentorren etxe aldera, eta Errekaldeko Paikok esan zidan:

- Presaka al aiz, Serapio?

- Ez. Presarik ez det. Zer dezu?

- Osaba zegok aldatu bearra eta bakkarik ezin nauk manejatu. Lagunduko baidakek...

- Bai. Lagunduko dizut.

Oraindik begien aurrean daukat ura, Dana more-more eginda zegoan. Aunditua zeukan anka eskubikoa. Nunbait azkazal batekin beatz aundia azkuretzen zitzaion. Baiña eskeleto utsa zegoan. Egunak eta egunak, txanpañarekin aoko ezpaiñak busti eta bere artan. Ala ere, ura kaja-ezurra! Ura petxo zuloa zuan arek!"

Eta Teodoro Mujikak onela esan zigan:

"Bizarra ebakitzera joaten nintzanean, onela esaten zidan:

- Joan adi. Labana or daukak bizarra ebakitzeko.

Joaten nintzan eta kajoian an eukitzen zuan, labanarekin batera, *revolver* luze-luze bat. Ameriketatik ekarria izango zuan.

Azkeneko bisitatu nuanean, onela esan zidan:

- Gure Jainkoak nai duan arte bear-

ko du. Baiña naiago nuke illa banengo.

Oker ez banago, 1947-an edo 1948-ko asieran il zan.

Igeltso-mina erori zanean, Adrianari tristura aundia sartu omen zitzaion. Orduan Donostira joan zan, Anita illobarengana. Baiña osteratorri eta Belenen il zan, 1963-ko maiatzaren 14-ean."

\* \* \*

Zortzigarrena, Frantzisko Maria, apaiz egin eta Beizamako erretore izan zan. Bere amaren jaioterrikoa, beraz.

Beraren illobak, leen aitaturako Jesus Iztueta Otañok, onela esan digu:

"Osaba apaizak San Inazio batzuetan Azpeitira eraman arazi giñun. An bazkaldu genduan, *Txintxua*-edo esaten zioten etxean. Amalau edo amabost urte izango nituan orduan. Osaba Frantzisko ura irurogei uterekin izango zan illa; 1943-an edo olako zerbait."

Oraindik orain beizamatar batek onela esaten omen zuan:

- Gure errian gizon bat gozoa eta ona aparta baldin bazan, uraxe zan: Don Frantzisko.

\* \* \*

Bederatzigarrena eta azkena, Delfin. Amasako Juana Inazia Zaldua Beitiarekin ezkondu zan, 1928-ko apirillaren 12-an, Arantzazun. Juana Inazia au Plazidaren gizonaren arreba

zan. Anai-arrebak anai-arrebekin ez-kondu ziran, beraz.

Etzuten familirik izan.

Inazio anaia 1918-ko gripearekin il zanean, Delfin onek artu zuan igeltso-tegiaren eta teilleriaren ardura.

Berrogei ta emeretzi urterekin il zan, 1946-ko apirillaren 30-ean, "*a consecuencia de derrame cerebral*", Elbarreneko Pasus-berri etxean.(15)

---

1. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 45-garren orrian.

2. Zizurkilko seigarren eriotz-liburuan, 13-garren orrian.

3. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 74-garren orrian.

4. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 157-garren orrialdean.

5. Zizurkilko Teodoro Mujikak onela esan digu: "Pantxika zan ango etxeoandrea. Ortik Pantxikaenea. Baiña Elizondo abizena zuten, eta Elizondo-etxea omen du berez etxc orrek izena."

6. Joxe Bernardo-eta Belengo etxera aldatzean, Errekaldeko lurak erdibana partitu omen zituzten. Orregatik, baserri txikia geratu zan.

7. Zizurkillen, bertako eliz-liburuetan kontatu degunez, ogei ta zortzi lagun il ziran gripe izurrite ontan.

8. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 156-garren orrian.

9. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 156-garren orrian.

10. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 157-garren orrian.

11. Zizurkilko laugarren eriotz-liburuan, 157-garren orrian.

12. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 150-garren orrian.

13. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 52-garren orrian.

14. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 155-garren orrian.

15. Zizurkilko bostgarren eriotz liburuan, 226-garren orrian.

## OROITZAK

Onako atal au Zizurkilko Teodoro Mujikak idatzia da, bere aitona eta osaba ziranak Jose Bernardo Otañorekin zer artu-eman bereziak zituzten adieraziz. Ona beraren itzak:

“Nere aitonak Joxe Bernardo bertsolariarekin lotura aundia zuen, eta zartzaroan ez gutxiago.

Igandero biak alkarrekin joaten omen ziran meza nagusira, eta Joxe Bernardok gure aitona bizi zan San Migel baserri txoaren ondotik pasa bear zuen Zizurkilko elizara joateko. Etxe ondora irixten zanean, onela deitzen omen zion:

- Manuel, pronto al aiz?

Joxe Bernardo geienetan, igande egunez ere, abarka azmantarrekin etortzen omen zan elizara. Txukun eta egoki jantziak, ori bai. Baiñan festategun eta orrelako jai berezietan, traje dotorea zapata ederrekin jazten omen zuen.

Gure aitonari ere etzion txukuna izaten edozeinek eramango. Baiñan ark bere bruxa beltza etzuen iñoiz ere uzten.

Bere oitura zuen bezela, deitu dio gure aitonari festa egun batez; eta, au atera zanean, or ikusten du Joxe Bernardo oso dotoreturik. Orduan onela dio gure aitonak:

- Arraioa! Gaur ponposo etorri zera!

Gure aitona oso gazterik Errekaldera lanera etorria bazan, bere seme Millan ere -au nere osaba- oso gazterik asi zan Joxe Bernardoren lantegian. Beraz, aita-seme biak izan ziran gizon onen langille eta serbitzari izanak.

Ez da arritzekoa noski bertsolari tartean azi eta ezi ziranak, berezko pixka bat bazuten beintzat, bertso eta ateraldi egokiak izatea.

Nere aitona ateraldietan bizkorra bazan, bere seme Millan etzan oso motela.

Egun batez, ateraldi xebreren bat egin omen zion gure osabak Joxe Bernardori, eta onek orrela dio txunditurik:

- Arraioa! Alako kastatik aterea aiz, bai!

Gure osaba orrek Millan Salaberria zituan izen-abizenak, baiñan *San Migel Txiki* deitzen zioten.

Gure artean beti izango ziran gizon alai eta umoretsuak. Baiñan aren neurrikoak oso gutxi, nere ustez.

Bertso-saio luzeak egitea oso aspergarri egiten zitzaion. Baiñan dozen erdi bat bertso arek baiño ironia eta

arrazoitsuago botatzen zituena etzan bertsolari eskaxa, ziur aski.

Gerra aurretik, gerra-garaian eta ondoren ere amaika lagunarte gozatu-tako San Migel Txikia.

Baiñan gizon au kantatzen atsegiña bazan edozein garaitan, izketan zala bertsolari esango nuke. Buru argi apartekoa zanez, bertso-puntu dotoreak eta ateraldi egokiak, benetan irrigarri, oso gutxik bezela ertetzen zituen.

Gizakiok une askotan umorea galtezko arrixkua izaten degu, eta orrela-koetan gizon oiek egiten duten onaz ez dakit berak ongi konturatzen diran.

Zer neurritako bertsolaria zan irakurleak ezagutu dezan, ondoren dijoa-zen bertso oiek zerbait esango diotela uste det.

Zizurkilko plazan gazte batzuk zeuden trago batzuk edanez. Millan Salaberria badator etxetik ostatura bi-dean; eta gazte oiek, dei egiñez, trago bat eskeintzen diote, bertso bat botatzeko erregutuaz. Onela dio Millan Salaberriak, tragoa egin eta basoa eskuetan duela:

Uste gabian inguratu zait  
kuadrilla kariñosua,  
ta beriala eman dit batek  
trago bat oso gozua.  
Borondati au alabatuaz  
dijua nere bertsua,  
eskerrik asko, gaztia, eta  
orain torizu basua.

Millan Salaberriak Donosti eskiñan edo Antiguan bere anaitzakoa onela agurtzen du egun batez:

Mundu ontara zenbait bezela  
aberats sortu ez giñan,  
Anton, zer moduz bizi zerade  
Donostiyaren eskiñan?  
Lenago beintzat ni bezelaxe  
langille zintzo bat ziñan,  
gaur ere etzera biziko noski  
Hotel Maria Kristiñan.

Bi emakume lodi eta bi gizon argal  
eta txiki alkartu giñan batean, Millan  
Salaberriak abestua:

Gu gizon koxkor gelditu giñan,  
ez gizendu ta ez azi,  
bi emakume oiek ez dute  
guk degun aña desgrazi.  
Edozer gauza egingo die  
oiek bi gizon eskaxi,  
baezbadare obia degu  
kontra egiten ez asi.

Lagunartean ere oso gustora egoten  
zan bertsolari gozo ura. Baiñan bere  
emaztea oso maitea zuanez, garaiko  
erretira egitea gustatzen zitzaion.  
Onela abestu zuan azken bertso bate-  
an:

Oso gustora pasatutzen det  
lagunarteko denbora,  
baiñan au ere kalterako da  
neurri batetik kanpora.  
Nere etxian nik dakidan bat  
zai jarria egongo da,  
adios, jaunak, orain banua  
emaztiaren ondora.

Festa-egun batez, gure osaba au  
bertso zarrak kantatzen ari zala,

Irurako *Moxo* deitzen zioten bertsolaria inguratu zitzaion, eta onek puntu au jarri zion nere osabari:

Aixkiria, bota zazu  
bertso bat berriya...

Nere osabak erantzun:

Gu orain ortarako  
gaude alegiya.  
Pixka bat alaituko  
al degu erriya?  
Biyok jarriko degu  
zelebrekeriya.

Alaxe egin ere. Saio ontatik nik ondorengo bi bertso aukeratu nituen: lenengoa Moxoarena eta bigarrena nere osabarena. Moxoaren bertso au Xenpelarren bertso batekin nastua dala dirudi.

Adixkide, seriyo  
nai nuke gaur mintza,  
zer dala uste dezu  
Moxuaren itza?  
Nerekin daramazkit  
sarrailla ta giltza,  
ez nazu gaur autsiko,  
alperrik zabilta.

Nere osabak erantzun:

Atera dezulako  
orrenbeste otsa,  
artu biarra zaude  
sekulako lotsa.  
Aspaldi bukatu zan  
zure urre-poltsa,  
sarraill giltzak ederrak  
baiñan baula utsa.

Gure osaba Millan Salaberria au 1889-urteko urrillaren 9-an jaio zan, eta 1955-eko urrillaren 23-an il, irurogei ta sei urte bete eta amalau egunera ain zuzen.

\* \* \*

Nere osaba maitagarria,  
ain ziñan gizon alaia,  
itun zegona pozez jartzeko  
beti bazeukazun gaia.  
Astegunean edo ta berdin  
irixten zanean jaia,  
alboan norbait izan ezkeron  
noiznai zan zure garaia,  
nai dun guztiak ez du izaten  
zuk izan zendun doaia.

Edozein garaiz sartzen zanian  
gure sukalde goxuan,  
silla batian exeriko zan  
bere patxara osuan;  
beretzat etzan iñoiz faltako  
trago txiki bat basuan,  
beste mokadu txiki batekin  
ura eraten bazuan,  
zerbait ixtori emango zigun  
bere izketa mantxuan.

Aren aotik artua degu  
kontaktzen degun au dana,  
bera izan zan ixtori ontaz  
zerbait jantzi ginduana;  
xamur da pozik bere azia  
ixuri zigun gugana,  
guk ere pozik artu genduan  
pozik ixuri zuana,  
nola ez degu pozik emango  
pozik artu genduana?"

**JOSE BERNARDO OTAÑOREN  
BERTSO-SAILLAK**

(1878)

## ZIZURKILKO MISIOAK

- 1/ Zori onean etorri dira  
misioak Zizurkilla,  
zeru bidean ipiñitzeko  
anima galduen billa;  
kantak jartzeko gai ona daukat  
buruz banengo abilla,  
Jaungoikoaren grazia, arren,  
nerekin gerta dedilla.
  
- 2/ San Frantziskoren semeak biak  
edo relijiosoak,  
saiatu dira lan asko egin  
eta txit baliosoak;  
anima franko sendatu dute  
eri zeudenak gaixoak,  
eta erakutsi aurrerakuan  
zer moduz egin pausoak.
  
- 3/ Frai Jose Epelde misio bat,  
Frai Luis Arrue bestia,  
biak nai zuten zeru bidia  
guzioi erakustia;  
itzez eta obraz gure onean  
oien alegin guztia,  
deseo dute Jauna alabatzen  
zeruan gu ikustia.

- 4/ Milla zortzireun irurogei ta  
urte emezortzigarrena,  
mundura jaio izandu zala  
Seme Jaungoikoarena;  
ogei ta zortzigarren eguna  
maiatzeko illarena,  
au da garaia predikatutzen  
asi izan ziradena.
- 5/ Kanta ederrak elizan eta  
predikatzen pulpitan,  
modu orretan jardun dirade  
amar egun segituan;  
anima asko kondenatzeko  
moduan nola oi dituan,  
zuzendu nairik Aita Arruek  
ondo esaten zituan.
- 6/ Kunplitutzeko otsegin digu  
geren obligaziyoak,  
projimoetan gaitz egin badu  
berriz restituziyoak;  
sujetatzeko naturalezak  
daukazki anbiziyoak;  
modu onetan dira danetan  
oien esplikaziyoak.
- 7/ Senda ditezen penitentiai  
eman dizte leziyoak:  
biotzezkoak kontriziyoak,  
aozko konfesiyoak,  
penitentzia kunplitutzeko,  
obren satisfaziyoak,  
alkantzatutzen dirala ala  
gaizkien barkaziyoak.
- 8/ Mingain gaiztoak sujetatzeko  
artzeko intentziyoak,  
desterratzeko juramentuak,  
birau ta maldiziyoak,  
igual gorroto eta bengantza,  
baita murmuraziyoak;  
beingoz betiko al bait uzteko  
alako kondiziyoak.



- 9/ Biotzaren da mingain gaiztoen  
gustoa ezin obratu,  
projimoari fama kenduaz  
zeren nai duan ondatu;  
santu-santari burla egiñaz  
Jaungoikoa desonratu,  
eta beretzat probetxurik ez,  
infernua bai logratu.
- 10/ Modu onetan erabiltzeko  
emana degu mingaña,  
itz ederrakin alkar famatzen  
egiteko alegiña,  
ta guzien gain Jauna alabatu,  
ori da gure dotriña;  
orain ta beti askoz obeki  
ala portatzen bagiña.
- 11/ Gañera dio Aita Luisek  
anima garbi jartzeko,  
prezisoa au degula oso  
komunioa artzeko;  
ala egitea asko degula  
zeruetara sartzeko,  
zikin bagaude au bera franko  
betiko kondenatzeko.
- 12/ Aita Epeldek predikatu du  
eriotzaren gañian,  
kontu estuak datozkigula  
egoteko jakiñian;  
denbora artan baldin bagaude  
askoren utsegiñian,  
franko gertatzen dirala diyo  
ezer ezin egiñian.
- 13/ Juzgatu bearrak gaudela danok  
Jaunaren tribunalean,  
bai juizio partikularraz,  
orobat jeneralean;  
iltzea baldin gertatzen bada  
bat pekatu mortalean,  
betiraundean bearko(1)  
infernua mendean.

- 14/ Sententzi txarra artutzen badu  
eriotzako trantzian,  
infenuetan egon bearra  
eternidade guzian;  
nola diraden pena aundiak an  
argiro predikatxian,  
poz aundirikan orduan etzan  
gaiztoaren biotxian.
- 15/ Pentsatzen badu pekatuakin  
batek gaizki dagoala,  
predikatu du zer moduz egin  
konfesio jenerala;  
damutu eta aitortzen badu  
barkazioa badala,  
jenderik asko konbertitu da  
oiek aditzian ala.
- 16/ Bentaja asko ekarri ditu  
sermoi oriek entzunak,  
zer ditxak eta zer ontasunak  
animetan osasunak;  
auzo erritik leian etortzen  
bai andreak ta gizonak,  
komunioa an artu dute  
milla ta irureun pertsonak.
- 17/ Relijioko abituakin  
Aita espiritualak,  
erakusten ta grazia ematen,  
ai, orien egiñalak!  
Alkate jauna eta lagunak  
asistentzian leialak,  
berak aurrena konfesio ta  
komunio jeneralak.
- 18/ Enkargu asko portatutzeko  
gurasoak umeakin,  
obedimentu errespetuak  
umeak gurasoakin;  
pake santua izan dedilla  
mundu onetan gurekin,  
Jauna onratzen egon gaitian  
gero danak alkarrekin.

Bertso auek Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren eskuz idatzitako bildumatik artuak ditugu. Ziur aski, paperetan inprimitu eta zabalduko ziran; baiña ale bakar bat ere ez da gure eskuetara iritxi.

Egillea nor dan ez da esaten. Jose Bernardok orduan, 1842 urtean jaioa baitzan, ogei ta amasei urte zituan. Sasoi ederra, noski, bai bertsogintzarako eta bai beste zer egin askotarako ere. Zizurkilko 1878 urteko misioari moldatutako bertsoak baditeke, beraz, berak jarriak izatea. Orregatik sartu ditugu liburu ontan. Baiña arenak dirala segurutzat ezin jo.

Baiña Jose Bernardorenak dirala esateko badago, izan ere, zeri eldu. Gero adieraziko degunez, 1896 urteko Zizurkilko Misioari bertsoak jarri ziz-

kion bertsolari onek, eta egillea nor dan azken bertsoan esaten da. Eta, arreta piska batez irakurtzen badira, sail onen leenengo bertsoa eta 1896 urteko saillaren leenengoa ia berdiñak dira. Aita baten umeak dirala ematen du, beraz.

Zizurkilko beste misio batzuk 1868 urtean izan ziran, eta aldi artan Altzoko Manuel Antonio Imazek jarri zituan bertsoak. Jose Bernardok ogei ta sei urte zituan garaia zan. Ordurako bertsoan asia izango zan, baiña erritarak etzuten artean pentsatuko etxekeo bertsolaria kanpoko bezin ona zanik.

---

1. Gure iritzirako, itzen bat falta da lerro ontan; *beitiraundean bearko dula* edo olako zerbait izango da.

(1888)

## "BILLABONAKO KABALLERO BAT..."

Jose Bernardoren anai bat, Juan Jose, Ameriketara joana zan. Urteak pasa eta aren berririk ez etxean.

Orregatik, Pedro Mari illoba Ameriketara zihoan batean -iru bider joan baitzan-, onela kantatu zion beraren aitona, Errekalde Zaarrak alegia:

Lenago're seme bat  
badet Amerikan,  
ogei urte badira  
joan zala emendikan;

argana billatutzen  
badek biderikan,  
esaiok bizi dala  
aita oraindikan.

Alako batean, ordea, andik etorritako jaun batek albiste pozgarria ekarri zuan: Juan Jose ondo zegoala eta Arjentinako Mendoza errian bizi zala.

Orduan Jose Bernardok bertso auek bialdu zizkion. Zizurkilko Oaztegi-ko amona Mikelaren aotik jaso zituan Jose Antonio Loinaz Otañok:

- 1/ Billabonako kaballero bat da Jose Joakin Zaldua, bere guraso estimatu bat bisitatzeraz eldu da. Esanaz geunden "Gure Juan Joxe Ameriketara galdu da"; bizi dalako *alaluya* bat orrengandik azaldu da.
- 2/ Ainbeste urtean egondu gera batere notizi gabez, jakin naiean gure anaia bizi ote dan edo ez; bildur-bildurak gau eta egun ama gaxua negarrez, nola ez diran seme ederrak egin da azitzen aiñ errez.

- 3/ Bost urte iya igaro dira  
aita guria il zala,  
agindu zigun alkar amatzen  
egunak pasa gintzala;  
ark jakin balu Ameriketean  
semia txit ongi zala,  
baderizkiyot aldi batian  
oraindik biziko zala.
- 4/ Alde batera penak utzi ta  
asko nua kantari, (1)  
aitormen ona eman nayian  
nere amigo zarrari;  
obligaziyo aundiyak dizkat  
Kandido Ostolazari,  
uste ez gendun notizi asko  
bialdu dizkigu guri.

Jose Bernardok irugarren bertsoan dionez, aita il zitzaiera ia bost urte igaroak dira. Eriotz ori, leen ere esan bezela, 1883-ko abenduaren 27-an gertatu zan. Bost erantsita, 1888-garrena degu. Urte ortakoak izango dira, beraz, bertso auek.

\* \* \*

Zizurkilko Teodoro Mujika adiskideak gertaera eta bertso auen berri ematen zuan *El Diario Vasco* egunkarian, 1987-ko abuztuaren 12-an, *Oroitzak* izeneko idazlan batean. Onela zion:

“Zizurkilko Errekalde baserrian, Joxe Bernardo Otaño bertsolariaren gazte denboran gertatua da onako au.

Errekalde baserrian, Joxe Bernardoren gurasoak seme-alaba batzuek ekarri omen zituzten mundura. Oietako bi, Juan Joxe eta Joxe Bernardo.

Dirudienez, zarrena Juan Joxe(2); eta, jakiña danez, zarrena izaten zan etxeko nagusi izateko. Baiñan, itxura danez, aita Joxe Bernardo zuen gogoko, bertsolari egokia zalako eta oso bere begikoa zuelako.

Anai zarrenak, au igarri zuenean, Amerikara iges egin zuen; eta luzarotan bere arrastorik gabe egon ziran Errekalden.

Ama gaixoak negar asko egiten omen zuen, oroitzen zan bakoitzean. Eta aita ere garai oietan joan omen zan mundutik, bere barruko penak aztu eziñik.

Urte asko anaiaren arrastorik gabe egon omen ziran. Baiñan alako batez or itzultzen da Billabonako seme bat Amerikatik. Joxe Joakin Zaldua bere izena. Gizon jator eta prestua. Onek ekarri omen zuen berri pozgarri bat Errekaldeko famili jatorrera: nola Asteasuko seme Kandidorekin izan zuen izketaldi bat, onuntz etorri baiño

len, eta berak esan ziola ziur Errekaldeko Juan Joxe San Luis errian bizi zala.

Beraz, Billabonako kaballero onek

Joxe Bernardo bertsolariari eman zion berri au, onen bertsoak dioten bezela, Billabonako Albaite-etxeko egon-gelan:

1/ Aspaldi ontan tristerik geunden

iñungo notizi gabez,  
Ameriketan gure Juan Joxe  
bizi ote zan edo ez.

Ama gaixua gau eta egun  
ixildu gabe negarrez,  
seme ederrak ez diralako  
egin da azitzen errez.

2/ Billabonako kaballerua

Joxe Joakin Zaldua,  
bere guraso ixtimatuak  
bixitatzera eldu da.

Esanaz geunden: "Gure Juan Joxe  
Ameriketan galdu da".

Bizi dalako *aleluia* bat  
argandikan azaldu da.

3/ Juntatu eta egiña degu

izketa bat txit formala  
Billabonako Albaite-salan,  
neroni bertan negoala.

Asteasuko Kandidok orri  
esan omen diyo ala:  
dudarik gabe gure Juan Joxe  
San Luisen dagoala.

4/ Urte batzuek izango dira

aita guria il zala,  
esanez joan zan alkar maitatuz  
egunak pasa gintzala.

Ark jakin balu Ameriketan  
Juan Joxe txit ongi zala,  
baderizkiot aldi batian  
oraindik biziko zala."(3)

\* \* \*

Bertso auek doiñu onekin kantatu dizkigute Zizurkilko Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak:

Urte askuan e-gondu  
 ge - ra ba - te - re no - ti - zi ga -  
 bez, gu - re a - nai - a A - me - ri -  
 ke - tan bi - zi o - te dan e - do  
 ez; gau e - ta e -  
 gun i - xil - du ga - be a - ma

ga - xu - a ne - ga - rez, no - la ez  
 bai - ti - ran se - me e - derrak e - gin  
 da a - zi - tzen e - rez.

1. Bearbada, emen *astera nua kantari* edo olako zerbait bearko luke.

2. Etzan zaarrena, seniectan laugarrena baizik, eta anaietan bigarrena.

3. Joxe Bernardoren biloba dan Jesus Iztueta Otañok ere eman zizkidan bertso auek. Aurretik, adierazpen au:

"Joxe Bernardok baditu bertsoak anai bati atercak. Aren ezeren berririk gabe egon ziran urteetan. Baiña bizi zala berria ekarri zuan Joxe Joakin Zalduak -gizon aundi bat zan ori-, eta Joxe Bernardok lau bertso jarri zituan"

Bertsoak, Teodoro Mujikari jaso bezela, aldaketa auek izan ezik: 1/3: gure Juan Joxe Ameriketari; 2/1: Billabonako kaballero bat; 2/5: esanaz geunden: "Gure anaia; 2/7: bizi dala ta aieluia bat; 3/1: Etorri eta crabaki du; 3/7: gure Juan Joxe bizi dala ta; 4/1: Ia bost urte kunplitu dira; 4/3: esanaz jun zan alkar laguntzen; 4/6: semia txit ongi zala.

## "LAU BERTSO BERRI DIZKIT..."

Gero ere esango degunez, Otañotarrak bertso asko bialdu izan zituzten Euskal-Erritik Arjentinara eta andik onera, eskutitz gisa.

Onako lau auek ere, Jose Bernardok bere illobari bialduak, oietakoak dira. Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanaren eskutik jaso genituan.

- 1/ Lau bertso berri dizkit  
illobak eskatzen,  
luzaroko lanikan  
etzaigu prestatzen;  
nere entendimentua  
ez bada gastatzen,  
zenbaiti aña guri  
etzaigu kostatzen.
- 2/ Bi pezeta daukala  
perrak preziyua,  
emen ala aditzen det  
konbertsaziyua;  
jendeari emaiozu  
satisfaziyua,  
izatia nai badezu  
estimaziyua.
- 3/ Ondo ari zerala  
askok esaten du,  
aitona Pello Marik  
atsegiñ artzen du;  
dubenai duben griña  
iñork ezin kendu,  
ojala suerte on bat  
egingo bazendu.



4/ Amerika alde ortan  
ba al da dama onik,  
ezkontzeko gogua  
egiten zaionik?  
Pentsatuzen badezu  
orrelako lanik,  
onera etorri zaitez,  
billako dizut nik.

\* \* \*

Lau bertso auek, Zizurkilko Teodoro Mujikak bertako Errekalden jaio eta Jose Bernardo Otañoren billoba dan Jesus Iztueta Otañori jaso zizkion.

Aurreko adierazpena, beste onela:

"Pedro Maria Otaño tarteko zala *Artzai-Mutilla* izenburua zuen opera osatu zutenean, erreritza edo perratzaille lanean ari omen zan bera.

Garai ortan karta bat idatzi omen zion bere osaba Joxe Bernardori, lau bertso eskatuz, oraindik aitona Pedro Mari bizi zalarik."

Bertsoak ez dute alde aundirik Jose Antonio Loinaz-Otañok jasotako

erarekin. Orregatik, aldaketak bakarrik jarriko ditugu: 1/4: ez daukat prestatzen; 2/1: Bi pezeta daduka; 2/7: nai badezu izatea; 3/6: iñola eziñ kendu;

Eta laugarrena:

Amerika aldean  
bada maja onik,  
ezkontzeko gogua  
egiten zaionik,  
pentsatzen dezunian  
orrelako lanik,  
atoz onera eta  
billako dizut nik.

(1894)  
NAITASUNA

- 1/ Ni beti nabill gizon prestuak  
non bizi diran galdian,  
uste bezela arkitu ditut  
Donostiako kalia;  
galdetu diyet: “Zer diyozute  
aspaldiyan emen bian?”.  
“Gu oso ondo eta zu nola  
zabiltz Goierri aldian?”.
  
- 2/ Lendabiziko kale kantoian  
topo on Ramon Artola,  
andik puntuko non agertzen dan  
Biktoriano Iraola;  
Antonio Arzak ikusitzen det  
berriz aiekiñ nagola,  
gure euskeraren maisu aundiyak  
egokitu zaizkit onla.
  
- 3/ “Oraiñ puntuban emen pasa da  
Juan Pello, zure anaia;  
itz batzuetan egondu gera,  
txit dago gizon alaia;  
esan diyogu badaukagula  
zu emen ikusi naia,  
*Thun-thun* bertsuak ipiñitzeko  
orañtxen dala garaia”.



*Jose Bernardo Otaño*

Jose Bernardo Otaño (1842-1912), Pedro Mariren osaba, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894-IX-2).

- 4/ Nere illobak bixitatzera  
naiz ondorian abitu,  
Jose Bernardo ta Pedro Mari  
oso dirade arritu.  
“Beraz, gaur ere bertso berriyak  
onuntz ekarri ez ditu?  
Naigo genduke danik onenak  
jarriko baldin balitu”.
- 5/ Ikusirikan gizon aundiyak  
dadukaten nobleziya,  
eman biaiet onra eder bat  
zeren duten mereziya:  
nere partetik osasuna ta  
urte askoko biziya.  
Au da Bernardo zizurkiltarrak  
desio duben guziya.

Bost bertso auek Donostiako *El Thun Thun* aldizkariak argitaratu zituan, bere 24 zenbakian, 1894-eko iraillaren 2-an, *Poetas Vascongados* izenarekin ia zenbaki guzietan agertzen zan sail batean, Jose Bernardoren marrazki edo *caricatura* bat alboan dala.

Bigarren bertsoan aitatzen diran jaunak -Ramon Artola, Biktoriano Iraola eta Antonio Arzak alegia-, garai

artako iru euskaltzale prestu eta langi-  
lleak izan ziran.

Iruugarren bertsoan Jose Bernardoren anai bat izendatzen da: Juan Pedro, Pedro Mariren aita. Beraren bertsoak ere agertu zituan *El Thun Thun* dalako orrek.

Laugarrenean, berriz, Jose Bernardo eta Pedro Mari. Alkarren anaiak ziran auek. Pedro Mari, Zizurkilko bertsolari aundia.



Antonio Arzak Alberdi (1855-1904)

**ZIZURKILLEN 1894-GARREN URTIAN  
BERNARDO OTAÑOK  
JARRIAK BERE ARTIAN**

- 1/ Usurbil aldetikan  
ditut notiziyak,  
neretzako dirade  
sobra gaziyak,  
Juan Jose Udarregik  
biraldu aziyak;  
pazientziyan nago  
Jaunari graziyak;  
gure nobleziyak  
ala mereziyak,  
kontu itxusiyak  
dauzkat ikusiyak;  
nola ongi bukatu  
gaizki asiyak?
  
- 2/ Biartu zeradenez,  
zuk ezeren faltik  
beñere eztezu izan  
Errekaldetik.  
Pellorekin badezu  
konpon zaitez ortik;  
zertan mintzatu zera  
Bernardorengatik?  
Ai zera gogotik  
guztiyen gañetik,  
ez dizula inportik,  
ori zure autik;  
askoz ederrago zan  
aldamenetik.

- 3/ Iru gizon kantari  
Azpeitiko plazan,  
gu ikustiagatik  
amaika bazan.  
Zenbaiten mingañian  
premiyua dantzan,  
Udarregi zeguan  
ustez segurantzan.  
Esateko trazan  
ala ezagun zan;  
Pello're arrantzan,  
ni're esperantzan.  
Justu itzegingo det  
an zer pasa zan.
- 4/ Kotxian zan Juan Jose  
Azpeitiyan sartu,  
ia Bernardo nun zan  
zuben galdetu.  
Kasinuan nintzala,  
ara zan agertu,  
“Premiyuaz zer berri?”  
ninduban tentatu.  
Makiña bat kontu  
genduban tratatu,  
bera apartatu,  
zitzaion saltatu  
berdiñian etzala  
ura kontentu.
- 5/ Pello arrimatu zan  
berriz neregana,  
au da lendabiziko  
esan zirana:  
“Deskuiduan erortzen  
bada guregana,  
partituko al degu  
biyok erdibana?”.  
Udarregik jana  
zeukan ango lana,  
guri pixka bana,  
au zan aren plana.  
Orra egiaz esan  
gertatu zana.

- 6/ Propiyo Azpeitira  
egiñ giñan juan,  
jakiñik premiyo bat  
nola zeguan.  
Udarregi ta Pello  
neronen onduan,  
egun ura oraindik  
dadukat goguan.  
Juan Josek orduan  
itzegin bazuan  
alako kasuan  
konfiantza osuan,  
guk bezela igual  
izango zuan.
- 7/ Gizonikan onena  
askotan txartzera;  
Udarregi, geiegi  
mintzatzen zera.  
Zere lagun aundiya  
zatoz mantxatzera,  
ortatikan obeki  
irtengo etzera.  
Al balitz zartzera  
erronkak atzera,  
ez iñor galtzera,  
baizik laguntzera,  
begiratubaz zeñek  
bere etxera.
- 8/ Ekiteko diyozu  
gogotik lanari,  
zertara ote dijua  
arrazoi ori?  
Ortarako zanikan  
Juan Jose Udarregi  
ez niyon sinistuko  
munduban iñori.  
Bajeza ubari  
bere lagunari,  
Jose Bernardori,  
ez gustatzen neri,  
prenda artzen pakian  
daganari.



- 9/ Ongi partituko zan  
ango urre pilla,  
eduki izan bazendu  
mingaiñ ixilla.  
Batzuek etorriko  
ziran Usurbilla,  
nola Astiasura  
ala Zizurkilla.  
Zu zaude mutilla  
ez oso umilla;  
eiñ dala tortilla,  
au zure kartilla;  
garai onian zatoz  
premiyo billa.
- 10/ Orañ beste bat arte,  
Juan Jose, ariyo,  
etzait gustatzen albait  
berri jariyo.  
Alde ziñala uste  
eta kontrariyo,  
askotatik gutxiri  
gustatutzen zayo.  
Beti zaitut iyo  
zeren nintzan piyo;  
ala du baliyo,  
gaur nago seriyo,  
kontu txarrak atera  
diran meriyo.
- 11/ Ni onetara nintzan  
bestek biartuta,  
egon zaitezte biyok  
ezagututa.  
Gizon zital samarrak  
giñaden bilduta,  
geroztikan bizi naiz  
oso damututa.  
Daukat pentsatuta  
danok juntatuta  
bertso onak bota,  
ez alkarren kontra.  
Agur, Udarregi ta  
Pello Errota.

Bertso auek "Tolosan: P. Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen moldizteguien" inprentatu ziran paperetan. Ale bat Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genduan.

"Imp. Macazaga - Renteria" moldiztegian ere argitaratu ziran paperetan. Ale bat Urretxun jaso genduan, Manuel Beraza apaiz jaunaren eskutik. Paperaren atzeko aldean beste bertso auek daude: *Neska zar batek bere buruari jarriyak*: "Bertsuak jarri dizkat nere buruari...".

*Bertsolariya* aldizkarian ere agertu ziran, leendabiziko zenbakian. Baiña ez da *Bertsolariya* errepublika denborako bertso-astekari famatua, baizik-eta gerraz geroztik, Makazaga-renean bertan itxura danez, azaldu zan amar orriko zenbakia.

\* \* \*

Edozein bertsozalek dakianez, Azpeitiko premia zala bide, alkarrekin asarretu egin ziran Udarregi eta Pello Errota. Arek ekin zion bertso moldatzeari, eta Pellok erantzun. Bigarren aldian Udarregik jarri, eta oraingo ontan Jose Bernardok bialdu zizkion ordaiñak bertso auekin.

Etzan sesio mikatz ura orrekin bukatu. Baiña Jose Bernardok etzuan bertsorik geiago paratu gai orri buruz.

\* \* \*

Jose Bernardoren familikoak esaten zuten, ez omen zitzaien bigarren bertso ori geiegi gustatu. Dударik ez dana, bazituan arek laguntzak egiñak Udarregiri, eta etzuala ori kanpoko jendeak jakin bear; etzala era ortan nabarmendu bear.

**BERTSO BERRIYAK**  
**ZIZURKIL-KO MISIYUAREN ONRAN**  
**1896-GARREN URTEAN JARRIYAK**

- 1/ Nola artzaiak ibiltzen diran  
ardi galdubaren billa,  
bi Aita prestu etorri zaizku  
misiyuak Zizurkillan;  
agertu dute beren biyotza  
leiala eta umilla,  
oien frutuba guretzat ona  
betiko gerta dedilla.
  
- 2/ Erri ortara iritxi ziran  
urriyaren ogeyan,  
urtiak milla zortzireun da  
larogei ta amaseyan;  
Altziturrira irten giñaden  
esan zuten garayian,  
San Frantziskoren seme leialak  
geunden ikusi nayian.
  
- 3/ Oi ta batian Padre Ugarte  
pulpituban lendabizi,  
kabildo ona ta justiziya  
zan alabatutzen asi;  
zizurkiltar da albo-erritar  
danontzako milla grazi,  
bere aurrian nai gaitubala  
guztiyok ondo ikusi.

- 4/ Agertu digu nolakua dan bere desio ta griña, nai lukiala lotan gaudenak esnatuko bagiña; destierruan eztaguala guztiyontzako berdiña, enpeñatu da erakutsitzen nola egiñ esamiña.
- 5/ Atera digu ejenplotxo bat izugarri egokiya, itz oriyekin ia oroitzen ote dan pekatariya; badakigula nolakua dan jorratzen eztan arbiya, alakuaren kontzientziya eztaguala garbiya.
- 6/ Padre Arrue predikatutzen berriz urrena asi zan, ni ere zerbait ikasi naian denbora artan an nitzan; peligrosuak geundela ziyon mundu ontako bizitzan, guztiyontzako ditxa iguala eziñ leikiala izan.
- 7/ Daduzkagula diyo peligro aundiyak eta larriyak, endemas ere komertziante, baitare tratariyak; lapurreta ta tabernetako jan da eran geiegiyak, ia nola izan al ditezkian aien animak garbiyak.
- 8/ Arritu gaitu predikatutzen oien abilidadiak, esan digute zer diran gure munduko banidadiak; aparientzi asko dutenak ez diradela obiak, konfesatzera juaten dirala damutasunik gabiak.

- 9/ Obe liteke mundu onetan  
obra oberik arkitu:  
esamiñatu ta ondorian  
kontzientziya garbitu.  
Pekatu asko izanagatik  
eztedilla iñor arritu,  
barkatzen zaizka damutu eta  
konfesatutzen baditu.
- 10 / Esan digute ez aztutzeko  
aik emandako ordenak,  
ez eta ere bost kondiziyo  
konfesiyo onarenak;  
esamiñatu ditzagula ondo  
bakoitzak geren barrenak,  
denbora geigo biar dubala  
pekatu asko duenak.
- 11/ Lenbizikua esamiña da,  
bigarrena doloria,  
irugarrena proposituba  
sendua eta fuertia;  
laugarrenian pekatu danak  
konfesatu biar dia,  
bostgarrenian gelditu dedin  
satisfaziyo obia.
- 12/ Guraso zarrak nola ginduzen  
neke aundiyan ipiñi,  
au adirazten itz gutxirekin  
ezta errez edozeñi;  
Jangoiko onak nola biar zan  
agindu ziyon Adani,  
arbola ura ikututzia  
etzitzaiola konbeni.
- 13/ Adan da Eba Paradisuan  
nola ziraden gertatu,  
beren ausardiz ta arrokeriz  
egiñ baizuten pekatu,  
gureztat zenbat oker datorren  
eziñ gentzake pentsatu,  
aik berak eta ondorenguak  
ortikan giñan mantxatu.

- 14/ Berriz gaitz ori erremediatzen  
Jangoiko ona asi zan,  
agindu eta zeruetatik  
Jesus maitea jetxi zan;  
baita esan zuben nola biar zan  
mundu ontako bizitzan,  
eta gañera guregatican  
gurutze batian il zan.
- 15/ Nola diraden amar justubak  
beraren mandamentubak,  
guardatzeko oriyek eta  
aren agindu santubak;  
deskuido gabe egizagula  
biairan puldamentubak,  
eta atzenian nora biagun  
ateratzeko kontubak.
- 16/ Jaungoikoa ama dezagun  
gauza guziyen gañian,(1)  
juramentubak oso utzi ta  
lanik ez egiñ jayian;  
gurasoari ondrak emanik,  
iñor il bage, onian;  
lujuri, lapurreta, gezurrik  
kontu zortzigarrenian.
- 17/ Urratutzeko etsai gaiztuen  
sariak eta katiak,  
gure gañera erori gabe  
negargarrizko kaltiak;  
Jaungoikoaren neurri justubak  
iya daudela betiak,  
ta eztubela baliyo arri  
gezurra eramatiak.
- 18/ Zeruetako ate onduan,  
bera bakar-bakarrikan,  
karabinero txiki polit bat  
daguala jarririkan;  
aiñ dala ernaia, eztadukala  
begiyetan makarrikan,  
eztiyola iñork ere pasako  
ari kontrabandorikan.

- 19/ Gizon arruak eta argalak  
nola gabiltzan munduban,  
Jangoiko onaz oso azturik,  
gerok nai degun moduban,  
Padre Arruek pulpitutikan  
ala otsegiten zuban:  
eztala ziyon orrelakorik  
iñor sartuko zeruban.
- 20/ Istimatzeke diyote alkar  
projimo edo laguna,  
gorrotua ta bengantza txarra  
eztaukagula lan ona;  
batzuentzako argitasuna,  
askorentzako illuna,  
negargarriya izango dala  
juiziyoko eguna.
- 21/ Onak diranak eskubitara  
ta gaiztuak ezkerrera,  
juez justubak botako dizku  
geren kargak bizkarrera;  
sententzi (y) ori azkenerako  
dijua leku txarrera:  
eternidade guzti-guztiko  
infernuko ondarrera.
- 22/ Berriz ogei ta bederatziyan  
Padre Arrue jaun ori  
barkaziyua eskatzen asi  
zaio bere lagunari;  
gero erriko bikariyua  
eta sazerdotiari,  
damu duela ofensarikan  
egifi badiyo iñori.
- 23/ Aiuntamentu ondradubari  
barkaziyua urrena,  
arren izketa lastimosuak  
betetzen zigun barrena;  
naitasun asko jarri zaiela  
emengo jendiarena,  
eta gu gaizki ikusitiaz  
izango dutela pena.

- 24/ Ikusirikan asistimentu  
eta gure nobleziyak,  
“nere aditzalle biyotzekuak,  
eskerrak eta grazziyak”;  
barkaziyua nai lukiala  
eman ditu notiziyak,  
baietz erantzun giñien danok  
elizan geunden guziyak.
- 25/ Ejenplo onak emanda zaizku  
erri ontatikan juan,  
Padre Ugartek zer esan zigun  
beti izango det goguan:  
gerok baño len bera iltzen bazan  
nola deseatzten zuan  
aita gure bat aiengatikan  
errezatuko genduban.
- 26/ Ia benaz da biyotzetikan  
ori agintzen giniyon,  
eta jendiak, gogoz alare,  
baietz erantzuten ziyon;  
agertu zuben projimoari  
zenbateraño nai ziyon,  
busti malkuak begiyetatik  
ixuri azi zizkiyon.
- 27/ Adios, Padre Arrue, eta  
adios, Padre Ugarte,  
nere biyotzak dadukan pena:  
izan biarra aparte;  
agerturikan berak gugana  
orrenbeste borondate,  
berongatikan ez naiz aztuko  
bizirik nagan arte.
- 28/ San Frantziskoren seme leialak  
egin duten nobleziya,  
alabantz on bat eman nai diyet(2)  
zeren duten mereziya;  
nere partetik osasuna ta  
urte askoko biziya,  
Jose Bernardo zizurkildarrak  
au du desio guziya.



# BERSO BERRIYAC

## Cizurquil-co Misiyuaren onran 1896-garren urtean jarriyak.

-1-

Nola arzayac ibiltzen diran  
Ardi galdubaren bila,  
Bi Aita prestu etorri zaizcu  
Misiyuac Cizurquilla,  
Aguertu dute boren biyotza  
Leyala eta umilla,  
Oyon frutuba gureizat ona  
Belico guerta dedilla.

-2-

Erri ortara irichi ciran  
Urriyaren ogueyian,  
Urtiac milla zortizreunda  
Laroguita amaseyian,  
Ala-iturria irten guinaden  
San Franciscoren Seme leyalac  
Gueunden icusi nayian.

-3-

Oitabatian Padre Ugarte  
Pulpituban leandabici,  
Cabildo ona ta justiciya  
Zan alabatutzen asi,  
Cizurquil-tar da albo-erriat  
Danontzaco milla graci,  
Bere arriuan nai gaitubala  
Guztiyoc ondo icusi.

-4-

Aguertu diga nolacua dan  
Bere desio ta grina,  
Nolituquila lotan gaudenac  
Esaucaco baguina,  
Destierran estaguala  
Guztiyontzaco berdiña,  
Empedatada eracutsitzen  
Nola eguini esamina.

-5-

Atera diga ejemplocho bat  
Iragarri egoquiya,  
Itz orieyiquen ya oroitzen  
Ote dan peccariya,  
Badaquiuala nolacua dan  
Jorritzen estan arbiya,  
Alacareo concienciya  
Estaguala garbiya.

-6-

Padre Arrue predicatuzten  
Berriz urrena asi zan,  
Ni ere cerbail icasi nayau  
Demora artan an nitzau,  
Peligraso guendela ciyon  
Mundu ontaco bicitzan,  
Guztiyontzaco dicha iguala  
Ecin leiquista izan.

-7-

Daduzcagula diyo peligro  
Aundiayc eta larriyac,  
Endemas ere comerciante  
Baitaro tratariyiac,  
Lapurretia ta labeñetaco  
Jan da eran guereyiyac,  
Ya nola izan aitezquian  
Ayen animac garbiyac.

-8-

Arritu gaitu predicatuzten  
Oyen abitudadiac,  
Esan digute cerdiran gure  
Muuduco banidadiac,  
Aparientzi asco dutenac  
Ez diradela obiac,  
Confesatzera jueatan dirata  
Damutasunic gabiac.

-9-

Ote liteque mundu onetan  
Obra oheric arquiteu,  
Esaminatu ta ondorian  
Concienciya garbitu,  
Pecatu asco izanagatic  
Eztedilla inor arritu,  
Barcatzen zaizca danutu eta  
Confesatuzten baditu.

-10-

Esan digute ez aztutzeco  
Aic emandaco ordenac,  
Ez eta ere host condiciyo  
Confesiyo onarenac,  
Esaminaitu ditzagula ondo  
Bacoitazc guren barrenac,  
Demora gueigo biardubala  
Pecatu asco duenac.

-11-

Lembicucia esamina ta  
Bigarrena doloria,  
Iragarrena proposituba  
Sendua eta fueria,  
Langarrenian pecatu dauac  
Confesatu biar dia  
Botigarrenian gulditu dedin  
Satisfasiyo obia.

-12-

Guraso zarrac nola guinducen  
Neque aundiyan ipiñi,  
Au adiraxten itz guchiroquin  
Ezia errez edoceni,  
Jangoico onac nola biar zan  
Aguada ciyon Adau,  
Arbola ura icutuzia  
Etaitzayola combeni.

-13-

Adan da Eva Paradisuun  
Nola ciraden guertatu,  
Beren asaridiz ta arroqueriz  
Eguini baizuten pecatu,  
Gureizat combat oquer datorren  
Ecin guntzateque penitatu,  
Aic berac eta ondorenguc  
Ortican guinan manchatu.

-14-

Berriz gaitz ori erremediatzen  
Jangoico ona asi zan,  
Aguindu eta Cruxetic  
Jesus maitea jechi zan,  
Baita esan zuben nola biar zan  
Mundu ontaco bicitzan,  
Eta gabea guregatican  
Gurutze batian iltzan.

-15-

Nola diraden amar justubac  
Beraren mandamentubac,  
Guardatzeco oriyec eta  
Aren aguindu Santubac,  
Descuido gabe eguizagula  
Biatran puldamentubac,  
Eta atzenian nora biagun  
Ateratzeco coubac.

-16-

Jaungoico ama dezagun  
Gauza guciyen gañean,  
Juramentubac oso utzi ta  
Lanic ez eguini jaiyan,  
Gurasoari ondrac emanic  
Inior ill bague onian,  
Lujuri lapurreta guesurric  
Contu zortizgarrenian.

-17-

Urratutzeco etsai gaiztuen  
Sariac eta catiac,  
Gure gañera erori gabe  
Negargarrizco caticac,  
Jaungoicoaren nourri justubac  
Iya daudela betiac,  
Ta ezubela baiyo arri  
Guesurric eramatiac.

-18-

Cerrotaco ate onduan  
Bera bacar hacarrican,  
Carabunero chiqui polit bat  
Daguala jarriican,  
Ain dala eraña ez tudacala  
Beguiyutan macarrican,  
Estiayola inorec ere pasaco  
Ari contrabandorican.

-19-

Guizon arruac eta argalac  
Nola gabitzan munluban,  
Jangoico onaz oso azturic  
Guoroc nai degun moduban,  
Padre Arruac Pulpitutican  
Ala otzeguiten zuban,  
Eztala ciyon orrelacoric  
Inior sartuco Ceruban.

-20-

Istimatzeco divote alcar  
Progimo edo laguna,  
Gorrotua ta bengantzac charra  
Eztacucagula lan ona,  
Batuzcuzaco arguitasuna  
Azcorrentzaco illuna,  
Negargarrizya izango dala  
Juiciyoco eguna.

-21-

Onac diranac escubitara  
Ta gaiztuc ezquerrera,  
Juez justubac botaco ditzu  
Gueren cargac bizcarrera,  
Sententziyori azqueracaco  
Dijna lecu charrera,  
Eternidade guiti guztico  
Infernuc ondarrera.

-22-

Berriz ogeuita bederatzian  
Padre Arrue Jaun ori,  
Barcaciya escuzen asi  
Zayo bere lagunari,  
Guero errico Bicariya  
Eta Sacerdotiari,  
Danu duela ofensarican  
Eguini badiyo inori.

-23-

Ayuntamiento ondradubari  
Barcaciya urrena,  
Arren izquetta lastimosuac  
Betelzen cigun barrenac,  
Naitasun asco jarri zayela  
Emengo jendiarena,  
Eta gu gaizqui icusitiaz  
Izango dutela pena.

-24-

Icusirican asistimentu  
Eta gure nobleciyac,  
Nere adizalle biyotzucac  
Esquerrac eta graciyc,  
Barcaciya nai juquiala  
Eman ditu noticiyac,  
Bayer erantzun guinien danoc  
Elizan gueunden guciyac.

-25-

Ejemplo onac emanda zaizen  
Erri onlatian Juan,  
Padre Ugartec cer esan cigun  
Beti izango det goguan,  
Guero banolen heraitzenbazan  
Nola desatzen zuan,  
Aita gure bat ayengatican  
Errezatuco guenduban.

-26-

Ya benaz da biyotzetican  
Ori aguitzen guiniyon,  
Eta gendiac gogoz alare  
Bayetz erantzuten cigun,  
Aguertu zuben progimoari  
Cembateraco naiçiyon,  
Busti malcucac beguiyetic  
Isuri asi cizquiyon.

-27-

Adios Padre Arrue eta  
Adios Padre Ugarte,  
Nere biyotzac daducan pena  
Izan biarra aparte,  
Aguerturican berac gugana  
Orrembeste borondate,  
Berrogatican esnaiz aztuco  
Bicirie naguan arte.

-28-

San Franciscoren seme leyalac  
Eguin duten nobleciya,  
Alabanz on bat eman naidiyc  
Ceren duten mereciya,  
Nere partetic osasuna ta  
Urte ascoco biciya,  
José Bernardo Cizurquil-darrac  
Au du desio guciya.

Bertso auek "Tolosan: P. Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen Moldizteguien" argitaratu ziran.

Bertso-paper ori Oxford-ko *Bodleian Library*-tik bialdu ziguten mikro-filmez. Paperak beeko barrenean liburutegi orren sillua du, egun batekin: 2-7-1897. Paper ori eskuratu zuten eguna-edo esan naiko du.

Egillearen izena azken bertsoak ematen digu, zazpigarren lerroan: Jose

Bernardo zizurkildarra; Jose Bernardo Otaño alegia.

Leen agertu degunez, beste bertso -sail bat bada Zizurkilko 1878 urteko Misoari jarria; eta, itxura danez, Jose Bernardorena bera ere.

---

1. Bertso-paperak: *gañean* .

2. Bertso-paperak: *diyec* .

## AITA MANUEL LARRAMENDI-REN BIZITZA ITZ NEURTUETAN

- 1/ Andoaindarrak esan dirate  
kantak jarri al banitza,  
“aspaldi ontan zu ikusteko  
desiaturik gabiltza”.  
Nik ere saiatuko naizela  
baietz eman diet itza,  
zabaldutzeko nolakua dan  
Larramendiren bizitza.
  
- 2/ Erri orretan baserri noble  
Garagorri deritzana,  
orain berreun urte bezela  
Larramendi jaio zana;  
eta Domingo ta Manuela  
zituben aita ta ama,  
aziya zuten bildur aundiyan  
Jaungoiko onarengana.
  
- 3/ Manueltxo au jaio zitzaien  
neguaren biotzean,  
abenduren ogei eta bost  
iritxitako goizean,  
milla seireun larogei eta  
amargarrengo urtean,  
zer aleluya igaroko zan  
guraso oien tartean!

- 4/ Mutill koskorra aiñ zan ernaia,  
nork ark bezela itzegiñ?  
Guraso onak promes berri bat  
orduaz zioten egiñ.  
Pentsatu zuten lendabiziko  
eskolatzia Ernaniñ,  
aundiagora gero juateko  
piska bat argitu zediñ.
- 5/ Ikusirikan guztiz azkarra  
berriz zitzaien gogora  
obia zala ateratzia  
Ernaitikan kanpora.  
Guraso onak pentsatu zuten  
pasatutzia Bilbaora,  
Jesus onaren Biotz Santuko  
osaba baten ondora.
- 6/ Mendi altuen gañetaraño  
jakinduriyaz aziya,  
mundu ontako izate dana  
zeukan alde bat utziya.  
Oso gazterik eskatu zuben  
erretiroko jantziya,  
artian amazazpi urtera  
etzeguan iritxiya.
- 7/ Larramendi au sartu izan zan  
Jesusen Biotz maitcan,  
milla zazpireun eta gañera  
zazpigarren urtean;(1)  
eta seigarren eguna berriz  
zan azaroko illean,  
emengo *pompak* oso utzi ta  
umildadeko bidean.
- 8/ Utzi zituen Garagorriko  
bere bizitza gozoak,  
bai eta ere lagun gazteak,  
aide eta gurasoak.  
Begiya berriz oso seriyo  
Jesusengana jasoak,  
prestaturik noiz deituko zion  
Jaungoiko amorosoak.

- 9/ Añ zan leguna-eta liraña  
Larramendiren graziya,  
esaten zuen kia bezela  
zala munduko biziya.  
Lagun gazte eta erromeriak  
zegoan alde bat utziya,  
Jabe Onari entregatua  
bere izate guziya.
- 10/ Jakinduriyan gora zijuan  
beti urtetik urtera,  
agintariak idia on bat  
orduán zuten atera:  
kanpoetara bialdutzea  
are geiago ikastera,  
Villagarcía esaten zaion  
Galiziko erri batera.
- 11/ Erri ortako jendi guzia  
arras zegoan gustora,  
esaten zuten etzutela nai  
ura juaterik iñora.  
Larramendiren nagusiari  
berriz zitzaien gogora  
aldatutzia ikas lekuba  
andik Medina Campo-ra.
- 12/ Medinatarrak an ikustez  
etzedukaten penikan,  
esaten zuten etzutel'uste  
zala alako gizonikan.  
Larramendi au saiatutzen zan  
beti umildadetikan,  
bañan denboraz aldatu zuben  
Salamanca-ra andikan.
- 13/ Baita erregiñak eraman zuben  
bera konpesatutzera,  
esan ziyoten pasa zedilla  
Salamanca-ra ostera.  
Zenbat liburu zabaldu zuben  
erri batetik bestera,  
piztu naiean gaztelaubari  
paregabeko euskera!

- 14/ Euskaldunak gu gaizki ikusita  
guztiz artutzen zuan miñ,  
bere gogo ta intentziua  
txit agertzen zituben piñ.  
Saiatutzen zan alegiñian,  
beti egiñalak egiñ,  
gure artian euskera ona  
beñere aztu etzediñ.
- 15/ Sermoian ere txit ederra zan,  
asko zekiyeñ luzitzen,  
aditzallien biotzetara  
piskabana zan mugitzen.  
Lendabiziko ari begira  
parrez ziraden asitzen,  
bazerakiyeñ negar malkuak  
gero isuri azitzen.
- 16/ Gogo aundian eta kontentuz  
juatian predikatzerata,  
esperantz ona biraltzen zuben  
euskaldunen biotzera;  
eta esanaz gure ait'izan  
nai zukiala zartzera,  
ala etorri zan Loiola aundiko  
Inazioren etxera.
- 17/ Guztiz kontentuz arkitutzen zan  
Loiolako komentuan,  
gau eta egun Jesus maitia  
zedukan pentsamentuban;  
ta ill biarra etorri zaio  
espero zuben orduan,  
nola ez geran jaiotakorik  
iñor betiko munduban.
- 18/ Milla zazpireun irurogei ta  
sei urte ziran kunplitu,  
ogei ta zortzi ilbeltzak ere  
egun orretantxen ditu.  
Aita gozo au gu utzita zan  
zeruetara abitu,  
bañ'esan zuben bildurtzen zala  
nol'ote giñan gelditu.

- 19/ Bere edadia irurogei ta  
amasei bat urte aundi,  
juan biarra etorri zaio  
beste mundura emendi.  
Kardaberaz ta Mendizabalek  
lagundurikan txit ongi,  
agur danari egiten ziela  
ill zan Aita Larramendi.
- 20/ Garagorriko baserriyan zan  
Aita Larramendi jayo,  
baita Andoaingo erriyari're  
onra aundi bat eman diyo.  
Ejenplo onak utzi munduban,  
gero zeruetara iyo,  
gu euskaldunak ementxen gaude  
jaun ori dała meriyo.
- 21/ Zenbait pertsona mundu ontatik  
bada bestera juana,  
denbora labur biaje ori  
iritxiko da gugana.  
Zer ditxosua arkituko dan  
anima garbi daukana!  
Jose Bernardo zizurkildarrak  
au da deseo duana.(2)

Bertso auek *Imprenta de M. Guimón, Narrica, 10* moldiztegian inprentatu eta paperetan zabaldu ziran. Ale bat Azpeitin arkitu genduan, Odria baserrian. Beste bat, Gregorio Mujika zanaren bilduman.

\* \* \*

Itxura danez, andoaindarren batzuk etorri zitzaizkion Jose Bernardori, Aita Larramendiri buruz bertsoen batzuk

jarriko ote zituan galdetuz. Argibideak eta zer esanak beraiek emango zizkioiten. Bertsolariak, berriz, bere eginkizuna zintzo eta ondo bete zuan.

Zoritzarrez, bertso auek noiz jarriak diran ez dakigu. Ez baita ori esaten; eta somatzeko biderik ere ez degu guk beintzat ikusten.

Auxe bakarrik esan genezake: Pedro Mari Arjentinan zala moldatutako bertsoak izango dirala agian. Bestela, ziur aski, arengana joko zuten andoaindarrak.

1. Bertso-paperak: *urtian*. Punturako *urtean* beardu.

2. *Argia* astekarian ere agertu ziran, 1927-ko maiatzaren 5-can. Baiña beste orden ontan: 1, 2, 3, 4, 5, 9, 6, 7, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20 eta 21-garrena.

Gaiñontzeko aldaketak: 1/4: desiatuak gabiltza;

3/1: Manueltxo au jaió izan zan; 3/5: milla seireun eta irurogei; 3/6: ta zazpigarren urtian; 7/3: milla seireun eta irurogei; 7/4: t'irugarrengo urtian; 9/3: esaten zuten kia bezela; 9/5: lagun arte ta erromeriyán; 12/1: Medinatarrak au ikustian; 14/1: Gu euskaldunak gaizki ikusita; 14/3: bere gogo ta sentimentuak; 16/1: Gogo aundiyaz eta kontentuz; 16/4: euskaldunen biotzetara; 16/7: ala etorri zan Loiolako; 19/5: Kardabez eta Mendizabalek; 20/6: beca zeruetara iyo.



**PEDRO MARIA OTAÑO BARRIOLA**  
**(1857 - 1910)**

## ZIZURKILKO URTEAK

Jose Bernardo Otañoren anaia, Juan Pedro, 1829-ko abenduaren 28-an jaio zan.(1)

Bi aldiz Ameriketara izan zan. Baiña berak bere bertso batzuetan esaten duenez, ez omen zan andik indiano aberatsa etorri:

Bi aldiz izanduba  
nago Amerikan,  
ta naiz ez ekarri len  
andik dirurikan...

Juana Bautista Barriola Arregirekin ezkondu zan, 1854-eko azaroaren 27-an, Zizurkillen. Andregai Billabona-ko alaba zan, baiña ez ala bear zualako: "*natural por casualidad de Billabona*".(2)

Juana Bautista au Zizurkilko Iragorri baserrikoa zan. Plazatik gora abitu eta ezkerretara berealaxe dago baserri ori.

Seme-alaba auek izan zituzten: Juana Bautista, 1855-VII-22-an jaioa; Mikaela, 1857-I-26-an; Pedro Maria, egun berean jaioa, bizkiak, beraz(3); Juana Mikaela, 1859-VI-12-an; Josefa Antonia, 1862-I-2-an; Jose Bernardo, 1864-V-19-an; Juan Pedro, 1866-VI-

29-an; Jose Frantzisko, 1869-I-18-an; eta Jose Domingo, 1873-IX-4-ean.(4)

Senide auetatik irugarrena izan zan Pedro Maria Otaño bertsolaria.

Esan degun bezela, arreba bizki bat izan zuan: Mikaela. Iru orduko aldearekin jaio ziran: arreba gaueko seietan: "*a las seis de ayer a la noche*", bataio-agiriak dionez; eta Pedro Mari gaueko bederatzietan: "*a las nueve de ayer a la noche*".

Biak ere medikuak bataiatu zituan, jaio berriak il arriskuan arkituko ziran eta.

Beti esan izan dan bezela, Pedro Mari eta bere arreba bizki Mikaela Errekalde baserrian jaio ziran. Pedro Marik, izan ere, geroago esango degunez, ango ateak jo zituan, Ameriketatik etorritakoan, "bera jaio zan oiaren eske".

Pedro Mariren arreba bizki ori ain-gerutan il zan, 1858-ko martxoaren 1-ean, amairu illabeterekin.(5)

Senide auen zenbait bataio-agiritan, argibide jakingarri bat agertzen da: amaren aldeko aitona, Frantzisko Maria Barriola alegia, erriko sekretarioa izan zala. Gizon eskolatua, beraz.



Errekalde baserria

Eta bere billobak ere eskola onaren jabe izan zitezen aalegiñak egingo zitua-  
la dudarik ez da.

Gaszteizko gotzaia, Diego Alguacil jauna, Billabonara etorri zan, 1863-ko garagarrillaren 20-an, Piedadeko ermitara -artean parrokia egin gabe egongo zan eta-, sendotza sakramentua banatzera. Artzailleen artean, iru otañotar aitatzan dira: Pedro Mari, Juana Mikaela eta Juana Bautista.(6)

Sakramentu ori artu zutenen izenak, etxez-etxe sailkatzen dira sendotza-agiriaren liburuan, eta iru senide auek Karidaden bizi zirala esaten da. Karidadeko benta da ori, eta artaz urrengo atalean mintzatuko gera.

Benta ori noiz egin zan eta Pedro Mariren familia Errekaldetik ara noiz aldatu zan ez dakigu. Baiña naiko berrri zeatza eta oso gogoangarria sendotzako agiri orrek ematen digu: 1863 urtean an bizi zirala beintzat.

Leen aitaturtako 1871-ko *Padrón Municipal*-ean ere azaltzen danez, Zizurkilko Elbarrena baillaran bizi ziran Juan Pedro eta bere familia, baiña 30-garren zenbakian. Ez, beraz, Errekalde baserrian, Jose Bernardorekin batera, au 16-garren zenbakian bizi baitzan. Bigarren etxe ori Karidadeko benta zan.

Zenbait agiritan, aita argiña zala esaten da: *cantero*; eta ama, tabernaria: *tabernera*. Beste batzuetan, berriz, aita ere tabernaria zala. Baiña gero, familia Donostira aldatu ondoren, aitari *cantero* esaten zaio. Eta berak ere, gero aitaturtako ditugun bertso batzuetan, bere buruari *argiña* esaten dio:

billatzen erreza da  
Juan Pello argiña.

Zizurkilko 1871 urteko *Padrón Municipal*-ean esaten danez, famili au onela osatzen zan: Juan Pedro Otaño eta Juana Bautista Barriola, gurasoak alegia; eta seme-alabak: Pedro Maria, Juana Mikaela, bigarren Pedro Maria bat; Juan eta Jose Frantzisko.

Duda egiten degu senideen zerrenda ori oso arretaz eta kontuz egin ote zan. Izenak aldatuta baitaude; eta urteak eta egunak ere ez datoz bat bataio-agirietakoekin.

Pedro Mariren anai gazteena, Jose Domingo, 1875-eko urriaren 17-an il zan, bi urterekin, Zizurkillen.(7)

Juan Pedro, Arjentinan ezkondu zan Pehuajó-n, Pedro Mari ere bizi izan zan errian alegia, Plata-ko eliz barrutian, 1914-eko apirillaren 8-an. Andregai Josefa Eseberri izan zan.

Senideetan azken bigarrena, berriz, Jose Frantzisko, ura ere Ameriketara joan zan, eta bertan il, aurrerago esango degunez.

Senide auen ama, Juana Bautista Barriola Arregi alegia, 1879-ko abenduaren 29-an il zan, berrogei ta amar urterekin, "*a causa de perlesía*", eriotz-agiriak dionez.(8)

Baiña Pedro Marik, bere bertso batean, aurreko eguna jotzen du, 28-garrena, Inozente-eguna, *gaitzik gabiena* berak esaten duanez esateko, ama itzali zitzaiena.

Agiri onek beste argibide au ere ematen du: "*Se le hizo la función de*



Iragorri baserria, Pedro Mari Otañoaren amaren jaiotetxea, Zizurkil.

*entierro y tiene novenario diaconado de segunda clase, que costea su expresado consorte Dn. Juan Pedro de Otaño y Lasa*".

Zizurkilko urrengo *Padrón Municipal*-a 1884-ekoa da. Baiña famili au ez da agertzen. Zizurkildik Donostira joanak ziran bizi izatera.

Aurreko urteko *Contribución industrial* izeneko zerrenda bat badago Zizurkilko udal-artxiboan, 1883-koa beraz, dendariak-eta udalari zer pagatu bear zioten adierazten duana. Eta ontan, Elbarrena baiillarako 30-garren zenbakian, ez da Otañotarrrik ageri, Jose Antonio Aldazabal baizik, "*vendedor de aguardiente y vino al por menor*". Tabernaria, beraz. Itxura denez, Otañotarrak Karidadeko benta us-tu eta Donostira joan ziranean, berak lanbide ori artu zuan.

1. "*El día veinte y ocho de Diciembre de mil ochocientos veinte y nueve, Dn. Ignacio María de San Millán, Vicario que fue de la Parroquial de San Millán de esta Villa de Cizúrquil, bautizó en esta mi Parroquia un niño que según relación nació a las dos de la mañana del mismo día, hijo legítimo de Dn. Pedro María de Otaño, natural de Larraul y de D<sup>a</sup>. María Micaela de Lasa, natural de ésta, feligreses de esta Parroquia. Se le puso por nombre Juan Pedro. Abuelos paternos, Dn. Pedro Antonio de Otaño y D<sup>a</sup> Teresa de Tapia, naturales y residentes de Larraul. Maternos, Dn. Juan Bautista de Lasa, natural y residente de ésta, y D<sup>a</sup>. Josefa Antonia de Roteta, natural de Aduna, ya difunta. Fueron sus padrinos Dn. Juan Bautista de Leyaristi, natural y residente de ésta, y D<sup>a</sup> Ana Josefa de Urquidí, natural de Marquíncheverri de Vizcaya y residente de ésta, a quienes advirtió la cognación espiritual y obligaciones. Así resulta de los informes que he tomado de personas de fe y crédito, y para que conste extiendo esta partida en virtud de comisión o autorización que se me confirió por el M. I. Sr. Provisor de este Obispado de Pamplona, en decreto de diez de Setiembre de mil ochocientos cincuenta y nueve; y firmo en Cizúrquil a*

*veinte y seis de Julio de mil ochocientos y sesenta y uno: Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti, Vicario de Cizúrquil*".

(*Libro de suplemento de partidas de bautizados. 1820-1837.*)

Juan Pedro Otaño onen bataio-agiririk ez genduan arkitu, izan ere, berez egokitzen zitzaion liburuan. Gure iritzirako, auxe gertatuko zan: erretore jaunari agiri au idaztea aaztu. Urteen buruan, bataio agiri orren premian Juan Pedro ori gertatu; utsune orrekin orduan topo egin; eta nolabait ere bete egin bear.

Agiririk etzegoala, ezkontzako paperak prestatzera-koan oartuko ziran. Baiñan Juan Pedro 1854-ko azaro-aren 27-an ezkondu zan. Iruñeko baimena, berriz, andik bost urtera dator, 1859-an alegia. Eta Zizurkilko erreto-reak 1861-ean idazten du idaztekoa. Naiko berandu, be-ARBADA, utsuneaz 1854-ean konturatu baldin baziran.

2. Zizurkilko bigarren ezkontza liburuan, 19-garren orrian.

3. *El día veinte y siete de Enero de mil ochocientos cincuenta y siete, yo el infrascrito vicario de la Parroquial de San Millán de esta villa de Cizúrquil suplí las ceremonias bautismales, por haber sido bautizado por José Miguel de Alegría, Cirujano de Villabona y de ésta a su satisfacción, a Pedro María de Otaño, que dijeron haber nacido a las nueve de ayer a la noche, hijo legítimo y de legítimo matrimonio de Juan Pedro de Otaño, natural de ésta y de Juana Bautista de Barriola, natural también de ésta, mis feligreses. Abuelos paternos Pedro María de Otaño, natural de Larraul, y María Micaela de Lasa, natural de ésta, mis feligreses. Los maternos Francisco María de Barriola, natural y residente de ésta, y Micaela de Arregui, natural de Villabona y residente de ésta. Fueron padrinos Pedro María Otaño, natural de Larraul, y Micaela de Arregui, natural de Villabona, mis feligreses, a quienes advertí sus obligaciones. Y en fe de ello firmé. Dn. Ignacio María de San Millán*".

(Zizurkilko bostgarren bataio liburuan, 36-garren orrian.)

Aita-ama pontekoak, aitaren aldeko aitona eta amaren aldeko amona izan ziran, beraz.


4. Zizurkilko bostgarren bataio liburuan, 20, 36, 56, 77, 102, 137, 179 eta 254 orrietan.

5. *Libro de párvulos finados desde el año de 1819*, Zizurkil, 25-garren orrian.

6. Zizurkilko Sendotza liburutik.

7. Zizurkilko bigarren eriotz liburuan, 143-garren orrian.

8. Zizurkilko bigarren eriotz liburuan, 177-garren orrian.



Plaza-etxeberri, Zizurkil, Pedro Mari Otañoren aitona, Frantzisko Maria Barriolak, eragindako etxea.

## KARIDADEKO BENTA

Karidadeko benta Zizurkildik Billa-labonara dijoan bidearen ertzean zegoan. Bide ori goiko aldetik zuan. Beeko aldetik, berriz, Adunatik Billa-bonarako bidea. Garai artan, izan ere, artean egin gabe zegoan Adunako zubia, eta erri ontakoak andik ibili bearra zeukaten. Bi bide oiek andik gertu bat egiten zuten.

Dударик gabe, orretxegatik aukeratu zuten toki ori: jende askoren igarolekua zalako.

Beste txetasun bat: benta orrek Ori ibaiara eun bat metrora dauka; eta bai Adunibar erreka edo Zubiaurretxoko erreka ere, Errekalde baserriaren ormak ia miazkaturik pasa eta Ori ibaian sartzerara dijoana.

Karidadeko benta gaur botea dago, eta aren tokian etxe berri bat egiña.

Leen esan degunez, 1863 urtea baiño leen egin zan benta ori; eta, Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zarnari entzun izan genionez, Otañotarren aide eta adiskideen artean altxatu zuten, lana egiteaz gaiñera, etxe-gaiak ere aal zuanak aal zuana ekarriz. Ortik *Karidade* izena. Kanpoan ere onela idatzita omen zegoan: *Venta de Caridad*.

Gai ontaz zerbait geiago ikasi naian, Zizurkilko Teodoro Mujika

adiskidearengana jo genduan, eta onek orri bat idatzi zigun, onela diona:

“Zizurkilko Karidade etxea noiztsu egin zan guk ditugun argibideak.

Gure errian oso gutxi izango ziran, nere aitona Manuelek eta bere seme Millanek baño obeki Errekalde baserriko berri zekitenak, nere aitona oso gazterik etorria zalako baserri ortara morroi, eta orko nagusi Joxe Bernardoren serbitzari urte askoan izana zalako. Nere osabak ere, zer esanik ez, oso gazterik asirik, ortxe egin omen zuen urte mordotxo bat. Oien aitormena onela zan.

Joan Pello eta Joxe Bernardo bi anaiak Errekalden jarri omen ziran ezkondurik; eta, jakiña danez, umeak azitzen asi ziranean, zailla izango zan alkarrekin ongi konpontzea.

Joan Pellok orduan pentsatu omen zuen, Errekalderen sail edo lur eskin batean etxea egitea.

Baiñan etzuten aberastasun aundirik ori egiteko, eta bere etxeko eta auzokoen laguntza eskatu bear izan zuen amets ori betetzeko.

Batzuek peontza, besteak egurra, arri, karea eta abar, orrela nolabait moldatu omen zuten Karidade etxea.

Orregatik, *Venta de Caridad* izena jarri ziotela esaten zigun guri osabak.





Karidateko benta, Zizurkil.

Beraz, Pedro Maria Otaño Errekalden jaio omen zan, baiñan bera mutikoa zala joanak izan bear zuten Karidade etxera.

Len esan dan bezela, etxe au lujo aundirik gabekoa zan; teillatuaren kapiroio eskiñetan ikusten zan, eta bere ate-leioetan ere bai, egur txiki xamarez osatua zala.

Baiñan oso arpegi politekoa zan gure txiki denboran, kolore gorritz pinitatua, eta leio eskiñak txuriz zituela.

Bere aurrean arbola polit bat, adarrak xabalean zituela, eta arrizko mai bat bere azpian, exeritzeko koska eder bat aldamenean zuela, udaran jokuan eta abar aritzeko.

Bertso bat ere bazan, etxe au bukatu zutenean Joxe Bernardok kantatua, nere osabak gogoan zuena. Baiñan neri oso erdizka gelditu zitzaidan gogotan.

Azken iru puntuak onelatsu ziran:

Pobre gelditu zaigu  
arri-egurrian;  
elurra loditzen bada  
negu gogorrian,  
gure palaziyua  
laixter da lurrian.

Baiñan eun urte eta geiago bizitu ziran bere barruan, nere osabaren aitormenak egiazkoak badira."

\* \* \*

Karidadeko benta ortaz onela esaten digu Mikela Elizegi Pello Errotaren

alabak, bere aitaren bizitzaren liburuan:

"Karta jokuan izugarri gustatzen zitzaiona zan (gure aitona); da gure aita, berriz, karta bat jokatzen etzekiena.

Egun batean, Karidadeko bentan jokuan ari zala, zeuzkan diru guztiak galdu omen zituan. Gure aita, berriz, begira zegoan.

Bere esan guzia "Makabo!" omen zuan aitonak; eta, xoxik gabe gelditu zanean, ala esan omen zuan:

- Makabo!

Ta gure aitak:

- Danak galdu ditu ta akabo!

Beste egun batean, Karidadeko benta ortan bertan, jokuan asteko zeudela, gure aitak zer egin zuan? Aitonak dirua zuala antzematen ziotenean, engañatu egiten zuten; da, bere aita postura artan ez ikusteagatik, kartak arrapatu ta balkoitik saltatu zan gure aita."

\* \* \*

Beste gertaera au, berriz, Mikela orren semea zan Bautista Kortajarena *Ondartza* zanak kontatu zigun -Pello Errotaren billobak, beraz:-

"Pello Errota, Otañotarrak, Juan Jose Ugarte ta beste bertsolari asko maiz xamar biltzen ziran benta ortan (Karidaden).

Egun batean, denbora luzean kantuan aritu ondoren, tabernariak beren gastua barkatuko ziela uste zuten, baiñan etzan ala gertatu.

Orduan, Otañotarren batek, Jose Bernardok-edo, puntu au jarri zion Pellori:

Adoratu dezagun  
gure benterua...

Pellok onela segitu zion:

Nere iritzirako  
lapur enterua...

Ori aditzean, jende guztia parrez asi zan. Benteroa, berriz, ojuka, izugarri asarretuta, eta kanpora bota zituan bertsolari guztiak. Ta Pellok ezin izan zuan bertsoa osatu."

Zizurkilko Serapio Mendizabal eta Teodoro Mujikak beste onela ematen dute bertso-asiera ori:

Adoratu dezagun  
Jose benterua...

Nor izan diteke, izan ere, Karidadeko bentero ori? Gertaera au Otañotarrak andik aldegin baiño leenagokoa balitz, Juan Pedro izango genduke, Pedro Mariren aita.

Baiña, aurrerago adieraziko degunez, Juan Pedro au 1873-an-edo Donostira joan zan bizi izatera; eta gertaera ori geroagokoa izan diteke noski.

Ain zuzen, leen esanik daukagunez, 1883-an Jose Antonio Aldazabal izenekoa da Karidadeko tabernaria. Au izan diteke, beraz, bukaerarik gabeko bertso orren "Jose benterua".

Pello Errotak badu bertso bat, oso ezaguna, Karidadeko benta ortan kantatua, sei bertsolari bildu ziran batean:

Karidadeko bentan  
gu sei bertsolari;  
Errekalde Zarra ta  
Juan Jose Udarregi;  
Bernardo Zizurkilko,  
Gazteluko Gorri,  
Errenterikua da  
Xenpelar jaun ori,  
ni Astiasukua  
Pello Errotari.

Bertso au onela kantatu digute Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak:



E - men jun-ta - tu  
ge-ra gu sei ber-tso - la -  
ri, E - rre - kal - de Za -  
rra ta Juan Jo - se U - da - rre -  
gi, Ber - nar - do Zi - zur -  
kil - ko, Gaz - te - lu - ko Go -  
rri, E - rren - te - ri - a -

\* \* \*

ko-a Xen-pe-lar jaun o -  
ri, ni As - te - a - su -  
ko-a Pe-ll-o E-rro - ta - ri.

Nolanaiko seikotea etzan, beraz, an bildu. Saio bikaiña egingo zuten. Baiña zazpigarren bertsolaria ere etzuten urruti: Pedro Mari gaztea.

Gai ontaz onela esan digu Jose Bernardoren biloba dan Jesus Iztueta Otañok:

“Errekalde Zaarra leenago joaten zan oera, Pedro Mari zaarra; eta semea, Joxe Bernardo, kuartora eraman arazten zuan, eta an enkarguak eman, urrango goizean zer lanetan asi bear zuten.

Gero, Joxe Bernardo Karidadeko bentara joaten zan. Beti ez, baiña askotan joaten zana izango zan ura. Kilometro erdiren bat da Errekaldetik ara.

Bertsolari asko biltzen zan an. Eta urrango goizean, jakin egin nai arek ere, Errekalde Zaarrak, eta an izanda-koari -semeari ez, besteren bati- onela galdetzen zion:

- Bertsolaririk izan al zan Karidaden?

Eta:

- Bai; baziran.

- Zein ziran ba?

- Olako eta alako. Joxe Bernardo

ere an zan da...

Baiña Errekaldeko guziak etzuten begi onez ikusten Jose Bernardo Karidadera sarritan joatea. Morroiak-edo, etxera etorri eta esaten omen zuan:

- Jose Bernardo an geratu da Karidaden.

Eta onen andreak, amona Inaziak, onela erantzun izan omen zuan:

- Joan ta emaiozute arrika!

Batean, bertsotan asiak izango ziran Jose Bernardo eta besteren batzuk, eta arek esan omen zien bera baiño ohea bazegoala etxean bertsolaria. Bera baiño geiago zala iruditzen zitzaion nunbait ere Pedro Mari.

Etortzeko esan omen zioten beste bertsolariak.

Ala, Pedro Mari gaztea etorri eta bertso onekin erantzun zion bere osaba Jose Bernardori:

Geiagua naizenik  
nik ez derizkiyot,  
gero zer gerta leiken  
ezin esan iñork.  
Biarzen bagaituzte  
juango gera biyok,  
edozein tokitara  
lagunduko diyot."

\* \* \*

Bertso au onelaxe dago, Pedro Mari Otañoren *Zerbait* izeneko liburuan (Donostia, 1895):

“Osaba Jose Bernardori, Karidaden:

Geiagua naizela  
nik ez derizkiyot,  
gero zer pasako dan  
eziñ esan iñork;  
deitutzen badigute  
joango gera biyok,  
edozeiñ lekutara  
lagunduko diyot."

\* \* \*

Bertso au etzitzaion Pedro Mariri burutik joaten; ~~eta~~ *Zerbait* izeneko bere liburu ortan sartu nai izan zuan. Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok ere oso gogoan dauka urteen buruan, nola eta zergatik kantatua izan zan aaztu gabe.

Zera oiek bi gauza adierazten dizki-gute, gure iritzirako. Bata, etxean bertan zuala Pedro Marik izan diteken bertso-eskolarik onena; eta bestea, bertso onekin egin zuala sarrera bertsolarien mundura. Bertso onekin artu zuala bere *alternativa*, toreatazailleen izkeran esanda.

\* \* \*

Bertso-eskola ez-ezik, izketarako eskola bikaiña ere bai, Jose Bernardoren arreba Juana Mikaelaren billoba Marinak kontatutako beste gertaera onek adierazten duanez:

"Ameztoitarrak ziran Errekaldeko nagusiak. Batenbatzuk beren umeren bat izketan ikastera kanpora bialdu bear zutela esaten ari ziran, eta orduan Ameztoitar oiek:

- Izketan ikastera kanpora bialdu? Bial zazute Errekaldera."

Otañotarrak, izan ere, iztun egokiak ziran fama omen zuten.

Errekalde aitatu zuten Ameztoitar-rrak, baiña berdín izango zan noski Karidadeko bentara bialtzeko esan balute ere. Bertsolariak, berriz, ona izango bada, leenengo oiñarria euskera ondo menderatzea duala esan bearrik ez dago. Ortarako ere, beraz, eskolarik onena arkitu zuan bere etxean Pedro Marik.

\* \* \*

Teodoro Mujikak, irakurleari or goien eskeiñi dizkiogun argibide jakingarriak bialtzeaz gain, bost bertso auk moldatu ditu Karidadeko bentari buruz:

- 1/ Karidadeko Benta  
nola zan egiña,  
Juan Pello bat omen zan  
lan orri ekiña.  
Bai auzotikan ere  
borondate piña,  
bat zala arotza ta  
bestea argiña,  
askok emana noski  
beren etekiña,  
argatik zan izen au  
jarria jakiña.
- 2/ Argazkian ikusten  
zaizkio bi alde,  
biak izen batekin  
deituak dirade.  
Egiten badirazu  
orain neri galde,  
zein zan bertsolarien  
kabi Karidade,  
baldin memori ona  
bazait neri jabe,  
eskubi aldekoa  
zan dudarik gabe.

3/ Etxe onen aurrean  
eta erdiz-erdiz,  
neronek ezagutu  
nuen nere begiz  
arbol ostozabal bat,  
altua ez gerriz,  
eta bere azpian  
mai polit bat berriz,  
nekaturik zeudenak  
edo alperkeriz  
edozeiñentzat toki  
atsegiña egiz.

4/ Karidade zar ura  
galdu zan ordia,  
eta bertan egin zan  
oso dotoria.  
Or bizi da Otaño-  
tarren ondoria,  
Serapio Mendizabal  
gizon txit noblia,  
ondo merezia du  
gure onoria,  
ixtori ederreko  
predikadoria.

5/ Anai bat ere badu  
Otañotar utsa,  
bertso ederra pranko  
gordetzen dun poltsa.  
Urrezko doiñua ta  
eztizko abotsa,  
biotzera sartzen da  
Iñakiren boza,  
eta animaraiño  
ematen dun poza,  
gu ezin gaitu ezerk  
orrenbeste goza.(1)

---

1. Bertso auetan aitatzen diran Serapio Mendizabal eta Iñaki edo Inazio au alkarren anaiak dira. Zizurkilko Adunibar errotakoak. Laugarren abizena Otaño dute, beren amona Xalbadoraren aita Errekalde Zaarraren anaia zanez.

Serapiori argibide asko zor dizkio liburu onek; Inaziori, berriz, doiñu eder batzuk.

## AMERIKETARA LEENENGO JOANALDIA

Pedro Maria Otaño iru bider joan zan Ameriketara, bertsozaleen artean betidanik esan izan danez. Baiña leenengo joanaldia noiz egin ote zuan?

Pedro Maria Otañoren *Expediente Matrimonial* deritzaiona, Donostiako Artzai Onaren eliz-artxiboan gordezten da. Esan bearrik ez dago argibide asko ematen dituala Pedro Mariren bizitzari buruz. Baiña gero gerokoak. Orain, berriz, itz auek aitatu nai ditugu, ezkontzaren paper oietatik artuta: *"Que desde la edad de 18 años ha residido en Buenos Aires"*.

Pedro Mari 1857-an jaioa baitzan, emezortzi erantsirik, 1875 urtea degu.

*Artzai-Mutilla* izeneko operaz gero mintzatuko gera. Felix Ortiz y San Pelayo-ren musika zuan, eta Pedro Maria Otañoren letra. Buenos Airesen antzeztu zan, 1900-eko otsaillean. Urrengo illean, martxoaren 2-an, bertako *La Baskonia* aldizkariak bi egilleen berri eman zuan. Idazlan ori oso-osorik eskeñiko diogu irakurleari, opera ortaz itzegiterakoan. Orain, berriz, lerro auek berezi nai ditugu:

*"La vida de Otaño es una odisea, no tan bohémica como la de Iparraguirre, pero sí tan llena de accidentes y penurias."*

*Ha estado dos o tres veces en América; vino la vez primera de muchacho, el año 75, yéndose apenas le apretó la nostalgia de su Guipúzcoa.*

*Ha estado en el Uruguay, en el Brasil, en la Argentina, en todas partes, siempre independiente, pues cuando le ha faltado ocupación en tareas delicadas, como hacer un asiento en los libros, se ha prendido a la pata de un baqual y le ha clavado una herradura".*

Bi iturritatik, beraz, gauza bera datorrigu: 1875-ean, emezortzi urte zituuala, joan zala ura leenbiziko aldiz Ameriketara.

Baiña urte ori kondairaren beste txeeetasun batekin uztartu bear da: orduan karlisten bigarren gerratea beroenean zegoala.

Orrek zera esan naiko du: Pedro Mari, bere emezortzi urterekin, gerrara eramateko sasoiari baitzegoan, igesi joan zala Arjentinara.

Alde batetik, ain pakezalea zan bera, gero bere bertsoetan agertuko zuan. Arrazoi ori bakarririk ere naikoa zuan Pedro Mari Ameriketara alde egiteko. Bestetik, berriz, Gipuzkoa geiena, kosta aldeko erriak izan ezik, karlisten mende zeuden. Gipuzkoar geienak ere Don Karlosen aldekoak baitziran orduan. Zizurkillen ere berdin gertatuko zan: erria karlisten mende eta erritarrak ere karlistak. Baiña Otañotarren familia liberaletakoa zan.

Orregatik, arma artuta ere, bere iriztiaren kontra joan bearko zuan Pedro Marik. Ara emen, guk uste, arek emendik anka egiteko bigarren arrazoia.

Pedro Marik, bere *Amets bat* izeneko bertso-saillean, onela esaten du:

Argatik gerok batere kulpik  
ez gendubela ezertan,  
txit urrutira joan biarra  
izandu nuben batetan;  
oso gazterik arkitu nintzan  
Amerikako Panpetan...

Gogoz kontra joan zala ematen du, beraz. Baiña zerk beartzen zuan? Ziur asko, esan bezala, karlisten bigarren gerra orrek. Gauzak itxura badu, guk uste.

Ortaz gaiñera, leen esan degunez, aita Ameriketara bi aldiz izana zan. Orrek ere bidea erreztu egingo zion.

Orduko despedidan aitak esandako itzak eta aolkuak izango dira, gero Pedro Marik "Lagundurikan denoi" asten diran bertsoetan jarriko zituanak. Arrazoi oiek ez dira, izan ere, gure iritzirako beintzat, gizon eldu eta trinko bati ematen zaizkionak, gazte bigun eta beratx bati baizik. Ura zan bezelako emezortzi urteko mutil batek bear zituanak, alegia.

Baiña gerra-denboran atzerrira iges egitea etzan, garai artan ere, oso erreza izango. Bearbada, mendiz-mendi eta aal zuan bezela, alde batekoak edo bestekoak arrapatuko zuten bildurrez, pasako zuan muga Pedro Marik, eta Frantziako kairen batean itxas-ontzia artu.

Baiña oiek gure iduripenak baizik ez dira, ortaz berak ez du ezer esaten eta.

*La Baskonia*-tik artutako lerro oiek Pedro Marik Ameriketara korritutako lurraldeak zein izan ziran esaten digute: Uruguay, Brasil, Arjentina. Eta Pedro Marik, bere bertso batzuetan, Uruguay-ko iriburua aitutzen digu:

Urte asko da, baña etzait aztu,  
beti datorkit gogora,  
nola joan nintzan bein "motz" batekin  
Montevideo kanpora...

*La Baskonia* orrek berak ogibide oso ezberdiñak aitutzen dizkigu: "*alambrador de la Pampa, hornero, tenedor de libros, herrador y poeta*". Izan ere, aal zuanari elduko zion gizarajo arek, beste erremediorik ere etzuan izango eta. Ain zuzen, Pedro Mariren *Expediente Matrimonial* deritzaionean, aren ogibidea zer zan adierazteko, onela esaten da: *herrador*. Baiña *hacer un asiento en los libros* ere esaten digu aldizkari orrek. Kontaduria eramaten ere bazekian arek, beraz.

Izan ere, leen esan degunez, Pedro Mariren aitona, amaren aldekoa, Frantzisko Maria Barriola alegia, Zizurkilko sekretarioa izan zan. Gizon ikasia, beraz; eta bere billobak eskolaz jantzi arazten aaleginduko zana.

Barriolatarrak, izan ere, oso buru argikoak eta bizkorak omen ziran danak. Pedro Mari oso argia izatea ez da beraz arritzekoa, aren aurrekoak, bai amaren aldetik eta bai aitaren aldetik, alakoak ziran eta.



Artzai ere ibili zan Pedro Mari. Ala esaten digu berak, *Amerikako Panpetan* izeneko bertsoetan:

Orañ artzantzan Ameriketán,  
arrantxo baten onduan...

Bertso auek andik urteetara jarriak izango dira. Baiña ordukoak, dudarik gabe, ango txabol ondoko *ombú* arbola eta emengo etxe atariko intxaurra konparatuz erabili zituan pentsamentuak.

Baiña noiz etorri zan andik onera? *La Baskonia* orrek "*apenas le apretó la nostalgia de su Guipúzcoa*" esaten digu. Aldi ortan denbora gutxi egin zuan, beraz, Ameriketán.

Beste argibide bat *On Fidel Lizarraga'ri* izeneko bertsoak ematen digute. Orixe da, guk ezagutzen ditugunetan, Pedro Marik jarritako saillik zaarrena; 1879-koa baita. Jaun ori Billa-bonako alkate egin zuten, eta bertso oiek dira, Pedro Marik berak esaten duanez, "alkate egiñ zuten ondorian, Villabonan, gaubaz eta soñuba-

rekiñ batian, kantatu ginduzkan koplakoxkorrak". Orrek zera esan nai du: Pedro Mari, urte ortan, 1879-an alegia, ostera Euskal-Errian zala. Karlisten gerratea bukatu eta bereala etorriko zan, beraz.

Baiña ezkontza-paperetan, leen ere agertu degunez, onela esaten da: "*Que desde la edad de 18 años ha residido en Buenos Aires*" .

Alkarren kontrakoak dira, beraz, argibide oiek. Alkarrekin nolabait ere uztartu nairik, auxe bururatu zaigu: 1879 urte ori barruan daukan emengo egonaldia ere laburra izango zala; berealaxe joango zala ura ostera ere Ameriketara.

Izan ere, 1880 urte inguruan asi ziran Euskal-Errian, bertsolari-saioak eta sariketak, batez ere Gipuzkoan, Donostiako Jose Manterolak-eta antolatuta. Baiña aietan ez da Pedro Mariren izenik iñoiz ere ageri. Eta agertuko zala uste degu, emen izan baltiz, bertso-saioetara urbildu gabeko onik etzuan arek izango eta.

## SOLDADUSKA

Karlisten bigarren gerratea 1876-an bukatu zan. Baita Fueroak andik laster kendu ere, urte bereko uztaillaren 21-ean. Andik aurrera, emengo mutilak soldaduskara beartuak zeuden. Pedro Maria Otaño ere, 1857 urtean jaioa baitzan, lege berriak berealaxe arrapatzen zuan.

Arazo berria zan ura euskal probintzientzat. Ori zala-ta Gipuzkoakoak zer erabaki artu zituan, Donostiako udal-artxiboan arkitu degun idazki onek azalduko digu:

*"Reunidas en el día de hoy las Diputaciones ordinaria y extraordinaria con la Subcomisión de la Comisión especial de los Fueros, con el objeto de arbitrar los medios o recursos para la sustitución del cupo de hombres que corresponde a Guipúzcoa en el actual reemplazo, cuya sustitución se adoptó...*

*1º.- La Diputación contribuirá con la tercera parte del importe de la sustitución.*

*2º.- Las otras dos terceras partes se distribuirán por la Diputación entre los pueblos, en proporción a los mozos que correspondan a cada uno.*

*3º.- La cantidad que se consigne a cada pueblo se distribuirá por un repartimiento fogueral que se hará extensivo al vecindario en general y a los interesados en particular, en la proporción que fijen los Ayuntamientos, interesados y asociados que al efecto se pondrán de acuerdo, recomendando a los pueblos que la cuota que fijen a los interesados sea la más moderada posible, señaladamente en las clases pobres...*

*(Circular nº 19. San Sebastián, 31 de mayo de 1877. El Diputado General: Juan Bautista de Acilona.)"*

Beraz, Gipuzkoatik zenbat mutillek joan bearko zuten erabakita zegoan. Baiña Diputazioak ordezkooak jarri nai zituan, artarako bear ziran bideak artuta: *"arbitrar los medios y recursos para la sustitución del cupo de hombres que corresponde a Guipúzcoa en el actual reemplazo"*. Ori lortzeko bear zan dirua, berriz, onela bilduko zan: irugarren zatia Diputazioak berak emango zuan; eta beste bi zatiak errien kontura geldituko ziran.

Andik amairu egunera, 1877-ko garagarriaren 13-an, Zizurkillen bildu ziran bertako udal-gizonak eta arazo ori zegozkienak, ango udal-artxiboan azaldu dan agiri onek adierazten duenez:

*"En la Villa de Cizúrquil, a trece de Junio de mil ochocientos setenta y siete, reunido el Ayuntamiento, los mozos sorteados para el presente reemplazo del ejército o sus padres y la Comisión, asociado de mí el Secretario, se hizo lectura de la circular dirigida a esta Villa por la Ecma. Diputación foral de esta Provincia, con fecha treinta de Mayo último, relativa a las disposiciones adoptables con el objeto de arbitrar los medios o recursos para la institución del cupo de hombres que corresponde a Guipúzcoa en el actual reemplazo para el Ejército, y habiéndose enterado la Comisión nombrada para el efecto indicado del contenido de dicha Circular, y particularmente en la regla cuarta, hizo presente que la cuarta parte de cinco mil cuatrocientos diez y seis pesetas sesenta y cuatro céntimos entre los mozos sorteados, señalándose a cada uno la suya según su posición, la primera clase, a saber: Miguel José*



Zizurkil

Lerchundi, Baltasar Mendizabal, José Ignacio Cincunegui, Felipe María Irazusta, José Francisco Tejería y José Cruz Garayalde, a cada uno cuatrocientos ochenta reales; segunda clase, José Lázaro Zubeldía y José Ignacio Querejeta, a cuatrocientos reales; y la tercera, Juan José Odriozola, Juan María Alcorta, Valentín Bengoechea, Baltasar Elizondo, Pedro María Otaño y Paulo María Ibarbia a trescientos veinte reales; y el resto el vecindario en general repartiéndose fogueralmente; y habiéndose enterado los contribuyentes, acordaron unánimes aprobar la disposición adoptada por la comisión y que se remitiera una copia a la Ecma. Diputación foral de Guipúzcoa para su aprobación. Con tanto se dio fin a esta acta, que la firmaron los concurrentes, los que sabían escribir, de que certifico yo el secretario: José Jacinto Achaga. Martín Otegui. Pedro Lizarraga. Juan Odriozola. Juan Francisco Alcorta. Baltasar Olano. Francisco Lerchundi."

Agiri ori ondo ulertzeko, laguntza aundia emango du Zizurkilko udal-ar-xiboan azaldutako beste idazki onek:

"En la circular comunicada por la Exma. Diputación Foral de Guipúzcoa, número veinte y dos, el repartimiento definitivo de los 534 mozos que ha de aprontar esta Provincia para el actual reemplazo, habiendo correspondido contribuir a este pueblo por las dos terceras partes 3833'33 pesetas por los cuatro mozos y 6 vecinos de mozo que ha tocado a este pueblo en el nuevo repartimiento, con exclusión de Pedro María Otaño y Paulo María Ibarbia.

En su consecuencia, que la Comisión nombrada habiendo hecho el repartimiento sobre los mozos y la foguera el día 13 de Junio último la cuarta parte entre los mozos sorteados y el resto el ayuntamiento fogueralmente, la primera clase corresponde de los mozos sorteados, a saber:

Miguel José Lerchundi	.....370'94 rs.
Baltasar Mendizabal	.....370'94 rs.
José Ignacio Cincunegui	.....370'94 rs.
Felipe María Irazusta	.....370'94 rs.
José Francisco Tejería	.....370'94 rs.
José Cruz Garayalde	.....370'94 rs.

2ª clase:

José Lázaro Zubeldía	.....309'11 rs.
José Ignacio Querejeta	.....309'11 rs.

3ª clase:

Juan José Odriozola	.....247'29 rs.
Juan María Alcorta	.....247'29 rs.
Valentín Bengoechea	.....247'29 rs.
Baltasar Elizondo	.....247'29 rs. "

Izendatzen diran mutil oiek 1877-an ogei urte betetzen zituztenak izango ziran. Pedro Maria Otaño beintzat alazan. Soldadugai oiek iru maillatan banatzen dira, eta bakoitzari pagatu bear bat eransten zaio. Oraindik ere zerbait falta da bear dan kantidadera iristeko, eta puska ori erriko etxe guzien artean berdinduko dute. Esan bezela, Gipuzkoako Diputazioak orrelaxe nai zuan emengo mutillak soldaduskatik libratu; eta orixe zan Zizurkilko erriari egokitzen zitzaion pagatu bearra.

Bi idazki oietan Pedro Maria Otañoren izena irakurtzen da. Batean, irureun ta ogei erreal pagatu bearra zeukala esaten da. Bestean, berriz, aske gelditu dala: "con exclusión de Pedro María Otaño".

Zer esan nai du orrek? Soldaduskatik libratu zala? Baiña zergatik? Osasunaren faltaz? 1875-ean emezortzi urterekin Ameriketara joan eta 1877-an atzera onera etorria ote zan ere ez dakigu. Agian familia Donostian biziko zala eta emengo udal-artxi-boan saioa egiñak gera, argibiderik arkituko ote genduan. Baiña alperrik.

Pedro Mariren bizitzak illunune batzuk badituala leen esan dedala uste det, eta oietako bat onako au. Oraingo ontan orrela gelditu bearko du, baiña baditeke denborarekin nola edo ala oiek danak argitzea.

Beste idazki bat ere agertu da Zizurkilko udal-artxiboan, ango urte artako soldadugaiei buruz:

*“El Ayuntamiento, la Comisión y los vecinos se reunieron el día quince de Julio de mil ochocientos setenta y siete, el Señor Alcalde Presidente dijo que el objeto de la reunión se reduce a hallar y resolver a satisfacer por medio de un reparto directo en igual forma que el anterior la cantidad de un millón seiscientos sesenta y dos mil reales que serán necesarios en toda la provincia para el completo pago de la exigida hoy para la redención de los mozos incluidos en el alistamiento para el servicio militar. Habiéndose enterado los constituyentes de la Circular número veinte y tres, dijeron unánimes no se conformaba a satisfacer dicha cantidad que le corresponde a esta villa.*

*Con tanto, se dio fin a esta acta que firma el Alcalde Presidente, de que certifico yo el Secretario. José Jacinto Achaga.”*

Itxura danez, Zizurkilko erriak etzuan begi onez ikusten pagatu bear ori, eta uko egin zion.

Arazo au ongi argitzeko, gu baiño iaioagoa bearko litzake. Leenengo, orduko soldaduskako legeak nola ziran jakin bear; ondoren, Diputazioko artxiboan-edo azterketa sakona egin... Baiña zer egin oiek denbora geiegi kenduko liguteke, eta gaurkoz beintzat alde batera utzi ditugu.

(1879)

## ON FIDEL LIZARRAGA-RI

On Fidel Lizarraga, atenditu beza:  
bedorregana gatoz soñu eta dantza,  
ezagaturik dala komeni dan gauza  
ematia merezi duben alabantza.

Juan dan aspaldiyan desiotan geunden  
gure alkate jauna ikusteko emen;  
eziñ konsideratu, progradu baño len,  
erri au zertaraño konsolatu duben.

Jakiñik bedorrekiñ kontentuz gaudela,  
ez gaitu utzi biar bakarrik berela;  
gu emen geldituko gerade bestela  
artzayikan ez duten ardiyak bezela.

Bedorren anparua gauza biarra da,  
bakarrik gelditzia guretzat txarra da;  
zuzen argi egingo digun izarra da,  
onorez beterikan, Fidel Lizarraga.

Erri onen karguba aurtan artu badu,  
gradu andigua're merezituba du;  
probintzi onek ondo luzituko badu,  
oraiñ alkate da ta laxter diputadu.

Fidel ikusi naia emen bazeguan,  
joan dan aspaldiyan espero genduan;  
ez berriz gugandikan apartera juan,  
danok bizi nai degu bedorren onduan.

Bedorregana oso itxutubak gaude,  
aurrera ere ala izango gerade;  
gertatzen baldin bada zerbait nobedade,  
gurekiñ konta beza kuidadorik gabe.

Biba on Fidel jauna, gure nagusiya,  
gradu ori daduka ondo mereziya;  
biba gero segitzen diyon justiziya,  
Jaunak diyela urte askoko biziya.

Pedro Maria Otañok, bere *Oroimenak* izeneko esku-idatzian, onela idatzi zuan bertso auen aurretik:

“Orain amasei urte, On Fidel Lizarraga jaun zanari (R.I.P) alkate egiñ zuten ondorian, Villabonan, gaubaz eta soñubarekiñ batian, kantatu ginduzkan kopia koxkorrak.”

*Oroimenak* dalako esku-idatzi ori 1895-ekoa-edo izanik, amasei kendu eta 1879-garrena aterako degu, bertso auek jarri ziran urtea.

Ziur jakiteko, Billabonako Udaltxeari galdetu genion, eta erantzuna bereala eman ziguten: Fidel Lizarraga jauna bertako alkate izan zala, 1879'ko uztaillaren 1-etik 1883-ko uztaillaren 1-era.

Ogei ta bi urte zituan orduan Pedro Marik. Mutil gaztea zaneke frutuak dira, beraz, bertso auek; eta bera Ameriketara leenengo joanaldia egin eta etorrria izango zan.

Oar ortan esaten danez, “gaubaz eta soñubarekiñ” joan omen zitzaizkion alkate jaun berriari ongi-etorria ematera. Bertsoetan, berriz, “soñu eta dantz” esaten du. Mutil-talderen bat etorriko zitzaion ate ondoraño. Eta bertso auek, ziur aski, talde orretxek eskatuta moldatuko zituan Pedro Marik.

Fidel Lizarraga jaun oni buruz berri batzuk ematen dira Pello Errotaren liburuan ere, *Auspoaren sail nagusiaren* 5-garrenean alegia, 58 orrialdean.

\* \* \*

Esan bezela, Pedro Maria Otaño'k, *Oroimenak* izeneko esku-idatzian, bere eskuz idatzita utzi zituan bertso auek.

Guk ezagutzen ditugun argitaraldiak, berriz, onako auek dira:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait*, Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian.

*Bertsolariya* astekaria, 11 zenbakian, 1931-ko azaroaren 29'an. Onek, bertso auek “*Maritxu, nora zuaz...*” kantaren doiñuarekin kanta bear dirala dio. Beste oar bat ere badu: “Orain dala 35 urte Otaño'tar P. M. jarriyak”. 1896'an, alegia. Ez, noski. Urte ortarako *Zerbait* liburuan argitaratuta zuden. Jarri, berriz, askoz leenago egin ziran, Otañok berak aitaturako oar ortan aitortzen duanez.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburuan -Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1959, eta I. Unzurungaga beraren prestatzaillea-, Kuliska-sortaren 31-32 zenbakian, 115 orrialdean.

Argitaraldi auek ez dute alkarren artean aldaketarik, aitatzerik merezi duanik beintzat.

Guk, berriz, aldaketa edo eransketa bat egin degu zazpigarren bertsoaren bigarren lerroan: *ere* ori guk sartua da. Ez dago ez Otañoren esku idatzian eta ez aitatutako argitaraldietan. Baiña nabarmen dago Pedro Marik etzuala orrela moldatuko eta olako zerbait be- ar duala, neurria osatuko bada.

\* \* \*

Doiñua, berriz, Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabalek kantatu digute:



On Fi - del Li - za -



rra-ga, a - ten - di - tu be -  
za, be - do - rren - ga - na  
ga-toz so - fiu e - ta dan -  
tza; e - za - gu - tu - rik  
da-la ko - me - ni dan gau -  
za, e - ma - ti - a me -  
re-zi du - 'ben a-la - ban - tza.



## AMERIKETARA BIGARREN JOANALDIA

Pedro Maria Otaño bigarren aldiz Ameriketara noiz joan zan esaten duan paperik edo libururik ez degu arkitu.

Txeetasun au oso illun geratu da. Ez dago beste argirik, berak bere bertsoetan ematen duana baizik.

Osaba Jose Bernardori Arjentinatik bialdu zion ogei ta bi bertsoko eskutitz luzean azaltzen danez, 1889-an itxasoz arunzko aldean zegoan. Ogei ta amabi urteak an arrapatu zuten, Rosario de Santa Fe irian. Itxura danez, beraz, bolara artan an bizi zan.

Osasunez argal zebillen: “ez nuben uste bazeikiala gaizkiyago ibiltzia”.

“Rosario-tik Córdoba-raño Joxe anaiarengana” dijoa, eta an lau illabete pasatzen ditu.

Jose izeneko iru anai zituan Pedro Marik: Jose Bernardo, 1864-V-19-an jaioa; Jose Frantzisko, 1869-I-18-an; eta Jose Domingo, 1873-IX-4-ean.

Jose Domingo au, leen esan degunez, bi urterekin il zan, 1875-X-17-an. Jose Bernardo, berriz, etzan emendik iñora mugitu. Ameriketako Jose ori, beraz, Jose Frantzisko izango da, artean ogei urte zeuzkana. Bi anaien poza, alkarrengana biltzean!

Pedro Mari berriri gaixotzen da: “andikan laxter sortu zitzaidan gaitz bat txarra ta luzia”. Baiña Mikelak eta Juan Marik Rosario de Santa Fe-tik deitu zioten. Anai Joxek lagundu zion kotxearekin trenera.

Mikela ori arreba zuan. Gutxienez lau bider aitatzen du Pedro Marik bere bertsoetan. Bi arreba izan zituan arek izen orrekin: Mikaela, bere arreba bizkia, eta Juana Mikaela, bi urtez gazte-agoa.

Baiña laster etorri zan Pedro Mari onera; 1890 urtearen erdi aldera-edo, gero zeatzago esango degunez.

## “AMERIKARA NUA NERE BORONDATEZ...”

Urrengo bertso famatu au Pedro Marik Ameriketara zijoan batean kantatua da noski. Baiña emendik ara iru aldiz joan baitzan, zenbatgarrenean jaulki zuan ezin esan. *Oroimenak* ize-neko esku-idatzitik artua degu.

*Miserikordiko maisuari:*

Amerikara nua  
nere borondatez,  
aspertu naizelako  
emengo suertez;  
onetara ezkeru  
joan biar det nai t'ez,  
emen gelditze'iranak  
ondo bizi bitez.

Bertso au barra-barra ibili da bertsozaleen aotan, aspalditik gaiñera. Baiña Miserikordiko maisuaz aaztu egiten dira danak, eta aren lekuan Ameriketara dijoan mutil baten aita jartzen dute.

Bertso onek, leen esan degunez, erantzuera izan omen zuan. Pedro Mariren osaba bat, Juan Jose, Jose Bernardoren anaia, aspaldian Ameriketara zan, eta etxeako aren berririk gabe zeuden. Orregatik, aitonak, Errekalde Zaarrak alegia, bertso au kantatu zuan:

Lenago're seme bat  
badet Amerikan,  
ogei urte badira  
joan zala emendikan.  
Argana billatutzen  
badek biderikan,  
esaiok bizi dala  
aita oraindikan.

Badira, ala ere, bertso au Jose Bernardok kantatu zuala esaten dutenak. Oietako batek onela aldatzen zituana asierako lerroak: “Anaia bat badet nik nunbait Amerikan...”.

\* \* \*

Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* izeneko bilduman, 607 zenbakian, doiñua eta bi bertso auek eskeintzen dizkigu:

Ame - ri - ka - ra no - a  
ne - re bo - ron - datez, as - per -  
tu nai - ze - la - ko e - men - go su -  
ertez; on - ez - ke - ro yoan be - ar,

nai ba-det e - ta ez: e-men  
gel-di-tzen dian - ak on - do bi-zi  
bi - tez.

Amerikara noa  
nere borondatez,  
aspertu naizelako  
emengo suertez;  
onezkero joan bear  
nai badet eta ez,  
emen gelditzen dianak  
ondo bizi bitez.

Len seme bat badet nik  
nunbait Amerikan,  
ogei urte badira  
joan zala emendikan.  
Ik ara billatuzten  
badek biderikan,  
esaiok aita bizi  
dala oraindikan.

Emalea nor izan zan adierazteko, onela idazten du  
Azkuetik: "De Bautista Urkia, de Aginaga (Orio,  
G). Jaun au Gaztelu bertsolari entzutetsua degu.

Azkueren esku-idatzietan ere arkitu ditugu doiñu  
eta bertso auk. Eta gero onela esaten du bigarren ber-  
tsoagatik: "Es contestación del padre, de quien el  
hijo se despide antes para ir a América".

\* \* \*

Aita Donostiak, berriz, doiñua eta leenengo bertsoa  
ematen dizkigu bere *Euskal eres-sorta*, 1921 bilduman,  
289 zenbakian. Ernanin bildu omen zituan.

Amerikara nua  
nere borondatez,  
kontentu ez naizelako  
emengo suertez,  
ara juan da obeto  
izateko ustez;  
adios, aita ta ama,  
ondo bizi bitez.

A-me-ri - ka - ra nu-a  
ne - re bo - ron - da - tez,  
kon-ten - tu ez nai-ze - la ko  
e - men - go suer - tez,  
a - ra juan - da o - be-to  
i - za - te - ko us - tez.  
A - di - os, ai - ta ta a - ma,  
on - do - bi - zi bi - tez.

\* \* \*

Tolosako Estanislao Urruzola "Uxola" zanaren  
kuaderno batean iru bertso auk arkitu ditugu:

Semiak:

Ameriketâ nua  
nere borondatez,  
aspertu naizelako  
emengo izatez,  
orain baño obeto  
bizitzeko ustez;  
agur, aita ta ama,  
ondo bizi bitez.

*Aitak:*

Lenago're seme bat  
badet Amerikan,  
amar bat urte dira  
juan zala emendikan;  
baldin topatzen badek  
aren aztarnikan,  
esaioi aita bizi  
dala oraindikan.

*Semiak Ameriketatik:*

Kafia artutzen det  
eunian bi aldiz,  
gañera pasiatu  
nai dedanian zaldiz;  
kopak eta puruak  
nai añian berriz,  
a zer bizimodua  
Donostiyan banintz!

Irugarren bertso au, Otañoren esku-identzian esaten  
danez, onek "Jose Leoni biraldutakuetatik bat" da; "an-  
dik", Ameriketatik alegia.

\* \* \*

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren bildu-  
man bi bertso agertu dira, 1934 urtean *Gorrotxategi-tar*  
*Euloji*-k bialduta:

Amerikara nua  
nere borondatez,  
aspertu naizelako  
emengo izatez;  
agur egiten diet  
aspaldiko partez,  
adios, aita ta ama,  
ondo bizi bitez.

Iya iru urte baituk  
anaia juanikan,  
arrezkeroz eztiat  
notzirik andikan;  
biflatzen baldin badek  
aruntz biderikan,  
esaioi aita bizi  
dala oraindikan.

\* \* \*

Azkoitiko Kuku-erriko Larrume-aundi baserrian  
ere, bi bertso oietxek berak jaso nituan bertako Martin  
Larrañaga zanaren aotik. *Batista Bazterretxe*-ren doi-  
ñuaz kantatzen zituan. Berak napar batü ikasi omen ziz-  
kion, Ernio mendian baso-lanean ari zirala. Naparroa-  
raño ere zabaldu zirán, beraz, bertso auk.

Amerikara noa  
nere borondatez,  
aspertzen naizelako (bis)  
emengo izatez.  
Akaso mesede ta  
bearbada kaltez,  
agur, amatxo-eta, (bis)  
ondo bizi bitez.

Beste seme bat ere  
badet Amerikan,  
bere gusto guztiaz (bis)  
joana emendikan.  
Baldin somatzen badek  
aren aztarnikan,  
esaioi aita bizi,  
esaioi ama bizi  
dala oraindikan.

\* \* \*

Bizkairarño ere bide egin zuten bertso auk.  
Gernikako Julio Bareño jauna zanak onela bialdu zizki-  
dan:

Amerikara noia  
neure borondatez,  
aspertu nazelako  
emengo subtertez;  
joan biarra daukot nik  
nai eta nai ez,  
soldadu ez joatearren  
oitura dan legez.

Orain dala urte bete  
joan zan emendikan,  
ik anaia len bere  
badok Amerikan;  
iñoiz arkitzen badek  
ara biderikan,  
esaioi bizi dala  
aita oraindikan.


\* \* \*

Pedro Maria Otaño eta bere ingurua (I)

Donostiako apaizgaitegian 1959 urtean argitaratu zan *Boga, boga* izeneko kanta-bilduman, berriz, doiñua eta iru bertso azaldu ziran.



A-me-ri-ka - ra nu - a



ne-re bo-ron - da - tez



e-men ba-ño o - be - to



bi-zi-tze-ko us - tez;



as-per-tu-xi - a na - go



e-men-go i - za - tez, \_\_\_\_\_



a - di - os ai - ta e - ta a - ma,



on - do bi - zi bi - tez.

*Semea:*

Amerikara nua  
nere borondatez,  
emen baño obeto  
bizitzeko ustez;  
aspertuxia nago  
emengo izatez,  
adios, aita eta ama,  
ondo bizi bitez.

*Aita:*

Lenago're seme bat  
badut Amerikan,  
amar bat urte dira  
joan zala emendikan.  
Topatzen baduk iñoiz  
aren aztarnikan,  
esaiok aita bizi  
dala oraindikan.

*Semea:*

Kafia artutzen dut  
egunian bi aldiz,  
bai pasiatu ere  
nai aña zaldiz.  
Purua erre eta  
osasuna berriz,,,  
Aita, au bizimodua  
Donostian balitz!

Bertso aukeratuak beste toki askotan agertu dira lan esan bearrik ez dago. Baiña beste toki oiek zein diran izendatzea oso lan luzea izango litzake, eta alperrikakoa ere bai. Aitatutako oiekin naikoa dala derizkiogu.



## AMERIKETATIK

Bertso asko bialdu omen zituan Pedro Marik Ameriketatik eskutitz gisa. Oietako geienak galduak izango dira, baiña banaka batzuk gorde egin dira.

Gorde diran oietan bertso-sailik bikaiñena, 1889-an osaba Jose Bernardori bialdu ziona izango da; ogei ta bi bertso sail bikaiña. Baiña ori beste toki batean eskeintzen diogu irakurleari.

Ona orain emen gure eskuetaraiño iritxi diran beste oiek.

\* \* \*

Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzian eta 1895-ean Donostian argitaratu zan *Zerbait* izeneko liburuan onela irakurtzen da:

“Mikela, nere arreba maitiari, emendik Amerikara karta baten barrenian biraldua:

Ire gustoko gauzak zer diran  
nere ustez bazekiñat,  
gaztiatuko dizkiñadala  
argatik agintzen diñat:  
asko esan nai nizkiken eta  
guztiyak ezin dizkiñat,  
ainbeste ditun, auxen da lana!,  
nondik asi etzekiñat.”

\* \* \*

Onako au ere *Oroimenak* esku-idatzitik eta *Zerbait* liburutik artua:

“Amerikatik aitari Mikelak (nere arrebak) izkribatutako karta baten barrenian biraldua:

Aita, bai al daukagu  
esan biarrikan  
maiz aipatzen dirala  
berok Amerikan?  
Gure artian ez da  
beste okerrikan,  
aparte bizitzia  
bakar-bakarrikan.”

\* \* \*

Beste au ere bi iturri oietan arkitua, *Oroimenak* esku-idatzian eta *Zerbait* liburuan alegia. Onela dio: “Jose Leon-i biraldutakuetatik bat (andik):

Kafia artzen diat  
egunian bi aldiz,  
eta nai detanian  
pasiatu zaldiz;  
obeto izatia  
zalla uke agitz,  
baldiñ bizimodu au  
Donostiyan balitz.”

\* \* \*

*Oroimenak* esku-idatzitik eta *Zerbait* liburutik bederatziko puntuko au ere:

“Nere adiskide Axintxio, Aduna-ko Sonola-kuari, Amerikatik biraldua:

Eziñ geiago triste  
dago Buenos Aires,  
adituko zenduten  
norbaiten birez;  
kanpotarrak millaka  
zetozenak igez,  
aurten lezakianak  
egiten du iges;  
aupen geiegiyez  
bete da langillez,  
denok gaure miñez  
gaurko buruzpirez;  
bañ'ez gera aztutzen  
geren aixkirez.

\* \* \*

Beste iru bertso auk, Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna zanari zor dizkiogu. Leenengoa, Pedro Marik bere amonari-edo Ameriketatik bialdua omen da:

Guztiyoi nai diyotet  
ni maite nautenai,  
endemas nere odol  
beretik dutenai;  
nola guztiyoi batek  
eman digun danai,  
nik bedorri maite det,  
bai, amañia, bai.

Or goien *Amona* idatzi degu, dudad-mutur bat utzita. *Amañia*, izan ere, geienen iritziz, *amona* omen da. Baiña

izan da erderazko *bisabuela* dala esan digunik ere.

Erantzuna era berean artu omen zuan bere jaiotetxetik:

Laister ilko naizela  
du askok esaten,  
plazo fижorik ez du  
gauz orrek izaten;  
igez bajutxo nintzan,  
eskaxago aurten,  
laister Española  
ez bazera etortzen,  
alkar ikusi biarko  
degu Josefaten.

Bertso au onela kantatu digute Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabalek:

Lais-ter il-ko nai-  
ze - la dit as - kok e - sa -  
ten, pla - zo fi - jo - rik  
ez - du gauz o - rrek i - za -  
ten, i - gez ba - ju - txo  
nin - tzan es - ka - xa - go aur -

ten, lais-ter Eus-ka - le-  
rri-ra ez ba-ze-ra e-tor-  
tzen, el - kar i-ku - si  
bia - ko de-gu Jo-sa -  
ten.

Eta beste eskutitz batean onela esaten zioten Pedro Mariri:

Aitona Pedro Mari  
ta amandre Mikela,  
ez pentsatu aiek zutzaz  
aztuta daudela;  
orain ere ez daukate  
memori motela,  
ikusi nai baituzu  
etorri beriala.

Orain berriro aitaturako bi bertso auek, I. Unzurrunzagak ere badakarzki berak prestatutako *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburuaren itzau-

rrean (Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959). Guk bezelaxe ekarri ere. Loinaz Otaño jaunaren eskutik jasoko baitzitian arek ere. Aldaketa bakarra du. Amarreko aundia dan ortan, Unzurrunzaga jaunak *laister Euskal-errira* idazten du.

\* \* \*

Beste bertso au ere Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunarengandik degu. Jose Bernardok-edo Pedro Mariri bialdua omen da:

Illoba, zaitutelako  
nik maite biyotzez,  
zu ondo izatiak  
betetzen nau pozez;  
izan Jainko mendean  
beterikan pakez,  
au konpondu artean  
euskaldunen bidez.

Bertso onen bukaera aztertzea me-rezi luke. Jainko mendean pakez bete-rikan izatea opa dio osabak-edo Pedro Mariri. Baiña zer ote da euskaldunen bidez -eta bearbada *artez* bearbada luke-konpondu bear dana? Bearbada, kar-listen bigarren gerratea. Leen esan de-gunez, Pedro Mari Ameriketara gerra-tik igesi joan ote zan itxurak badira eta.



## NERE AMIGO VEGARI

Iru bertso auk ere eskutitz bezela moldatuak dira. Baiña etziran Ameriketatik Euskal-Errira edo emendik ara bialduak izan, Arjentinako erri batetik bestera baizik.

Onela dio Pedro Maria Otañok bere *Oroimenak* esku idatzian eta *Zerbait* liburuan:

“Nere adiskide Vegari, Rosario de Santa Fe-tik Plata-ko errira biralduak:

- 1/ Gure Donosti eder artatik  
irten nintzan ezkeroztik,  
nik ez nekiyen non ziñan, urez  
ononztik edo arunztik;  
zure berriyak etorri zaizkit  
Plata ta Buenos Aires-tik,  
ondo zerala esan dirate  
Juan Berra-k eta Aristi-k,  
len kuidadotan nebillen, baño  
pozkiroz nago geroztik.
  
- 2/ Aristi emen ikusi eta  
lendabiziko galdeera  
egiñ giñukan bazekiyen non  
ta nola zebillen Vega.  
Erantzun zigun: “Plata-n dago ta  
txit ondo bizi da bera;  
aspaldi gora igo zan eta  
nekez jatxiko da bera,  
zergatikan guk korri bezela  
arek egiten du ega”.

- 3/ Besarkada bat biraltzen diyot  
nere amigo Vega-ri:  
animatikan sentitutzen det  
ezin emana berari;  
bañan besuak eziñ iritxi  
urruti dagueuari,  
nik oraiñ ere igual nai diyet  
len maite nitubenari;  
nai dezunian etorri zaitez,  
emen dago Pedro Mari.

Esan degunez, iru bertso aukeratuak *Zerbait* izeneko liburuan ere arkitu ditugu. Liburu ori 1895-ean argitaratu zan, Pedro Mari Donostian bizi zalarik. Aldi artan 1890-ean Arjentinatik onera etorri baitzan, urte au baiño leenagoko bertsoak ditugu.

Ain zuzen, esan degunez, eskutitz edo bertso aukeratuak Rosario de Santa Fe-tik Plata-ko errira bialduak izan ziran; eta Pedro Mari, 1889-ko ilbeltzean Rosario de Santa Fe ortan zan. Ala aitortzen du berak, osaba Jose Bernardori Arjentinatik onera eskutitz gisa

bialdu zizkion ogei ta bi bertsoetan. Sail ori urrengo orrialdeetan arkituko du irakurleak.

Bertso auen beste bi argitaraldi:

*Bertsolariya* astekaria, 1932-VII-31. Onek aldaketarik ez du.

*Pedro Mari Otaño' ren bertsoak*, Kuliska sorta 31-32, Itzaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua. Aldaketa bakarra: 3/2: nere laguna Vega-ri.

Zizurkilko Adunibarko Serapio Mendizabalek kantatu egin zizkigun bertso aukeratuak, aldaketa aukeratuak: 1/2: iruten giñan ezkeroztik; 1/4: arunztik edo onunztik; 1/7: ongi zerela esan dirate; 1/10: pozikan nago geroztik; 2/3: egin giñukan ta bazekian; 2/4: nola zebillen Vega; 3/2: Vega nere lagunari; 3/8: len maite ninduenari.

(1889)

**AMERIKATIK OSABA JOSE BERNARDORI BIRALDUAK  
ORAIÑ DALA BOST URTE**

- 1/ Milla zortzireun larogei eta  
bederatziya da aurten,  
orra ogei ta amabi urtek  
nola arrapatu nauten  
ni Illbeltzaren ogei ta seian,  
Errosariyo Santa Fe'n;  
nere osaba, barkatu bizait  
ixilik egon banaiz len.
  
- 2/ Zer kontatuba pranko badaukat  
ondo esango banitu,  
bañan guztiyak karta batian  
eziñ litezke kabitu;  
sekulan ez naiz oraiñ aldiyan  
beziñ nastuba arkitu,  
Joxe Leoni galde bizaio,  
notizi denak ark ditu.
  
- 3/ Ai, zer ote da goitikan beera  
gizona beñ amiltzia!  
Beñere ez naiz arrua izan,  
bañan au da umiltzia.  
Ez nuben uste bazeikiala  
gaizkiyago ibiltzia,  
azken aldera errematxatu  
zait len nedukan iltzia.

- 4/ Rosario'tik Córdoba'raño  
Joxe anaiarengana  
joanta, izan naiz lau illabetez,  
bizi naiak eramana;  
osasuna ta esperantza zan  
aruntzian neramana;  
oso estutik eskapatu naiz,  
iya galdu nuben dana.
- 5/ Nola aparte bizitu giñan  
biyok denbora luzian,  
ai, ura gure eziñ asia  
elkargana bildutzian!  
Joxek etzuben itzik somatzen  
nik lepotik eldutzian;  
orduban etzan poza besterik,  
lengo penak galdu zian..
- 6/ Zegon tokira ni joan baño len  
irten zitzaidan bidera,  
burnibideko estaziyan  
izan zan gure billera;  
alkar topo an egiñ genduben  
ura gora ta ni beera,  
etzait aztuko bañan nol'esan  
gau artako ibillera?
- 7/ Guk ere anbat izan gintzake  
geren alderdi flakuak,  
bañan senide guztiyak gera  
elkarrentzat alakuak;  
Josek botatzen zituben pozez  
ginga añako malkuak,  
maite nola ez izan anaiak  
ura dan bezelakuak?
- 8/ Bañan luzatu etzezakian  
gau artako umoriak,  
urruti zeuden aita Juan Pello  
eta gure senidiak,  
beti bezela maite ditugun  
aide ta adiskidiak;  
au pentsatzian illundu ziran  
gure pozaren biriak.

- 9/ Bakarrik ez dan siñalia da  
pena bat agertutzia,  
andikan laxter sortu zitzaidan  
gaitz bat txarra ta luzia;  
asko du, jakiñ nai dubenian  
pasa detan gurutzia,  
Joxe Leoni biraltzeiotan  
papera irakurtzia.
- 10/ Nunbait betiko erori ez ta  
noizbait jarri nintzan txutik,  
bañan biziro gaizki nebillen  
burutik eta petxutik;  
Mikelak eta Juan Marik gero  
deitu ziraten etxetik,  
Errosario'n sendatu naute  
an sortutako gaitzetik.
- 11/ Zizurkildikan Madrilla aña  
bide gutxi gora-bera,  
ni engañatzen ez banaiz, dago  
Córdoba'tikan onera;  
anaia Joxek lagundu zidan  
kotxiarekiñ trenera,  
anparo billa etorri nediñ  
nerien aldamenera.
- 12/ Penaz bete ta pozaren billa  
etorri nintzan arunztik,  
nere arrebak zer esan ziran  
goguan daukat geroztik:  
"Bertso ederrak, ordañen truka,  
osabak biraltzen dizkik,  
oien bueltak jarri biaituk  
denak aitu ez bazaizkik".
- 13/ "Txit artakotzat artzen natxion  
osabak bere noblezan,  
eta sentitzen deran guztiya  
nik etzekiñat nol'esan;  
bañan zedozer jarriko diñat,  
seguru iduki ezan,  
borondatia falta zaidanik  
iñork sinistu ez dezan.

- 14/ Iduritutzen zaidan batzubek  
duda badabilkitela,  
ikusirikan nik aiei aña  
kaso egiten diratela;  
bañan ixilik egonagatik,  
ik ondo dakiñ, Mikela,  
guk nai diyegun baño geiago  
eziñ nai izan leikela.
- 15/ Beron gañian izaten dira  
gure izketa geienak,  
nola ez ditu maiz aipatuko  
onenbeste nai diyenak!  
Guretzat oraiñ aundiyak dira  
orko gauzik txikiyenak.  
Au esaten det jakiñ dezaten  
lenago etzekitenak.
- 16/ Lenago anbat aiñtzat artzen ez  
ginduzen gauza guziyak,  
aiñbesteraño edertzen ditu  
oraiñ eziñ ikusiyak;  
Euskal-erriko mendi ta zelai  
ibai, arkaitz ta sasiyak,  
beñere eziñ aztu litzake  
aien tartian aziyak.
- 17/ Gu geienian gabiltza emen  
esna ere ametsetan,  
beti pentsatzen berongan eta  
Euskal-erriko gauzetan.  
Askok diyonez, bizi gerade  
txit toki aberatsetan,  
bañan ez dago Donostiyarik  
gure lurrian bestetan.
- 18/ Ameriketari ikusten ditut  
zenbait euskaldun “andare”,  
bizi diranak beren lurrari  
aitormenik eman gabe...  
Bañan ez dute ezagutzen ta  
oiek barkatubak daure.  
Nik Donostiya eskatuko det  
Paraisora joanta ere.

- 19/ Euskal lurreko lore-baratza  
zeruko intzez bustiya,  
beste izar ta argi guztiyak  
itzaltzeko eguzkiya;  
zure berdiñik iñun ez dezun  
biyotzeko Donostiya,  
nork du mingaña zu goititzeko  
merezi dezun guztiya?
- 20/ Donostiya'ko *ciudadia*,  
Iruzuloko uriya,  
etxian zuben perlik onena  
Jainkuari ixuriya,  
zartzen diranen alaitzallia,  
gazte guztiyen nobiya;  
zeruba zer dan ez dakit, bañan  
zu zera nere gloriya.
- 21/ Urruti zaude eta zalla da  
ni zugana irixtia,  
onenbeste nai dizun batentzat  
zer bizimodu tristia!  
Alaipire bat bakarra daukat  
ametsetan sinistia:  
zu ikusteko noiznai asko det  
nere begiyak ixtia.
- 22/ Nere osaba Joxe Bernardo,  
iritxi naiz ontaraño,  
ta ixiltzera nua, zer esan  
asko badaruzkat baño.  
Gure berriyak zabaldu bitza  
derizkiyon lekuraño,  
esanaz bere illoba dala  
Pedro Maria Otaño.

Bertso auk Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu ditugu. Aldaketa bat sartu degu. Bai esku-idatzitan eta bai argitaraldi guztietan, bostgarren bertsoaren azken lerroan *ziran* irakurtzen da. Guk *zian* idatzi degu, punturako ala bear duala-koan.

Leenengo argitaraldia, oker ez bagaude, beraren *Zerbait* izenburuko liburuan egin zan: "*Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian*".

*Alkar* liburuan, *Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria*

1088, 1904, *Oroitzxoak* izenburuarekin, iru bertso agertzen dira. Oietako bi, sail ontako 16 eta 21'garrena, aldaketa bakarrarekin: 21/5: alibiyo bat bakarra daukat; eta irugarrena beste sail batekoa.

*Alkar* liburuaren bigarren argitaraldian "*Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28. Donostia, 1930*", sail au ere agertzen da oso-osorik, aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe. Baita ere, aurrekoan bezela eta *Oroitzxoak* izenburuarekin, beste iru bertso oiek.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak*, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua. Onek aurrekoari kopiatzen dio. *Oroitzxoak* izenburua duten iru bertso oiek ere baditu.

*Bertsolariya* astekarian ere, 16 zenbakian, 1932ko ilbeltzaren 3-an, agertu ziran bertso auk. Aldaketarik gabe, ordea.

Baita "*Imprenta Macazaga Rentería*" moldiztegian argitara eman zan bertso-paper batean ere. Bi tokitan jasotuan: Errezillen, Loita-azpiko base-rrian; eta Donostiko Antiguan, Lexo bertsolaria alaba zan Adelina Sarasolaren eskutik. Onek ere ez du aldaketarik.

Iruñe'ko *Príncipe de Viana* aldizkarian, 1982'ko Otsaillan, sail ontako amar bertso agertu ziran: 1, 2, 3, 4, 5, 8, 17, 18, 19, 21 eta 22'garrena. Aldaketak: 21/6: amets egiten astia; 21/7: zu ikusteko noiz-nai aski det; 22/4: naikoa badaukat baño; 22/7: esanaz bere illoba dula.

\* \* \*

Or goien esan degunez, Otaño-tarrak, Zizurkildik Arjentinara eta Arjentinatik Zizurkillara, bertsoan bialtzen zizkioten sarritan alkarri eskutitzak. Pedro Marik bere osaba Jose Bernardori egiten dion au ere alakoxea degu. Ziur asko, bertsoan euskeraz iñoiz idatzi dan eskutitzik bikaiñena eta famatuena.

Amabigarren bertsoan esaten denez, arrebak eskatzen dio Pedro Mariri bertsoak jarri ditzan, osabak bialdu dituanerantzuteko.

Zorionez, osaba Jose Bernardok bialdu zituan oietatik, bertso bat oso-rik eta beste baten bukaera ezagutzen ditugu, beraren alaba Adriana zanak emanda:

Sasoi onenak aldegin zigun,  
ez gaude lengo tamañak;  
eta len ere, egia esan,  
ez giñan oso bikañak;  
memoritikan notizi txarra,  
trabak daduzka mingañak,  
dijuazenak bañan obiak  
esperatze' itut ordañak.

Eta bestearen bukaera:

ia etortzen ote zeraten  
nere anaia ta biyok.

\* \* \*

Bertso auk doiñu onekin kantatu ziguten Adunibar-errotako Serapio eta Inazio Mendizabalek:





Mi-lla zor - tzi-reun la-ro-gei  
e - ta be - de - ra - tzi - ya  
da aur - ten, o - rra o -  
gei ta a - ma - bi ur - tek  
no - la a - rra - pa - tu nau -  
ten ni il - bel - tza - ren



o - gei ta sei - an E - rro - sa -  
ri - yo San - ta Fen;  
ne - re o - sa - ba, bar - ka - tu  
bi - zait i - xi - lik e - gon  
ba - naiz len.

## ANAI JOXE

Leen ere esan degunez, Jose izeneko iru anai izan zituan Pedro Marik: Jose Bernardo, Jose Frantzisko eta Jose Domingo.

Leen esan degunez, Jose Domingo umetan il zan, bi urterekin, 1875-eko urriaren 17-an. Jose Bernardok, berriz, Euskal-Errian egin zuan bere denbora guzia, eta Jose baztertu eta Bernardo esaten zioten.

Dударик ez da, beraz, arrezkeroztik, *Jose* esatean, zeinengatik ari ziran: Jose Frantziskorengatik noski.

Jose au ere Ameriketara joan zan, noiz ez dakigula. Baiña, ikusi degunez, Pedro Marik bein baiño geiagotan aitatzen du oraintxe eskeiñitako sail ortan; osabari bertsotan idatzitako eskutitz luze ortan alegia.

An zan, beraz, 1889-an. Ogei urte zituan orduan. Onela dio Pedro Marik:

Rosario-tik Córdoba-raño  
Joxe anaiarengana  
joan ta izan naiz lau illabetez,  
bizi naiak eramana...

Alkarrekin burnibideko estazioan topo egitean, berriz:

Joxek etzuben itzik somatzen  
nik lepotik eldutzian...

Eta gero:

Josexek botatzen zituben pozez  
ginga añako malkuak,  
maite nola ez izan anaiak  
ura dan bezelakuak?

Córdoba-tik Rosario-ra atzera itzultzean, berriz:

anaia Joxek lagundu ziran  
kotxiarekiñ trenera...

Baiña Joxe au gazterik il zan. Jeronimo Elizegi izeneko batek, Donostiako *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1902-ko urriaren 31-n, aurrerago eskeiñiko ditugun bertso batzuetan, onela esaten baitu:

Periko ta Mikela,  
Joxe gartziena,  
ura zan neretzako  
launik onena;  
txarkeririk etzuben,  
ona zuben dena;  
edozeñi lagutzen  
beti zan aurrena.  
Gauzik okerre  
jakindu nubena:  
lagun maitiena  
Elizegirena  
ill zala Amerikan,  
ai, ura pena!

Elizegiren bertso auei erantzuna bertsoan eman zien Pedro Marik; eta, besteak beste, onela esaten du:

Aita ta anaia il  
ziran ezkeroztik,  
bertsuak illunpian  
gelditu zaizkit...

Aita, aurrerago esango degunez, 1901-eko ilbeltzaren 4-ean il zan.

Anai Joxe ori noiz il zan ez dakigu. Baiña Pedro Marik badu bertso bat Buenos Airesko *La Vasconia* aldizka-

rian, 1902-ko abenduaren 30-ean argitaratua, eta an onela esaten du: “anai bat berriro joana”. Il berria zala ematen du, beraz.

Bi eriotz oiek Pedro Mariren biotza goibeldu egin zuten, eta bertsoarako gogoak kendu. Baiña Elizegiren bertsoak xuxpertz egiten dute:

nola etzetorkidan  
iñondikan pozik,  
zure *oroimen* onak  
ederki datozkit...

## ZIZURKILDIK DONOSTIRA

Leen ere esan degunez, Pedro Maria Otañoren familia Zizurkildik Donostira aldatu zan bizi izatera.

Otañotarren Donostiako leenengo aztarrenak 1875-eko *Padrón Municipal*-ean arkitu ditugu. Bertan esaten danez, urte ortan, Trinitade kalean, 33 zenbakian, laugarren bizitzan, onako lagun auek bizi ziran: Juana Otaño, ogei ta zazpi urtekoa, zizurkildarra, ezkondua, Donostian bi urte zeramazkiana. Juana Mikaela Otaño, ogei ta lau urtekoa, zizurkildarra, bertan bi urte zeramazkiana. Eta Pedro Otaño, berrogei ta bost urtekoa, ezkondua, argiña, bertan bi urte zeramazkiana.

Pedro Otaño ori Juan Pedro da, Pedro Mariren aita, 1829-XII-28-an jaioa, 1875-ean berrogei ta bost urte zituana. Juana Mikaela, Juan Pedroren arreba zan, senideetan gazteena, orduan ogei ta lau edo ogei ta bost urte zituana. Eta Juana Martina ere, Juan Pedroren arreba zan, orduan ogei ta zazpi urte zituana. Bi aizpa auen adiñak bata bestearekin naastuta daude dalako *Padrón Municipal* ortan.

Donostian bi urte bazeramazkiten, 1873-an egin zuten aldaketa ori. Baiña familiko beste danak nun dira? Alegia, ama, Pedro Mari, Josefa Antonia, Jose Bernardo, Juan Pedro, Jose Frantzisko

eta Jose Domingo? Artean Zizurkillen biziko ziran oiek.

Baiña 1873 urte ortan karlisten gerra zebillen. Donostira gerraren igesi joan ote ziran? Badíteke, baiña ez dakigu.

Donostiako urrengo *Padrón Municipal* izenekoa 1882-ko abendukoa de-  
gu. Emen agertzen danez, Amarako *Escabechería* kalean, lagun auek bizi ziran: Juan Pedro Otaño, alarguna, nekazaria; Jose Otaño Barriola, ezkon-  
gaia; Mikaela Otaño Barriola, ezkon-  
gaia; Bernardo Otaño Barriola. Guziak zizurkildarrak, eta idazten eta irakur-  
tzen dakitenak. Lagun auen jaiotegu-  
nak ere ematen ditu *Padrón Municipal*  
dalako orrek, baiña oker. Orregatik ez  
ditugu jartzen. Gaiñontzeko senideak  
nundik nora zebiltzan ez dakigu.  
Pedro Mari ere ez da ageri. Ura  
Ameriketari izango zan.

Urrengo *Padrón Municipal*-a 1885-  
eko abendukoa da. Ontan iru Otañotar  
azaltzen dira, *Convento San Bartolo-  
mé* kalean, bigarren zenbakian, lee-  
nengo bizitzan: Juan Otaño, Jose Ota-  
ño Barriola eta Jose Otaño Iparragirre.  
Juan Otaño ori Juan Pedro da, Pedro  
Mariren aita. Jose ori Jose Bernardo  
da, Pedro Mariren anaia. Eta Jose  
Otaño Iparragirre, gero ere adieraziko  
degunez, Jose Bernardo orren semea.

Lau Otañotar azaltzen dira urrengo *Padrón Municipal*-ean, 1887-koan, baiña bi etxetan banatuak. Batean, Peñafiorida kalean, 12 zenbakian, denda, Plazida Otaño, ogei urtekoa, ez-kongaia, neskamea, Donostian urtea zeramakiana. Jose Bernardoren alaba zan au. Eta leen aitaturako *Escabechería* kalean, bigarren zenbakian, Juan Pedro Otaño Lasa, berrogei ta amairu urtekoa, zizurkildarra, alarguna, argiña, bertan amalau urte zera-

mazkiana; Bernardo Otaño Barriola, ogei ta lau urtekoa, zizurkildarra, ez-kondua, argiña, bertan amar urte zeramazkiana; eta Josefa Otaño Iparragierre, bi urtekoa, donostiarra, bertan bi urte zeramazkiana. Nexka au aurreko Bernardo orren alaba, noski.

Urrengo *Padrón Municipal*-a 1891-ko abendukoa da. Baiña onen txetasun eta argibideak gero emango ditugu, ontan Pedro Mariren izena ere ageri da eta.

## ARJENTINATIK EUSKAL-ERRIRA

Noiz etorri zan Arjentinatik Gipuzkoara Pedro Maria Otaño bigarren aldiz? Galdera orri gutxi gorabehera erantzuteko, bi bide ditugu: bata, Donostiako udal eta eliz-artxiboak; bestea, berak bere bertsoetan esaten duana.

Gero ere adieraziko degunez, Pedro Mari 1891-ko garagarriaren 11-n ezkondu zan, Donostiako Artzai Onaren elizan. Emengo artxiboan oraindik ere gordetzen dute are *Expediente Matrimonial* deritzaiona, eta ontan itz auek irakurtzen dira: "*domiciliado en su circunscripción* -parrokiarena alegia- *hace diez meses*".

*Expediente Matrimonial* dalako ori ezkontza-eguna baiño leenago egingo zan noski. Orregatik, amar illabete oiek maiatzetik atzera kontatzen asi gindezke, eta 1890-eko uztailla aterako zaigu. Baiña somaketa au ez da oso zeatza, kontatzen nundik asi bear dan xuxen ez dakigu eta. Ala ere, gero esango degunez, "bero aundiko egunarekin" etorri omen zan. Udarán, beraz, ziur aski.

Beste argibide bat Donostiako 1896 urteko abenduko *Padrón Municipal* izeneko liburuak ematen digu. Emen esaten danez, Pedro Mari zazpi urte eta lau illabete daramazki Donostian. Kontua eginda, 1889 urteko udara ateratzen zaigu.

Bitatik bat aukeratzekotan, ezkontzako paperak sinisgarriagoak iruditzen zaizkigu, eta 1890 urtearen alde gaude, zalantza piska batekin bada ere.

Bestetik, berriz, Otañoen *Ama Euskara* izeneko bertso-sailla da, bere etorrera ontaz argirik geien ematen duana.

Bertso sail ori 1892-koa da. Urte artako olerki sariketara bialdu zuan, gero ere adieraziko degunez, eta *mencción honorífica* deritzaiona irabazi.

Sail ontan, arretaz irakurtzen bada, Otañoek bere bizitzaren txeetasun asko ematen dizkigula ikusiko degu.

Emen danontzat ainbat ogi ezin arkiturik, euskaldun batzuek urrutira, Ameriketara alegia, joan bear izan zutela esaten digu, eta an sorterriaren miñez bizi zirala.

Euskal-Erritik iristen zitzaizkien berriak negargarriak izanik, batek onerako asmoak artzen ditu:

esanaz: "Ama galdu ez dezan norbaiten gaiztakeriak, ekairazute besarkara bat, beragana joan nai diat".

Nor izan diteke euskaldun au, Pedro Maria Otaño bera izan ezik?

Noiztsu iritxi zan ere esaten digu:

noizbait azkenik inguratu zan  
bera jaio zan lurrera,  
egualdi otzak ziran denboran,  
Egoarriak aldera.

Leen esan degunez, 1890-eko uz-  
taillean etorri ote zan geunden. Baiña  
ontan bestelako urte-garaia azaldu zai-  
gu: Eguberriak. Baiña gauza jakiña da  
olerkariak, gatzeleraz *licencia poética*  
esaten dana erabiliz, gertaerak berai  
komeni bezela jartzen dakitenak dira-  
la.

Etorri eta bati “gure Ama ona non  
dan” bai ote dakian galdetzen dio. Eta  
arek:

- Bai, ala fede, eta nola ez  
gaur gaubean bere onran  
festa degu ta? Begira zazu  
apaiñduta nola noan...

Atzerritik etorri dan euskalduna,  
Pedro Mari alegia:

joan zan bilguma eder batera  
eziñ geldituz biotzik;  
nola etzuben ikusitzea  
espero alako gauzik...

Zer festa ote da ori? Donostian, ga-  
rai artan, literatura-sariketak urtero an-  
tolatzen ziran. Sariak banatzeko, be-  
rriz, festa eder bat egiten zan Egube-  
rrietan.

Orretxegatik esango du Otañok, ain  
zuzen, dalako euskaldun ori “Ego-

arriak aldera” Ameriketatik onera al-  
datu zala: aren etorrera euskal festa or-  
tara urbiltzeko. Ez det uste, beraz,  
Pedro Mari urte-garai ontan etorri zala  
pentsatu bear degunik. Itxura geiago  
du, urrengo atalean adieraziko degu-  
nez, ura udara gorrian iritxi zala uste  
izateak.

Ona emen 1890-eko Donostiako  
euskal festa nolakoa izan zan, *Euskal-  
-Erria* aldizkariak kontatzen duanez:

*“Con la solemnidad de costumbre se verificó en el  
Teatro Principal la clásica fiesta euskara, anunciada  
para la noche del 26 de Diciembre último.*

*A las 8 en punto, la orquesta, bajo la acertada di-  
rección del joven e inteligente músico D. Norberto  
Luzuriaga, ejecutó la fantasía del mismo titulada Saio  
bat, premiada en este concurso.*

*A continuación presentóse en escena el  
Consistorio, presidido por el presidente de la  
Diputación Sr. Sagredo y el teniente alcalde señor  
Bermingham (D. Tomás).*

*El secretario Sr. Arzac proclamó los nombres de  
los autores laureados en el concurso literario-artístico,  
y leyó algunas de las composiciones premiadas, que  
fueron recibidas con agrado por el público.*

*La segunda parte dio principio con el capricho  
bascongado Kontxerentzat, y en seguida representóse  
la pieza dramática premiada Barrenen arra, original  
del aplaudido autor y querido amigo nuestro D.  
Marcelino Soroa. Obtuvo esmerada interpretación por  
parte de los Sres. Iribarren, Luzuriaga, Uranga y  
Olazabal, y cautivó al auditorio.*

*Luego se presentó en escena un numeroso grupo  
de jóvenes entusiastas por la música, que se habían  
ofrecido gustosos a cantar el popular zortziko del ma-  
estro Santesteban ¡Biba Donostiya!, dedicado a los re-  
meros donostiarras, arreglado a cuatro voces; alcanzó  
una interpretación acabada, así como el precioso coro  
Ume eder bat, que mereció los honores de la repeti-  
ción.*

*Efectuóse en la última parte el concurso de tambo-  
linteros, obteniendo el primer premio D. Demetrio  
Múgica, de Bermeo, que fue objeto de la misma distin-  
ción en el concurso del año anterior. Las piezas inter-  
pretadas fueron de grandísima ejecución, y la concu-  
rrencia premió con prolongados aplausos la rara habi-*

*lidad de este chistulari, quien a instancias del jurado tocó un ariñ-ariñ muy original.*

*Merece especial mención el atabalero D. Gregorio Larrarte, de Azepeitia, que acompañó primorosamente al Sr. Múgica.*

*Terminó la velada con la sesión de bersolaris, que con sus chistes y agudezas hicieron las delicias del público”.*

**Euskal festa oni buruz onela zion  
*La Voz de Guipúzcoa* egunkariak,  
1890-eko abenduaren 27-an:**

*“Con la solemnidad de costumbre se verificó anoche en el Teatro Principal la función organizada por el Consistorio de Juegos Florales de esta ciudad, con arreglo al programa que ya conocen nuestros lectores.*

*Después de la proclamación de nombres de los autores premiados en el concurso artístico-literario y de la lectura de algunas de las composiciones premiadas, se puso en escena la pieza dramática Barrenen arra, que obtuvo regular interpretación.*

*Al coro Viva Donostiya, anunciado, siguió el Ume eder bat, que mereció los honores de la repetición.*

*...El espectáculo terminó con los indispensables versolaris Bernardo y Pello, que hicieron las delicias del público, excepto en el tema de Larramendi, que, dicho sea de paso, no se presta a esta clase de torneos, por ser más propios los asuntos picarescos. Por no saber qué hacer ya a Larramendi, uno de los improvisadores lo hizo santo. Todo sea por Dios”.*

Olakorik bein ere ikusi gabea izango zan gure Pedro Mari, eta esan bearrrik ez dago belarriak erne eta begiak beren zuloetatik atera nairik eukiko zitu-tuala.

Ain zuzen, 1890 urtean etorri bazan, bere osaba Jose Bernardo bertso-tan... Eta Pello Errota ere Ameriketara joan aurretik ezaguna izango zuan.

Baiña bere orduko sentimentuak onela adierazten dizkigu berak:

“Ama!” deadar egiñ nai zuben  
ta eziñ somatu itzik,  
barren-barrendik Jaungoikoari  
esker ematea baizik.

Bereala asiko zan Pedro Mari nor-geiagoka oietara bere lanak bialtzen. Baita antolatzaillcen eta parte artzaill-leen adiskide miña egiten ere: Lopez Alen, Etxegaray, Iraola, Ramon eta Jose Artola, Soroa, Uranga, Sanchez Irure, Alzaga...



## “BERA JAIO ZAN OIAREN ESKE”

Euskal-Errian oso ezagunak dira gaur ere, Pedro Mari Ameriketatik etorri eta etxeko ate ondoan, bera jaio zan oia eskatuz, kantatu zituan bertsoak, osaba Jose Bernardok etxe barrutik erantzuna emanaz.

Bertso oiek, lau guzira, andik onera bigarren aldiz etorri zanean kantatuak dira, dudarik gabe: 1890-ean, ziur aski. Orregatik, liburuaren une ontan sartu bearrak dira.

Baiña Ameriketara joaterakoan azken agurra eman bearrez kantatutako beste bertso batzuk ere badira, eta oiek jarriko ditugu aurretik.

\* \* \*

Otañok, bere *Oroimenak* esku-idatzian eta *Zerbait* liburuan, onela esaten du:

“...osabarekiko partieran, abotik abora botatako bat, aditzalliak ikasiya:

Agur, nere osaba  
ta parientiak,  
ariyo, adiskide  
ta lagun maitiak;  
pena ematen dit zubek  
utzi ta joatiak,  
berriz etortzen banaiz  
ez itxi atiak.”

Bigarren aldian joan zaneke azken agurra ematerakoan kantatua izango da.

\* \* \*

Urrengo bertso au Andoaingo Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunari zor diot. Idazki batean onela dio:

“Pasaian, Jose Bernardok legorretik, barkuan zijoan Pedro Mariri:

Nere illoba, egin bazaizu  
Amerikara joan naia,  
desio dizut izan zazula  
gutziz biaje alaia;  
ara joatian eiten bazaizu  
onera etorri naia,  
Errekaldian an egongo da  
zu jaio ziñaden oia.”

Bertso au beste onela agertu zuan Basarrik *La Voz de España* egunkarian, 1946-ko azaroaren 10-ean:

Nere illoba, egin al zaizu  
Amerikara joan naia?  
Nere partetik egin zazula  
gutziz biaje alaia.  
Ara joatean eiten bazaizu  
onera etorri naia,

Errekalden an izango dezu  
zu jaio ziñaden oia.

Eta Azkoitin jaio eta Zarautzen bi-  
zi izan zan Patxi Larrañaga zanak one-  
la eman zigun:

Nere illoba, egin zaizula  
Amerikara joan naia,  
nik opa dizut egin daizula  
oso bidaje alaia;  
egunen baten eiten bazaizu  
onera etorri naia,  
Errekaldean or egongo da  
zeu jaio ziñaden oia.

Itzen bat edo beste aldatuz, onela  
kantatu digute bertso au Serapio eta  
Inazio Mendizabal anaiak:

Ne-re i-lloba, ein o-  
men zai-zu A-me - ri - ka-ra jo-an nai-  
a, de-si - o di-zut e-gin  
za-zu-la guz-tiz bi - a - je a - la-  
ia; a-ra joa-ti-an ei-ten  
ba-zai-zu o-ne - ra e-to-rr-i nai-

a, E-rre - kal - di - an or e -  
gongoda zuja - io zi - ña - den o - ia.

\* \* \*

Urrengo bertso au, bere aurreko ar-  
gibidearekin Pedro Marik berak idatzi-  
tako *Oroimenak* esku-idatzian, *Zerbait*  
liburuan eta *La Vasconia* aldizkarian,  
1899-ko garagarrillaren 30-ean, arkitu  
degu. Onela dio:

"Amerikatik etorri eta bere etxeko  
atia joaz, osaba Jose Bernardori *abotik*  
*abora* botia, oroiturik nola berak ni  
aruntz joaterakoan esan ziran kantuz:  
"Orañdikan an dago jaio ziñan oia..."".

Osaba, baldiñ ez badaduka  
eitoko aundiyeen bat or,  
gizon bat dago bedorren galdez,  
ate ondoraño betor;  
bedorrek ondo dakiyena da  
agintzen dana dala zor:  
bera jaio zan oiaren billa  
illoba orañtxen dator."

Edozein bertsozalek dakianez,  
Pedro Mariren etorrera ontan bina  
bertso kantatu zituzten osaba Jose  
Bernardok eta biak.

Bertso oien leenengo aitamena or  
goien ezarri degun bertso ori da, Pedro  
Marik berak ematen duan testigantza,  
alegia.

\* \* \*

Beste testigantza bat badegu une artan antxe bertan zegoan batena: Jose Bernardoren alaba Adrianarena, alegia. Bera neska koskorra omen zan orduan. Onelatsu esan zigun 1960 urte inguruan:

“Lengoan emen kantatzen ari ziran bertso oiek, eta esan nuan: “Ez da ori ola”. Nik an aditu nituan. Pedro Mari Amerikatik etorri zan. Donostiko Lasarterekin zan. Bere lagun bat zuan ori, oso gizon balientea. Atea piska bat iriki zutela uste det, eta aitak barrendik eta Pello Marik atez kanpotik. Aurretik Pello Marik kantatu zuan:

Nere osaba, ez baldin badu  
eginkizun aundin bat or,  
gizon bat dago berorren galdez,  
ate ondoraño betor.  
Bedorrek ondo dakiena da  
agintzen dana dala zor,  
bera jaio zan oiaren billa  
illoba oraintxen dator.

Ni aditzen nengoan. Eta aitak onela erantzun zion:

Nere illoba, esaten dizut  
ongi etorri zerala,  
jaiotako oia jantziko dizut  
gusto aundiz beriala,  
arropa zuri ederrenakin,  
parpallak darizkiola,  
sinistamena eman deizudan  
biotzez nai dizudala.

Besterik ez dakit kantatu zuten. Orduan ateak iriki ta barrena sartu ziran Donostiko Lasarte aundi ori eta Pedro Mari.

Lasarte ori Ameriketako laguna-  
edo zuan. Oiek transporteak izan bear  
zituzten, eta alkarrekin etorri.

Ama sukaldean eta ni sukaldera jo-  
an nintzan korrika, berari esatera:

- Ama, ama, bertsotan ari dira!

Eta amak esan zidan:

- Bai, bai. Ixo, ixo. Egin dezatela.

Bitartean kantatuko zuten geiago.  
Baiña ez nituan aditu. Ala bearko  
zuan. Ni neska koskorra orduan.”

Oneraiño Adriana zanaren itzak.

Adriana au 1880-ko irailaren 8-an  
jaioa zan. Bederatzi edo amar bat urte  
izango zituan, beraz, Pedro Mari  
Ameriketatik bigarren aldiz etorri za-  
nean, 1890 urtean-edo.

Beste txecetasun jakingarri bat  
Adriana onek esan zigulakoan geun-  
den. Baiña arek eman eta guk idatzita-  
ko argibideetan ez degu orain arkitu;  
eta besteci jasotako oarretan ere ez.  
Nere buruan gorderik egon dan bezela  
kontatu bearko det, beraz.

Pedro Mari, dakigunez, eztarri txar-  
rekoa omen zan. Ortik jendeak eran-  
tsitako izengoitia: *Kattarro*. Akats  
orrek galerazi zion plazetan kantatzea,  
orduan altabozik-eta ez baitzegoan.

Aldi artan ere, bere bigarren ber-  
tsoa kantatzen ari zala, azken lerroa  
falta zuala, ez tul kolpe bat etorri omen  
zitzaion, eta ezin izan zuan bertsoa  
osatu. Baiña illoba eziñean ikusi zua-  
nean, osabak eman omen zion bukaera  
bertso orri. Eta, illobarena amaituta,  
bere urrengo bertsoarekin asi.

Eta orain berriro, liburu au presta-  
tzen ari giñala Teodoro Mujikak esan

digunez, Pedro Mariren illoba txikia zan Adunibar errotako Emiliano Bengoetxea zanak ere, arek bere bigarren bertsoa bukatu etzuala esaten omen zuan.

\* \* \*

Pedro Mari makal samar zetorren. Osaba Jose Bernardori 1889-an esku-titz gisa bialdutako ogei ta bi bertso aietan, berak aitortzen du:

ez nuben uste bazeikiala  
gaizkiyago ibiltzia.

Geroxcago:

oso estutik eskapatu naiz,  
iya galdu nuben dana.

Zer izan zuan ez du esaten. Baiña:

andikan laxter sortu zitzaidan  
gaitz bat txarra ta luzia...

Ala ere, aurrera ateratzen da:

Nunbait betiko erori ez ta  
noizbait jarri nintzan txutik,  
bañan biziro gaizki nebillen  
burutik eta petxutik.

Osasuna nun ondu zitzaion ere esaten du:

Errosarion sendatu naute  
an sortutako gaitzetik.

Andik laster etortzen da Arjentina-tik Euskal-Errira. Bigarren itzuli ori

1890-ean-edo egin baitzuan. Ez da arritzekoa, beraz, gaitzaren ondorenak oraindak ere indarrean irautea.

Orra, ain zuzen, esan bezela Otañotarren kastakoa zan Jose Antonio Loinez Otaño apaiz jaunak zer esaten zion bere adiskide Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jaunari, 1935-eko ilbeltzaren 23-an, eskutitz batean:

"Arren etorrera Billabonako estazi-yora, kapusai bat jantzita, bero aundi-ko egunakin, esaten ziola bere lengusu Plazidak: "Bañan, Pedro Mari, ken zak kapa aundi ori!". "Zertako, neska? Zer naizela uste den kenduta?". Negarrari neronek ere ekin niyon. Ain puskatuta, ezur utsik, zetorren bere lagun jator Jose Leon Lasartekin, gaiz sendakaitz gogor batekin. Bere bizitzaren gertae-rak oso ezagunak dira txulo oietan...."

\* \* \*

Pedro Mariren illoba eta Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok, berriz, onela esan zigun:

"Plazida Otaño, Jose Bernardoren alabarik zaarrena, Pedro Mariren leen-gusua, Zubiaurre baserrian bizi zan or-duan. Bi bizitzako etxea zan. Billabo-natik abiatu eta Asteasura eta Zizur-killilla nola artzen da? Bide gurutze or-tantxe zegoan, eskubitatik, Pasusenea baiño leenago.

Pedro Mari Ameriketatik etorri eta Plazida eta biak joan omen ziran Errekaldera. Santio aurrea omen zan. San Pedro edo Santio inguruan etor-tzen ziran, ba, geienetan indianoak. Joan, berriz, azaroan. Udara gorrian etorri, beraz, baiña Pedro Mari ori ga-

banarekin. Eta Plazidak esan omen zion:

- Bero egiten dik, motell, eta gabana erantzi bearke dek.

Baiña Pedro Marik erantzun omen zion:

- Ni zer naizela uste den, au erantzita?

Eta ez omen zuan erantzi. Aulduta etorriko zan eta etzan kentzera beartuko."

\* \* \*

Manuel Lekuona apaiz jaunak bere *Literatura oral vasca* liburua argitaratu zuan 1935 urtean.

Baita 1964-an ere bigarren aldiz.

Irugarren argitaraldia beraren *Idazlan guztiak* bilduman (1978) izan zuan liburu orrek.

Iru argitaraldi auetan Pedro Mariren etorrera nola izan zan kontatzen da, eta osaba-illobak alkarri kantatu zizkieten ber-tsoak eskeiñi ere bai.

Baiña adierazpen eta bertso oiek oso ezberdin ematen dira 1935-eko ar-

gitaraldian eta beste bietan.

Bi iturri izan zituan, beraz, Lekuona jaunak. Bearbada, Oiartzungo Lexoti zaarra bertsolaria 1935 urteko libururako. Eta beste bientzat, batere dudarik gabe, Otañotarren kastakoa zan Jose Anto-nio Loinaz Otaño apaiz jauna.

Leenengo, 1964-eko argitaraldiari eta *Idazlan guztiak* bildumari (1978) kopiatuko diogu:

*"Érase una familia de improvisadores. La familia de los Otaño de Zizurkil (Guipúzcoa) del caserío "Errekalde". Entre todos sus componentes se distinguen como tales Joxe Bernardo, hermano del padre de familia, y uno de los hijos de éste, Pello Mari. En la fecha a que nos referimos, éste se hallaba en la Argentina. Pero había anunciado para fecha próxima su venida a casa.*

*A tal anuncio su tío Joxe Bernardo, que le distinguía especialmente por su comunidad de aficiones bertsolísticas, le preparó un buen recibimiento con una buena mesa y el cumplimiento de la promesa que al partir para las Américas le había hecho en el Puerto de Pasajes, de preparar para su regreso la cama en que había nacido (Oraindikan an dago jaio ziñan oia).*

*Desembarcado, corrió Pello Mari a los suyos, los cuales le esperaban ansiosamente. Era el mediodía de la Fiesta de Santa Ana, cuando bajó del tren en la estación de Villabona, acompañado de su inseparable José León Lasarte. Ante la puerta medio cerrada del caserío, donde el tío sin hacerse visible aguardaba a que el sobrino entonase el verso de saludo, surgieron estas cuatro magníficas estrofas, que aún se recuerdan:*

- Osaba, baldin ez badaduka  
eiteko aundiyeen bat or,  
gizon bat dago berorren galdez,  
ate-ondoraño betor.  
Berorrek ondo dakiyena da  
agintzen dana dala zor:  
bera jaio zan oiaren billa  
illoba oraintxe dator.

- Nere illoba, esaten dizut  
ongi etorri zerala;  
jaiotako oia jantziko dizut  
gusto aundiz bereala,  
erropa zuri ederrenakin  
parpallak darizkiola,  
sinistapena izan dezazun  
biyotzez nai dizudala.

- Esperatutzen nuan bezela  
egin nau errezibitu:  
gizon on baten sentimentuak  
zeñek bedorrek baditu.  
Mesede asko egin izan dit  
denak esango banitu;  
bañan memori sinple askotan  
ezin litezke kabit.

- Eskerrik asko esaten dizut  
aitormen ori dalako;  
orregatikan gure etxian  
ezer etzaizu faltako;  
edari onak izango dira,  
aukera, berriz, jateko;  
zure aitzekin biyok ederki  
tripak ditugu beteko."

Lekuona jaunak ez du esaten bertsoak eta aurreko argibideak noren aotik jaso zituan. Baiña, leen esan degunez, Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jauna izango zan emalea. Loinaz Otaño jaunak, bere etxean entzundakoaz gaiñera, Zizurkillen eta erri onen inguruan bertso eta berri asko jaso zituan Otañotarrei buruz gerra aurreko urteetan, bera Asteasun apaiz zegoala. Ori gogoan degula, indar geiago artzen dute Lekuonak esaten dituanak.

Ain zuzen, Loinaz Otañoaren pape-retan ere azaldu dira lau bertso auek, eta Lekuonak bezelaxe dauzka, iru le-

rru auetan izan ezik: 1/5: bedorrek ondo asko badaki; 2/7: sinistamena eman dizudan; 4/3: orregatikan nere etxian.

\* \* \*

Jose Ariztimnuño *Aitzol* apaiz jaunak zanak idazlan bat argitaratu zuan Bilboko *Euzkadi* egunkarian, 1935-eko ilbeltzaren 19-an, Otañotarrei buruz, izenburu onekin: *Una dinastía de bertsolaris*. Idazlan ortan lau bertso auetatik leenengoa eta bigarrena osorik eskeintzen ditu, eta laugarrenaren bigarren erdia. Baiña bertso oiek



Errekalde baserriko becko ataria. Ateondo ortan kantatu zituzten osaba-illobak beren bertso famatuak, batek kanpotik eta besteak barrutik.

Loinaz Otañoren paperetan azaldu diran bezelaxe daude.

Onek zera esan nai du, gure iritzirako: Lekuonak eta *Aitzol*-ek iturri bera izan zutela: beren adiskide miña zan Loinaz Otaño apaiz jauna.

\* \* \*

I. Unzurrunzagak ere, bere *Pedro Mari Otaño*'ren bertsoak liburuan (Itxaropena, Zarautz, 1959) lau bertso auk eskeintzen ditu.

Aldaketak: 1/5: berorrek ondo asko badaki; 2/7: sinistamena eman dizudan; 2/8: biyotzen bai dizudala; 4/3: orregatikan nere etxian.

\* \* \*

Jose Aierbek ere argitara eman ziotuan lau bertso auk, bere *Pedro Mari Otaño (IV)* idazlanean, *El Diario Vasco* egunkarian, 1987-VI-24-an.

Aldaketak, Lekuonaren erarekin konparatuta: 1/1: Osaba baldin ez ba-

dauka gaur; 1/2: zeregin aundiren bat or; 1/5: Berorrek ondo asko badaki; 2/7: sinistapena eman dizudan; 2/8: biotzez, bai, dizudala; 3/3: Nik espero ta uste bezela; 3/4: ziñez berorrek badi; 4/3: orregatikan nere etxian.

Berak bertso auk nundik dituan ez du esaten. Baiña, oiñarriztat beintzat, Lekuonaren era daukala ematen du.

\* \* \*

Manuel Lekuona jaunak, 1935 urtean, beste onela ditu gertaera eta bertso auk:

- "...su tío Joxe Bernardo, que le distinguía especialmente por su comunidad de aficiones bertsolarísticas, le escribió augurándole un buen recibimiento en casa, donde le reservarían el cuarto principal de toda ella.

*Desembarcado, corrió Pello Mari a los suyos, los cuales parece que todavía no le esperaban. Era de noche. La puerta estaba entornada. Había que llamar. Y lo hizo como quien era. Entonando en voz puesta una copla al tío a quien tanto quería.*

*Se conservan todavía dos pares de coplas de tan singular diálogo. Helas aquí:*

- Joxe Bernardo nere osaba  
saludatzen det aurrena,  
orretarako eskatzen diot  
nagusiari baimena.  
Ikusten naute ate-ondoan  
orla gaizki nagoena;  
ate oriek zabal bitzate  
sartu nadien barrena.



- Kantu-lanean ezagutzen det:  
nere illoba zerade;  
urte batzuek joanagatik  
gu ere lenak gerade.  
Atea ideki bakarrikan ez,  
igo zaitea gora're;  
berealaxe jantziko degu  
zu jaio ziñan oia're.

- Okupazio aundien batzuk  
baldin ez badaduzka or,  
berorren galdez gizon bat da ta  
ate-ondoraño betor.  
Berorrek ondo asko badaki  
agintzen dana dala zor;  
bera jaio zan oiaren billa  
illoba oraintxen dator.

- Nere illoba, esaten dizut  
ongi etorri zerala:  
jaiotako oia jantziko dizut  
gusto aundiz bereala,  
izara zuri ederrenakin  
parpallak darizkiola,  
sinistagarri izan dezazun  
biotzez nai zaitudala.

Oar bat egin genezake emen: Pedro  
Marik etzuala *izara* esango, *maindi-  
re* baizik, Zizurkil aldean oi danez.

\* \* \*

Lau bertso auek beste leku askotan ere arkitu ditu-  
gu. Baiña zenbait aldiz oso aldatuta. Aldatu ez-ezik,  
bertso berri batzuk ere bai tarteetan. Or ikusten da jende-  
aren buruan bertsoak nola aldatzen diran.

Zizurkillen jaio eta Adunako Sonolan bizi zan  
Juana Tejeria zanak laugarren bertsoa eman zidan, bai-  
ña oso aldatuta:

Eskerrik asko, nere illoba,  
akuerso ori dalako,

orregatikan nere etxian  
etzazu ezer faltako;  
edari klase guztiak eta  
jatekua abundoso,  
zure aitzekian tripak ederki  
biok ditugu beteko.

\* \* \*

Azpeitiko Loiolan, Egibar baserriko aitonak lau  
bertso auek eman zizkigun 1956-ko udaran, baiña alda-  
keta auekin Lekuonaren 1964 eta 1978-ko erarekin  
konparatuta: 1/2: eginkizun aundin bat or; 1/5: bedorrek  
ongi aski badaki; 2/7: sinistamen au eman deizudan;  
3/6: goguan artu banitu; 3/7: baiña memori simple one-  
tan; eta laugarrena, Juana Tejeriak bezela, irugarren le-  
rroa izan ezik: 4/3: orregatikan gure etxian.

\* \* \*

Tolosako Manuel Urreta zanak eman zidan periodiko-punta batean lau bertso aukeratuak, *Erniope* izenordez firmatzen duan batek bialduta. Zoritzarrez, periodikoaren izenik ez dakigu, eta egunik ere ez, baiña gerra aurreko *Argia* astekaria izan ditek.

Aldaketak, Lekuonaren 1964 eta 1978-ko erarekin konparatuta: 1/2: eginkizun aundin bat or; 1/3: gizon bat bedorren galdez da-ta; 1/4: atal ondoraño betor; 1/5: Bedorrek ongi aski badaki; 2/1: Nere illoba txit maitatua; 2/4: txit poz aundiz beriala; 2/7: sinistamena eman nai dizut; 3/1: Nik uste nuan era ber-beran; 3/4: bedorrek guztik baditu; 3/5: Ontasun asko egin izan dit; 3/7: bañan oroimen aul xamarretan; 4/1: Eskarrik asko, nere illobatxo; 4/3: eta orregatik gurc etxian; 4/4: etzaigu ezer paltako; 4/5: edar (*sic*) mota guztiak eta; 4/6: auke-ran berriz jateko; 4/8: urdallak itugu beteko.

\* \* \*

*Zeruko Argia* astekariak ere argitara eman zituan, 1963-ko apirillaren 21-ean. Onak Lekuonaren 1935-eko argitaraldiari kopiatzen dio noski, beste biak artean azaldu gabe baitzeuden.

\* \* \*

Azkoitiko Antonio Zubizarretak oso aldatuta eman zizkidan:

- Bueltan banator, lenbizi nua osabai parte ematera; berriz juterik ez det espero Kaliforniko partera; aurrera ere bizi biagu len bezelaxe batera; zabaldu iezu, allegatu naiz agindutako atera.

- Gau lenendikan erretirau naiz, ez dakit detan ametsa, ataiko atian iduritzen zait dala illobaren boza. Ori orrela gertatzen bada osabarentzat zer poza! Kunplutuko det joaterakoan agindu nion promesa.

- Ameriketa parte ortara orra nik egin bisita, sei urte ontan etortzerikan sarri egon naiz etsita. Joaterakoan aldegin nizun bi begi malkoz bustita, orain e ura bera egin zait, osaba, zu ikusita.

- Estimaten det, nere illoba, ongi etorri zerala, zu jaio ziñan oi ura bera jantziko det beriala letra bordatu ederrenakin, parpallak darizkiola, sinismen on bat izan dezazun biotzez nai dizudala.

\* \* \*

Azkoitin jaio eta Zarautzen bizi izan zan Patxi Larrañaga zanak bi bertso aukeratuak eman zizkidan:

- Nere osaba biotzekua, ate ondoraño betor, baldin eginkizun apartekorik ez baldin badaduka or. Esaten dute aindutakua eman artian dala zor, bera jaio zan oiaren billa illoba oraintxen dator.

- Nere illoba biotzekua, ongi etorri zerala, zu jaio ziñan oi ura bera jantziko da beriala maindire zuri ederrarekin parpallak daizkiola; erakuspen bat eman nai dizut biotzez nai zaitudala.

\* \* \*

Irurako Inazio Arregiren aotik, berriz, bi bertso eta doifnu aukeratu zituan:

The musical score consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a 3/4 time signature, and a key signature of one flat (B-flat). The melody is written in a simple, folk-like style with a mix of quarter and eighth notes. The subsequent staves continue the melody, with some staves featuring rests or specific rhythmic patterns. The final staff ends with a double bar line.

- Nere osaba, einkizun aundin bat  
baldin ez badaduka or,  
gizon bat dala bedorren galdez  
ate ondoraño betor;  
bedorrek ondo dakiyena da:  
aginduba izaten da zor;  
bera jaio zan oiaren bila  
illoba ementxen dator.

- Nere illoba estimatua,  
ongi etorri zerala,  
zu jaio ziñan oi ura bera  
jantziko deu beriala  
arropa zuri ederrenakin  
parpallak darizkiola;  
sinismen on bat eduki zazu  
biotzez nai dizudala.

\* \* \*

Ernaniko Pablo Zubiarrain "Ernani-txikia" bertsolaria-  
ren aotik, berriz, beste onela:

- Eskerrik asko, nere illoba,  
ongi etorri zerala,  
pozikan jantziko dizut  
oi uraxen beriala  
erropa zuri ederrenakin  
parpallak darizkiyola,  
sinistapena emateatik  
bilyotzez nai dizuala.

- Kantu lanian, nere osaba,  
sartu nai nuke aurrena,  
ondo badaki ate onduan  
planta txarrian gaudena;  
lizentzirkan emango balit  
sartu nai nuke barrena,  
orretarako artu nai nuke  
nagusiaren ordena.

- Kantu lanian ezagun dezu,  
nere illoba zerade,  
gizon formalen arrazoi oiek  
olakoxiak dirade;  
urte batzuek juanagatik  
lengo pertsonak gerade,  
barrena sartu bakarrikan ez,  
iyo ziñezke gora're.

## EZKONTZA

Esan bezela, Pedro María Otaño 1890-ean-edo etorri zan Arjentinatik. Donostian jarri zan bizi izaten, bere aitak eta senideak an baitzuten beren etxea: Amaran, *Escabechería* kalean-edo, bigarren zenbakian.

Zizurkilko buelta ere bereala egingo zuan arek, bera jaio zan oia eskatuz, or goien jarri ditugun bertsoekin.

Leen ere esan degunez, Donostiako Artzai Onaren eliz-artxiboan Pedro Mariren *Expediente Matrimonial* deritzaiona ere gordetzen dute, eta ortik argibide batzuk atera ditezke.

Leenengo, amar illabete zeramazkiala Donostian, Amaran, bigarren zenbakian, leenengo bizitzan, bere aitarekin: "*feligrés de la misma, como domiciliado en su circunscripción, hace diez meses, y habitante en la calle Amara, núm 2º, piso 1º, donde vive con su padre...*".

Bigarren, emezortzi urte bete ezkerroztik Buenos Airesen bizi zala: "*Que desde la edad de 18 años ha residido en Buenos Aires*". Leen esan bezela, ez du ematen ori egia danik. Geroztik Ameriketatik onera etorri zala dudarik ez dago. Baiña urterik geienak an egin zituala esan naiko du.

Onela dio itzez-itx agiri orrek:

*"En la Ciudad de San Sebastián, provincia de Guipúzcoa, a... (emen eguna jarri bearko luke, baiña ez du jartzen) ante mí el infrascrito cura Ecónomo de la Iglesia Parroquial de Nueva Creación de la misma, compareció D. Pedro María Otaño, quien con la presentación de su partida de Bautismo, acreditó ser natural de Cizúrquil, provincia de Guipúzcoa, de 34 años de edad; y habiendo manifestado que deseaba contraer matrimonio con D<sup>º</sup> Magdalena Alberdi, natural de San Sebastián, provincia de Guipúzcoa, residente en fábrica, calle de Gas, núm...(1) piso... de... años de edad, después de haber prometido decir verdad, declaró:*

*1º Que según debía constar y consta efectivamente en el libro de matrícula de esta Parroquia al folio... del corriente año, ... feligrés... de la misma, como domiciliado en su circunscripción, hace diez meses, y habitante en la calle de Amara, núm 2º, piso 1º, donde vive con su padre; que pertenece a la jurisdicción ordinaria, por no gozar de la Castrense ni ninguna otra, como es público y notorio.*

*2º. Que desde la edad de 18 años ha residido en Buenos Aires...."*

Donostiako juezaren agiri bat ere badago *Expediente Matrimonial* ortan, andregaiari buruz:

*"D. Ramón Luis de Camio, Juez municipal de esta Ciudad.*

*Certifico: que entre los documentos archivados en este Juzgado, consta el acta que a la letra dice: En la Ciudad de San Sebastián, a veinte de Mayo de mil ochocientos noventa y uno, ante D. Ramón Luis de Camio, Juez municipal de la misma, y de mí el Secretario, compareció espontáneamente Doña Antonia Descarga, natural de Goizueta (Navarra), de estado viuda, de edad de sesenta y*

dos años, dedicada a las labores de su casa, vecina de esta Capital, y, previa exhibición que hizo de su cédula personal de undécima clase, expedida en ella, el día de la fecha, con el número 13.271, dijo: que su hija legítima Doña Magdalena Alberdi, de edad de veinte y siete años, de estado soltera, que vive en su compañía, habida de su finado esposo Don José Alberdi, trata de contraer matrimonio con Don Pedro María Otaño, también soltero, y siendo de su agrado ese enlace, otorga para él a su referida hija el Consejo que previene el artículo cuarenta y siete del Código civil.

Y a requerimiento de la compareciente, se extiende esta acta que no la firma por asegurar que no sabe escribir, haciéndolo a su ruego y por sí mismos, después del Señor Juez, los testigos sin excepción para serlo, D. Joaquín Alustiza, D. Pedro Irigoyen, ambos de esta Ciudad; y de todo ello certifico: Ramón Luis de Camio. Joaquín Alustiza. Pedro Irigoyen. Pío Guereca.

Es copia conforme con el original, a que me remito; y para que así conste, a petición de la compareciente, expido la presente certificación, en San Sebastián a veinte de Mayo de mil ochocientos noventa y uno. Ramón Luis de Camio. Pío Guereca."

**Orren antzeko papera ere bada senargaiaren alde:**

"Don Ramón Luis de Camio, Juez municipal de esta Ciudad. Certifico que entre los documentos archivados en este Juzgado, consta el acta que a la letra dice: En la Ciudad de San Sebastián a veinte de Mayo de mil ochocientos noventa y uno, ante D. Ramón Luis de Camio, Juez municipal de la misma y de mí el Secretario, compareció expontáneamente Don Juan Pedro Otaño, natural de Cizúrquil (Guipúzcoa), de estado viudo, de edad de sesenta años, de oficio cantero, vecino de esta Capital, y, previa exhibición que hizo de su cédula personal de séptima clase, expedida en ella el día ventidós de Septiembre último, con el número 433, dijo: que su hijo legítimo D. Pedro María Otaño, de edad de treinta y cuatro años, de estado soltero, herrador, habido de su finada esposa D<sup>a</sup> Juana Bautista Barriola, trata de contraer matrimonio con Doña Magdalena Alberdi, también soltera, y siendo de su agrado ese enlace, otorga para él a su referido hijo el consejo que previene el artículo cuarenta y siete del Código civil.

Y a requerimiento del compareciente, se extiende esta acta que la firma después del Señor Juez; y de todo ello certifico. Ramón Luis de Camio. Juan Pedro Otaño. Pío Guereca.

Es copia conforme con el original, a que me remito; y para que así conste, a petición del compareciente, expido la presente justificación, en San Sebastián, a veinte de Mayo de mil ochocientos noventa y uno. Ramón Luis de Camio. Pío Guereca."

**Zizurkilko erretorearen idazki bat ere badago, Pedro Mari ezkondu gabea zala adierazteko:**

"Don Juan Lorenzo de Garmendia, Presbítero, Cura ecónomo de la Iglesia parroquial de San Millán de la villa de Cizúrquil.

Certifico: que Don Pedro María de Otaño y Barriola, natural de esta Villa, hijo legítimo de Don Juan Pedro y de Doña Juana Bautista, se ha mantenido, según informes fidedignos, soltero mientras ha vivido adscripto a esta Parroquia de mi cargo; sin que nada sepa ni haya oído en contrario. Para que conste firmo y sello la presente en Cizúrquil, a diez y ocho de Mayo de mil ochocientos noventa y uno. Juan Lorenzo de Garmendia."

**Donostiako alkatearen idazki bat ere bai, Pedro Mari ondo portatu dala agertuz:**

"Don Gil Larrauri, Alcalde Constitucional de esta Ciudad. Certifico: Que Don Pedro María Otaño, de treinta años de edad y domiciliado en esta Capital, barrio de Amara, número 2, ha observado buena conducta durante su permanencia en la misma.

Y para los efectos consiguientes, firmo el presente en San Sebastián a treinta de Noviembre de mil ochocientos ochenta y siete. Gil Larrauri."

**Idazki onek buruauste pranko jar-tzen digu. Urte ortan, 1887-an alegia, Pedro Mari Donostian al zan? Ez daki-gu aitorten au eta Expediente Matri-**

*monial* ortan esaten diran beste zera batzuk alkarrekin nola uztartu ditezken. Batetik, emezortzi urte zituan ezkeroztik Buenos Airesen bizi zala; bestetik, Amaran amar illabete zera-mazkiala; orain, berriz, Donostiako alkatearen 1887-ko agiri bat, Pedro Mari ondo portatu dala esanez... Baiña onek ez al ditu gure orain arteko esanak kokolan jartzen? Guk, beintzat, ez gera gauza korapillo au askatzeko.

Dana dala, ezkontza ori egiteko eragozpenik etzala, onela adierazten da *Expediente Matrimonial* ortako beste idazki batean:

*"El Doctor D. Ignacio Hernández Rodríguez, presbítero, abogado de los tribunales, canónigo doctoral de la Santa Iglesia Catedral de esta Ciudad, provisor y vicario general de la Diócesis, por el Excmo. e Ilmo. Señor Doctor Don Ramón Fernández de Piérola y López de Luzuriaga, Obispo de ella, caballero Gran Cruz de la Real y distinguida Orden Americana de Isabel la Católica, etc. etc.*

*Por las presentes damos licencia al Cura de la parroquia de nueva Creación de la Ciudad de San Sebastián, o a quien éste delegue, para que precediendo o habiendo precedido en su Iglesia (y demás que fuere preciso) la lectura de las tres moniciones conciliares para el matrimonio que intentan contraer D. Pedro María Otaño y D<sup>a</sup> María Magdalena Alberdi, solteros, feligreses de dicha parroquia de nueva creación de la Ciudad de San Sebastián, y no resultando impedimento alguno canónico ni civil, pueda asistir al matrimonio que tienen tratado, casando y velando en la forma dispuesta por Nuestra Santa Madre la Iglesia a los referidos D. Pedro María Otaño y Barriola, natural de Cizúrquil, y D<sup>a</sup> María Magdalena Alberdi(2) y Descarga, natural de San Sebastián; observando en lo demás las leyes eclesiásticas y civiles del asunto y especialmente las disposiciones del nuevo Código civil en lo relativo al consentimiento o consejo paterno; pues en vista de las partidas bautismales de ambos contrayentes y justificación de soltería y libertad del interesado, que nos han sido presentados, por auto de hoy hemos acordado ex-*

*pedir nuestra licencia y autorización en forma. Dadas en Vitoria a cuatro de Junio de mil ochocientos noventa y uno. Dr. Ignacio Hernández. Por mandado de Su Señoría: Eusebio Yurrita."*

Ala, 1891-ko garagarrillaren 11-n ezkondu ziran, Donostiako Artzai Onaren elizan. Pedro Marik, dakigunez, ogei ta amalau urte zituan. Andregaia, esan bezela, Maria Magdalena Alberdi Deskarga izan zan, donostiarra, ogei ta zazpi urtekoa. Au ere Amaran bizi zana. Auzoak edo urrean bizi ziranak izango ziran, beraz, eta olaxe ezagutuko zuten alkar. Ezkontza-agiriak onela dio:

*"En la Ciudad de San Sebastián, Provincia de Guipúzcoa, Obispado de Vitoria, a once de Junio de mil ochocientos noventa y uno, yo el infrascrito Pbro. Cura Ecónomo de la Iglesia Parroquial de nueva creación de la misma, en virtud de autorización del M. I. Sr. Provisor de la Diócesis, fecha 4 del corriente y previos los demás requisitos en derecho necesarios, casé por palabras de presente y velé según el rito de la Santa Iglesia, de una parte a D. Pedro María Otaño, soltero, de treinta y tres años de edad, natural de Cizúrquil, mi feligrés, e hijo legítimo de D. Juan Pedro Otaño y de D<sup>a</sup> Juana Bautista Barriola, naturales de Cizúrquil, y de la otra a D<sup>a</sup> María Magdalena Alberdi, soltera, natural y feligrés de ésta e hija legítima de D. José Alberdi y de D<sup>a</sup> Teresa Antonia Descarga, naturales de Zarauz y Goizueta. Fueron testigos D. José Diego y D. Cayetano Otegui, vecinos de ésta. Y por ser verdad lo firmo, fecha ut supra. Lcdo. Martín Lorenzo de Urizar."*  
(3)

Sei seme-alaba izan zituzten. Donostian, iru seme eta Arjentinan iru alaba.

Bernardo, 1892-ko garagarrillaren 10-ean jaio zan, *en el Gasómetro*, San Martin kalean. Aita eta ama pontekokak, beraren osaba-izebak izan ziran:

Pedro Mariren anaia, Bernardo, eta onen emaztea, Juana Iparragirre.(4)

Juan Miguel, 1894-eko abuztuaren 22-an jaio zan, San Martin kalean, letra BB. Aita eta ama pontekoak, beraren aitona, Juan Pello, eta izeba Juana Mikaela, Pedro Mariren arreba, izan ziran. (5)

Jose Inazio, 1896-ko martxoaren 21-ean jaio zan, General Jauregui kalean, zortzigarren zenbakian, beeko bizitzan. Aita eta ama pontekoak Jose Maria Arregi, Urnietako Montefrío baserrikoa, eta Klara Inazia Odriozola, Jose Bernardo Otaño bertsolariaren emaztea, izan ziran. (6)

Argibide auek, oarretan adierazten degunez, eliz-artxiboetatik artuak ditugu. Baiña Pedro Mari Otañok berak ere idatzita zeuzkan bere *Oroimenak* izeneko esku-idatzian.

Esku-idatziz ortatik artu ditugu, Arjentinako eliz-artxiboak ezin azterturik, beraren iru alaben jaiotegunak. Baiñan Pedro Mariren itzak dauden-daudenean kopia-tuko ditugu:

*"María Teresa Otaño y Alberdi nació en el pueblo de Pehuajó, provincia de Buenos Aires, el día veinte (20) de Septiembre de 1899, a las siete de la mañana.*

*Fue bautizada en la parroquia del mismo pueblo (a la edad de 5 años).*

*Sus padrinos: Pedro Otaño, su tío, mi hermano, y Pepita Eseberri, cuñada de éste, siendo padrino apalabrado Francisco Mendizábal (ausente).*

*Juana Otaño y Alberdi nació en el pueblo de Pehuajó, provincia de Buenos Aires, el día dieciocho (18) de*

*Marzo de 1903, a las nueve de la noche.*

*Fue bautizada en la parroquia del mismo pueblo, a la edad de 10 meses, siendo cristianadas las dos hermanas en un mismo día por un sacerdote bascongado, natural de Irún.*

*Sus padrinos: Toribio Sáez, español, riojano, comerciante, y Micaela Otaño de Arruti, mi hermana, todos residentes en Pehuajó.*

*Magdalena Otaño y Alberdi nació en el pueblo (ya ciudad) de Pehuajó, provincia de Buenos Aires, el día veintiocho (20) de Enero de 1907, a las nueve de la noche.*

*Fue oportunamente inscripta en el Registro Civil."*

Argibide oiek, esan bezela, Pedro Marik bere eskuz idatzi zituan. Baiña gero, bera il zanean, zerrenda orren atzetik onela idatzi zuan aren bigarren semeak, Jose Inaziok:

*"Pedro María Otaño falleció el día 7 de Mayo de 1910 a las doce y media, en la ciudad del Rosario de Santa Fe".*

Baiña *Registro Civil* esaten zaionean adierazten danez, Pedro Mari 1910-eko maiatzaren 6-an il omen zan.

1. Puntuz idatzitako utsune auek bete gabe daude *Expediente Matrimonial* dalako ortan ere.

2. *Alberdi* abizena falta da emen.

3. Donostiako Artzai Onaren eliz-artxiboan, leengo ezkontza-liburuan, 107 orrian.

4. Donostiako Artzai Onaren eliz-artxiboan, bigarren bataio-liburuan, 292 orrian.

5. Donostiako Artzai Onaren eliz-artxiboan, irugarren bataio-liburuan, 183 zenbakian.

6. Donostiako San Bizenteko 21-garren bataio-liburuan, 80-garren orrian.

## DONOSTIAN

Ezkon-berriak, emaztearen etxean jarri ziran bizitzen: "*Amara, Fábrica de gas*" esaten du Donostiako *Rectificación del empadronamiento - Diciembre 1891* eskuz idatzitako liburuak, aien bizilekua adierazterakoan.

Baiña beste argibide jakingarri batzuk ere ematen dizkigu. Adibidez, Pedro Mariren ogibidea: *dependiente*. Dendaria esan naiko du. Baiña nungo eta zer dendatan ez du esaten.

Andik bost urtera, 1896 urteko abenduan, orduan osatu zan *Padrón Municipal*-ean, Pedro Mari eta bere familia etxex aldatuak ziralaz azaltzen da. Donostiako Parte Zaarrean, *General Jauregui* kalean, 10-garren zenbakian, beeko bizitzan, onako lagun auek bizi dira: Pedro Maria Otaño Barriola eta Magdalena Alberdi Deskarga senar-emazteak; eta iru seme: Bernardo, lau urtekoa, Migel, bi urtekoa, eta Jose, bederatzi illabete-koa.

Pedro Mariren ogibidea adierazteko onela esaten da: *empleado*. Besteren esanera ari zana, beraz.

Entzun degunez, Lizarriturriren fabrikari ere jardun omen zan, *escribiente* bezela. Puntu au egiztatu nairik, gaurko Lizarriturritarrei galdetu diegu, adiskide baten bidez, fabrikako garai artako libururik edo paperik gor-

de ote dan. Baiña olakorik batere ez dagoala erantzun digute.

Tabernaren bat izan omen zuan Pedro Marik Donostian, beraren izenean edo besterenean ez badakigu ere. Zein tokitan jakin nairik, bertako udal-letxeko artxiboan gogotik saiatuak gera paper zaarrak aztertzen. Alperrik, ordea, gure egiñala. Ez gera paper zaarretatik argibide ori somatzeko gauza izan.

Pedro Mariren leengusu zan Antonio Mendizabal Otañok taberna ori Euskal-Erria kalean izan ote zuan esan zigun. Kale au eta *General Jauregui* izenekoa alkarren ondoan daude.

Pentsa dezakegunez, orregatik aldatuko ziran Amaratik Parte Zaarrera: Pedro Marik bere lantokia gertuago izateko.

Baiña ez omen zuan balio taberna tajuz eramateko. Artista geienak bezela, arek ere berea buruan; bertsoak alegia, eta ez negozioia.

Antonio Mendizabal Otaño zan orrek onela esan zigun:

"Berak etxean taberna, baiña kanpora joaten zan lagunartera. Ori gus-tatzen. Andreak, berriz, erritan ematen zion: "Zergatik etzera etxera biltzen?". Eta Pedro Marik onela erantzuten zion: "Emakumeak, bakoitzak zazpi



mingain bearke zenituzteke, batekin naikoa ez dezute eta". Olako ateraldi asko zituan arek."

Denbora berean, Amaran, *Escabechería* kale ortan, bigarren zenbakian, onako lagun aukeratu ziran: Juan Pedro, Pedro Mariren aita; Bernardo Otaño Barriola, anaia; Juana Iparragirre Iturzaeta, koiñata; eta Maria Krutz Otaño Iparragirre, illoba, bi urtekoa.

Izan ere, Bernardo ori, Pedro Mariren anaia alegia, Juana Iparragirre Iturzaetarekin ezkondu zan. Andregai azeptiarra zan, Loiola baillarakoa.

Juana Iparragirre onen gertakizun bat kontatu digu beraren biloba Manuela Otaño Lopez-Alen-ek. Txikitan, Azpeitiko Loiolan, beraren leengusu bat, Maria Josefa Gogorza, baztangaz gaixotu omen zan. Kutsuaren bildurrez, bi aurrak, Juana eta Maria Josefa aukeratu, bata bestearengandik apartatu egiten omen zituzten. Juana, ordea, gauean, ixik-ixilik, leengusuaren oera joaten zan, eta biak alkarrekin lo egin. Baita gaixoak nai ezik utzitakoak besteak jan ere. Urrengo goizean, biak batera arkitutakoan, Juana ori bere gelara eramaten zuten. Baiña urrengo gauean gauza bera. Ala ere, etzan kutsatu, eta gaixoa ere ederki sendatu zan.

Artzai Onaren elizako agiritan arkitu degunez, seme-alaba aukeratu zituzten: Maria Krutz, Eusebia, 1892-IX-22-an San Martin kalean, P letran, jaioa; Jose Antonio, 1894-X-21-ean, San Martin kalean; Inazio, 1896-XII-15-ean, Loiola kalean, 10-garren zenbakian; Juan Pedro, 1901-IX-14-ean, Avenidan, 25 zenbakian.(1)

Amaratik San Martin kalera (*letra P*) aldatu ziran, beraz, leengo. Orregeatik esaten du Juan Pedrok, aitak alegia, aurki aitaturko ditugun bertso batzuetan:

nitzaz galdetuzera  
betoz San Martiña;  
billatzen erreza da  
Juan Pello argiña...

Andik, berriz, Loiola kalera. Emen, 10-garren zenbakian, beeko bizitzan, 1896-ko *Padrón Municipal*-ean esaten danez, lagun aukeratu ziran: Juan Pedro Otaño Lasa, Bernardo Otaño Barriola, Juana Iparragirre Iturzaeta, eta Jose, Maria Krutz, Eusebia eta Antonio Otaño Iturzaeta.

Etxe ortan igaro zuan Pedro Marik bere azken gaua Euskal-Errian, eta andik abiatu zan Pasai aldera, itxasontzia artzera.

Andik bi urtera, 1898-ko abenduko *Padrón Municipal*-ean esaten danez, lagun aukeratu ziran Loiola kaleko etxe ortan: Juan Pedro Otaño Lasa, aitona; Bernardo Otaño Barriola eta Juana Iparragirre Iturzaeta, senar-emazteak; eta Jose, Maria Krutz, Eusebia, Antonio eta Inazio Otaño Iparragirre anai-arrebak. *Padrón Municipal* ontan Pedro Mariren arrastorik ez dago noski, urte bereko ilbeltean Ameriketara joana baitzan. Baiña *General Jauregui* kaleko 10-garrenean, beeko bizitzan, Pedro Mari bizitu zan ortan alegia, beste Otañotar batzuk bizi dira: Frantziska Otaño Igarategi, berrogei ta iru urtekoa, tolosarra, eta Elias Otaño Igarategi, ogei ta

bi urtekoa, tolosarra, igeltseroa. Ez dakigu Pedro Marirekin zer ikusirik bazuten.

Urrengo *Padrón Municipal*-a 1899 urtekoa da. Ontan ageri danez, Pedro Mariren aita-eta etxez berriro aldatu dira, Avenidara oraingoan, 25-garren zenbakira, beeko bizitzara. Onako lagun auek dira: Juan Pedro Otaño Lasa, aitona; Bernardo Otaño Barriola eta Juana Iparragirre Iturzaeta, senar-emazteak; eta Jose, Maria Krutz,

Eusebia, Antonio eta Inazio Otaño Iparragirre, anai-arrebak.

Juanaren ogibidea adieraztearren, onela idatzita dago: *portera*; atezaiña alegia. Beeko bizitzan bizi zirala orre-gatik izango da.

---

1. Artzai Onaren elizako irugarren bataio-liburuan, 13-garren eta 197-garren zenbakietan; laugarren bataio-liburuan, 79-garren orrian; eta bostgarren bataio-liburuan, 25-garren zenbakian.

(1894)  
**EZKONTZA**

- 1/ Irurogei ta bost urte  
dauzkat oraiñdikan,  
bi aldiz izanduba  
nago Amerikan;  
ta naiz ez ekarri len  
andik dirurikan,  
berriz joateko etzait  
falta gogorikan,  
ez bazait egokitzen  
andregai onikan.
  
- 2/ Neroni nola nagon  
urte asko juna,  
eziñ eska nezake  
neretzat laguna,  
gazte jostalariya,  
liraiñ ta leguna;  
nik nai det neska zarra  
edo alarguna,  
nai badu itsusiya,  
bañan diruduna.
  
- 3/ Alargun edo neska  
zarra danak, berriz,  
nigana bildutzia  
obe du eun aldiz;  
libre nago gaztiak  
dituzten pikardiz,  
buruko arrotasun  
eta txorakeriz;  
ez du negarrik egiño  
nere gaiztokeriz.

- 4/ Ez naiz txantxetan ari  
baizik oso benaz,  
ni errukitutzen naiz(1)  
bakarrik daudenaz,  
naiko diruba izan  
ta txokuan penaz;  
nerekiñ balebilke  
kanpora irtenaz,  
guk zenbat gastatuko  
genduke geienaz?
- 5/ Iñork artuko balu  
ontzat nere griña,  
nitzaz galdetuzera  
betoz San Martiña;  
billatzen erreza da  
Juan Pello argiña,  
bañan izango danak  
nere erregiña,  
ekar dezala gero  
biyontzako diña.

Bost bertso auek Donostiako *El Thun Thun* aldizkariak argitaratu zituan, bere 20 zenbakian, 1894-eko abuztuaren 5-ean.


Leen esan bezela, aldizkari onek *Poetas vascongados* izeneko sail bat zeukan, bi orrialde artzen zituana. Batean euskal olerkari baten marrazkia edo *caricatura* izaten zuan; eta bestean, olerkari orren zenbait bertso.

Ona emen era ortan azaldu ziran olerkari batzuen izenak: Klaudio Otaegi, Rosario Artola, Karmelo Etxegarai, Ramon Artola, Juan Inazio Uranga, Pepe Artola, Felipe Casal Otegi, Juan Pedro Otaño, Kaietano

Sanchez Irure, Jose Bernardo Otaño, Juan Jose Alkain “Udarregi”, Antonio Arzak...

Oraingo aldi ontan, Juan Pedro Otañoren txanda izan zan. Dakigunez, Jose Bernardoren anaia eta Pedro Mariren aita zan. Esan bezela, orrialde batean, beraren *caricatura*, emen ere azaltzea nai izan deguna; eta bestean, bost bertso auek.

Aotik aora ez dakigu nolakoa izango zan Juan Pello au. Baiña bertso-jartzaille bikaiña eta umore oneko gizona zala erakusten digute bost bertso auek. Paperetan bertsorik geiago jarri zuan ezin esan. Guk beintzat olakorik ez degu arkitu.



*Juan Pedro Otaño*

Juan Pedro Otaño (1829-1901), Pedro Mariren aita, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894-VIII-5).

Dana dala, Otañotar auek danak bertsolari-kutsua berekin zutela ematen du. Pedro Mariren anai Bernardoren bertso batzuk urrengo atalean arkituko ditu irakurleak.

Leenengo bertsoan bere adiña esaten digu Juan Pellok: irurogei ta bost urte. Leen esan degunez, 1829-an jaioa zan.

Ezkongai omen dago, eta proportzio onen bat nai luke.

Ezkongai edo, obeto esateko, alargun, emaztea aspaldi samar illa zuan-eta, 1879-ko abenduaren 19-an.

Leendabiziko bertso orrek beste argibide jakingarri bat ere ematen digu: Juan Pello au Ameriketan bi aldiz izana zala.

Bostgarren bertsoak nun bizi zan esaten digu: “nitzaz galdetutzera betoz San Martiña”. Etxez sarritan aldatu ziran Otañotarrak, Donostira etorri ezkeroztik; eta aldi artan San Martin kalean bizi ziran.

Bertso orrek berak, bostgarrenak, Juan Pello onen ogibidea esaten digu: argiña.


---

1. *El Thun Thun* aldizkarian: *errikitutzen*.

(1894)

## ERNANIN PASIA

- 1/ Ernaniko bi anai,  
Ekaiko-tarrak,  
buruz koxkorak ziran,  
pausajez azkarrak;  
esaten zutenian  
jenioz kaskarrak;  
etxe bat utzi ziyen  
tokamentu zarrak,  
etzituzten atera  
buruzpide txarrak.
- 2/ Etxia tokatu ta  
gero ondorian  
biyak arkitzen ziran  
asmoa berian,  
erdibanatutzeko  
jarririk idian:  
anai zarrena goien,  
gaztiena bian,  
azkenian orrela  
konformatu zian.
- 3/ Anai zarrak au diyo  
bere pantasiyan:  
“Ni goien bizitzen nauk,  
i nere azpiyan;  
zurruta eztabilkik,  
mutill, eskasiyan,  
mozkorrik etzaik pasa  
joan dan aspaldiyan,  
arrastaka or abill  
itxura gaizkiyan”.



*Bernardo Otaño.*

Bernardo Otaño Barriola (1864-1925), Pedro Mariren anaia, Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894-VIII-19).



4/ “Ni mozkorra naizela  
baldiñ badeizkiyok,  
nai nitek len bezela  
gelditzia biyok;  
nere partian ez dik  
agiñdutzen iñork;  
su ematera niak  
jakiñ dezan geiok,  
ere alderdiyari  
kontu egiñ akiyok”

5/ Su eman ziyon eta  
an ziran artiak,  
indarra artu zuben  
garrak eta kiak;  
berela erre ziran  
leio ta atiak,  
eta jo zuten alkar  
goiak eta biak;  
tamañ orretan egiñ(1)  
zituzten pakiak.

Bost bertso auek ere Donostiako *El Thun Thun* aldizkarian agertu ziran, beraren 22 zenbakian, 1894-eko abuztuaren 19-an, orri batean egillearen marrazkia eta bestean bertsoak, *Bernardo Otaño* firmarekin.

Bernardo Otaño au ez da Pedro Mariren osaba Jose Bernardo, beraren anaia baizik, *Jose Bernardo* zeritzana,

baiña osabarekin ez naasteagatik *Bernardo* esaten ziotena.

Lagunartean-eta bertsotan egiten zuala entzunda geunden; aldizkari onek, berriz, *Poetas Vascongados* bere saillean sartzen du, eta beraren bertso batzuk eskeintzen dizkigu. Zoritxarrez, aren beste bertsorik ez degu iñun arkitu.

## AOTIK AORA

Pedro Mari Otaño eztarri txarrekoa omen zan, leen ere esan degunez. Orregatik, *Katarro* edo *Kattarro* esaten omen zioten gaitz-izenez. Orrek galerazi zion plazetan kantatzea.

Akats ori, ala ere, gure mesedetarako izan zan bearbada. Eztarri indartsu eta onekoa izan balitz, erriz-erri ibiliko zan kantu-lanean. Orduko bertsoak, naiz eta onenetakoak izan, aizeak eramango zituan, eta guretzako probetxurik ez. Baiña kanturako bideak itxita zeuzkan ezker, idazteari ekin zion, eta orduko eta geroko euskaldunentzat altxor bat utzi.

Orra nola dion Basarrik ere bere *Nere bordatxotik* saillean, *El Diario Vasco* egunkarian, 1985-ko maiatzaren 3-an:

“Eztarriak etzion laguntzen plazako bertsogintzan. *Katarro* izengoitia ezarri zioten. Eztulka lertu bearrean ibiltzen omen zan kantatzen asi orduko. *Katarro* zar, kronikoa nunbait berea. Sendabiderik etzuna. Au dala-ta, bertsoak paperean idazteari eman zion, kantatzerik etzeukan ezker. Eta bai mardul eta sakon askoak idatzi ere! Euskerak bizirik dun arte gogoratuko diran bertsoak.”

I. Unzurrunzagak, berriz, berak prestatutako *Pedro Mari Otaño'ren*

*bertsoak* liburuan (Itzaropena, Zaurautz, 1959), onela esaten du:

“Enekin nik, lengo batean nere aitona esan arte. P. M. Otañori “*Katarro*” deitzen ziotenik. Ba al dakizu zergatik?... Eztulak ito bearrean eltzen omen zion edozer gauza kantatzen asi ala...”

Auxe, nere iritziz, Pello Mari'ren bestek ez duten doai berezia: “*Katarro*”. Bertsoak idatzi bearrak, bestela baiño apaiño orraztera bearitzen zion.”

Eztarri txar orren erruz, aren aotik aorako bertso gutxi iritxi zaigu. Banaka batzuk bai, ala ere. Plazan jende aurrean ez kantatuagatik, lagunartean-eta bertsoan egiten baitzuan.

Atal ontan Pedro Mariren olako bertso batzuk eskeiñiko ditugu, aotik aorakoak alegia, bildu aal izan ditugunak.

\* \* \*

Otañoren *Zerbait* izeneko liburuan (Donostiya, 1895), atal bat badago aotik aorako bertsoentzat. Aurretik onako oar au du:

“Abotik abora, leku ta aldi banatuetan botatako batzuek, aditzalliak ikasiyak.”

Bertso auek berak, argibide berarekin, *Zerbait* izeneko liburuan ere argitaratu zituan Otañok, 1895 urtean.

Bertso oietatik batzuk erriaren aotik ere jaso ditugu, aldaketa askorekin noski. Orregatik, bertso guztiak segidan idatzi bearrean, banaka jarriko ditugu, leenengo Otañoren esku-idatzia-rena eta urrena erriarena.

\* \* \*

*Trekurenian:*

Fermiñak ura bota  
dit deskuidatuta,  
eta utzi nau indar  
geienak kenduta;  
bañan nik esperantza  
ez daukat galduta,  
oztu dubenak aisa  
berotuko du ta.

Norbaiten aotik -ez nion izenik apuntatu- argibide auek jaso nituan bertso oni buruz.

Donostiako San Jeronimo kaleko taberna batean gertatu omen zan pasadizo au. Bertako neskamea suilla urarekin omen zetorren, eta Pedro Marik, artean gaztea, zirri bat egin, eta neska-meak orduan suilla aren gaññera.(1)

\* \* \*

*Bartolo-enian:*

Jaun abek beti jantzi oi dute  
zeru-koloreko kapa,

esku bat jarri petxuban eta  
bestiarekiñ arrapa;  
munduko gauzai itsasten zaizka  
nola arrokari lapa...  
Oiek dirade diszipuluak  
ta maisuba *Carlos Chapa* .(2)

Bertso ontan apaizengatik ari da noski Pedro Mari. *Carlos Chapa*, berri-  
z, Karlos zazpigarrenari esaten zio-  
ten isekaz liberalak.

\* \* \*

*Treku-enian:*

Iñulabarrerako  
asten gera iñoiz,  
esanaz etxera joan  
biar degula goiz;  
bañan eziñ giyatu  
gerade arrazoiz,  
muatuko al gera...  
bañan ez dakit noiz.

\* \* \*

*Patraman-en etxe aurrian:*

Beraz, etxe onetan  
bizi da Patraman?  
Laxter aberasteko  
zer martxa daraman!  
Nik zerbait utzitzeko  
asmoa neraman,  
ortxen konpon dedilla  
nai ez badu eman.

Bertso onen gertaera onela eman  
zidan izena artu ez nion batek:

Erreran, Patraman-enean taberna zegoan. Bein batez, Donostitik Iruna edo Irundik Donostira kotxean zetorren gure Pedro Maria. An ezaguna izan eta gelditu. Deitu eta iriki nai ez. Orduan bertsoa kantatu zuan.(3)

Lasarteko Sasueta-aundi baserriko Mikel Zuaznabar zanak ere eman zidan bertso au, baiña Txirritarena zala-koan.

Gertaera onela kontatzen zuan:

“Txirritak, *Patraman* tabernariari, atek irikitzen etzizkiolako, gauean joanda, bertso au bota.”(4)

\* \* \*

*Café Norte*-n:

Serenuen kabua  
asi zaigu gogor,  
gu etxera bialdu  
nayian derrigor;  
onen esanagatik  
ez da joango iñor,  
ez kasorikan egiñ,  
konpon dedilla or.

Bertso au bera beste onela eman zidan, Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok:

Serenuen kabua  
asi zaigu gogor,  
etxera bialdu biar  
gaitula derrigor;  
orren esanagatik  
ez da juango iñor,  
ez kasorikan egin,  
konpon dedilla or.

Bertso onen gertaera, Usurbillen jaio eta Donostian bizi dan Jose Zumetak eskutitzez bialdu zidan, 1967-X-5-ean, bere aitari -Bautista zuan onek izena- ikasi zion bezela. Onela zion:

“...en la versión de mi padre el escenario... lo sitúa en San Sebastián, dentro del bar que está justamente frente a la estación de los FFCC. Vascongados en Amara, y que entonces se llamaba Motxa-enea. Así lo oigo nombrar aún hoy a muchos amaratarra, aunque ahora se llama "Euskalduna." (5)

Letraz oso aldatuta jaso nuan bertso au Azpeitiko Loiolan, Errementeri etxeko Iñaki Zubizarretaren aotik.

Bertsolaria Txirrita zala esaten zuan gaiñera, eta gertaera onela kontatu zidan:

“Txirrita sagardotegian berandu; serenoa etorri kanpora bialtzeko, eta orduan norbaitek puntua Txirritari:

- Kabo serenerua  
emen dator gogor...

Eta Txirritak:

Esanaz aterako  
gaitula derrior.  
Gu jotzeko al dakarzki  
orrenbeste zigor?  
Ez iñork kasoik egin,  
konpon daiela or.”

\* \* \*

*Rosario de Santa Fe*-n:

Sasi tarteko lore eder bat  
bezela dago euskera,  
eztakit nola konformatutzen  
geran txokuan uztera;  
esku on batek beñ aterako  
baluke erakustera,  
ez det bildurrik larperatuko  
litzakianik ostera.




ni - kan os - te - ra.

\* \* \*

*Billabonan:*

Etorritzen danian  
Agustin Beloki,  
leiora tirako du  
zerbait poliki;  
onek deituko dizu  
biziro egoki,  
zuk belarriyak erne  
orduban iduki;  
azkar oitik jaiki  
ta jantzi ederki,  
beera jatxi aurki  
t'atia iriki;  
ortik aurrerakua  
berak badaki.


Bertso au onela kantatu digute  
Zizurkilko Adunibar errotako Serapio  
eta Inazio Mendizabal anaiak:



Sa - si tar -



te - ko lo - re e - der bat be - za - la



da - go eus - ke - ra, ez da - kit




no - la oi - tu - ra - tu zan be - re txo -



ku - an uz - te - ra, es - ku on



ba - tek beñ a - te - ra - ko ba - lu - ke



e - ra - kus - te - ra, ez det bil -



du - rrik lur - pe - ra - tu - ko li - tza - ke -

Bertso au ere Pedro Mari Otañoren  
*Oroimenak* izeneko esku idatzitik ar-  
tua degu.

Agustin Beloki ortaz onela esan di-  
gu Zizurkilko Teodoro Mujika adiski-  
deak:

“Agustin Beloki, Romana Lertxun-  
diren senarra.

Gizon au Billabonako arakiña izan  
zan, bere tokia illoba Baldomero  
Lertxundik artu zuen arte.

Oso oker ez bagaude, Zizurkilko  
Mutio baserrikoa omen zan, eta etxea-  
ren nagusia ere bai, Otañotarren kasta-  
ko Emiliano Bengoetxearengandik ne-  
re anai Migelek ikasi zuenez; eta  
Pedro Mari Otañoren adin berdintsu-  
koa. Beraz, oso alkar ezagunak.

Mutio baserrian maiztar Baldome-  
roren aita zala, aren arrebarekin asi  
omen zan ezkontzeko. Au Romana  
Lertxundi zan, Baldome-roren izeba,  
ain zuzen.

Egun batez, neska-mutil oiek pase-  
atzen zebiltzala, Pedro Mari Otaño-  
kin topo egin omen zuten. Au  
Amerikatik etorri berria omen zan.

Alkarri agur bero bat egin ondoren,  
Pedro Marik galdetu omen zion  
Agustin Belokiri:

- Andregai al dek au?

Agustiñek:

- Bai.

Pedro Marik:

- Zorionak!

Agustiñek:

- Botaioak bertso bat!

Eta Pedro Marik:

Etortzen zaizunian...

Agustin Beloki...(6)

Agustin Beloki, gaur Billabonan bi-  
zi diran adiñik aundienekoak digute-  
nez, beti bertako arakin bezela ezagutu  
zuten, aragia saltzeko bi toki zituela-  
rik.

Ez digute ziur nun jaioa zan berri-  
rik ematen.

Auxe esan digu beti erreboteko pe-  
lotaren alorrean ibili dan larogei urte  
ta geiagoko gizon batek:

- Erreboteko pelotan iñoiz ezagutu  
dan sakalaririk onena zan, eta anai bat  
ere bazuen, Amerikan urte asko pelot-  
an ibilia."

Bertsoa oso berdintsu eman zigun  
Teororo Mujikak. Orregatik, ez degu  
emen berriro jartzen. Aldaketak oarre-  
tan ikus ditzazke irakurleak.

Zizurkilko bigarren ezkontza libu-  
ruan, 129 orrian, ikusi degunez, 1894  
urteko ilbeltzaren 16-an neska-mutil  
auk ezkondu ziran: Juan Agustin  
Beloki Olaondo, ezkongaiia, Amasa-  
-Billabonakoa, ogei ta amalau urtekoa,  
arakiña; eta Romana Balentina  
Lertxundi Etxenagusia, ezkongaiia, zi-  
zurkildarra, ogei urtekoa.

Urte ortan Pedro Mari Otaño  
Euskalerrian zan, 1890-an-edo etorri  
eta 1898-an ostera joan zan arte.

\* \* \*

*Jose Leon-i biraldutakuetatik bat  
(andik):*

Kafia artzen diat  
egunian bi aldiz,  
eta nai detanian  
pasiatu zaldiz;  
obeto izatia  
zalla uke agitz,  
baldiñ bizimodu au  
Donostiyan balitz.

\* \* \*

Azken bertso au ez da Pedro  
Marirena, berari kantatua baizik.  
Zizurkilko Teodoro Mujikak paper ba-  
tean idatzita bialdu zigun, Jose  
Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta  
Otaño-ren aotik jasota:

"Pedro Maria Otaño, Aiako errira  
joan zan batean, enteratu omen zan

bertako bertsolari batek neska gazte bat estaduan utzi zuela, eta bertsoaren batean bota omen zion zerbait. Besteak bai zuzen erantzun ere. Oso ontzat artu omen zion Pedro Mari Otañok:

Pedro Mari jantzi da  
informaziyuaz,  
eta tentatutzen nau  
nere aziyuaz.  
Aurrak ez du kulparik  
mundura jayuaz,  
eta kunplitu nuan  
obligaziyuaz."

1. Emale onek bertso aldaketa auekin esaten zuan bertsoa: 1/2: nik toriatuta; 1/4: guziak kenduta; 1/7: oz-tu duenak berak.

2. Bertso au Lasarteko Sasoeta baserriko Mikel Zuaznabar zanari ere jaso nion. Baiñan bostgarren eta seigarren lerroez etzan oroitzen; eta beste aldaketa auek sartu zituan: 1/1: Jaun aundi oiek oi dute; 1/3: esku batekin bendiziyuaz; 1/8: maixua zuen *Carlos Chapa*.

3. Bertsoa oso berdintsu jaso nion emale oni. Aldaketa auek bakarrik: 1/3: azkar aberasteko; 1/7: or konpondu dedilla; 1/8: ez badu nai eman.

4. Bertsoaren aldaketak: 1/5: nik e zerbait uzteko; 1/6: idea neraman; 1/7: or konpondu dedilla.

\* \* \*

*Patraman* ori nor izan ote zan ez dakigu. Tabernaria zala jaso genion emale bati. Guk, berriz, *Patraman* izeneko tratolari bati jarritako bertso auek arkitu ditugu *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1900-V-6-ko zenbakian:

1/ Jose beltzaren ajudantia  
Patraman tratolariya,  
sasoikua ta odolki jaten  
mortal ikaragarriya;  
lenguak basta ez ditubela  
au du enplio berriya:  
lengo batian ferira juanda  
or ekarri du zerriya.

2/ Zerrama zar bat ark ekarri du  
trallan artuta etxera,  
flako samarra zegualako  
piska bat gizendutzera;  
batzuben ala esanagatik  
oso tontua etzera,  
ai zer odolki jatia gero  
baliatutzen bazera!

3/ Onen tamaña zenbatxu oi dan  
jendia frankok badaki,  
ez dakiyenak urrengorako  
beintzat goguan eduki;  
eltze batian egosi eta  
jartzen bazaizka egoki,  
enpatxu gabe tragatzen ditu  
ogei ta bost bat odolki.

4/ Zerri tratuban ari dalako  
ez dago beintzat penetan,  
berak esana: "Kasta ona dek,  
sinista nazak benetan;  
baldin gizentzen segitzen badu  
oraingo martxa onetan,  
ogei ta amar jango dizkiyat  
datorren San Juanetan".

5/ Ontaz gañera egin nai degu  
orain apustu berriya,  
lenguak ezer ez diradela  
au da ikaragarriya;  
aditu nion ezkerero beti  
arritzen nago jarriya,  
illabatian jan nai du orain  
ekarritako zerriya.

6/ Amar arrua izango dala  
askori diet aditu,  
eta Patraman ura jatera  
bakarrik zaigu abitu;  
onen barrenak oiek guziyak  
al balitzake kabitu,  
ai zer buskantza asiko zaion  
dijiritutzen baditu.

*Chacon*

5. Bertsoaren aldaketak: 1/2: sartu zaigu gogor; 1/3: gu kanpora bialdu; 1/5: orrek esanagatik.

6. Agustín Belokiren bertsoaren aldaketak, Teodoro Mujikak emandako eran: 1: Etortzen zaizunian; 3: leiora tirako'izu; 7: zuk ere belarriyak; 8: ernari eduki; 12: atia iriki.

Bertso au beste oneta jaso nuan Altzako  
Gazteluenen, Txirritaren illoba zan Jose Ramon  
Erauskin Lujanbioren aotik:

Etortzen zaizunean  
Agustin Beloki,  
leiora botako din  
zerbait poliki.

Izketan asiko zain  
biziro egoki,  
orduak belarriyak  
txit erne eduki;  
oietikan jeki,  
apaindu ederki,  
bera jetxi aurki,  
atia iriki,  
andik aurrerakua  
berak badaki.



## AOTIK AORAKO BESTE ZENBAIT BERTSO

*Euskal-Esnalea* aldizkarian, 1931 urtean, idazlan jakingarri bat argitaratu zuan itz lauaz Tolosako Emeterio Arrese olerkariak, izenburu onekin: *Olerki-loretegian, Pello-Mari Otaño*. Ez daukagu onera oso-osorik aldatzerik. Alde batetik, luze samarra baita; eta, bestetik, gauzak errepikatu egingo genituan. Baiña ona orain emen zati bat:

“Andoingo sagardotegi batean. Otaño... Abizen maite, abizen ospetsu au orain nere oroimen-ardatz. Lenengoz itz-egin nion aldiko zori alaia etzait egundaño aztuko. Andoingo sagardotegi batean alkar ezautu genduen. Sagardoaren gozoa atsegingarri zan; baña egun artan Pello-Marik abestutako *sainetia* askoz areago.

Bertso-jolasari ustez bukaera eman zitzaionean, arratsaldekoa egin bear zala-ta, bertsolariek, beren lagun batzuk eta ni jaki-usai gozoa zerion erretillo baten inguru exeri giñan. Eta... edeski au entzun: ijito antzeko tximaluze bat artz aundi gorrixta batekin eldu zan gugana. Bere jabeak artzari erdi oiuka bezela “*Karolina!*” deadar egiñaz, iru-lau jira bi oñean makillari eutsita eragin zizkan. Gero, banan-bana guzoi panderua luzaturik txanpon batzuk bildu zitunean, etzegoan aserre tximaluzea. Ondoren, Pello-Marik ar-

kume-ixtar bat eskeñiaz maira deitu zion. Bi bider esan bearrik ez; arkume-ixtarra ta beste puska batzuek ere bai azkar iruntsi! Bitartean, *Karolina*, oiñ, abo ta begi, lurreko ondarki guzien garbitzalle. Berau ain gose zebillela ikusirik, Pello-Mariren esangia: “Artzaren jabea erruki det; abere gose ti onek egunen batean bere burua jango du ta bide-lagunik ez arek orduan”.

Ontan, artzari sagardua edarazteko burutaldia zeñek izan zuan ez dakit. Artzak baita edan ere, lenbizi azpillari miazka, ta gero zanga-zanga, erabat ontziya ustu arte.

Bidazti arrotz aiek oso alaitu ziran; ordubete buru lau txopin sagardo edan baizituen. Ta ainbeste edan ezkeru, jakia: sabela bero ta biotza pil-pil.

Gai ona orixe neurtizlarientzat. Itxogin bearrik ez gendun izan.

Bigarren aldi onek lengoaren pozor-gain pozaren ginga... Laister baie-tsiko dizuet.

Otañok artzari berebiziko bertsua bota zion, eta bertso ain jostario ta bikaña entzunik txalo jotze ta par egiteari eman genion batez; artza bi oñean zut-zutik ipiñi zan, atsegin-orroka edo zerbait ala beintzat jardun ere bai, t'azkenean, algaraz bezela kili-koloka bere gilbor aundiya erabiliaz, gure

*Karolina*-k... asko edan zuan eta...  
ezin-beste dan ori... lasai egin.

Artzari sagardoak bakarrik gernu  
erazi ez ote zion edo alako gai parra-  
garriaz, Otañoren ateraldi susperrik  
txalotu gendun biziki."

\* \* \*

Bertso au Emeterio Arresek es-  
keintzen digu, or goien aitaturako  
*Olerki loretegian, Pello-Mari Otaño*  
idazlanean (*Euskal-Esnalea*, 1931).  
Onela dio:

"Euskera errex, gogai mamitsu ta  
irudi biziaz Pello-Mariren bertsoak zi-  
ñez aberats, oparo beti.

Orretaz ageri bat: jai-artsalde bate-  
an Jose Treku, Pio Bizkarrondo ta be-  
ren lagun batzuek Ernaniara joan ziran.

Aldi atsegiñez an egurastu ondoren  
itzul bidiari ekiñik, oñez, Donostira jo  
ta *Kalenea* deritzon sagardotegira eldu  
ziranean, ustegabezko poza! Otaño  
an...

Trekuk bereala:

- Aizazu, Pello-Mari: ona emen  
Bilintxen semea. Zerbait esan nai ba-  
diozu, orain abegune.

- Benetan ari al zera?

- Bai; bene-benetan ari naiz.

Pello-Mari orduan, Trekuren sor-  
baldagain eskua ezarri ta Piori begira,  
onela jardun zan:

Zu Bilintxen semea  
zera nereko,  
onek ezpalira esan  
ez nun igarriko.

Arren aurrean guzik  
beti belauniko,  
emendik joan zan baña  
sekulan ez da ilko".

\* \* \*

Bilintxen semeari kantaturako ber-  
tso au, Jose Antonio Loinaz-Otaño  
apaiz jauna zanak ere eman zidan, bes-  
te onela ordea:

Zu Bilintxen semea  
zera nereko,  
ez bazidaten esan  
ez nun igerriko;  
gu aren aurrean gaude  
beti belauniko,  
ura emendik juañ zan bañan  
ez da beñere ilko.

Bertso au badakar I. Unzurrunza-  
gak ere, berak prestatutako *Pedro*  
*Mari Otaño'ren bertsoak* liburua-  
ren itzaurrean (Kuliska Sorta 31-32,  
Itxaropena, Zarautz, 1959). Loinaz  
Otaño jaunak neri eman zidan bezela  
eduki ere. Biak ere iturri bera izan  
genduala esan naiko du.

\* \* \*

Otañoren beste bertso au ere  
Emeterio Arreseri zor diogu. Leen ai-  
taturako *Olerki-loretegian, Pello-*  
*Mari Otaño* idazlanean (*Euskal-*  
*Esnalea*, 1931), onela dio:

"Beste bein, amaikide (*consonante*)  
zalleko bertsoari asiera geok eman ez-  
kero larri xamar ibilliko zanaren ustez,

neurtitz eresgogor, bihurri au otu ziztaizgun:

Nere etxeak baditu  
makiña bat krixket...

Buruari azka alditxo batean egon zan; ixildu ez orratio:

Zure etxeak ditula  
makiña bat krixket?  
Lapur bildurrez nunbait  
oinbeste karrasket.  
Nik etxalari txuri bat  
biotzean dagert,  
t'ate zabal-zabalik  
ortxe bizi nai det.

Aren erraztasunak etenik ez beñere."

\* \* \*

Bertso au Ernaniko Pablo Zubiarra *Ernani-Txikia* bertsolariari zor diogu. Onela esan zigun:

"Gure aiton difuntua eta Txirrita-eta, bildu kuadrillan Ernaniko Karabelen. Pedro Maria Otaño ere ara etorri. Onek azkeneko bertsoa, etxera joateko despedira, onela kantatu omen zuan:

Herrerako onduan  
antxen dago Pasai,  
aurrak eta emaztia  
antxen daduzkat zai,  
beste egun batian  
kantako deu lasai.

Puntu bat falta du orrek, baiña etzait orain gogoratzen".

\* \* \*

Urrengo bertso au Otañotarren famili artekoren bati jaso niola badakit. Baiña aren izenik apuntatu gabe utzi nuan. Onela esan zidan:

"Pedro Mari Andoaingo *Bastero* tabernan zegoan eta kantari ari zan. Entzule batek iseka edo parrari eman zion, aren eztarri txarrarekin. Eta orduan Otañok berari:

Iduki izan bazendu  
nere katarrua,  
etzenduen egingo  
olako marrua;  
jakinduri gutxi ta  
au gizon arrua,  
ontzia izan baziñan  
ai zer kankarrua!"

Leen ere esan degunez, Pedro Mari oso eztarri txarrekoa omen zan. Ori zala-ta izengoitia ere jarri zioten: *Kattarro*. Akats orrengatik, garai artan abotsa altxatzeko tresnarik ez baitzegoan, plazetan ezin kantatu.

\* \* \*

Urnietako Lizardi etxean, berriz, gertaera onela kontatu zidaten:

"Andoaingo Kale-txikiko Bixente *Sillero*-ri bota zion bertso au Pedro Mari Otañok. *Sillero* ori, sillak egiten edo aritzen zana zan. Lau arruako pi-

xua argollatik artu eta nota eskribitzen zuan. Beste batean, artz batekin etorri batzuk, eta artzari eldu eta bota egin omen zuan. Gizon aundia etzan, baiña indartsua bai. Eta ari kantatu Otañok:

Eduki izan bazendu  
nere katarrua,  
etzenduke egingo  
alako orrua.  
Abildade gutxiko  
kantari arrua,  
ontzia baziñake  
ai zer kankarrua!"

I. Unzurrunzagak ére eskeintzen du bertso au, berak prestatutako *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburuaren itzaurrean (Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959):

Ik baldin ba aukake  
nere katarrua,  
ez uke, ez, aterako  
olako orrua.  
Naiko kantatu dek  
ua, ortik, ua,  
txarrua baitzake  
a ze kankarrua!

## DONOSTIAKO BERTSO-EMAITZA

Zortzi urte pasa zituan Pedro Marik Euskal-Errian, Arjentinatik bigarren aldiz etorri zanetik ara irugarren aldiz joan zan artean.

Bizimodua atera bearrez saiatu bazan ere, etzuan suerterik izan, eta ostera ere erbesterako bideak artu bear izan zituan. Baiña ori alde batera utzita, bertso-kontuan, bere-berea zuan lanean alegia, urte dizdiratsuak izan zituan aiek. Itz gutxitan bada ere, zerbait esan dezagun gai ontaz.

Ameriketatik etorri eta berealaxe, 1891-n, *Amets bat* izeneko bertso-sail luzea argitaratu zuan Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, bere burua orduko euskaltzaleen artean ezagutu araziz.

Donostian, izan ere, euskaltzale mordo bat bizi zan garai artan: Martzelino Soroa, Biktoriano Iraola, Frantzisko Lopez-Alen, Artolatarrak -Ramon, Pepe eta Rosario-, Antonio Arzak, Jose Zapirain, Felipe Kasal Otegi, Alejandro Berroa, Kaietano Sanchez Iurre, Juan Inazio Uranga, Felipe Casal Otegi, Jose Marino Arrieta eta abar.

Esan bearrik ez dago Pedro Mari aietara bilduko zala. Ondo artua izango zan noski, eta bere gustoko giroa antxe arkitu.

Urrengo urtekoak dira, 1892-koak alegia, *Nasketak*, *B-rekiñ*, *Ordañak* eta *Ama Euskara* izeneko saillak. Azkeneko au urte artako olerki-sariketara bialdu zuan, eta *mención honorífica* irabazi.

Onako bertso-sail auek moldatu zituan 1893 urtean: *Perrando Amezetarra*, *Republika ta Fueroak edo Mendiburuko maiztarra*, *Bastilla*, *Españolak eta moruak* eta *Limosnatxo bat*.

*Limosnatxo bat* deritzaiona oso ezaguna da gaur egunean ere Euskal-Erri guzian, batez ere Gipuzkoan. Baiña 1897-an Donibane-Lohizuneko euskal festetan, leenengo saria Kasal Otegiren *Gure ama maitia* izenekoari eman zioten, gaur iñork ere ezagutzen ez duan bertso-saillari alegia; eta Otañoren sail oni bigarrena, *Harrazpiren Santsin* deritzanarekin batera. Jende ikasiaren epaiketa eta erriarena ez baitira beti bat etor-tzen.

Baditu Otañok zein urtetan jarriak diran ez dakigun beste sail batzuk ere. Olakoak ditugu *Beti-betiko*, *Elizakuak edo au mundua!*, *Gu ta gutarrak*, *Ernani* eta abar.

Urrengo urtean, 1894-ean, Azpeitiko Premioagatik jarri zuan bertsoa, *Txepetxa* eta *Donostiya: Uxua* paratu

zituan. Baita azkeneko onekin Donostiako urte artako euskal festetan leenengo saria irabazi ere. Sail onekin arrapatu zuan, beraz, Otañok gaillurra, naiz eta ez leenengo pausoan, ikusi degunez.

*Oroitza, Karidadea* -izen berarekin bi bertso sail moldatu zituan-, *Larriya* eta *Larraldeko Madalena* izenekoak 1895-ekoak dira.

Artean leenengo saria bein bakarrik irabazi zuan; bigarrena, beste bein; eta *mención honorífica* bat. Geiegi ere etzan. Baiña erriak oso goien zeukan Pedro Mari.

Ala, beraren leenengo liburuska urte artan, 1895-ean alegia, argitaratu zan: *Pedro M. Otaño / Zerbait / Donostiyan / Victoriano Iraola-ren moldizkiran / 1895-garren urtian*.

Ez dakigu noren patrikatik atera ziran moldiztegi-lana pagatzeko txanponak. Baiña Pedro Mari gizarajoa bestela ere naiko lanekin ibiliko zan, eta ez du ematen arek sobra aundirik izango zuanik.

Diru ori Otañoren lagunak batzuek aurreratu zutela ematen du, urrengo atalean ikusiko degunez, *Zerbait* liburu ontaz zeatzago mintzatzerakoan.

Onako lau bertso sail auek, *Tolosar biursari gazteari, Aitona gizagaisoa, Kubako gure anaiai* eta *Aur gurgarriari* izenekoak, 1896-koak dira. Urte artako Mondragoiko euskal-festetan bi sari iragarrita zeuden, bata gai librean eta bestea gai jakiñean, Kubako soldaduei alegia, ango gerra su eta gar baitzebillen orduan; eta biak Otañok irabazi zituan *Aitona gizagaisoa* eta

*Kubako gure anaiai* izeneko oiekin. Garaipen aundia izan zuan ori Pedro Marik.

Urrengo urtekoak dira, 1897-koak, *Anaitasuna* eta *Legazpi aundiari*. *Anaitasuna* orrek leenengo olerki-saria irabazi zuan urte artako Oiartzungo Euskal Festetan. Festa oiek uztaillaren 3, 4, 5 eta 6-an ospatu ziran, eta Pedro Mari Otaño ere an izan zan.

Ordurako, ordea, emen bizimodua ateratzea zail samarra egiten eta naiko kezka izango zuan berekin, zer egin etzekiala, berriro ere Ameriketara joatea erabaki zuan arte. Zalantza ori txarra da bertsoarako eta zernaitarako ere. Ala, 1898-ko ilbeltzaren 26-an itxasontziratu zan arte illabete batzuk egin zituan oraindik ere Euskal-Erriari, baiña beste bertso-saillik etzuan moldatu. Arjentinan ekingo zion berriro.

Pedro Mariren anai Bernardoren biloba dan Manuela Otaño Lopez-Alenek esan digunez, arek puskatu eta bota egin omen zituan bein baiño geiagotan bere bertsoak. Eta emaztea, atzetik joan, puskak jaso eta osterata ere osatzen jarduten omen zan. Bilintzek ere, aren bizitzan kontatzen danez, gauza bera egiten zuan. Alkarren antzekoak eta konforma-gaitzak izan, beraz, biak ere.

\* \* \*

Puskatutako oiek ez dakigu zenbat izango ziran. Baiña bestela galduak ere badira. Otañok argitara eman eta gure eskuetara iritxi ez diranak, alegia.

Oietako bat, 1891-koa. Ameriketatik etorri berria zan orduan Pedro Mari, eta *Amets bat* izeneko sailla agertu zuan *Euskal-Erria* aldizkarian.

Baiña izenburuaren azpian onelazion: *On Ramon Artola euskal-izkribilari zarrari ordaiñez*. Orrek zera esan nai du: Artolak bertsoren batzuk jarri zizkiola Otañori, eta onek beste auekin erantzuten ziola. Artolarenak ere *Euskal-Erria*-n ikusi zuten argia, urte berean. Izenburua onela dute: *Martin, berak paratako estroparako kantak saltzen*. Eta azpian onela esaten da: *On Pedro Maria Otaño, euskal-izkribalari berriyari*.

Itz auek, gure iritzirako, auxe adierazten digute: Pedro Marik argitara emanak bazituala bertsoren batzuk edo idazkiren bat nunbait ere, bere burua idazle bezela azalduz.

Bestela, etzion Artolak *euskal-izkribilari berriya* esango. Ordaiñetan, Otañok *euskal-izkribilari zarra* deitzen zion Artolari.

Pedro Mariren bertso saillen bat edo idazkiren bat bada, beraz, Artolaren sailaren aurretik an edo

emen argitaratua. Baiña *Euskal-Erria* aldizkarian ez degu arkitu.

Ezta ere garai artako egunkarietan, guk aztertu aal izan ditugunetan beintzat. Beste norbaitek guk baiño suerte ohea izango al du!

\* \* \*

Aurki esango degunez, Pedro Mari 1898-ko ilbeltzaren 26-an joan zan irugarren aldiz Arjentinara. Iru egun aurretik, eskutitz bat zuzendu zion *Orfeón Donostiarra* izeneko taldeak, onela esanez:

*”El Orfeón Donostiarra, en prueba de cariño y consideración por sus hermosas composiciones poéticas euskarras, y muy especialmente por la dedicada a dicho Orfeón, titulada Lartaun...”*.

*Lartaun* izeneko sailla bazuan, beraz, Pedro Marik, artean jaio berria zan eta denborarekin ain ospetsua izango zan donostiar kantari-taldeari eskeiñia. Baiña ori ere ez degu iñon arkitu.

(1895)

## ZERBAIT LIBURUA

*Zerbait* izeneko liburua, leen ere esan degunez, Donostian argitaratu zan, *Victoriano Iraola-ren moldizkiran*, 1895-garren urtian, Pedro Maria Otañoren ordurarteko bertsorik onenekin ornitua eta larogei orrialde osatuz.

Bitoriano Iraola ori, irakurleak jakingo duanez, garai artako euskal idazle oparo bat izan zan. Aren bertso, ipui, antzerki eta izkirimiriak orduko aldizkarien orri asko betetzen dituzte. Pedro Mari eta bera alkarren adiskide eta lagun miñak izan zirala dudarik ez da noski.

*Calei-cale* izenordeaz bere lanak izenpetzen zituan periodista batek, Donostiako Eujenio Gabilondok alegia, idazki jakingarri bat argitaratu zuan *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian, 1895-eko apirillaren 4-ean, *Pedro Maria Otaño* izenburuarekin, liburu ori bidean zala albistea emanaz.

Onela dio:

*"Y ¿quién es Pedro María Otaño?"*

*Un verdadero y notabilísimo poeta vascongado, cuya inspiración corre parejas con su excesiva modestia; un soñador de imágenes con las que esmalta sus sentidas composiciones, haciéndolas llegar a lo más recóndito del alma de quien las escucha.*

*Siente como pocos, y cuando dedica su hermosa labor a la madre Euskaria, a la que idolatra como amantísimo hijo, es imposible seguirle en la apreciación de los bellos y profundos pensamientos de que se hallan sembrados sus notables trabajos, pues se suce-*

*den con tal rapidez y profusión y son tan hermosos que el ánimo queda absorto ante aquellas brillantes y deslumbradoras perlas.*

*Maneja su lengua nativa con una soltura y naturalidad envidiables, sin recurrir a modismos y frases anticuadas, siendo por consiguiente fácilmente comprendido por los que le leen; la frase en él es siempre pura, los giros muy naturales y los símiles que emplea bellísimos. Dotado de un espíritu observador finísimo, de todo saca partido y no hay detalle que escape a su clara penetración.*

*¡Lástima que su excesiva modestia le tenga relegado a la oscuridad, hasta que algún certamen de los muchos que se celebran en nuestra provincia y en la región vasco-francesa, le saque del marasmo en que yace!*

*Sus bellísimas composiciones Amets bat, Ama Euskara, Chepecha, Limosnacho bat, Elizakuak son verdaderas joyas literarias que, a tratarse de otro que no fuera nuestro buen Pello Mari, como cariñosamente le llamamos los amigos, le hubieran conquistado renombre y personalidad en el mundo literario; pero es tan modesto cuando de su propio trabajo se trata, que me ha costado una verdadera batalla arrancarle, para darla a conocer en este lugar, su sentidísima e inspirada poesía Elizakuak.*

*Tengo entendido que algunos admiradores de Otaño, en cuyo número me cuento, tratan de editar en un tomo las preciosas composiciones que conserva escritas, que aunque escasas en número, pues no ha querido recopilar las muchísimas que ha producido, serán saboreadas por todos los que aman la literatura bascongada".*

Naiko lan izan omen zuan, beraz, *Calei-cale* edo Eujenio Gabilondo orrek, Otañorengandik *Elizakuak* izeneko sailla eskuratzen. Ogei bat urte leenago, berdintsu ibili zan Jose Manterola ere Bilintx gizarajoarekin.



PEDRO M.<sup>o</sup> OTAÑO

# ZERBAIT



**DONOSTIYAN**  
**Victoriano Iraola-ren moldizkiran**  
1895-garren urtian.

Arek onen bertsoak bildu nai, eta onek bere idazlanak aintzakotzat ártzen ez.

Buruan ezin sartu zaiguna auxe da: bai *La Voz de Guipúzcoa*-k, *diario republicano* bera, eta Otaño ere ala zan, eta bai *El Correo de Guipúzcoa*-k, au *diario tradicionalista* edo, geroxeagoa esango zanez, *zarrontzalea*, egunkari oiek maiz samar agertzen zituzten euskal bertsoak beren orrietan. Pedro Marirenak oso gutxitan, ordea. Ez dakigu zergatik. Gauza erreza zutela dirudi, bada, onengana joan eta tratu moduren bat egitea, arek bertsoak jartzeko eta egunkariak argitaratzeko, zerbait ordainduz. Ortaratu izan balira, mesede ederra izango zuten, bai egunkariak, irakurleak ugalduko baitziran, eta bai Pedro Marik ere, beste irabazbidetxo bat billaturik. Eta, au dala-ta, zizurkildar bertsolaria etzan agian Ameriketara berriro joan bearrean arkituko. Mesede ederra bai guk ere, aren bertso emaitza eta ondarea askoz aberatsagoa izango baitzan.

Bere azken lerroetan *Calei-cale* dalako orrek esaten duanez, lagunen batzuk izan ziran *Zerbait* liburua argitara emateko dirua bildu eta osatu zutenak. Otaño gizarajoaren poltsak ez baitzuan pisu aundirik eukiko.

Segiran, *Elizakuak* izeneko sailla dator, idazlan orri azken dotorea emanetz.

\* \* \*

Andik bi illebete t'erdira *Zerbait* liburu ori kalean zan. Onela esaten baitu *Calei-cale* orrek berak, *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian, 1895-eko uz-

tailaren 20-an, *Un libro nuevo* izenburua duan idazlan batean:

*"He tenido el gusto de ver reunidas en un tomito que se ha dado a luz bajo el modesto título de Zerbait, las bellísimas composiciones de que es autor el inspirado poeta vascongado Pedro María Otaño.*

*Este fecundo vate euskaro, cuya vigorosa inspiración corre parejas con su exagerada modestia, ha reunido, merced a las reiteradas instancias de sus amigos, algunas de las innumerables composiciones que lleva lanzadas al público y que su feliz memoria ha podido retener.*

*En ellas campea el nervio, el vigor en la inspiración que caracteriza a Pello Mari en todos sus trabajos y que constituye, por decirlo así, su sello peculiar.*

*El sentidísimo Amets bat, que viene a ser un poema tiernísimo en donde campea el amor entrañable del autor hacia su idolatrada madre Euskaria, está escrito con soltura y esmaltado de bellas imágenes que cautivan al lector.*

*Karidadea y Ama Euskara son dos inspiradas composiciones en las que no se sabe qué admirar más. si la bien templada fibra poética del autor o los hermosos pensamientos que desarrolla con exquisito gusto y una facilidad que constituyen su mayor encanto.*

*La obrita contiene, además, un acróstico, ovillejos, la preciosa composición Chepecha, que viene a ser un verdadero estudio filosófico; Elizakuak, conocido ya de los lectores de La Voz; Donostiya, bellísima descripción de nuestra hermosa ciudad; Larriya, sentida romanza que fue puesta en música por el joven maestro D. Miguel Oñate; un bonito y difícil trabajo, cuyas palabras todas comienzan con la letra B, y buen número de poesías sueltas sobre diversos asuntos.*

*Lástima grande es para las letras vascongadas que la excesiva modestia del amigo Pello Mari haya sido la causa de la pérdida de hermosísimos trabajos que andan por ahí y que su autor, llevado de un indiferentísimo culpable, no haya querido dedicarse a recogerlos para darlos a la estampa.*

*Hoy que desgraciadamente no abundan en el país vascongado poetas que cultiven con fruto la hermosa lengua nativa, deber es de aquellos que la honran con sus excelentes producciones, sacudir el marasmo que les embarga y dedicarse con más frecuencia a trabajos de esta índole. ¿Entiendes, Fabio, lo que voy diciendo? Para terminar, voy a copiar a continuación la sentidísima composición que entresaco del citado libro y cuyo título es: Limosnacho bat ..."*

Bertso auekin bukatzen zuan *Calei-Cale* orrek bere lana.

Egille onek bi idazki oietan pentsamentu berdintsuak erabiltzen ditu. Batetik, Otañoen bertsoen balioa; bestetik, egillearen geiegizko umiltasuna: *la excesiva modestia*.

Lerro oiek Pedro Marik ere irakurriko zituala dudarik ez da. Beragatik esaten ziranengatik ez dakit zer iritziko zion. Ixil-ixilik pasa zuan eta guk ezin jakin.

Baiña arazo guzia *excesiva modestia* ortan al zegoan? Egokiera izan

zuanean, bere bertsoak eman egin zituan arek argitara, bai aldizkarietan eta bai liburutxoetan: *Zerbait* (1895), *Artzai-Mutilla* (1900) eta *Alkar* (1904). Errua berak etzuala esango genduke, beraz.

*Zerbait* liburu ori eskuratzen oso zailla da gaur egunean. Ale asko ere etziran egingo noski. Ni ez naiz oroitzen noren eskutik jaso nuan, ori apuntatzea aaztu egingo zitzaidan eta. Gaur ezin, beraz, berari eskerrak eman, mesede bikaiña egin bazidan ere.

## SUSKRIZIOA

Baiña Ameriketara berriro joatea pentsatu zuan Pedro Marik. Olako erabakirik ez baita bat-batean artzen, bere duda-mudak erabiliko zituan noski denbora puska batean, leenengo bere buruarekin bakarrik, gero emaztea eta famili artekoekin, eta agian adiskiderekin batzuekin urrena.

Zerk artaratu ote zuan gizarajoa? Emen bizimodua ateratzea naiko aldapa gora egiten zitzaiola dirudi. Poeta izan ura, eta bertso-gintzarako geiago balio. Baiña laguntzarik izan etzuala ere nabarmen dago.

Zera ontaz oso argibide jakingarria ematen digu *La Baskonia* aldizkariak, 1910-ko maiatzaren 30-ean, Pedro Mari il berria zalarik:

*"A luego de publicarse la colección de poesías bajo el título de Alkar, se pidió en un periódico de San Sebastián que la Diputación de Guipúzcoa creara para el poeta ausente una plaza de recopilador de cantos populares; de esos cantos cuya música es la misma, pero cuya letra es tan variada y jamás escrita; que se transmiten de generación en generación, adulterándose y corrompiéndose cada vez más. El poeta hubiera recogido esas canciones, las hubiera depurado y vuelto a su primitivo estilo y la Diputación al formar ese archivo hubiera levantado un verdadero monumento a las letras patrias. Pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta que era liberal, y los diputados liberales no podían hacer nada por el poeta que era un desordenado."*

Ederki pentsatua zegoan ura: Otaño kanta eta bertso-biltzaille jartzea ale-

gia. Langintza ortarako garai ona zala dudarik ez da. Baiña, itxura danez, politika sartu zan tartean, eta asmo eder orrek ortxe jo zuan lurra. Gure kondairak ere bere lotsakizunak baditu, eta oietako bat auxe: Pedro Mari gizarajoa Euskal-Erritik joaten uztea.

Garbi dago, beraz, emengo norbaitetik, diputazioak-edo, eskua luzatu izan balio, ura etzala emendik joango. Gure izkuntzaren egoeraz negar egiten degu. Baiña beraren eusgarriak izan bear lutekenak bear baiño geiagotan utzi ditugu alperrik galtzen.

Dana dala, Otañoaren asmoak zer ziran zabaldu zanean, euskaldun askoren biotzak tristetu eta goibeldu egin ziran, gero ikusiko degunez. Eta oietako batzuek asmo berezia artu zuten: Pedro Mariren alde suskizio bat egitea. Onela dio *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak, 1898-ko ilbeltzaren 4-ean, *Pedro Maria Otaño* izeneko idazki batean:

*"En estas mismas columnas apareció, hará próximamente dos años, un artículo que nuestro asiduo colaborador y entusiasta admirador del gran poeta, Calei-Cale, dedicó al insigne Pello Mari."*

*Desde entonces y merced a las lides organizadas por el Consistorio de Juegos Florales Euskaros, con el objeto de fomentar las letras vascongadas, y a las que ha concurrido el autor de Amets bat y Txepetxa, ha logrado salir éste de la humilde esfera a la que su excesiva modestia le tenía relegado, consiguiendo crearse una personalidad literaria saliente, basada en sus propios y exclusivos medios."*

*Hoy las vicisitudes de la vida, que a todos nos alcanzan en mayor o menos escala, le obligan a trasladarse a lejanas tierras, a la República Argentina, a buscar en tierra extraña lo que le niega la propia, los recursos necesarios para subvenir al sustento de su dilatada familia.*

*Con este motivo, algunos de los muchos amigos y entusiastas admiradores con que cuenta el modesto cuanto inteligente Pello Mari, queriendo tributarle el homenaje a que se ha hecho acreedor por sus constantes desvelos en pro de nuestra querida lengua vascongada, a la cual ha enaltecido con sus hermosísimas y notables producciones, han tenido el excelente pensamiento de iniciar una suscripción en La Voz de Guipúzcoa, con el objeto de dedicarle con su importe un obsequio que allá en lejanas tierras recuerde al solitario emigrado el cariño de este noble terruño y las amistades que deja en el suelo que le vio nacer.*

*A este objeto, la Sociedad Euskaldun Fedea, y algunos socios de la Unión Artesana han tomado la iniciativa, que seguramente será secundada por el pueblo donostiarra, de encabezar la suscripción en la siguiente forma:*

La Sociedad Euskaldun Fedea .....	25 pesetas
Consistorio de Juegos Florales.....	25 “
Recaudado en la Unión Artesana:	
E. G .....	25 “
H. L .....	10 “
S. A. e hijo: .....	15 “
L. A. ....	10 “
V. M .....	5 “
E. E.....	5 “
A. E.....	5 “
M. A .....	5 “
J. B. ....	5 “
S. A.....	5 “
L. L.....	5 “
P. O. ....	5 “
F. M. ....	5 “
V. S.....	5 “
M. S.....	10 “
J. G.....	10 “
M. E.....	5 “
J. G. ....	5 “
M. E.....	5 “

Pesetas: 185

*Sigue abierta la suscripción”.*

Andik aurrera, diru bilketaren berri egunero ematen du *La Voz de Guipúzcoa* orrek, aurretik onela esanez:

*“Suscripción para obsequiar con un regalo al popular poeta vascongado Pedro María Otaño al emprender su viaje a América.”*

Erregalia esaten du, eta bildutakoaren zati bat ortara bideratuko zuten. Baiña gaiñontzekoa, gure iritzirako beintzat, dirutan emango zioten ziur aski.

Ona emen zerrenda ori, egunkari orrek urrengo zenbakietan argitaratu eman zuana, zein zein egunetan agertu zan berezi gabe:

J. T.....	25 pesetas
Antonio Arzac .....	15 “
E. E. ....	5 “
Ramón Artola .....	5 “
G. G.....	1 “
J. V.....	10 “
G. A.....	5 “
Y. Y.....	5 “
Martín Laviza .....	10 “
R. O.....	2 “
J. M. ....	3 “
V. Y.....	15 “
José Aldanondo. ....	2 “
Eugenio Imaz. ....	2 “
José Ramón Ansa .....	5 “
Manuel Olaondo. ....	5 “
E. A. ....	25 “
Francisco Urquía.....	2 “
Domingo Zabalo y familia.....	20 “
Un italiano .....	5 “
Un donostiarra.....	5 “
V. A.....	5 “
Tori Tori .....	25 “
Santos Uranga .....	1 “
P. B. ....	10 “
F. Asensio Lardizabal.....	10 “
J. F. I. ....	10 “

Ramón Zapirain.....	2'50 "	J. Gansisans.....	0'50 "
Un conocido .....	2 "	Pedro Altuna.....	1 "
F. Y. ....	10 "	S. A. ....	2 "
J. Y. ....	10 "	P. A. ....	2 "
B. V. ....	10 "	P. A. ....	1 "
H. E. ....	10 "	(Tolosakoak emen bukatzen dira)	
Eugenio Orbea .....	5 "	H. S. ....	1 "
Anjel Arriarán.....	1 "	P. S. ....	1 "
Tomás Alvarez.....	2'50 "	V. S. ....	1 "
Metáfora.....	5 "	M. A. ....	1 "
Segundo Metáfora y Oguelmitena.....	5 "	F. C. ....	1 "
E. Y. ....	5 "	B. B. ....	10 "
(Desde Tolosa)		F. C. ....	1 "
Bustamante bra .....	1 "	C. Q. ....	0'50 "
Pelukier.....	1 "	J. M. A. ....	0'50 "
P. Y. ....	2 "	S. S. ....	0'50 "
C. U. ....	2 "	J. M. L. ....	0'50 "
F. R. ....	1 "	A. O. ....	0'50 "
Y. Y. ....	2 "	L. A. ....	0'50 "
A. L. ....	1 "	L. G. ....	0'50 "
P. G. ....	1 "	J. U. ....	5 "
B. T. ....	1 "	Jose Borrotokuak.....	1 "
F. H. ....	1 "	Aitona Gizagaisoak.....	1 "
M. M. ....	1 "	M. G. ....	1 "
S. T. ....	1 "	Bautista Garmendia.....	1 "
T. O. ....	1 "	Alberto García Soras.....	1 "
C. Z. ....	1 "	Moisés Ortiz de Zarate.....	0'50 "
L. S. ....	1 "	José Aguirre Iriondo.....	1 "
F. F.....	1 "	Manuel Michelena.....	1'50 "
Bai orixe .....	1 "	Lorenzo Larrutia.....	1 "
Baita bi're .....	2 "	F. H. ....	0'50 "
Ezagutzen diat.....	1 "	A. V. ....	1 "
Berriz?.....	1 "	Julián Juanena.....	0'50 "
Tira.....	1 "	N. O.....	0'50 "
Aranzab .....	1 "	M. Olano.....	0'50 "
A. Urquiola.....	1 "	J. T. ....	0'50 "
Eugenio Labaur.....	2'50 "	L. T. ....	0'50 "
Nicolás Labaur.....	2'50 "	Manuel García .....	0'50 "
Juan Echaniz.....	1 "	Ulpiano Muro.....	1 "
A. Alvarez.....	1 "	Julián Sánchez.....	0'50 "
Leandro Laborde.....	0'50 "	Ferreras hermanos .....	2 "
Blanco.....	0'50 "	Agustín Zamarripa .....	0'50 "
J. García.....	1 "	Conrado Lecuona.....	1 "
Rufino Olañeta.....	1 "	Ondo nai díyon batek.....	1 "
J. Laborde .....	0'50 "	D. Luis Cendoya, recaudado por varios amigos de Hernani.....	50 "

Un cariñoso .....	2	“
D. Manuel Elosegui .....	5	“
Don J. J. A. ....	5	“
Varios amigos de Villabona .....	35	“
Suma total . . .	672'50	“

Billabonako adiskideak emandakoa eta guzira zenbat zan adierazi ondoren,

1898-ko ilbeltzaren 21-ean, onela esaten zuan *La Voz de Guipúzcoa*-k:

“ *Hoy en todo el día quedará cerrada esta suscripción*”.

Itxura danez, orrekin bukatu zan suskizio ori. Andik aurrera ez baitu egunkariak geiago aitatzen.

## ARJENTINARA

Esan degunez, Pedro Mari eta bere familia 1898 urteko ilbeltzaren 26-an itxasontziratu ziran Pasaiko kaian, Arjentinara joateko.

Orduko bertso bat jaso aal izan degu. Onela esan digu Zizurkilko Teodoro Mujika adiskideak:

“Amerikara joateko barkuan sartu aurretik, ondoren datorren bertso au kantatu omen zuan Pedro Marik. Nere osabak osorik eta dotore kantatzen zuen. Ez dakit neri ain ongi gogoan gelditu zitzaidan. Baiñan ez det uste oker aundirik dutenik lau puntu auker beintzat. Agian bostgarrena ere izango zuen, baiñan ez det gogoan:

Ez nua borondatez,  
bearrak narama,  
nerekin daramazkit  
iru ume ta ama;  
iñork inguratu nai  
badu neregana,  
pozik egingo diyot  
posible dedana.

Bertso ori irakurri eta ondo konturatuکو generala uste det Pedro Marik edozeiñi laguntzeko zuen biotz-zabal-tasunaz.

Garai aietan, izan ere, etziran gaur ainbateko ontziak bidai oiek egiteko,

eta lenengoz itxas ontzian sartzen zan asko izango zan gaizki ibiltzen zana. Ori kontuan arturik esango zituela uste degu itz oiek arek, lendik berak eskarmentua zuenez.”

\* \* \*

Beste argibide oso jakingarri bat ere ematen digu bertso onek; gogoz kontra joan zala ura, irugarren aldi ontan beintzat, Ameriketara: "bearrak narama" eta "nerekin daramazkit iru ume ta ama". Lagun txarrak baitira oiek *aventura* berrietan sartzeko.

Ain zuzen, Jeronimo Elizegi zertiztan bertso jartzaille batek onela esaten du *Atoz, Pello Mari* izeneko sail batean:

eraman zindun ezkeroztikan  
sortu ziñan lur alaitik  
bizi bearrak leku estura,  
bai, Pello Mari, lasaitik...

Onek ere bearrari ematen dizkio erru guziak. Ezin-bestean joan zala ura, alegia, emendik Ameriketara, aldi ontan beñepein.

Bera ere, Jeronimo Elizegi au alegia, an omen zan Pasaian egun artan, eta onela jarraitzen du:



gogoratzen naiz nola joan ziñan  
negarrez urtzen Pasaitik,  
o, modu artan ez det ikusi  
sekulan aurraren aitik.

\* \* \*

Baiña orduko beste berri emale bat badegu, oso berezia gaiñera: Pedro Mari bera. Bere *Oroimenak* izeneko esku-idatzian, ederki kontatzen ditu bere guruzbide orren pausoak. Erderaz, ordea. Obe, noski, euskeraz egin izan balu. Baiña gazteleraizko eskutitz batzuk aitatu bear zituan, eta izkuntza au orregatik artuko zuan, ziur aski.

Dana dala, orra beraren itzak, dau-den-daudenean:

*“El día 26 de Enero de 1898 me embarqué en Pasajes en compañía de mi esposa y mis tres hijos, con dirección a Buenos Aires.*

*La despedida de que fuimos objeto no la olvidaré nunca.*

*El Orfeón Donostiarra, con su director mi amigo Luzuriaga al frente, nos dio una cariñosa serenata a las 10 y media de la noche anterior, frente a la casa nº 10 (tienda) de la calle Loyola (S.S.), habitada por mi padre, mi hermano Bernardo y su familia, encontrándose también allí mi hermana Micaela, con su hija Mariacho, pues su hijo Justito estaba en Recalde.*

*Al terminar el orfeón su generoso cometido, les di las gracias como pude, pues la emoción me acongojaba, saliendo a la calle, colocándome en el centro de aquella simpática corporación e improvisando tres zortzikos.*

*¡Qué hermoso cuadro!*

*¿Verdad, Micaela?*

*El director del orfeón me puso en seguida en mis manos, mientras todos los demás individuos me volvían loco con sus entusiastas abrazos y aclamaciones de despedida, el documento cuya copia va a continuación.*

\* \* \*

*”Al distinguido poeta éuskarro: El Orfeón Donostiarra, en prueba de cariño y consideración por sus hermosas composiciones poéticas éuskaras, y muy especialmente por la dedicada a dicho Orfeón, titulada Lartaun, ha acordado nombrar a V. Socio Honorario del mismo y obsequiarle con una serenata el día de hoy, con motivo de su próxima marcha a América.*

*Sirva, pues, la presente como cariñosa despedida de este Orfeón, cuyos individuos nos honramos con su amistad.*

*A esta despedida se asocia Sn. Sebastián y Euskeria entera, que llora la partida para lejanas tierras de su hijo más querido.*

*¡A América marchó el inolvidable Iparraguirre! ¡A América marcha nuestro querido Otaño!*

*¡Dios sabe si Euskeria volverá a ver de vuelta a Otaño, como vio a Iparraguirre!*

*El Nuevo Mundo atrae a nuestros poetas. ¡Ojalá Dios colme a V. allí, amigo Pello Mari, de toda la felicidad que nosotros con toda el alma le dese-*

amos! Rogamos a V. sea intérprete de nuestra simpatía hacia nuestros paisanos de la Sociedad "Laurak Bat" de Buenos Aires, los cuales dispensarán a V. seguramente la acogida que para sus grandes méritos, como poeta vascongado, y su acendrado amor a Euskaria se merece.

El Orfeón Donostiarra quedará eternamente agradecido por las muestras que siempre le ha prodigado, y se ofrece a V. como Orfeón, y cada individuo a él perteneciente en particular, para todo cuanto pueden servirle.

San Sebastián, 23 de Enero de 1898.

El Presidente: Ignacio Iribarren.

El Secretario: Tomás Carasa."

\* \* \*

La sociedad "Unión Artesana" y el Consistorio de Juegos Florales Euskaros me otorgaron dos cartas de recomendación para la Sociedad "Laurak Bat" de Buenos Aires.

Al embarcarnos en Pasajes, como antes digo, el 26 de Enero del 98, día en que yo cumplía cuarenta y un años de edad, fuimos objeto también de tiernísima despedida.

Improvisaron en nuestro honor, colocándose junto al vapor Córscica, en el que ya estábamos embarcados (eran las dos de la tarde) y rodeados de infinidad de parientes y amigos nuestros, mis inolvidables Gaztelu (Gorriya), Chirrita y mi compadre José María Arregui, de Montefrío (Urnieta).

No pude contestarles porque la emoción me embargaba.

Gracias a todos.

\* \* \*

He aquí ahora las mencionadas cartas de presentación de la Unión Artesana y el Consistorio de Juegos Florales Euskaros de S, Sbstn., cuyos documentos fueron publicados en "La Voz de Guipúzcoa", como otros varios artículos laudatorios que aparecieron aquellos días, tanto en dicho periódico como en "La Unión Vascongada".

Repito las gracias.

\* \* \*

"El Consistorio de Juegos Florales euskaros de San Sebastián tiene el honor y la satisfacción de recomendar a la patriótica sociedad "Laurak Bat" de Buenos Aires, al popular y aplaudido poeta Dn. Pedro M<sup>a</sup>. Otaño, premiado en varios concursos y que hoy se traslada con su familia a ese hospitalario país, residencia de tantos vascongados.

No necesitan estos, ciertamente, que se les dirija la menor excitación para recibir con cariño a un paisano suyo, pues sólo el hecho de haber fundado en esa lejana y noble región una plaza Euskara en la que se levanta y crece, lleno de vida, un retoño de nuestro querido árbol de Guernica, prueba hasta dónde llegan sus sentimientos euskaldunas.

*De ellos participa este Consistorio, que envía expresivo saludo a la Sociedad de su digna presidencia.*

*Dios guarde a V. muchos años.*

*Sn Sebastián 21 de Enero de 1898.*

*Por el Consistorio, el presidente Alfredo Laffitte. El secretario Antonio Arzac.*

*Sr. Presidente de la Sociedad Laurak Bat.*

*Buenos Aires."*

*Fue redactado por mi muy querido amigo Dn. Antonio Arzac.*

\* \* \*

*"Interpretando fielmente los deseos de la Sociedad "Unión Artesana" que me cabe la honra de presidir, tengo el gusto de dirigirme a la Junta Directiva de la patriótica sociedad "Laurak Bat", genuina representación de la noble Euskaria en esas lejanas tierras, recomendándola muy eficazmente al insigne poeta euskaro Dn. Pedro María Otaño, portador de la presente comunicación, honra y prez de nuestro privilegiado país, el cual pasa a fijar su residencia en esa República.*

*Nuestro paisano Dn. Pedro M. Otaño, que ha adquirido sólida reputación literaria y una personalidad saliente en las letras euskaras, las cuales le deben bellísimas producciones y creaciones admirables que han brotado al calor del entrañable cariño que profesa a su noble tierra, ha figurado hasta ahora como socio de número en las filas de la "Unión Artesana" y*

*aparecerá en lo sucesivo como honorario por acuerdo de la junta general de socios celebrada el día 2 del actual, para perpetuar de esta manera la gratísima memoria y el impercedero recuerdo que el notable vate vascongado deja entre nosotros.*

*Al constituirme en intérprete de estos deseos, me cabe la satisfacción de dirigir a esa patriótica sociedad un cariñoso y expresivo saludo.*

*Dios guarde a V. muchos años.*

*San Sebastián, 14 de Enero de 1898.*

*El presidente: Teodoro Mallo.*

*A la Junta Directiva de la sociedad "Laurak Bat".*

*Buenos Aires." (1)*

*La recomendación que precede fue redactada por mi queridísimo amigo Dn. Eugenio Gabilondo, (a) Calei-Cale.*

\* \* \*

*Presentadas por mediación de mi amigo Dn. Juan S. Jaca las consabidas cartas de recomendación a la sociedad "Laurak Bat", a los pocos días de nuestra permanencia en Pehuajó, a donde nos retiramos en compañía de mi hermano Perico, después de pasar juntos tres días en Buenos Aires, a donde salí a recibirnos, recibí la siguiente comunicación de la sociedad "Laurak Bat":*

*"Buenos Aires, 20 de Marzo de 1898.*

*Sr. Pedro M<sup>a</sup> Otaño.*

Pehuajó.

Distinguido señor:

Por encargo de la Comisión Directiva que me honro en presidir, tengo la satisfacción de dirigirme a V. para participarle que por intermedio de nuestro consocio Dn. Juan S. Jaca, recibió esta Directiva las dos cartas de presentación de la "Unión Artesana" y del Consistorio de Juegos Florales Euskaros de Sn. Sebastián, de que fue V. portador.

Al propio tiempo me encarga manifieste a V. que, tanto particular como colectivamente, estamos todos a sus órdenes para cuanto crea que podamos serle útiles.

Deseando que tan esclarecido vate consiga en este país lo que constituya sus anhelos, me es honroso reiterarle las seguridades de mi mayor consideración y estima.

Presidente: Luis Labadens.

Secretario: C. Orbea."

\* \* \*

A la nota que precede contesté de la manera siguiente:

"Sr. Presidente de la Sociedad "Laurak Bat".

Buenos Aires.

Muy señor mío y de mi consideración más distinguida:

Tengo el honor y la satisfacción de manifestar mi más profunda gratitud a la Comisión directiva de la Sociedad

que V. tan dignamente preside, por haberse dignado remitirme la nota que tanto me honra, con el motivo de la entrega, por mediación del socio de esa Corporación y mi querido amigo Dn. Juan S. Jaca, de las dos cartas de presentación otorgadas generosamente a mi nombre por las sociedades "Unión Artesana" y el "Consistorio de Juegos Florales Euskaros" de Sn. Sebastián.

Aprovecho gustoso esta oportunidad para ofrecirme incondicionalmente a esa querida colectividad y a cada uno de sus individuos en particular, si en algo puede serles útil, como bascongado y como compatriota, su más humilde y entusiasta admirador.

Dios guarde a V. muchos años.

Pedro M. Otaño.

Pehuajó 14 de Abril de 1898.

A la Junta Directiva de la Sociedad "Laurak Bat".

\* \* \*

Pello Mari Euskal-Erritik abitu zan biaramonean, 1898-ko ilbeltzaren 26-an alegia, onela zion *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak, bere *Noticias* saillean:

"Anoche nos fue entregado el siguiente expresivo escrito:

Agur. ¡¡Eskerrik asko!! Pedro Maria Otaño."

\* \* \*

Bi eskutitz auek, *Consistorio de Juegos Florales* dalakoak eta *Unión Artesana* elkarteak idatziak alegia, *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak ere argitaratu zituan, Pedro Marik dion bezela, 1898-ko ilbeltzaren 25-ean, Pedro Mari Ameriketara abitu bear zuan bezperan alegia, aurretik onela esanez:

*"LOS QUE SE VAN. PEDRO MARIA OTAÑO.*

*Hoy debe embarcarse con rumbo a la República Argentina el popular vate vascongado Pedro María Otaño.*

*El recuerdo de su pueblo querido ha de vivir en él tanto como en el pueblo ha de vivir el recuerdo de Otaño, el tierno cantor de sus bellezas y tradiciones.*

*Deseámosle de todo corazón muchas prosperidades en aquellas lejanas tierras donde tantos vascongados han de acogerle con cariño y consagrar con él un culto inextinguible a este rinconcito donde dejaron parte de su alma.*

*Otaño va bien recomendado a Buenos Aires. He aquí copia de los documentos de que le han hecho portador el Consistorio de Juegos Florales y la Unión Artesana..."*

## PEDRO MARIA OTAÑORI AZKEN AGURRAK, 1898-AN AMERIKETARA JOAN ZANEAN

Pedro Mari Arjentinara azken aldiz joan zanean, bertso-sail batzuk moldatu zituzten orduko bertso jartzailleak, ari azken agurra ematearren. Guk bildu ditugunak emen eskeintzen dizkiogu irakurleari.

AGUR!

*(Nere lagun maite on Pedro Maria Otaño-ri)*

Baño bazuaz orain emendik,  
nere lagun zar maitia,  
sortu ziñaden lur au lajarik  
billatutzera bestia?  
Ene, bazuaz, on Pello Mari,  
euskaldunaren argia,  
malko lañua banaturikan,  
tristura ta illunpia!  
Zerengatikan uzten dituzu,  
bakarrik!, baso ta uria?  
Nun lezateke, nun, oiek entzun  
erretxiñol kantaria?  
Ez al dakizu lenago zer dan  
or daramazun bidia,  
t'arantza billa nola zuazen  
utzirik baratz loria?  
Etzaitezela, arren ta arren,  
etzaitezela, ordia,

guregandikan aparte bizi  
luzaro beintzat gordia!  
Ondo dakigu zenbaterano  
jaio zeraden erria  
maite dezuben, eta zuretzat  
nola dan legungarria;  
ai, badakigu nola txoriyak,  
zapuztu zaion kabia,  
esku nabarben eta zitalak  
dagolako ibillia,  
utzi lezaken modu berean  
uzten dezula zeria...  
Orrengatik, ai!, erdibituko  
zaigu miñez barrunbia,  
pentsaturikan bide zaill ori  
dala txigor ta luzia;  
orrengatikan negar ta negar  
begitatiek iturria  
dariyozula juango zerade,  
naigabez dena betia...  
Ala, Pello, zuk arkitutzian  
goia zeru ta ur bia,  
sentirik xamur bagaren otsa  
edo naiz ipar aizia  
murmurraz beti geldi-geldiro  
maitatzen itxas ontzia,  
gure laztanak oi diradela,  
Pello, gogora zaitia,  
eta noizik bein alaigarri ta  
aldiro berriz tristia  
entzungo dezu iñoiz negarra,  
iñoiz agur bat neria...

.....

Agur eta agur! Adiyo, Pello!  
Nik opa dizut guztia:  
etorkizunik doatsuena,  
zori ona ta irria.  
Adiyo, Pello! Alik laisterren  
nai degu zu biurtzia,  
arturik antxe lur zikoitz onek  
ukatzen dizun saria.(1)

*Emeterio Arrese*  
*Tolosa, 12 enero 1898*  
*(La Voz de Guipúzcoa, 13 enero 1898)*  
*(La Vasconia, 1900-II-10)*

\* \* \*

ADIYO!

*(Nere adiskide maite Pedro Mari*  
*Otaño-ri)*

Ontziyan bazuaz zu  
emendikan urez,  
urrutiren batera  
esan dirazunez;  
berriz bilduko gera  
anbat biyok nekez,  
eta biltzen bagera  
jarriko naiz pozez.

Etorkizunen berri  
batek bai baleki,  
egingo litzaioke  
zuzen ari argi;  
bañan ezin liteke  
ori iñon arki,  
oputzen dizut bada  
on guztiya zuri.

Urrutira joan arren,  
iltzen ez bazera,  
joaten zeran bidetik  
etorriko al zera;  
ametsak narabilte  
arontz ta onera,  
lenbailen etortzeko  
zu zere lurrera.

Tximista ortik-emendik,  
ekaitz illunian,  
lum'ariña bezela  
noiz goian, noiz bian;  
ipintzen dezunian  
oña zuk lurrian,  
zer poza artuko dezun  
zere barrenian!

Zer dan oroitzen bada  
zure bidagoa,  
orobat da legorra,  
nola itxasoa;  
onkizun danarekin  
esatera noa:(2)  
danaren gañetikan  
dago Jaungoikoa.

Begiyak jarririkan  
Aide-On oieri,(3)  
len ere egiñ ziñan  
andikan etorri.  
Biotzetikan esan:  
"Agur!, banua ni,  
berriyak eskatzera  
etorkizunari."

Anbat urontziyetan,  
orobat bai emen,  
oroimen ori dago  
Jaungoiko onaren;  
esan genezake guk  
nun jaio giñaden,  
non ill bearko degun  
ez oraiñ eta ez len.

Adiyo, Pedro Mari,  
doai andikua;  
agur, umiak eta  
emazte gajua;  
non-nai izan zaitia  
zori onekua,  
zu zera nere lagun  
beti-betikua.

*Jose Zapiain eta Irastorza*

*(La Voz de Guipúzcoa, 16 enero 1898)*

\* \* \*

### AGURTXO BAT ON PEDRO MARIA OTAÑO-RI

Ez det sinisten ikusi gabe,  
Otaño lagun maitia,  
zu emendikan Amerikara  
gu utzirikan joatia;  
gero noletan biziko dezu  
bada euskaldun jendia,  
zu izanikan aspalditxuan  
danoren laguntzallia?

Euskal-erriyak seme maitia  
dadukana oraindaño,  
oso argiya ta jakintsua  
oñetatik bururaño  
bertso lanian esan biar det  
beste asko diran baño,  
ondo dakigu dala munduan  
Pedro Maria Otaño.

Agur, Otaño, baldin bazuaz  
Amerikara emendik,  
erdi negarrez eta txit triste  
euskalduntxuak utzirik,  
lenbailen onuntz jira zaitia  
portun ontxo bat egiñik,

lengo gisara bizi gaitezen  
emen elkar maitaturik.

*Kaetano Sanchez Iruze*

*(La Voz de Guipúzcoa, 23 enero 1898)*

\* \* \*

### ON PEDRO MARIA OTAÑO-RI

Donostiya utzita bazuaz aparte,  
gure euskera gaxuak orra zenbat kalte;  
negarrez egongo da zu etorri arte,  
zer esaten dizuan gogoratu zaite.

O!

Gauz onikan ez dago  
emen bat ill arte.

Bat ildakuan asitzen dira berela:  
ura bezelakorik munduban etzala.  
Bañan jakiñik orren ona zala,  
nola ez dira kupitzen ill eta bezela?

Beti esango det nik  
fiñak ez dirala.

*EL ZARA CEGI*

*(La Voz de Guipúzcoa, 25 enero 1898)*

\* \* \*

Beste bertso pare au, berriz, Txirri-  
tarena da. Bera ere, bertso auetan adie-  
razten danez, Pasaian izan zan Pedro  
Mari Otañori azken agurra ematen.

Ilbeltz illaren ogei ta seian  
San Polikarpo eguna,  
makiña bat jende Antxo aldera (4)  
pausua eman deguna,  
Amerikara dijalako  
gure Pedro Mari ona,  
zieto dakin fameliatik  
aita faltatzen zaiguna,



zeñek etzuen istimatuko  
alako bizi-laguna?

Utzi dituzu leku zabalak,  
utzi dituzu mendiyak,  
utzi dituzu Españiako  
anai ta lagun aundiyak;  
zuri begira tristetu zaizkit  
alai neuzkiyen begiyak,  
oik nola diran bire luzian  
korritzen duten zubiyak,  
oraindik anbat gerta liteke  
juntatutzia gu biyak.

1. Olerki au bere *Nere bidean* liburuan ere (Tolosa, 1913) argitaratu zuan Arresck. Baiña oso aldaturta eta laburtuta. Emen bat jartzekotan, naiago izan degu lecnengo era, *La Voz de Guipúzcoa* eta *La Vasconia*-n agertu zana. Auxe baita Otañok irakurriko zuana.

2. *La Voz de Guipúzcoa*-n: *nua*

3. *La Voz de Guipúzcoa*-n: *oiei*.

4. Emen, ziur aski, *makiñat jende* bearko luke.

## ARJENTINA (1898-1910)

Amabi urte egin zituan Pedro Marik Arjentinan irugarren joanaldi ontan: 1898-tik 1910-era. Urte oiek ondo argitzea zailla da guretzat. Obeto esateko, eziñezkoa. Ara joan bearko litzake.

Joan-etorriak orain errez eta arin egiten dirala esango digu norbaitek. Egi-egia da ori. Baiña bertara joanda ere, au ez da amabost egunean egin ditekera lana, patxara aundia eta denbora asko eskatzen duana baizik. Liburu au geiegi atzeratuko litzake, beraz. Ortaz gaiñera, kanpotarrak, bertako berri piska bat ikasi arte, eta orrek denbora eskatzen du, ardi galdua bezela ibili bearra du. Eginkizun ori bertako batek artea obe, beraz.

Arrazoi oiengatik, leenago esan degunez, ango azterketa angoentzat uztea erabaki degu; edo beste baterako, lan ori guk egitea nai bada. Euskal-Erriari bildu ditezken argibideekin konformatu bearko degu, oraingoz beintzat. Eta gero gerokoak.

Emendik joan eta bizi izaten Pehujó-n jarri zan Pedro Mari. Pehujó erri baten eta barruti baten izena da.

Onela esaten du *Espasa* iztegiak (Madrid, 1920):

*"Partido de la República Argentina, en la prov. de Buenos Aires, limitado al N. por los partidos de Lincoln y Trenque Lauquén, al E. con el de Nueve de Julio, al SE. con los de Bolívar y Suárez y al O. con el de Guaminí y el citado de Trenque Lauquén. Ocupa una super. de 6.375 km<sup>2</sup> y tiene una población aproximada de 35.000 h. Dentro de este partido existen numerosas lagunas, pero su territorio carece de ríos y arroyos. Lo atraviesa el f. c. del Oeste. Se divide en 16 cuarteles, y sus principales fuentes de riqueza son la agricultura y la ganadería. En algunos establecimientos de esta última se practica con éxito la mestización. Su capital es la pobl. del mismo nombre.*

*Pobl. de la misma prov., capital del partido de su nombre, fundada en 1883 en el lugar que antes ocupaba el fortín de Las Mellizas, sit. a 87 kms. de Trenque Lauquén y 362 de Buenos Aires, a 88 m. de altura; cuenia unos 10.000 h. Est. del f. c. del Oeste; municipalidad; Juzgado de paz, Comisaría, escuelas y Registro civil; Sucursal del Banco de la Nación Argentina y Banco Popular de Pehujó; consulados de España, Italia y el Uruguay; convento y capilla erigidos en 1893, e iglesia parroquial. Es una población de recreo que posee alumbrado eléctrico, servicio de teléfonos e industrias de aserrar maderas, fab. de gas, mosaicos, soda, jabón, licores, pastas para sopa, camas, maquinaria, etc.*

*Hay en ella algunos buenos hoteles y se publican tres periódicos. Tiene, además, hospital de beneficencia, una sociedad Rural, Comercial e Industrial y diversas extranjeras y un orfeón."*

Beste Pehujó bat edo beste aita-tzen ditu iztegi orrek, baiña Pedro Mari bizi izan zana or ezarri deguna dala uste degu.

Erri artan zer ogibide izan zuan ez degu inñun arkitu. Aren bizitzaren beste illunune bat daukagu, beraz, emen ere.

Pedro Marik Ameriketara oraingo joanaldi ontan argitaratutako leenengo bertsoetan, *Laztan edo musurik onena* izenekoetan, firmaren azpian onela dio: *Pehuajó, 23 de Febrero de 1899*.

Itxura danez, urtebete pasea egin zuan bertsoerik argitara eman gabe. Artarako umore gutxi izango zuan gizarajoak.

Gutxi gora-beera, garaitsu artan alkar ezagutu zutela uste degu Felix Ortiz y San Pelayok eta Pedro Mari Otañok.

Beste ori musikaritari bat zan, azpeitiarra, Arjentinan bizi zana. Ezagutu ez-ezik, adiskidetu ere bai, eta frutu ederrik eman zuten bien artean, batek doiñua eta besteak letra asmatuz.

Onako kantu auek orrela egiñak dira: *Zugandik urruti, Urolari, Amari, Nere kabiya* eta *Eder bati*. Oiek danak 1899 eta 1900 urtekoak dira.

Urte ontan, bien artean egindako lan aundi bat eman zuten argitara: *Artzai-Mutilla* izeneko opera. Baiña ontaz gero mintzatuko gera, atal berezi batean.

Garai artan, Arjentinan bizi ziran euskaldunak aldizkari bat ateratzen zuten Buenos Airesen, illean iru bider. Asieran *La Vasconia* zeritzan, baiña gero *La Baskonia* idazten asi ziran. Antxe argitaratu zituan Otañok bere bertso asko eta asko.

Bolara artako Pedro Mariren bertso-emaizta urtez-urte jarraitu dezakegu.

Onako sail auek argitaratu zituan 1900 urtean:

*Lagundurikan denoi* asten dana, *Zazpiak-bat, Amerikako Panpetan* eta *Orfeon Donostiarrari* agur.

1901-ean, *Ongi-etorriya*.

1902-an, *Noizbait (Ordañetan)* eta *Iñuzente-eguna*.

1903-an, *Urte Berri, Auntza larre-ritz-lauzko lana, Berri on bat, Maisubari*.

1904-ean, *Amatxo laztana, Bidañiako Labaka, Urdaneta-ko Andres aundiari, Bukatu bedi, Junio 21 de 1876, Beremandua, Egurretan, Laurak-bat* eta *Batasuna*.

1905-ean, *Sendagaia* eta *Iritzi bat*.

1906-an, *Gaztelu Gorriya, Oroitzza, Gure aritza, Biyotza, Oroitzza (Orfeón Donostiarrari, Orra!, Gu ta guk* eta *Arana eta Goiri-tar Sabin zanari*.

Zein urtetakoa dan ez dakiguna degu *Aitor-en semeak* eta *Erroma* izenekoak.

1907-an lan berri bati ekin zion Otañok. Beste opera bat osatu zuten Felix Ortiz y San Pelayok eta berak, batek musika eta besteak letra: *Lora* izenekoak. Baiña lan ontaz ere atal berezi batean itzegingo degu.

Iru urte pasa zituan Pedro Marik bertsoerik argitaratu gabe, ez *La Baskonia*-n eta ez beste inñun. Obeto esateko, guk beintzat ez degu aren urte aietako bertsoerik arkitu. *La Baskonia* aldizkaria eta beraren arteko artu-emanak eten egin zirala dirudi.

1910 urtekoa, *Euskaldunak Arjentinan* izenekoak degu. Baiña bera il ondoren atera zan argitara.

\* \* \*

Baiña Arjentinan moldatu eta gure eskuetaraiño iritxi ez dan bertso-saillik ere badu Otañok. Oietako bat, *Ernai* izeneko.

Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak, 1905-IX-10-ean, *Laurak-Bat* elkartean ospatutako euskal festa baten berri ematen du, besteak beste onela esanez:

*"En la segunda parte cantó el señor Francisco Mendizabal una bonita romanza, titulada Ernai, letra del poeta Otaño y música del joven maestro Metón. Fue un número muy aplaudido".*

*Ernai* izeneko sail ori doiñuarekin batera argitaratuko zan, baiña ez degu inun ikusi.

Urrengo urtean beste jaialdi bat antolatatu zuan Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkarte orrek berak, eta aren berri onela ematen digu *La Baskonia* aldizkariak, 1906-XII-20-an:

*"Tuvo lugar con el programa que habíamos anunciado el reparto de premios a las alumnas del Colegio de la Euskal Echea. Una concurrencia selecta y bastante numerosa presenció aquel simpático acto de cultura.*

*En los exámenes de idioma basko fueron premiadas las niñas Julia de Olariaga y Cecilia de Uhalde.*

*El discurso en baskuenze lo pronunció muy bien la mencionada señorita de Olariaga, y la señorita María de Bilbao recitó con toda corrección los versos del señor Otaño, cuya primera estrofa era así:*

Euskal oitura zar maitagarri  
zeruko intzez bustiyak,  
ondorengoan argibidetzat  
guraso zarrak utziyak;

ill ziran aien oiñordekoak  
izan gaitezen biziyak:  
denok batentzat, bat danentzako,  
elkarrentzako guztiyak."

Otañoren guk eskuetaratu ditugun sailletan bertso ori ez degu arkitu. Baiña bera leendabizikoa omen zan, eta lagunak ere bai omen zituan. Beste sail bat, beraz, oraingoz beñepein galdua.

\* \* \*

Bere bertso-sail oietako batzuk noiz eta nun moldatu zituan esaten du Otañok, eta ortik somatu ditzazkegu Ameriketako beraren pausoak; joanaldi ontan nundik nora ibili zan, alegia.

Leen esan degunez, Arjentinara iritxi eta Pehuajó-n jarri zan bizi izaten. Iri artan izenpetutako azken lana *Auntza larrera* izeneko da. Onela dio: *Pehuajon, 1903 urteko Uztaren 15-ean*. Urte oietan, beraz, antxe bizi izan zan bere familiarekin.

Era ortan firmatutako urrengo lana, berriz, *Urdaneta-ko Andres aundiari* izeneko da: *Buenos Aires, junio de 1904*. Eta azkena, *Gu ta guk* deritzana: *Buenos Aires, Noviembre de 1906*. Arjentinako iriburuan igaro zituan, beraz, urte oiek.

Pehuajótik Buenos Airesa zerk ekar arazi zuan badakigu. Urte artan, 1904-ean alegia, bera jarri zuten euskeraren erakusle Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkartean. Otañok lan orri gogotsu ekingo ziola esan bearrrik ez dago.

Are geiago: urte artan *Laurak-Bat* dalako orrek etxe berria estraiñatu zuan, eta leenengo eguneko itzaldia Pedro Mariri enkargatu zioten. Uste aundiak izango zituan onek bere lanbide berri orrekin, baiña aiek ere ustelak gertatu. Euskera erakusteari utzi egin zion 1905-eko azaroan. Ontaz, ordea, gero mintzatuko gera, atal berezi eta luze-txo batean.

Baiña, itxura danez, artean ere Buenos Airesen jarraitu zuan, eta 1906-ko azaroan ere antxe bizi zan. Andik aurrera zer egin zuan naiko illun dago. Berak etzuan bertsozik argitaratu, eta *La Baskonia*-k ere ez du Otañori buruz bestelako berririk ematen. Baiña ixillune luze baten ondoren, 1909-ko martxoaren 30-ean, onela esaten du aldizkari onek:

*"Pello Mari. - Hemos tenido el gusto de saludar en esta redacción a nuestro viejo amigo y colaborador el conocido poeta don Pedro M. Otaño, Pello Mari, que se encontraba accidentalmente estos días en la capital.*

*Ayer regresó para Pérez (Santa Fe), donde en la actualidad reside con su familia".*

Pérez erri ontaz onela esaten digu *Espasa* iztegiak (Madrid, 1921):

*"Localidad de la República Argentina, en la prov. de Santa Fe, dep. de Rosario, distrito de Bajo Hondo, sit. a 15 kms. del Rosario, a los 32° 58' de lat. S y 60° 46' de long. O. de Greenwich, a 36 m. de altura. Est. del f. c. Central Argentino. Registro civil"*

Santa Fe probintziko, beraz, eta Rosario barrutikoa. Orregatik esan izan da Pedro Mari Rosario de Santa Fe-n bizi izan zala, ura iri aundia eta ezaguna baita. Baiña, emen ageri danez, txikiagoko erri bat zan bere bizilekua.

Berak ere, osaba Jose Bernardori 1889-an bialdutako bertsoetan, "Errosariyo Santa Fen" bizi zala esaten du. Toki bera ote da? Ez dakigu. Eriotza ere bertan iritxiko zitzaion, aurrerago esango degunez.

(1904)

## ALKAR LIBURUA

Dakigunez, Pedro Maria Otañok bere leenengo liburua, *Zerbait izenekoa*, Donostian plazaratu zuan, 1895 urtean. *Alkar izenekoa*, berriz, Arjentinan, 1904-ean.

Aren izenburu eta argibideak onela ziran: *Alkar / Poesías escogidas / de / Pedro M. Otaño / (En idioma euskaro) / Buenos Aires / Tipografía "La Baskonia" / Victoria 1088 / 1904.*

*Alkar* liburuak itzaurrea erderaz dauka. *Dos palabras* du bere izenburua. Firmarik ez du eta egillea nor dan ez dakigu. Liburu ontan agertzea me-rezi dualakoan, ona emen oso-osorik:

*"Se admite como verdad axiomática que los poetas son seres privilegiados que tienen la alta virtud de ennoblecen la existencia humana, y de reflejar a lo vivo el genio y la civilización característica de sus respectivos pueblos.*

*Por eso, los verdaderos poetas y sus obras viven todo el ciclo del pueblo y de la civilización que reflejan.*

*En los pueblos de origen y cultura oriental, donde las gradaciones de las jerarquías humanas concuerdan con las gradaciones de la fantasía, y donde por ello mismo la leyenda, la ley y el derecho han llegado con cierta naturalidad hasta subordinar los dioses inmortales al capricho de las veleidades humanas, y elevar al mísero hombre al cetro de la divinidad, sus poetas, los genios de su cultura, salvan esos contrastes con la grandilocuencia de su genial fantasía, elevando para el caso, cuando así conviene, a precepto religioso las creaciones de sus delirios idílicos.*

*En cambio, en la civilización occidental, en la ibérica o sea la baska, donde la cultura y el arte guarda-*

*ron siempre, en todas sus múltiples manifestaciones, la más estrecha armonía con el criterio analítico de la razón, y donde por ello mismo le está prohibido al hombre trabucar hasta en broma las inflexibles leyes de la naturaleza, sus poetas, al revés de en otros pueblos y en otras civilizaciones, son los guardianes del criterio, y los Catón de las buenas costumbres.*

*La Iliada la Odisea, lo mismo que la mayoría de los poemas de su género, sean éstos producto de las civilizaciones antiguas o modernas, son inconcebibles en lengua y cultura euskara, porque jamás esta lengua podría autorizar las ficciones en que se tejen sus argumentos, debido a que nunca el criterio propiamente basko admite las transgresiones del sentido común y de las leyes eternas.*

*Lo falso, aun en la poesía, para él es chorakeri -frivolidad- cosa impropia para recreo y enseñanza de hombres serios. Modalidad explicable si se tiene en cuenta que el basko es esencialmente analítico, y que la necesidad de satisfacer la curiosidad ingénita de su espíritu le convierte en cultor devotísimo de la naturaleza, que le presta sus enseñanzas y le controla sus concepciones.*

*De aquí el carácter preciso y estable de la cultura euskara, y la causa de la atribuida sencillez de su literatura, lo mismo que la razón de que sus poetas sean más naturalistas que ideólogos o, si se quiere, más concretos que líricos.*

*Debe, sin embargo, tenerse en cuenta, al apreciar esa literatura baskongada, especialmente la poesía, que fuera de estos principios que reglan su naturaleza, ha contribuido también a esta sencillez su carácter generalmente popular; a que es obra de bersolaris, en su mayoría analfabetos, y todavía a que muchas de las composiciones que la forman, son improvisadas en metro y ritmo exigidos.*

*Y, sin embargo, esta poesía popular es la más estimada del pueblo, porque es, sin duda alguna, la que mejor se ajusta al ritmo, al gusto, al sentimiento y modismos que constituyen su alma.*

*A esta clase de poesías, aunque en forma variada, pertenecen la mayorías de las composiciones que son materia de este libro.*

# ALKAR



## Poesías escogidas

• DE

PEDRO M. OTAÑO



( EN IDIOMA EUSKARO )



(Pello-Mari)



BUENOS AIRES  
Tipografía "La Baskonia"  
Victoria 1088  
1904

Pedro Maria Otañoran *Alkar* liburuaren azala.

Pello Mari, como llaman a Otaño con todo el cariño de su adhesión sus erritares, es poeta por natura; bertsolari, de familia de bersolaris, y originado en tierra saturada de leyendas y ritmos baskos, en la cuenca del Hernio donde es fama se guardan con más pureza la lengua y costumbres baskongadas.

Pero Otaño, aunque bersolari, por las exigencias de sus peregrinaciones en tierras lejanas, ha iniciado su espíritu en lenguas y culturas extrañas a la propia, sin por esto debilitar el estro heredado.

Es más; esta cultura exótica que motiva amasijos indigestos en nuestros escritores baskongados, robustece el estro originario en Otaño; en prueba de ello, pueden citarse como hermosos ejemplos de ello: Anaitasuna, Aitona gizagaisoa, Elizakuak, Aita-semeak y Auntza larrera; composiciones que con Donostiya denotan sin duda cierta complejidad, pero en las que se reflejan nítidamente las riquezas y virtudes de la lengua y de la cultura genuinamente euskaras.

Esta es la razón de que La Baskonia, que hace doce años se consagra en esta tierra preferida en nuestra emigración al cultivo y propagación de las letras baskongadas, haya correspondido gustosa a las instancias de estimados amigos, que deseaban la recopilación de sus más aplaudidas composiciones; tanto para difundirlas en obsequio del laureado poeta, como para presentar a los verdaderos amantes de las letras y del resurgimiento euskaro la oportunidad de honrarlas, estimulando el talento y la constancia de autores que, como Pedro María Otaño, escriben por noble tensión del espíritu, sin propósito ni perspectiva de lucro inmediato, pero a expensas del tiempo y las ocupaciones que proveen a las exigencias de sus necesidades.

Es, pues, entonces justo se recompensen esa inspiración, ese sacrificio y ese generoso espíritu que en su conjunto reflejan con tan feliz acierto las hermosas y fecundas virtudes de nuestra raza y de nuestra cultura, recreando el espíritu en sus enseñanzas."

\* \* \*

Agertutakoan, La Baskonia aldizkariak onako idazlan au eskeñi zion, bere 386 zenbakian, 1904-ko garagarillaren 20-an, *Poesías baskongadas / "Alkar"* / (Un libro de Otaño) izenburuarekin. Oso-osorik eskeintzen diogu irakurleari, argibide jakingarriak ematen ditu eta.

"Como consecuencia del movimiento euskaro que se ha iniciado en nuestro país, resurge también instintivamente, entre los hermanos de raza de aquí, cierto sentimiento de baskongandismo que está llamado seguramente a coronar la anhelada obra de confraternidad baskongada en este Continente.

Para secundar y fortalecer ese saludable movimiento es preciso contruibuir, por medio de una propaganda decidida, a la difusión de nuestras costumbres y muy especialmente del idioma de nuestros progenitores. Así lo comprende también la Honorable Diputación de Guipúzcoa con la reciente organización de las grandes Fiestas de la Tradición del País Basko que se celebrarán el próximo mes de Agosto en San Sebastián.

La reconquista debe comenzar por la conservación y cultivo de nuestro prehistórico idioma, que ha atravesado un largo período de postración, por las innobles causas que todos conocemos y por la imperdonable indiferencia de los baskongados.

Bien dijo el ilustre Campiñón: cada palabra euskara que se pierde, se lleva un pedazo de alma nacional.

Esas razones y los alentadores ecos que llegan desde el solar nativo han inducido a La Baskonia y a un grupo de amigos y admiradores del laureado poeta D. Pedro M. Otaño, que se encuentra actualmente en estas playas, a obsequiarle con la edición, en un volumen, de una parte de sus preciosas poesías, con el propósito de estimularlo al cultivo de las letras baskongadas, para responder al enriquecimiento de nuestra literatura.

\* \* \*

Pedro M. Otaño, conocido en el Parnaso basko por Pello-Mari, adolece del defecto de una excesiva modestia, condición muy general en nuestra raza; y esta perjudicial modalidad lo tiene retraído en un pueblo de la Pampa, sin que apenas se tenga conocimiento de su existencia.



Sus admiradores entienden, pues, que en este momento evolutivo debe arrancársele de su retiro a ese cantor de nuestras libres montañas e invitarle a cultivar la musa euskara.

Pello-Mari no es "de los del montón"; es poeta por temperamento y por atavismo, pues descende de familia de bersolaris.

Entre nuestros poetas está señalado como un verdadero maestro; pues además de su competencia en el idioma tiene completo dominio de la métrica baskongada.

Sus composiciones son de extraordinaria belleza. Encierran gran elevación de pensamiento y se destacan





Alkar liburuaren argitaraldiak.

por su espontaneidad, y sobre todo por su sencillez y elegancia.

Las numerosas producciones que ha presentado en diversos Juegos Florales, han obtenido siempre las mayores recompensas. Entre ellas merecen citarse: Donostia (1er premio) en San Sebastián; Aitona Gisagaixoa (1er premio) en Mondragón; Anaitasuna (1er premio) en Oyarzun; Limosnatxo bat (1er premio), en San Juan de Luz(1); y Elizakoak, preciosísima composición que figura en su nuevo libro y que sólo ella es suficiente para discernir la fama de un autor.

El volumen de referencia, que su autor le ha bautizado con el significativo nombre de Alkar, acaba de salir a luz, y es preciso que, para estimular a nuestros intelectuales su dedicación a las letras baskongadas, merezca una favorable e inmediata acogida entre nuestros paisanos; la que constituiría dos buenas obras: un homenaje al idioma y otro al poeta.

Baserritarra".

\* \* \*

Andik illabetera, bere 389 zenbakian, 1904-eko uztaillaren 20-an, onela esaten zuan *La Baskonia* orrek:

"Alkar".- Como era de esperar, ha sido muy bien acogida entre nuestros paisanos esta obra que, como dijimos anteriormente, constituye una colección de las más escogidas poesías de Otaño. Recomendamos a los admiradores del inspirado Pello-Mari se apresuren a adquirir los pocos ejemplares que quedan.

Se atenderán inmediatamente los pedidos en esta Administración, siempre que vengan acompañados del importe \$ 1'50 el ejemplar, más 0'5 del franqueo.

\* \* \*

*La Baskonia* ortan, beraren 403 zenbakian, 1904-ko abenduaren 10-ean, onela esaten da:

"Alkar".- La Diputación de Gipúzkoa, considerando altamente útil y provechosa la mencionada obra "Alkar" de don Pedro María Otaño, y teniendo en cuenta los méritos literarios y pruebas palpables de

baskongadismo dadas por dicho señor, ha acordado adquirir ejemplares de "Alkar."

Nuestra enhorabuena a Pello Mari."

\* \* \*

*La Baskonia* orrek berak, zenbaki berean, "Alkar" izenburua duan idazlantxo batean, onela dio:

"Como decimos en la sección de Gipúzkoa, la Diputación Provincial ha acordado adquirir algunos ejemplares de la obra "Alkar" de nuestro buen amigo don Pedro María Otaño.

Si bien esto honra al autor, es sin embargo mucho más satisfactorio para el poeta el alto concepto en que se le tiene y la honradísima crítica que de sus trabajos hace la Comisión de Fomento, informe que tenemos mucho gusto en transcribir, repitiendo una vez más nuestra enhorabuena a Pello Mari.

"La Comisión de Fomento, encargada de informar acerca de esta instancia, tiene verdadero placer en consignar la excelente impresión que le ha causado la lectura de las poesías del señor Otaño, en quien se advierten condiciones de vate popular muy dignas de loa. Fluye de esta modesta colección de versos baskongados, a manera de hálito vivificador, un hondo y generoso entusiasmo por la tierra baska, una feliz penetración de los sentimientos característicos de nuestra raza, y una identificación absoluta con sus aspiraciones más seculares y arraigadas. Más todavía que por la lengua, con ser ésta castiza y saturada de sabor del terruño, es baskongada por el alma la linda colección a que nos referimos. No habrá en ella vuelos pindáricos, ni imágenes deslumbrantes, ni brillantez fascinadora de color; pero en su sencillez y en su modestia responde perfectamente a las cualidades características de nuestra gente, que son más íntimas y reconcentradas que externas y aparatosas. Es muy de notar en el señor Otaño la riqueza del idioma y la soltura y desembarazo con que lo maneja, como quien está acostumbrado a emplearlo a todas horas, y a concebir en él todos sus pensamientos. Quizás esta misma afluencia de la frase, que brota sin esfuerzo ninguno, dañe al vigor de la idea y al relieve de la imagen, que aparecen sin la condensación suficiente, pero, después de todo, no es grave defecto éste, y bien puede dispensarse a quien, sin grandes medios de cultura, ha logrado elevarse desde la humilde condición de bersolari a la categoría de verdadero poeta baskongado, de los más leídos y dignos de serlo, de los más genuinos y exclusivamente euskaros, de los que llevan encendido en su pecho el amor a la tierra sola-

riega de sus mayores y a cuanto integra y constituye la fisonomía moral de la Euskal-erria. Por todo ello, y teniendo en cuenta la protección que V. E. ha dispensado siempre a cuanto contribuye al fomento de las letras euskaras y a la vigorización del espíritu basko, la Comisión de Fomento tiene el honor de proponer a V. E. que se sirva disponer la adquisición de cincuenta ejemplares de la obra *Alkar*, de que son editores los señores Uriarte y C<sup>o</sup>. Tal es el parecer de la Comisión.

Y lo traslado a Vds., para su conocimiento y demás efectos.

San Sebastián, 7 de Noviembre de 1904.

El Presidente, José Machimbarrena. El Diputado Secretario, Vicente Loidi. El Diputado Secretario, José Indart."

\* \* \*

Azkenik, Donostiako *Baserritarra* astekariak, bere 76 zenbakian, 1907-ko agoztuaren 31'n, onela dio:

"*Alkar*.- Izen onekin bataiatuak argitaratu zuan On Pedro María Otaño jaunak liburu bat, nun agertzen dituan baturik bere euskerazko biurtsa edo bertsoak ederrin eta sonatuenak.

Ez daukagu zertan jardun liburu onen edertasunak goitutzen: aski da irakurgaitzallearen izen ezagutua, euskal bertsoetan, berez goitua izateko. Bukatu samartuak dira liburu oiek, eta orain da sasoia, euskal-zaleak, Pello Mariren egiturak eskuratzeko kostu aundi bage, bada pezeta bat du prezioa liburu eder onek, eta bear duanak eskatuko diyo On Bernardo Otaño jaunari, *Avenida, número 25, San Sebastian.*"

Dakigunez, Bernardo au ez da Pedro Mariren osaba bertsolaria, beraren anaia baizik.

\* \* \*

Oiek dira *Alkar* liburuari buruz guk arkitu ditugunak. Garai artako Donostiako egunkarietan beste kritika batzuk egingo dira bearbada, eta berri geiago

eman ere bai. Baiña oiek billatzeak denbora aundia eskatzen duan ezkerro, ez gera artara alegindu.

\* \* \*

Andik ogei ta sei urtera, 1930-an alegia, Otañoren *Alkar* liburu berriz argitaratu zan, beraren beste iru lan erantsita.

Bigarren argitaraldi onen argibideak onako auek dira: *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar / Iñaki Deunaren Irarkolan / Garibay, 28.-Donostia / 1930.*

Liburu onek mesede ederra egin zuan Euskal-Errian Pedro Mariren bertsoak berriro plazaratzearekin. Argitaratze ontan Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz jauna zanaren eskua ibili zala dudarik ez da. Itzaurrea berak egin baitzion.

Irakurleari eskeintzea merezi dualakoan, ona emen *Aitzol*-en lan ori:

#### ERRIKO OLERKARIA

Ez gizon bakoitzak, bakarrik, erriak ere dagozkion gogo ba-dute. Askotan, gizonen gogoak estuak, itxiak izan dira, ordea, eta biotza, kutxa josia antzekoa, daramate. Alaitasunak eta naigabeak, edukiaz, barru-barruan gordeak dauzkate.

Errien gogoak irikigoak, zelaitzsuagoak eta zuriagoak dira. Naigabe beltz eta lañutsuak, estuasun samiñak, zorion alaia, irribarra eta algara, zokonetik sortuaz, erriai biotzetik dijoazkio atarira, errez oso, lurpeko iturritik ur garbia jaiotzen dan bezela.

Gizon ixilla, geienetan bekoitz, askotan zitala. Biotzeko naiak, alai edo garratzak, azaltzen ez dituan erria, criotz-ertzian dagoana da; osasuntsu dana ekaitz aldean kementsu, zigorpean indartsu eta zorionean irribar arpegiaz dager, ordea.

Oñazean antisia, zigorkatuen irrintz bildurgaria, pozaren algara zabaltzen dutenak olerkariak dira, errien sustraicetatik datozen olerkari apalak. Oien bitartez erri-tarren asmo-asnasak, egoki ausnartzen dira.

"Jatorriz, etxe txiroetatik zetozenak ziran "trobalaria-riak", olerkariak, bañan goitar argiak sututakoak zirala-ko, Probentzako lurralde ederrak iñork baño obetoago landu zituzten, nun-nai aberri maitetasuna zabalduaz".(2)

Euskal-erria, biotz-naiaz aberatsa dalako, olerkari ugarien sorlekua izan da. Baño zenbat olerkarien, bertsuak ez ezik, izen utsak ere galdu dira? Antziñakoen berririk gutxi, gerokoenak asko ez, oraingoak bai, guztiak jaso ez ba-ditugu ere.

Olerki errez, goxo eta politak egin zituan Otaño'tar Kepa M. berrio datorrigu. Arjentina mugabeko zelaie-tatik, gizadi onen asieran, euskal usain ederraz kutsutu-tako bertso-olerkiak bialdu zizkiguna, orain bigarrenez dagerkigu. Gizona il ba-zan ere, bere eusko-gogo su-tsua olerki oietan daukagula esan lezakegu.

Ona, benetan, erriko olerkari iaio bat.

### SINISMENA, ABERRIA, MAITASUNA

Oietxek, erriko olerkarien kemen goitarrak, beti, zirikatu dute. Eta ez uste, Euskal-errian bakarrik, alder-di guzietan ere baita. Gizon taldeak sutu eta zorutzen dituzten zaletasunak Jaungoikoaganako, sorlekuagana-ko eta maitetasunaganako zaletasunak izan oi dira. Guda, zitalkeri, gauz zallak eta ekintz arrigarriak, mai-tetasuna, aberria eta siñismenagatik sortu dira(3). Eta olerkariak, iñork baño obetoago biozkada oiek ausnar-tzen dituzten ezkerre, iñork baño obetoago azaldu eta ar-gitaratzen dituzte ere.

Maitetasunaren edertasun zoragarria nork olerka-riak bezin indartsu abestu? Siñismen argi egiazkoaren bitzasun ezititsuak, gizonen begietara, olerkariak bezin ondo nork aurkeztu? Aberriaren eriotz-miña, sorterriaren kate-zauriak, izkeraren bizi negargarriak, nork oler-kariak baño gartsuago eta garratzatsuago eresi?

Maitetasunaren alaitasun eta naigabeak, Larralde, Beltzuntze, Gilbau, Salaberri, Elizanburu eta Arresek, eusko olerkariak, apain eta txukun, abestu dituzte. Gogoaren antsi meak, asmo zerutarrez jantzitako bert-so-olerkietan zabaldu dituzte Detxepare, Zaldubi, Bera, Errenderi, Lekuona eta Elurmendi'k, siñismen sa-koneko ertilari trebeak.

Euskal-erriko zorigaitzak, lege zaarari jaurtitako kateak, Euskeraren izate eta zabalkunde ergala, Arrese-Beitia, Arana-Goiri eta Jauregi'ri eresi negargarriak sortuazi dizkate, odola eusko zañetan sutuaz eta itxaro-pena biotzetan piztuaz.

Siñismenak, sorterriak, maitetasunak ere Otaño olerkariaren bertso abestietan bitzasuna eskeñi dioe. Maitetasun garbia, siñismen sendoa eta eusko zintzota-sun kementsua bere olerki guzietan dagerkigu. Eta ari-garria!

Euskal-erriatik urruti bizi izandu zan, Arjentinako neurrigabeko aran aspergarrietan artaldeak zaintzen, artzai zintzoa bezela, baño bere asmo eta nai guziak sorlekuan, beti, zarabilzkien.

"Ainbesteraño tristetetuzten naiz eremu zabal oietan,  
arbola, mendi eta errekek  
falta diran zelaietan."

Eta amaika bertsoetan naigabe beltz au erakusten digu. Dazterriko bizitza ain zitzaion neketsu!

"Tu proverai si come sa di sale  
lo pane altrui, eta come e duro calle  
lo scendere e'l salir per l'altrui scale."(4)

"Atzerriko ogia samiña, arrotz nagusipean lanari jardutea garratza" Itali'ko olerkari ospetsuenak. Dante agurgarriak, min zeriola, abestu zuan aberriatik aldendu-ta zegoanean.

Baserritxoak, inguruko basoa, auzoko mendiak begi-tartean josiak zaramazkian olerkariak, eta "ombú" zuaitz baten babesera jua da biotzeko antsiak abestu-tzen zituan.

"Orain artzantzan Ameriketean,  
arrantxo baten onduan,  
eguna pasa larrian eta  
jirutzen naizen orduan,  
nere begiak gozatzen dira  
aldameneko ombú'an.

Nere lagunik maitatucna,  
ombu laztana, zu zera,  
argatik nator zure kolkora,  
ni malkoak isurtzera,  
iruditurik naramazula  
atariko-intxaurpera...  
Beti izango zaitut goguan,  
bañan joan nai det ostera  
Euskal-lurreko arbolpe artan  
nere ezurrak uztera."

Ez uste, ordea, nolanaikoa zala Euskal-erriako zuan maitetasuna. Euskal-errian zati berezirik ezagu-tzen etzuan, era bat eta osoa sorterria aitortzen zualako, Bidasoa aruntz eta onuntz bizi geranak aldenduak gau-de, tamalez. Aien abesti, olerki, edestiak eta oiturak atzerrikoak zaizkigula esan genezakegu. Euskotarren anai maitasuna, alkarren ezagutza, olerkari apal eta bi-guñak, urrutiko zelai txiro eta alegreetatik, dei beroaz eskatzen zigan.

“Arbola baten zañetatikan  
sortzen diran landariak  
bezela gera, Bidasoa’ren  
bi aldetako jendiak;  
berdiñak dira gure jatorri,  
oitura eta legiak,  
Ama Euskerak magal berian  
azitako scnidiak.”

Biotzeko nai goxoenak, kutun eta laztan ezitsue-  
nak gure izkerarentzako gordeak ezuzkan baño. “Aiton  
Gizagaisoa”-ko alai eta illunak tanto bat-batera, dituan  
olerki xamurrak irakurri ezazu. Malko samiñak Euskera  
maitatzalle aitona ixurtzen ditu zotinka dasan bitarte-  
an:

“ . . . . laister ilko da  
gure Euskera gaixua,  
. . . . . galdua dago  
gure Euskera gaixua.”

Itxaropen alaiak, ordea, indar kementsu gure oler-  
kariari eskeintzen dio agure minduari bizkor erantzute-  
ko:

“Jauna, alaitzen asi gintzke  
Euskera maite degunak;  
badatoz, ustez ia betiko,  
galdutzat zeuden egunak.”

Igarleen usaia itz oiek daramate; euskera aldapa  
gora dijoakigu, piskabanaka ba-da ere. Noiz, orain be-  
zela, ain polliki apaindu eta orraztu dute euskera idazle-  
ak? Gazteak, ain gogor eta bulartsu noiz euskeraren al-  
de jardun dira, gaurko egunez bezela? Gazte oiek oler-  
karien dei estua entzun dutela esan leike:

“ . . . . Denak nai dute  
lege zarrak dakarrena,  
eta ez dute ezagututzen  
izkuntza dala aurrena.

Miru gaiztoak menderatutzen  
duten bezela uxua,  
etzazutela iltzera utzi  
gure Euskera gaxua.”

Maitasun garbiari eta siñismen sendoari ere,  
Otaño’k olerki beruak eskeñi zizkien. “Elizakoak” eta  
“Amatxo laztanari!” deritzaizkion olerkietan garbi bere  
asmoak dagerzkigu. Guraso eta sorterriari agur egiñaz  
aldendu zanean, baserriko ate buruan:

“Itz baterako au da  
eskatzen zaizuna:  
izan zaitetz non-nai ta  
beti euskelduna”

aitaren aetatik entzun bazituan?

## UT PICTURA, POESIS

Margolarien edo pintatzalleen antzera, olerkariak  
ere, bertso-gaiak apainduta eta txukunduta, gogoaren  
begi aurrera azaldu bear dituztela, esaera zaarrak dio.  
Urrutiko mendiak urdiñez jantzi, aran eta zelaiak orle-  
giz apaindu, baserriak tellatu gorriaz estali eta argi  
alaila, zuri garbiz, egi itxura ematearren margolariak as-  
matzen dun bezela, olerkariak ere urdiña, orlegia, go-  
rria eta zuria antzeko gaiak erabilli bearrean dago, iru-  
diei ipintzeko. “Olerkarien margo motak itzak dira.  
Itzen bitartez, gai eder eta politak gure almenean bizi  
azi bear ditu. Au egin ezik, olerkaria danik ezin iritzi,  
oiala garbi eta margoak eskuan eukitzezogatik, bakarrik,  
margolaria ez deritzaigun bezela”.(5)

Otaño’ren olerkietan gauz atsegingarri eta edertu-  
sunak aurkitu ditugu. Ain egoki olerki gai guzia,  
egiantza emanaz, apaintzen ditu!(6) Egiz margolari az-  
karra dala aitortu leike. Auxe Otaño’ren trebetasun txal-  
ogarriena deritzaigu.

“Aiton gizagaixoa” olerkian erakusten digun zaar-  
ra, bide baztarrian exerita, ez ote degu begi aurrean  
ikusten? Guda galgarriak dakarkian negar, naspillak,  
deadar samiñak, larritasunak, su-garrak ez ote daude bi-  
kain eta bizi alajaña esanak “Maitasun”-eko burni go-  
gorra bezelako bertso kementsuctan?

“ . . . gerra soñuko adarrak,  
deituaz gazte sasoi dutenai,  
utzirik ume ta zarrak...  
...bukatzen dira dama kutunen  
abo politeko parrak,  
itzaldurikan begi alaien  
dizditzarizko txingarrak.(7)  
Aitonak makur, amak auldurik  
ta goseak iltzen aurrak,  
nola ez daukan zer kendurikan  
len tititsu zan bularrak,  
zergatik kolko oparotsuak  
gelditu dira medarrak.  
Lengo arto ta gari soroak  
estalitzen ditu larrak,  
eta etxean ziran jangaiak  
kiskali su eta garrak”.

Itzak olerkariarentzat margoak badira, oraingoan bai Otaño'k margo biziaz guda kalteak erakusten dizkigula!

### OTAÑO BERTSOLARIA?

Bertsolari iaio eta jatorren ateraldi arrigarriak, asmaketa egokiak, galdera zorrotzak eta erantzun paragarriak, zeñek ez ditu entzun? Bertsolari, banaka batzuk, olerkariak izandu dirala aitortu bear. Gai ederrak, asmaketa bizian ari bear dancan, beti erabiltzea, zailtxoa da, noski. Batzuk txukun azaltzen dira nun-nai, ordea; beste batzuk loitsu, bee aldera dijoazela maiz xamar. "Modena"-ko olerkari zigorlariak idatzi zuana bertsolariengatik ere esan leike:

"S'i udiam gli usignoli, al primo albore,  
e gli asini cantar versi d'amore"(7).

"Urretxiñolak eta astoa, egun sentian, maitasun bertoak abestutzen entzun zeikien". Urretxiñolaren antzera atsegín eta alai abesten duten bertsolariak ba-ditugu; arrantz itxusiak egiten dituztenak ere baita.

Orregatik, argi eta garbi Otaño bertsolari utsa dala aitortzea, bildur zaigu. Otaño, olerki guzietan txukun, zuri eta atsegingarri azaltzen dan ertilaria da. Goi-mallako olerkaria dala ere ezin esan, zuzen etsi bearrean gaude-ta.

Artzaintzan urteak igaro bitartean, ikastolctan almena apaindu eta orraztu bazuan, olerkari agurgarriago izango zan, noski.

Askotan berto algal eta beartsuaz, asmaketa ikusgarriak eta irudi arrigarriak jazten zituan. Ain gai ederrak apaintzeko, itz-neurtuetan, moztxo gelditzen zan. "Donostia", Amets bat" eta "Elizakuak", asmaketa irudiaz aberatsak dira. Txukunago jantziak eta apaintxua-gorraztuak izan ba-ziran!

Utsune eta erruak olerki oietan aurkitzea, ez da zaila.

Orain berrogei urte, Amerika'ko bakartasunean eta artzaintzan zebillela idatziak dirala uarte(8), irakurleak.

"Aiton Gizagaizoa" eta "Amerikako Panpetan" irakurri-ta, Otaño olerkaria zala aitortu bearrean izango zera. Gogo sakonetik, kemen goitarra sortzen zitziola berak erakutsi zigun:

"Itotzeko bildurrez  
uzteko urari  
nola esango zaio  
arraiz pizkorrari?  
Ez dedilla egaatu  
uso azkarrari,

eta ixildutzeko  
erretxiñolari?

Amorraia jatorriz  
dijua urera,  
uso ta arranoak  
odoien aldera;  
otsua sasira ta  
satorra lurpera,  
mitxirika argira  
ta auntza larrera.

lñon ezin bizirik  
ez esna ta ez lotan;  
ni lertuko nintzake  
ez kantatzekotan".

Orrelako olerkari asko eta euskeltzale sutsu Euskal-erriak izan ba-litu, cuskera zaarrak argal eta mintsu egon bearrean, ederra aberastasan eta zorion ugariaz inguratua aurkituko genduan.

Aitzol'dar J.

(*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar* (Donostia, 1930) izeneko liburuarentzat idatzitako itzaurrea.

\* \* \*

Itzaldi bat ere eman zuan *Aitzol*-ek irrati-z Pedro Maria Otañori buruz. Ondoren, egunkari batean agertu zan. Erreteriko Enrike Elizetxea zanaren bilduman arkitu genduan, paper-punta batean. Egunkariaren izenik ez da esaten. Baiña, seguru aski, Donostiako *El Día* izango da.

Irakurlea bereala oartuko danez, itzaldi onek zer ikusirik asko du 1930 urtean *Alkar* izeneko liburuari erantsi zitzaion itzaurrearekin.

### OTAÑO'TAR PEDRO MARI

Donostiak, irrati-entzuleei, agur!

Argentina mugabeko zelai aspergarrietan aspaldian lorctu zitzaigun olerkari buruz itz egitera natorkizute.

Arjentinako panpetan ernaitutako eusko bertsolari gorenatzaz.

Bart gaia mamitzen ari nintzan. Ustegabeen neregianatu zitzaidan adiskideak, idazti ederra eskuratuaz, zidan: "To, labetik bero-bero irtendako liburutxo". Azalean auxe zion: "Iparragirre, el último bardo". Salaberria, egille.

Ara, nondik nora, aria naasi leiken. Otaño, Amerika aran abalitsuetan, zutitu zitzaigun olerkari-bertsolariaz jardutea bururatu eta adiskide deabrubak beste matasa dakarkit, bat-batean ari biurtzeko, alajaña... "Adiskide, orain egiz, ik eta nik kantatu lezaguke aurjolas dantzetan ibiltzen giñian leloa:

"Aria, matasa lodia..."

Iparragirre, Otaño antzo-era, Arjentina'n ibillia. Artzaintzan Iparragirre, Otaño artzaiaren gixa. Biak artalde galantak zaitzen. Biak artzai, eta biak olerkari eta bertsolari. Batak eta besteak urduri, artaga-martega, edertasun garra biotz-barnean nabaitzen zuten. Gar onek erri miña, euskera miña, batez ere, sor-arazten zien. Bietatik, neretzat, kutunena Otaño apal eta umilla... Iparragirre alproja xamarrek bertsoetan arrotz erriko kutsugei xamar zaramalakoan nago.

Otaño euskaltzaleak eusko gogoia iaioago senti eta biziago azaltzen du. Iparragirre ere euskaltzalea zala, norik uka ote lezake? Ala ere, Otaño'ren olerki erraitetan eusko odol bat aberatsagoa darabil. Italiako musika gozokeriaz Iparragirre'k bere olerkiak naastutzen baitzuan... Iparragirre *dilettanti* xamar ote zan esan genezake. Otaño ez; euskotar uts-utsa. Erdera ikasi gabea(9). Euskeraz poesiak mamitu, eta euskera senduaz edertu oi zituana, beti. Orregatik, Euskalerra eta euskera miña Otaño'ren biotzean biziagoa, zorrotzagoa... Iparragirre'nen moteltxeagoa... Entzun Otaño'ren antziak:

"Ainbesteraño tristetutzen naiz  
eremu zabal oietan,  
arbola, mendi eta errekek  
falta diraden zelaitan."

Eta amaika bertsoetan naigabe beltz oiek erakusten dizkigu! Atzerriko bizitza ain zitzaion garratza!

"Arrotzerriko ogia samiña, erbesteko nagusiaren lanari burua jostea mingotsa" Itali'ko olerkari ospetsuenak, Dante agurgarria, min zeriola, bere aberriatik urrun zesan.

Baserritxo, inguruko basoa auzoko mendiak begi-ninietan josiak Otaño'k zaramazkian. "Ombu" deri-

tziaion zuaitz kerizpean etzanik negar-antsikia biotz latsatzearren kanta-kantari zion:

"Orain artzaintzan Ameriketean,  
arrantxo baten onduan,  
eguna pasa larrian eta  
jiratzen naizen orduan,  
nere begiak gozatzen dira  
aldameneko ombu'an.

Nere lagunik maitatuena,  
"ombu" laztana, zu zera!  
Argatik nator zure kolkora  
ni malkoak isurtzera,  
iruditurik naramazula  
atariko intxaurpera...  
Betri izango zaitut goguan,  
bañan joan nai det osteria,  
Euskal lurereko arbolpe artan  
nere ezurrak uztera."

Ez uste, ordea, nolanaikoa zala Euskalerrirako zuan maitetasuna. Euskalerrian zati berezirik ezagutzen etzuan; guzia bat eta osoa sorterriak aitortzen zualako. Bidasoa aruntz eta onuntz bizi geranok, aldenduak gaudete, tamalez. Aien abesti, olerki, edestiak eta oiturak atzerrikoak zaizkigula esan genezake. Euskotarren anai-maitasuna, alkarren ezaguntza, olerkari apal eta biguñak, urrutiko zelai txiro eta alegreetatik dei beroaz eskatzen zigun:

"Arbola baten zañetatikan  
sortzen diran landariak  
bezela gera, Bidasoa'ren  
bi aldetako jendiak;  
berdiñak dira gure jatorri,  
oitura eta legiak,  
Ama Euskerak magal berian  
azitako senidiak."

Biotzeko nai goxoanek, kutun eta laztan ezitsuenak gure izkeraentzako gordeak zeuzkan. "Aiton giza-gaixoa"-ren bertso alai eta illunak entzun itzazute. Malko samiñak Euskera maitatzalle aitona ixurtzen ditu, zotinka dasan bitartean:

". . . . . Laister ilko da  
gure Euskera gaixua,  
. . . . . galdua dago  
gure Euskera gaixua."

Itxaropen alaiak, ordea, indar kementsuak gure olerkariari eskeintzen dizkio, agure minduari bizkor erantzuteko:

“Jauna, alaitzen asi gintezke  
Euskera maite degunak;  
badatoz, ustez ia betiko  
galdutzat zeuden egunak.”

Igarleen usaia itz oiek daramate; euskera aldapa gora dijoakigu, pixkabana ba-da ere. Noiz, orain bezela, ain poliki apaindu eta orraztu ote dute euskera idazleak? Gazteak, ain gogor eta bulartsu noiz euskeraren alde jardun ote dira, gaurko egun ez bezela? Gazte oiek olerkariaren dei estua entzun dutela esan leike:

“ . . . . Denak nai dute  
lege zarrak dakarrena,  
eta ez dute ezagutzen  
izkuntza dala aurrena.

Miru gaiztoak menderatutzen  
duten bezela uxua,  
etzazutela iltzera utzi  
gure Euskera gaxua.”

A ze poza Otaño'rena gaurko euskeraren buru-jasotzea ikusi bazuan! Igarle-profeta antzera gure izkeraren pizkundera igarri zuan. Etzan motela “panpeta”-ko eusko olerkariaren burua...

Gaurko Euzkadi'ren ernaitze altsua ikusterakoan, ez aztu, irrati-entzule zintzoa, erbestetik, artaldiak larrean zaitzen zituzten bitartean, itxaso aruntzik bertso xamurretan bidaltzen zituen olerkari eta bertsolari apal eta gixajo aietzaz... Jaungoikoari aien gogoen alde otoi egizu!...”

1. Aldi ontan etzuan Otañok leen saria irabazi. Felipe Casal Otegik eraman zuan, *Gure ama maitia* olerkiarekin; eta bigarren sariaren irabazleak, biak batera eta berrogei ta amarna libera eskuratuz, onako aukeratan ziran: *Harrazpi* Becas jauna, Bidarteko apaiza, eta Pedro Maria Otaño, *Limosnatxo* bat onekin. Erabakia orrela eman zuten epailariak. Baiña erriak bestela jukatuz zuan. Beste oien lanak gaur egunean ez ditu inork ere ezagutzen; Otañoena, berriz, noiznai dabil bertsozaleen aotan.

2. *Historia política y social de los Trovadores*. Víctor Balaguer. (Aitzolen oarra.)

3. *Estudios literarios*. Lord Macaulay. (Id.)

4. Dante. *Divina Comedia: Páiso*, e. XVII. (Id.)

5. *Estética*. Benedicto Croce. (Aitzolen oarra.)

6. Emen, *guziak* edo *du* bearko luke.

7. *Juicio Crítico sobre Petrarca*. Lord Macaulay. (Aitzolen oarra.)

8. Emen *oartu* edo olako zerbait esan bearko luke.

9. Pedro Mariak Buenos Aires'en emandako itzaldia, arek erdera ere oso mendean zeukala erakusten dute.



## EUSKERAREN IRAKASLE

Pedro Maria Otaño, leen esan degunez, euskeraren irakaslea izan zan Buenos Airesen.

Ona nola esaten duan *La Baskonia* aldizkariak, bere 397 zenbakian, 1904 ko urriaren 10-ean:

*"Clase de baskuenze.- Tan pronto como se inaugure oficialmente el hermoso edificio del Laurak-Bat, darán comienzo las clases de baskuenze, que estarán bajo la acertada dirección del señor Pedro M. Otaño.*

*Tenemos entendido también que el señor Otaño está dispuesto a dar lecciones particulares durante las horas que disponga de día."*

Bizimodua atera bear noski. Baiña aldi artan bere gustoko ogibidea zeukan Pedro Marik.

Urrengo illean, bere 401 zenbakian, 1904 ko azaroaren 20-an, onela esaten du *La Baskonia* orrek:

*"Sociedad Laurak Bat: Cátedra de baskuenze. La inauguración de esta cátedra tendrá lugar el lunes 21 del corriente, y los días de clase serán: Lunes, Miércoles y Viernes de cada semana, de 6 a 7 p. m. para los niños de los socios, y de 9 a 10 p. m. para los adultos."*

\* \* \*

Urrengo zenbakian, berriz, 402-garrenean alegia, 1904-eko azaroaren 30-ean, onela esaten du *La Baskonia*-k:

*"Cátedra de euskera. El día 21 del corriente, a las 9 de la noche, tuvo lugar la inauguración de la cátedra de euskera en la Sociedad "Laurak Bat". En el próximo número publicaremos el discurso inaugural leído por el profesor D. Pedro M.<sup>o</sup> Otaño, limitándonos por hoy a tomar nota de una fecha que ha de ser memorable para todos los baskos. La concurrencia fue escogida y el digno presidente de la sociedad, señor Landaburu, leyó también un discurso declarando abiertas las clases de tarde y noche; de 6 a 7 los hijos de los socios y de 9 a 10 los socios, ambas los lunes, miércoles y viernes. Las clases son gratuitas y a ellas pueden asistir los socios y sus hijos como matriculados o simplemente como oyentes.*

*A la terminación del curso se distribuirán premios que sirvan de recompensa y estímulo.*

*Esperamos que las clases han de verse muy concurridas, dando así al euskera la importancia que tiene y a la Sociedad un fin práctico."*

Ikasleak pagatu bearrik ez bazuten, Otañori zegokion soldata *Laurak Bat* elkarteak emango ziola pentsa genezake. Andik sortutako burutazioa izango baitzan Pedro Mari euskeraren irakasle jartzea.

\* \* \*

*La Baskonia*-k etzuan Otañoren itzaldia urrengo zenbakian aitatu ere egin. Aren urrengoan bai, ordea. Baiña etzion irakurleari osorik eskeiñi, zati bat baizik, sarrera onela emanez:

*"Fragmento del discurso pronunciado en el acto de la inauguración de*

la cátedra de euskera de la Sociedad "Laurak Bat", por su profesor D. Pedro María Otaño".

Ona itzaldiaren zati ori:

"Va siendo ya más que numerosa, respetabilísima, y sigue en escala ascendente, la nómina de personajes ilustres, entre los cuales figuran nombres de sabios lingüistas y filólogos, que, después de estudiar a fondo muchas lenguas vivas y muertas y, por ende, con conocimiento de causa, se han confesado maravillados al descubrir el tesoro que se encierra en nuestro arcaico euskera.

Sobre todo los etimólogos, que a pesar de sus esfuerzos titánicos, dedicados al escudriñamiento del origen de infinidad de vocablos de flamantes idiomas, no pudieran dar con una explicación satisfactoria, por falta de lógica, puesto que desconocían la incógnita, han abierto sus sorprendidos ojos a la luz que irradia la verdadera madre de tantas voces que ellos usan y que no sabían a quien agradecer, debido al prurito pedantesco de algunos, de despreciar lo desconocido, máxime si vive arrinconado.

Pero la verdad nació para vencer, y el divino euskera, que como imposición providencial balbucean todas las criaturas del orbe en sus primeras voces articuladas "atha", "ama", así como hubo de ser la primitiva lengua, habrá de ser la última que se desprenda del mundo, en su Juicio Final.

Por algo se dijo que "los humildes serán ensalzados".

Ha habido y no faltan, desgraciadamente, cerca de Euskaria, muchos que constituyéndose en jueces de lo que no entienden, han tratado al euskera con tan olímpico desdén, calificándolo de oscuro, confuso e incomprensible batiburrillo, cuando a él le deben tantísimas voces de su extenso vocabulario.

Existen, sin embargo, honrosísimas excepciones, entre las que descuella la alta figura del R. P. Fidel Fita, profundo escudriñador de las antigüedades españolas, como nos lo indica el eximio Arturo Campián.

Aun para el ilustre P. Fita, fue necesario que un sabio extranjero, el insigne Humboldt (alemán) le recorriera el velo; velo que cubre tantas pretensiones equivocadas.

Dignos son de nuestro reconocimiento aquellos eruditos extranjeros, que, insospechables de parcialidad y amantes de la verdad y el mérito, proclaman las excelencias del euskera y los euskaldunas a la faz del mundo intelectual.

Entre los dedicados al estudio del euskera en Francia, Alemania, Inglaterra, Holanda y Hungría, figuran, entre otros, los nombres de Lecluse, Charencey, Hobelacque, Luchaire, Vinson, Van Eys, Rivary, Goldman, Fillips, Mahu, Klaproth, Adelung, Sayee, Scheleicher, Broca, Withe etc. etc., sobresaliendo las grandes figuras del Príncipe Bonaparte y del antes mencionado Humboldt.

En el país euskaro tampoco han faltado hombres amantes de su len-

gua y que se han dedicado a su estudio, cuyo camino literario fue abierto por el gran P. Larramendi.

Tenemos, pues, numerosos autores a quienes recurrir en caso de necesidad.

Contamos con varios diccionarios, siendo el de Larramendi, a mi juicio, el de más sencilla y rápida consulta, y el de Novia de Salcedo de mayor estudio, por ser etimológico.

Hay algunos más, que, si bien son muy importantes, no creo reúnan las condiciones de los que he citado.

Se anuncia, sin embargo, la aparición de uno nuevo, que habrá de superar a todos.

Poseemos también una serie de textos, manuales y gramáticas, siendo entre éstas la de más aliento, que yo conozca, la del Sr. Arturo Campión, verdadera obra maestra de admirable factura.

Prescindo de citar los nombres propios de numerosos autores, a fin de no hacer demasiado molesta esta sencilla exposición y temeroso de incurrir en injustas e involuntarias omisiones.

Reconocido el mérito de los estudiosos investigadores, más o menos eruditos, hay otros elementos de suma importancia, de que, gracias a Dios, no carecemos, para la conservación pura y sana de la lengua, y son: los padres predicadores baskongados, pues el púlpito, que es la Cátedra del Espíritu Santo, debe ser también, y lo es en muchos puntos, cátedra de baskuenze; los que escriben en verso o

prosa baskongados, y aquellos modestos e inteligentes bersolaris (koplaris o koblakaris) populares, que son verdaderos sostenedores del alma euskalduna, pues para el basko baserritar, o sea el basko puro, no hay otro espectáculo que le entusiasme tanto como una controversia entre dos o más improvisadores o bersolaris de fama.

Otro de los principales puntales del euskera es el canto, o sea la música, para lo que se presta tanto o más que la famosa lengua italiana, según la opinión de muchos entendidos en el arte."

Oneraiño Otañoren itzaldiaren zatia. Ondoren, onela bukatzen du *La Baskonia* aldizkariak:

"Expuso a continuación el Sr. Otaño algunas particularidades del euskera y el método de enseñanza que se propone seguir, cosas ambas que los alumnos y oyentes verán desarrollar durante el curso, y que suponemos no tiene interés para todos los demás."

Otañorentzat euskeraren lau eusgarrri sendo ziran, beraz, sermolariak, idazleak, bertsolariak eta kantua. Oker etzebillela esango genduke.

Baiña lau aitamen oietan bertsolariena da biotzaren barru-barrutik atera zitzaiona. Pedro Marik, naiz eta Ameriketean bizi, bertsolarien saioak oso gogoan zituala agertzen baitigu. Orduko bertsolarien izenak ere buruan ondo gordeta eukiko zituan: Pello Errota, Udarregi, bere osaba Jose Bernardo, Gazteluko Gorri, Txirrita...

\* \* \*

Andik illabete batzuetara, bere 415-zenbakian, 1905-eko apirillaren 10-ean, idazlan luzexego bat agertu zuan *La Baskonia*-k, Otañoren maisu-lanei buruz. Onela dio:

"*La escuela de baskuenze de la Sociedad "Laurak Bat"*. Como curiosidad, publicamos a continuación una de las últimas lecciones de la clase de baskuenze de la Sociedad "Laurak Bat":

*He dicho que el invierno es frío:* Esan det negua otza dala.

*Y te he dicho que es negro:* Eta esan dizut otza dala.

*Tú has contestado que sí, que es frío:* Zuk erantzun dezu baietz, otza dala.

*Pero me has contestado que no es negro:* Bañan erantzun dirazu ez dala beltza.

*Sino que es blanco (alanbere) (bizkaino):* Baizik txuria (zuriya) dala.

*Que en Baskonia suele ser muy blanco:* Euskal-errian txit txuria izan oi dala.

*Costumbre:* Oitura.

*Suele ser:* Izan oi da (izaten da).

*Soler:* Oi.

*Suele (pasivo):* Oi da.

*Suele (activo):* Oi du.

*Suele ser:* Izan oi da.

*Suele hacer:* Egiñ oi du.

*Las nubes:* Odeiak (odeyak).

*La niebla:* Lañoa.

*La lluvia:* Euria (ebiya).

*Nubes negras se ven en invierno:* Odeï beltzak ikusten dira neguan.

*Es verdad; pero la nieve es blanca:* Egia (egiya) da; bañan elurra txuriya da.

*Y también el hielo:* Eta baita izotza ere.

*También el granizo:* Baita ere kazkabarra (txingorra) (abazusa).

*La escarcha tampoco es negra:* Jela ere (orma ere) ez da beltza.

*Pero la vida del pobre es negra en invierno:* Bañan pobreaken bizimodua beltza da neguan.

*Pero eso, ¿cuándo no es negro?:* Baña ori noiz ez da beltza?

*En verano no lo es tanto:* Udán (udaran) ez da ainbeste.

*En verano se vive fácil:* Udán errez (erraz) (aisa) bizitzen da.

*Fácil y bien:* Aisa ta ondo.

*Más fácil y mejor que en invierno:* Aisago ta obeto neguan baño.

*Es decir que el verano es mejor:* Da esatea, uda obea dala.

*Para el rico todos los tiempos son buenos:* Aberatsarantzat denbora guztiak onak dira.

*Rico:* Aberatsa.

*Pobre:* Pobre (arlotca).

*Para los ricos:* Aberatsarantzat (aberatsentzako).

*Para el pobre:* Pobreakarantzat.

*Para los pobres:* Pobreakarantzat (pobrirentzako).

*Adelante vamos:* Aurrera guaz.

*Vámonos adelante:* Guazen aurrera.

*Vamos delante:* Aurrean guaz.

*Vamos por delante:* Aurretik guaz.

*El señor Otaño emplea en la enseñanza un sistema fácil y agradable, y es de lamentar que esta sección - la más importante de la sociedad bajo el punto de vista de su carácter- no se vea más concurrida, tal vez, como hemos oído decir, porque el curso dio principio en pleno verano, época en que la gente se desbanda huyendo del calor, o porque para muchos parecía su estudio un problema enormemente dificultoso.*

*La primera causa, pase, como pasan muchas cosas en este mundo; pero la segunda queda destruída con lo que han aprendido los alumnos que han tenido la perseverancia de concurrir puntualmente.*

*Además, conocemos casos que de las cátedras de baskuenze abiertas en nuestro país en estos últimos años, han salido alumnos, no sólo hablando correctamente el idioma de nuestros padres, sino que han escrito gramáticas con distintos procedimientos para facilitar la enseñanza. Nada más elocuente que esta prueba para desterrar tal idea. Para todo hace falta voluntad y constancia, pues lo demás pertenece al género convencional más o menos cándido.*

*Ahora tenemos entendido que varios socios están dispuestos a inscribirse para el segundo curso, a los que es oportuno aconsejar asistan en calidad de oyentes, ya que han comenzado las lecciones en forma dialogada.*

*En este sentido, opinamos que la Comisión Directiva debe incitar a los socios, a fin de que no sea la Sociedad Laurak Bat el único centro de Buenos Aires en que no se habla el idioma de la colectividad*

que representa. ¡Triste anomalía que pone de relieve nuestra indolencia!

*Para terminar, se nos ocurre una digresión que viene al caso.*

*Nos contaba días pasados un amigo que acaba de llegar, que en San Sebastián le dirigió un inglés una pregunta en basko a un paisano nuestro, ¡y no sabía contestarle!*

*El inglés, todo asombrado, le dice:*

*- Gizona! Zere erriko izketa ez al dakizu?"*

\* \* \*

Urrengo zenbaki batean 419 garreanean, 1905-eko maiatzaren 20-an, Otañok euskera erakusteko erabiltzen zuan beste ikaskizun bat argitaratzen digu *La Baskonia* aldizkariak:

#### "Cátedra de baskuenze de la Sociedad Laurak Bat.-

*En virtud del agrado con que fue recibida por muchos lectores la lección de la cátedra de baskuenze que publicamos anteriormente, damos a conocer otra de las últimas, que, entre otros casos, establece el curioso significado que ofrecen las terminaciones tasuna y kerria.*

*Entonces, ¿habíais trabajado mucho?:* Orduban lan asko egiñ izan zenduten?

*Os habíais afanado en ganar:* Saiatu izan ziñaten irabazten.

*Pero tú habías comido poca carne:* Bañan zuk aragi gutxi jan izan zenduben.

*No, he dicho que había comido mucha carne:* Ez; esan det aragi asko jan izan nubela.

*Pero que no habíamos comido pan:* Bañan ez gendubela ogirik jan izandu.

*Dios sabe cómo habíamos andado:* Jaungoikoak daki nota ibilli izan giñan.

*Habíais visto más de lo que a mí me parecía:* Nik uste baño geiago ikusi izan zenduten.

*El parecer:* Ustea (o iritzia).

*Me parece que no es mentira:* Uste det ez dala gezurra (derizat, derizkiot).

*Me parece que es verdad:* Uste det (irizten diot) egiya dala.

*Nadie sabe mejor que él mismo:* Iñork ez daki berak baño obeto (obeki).

*Antes que a usted me había dicho a mí:* Zuri baño lenago esan izan ziran neri.

*Antes que usted y que ningún otro lo había sabido yo:* Zuk eta beste iñork baño lenago jakiñ izan nuben nik.

*Nadie sabe como uno mismo:* Iñork ez daki norberak bezela.

*Uno mismo:* Norbera; activo, norberak.

*Mas que sea bueno:* Naiz ona izan.

*Aunque sea malo:* Naiz (o txarra) gaiztoa izan.

*Ora de día, ora de noche:* Naiz egunez, naiz gabaz.

*Aunque sea esto o lo otro:* Naiz au izan, naiz beste-a izan.(1)

*Tanto lo uno como lo otro:* Naiz bata ta naiz beste-a.

*¿Quién conoce su propia fealdad?:* Nork ezagutzen du bere itsusitasuna?

*La fealdad:* Itsusitasuna o itxusitasuna (zatartasuna).

*La hermosura:* Edertasuna.

*La grandeza:* Aunditasuna.

*La pequeñez (natural):* Txikitasuna.

*El baskismo:* Euskalduntasuna.

*La bondad:* Ontasuna.

*Los bienes (riquezas):* Ondasunak.

*Ruindad (natural):* Txartasuna.(2)

*Desmedrado, pequeño, ruin:* Txatarra,

*Ruindad, bajeza, pequeñez:* Txatarkeria, txarkeria, txikikeria.

*La maldad:* Gaiztakeria.

*Simpleza, necedad, melindre:* Ergelkeria.

*Simple, necio, melindroso:* Ergela.

*Suciedad, porquería:* Zikinkeria.(3)

*Sucio, puerco:* Zikiña.

*El perdón:* Barkazioa.

*Perdonar:* Barkatu."

\* \* \*

Urrengo urtean, 1906-ko apirilaren 10-ean, bere 451 zenbakian, onela esaten du *La Baskonia* aldizkari orrek:

*”Cátedra de baskuenze - Patrocinada por un núcleo de sostenedores de nuestro milenario idioma, y bajo la competente dirección del Sr. Pedro M. Otaño, comenzará a funcionar desde el 16 del corriente, en la Escuela Superior de Comercio de la Nación, calle Moreno 1157, entre Lima y Salta, una Cátedra de Baskuenze, los días lunes, miércoles y viernes, de 8 a 9 de la noche.*

*Tenemos entendido que para facilitar la enseñanza y amenizar las clases, se empleará un sistema nuevo y práctico, que seguramente ha de dar buenos resultados.*

*La enseñanza es gratuita y excusamos recomendar a nuestros lectores utilicen esta oportunidad, aconsejando de paso a sus allegados y relaciones hagan lo propio, contribuyendo así a una obra patriótica e instructiva; pues no debemos olvidar que el baskuenze es nuestro patrimonio hereditario y el único monumento viviente que nos queda, por cuya conservación estamos todos obligados.*

*El día que perdamos el idioma, matamos nuestra personalidad irremisiblemente.*

*Véase la prueba en la metamorfosis operada en las zonas que no se habla baskuenze. Han cambiado de fisonomía, ¡pero qué fisonomía! Mejor es no menearlo.*

*Si en estos últimos años, no hubieran dado felizmente la voz de alerta algunos patriotas que han hecho despertar el espíritu euskariano, la apatía se hubiera convertido en gadaña de nuestro idioma y de nuestras seculares leyes, y las majestuosas montañas de nuestra amada Baskonia habrían quedado solamente como panteones de una raza indómita y ejemplar, abismada por una generación de cretinos y esclavos.*

*A la obra de restauración iniciada en estos últimos años, debemos coadyuvar todos los hermanos de raza, uniéndonos estrechamente para conseguir el fomento de la lengua nativa y la recuperación de nuestros Fueros, honrando así la memoria de aquellos venerables antecesores que con tanta altivez sostuvieron la integridad del Solar baskongado.”*

Emen esaten danez, eskolak astelen, asteazken eta ostiraletan ematen zituan Otañok, *Escuela de Comercio* dalako ortan, gaueko zortzietatik bederatzietara. Baiña *Laurak Bat* elkartean ere egun oietan zituan eskolak, seiretatik zazprietara eta bederatzietatik amabietara. Bi toki oiek alkarren oso

urbil ez bazeuden, etzan oso errez moldatuko.

Edo-ta *Laurak Bat*-ekoa utzi eta *Escuela de Comercio* ortan bakarrik ematen ote zituan eskolak? Ez dakigu zer izango zan.

\* \* \*

Azkenik, *La Baskonia*-ren urrengo zenbakian, 452-garrenean, 1906-ko apirillaren 20-an, onela esaten da:

*”Cátedra de baskuenze - Ante numerosa concurrencia se inauguró el lunes pasado, en la Escuela de Comercio de la Nación (Moreno 1157), la cátedra de baskuenze que dictará el profesor D. Pedro M. Otaño.*

*El discurso de apertura leído por el Sr. Otaño fue una hermosa síntesis de las bellezas que encierra nuestro secular idioma. (Sentimos no poder reproducirlo en este número por falta de espacio).*

*Los oyentes le prodigaron un caluroso aplauso, prometiéndole puntual asistencia.*

*Las clases son absolutamente gratuitas, costeadas por un núcleo de sostenedores de nuestro idioma, y pueden concurrir a ellas aun los que no sean baskos.*

*Volvemos a recordar que los días designados son lunes, miércoles y viernes, de 8 a 9 de la noche”.*

\* \* \*

Baiña urtebete bakarrik egin zuan Pedro Marik euskeraren irakasle bezela. *Libro de Memorias del ”Laurak Bat”* (1905) liburuan arkitu degunez, eginkizun ori uztea erabaki zuan berak. Baita ala egin ere, urrengo esku-titz onen bitartez.

### “Cátedra de basko

*El día 27 de Noviembre 1905 el profesor de la cátedra de basko diri-*

gió a la Comisión la siguiente nota renuncia:

Buenos Aires, Noviembre 27 de 1905 Señor Presidente de la Comisión Directiva de la Sociedad Laurak Bat, don José Sanllorenti.

Presidente.

Distinguido señor: Al terminar el segundo semestre del funcionamiento de la Cátedra de Baskuenze, creada con plausibles fines por la C. D.(4) de su digna presidencia, me consideraría indigno de la confianza y distinción otorgadas a mis escasos merecimientos, al nombrarme Director de la mencionada Cátedra, si a mi vez no correspondiera con sinceridad y nobleza.

A pesar del buen deseo y los esfuerzos consiguientes de la C. D. y no obstante de haber, el suscribente, tratado de cumplir con su deber, es notorio e innegable que el resultado ha sido lamentable, en lo referente al número de alumnos que ha asistido a clase.

No ha correspondido, pues, ¡triste es confesarlo!, la colectividad baskongada a los nobles y elevados fines perseguidos por esa digna C. D, pero, a mi ver, esta misma indiferencia de la mayoría realza el mérito de los pocos que, sin dejar de atender a sus múltiples obligaciones, se han amañado para acudir, constantes e infatigables, a estudiar con cariño el idioma, por excelencia, de sus gloriosos antepasados, haciendo honor a la noble sangre que corre por sus venas.

Y ¿no es doloroso, señor Presidente, que estos dignísimos alumnos, a quienes miro como a mis propios hijos, se queden a mitad del camino, defraudando así sus legítimas esperanzas, cuyo fracaso sólo es imputable a los indiferentes?

Sin embargo, agobiado por el peso abrumador de la realidad que palpamos, no puedo menos de reconocer que se impone, al menos por ahora, la suspensión de la querida Cátedra, hasta tanto se derrita el hielo de la indiferencia de nuestra colectividad y ésta, volviéndose por sus fueros, quiera ostentar con más amor el preclaro renombre legado por sus mayores.

Por las razones que dejo expuestas, creo de mi deber, señor Presidente, presentar a esa digna C. D. mi renuncia como Director de la Cátedra de Baskuenze de la Sociedad Laurak Bat, cuyo empleo llenaba mis aspiraciones morales y materiales como baskongado y como padre de familia.

Reciba, pues, la C. D. en general y cada uno de sus miembros en particular, haciéndolo extensivo al Señor Presidente don Nicomedes M. de Landáburu, ausente en la actualidad, la expresión del profundo agradecimiento de su affmo. S. S. que, no obstante la renuncia que tiene el honor de presentar, queda, como siempre, a sus órdenes y los saluda con su más distinguida consideración.

Pedro M. Otaño

Ella fue contestada en los términos que a continuación se expresan:

Señor Pedro M. Otaño.

Estimado señor:

*Esta Comisión directiva se ha impuesto de la nota que con fecha 27 de Noviembre ha tenido a bien dirigirle presentando su renuncia de profesor de la Cátedra de basko.*

*Las razones en que funda su renuncia revelan por su parte delicadeza meritoria que esta Comisión ha sabido apreciar y desea de corresponder en alguna forma a ella, al darle a V. las gracias por su ilustrada actuación en el cargo que ha desempeñado, ha resuelto al mismo tiempo gratificarle con la suma de quinientos pesos moneda nacional.*

*Me es grato saludar a V. con mi mayor consideración.*

T. Otaegui,  
Secretario

José Sanllorenti  
Vicepresidente

Zer pentsaturik asko ematen dute bi eskutitz auek Ikasle gutxi izan zituan Otañok. Zergatik ote? Arrazoi bat argi eta garbi adierazten du berak: euskaldunen zabarkeria. Orduan ez ezik, gaur egunean ere gaitz ortaz kutsatuta gaude gure lur ontan jaiotako asko eta asko. Pedro Mariri gertatuagatik ezin asiko gera, beraz, aitarenga.

Bera ere irakasle ona ote zan? Galdera orri erantzuna eman dezaioke-nik ez dago gaur iñor lurraren gaiñean. Baiña gauza bat esan genezake batere zalantzarik gabe: arek bere borondate eta biotz guzia jarriko zuala lantegi ortan. Ain zuzen, eskutitz ontan azaltzen danez, uzteko erabaki ori tristuraz beterik artzen du gizarajoak.

Beste zera bat ere gogoan artu bear da. Euskera erakusteko metodo eta bi-deak artean jaio berri-berriak ziran Otañoren garaian. Are geiago: or goien ikusi degunez, berak asmatu eta idatzi bear izan zituan ikaskizunak eta zertzelada guziak. Geroztik urte asko igaro dira, irakasle asko saiatu ere bai langintza ortan, eta esan bearrik ez dago beren irakaskintza ori asko obetu dutela danen artean. Ala ere, ikasle askok aspertu edo nekatu eta alde egiten dute gaur ere.

Nola etzan gauza bera gertatuko Pedro Mariren garaian?

Ezkutitz onen esaldi bat arretaz aztertu bear degu: "...cuyo empleo llenaba mis aspiraciones morales y materiales como baskongado y como padre de familia."

Euskalduna zan aldetik, lantegi orrek amets guziak betetzen zizkiola, alegia. Baita diru premiak ornitu ere, familiaren guraso zan aldetik. Langintza ortatik ateratzen zuan bizibidearekin konforme zegoan, beraz.

Ala ere, iñork beartu gabe, utzi egiten du bere lantoki maitatu ori: "*no puedo menos de reconocer que se impone, al menos por ahora, la suspensión de la querida Cátedra.*" Ajolakabe edo gibelaundi bat izan balitz, jarraitu egingo zuan. Baiña aren kontzientzia fiñegia izan ortarako.

*Laurak Bat* elkarteko zuzendariak garbi asko ikusi zuten ori: "*Las razones en que funda su renuncia revelan por su parte delicadeza meritoria...*".

Erabaki orrek ekarriko zizkion ondorioak ere ondo ikusiko zituan, bada,



berak: berrogei ta zazpi urterekin, eta etxean emaztea eta sei aur izanik, lantoki berri baten billa asi bear. Ain zuzen, berriro ere bizilekuz aldatu egin-go zan: Buenos Airestik Rosario de Santa Fe irira. Ori ere etzuan noski gustoko lana izango. Arek mundu ontan eraman zuan guruzbidearen beste pauso bat esan genezaioke orri.

*Laurak-Bat* elkarteko nagusiak Otaño errugabea zala garbi ikusten zuten. Baiña bizimodua ateratzea lan erreza izango etzuala ere bai. Orregatik, bosteun *peso* eman zizkioten, esker-erakutsi bezela. Danok dakigunez,

nazio guzietan diruaren balioa ikaragarri erori eta jetxi da geroztik, eta Arjentinan are geiago oraindik. Ala, eman ziotena gaur utsaren pareko iduritzen bazaigu ere, laguntza estimagarria izango zan garai artan.

---

1. Naiz, *conjunción disyuntiva que equivale a "mas que", "ora", "aunque"*. (La Baskonia-ren oarra.)

2. La terminación "tasuna" *significa virtud o defecto natural.* (Id.)

3. La terminación "keria" *significa cosa injusta o mal consciente.*(Id.)

4. Comisión directiva.

## ATOZ, PEDRO MARI

Pedro Mari emendik izkutatu eta Arjentinan bizi zalarik ere, etziran artaz aaztutzen Euskalerriko euskaltzale eta bertsozaleak.

Aren berriak nolabait ere ikasten zituzten: *Artzai-Mutilla* operaren letra moldatu zuala, *Alkar* liburua argitaratu zuala, eta abar.

Albiste on oiekin pozturik, bertsoak moldatu izan oi zituzten, eta garai artako egunkari eta aldizkarietan argitaratu, zorionak emanez eta ostera Euskalerrira lenbailen etortzeko eskatuz.

Bertso-sail oietako batzuk Pedro Mariren beste sailen batekin lotuta daude eta aurrerago eskeiñiko dizkiogu irakurleari.

Gaiñontzekoak, berriz, oraintxe dute beren leku eta txanda.

\* \* \*

Ona nolako bertsoak argitaratu ziotuan Kaietano Sanchez Irure bertso-jartzaille ugariak *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1901-eko ilbeltzaren 19-an:

DIOSALA

- 1/ Itsas arunzdik arkitzen zera Euskal-erritikan joanik, maite dituzun leku alaiak ala biarda utzirik; sinista zazu egon naizela triste iya gaxoturik, ez nubelako aspalditxuan, Otaño, zure berririk.
- 2/ Lengo batian nere eskura papertxo bat iritxirik, goitik berañon irakurrita gelditu nitzan pozturik; zeren topatu deran izena Pedro Mari diyolarik, ez nuben uste oraindik ere orla aritzen ziñanik.
- 3/ Nere ondotik urruti zaudez, Otaño, aspalditxotik, bañan alare oroitzen nazu, ez nago oso azturik; irakurri det *Artzai-Mutilla* ortik onuntz bigaldurik, lenagotikan berriz etxian *Zerbait* badizut oraindik.
- 4/ Ameriketean euskaldun danak daukaizkitzu arriturik, Otaño, zure bertso ta beste gauz asko irakurririk; ni berriz nago aspalditxotik zein zeran dakitelarik, beti esaten oraiñ artian iñor ez dala oberik.

5/ Esan naita're biar dan diña  
eziñ det gaur iñondikan,  
saiatu arren ez det topatzen  
nai detan aiñ itz onikan;  
Ama Euskerak ez dizut uste  
bat bakarrik dubenikan,  
ori izkuntz au buru dalarik  
beste guztiyengandikan.

6/ Agur, Otaño, lagun maitia,  
agur urrena artian,  
zer atsegiñ on artuko detan  
ikusten zaitutanian!  
biyotzetikan esaten dizut:  
berriz oneratutzian,  
lartan gozo bat emango dizut  
bizi banaiz bitartian.

\* \* \*

Beste sei bertso jarri zizkion  
Otañori Kaietano Sanchez Irure orrek  
berak *El Correo de Guipúzcoa* egun-  
karian, 1903-ko martxoaren 28-an:

ATOZ, ATOZ, PEDRO MARI!

1/ Urruti zaudez urez aruntzidik,  
Pedro Maria Otaño,  
zalla dalarik batek naita're  
noiznai joaten orreraño;  
zure berririk ez det izandu,  
lagun, lengo bateraño,  
ori galdezka ibilli arren  
emen beti oraiñdaño.

2/ Triste narabil aspalditxotik  
nere Donosti maitian,  
lagun leiala, zaudelako  
arrunt oso apartian;  
naiago nuke ortxen banego  
gaur zure aldamenian,  
pen obek danak alde egiñ da  
bizitziarren pakian.

3/ Poza aundia artuko luke  
Ama Euskerak barrendik,  
lengo gisara lagun maitia  
emen berriz ikusirik;  
aspalditxotik ojuka dago  
besuak zabal-zabalik,  
“Atoz onera, nere semia!”  
itxiltzen ez dezularik.

4/ Ama Euskera nere gisara  
aspalditik triste dago,  
joan zeralako bere ondotik  
nai zuen bañan arago;  
eta gañera zaitubelako  
biyotzetikan naiago,  
emen geraden euskaldun asko  
aietxek bañan geiago.

5/ Ama Euskerak onik ez dauka  
gajuak aspalditxotik,  
oso aparte zaudezelako  
joanikan bere ondotik;  
zure zai dago esan bezela  
lartan on bat eman nairik,  
ez dubelako emen topatzen(1)  
semetxo maitiagorik.

6/ Naitasun asko diyozularik  
jaio ziñan erriyari,  
bai eta ere ala berian  
beti Ama Euskerari,  
onela Amak deitu ezkerok  
biyotzetik semiari,  
zauden lekutik danak lajata  
atoz, atoz, Pedro Mari!

\* \* \*

Urrengo sail au ere *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian agertu zan,  
1903-ko garagarillaren 8-an, *Eduardo Egaña* izeneko batek firmatuta. Berari  
buruz ez dakigu ezer ere.

Baiña, gero esango degunez, *Eduardo Egaña* izeneko baten aitamenak egingo dira aurrerago liburu ontan. Ernaniarra zan, baiña ogei urtetan Donibane-Lohizunera bizi izatera aldatua. Nik 1963 urte inguruan ezagutuan, eta larogei bat urtekoa zalarik. Bertso aukerak jarriak ote dira? Ez dakigu. Oso gaztea bearko zuan, baiña ditekena da. Ain zuzen, urrengo bertsoetan ageri danez, orduko bertso-jartzailleak etzuten ezaguna. Agian bere leenengo lana izango zuan.

\* \* \*

#### PEDRO MARIA OTAÑO-RI

- 1/ Ai, Pedro Mari, izandu zera gizon bat danik onena, urruti zaudez ta pentsatzian oso iltzen zait barrena; noiz juntatuko ote geraden len bezela alkargana, tristura aundiya zuk badakizu guretzako dakarrena, penarən birez beltzez jantzita bizi da jende geiena.
- 2/ Arrai gaiztuak sartu ziraden gure ibaian barrenen, orrelakorik gertatutzerik iñork pentsatzen etzuben; gure izkuntza txit maitatubaz bizi giñanak gu emen, ugal eraso gaiztoa orrek zertara ekarri gaituben, zure anaiak ikusitzera(2) etorri zaitez lenbailen.
- 3/ Arrai gaiztoak sartu ta gero priziti asko da gallendu,(3) atzerritikan etorrita're emen nai dute agindu; kanpoko arraz gaizto guziya obe genduke guk kendu, euskera galdu zaigula eta Ama gaixuak esan du: "Nere semiak, saia zaitezte, eta jardiña txukundu".
- 4/ Garbitu zagun jardiña ori gogoz lanian asirik, zein ez gerade kupituko modu onetan ikusirik? Oraingo ontan kontrariyuak emen dauzkagu azirik, zenbait pertsonak ez du izaten gauza oietan lotsarik, utsa litzake Ama maitia egongo balitz bizirik.
- 5/ Pedro Mari, euskaldun ona, beti ori det aitortzen, ura dan bezin jakintsurikan iñor ez baita arkitzen; arren berriyak iñoiz anaiak onera ditu ekartzen, Elizegi eta bere lagun au(4) besterik ez da akordatzen, badakizu ta saia zaitia al dan guziya eskribitzen.
- 6/ Bertso batzuek nik jarri ditut emen euskeragatikan, ai, Pedro Mari, ondo dakigu zuk ez dezula kulparikan; zori gaiztoan zu juan ziñan zere lurra ontatikan, berri txarrikan ez du bialdu arrek Amerikatikan, barkatu nazu ta eskumuñak danari nere partetikan.

\* \* \*

Esan degunez, *Eduardo Egaña* dalako ori ezezaguna zan bertso jartzailleen artean. Onako bertso auek zuzendu zizkion Kaietano Sanchez Iruerek, garai artako itz neurtzailleen izenak emanaz. *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian azaldu ziran, 1903-ko garagararrillaren 15-ean:

### ZURI, ON EDUARDO EGAÑA

- 1/ Ama Euskera beste seme bat asko maitatzen dubena dezuz lengoan paper batian irakurri dizutena; itz neurtzalle txit egokiya, moldatutzen dakiyena, Pedro Mari ta beste geiago ezagutzen ditubena.
- 2/ Pozturik nago lertu nairikan barren dana estuturik, gizon argi bat lanket onetan uste gabe ezauturik; biyotz barrendik esaten diyot anai on batek arturik, gutxi dirala Euskal-erriyan au bezelakoxe fiñik.
- 3/ Otaño eta Egaña biyok gogoz asi ezkeroztik, Artolatarrak ta Elizegi arturik aldamenetik; Arrese-Beitia ta Iraola, Inzagarai ere bestetik, bertsubetako zertako bada iñon topatu oberik?

- 4/ Beste geiago ere badira asko moldatzen diranak, ez nua bada gaur esatera lan lagur onetan danak: Uranga, Kasal, Ramon Gelbenzu, itz neurtzen dakitenak, Emeterio, Ramos eta Elias, Ganboa, Arzak bada onak.
- 5/ Jaun obek danak txit onak dira itzkuntz onentxen gañian, sari askotxo irabaziyak bada bertsoke lanian; gabaz ta egun ari diranak egiñal-egiñalian, Ama Euskera bizitu dediñ gure Euskal-erri maitian.
- 6/ Abek txit onak izanagatik bañan... zu're, alajaña!, bakar-bakarrik esan liteke bazerala danak aña; laister egingo dituzu bada oiek ainbeste azaña, baldin onela aitzen bazera, on Eduardo Egaña.

\* \* \*

Urrengo idazlan au ere, itz-lauz eta erderaz moldatua, *El Correo de Guipúzcoa* dalako ortan agertu zan, *P. de Echeverría*-k firmatuta:

PEDRO MARIA OTAÑO

*“Reciente aún el entusiasmo producido por las magníficas fiestas que anualmente celebra la Diputación pa-*

*ra conservar vivo el fuego sagrado del amor al idioma, leyes y costumbres de nuestros antepasados, nada tan oportuno como dedicar un recuerdo a un paisano nuestro, que al otro lado de los mares llora la ausencia de las tierras en que se meció su cuna y ansía respirar el aire embalsamado de nuestras montañas.*

*Con aptitudes para cualquier trabajo, de ilustración poco común, bascófilo eminente, Pedro María Otaño puede y quiere ser útil a su país, del que es amante como ninguno.*

*El autor de Chepecha, Amets bat, Elizakuak, Limosnacho bat y otras composiciones coleccionadas bajo el modesto título de Zerbait; el poeta premiado repetidas veces en los Juegos florales euskaros por sus poesías Donostiya, Aiton gizagaisoa y Anaitasuna; el que en lejanas playas hizo latir de entusiasmo los corazones vascos con su Artzai mutilla, ópera representada con éxito en Buenos Aires; el que recientemente ha publicado, con gran elogio del periódico La Basconia de la citada capital y la revista Euskal-Erria de San Sebastián, la preciosa composición Auntza larrera; el mejor improvisador o versolari ¿qué duda tiene que puede prestar grandes servicios a la literatura vascongada, si se le pone en condiciones para ello?*

*Ese sin número de pequeños cantos que corriendo de boca en boca se transmiten de padres a hijos y que perpetúan épicas hazañas, acontecimientos importantes o alegres, tipos y*

*ocurrencias, formarían, depurados de los barbarismos que el uso continuado de otra lengua ocasiona, y metódicamente coleccionados, un monumento imperecedero que rindiera justo tributo de admiración y respeto al pasado y sirviera de ejemplo y estímulo para el porvenir. Éste y otros trabajos análogos pueden encomendarse a Otaño en la seguridad de que han de ser desempeñados con suficiencia y acierto. Llegue nuestro humilde ruego hasta la Excma. Diputación, y no dudamos que, como madre amantísima que vela por sus hijos, ha de tenerlo presente y resolver en beneficio de todos.*

*Tolosa, 22 de Octubre de 1903."*

Etzegoan batere gaizki pentsatua: Otaño kantu eta bertso zaar biltzaille biurtzea alegia. Garai ona zan ura lan-tegi ortarako. Gaur ezagutzen ez ditugun makiña bat bertso eta kanta zaar biziko ziran artean jendearen buruan. Bilketa ederra egin zitekean. Baiña ez du ematen Diputazioak eskaera au aintzat artu zuanik.

\* \* \*

Urrengo bertso auek Jeronimo Elizegi-renak dira. *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian agertu ziran, 1903-ko azaroaren 19-an. Baita Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian ere, 1904-ko abuztuaren 10-ean:

ATOZ, PELLO MARI!

zabal-zabalik dauzka besoak,  
atoz, atoz, Pello Mari!

- 1/ Miñ zendubela biotzetikan  
uztia Euskal-erriya,  
joan ziñan, Pello, eta an zaude,  
o eusko errukarriya!  
Zertarako da zure doايا  
berez jator etorriya?  
Nola daukagu orren urruti  
gizon bat orren argiya?  
Ai, berriz ere egongo da, bai,  
Euskera Ama eriya!
- 2/ Txinistutzen det ez daukazula  
bertsuetarako gaitik,  
eraman zindun ezkeroztikan  
sortu ziñan lur alaitik  
bizi bearrak leku estura,  
bai, Pello Mari, lasaitik;  
gogoratzen naiz nola joan ziñan  
negarrez urtzen Pasaitik,  
o, modu ortan ez det ikusi  
sekulan aurraren aitik!
- 3/ Orain diyozu maitia oso  
nola duben *auntzak larra*,  
aiñ maitia du nola aur batek  
duben amaren bularra;  
bai, basatiya izanagatik,  
bere moduban negarra  
egiten du ark, eta barrenen  
antxen dauka beti arra:  
bere lekutxo maitagarriya  
utzi ta bizi biarra.
- 4/ O, baldiñ auntzak naitasun ori  
badiyo beti larrari,  
nola ez izan euskaldun batek  
bera sortu zan lurrari?  
Bai, biotzeko lagun maitia,  
sufritu dezu ugari,  
eta poz eman nai badiyozu  
Euskal-erriko Amari,

Euskal-erriko arbol  
Loretxoz betia,  
Izar tartetik Jaunak  
Zerutik botia;  
Etzan bada tristea,  
Gipuzkoa maitia,  
Ura bezelako bat  
Itsasoz joatia?(5)

\* \* \*

Urrengo au Donostiako Pepe  
Artolarena da, eta *Baserritarra* asteka-  
rian azaldu zan, 1907-ko garagarrilla-  
ren 8-an:

Biyotz oneko lagun maitia,  
ez naiz ni zutzaz aztutzen,  
Donostiyako erri zarrean  
zukan maiz gera oroitzen,  
zuk esantako egi jatorrak  
burura zaizkit etortzen.  
Nola eguzki dizdizariya  
printzaz goizero da azaltzen,  
zeñak dituben bere graziyak  
alde danera zabaltzen,  
ala berian zure izena  
goizero zait bururatzen,  
eta zentzuak gozotasunez  
txit betiak zaizkit jartzen,  
atsegin eta poza du berriz  
neronen biyotzak artzen.  
Euskal-erriko oso urruti  
zeralarikan arkitzen,  
zure erriyako maitasun onak  
dizu burua argitzen;  
ikusten zaitut beti bezela  
Ama Euskera aitatzen,

seme on batek bezela oso  
biyotzetikan maitatzen;  
*La Vasconia*-ren orri tartian  
segi zazu iskribatzen,  
ez utzi iñoiz lengo oitura  
eta izkera ona galtzen,  
baizik saiatu indar osuan  
al den geiena zabaltzen.  
Agur, Otaño, besarkada bat  
emendik dizut bigaltzen.

\* \* \*

Bertso auek Otañoren eskuetaraño  
irixten ote ziran? Guziak bearbada ez,  
baiña batzuk bai, eta bi sentipen altxa

araziko zituzten aren biotzean: alde  
batetik poza, leengo lagun zaarrak  
oraindik ere gogoan zutela ikusiz; eta  
bestetik pena, ura emendik ara bearrak  
eraman baitzuan, eta bai eduki arazi  
ere.

1. Egunkarian: *ez dubela*.

2. Egunkarian: *anaia*.

3. Egunkarian: *priste*.

4. Jeronimo Elizegi alegia. Onek Otañori moldatu-  
tako bertsoak aurrerago eskeiñiko ditugu.

5. Bertso au *acróstico* bat da: leerro bakoitzetik lee-  
nengo letra artu eta goitik beera baldin bagoaz, *ELIZE-  
GUL* irakurriko degu.



## ERIoTZA

Pedro Maria Otaño gazterik il zan, berrogei ta amairu urterekin, buru-lanetarako sasoirik onen-onenean.

I. Unzurrunzagak, berak prestatutako *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburuan (Itxaropena, Zarautz, 1959), onela esaten du:

"Argentinan, Santa Fe probintziko Rosarion, etxeko eskaleretan erorita golpe batek oeratu zun gaizki. Sendagillari arren eskatzen dio gaitzaren arriskua argi eta garaiz azaltzea; eta alaxe egunetara, 1910-ko Loraillak 5 zitula, joan zitzaigun Pedro Mari Otaño. G. B.."

Berri oiek Jose Antonio Loinaz Otañoek apaiz jauna zanak emango zizkion Unzurrunzaga adiskideari. Baiña maiatzaren 7-an il zala esaten du *La Baskonia* aldizkariak. Beste agerkari batzuetan ere, illaren 7-garrena esaten da.

*La Baskonia*-k urtebete baiño geiago zeramakian Otañoen aitamenik egin gabe. Baiña urrena oso albiste txarra ekarri zuan: Pedro Mariren ilberria. Onela zion, bere 598 zenbakian, 1910-ko maiatzaren 10-ean:

"*Pedro María Otaño*. Compuesto ya este número, recibimos la triste nueva del fallecimiento de nuestro querido amigo Pello Mari, ocurrido en la ciudad del Rosario de Santa Fe el día 7 a las 12 p. m.

*Las letras euskaras han perdido uno de sus más brillantes cultivadores y de él nos ocuparemos en nuestro próximo número con el detenimiento que merece."*

Baiña bere 599 zenbakian, urte artako maiatzaren 20-koan alegia, etzuan Pedro Mariren aitamenik egin. Bai, ordea, urrengoan, 1910-eko maiatzaren 30-ekoan. *Pedro María Otaño* izenburuarekin, baiña firmarik gabe, onako idazlan au argitaratu zuan:

"*Como ya saben los lectores de La Baskonia, Pello Mari ha muerto.*

*¡Cuán lejos estábamos de pensar, pocos días antes, que estrechábamos su mano por última vez!*(1)

*Ni él sospechaba tampoco que le aguardase tan prematuro fin.*

*Prematuro, porque si las contrariedades, las decepciones, toda una larga vida de penalidades y estrecheces habían quebrantado su organismo, lucía en su mente la inspiración fresca y vigorosa, capaz de producir grandes obras; latía su corazón, siempre abierto, con los mismos tiernos sentimientos de la juventud, con la misma lozana generosidad y sencillez de quien no conoce las amarguras de la vida.*

*La literatura euskara ha sufrido una pérdida tal vez irreparable, porque con Otaño ha muerto un astro luminoso del que apenas hemos percibido pequeños destellos: las poesías que Pello Mari nos deja no son sino débiles reflejos de un foco poderosísimo que debía haber inundado de torrentes de luz nuestra obscurificada lengua.*

*La prueba está en esa aureola con que la perspicacia instintiva del pueblo rodeó el nombre de Pello Mari, adivinando en él un genio que más tarde daría sus frutos.*

*Los dos trabajos en que mejor pueden apreciarse los profundos conocimientos que tenía del idioma euskaro, dominio en la versificación y excepcionales facultades para producir obras serias e importantes, son las óperas baskongadas Artzai Mutilla y Lora. Porque asimilarse una obra comprendiéndola con la misma exactitud con que el autor la concibió, verterla en otro idioma conservando la idea original en toda su pureza, y dar nueva expresión a esa idea sin que ella desmerezca, antes al contrario, desarrollándola y hermoséandola con los recursos del lenguaje, es labor que demuestra capacidad extraordinaria, vasta preparación y dominio absoluto del idioma.*

*A luego de publicarse la colección de poesías bajo el título de Alkar, se pidió en un periódico de San Sebastián que la Diputación de Gipúzkoa creara para el poeta ausente una plaza de recopilador de cantos populares; de esos cantos cuya música es la misma, pero cuya letra es tan variada y jamás escrita; que se transmiten de generación en generación, adulterándose y corrompiéndose cada vez más. El poeta hubiera recogido esas canciones, las hubiera depurado y vuelto a su primitivo estilo y la Diputación al formar ese archivo hubiera levantado un verdadero monumento a las letras patrias. Pero los diputados carlistas no podían hacer nada por el poeta que era liberal, y los diputados liberales no podían hacer nada por el poeta que era un desordenado.*

*Hoy el poeta ha muerto y no hay en el solar euskaro, digámoslo con sentimiento pero sin temor, no hay y sabe Dios si alguna vez habrá, quien reuna condiciones para ese trabajo.*

*Pello Mari nació en Zizurkil, en la venta llamada Caridad.(2)*

*Bersolari, de familia de bersolaris, respiró desde la cuna el ambiente del ritmo, y adquirió el idioma y las costumbres baskongadas que se guardan en el corazón de Gipúzkoa más castizas y con más pureza que en las regiones limítrofes:*

Euskal Erriko lur maite artan  
jaio nintzan baserriyan,  
itzal aundiko intxaur arbol bat  
dago gure atariyan;  
aren ondolik irten da noiznai  
maldako gaztañariyan,  
edo sagarrik onenak jaten  
luberriko sagastiyen,  
arbol tartian bizitu nintzan  
gazte denbora guztiyan.

Ainbesteraño tristetutzen naiz  
eremu zabal(3) oietan,

arbolak, mendi eta errekek  
falta diran zelaietan,  
non etorri ta eseritzean  
ombú tzar onen zañetan,  
edo igo ta osto tartian  
bere adar bikañetan,  
ene, amatxo, nik nola esan  
zenbat gozatutzen detan!

*Con esta intensa nostalgia que revelan los versos de Amerikako Panpetan vivió Otaño dejando arrinconada su incomparable lira, entregado por completo al cariño de sus hijos.*

*“¿Para qué concurrir a las Fiestas Euskaras, respondía a nuestras excitaciones, si cualesquiera vaca o cerdo ha de obtener mejor premio y mayor estimación que yo?”*

*Si le faltaba o no razón, díganlo los demás poetas, los demás literatos baskos.*

*Fruto de sus estudios durante estos últimos años, ha dejado, ignoramos si terminada, una gramática baskongada.(4)*

*La publicación de esta gramática sería obra meritoria y útil; ya que el ambiente mezquino y egoísta en que vivió olvidado Otaño impidió al genio tender sus alas y remontar su vuelo hasta las alturas donde debería haber llegado para bien de todos, sería una especie de compensación recoger ese legado y divulgarlo, para que el nombre de su autor pase a las generaciones futuras con el prestigio que merecen los que honran a su patria.(5)*

*La última producción de Pello Mari, terminada días antes de morir, ha sido para el libro Los Baskos en el Centenario. Nada denota en ella que tan rápidamente fuera a extinguirse la luz de su nada vulgar inteligencia.*

*Pero ha muerto. Ha muerto soñando con pisar nuevamente su bello país:*

Nere lagunik maitatuena,  
ombú laztana, zu zera,  
argatik nator zure kolkora  
ni malkuak isurtzera,  
iduriturik naramazula  
atariko intxaurpera...  
Beti izango zaitut goguan  
bañan joan nai det ostera  
euskal lureko arbolpe artan  
nere ezurrak uztera.

*Pero los liberales y los carlistas no han querido que así fuera. Descanse en paz recibiendo el cariñoso abrazo de esta tierra amable y pródiga, nueva patria de los baskos.”*

84. Corresponde a estampado nº 6289.

Otaño

Pedro María

Modelo C

Acta número dieciocho ochenta y cuatro  
 En el Posorio Departamento de el mismo nombre  
 Provincia de Santa Fe, el día siete de Mayo  
 de mil novecientos diez a las dos de la tar  
 Ante mí, Enrique Álvarez  
 encargado del Registro del Estado Civil compareció Don Fernando  
Gil de treinta y un años de edad  
 de estado soltero de nacionalidad español  
 de profesión empleado y vecino de esta ciudad  
 declarando que a las diez de la noche del día seis  
 y en Montevideo 22.º ha fallecido Don Pedro María  
Otaño de nacionalidad español  
 nacido en español de veintinueve y tres años de edad  
 de estado casado

y de profesión maestro a consecuencia de sinople  
cardíaca según consta del certificado médico esp.  
pedido por el Doctor Osés, que se archiva con  
el número de esta acta  
 Que el finado era hijo de de de ignora  
 los demás datos

Así mismo, se hace constar que

Leída esta acta la firmaron conmigo el declarante  
 de veinte y nueve años de edad, de nacionalidad español  
 de estado casado y de profesión empleado  
 y Don Pedro A. Espalter de veinte y nueve años  
 de edad, de nacionalidad argentino de estado casado  
 y de profesión empleado vecinos



Fernando Gil Enrique Álvarez  
Antoni Enrique Álvarez

Pedro María Otañoren il-agiria, Arjentinatik bialdua.

La atestación que obra en el presente documento, con la firma y sello del funcionario que lo expide, sirve de UNICO y SUFICIENTE trámite para tenerlo por legalizado, conforme lo preceptuado por la Ley Nº 8375


REPUBLICA ARGENTINA  
Provincia de Santa Fe

CERTIFICO que el presente documento es fotocopia fiel del acta original que se encuentra en el archivo Departamental de la Ciudad de Rosario, en la sección .....  
Rosario, a

26 JUL 1993

*Lidia Lucia Santi*

LIDIA LUCIA SANTI  
2º JEFE ARCHIVO DPTAL.  
REG. CIVIL DE ROSARIO



Pedro Maria Otañoren il-agiria, Arjentinatik bialdua.

\* \* \*

Atal au orrela idatzi ondoren, eta moldiztegiaren probak gure eskuetara iritxi eta gero, Arjentinatik Pedro Mariren il-agiria artu degu.

Bertan esaten danez, eta irakurleak ere agiri orren argazkian ikusiko duenez, Pedro Mari maiatzaren 6-an ilzan, eta ez 7-an, gaueko amarretan.

Pedro Mariren ogibidea: *maestro*. *Laurak-Bat* elkartean euskeraren irakaslea izan zalako ote?

Baditeke, baiña ziur esateko ez da kigu.

Pedro Mariren billobak, Amelia Otañok, onela esaten zigan il-agiri orrekin batera bialdutako eskutiz batean:

*"Ayer estuvimos en la ciudad de Rosario, Provincia de Santa Fé, decididos a averiguar sobre el Certificado de Defunción. Gracias a Dios nuestra gestión tuvo suerte: adjunto remitido a usted la copia legalizada que obtuvimos en el Archivo Central del Registro Civil.*

*Con sorpresa leemos allí que Pello Mari falleció el día 6 de mayo a las diez de la noche. No entiendo por qué mi padre asentó en el "libro atado" que el hecho se produjo el día 7 al mediodía.*

*Los que atestiguan el fallecimiento dan como su profesión la de "maes-*

*tro". No deja de llamarnos la atención las edades de ambos testigos, 31 y 29 años, frente a los 53 de Pello Mari. Tratando de bucear más en ese tema (serían sólo vecinos?, o habría otra vinculación?) localizamos a pocos metros del domicilio de Pello Mari a Espalter. Allí nos enteramos que ese testigo falleció unos pocos meses después que nuestro abuelo, a los 29 años de edad, dejando como descendiente sólo a un hijo, en ese entonces de 8 o 9 meses de edad, por lo que nuestra idea de reconstruir el medio, amistades y/o relaciones de Pello Mari en esos días en Rosario se vió lamentablemente frustrada."*

---

1. Itxura danez, egun batzuk aurretik Pedro Mari Buenos Airesen izana zan.

2. Pedro Mari Errekalde baserrian jaioa zan; ez Karidadeko bentan.

3. *Desierto*. (La Baskonia-ren oarra.)

4. Gramatika au nun ote da gaur egunean? Euskera erakusten jardun zanean asitako lana izango da, ziur aski. Baiña, gure iritzirako beintzat, etzan ori Pedro Mariri zegokion egitekoa; ezta bertso zaar biltzaillera ere, euskal idazlearena baizik, bai bertso gintzan, bere-bereak asmatzen, eta bai itz lauz edo prosaz, artarako ere bikaiña zala ondo erakutsi zuan eta.

5. Egi-egia da gramatika ori arkitu eta argitaratu bear litzakela. Baiña aundiagoko zorra ere badu Euskal-Erriak Otañorekin: aren bertsoak bildu eta plazaratzea. Auek baitira, ez gramatikak, aren izena gaillurreraño altxa eta iraun arazi lezatekenak. Zor ori kitatzea izan da, ain zuzen, liburu onen elburua.

# PEDRO MARIA OTAÑOREN ERIOTZAREN OIARTZUNAK EUSKAL-ERRIAN

Pedro Maria Otañoren il-berriak benetan goibeldu eta samindu zituan aren adiskideen biotzak. Euskaldun asko eta asko baitziran, bai Zizurkillen eta Donostian eta bai bestetan ere, ura maite zutenak; eta beren naigabea agertzearren, idazlanak idatzi zituzten, naiz euskeraz eta naiz erderaz, naiz bertsoetan eta naiz itz-lauz.

Lan oiek, guk arkitu ditugunak alegia, emen argitaratzen ditugu, liburu ontan leku eman bear zaielakoan.

Onako au Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zan, bere 62 tomoan, 1910 urtean, eta bai *Baserritarra* astekarian ere, beraren 150 zenbakian 1910-eko uztaillaren 2-an:

PEDRO MARIA OTAÑO

“Igaro berriya dan maiatz-illaren zazpiyan, Pello Mari-ren ill berriyak izan dira: gizagajua!

¿Nork esan bear zuben, *Ama Euskaragandik* urrutira aldendurik, bere izate edo bizitza galdu bear zubela Pello Mari, euskal lotzkari bikañ ark?

Aldi askotan esan oi zubena zan, bere biyotzeko intziri guztiya zala, txanda edo bizitza mugara irixten zanian, bere ezurrak Euskal-erriko lurpean ezkutatzekua; bañan gizagajuaren naiera on aiek alferrikakuak izan dira; Jaunaren borondatiak osakizuna arkitu du *Rosario de Santa Fe* deritzaion uriyau, urruti, txit urruti, bañan Ama Euskarari gonaren egaletik sendoki elduaz; da esatia, euskaraz.

Euskaragatik Pello Mari gizagajuak asko bear gaitu; zituben biyotza eta burua argiro ikusten dan gauza da aren egintza eder eta ugaritsuetan.

Aztutzeko gauza ez da, eta ondo goguan daukat, noia egun batian beraren deiyez izan giñan, *Ararat* izentzat zubenarekin ezagutzen zan ostatu etxian, lagun batzuek, ondoren agertuko ditudan egintza edo lotz moldaeraren ezagungaitze edo irakurtza bat egitera.

Igande arratsaldea zan egun gogoangarri ori, zeren Pello Mari, bere biyotzaren aginde zuzenari obedituaz, ekin ziyon *Limosnatxo bat* izentzat dubenaren lotz moldaeraren irakurtzeari era onetan:

Ai!, txorakeri asko egiten da zentzurik ez daniyan, xinixta zazu ur au pasia daukanaren esanian; obiago da sasoi dan arte saiatutzia lanian, negar egiñaz ibilli gabe gero denbora joanian... limosnatxo bat bildu eziñik Jainkuaren izenian.

Egintza eder onekin bakarrik etzan agortu aren iturri urmedun garbi argiya; baizik geruago ta ugaritasun geiagorekiñ euskal arkaitzetako iturburuetatik ura artu edo jasoaz, zabaltzen zuben naikidasun aundiz txorro ederrak ipiñirik, ez bakarrik emen, baita Amerikako baztar askotan ere.

Errenkada abek egiñ edo izkribatzen dituenak, al balu, agertuko lituzke Pello Mari-ren beste egintza geiago ere, bañan iruditurik astun eta luze dijuala, bere izenez aipatu bakarrik egingo ditu gañuntzeko lototzkai bikaiñ arren lan batzuek.

Zer ederrak diran, eta nork ukatu? Euskal-erri guztiyan ezagutu bear lirakienak dira *Txepetxa*, *Republika eta Fuegoak edo Mendiburuko maixterra*, *Elizakuak*, *Larriya*, *Gu ta gutarrak*, *Donostiya Uxua*, *Ama*

*Euskara, Karidadea, Amets bat, eta azkenik Buenos Aires-ko antzoki batean orain dala urte batzuek txalo aundipean aurkezturik ezagun arazi zuben otseztizketa, Artzai mutilla izentzat dubena.*

Orra Ama Euskerak zer seme zintzo eta argiya galdu duben, eta guk zer anai ona.

Itxedon bezaigu luzaro zorioneko leku berexi artan, eta elkar ikustea izaten degunean *Josefaren* zelaian, batak besteari laltan aundi bana emanaz, bostekua edo esku estutetz ase gaitzela.

Jaungoikuak bere kolkuan epel dezala gure anai on eta Ama Euskararen seme obea izan dan Pello Mari."

\* \* \*

Beste au ere *Euskal-Erria*-k argitaratu zuan, bere 63 zenbakian, 1910 urtean:

OZTAR

BIURSARI JATOR

PEDRO MARIA OTAÑO-REN ILBERRIAN

"Zorigaitzaren mende sor gelditu zaizkit biotz t'anima Pello Mariren ilberria jakin detanean. Naigabetasun larrigoz gaur ezin bete lezake nere kolka, aren oroitzak ezpada, beste ezertok ere.

Goitizlarien irudi malda zall ortan igo nairik asi nitzanean, Pello Mari izandu zan nere laguntz t'asnas-emallea.

Ari zor diot zerbaít argirotzera noizik bein iritzi banaiz, ta berari ludi soll ontan igarotako ametsaldi eder gogamentsuna.

Orain,... bizitz ergala!, ekaitza tontor goituenen zale oi dan bezela, eraso gaiztoaz ekiñ ondoren, obiratu du eriotz makur ta zikoitz orrek bertsolarien buru zana.

Ura gabe umezurtz dago Euskal-erria, ta odoiz estalirik Maitagarriren Erniyo-peko basua.

Bañan, illundu arren gure sortitza, argitu da margo alaiz Bilintx, Arzak, Artola ta beste illezkorren koroiz an goian dagon uztargia.

Izan bitez itz apur oick nere biotz gaxuak bigaltzen dion otoiñta!"

Emeterio Arrese  
Solares, 23 junio de 1910

\* \* \*

*La Voz de Guipúzcoa* egunkariak onela zion 1910-eko garagarriaren 29-an:

*"Iniciada por la Junta directiva de la popular Sporti-Clai, se celebró anoche, en el local de dicha sociedad, una interesante reunión con el objeto de disponer un acto de homenaje a la memoria del inspirado "koblakari", el brillante poeta euskaro Pedro María Otaño.*

*Todos los concurrentes aceptaron con entusiasmo la patriótica idea expuesta por la Junta del Sporti-Clai y ofrecieron gustosos su concurso para mayor éxito de la misma.*

*Se expusieron diversas formas para llevar a cabo el pensamiento, estudiándolas detenidamente, y convino por último celebrar una segunda reunión que tendrá lugar el próximo sábado, a las ocho de la noche, y a la que se invita a cuantos quisieran rendir este tributo de justa admiración al ilustre poeta que tanto honró nuestra milenaria lengua..."*

Baiña beste billera orren aitamenik ez du egunkariak egiten. Obeto esateko, guk ez degu arkitu beintzat.

\* \* \*

Baiña antolatu nai zuten omenaldi ori ospatu egin zan. Onela esaten du *Euskal-Erria* aldizkariak, bere 63 tomoan, 1910 urtean:

POESIA VASCONGADA

EL POETA OTAÑO

*El 17 del corriente mes la Sociedad "Sporti-Clai" organizó una velada necrológica en honor del poeta vascongado Pedro M<sup>o</sup> Otaño, fallecido recientemente en Rosario de Santa Fe (América). Nuestros lectores verán la descripción de la fiesta más adelante, en la cual se leyeron las poesías que insertamos a continuación. Copiamos también un comentario del eminente escritor José M<sup>o</sup> Salaverría, un juicio crítico a propósito del fallecido poeta y una poesía del mismo".*

Salaberriaren idazlan ori Donostia-ko *Novedades* aldizkarian agertu zan, 1910-eko garagarrillaren 19-an. Emendik kopiatuko zuan *Euskal-Erria*-k. Onela dio:

*"Allá lejos, en la República Argentina, acaba de morir un hombre bien famoso; se llamaba Pedro María Otaño; pero su nombre de guerra era simplemente el de Pello Mari. Aquí ha pasado casi ignorada su muerte; fuera de algunos versos necrológicos que habrán leído muy contadas personas, nadie ha pensado en dedicarle artículos ni homenajes fúnebres. ¡Si hubiera sido músico! Porque aquí, en las provincias vasconavarrras, hace falta ser músico, tenor u orfeonista para lograr que el público se interese por las personas. Ocurre algo parecido de lo que le pasaba al célebre empresario del Dúo de la Africana, para el cual, todo el que no fuera tenor no servía para nada. "¿Qui é questo signori? ¿Un poeta? ¿Ma no é un tenore?... ¡Andáte, andáte! Si no é un tenore, no é niente".*

*Pedro María Otaño era un poeta, y no un tenor. Pero era un poeta rudimentario, que escribía en vascuence, y esto limitaba mucho más las dimensiones de su público. Tenía un público reducido, casi todo él compuesto de almas rurales; el público ciudadano no lee poesías vascas, y por consiguiente ignoraba a este poeta ingenuo, nacido de la entraña popular. Pero si su público era limitado, en cambio le estimaba con idolatría. Muchas gentes habrán llorado la muerte de Otaño, con lágrimas sinceras arrancadas del corazón, cosa que no lograrán, seguramente, otros poetas mucho más célebres, universales y de gloria más altisonante.*

*Y le estimaban, porque era un poeta de verdad, un poeta "por la gracia de Dios", según frase de un ilustre crítico. Los poetas ciudadanos, los que están repletos de erudición y arte, poseen el don de producir obras bien combinadas, bien medidas y que representan ideas o sentimientos complicadísimos; pero esos poetas sabios se dirigen a lectores que poseen casi tanta sabiduría como ellos, y así resulta que el lector percibe la música y la emoción de los versos con un tanto de reserva mental. Mientras que el poeta del pueblo, a falta de recursos artísticos, tiene la facultad de producir sensaciones vivas; se dirige a oídos ingenuos, llama a la puerta de las almas simples, y los oyentes le escuchan sin reserva alguna, abandonándose plenamente a la palabra del cantor. Habla el lenguaje de sus mismos hermanos que le escuchan. Es un hombre como ellos, siente, goza y sufre como ellos, y las emociones que*

*despierta ganan en intensidad, todo lo que pierden en complicación. Estos poetas, pues, gozan de una gloria doble: la de la admiración y la del amor.*

*Los poetas como Otaño se llaman en nuestro país bersolaris, que literalmente traducida la palabra quiere decir "hacedor de versos". El versolari, por supuesto, no es una creación única y original de la raza; el versolari ha existido en todos los pueblos, por lo mismo que todos los pueblos del mundo han sentido la necesidad de manifestaciones poéticas. La poesía es a los pueblos, lo que el amor a la juventud; todo pueblo, en su infancia, necesita entregarse a los devaneos poéticos, como una necesidad imperiosa, fatal e innata. Después, cuando los pueblos se hacen cultos, la tradición poética continua; existen versos y poetas, pero a los versos y a los poetas cultos les falta frescura, les falta inconsciencia; podrán ser todo lo admirables que se quiera; el polvillo dorado de la inconsciencia se ha ido, y quedan sólo el arte, el estudio, la habilidad, cosas sin valor si se las compara con el oro de lo ingenuo y de lo espontáneo.*

*Para exteriorizar la necesidad poética del pueblo, son necesarios ciertos intérpretes, dotados de una mayor agudeza y sensibilidad. A estos intérpretes se les llamaba en Grecia "rapsodas"; los celtas los denominaban "bardos"; en vascuence se les llama "bersolaris". Sin embargo, hay dos clases de versolaris: uno es más rudo y de menor potencia creadora, y por lo regular se contenta con improvisar algunas breves estrofas que sirven para los pugilatos poéticos de las sidrerías; el otro es mucho más perfecto, concluye composiciones largas, y a veces su inspiración llega a grandes alturas, como en Vilinch y Elizamburu.*

*A esta última clase de versolaris pertenecía Otaño. Aunque nacido en las últimas capas del pueblo, poseía gran sensibilidad, finura de sentimientos, junto con una fuerza de humorismo que le hacían apto para los torneos o pugilatos campesinos. Es decir, que servía lo mismo para trazar una poesía larga y redonda, como para contender con un campeón de aldea, en el fondo de una sidrería o a los postres de un abundante banquete.*

*Los torneos entre versolaris tampoco son exclusivos del país vasco. En mis viajes por el mundo, he descubierto ya multitud de poetas populares que ofrecen la misma apariencia que la de nuestros improvisadores. En la huerta de Valencia hay la costumbre de las "albaes". Consiste la diversión en una dulzaina y un tambor, que marcan un trozo de música breve y preliminar; después que la dulzaina ha dado el motivo del canto, o la entrada, uno de los improvisadores lanza al aire dos versos, envueltos en una música dulce y sencilla; la dulzaina y el tambor, en seguida, repiten el motivo musical de antes, y a continuación, el otro poeta, el*



*contrincante, lanza otros dos versos de respuesta que vienen a completar la estrofa iniciada por el primero de los dos contendientes. Así también, en nuestro país los versolaris tienen una música especial, originalísima, en forma de salmodia, que les sirve para los torneos poéticos. Uno cualquiera de los circunstancias da el motivo del torneo, la asiera, como ellos dicen, o sea la entrada, el principio. Inmediatamente, el primer versolari saca de la garganta una voz extraña, una voz gutural e indefinible, y pronuncia los cuatro versos de su estrofa, en los cuales, naturalmente, alude de una manera directa e incisiva a su competidor. Pero estos primeros versos están llenos de cortesía; sirven como de saludo al rival, y son contestados siempre en la misma forma cortés y educada, tal como si fueran dos caballeros que se saludasen galantemente antes de luchar. Después los versos se hacen más cálidos y penetrantes, agresivos y venenosos. Las burlas chocan entre sí, las invectivas se suceden, los defectos y los vicios salen allí a relucir, y el auditorio celebra el asunto con estrepitosas carcajadas. Mientras tanto que rien los oyentes, cada uno de los luchadores procura mantenerse imperturbable, y aunque las palabras sean cálidas y mortificantes como alfileres, ellos aparentan una gran sangre fría. Pronuncian su canto siempre en un tono agudo y gutural, estirando la música como elástica, con inflexiones largas y ondulantes que recuerdan la manera de modular del canto gregoriano.*

*También en las Antillas descubrí la misma costumbre de torneos poéticos. Allí los negros y mulatos se zahieren entre sí pronunciando décimas, horriblemente rimadas por lo general, y ocasionan el mismo alborozo en el público que los versolaris entre nuestros campesinos. Igual que en las Antillas, en Sud América gustan los gauchos de reunirse dentro de una pulpería, y acompañándose con una guitarra, riñen batallas de ingenio aquellos versificadores campestres; batallas de palabras que terminan más de una vez, por desgracia, con peleas de cuchillo."*

José M<sup>o</sup> Salaverriá

\* \* \*

Erderazko lan onen ondoren, Otañoren *Alkar* liburuaren itzaurrea dakar *Euskal-Erria*-k, leen ere liburu ontan ezarri deguna.

Urrena, berriz, *Donostiya-Uxua* izeneko bertso-lana agertzen du *Euskal-Erria* orrek. Eta ondoren eus-

kerazko lan-sorta bat, orain emen irakurleari eskeintzen dioguna.

\* \* \*

Beste idazki auek ere, bai erderazkoak eta bai euskerazkoak, bai itz-lauzkoak eta bai bertsoan moldatutakoak, *Euskal-Erria* dalako ortan ikusi zuten argia, beraren 63 tomoan, 1910 urtean.

Besterik esaten ez degun bitartean, iturri orixe dute irakurleak urrengo orrialdeetan ikusiko dituan lanak.

#### EKINTZA MINDUNA

Uztaila-ren amazpiko gabea, otsaundiko ekin-tzaren gai agertza bat izan da Pello Mari gizagajuaren oroitzan, "Sporti Clai" deritzon Bill-etxian, zeñatan irakurri zituzten ondoren, edo zenbaki ontan irakurriko diran lan egoki xamur biyotzezko maitakitsuak, Joxe Ganboa, Domingo Andonegi, Felipe Casal, Joxe Artola, Joxe Elizondo, Ramon Etxebeste, Joxe Zapirain eta errenkada aben egilliak; gañera biraldu zituzten ba-koitzak beren biursakintza egokiyak Roxario Artola, Bitoriano Iraola, Luis Latierno, Kaietano S. Irure, Emeterio Arrese, Ramon Gelbentzu, Joxe Marino Arrieta eta Alejandro Berroak.

Guztiro ederki aritu ziran irakurtzalle guztiyak, onraturik beti, oituratzen duten bezela, "Euskaldun Fedea" beren laurka maitagarriya, zerengatik izan ziran denak txalo ugariyak berenganatu zituztenak, gela eder artan arkitzen ziranengandik.

Eta zer esango det Guiroy, Arruti eta Isasti kantariyakgatik? Goi goieneko mallara iritxirik aritu zirala, beren birikaspo eta ezartari legunen almenak giaturik, osoro txalo aundipecan kantagai guztiyak bi bideturik.

Aurrera beti, mutillak, eta sendoki eutsi euskerari.

Juan Inazio Uranga

Uztaila-ren 17-an, 1910-an

\* \* \*

### PAKEA BEZA

Donostiyatik itsas aruntza  
lagun maite bat joanikan,  
luze egon naiz jakin nayian  
bazan arren berririkan;  
ori askotan besteri bada  
galdetzen niyolarikan,  
ez nuben onik aspalditxuan  
senti ere barrendikan,  
triste nebillen buru nekatzen  
txit oso auldurikan,  
lo egiñ gabe gabaz ta egun  
indar danak galdurikan;  
alako batez uste gabian,  
eztakitala nondikan,  
adiskidia batek ala dit  
malkuak azaldurikan:  
“Ill da Otaño gizarajua  
gaitzarekin Amerikan,  
fameliyan da Euskal erriyan  
negar asko utzirikan”.

*Kaetano Sanchez Irure*

\* \* \*

### OROIMEN BAT

Biyotza penaturik  
daukatarikan,  
oroimen bat egin gabe  
ez daukat onikan:  
on Pedro Maria Otaño  
ill zan ordutikan,  
zer pena senti dan  
emen da Amerikan.

Bertsuetan maisuba  
paregabekua,  
nork beteko digu  
ustu dan lekua?

Naikua lan billatzen  
gaur zu añakua!  
Zu ziñaden izar bat  
Euskal errikua.

*Jose Marino Arrieta*

\* \* \*

### PELLO MARI

Doaitasunez maiz irten zera  
goitienetan gañera,  
argatik guaz zere izena  
gaur emen onramentzera;  
zenbait añako jakiña ziñan,  
nola kontubak atera,  
ispillutzat zuk utzi badezu  
gerentzat *Auntza larrera?*

*Zerbait eta Alkar*, liburu apaiñ,  
iskribatu dituzunak,  
*Anaitasuna, Donostiya* ta  
miragarritzko jardunak;  
orko lan danak irakurtzian  
arreta aundiz entzunak,  
arrigarritzka gelditzen dira  
arrotzak eta lagunak.

Oien tartian *Auntza larrera*  
dago lore bat bezela,  
ura iskribatutako lipartan  
etzegon buruz motela.  
Ote zekiyan aldiz aurretik  
beartsu ill bear zubela,  
gure Euskera indartu nai ta  
laguntzen etziyotela?

Nai ez dubela ekartzen dute  
auntza larretik errira,  
ez nairikan zuk egin zenduben  
Ameriketara jira,

barku zulotik azken agurka  
Ama Euskerari begira,  
asnas larri ta malko tantuak  
zarizkitzula begira.

Euskeragatik gorputz ta anima  
saiatu zera lanian,  
jaiotz erri ta lur arrotzetan  
ornitzen al dan añian,  
ibar-mendiyen onak kantari  
arkitu zeran danian,  
Euskal-erriyak zer egin du zu  
orrela ill zeranian?

Etorri nai ta an egin biar  
eriyotzarekin buka,  
zer kupitsuba ote zan zere  
sugarretako burruka,  
eziñ etsirik azken antsiyen  
emazte-aurrak musuka,  
begiyak ixtez batian "Ama!"  
Euskal-errira ojuka.

*Jose Ganboa*

\* \* \*

## OTAÑO ILLEZKORRARI

Urruti edo urrian,  
zauzkat begiyen aurrian;  
beti pentsatzen eziñ aztu naiz,  
malkuak berriz begian;  
oiek txuka eziñian,  
nabil zutzaz oroitzian.

Ez det munduban pentsatzen  
maisurik danik arkitzen  
nola zu ziñan, euskara eder  
maitia iskribatutzen;  
gutziz zenduben goratzen,  
etziñan iñoiz aspertzen.

Eman nai nizuke zuri,  
baña ezin leike ori,  
maitasunezko besarkada bat  
eldurik ondo elkarri;  
sentitzen det txit ugari,  
agur,... lagun Pedro Mari!

*Felipe Casal Otegi*

\* \* \*

## PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO

Euskal izkeren salbatzallea,  
alako bertsolariya,  
Aitorren seme bikaiñ, jatorra,  
eta ain iztun garbiya;  
itsas aruntzan ori ill dala  
artu danian berriya,  
penaz ta malkoz bete zaizkit gaur  
biyotza eta begiya!

Barren nerean sentimentuak  
sortu dit penazko arra,  
jakiñik nola obiratu dan  
maisu eta lagun zarra;  
eta naita're ezin gorderik  
berak dadukan indarra,  
biyotz erditik begiyetara  
azaldu zait, bai, negarra.

Amaika lan on euskaragatik  
egiña zera munduan,  
borondate ta maisutasunez,  
geigo eziñ dan moduan;  
aien ordañez merezi gisa,  
orañ ill zeran orduan,  
Jaunak tokiya egingo zizun  
betiko bere onduan!

*Jose Artola*

\* \* \*

## OTAÑO-RI ITZ BI

Beltzez jantzi ta penaren penak  
biyotza jarririk eri,  
euskaldun on bat onratutzeko  
gaur nola asi kantari?  
Argi erraño bat baneukake,  
zer gozoro, Pello Mari,  
negar malkuak txukatu eta  
ariyaziyaz danari,  
nik kantatuko niyoke gure  
maisua izan zan ari!

Nork leukakean luma zorrotz bat  
kantari askok daukana,  
indar denian zu goititzeko  
lurrean izan zerana?  
Sona aundiko itz neurtzalle  
aieri utziyaz dana,  
aiek egingo dute egiyaz,  
aiek, gloriyazko lana,  
nik borondate guziyarekin  
egñ ez nezakiana.

Entzun izan det, irakurritzen  
aren izkera eztiya,  
Euskal-erriko Homero zala  
orlako biurtsariya;  
bazirudiyen, euskaldun musak  
jatxiyaz beren argiya,  
bere zentzuan zabaltzen zala  
añ oparo ta garbiya,  
gero egiñaz ezkribuetan  
berak nai zuben guziya.

*Zerbait* deitzen da liburutxo bat  
eta bestia da *Alkar*,  
ez litezkenak gure lurrean  
utzi austutzen ta baztar;  
an beren ostoa atsegiñetan

izkuntz ederrian dakar  
euskal loreak, dutenak gozoz  
bereganatutzen azkar,  
itz jator aien sentimentubak  
iñoiz eragiñaz negar.

Ez dira mendi tantai ederrak  
ikusten iñoiz bezela,  
agurka egun pozgarriyaren  
goizeko aize epela;  
txori txikiyak ezkutatuak  
kantatu nai ez dutela,  
iturritxoak txor-txor egiñaz  
negarrez diruditela,  
guziya dago berri samiñ au  
damuz sentitzen duela!

Ill dala seme doakabea  
jakindu dan ezkeroztik,  
zeruba ere estalitzen da  
triste ta goibel geroztik;  
or biltzen diran izkribatzalle  
abillak izanagatik,  
izan liteke, baña alare  
eztala esango det nik,  
ark laja duen utsun aundiya  
iñork beteko dubenik.

*Biktoriano Iraola*

\* \* \*

## OROIGARRI BAT

O, Pedro Mari, gizon argiya,  
aldendu zera mundutik,  
euskaldun denak ementxen gaude  
egñaz negar gogotik;  
ez degu bada geigo entzungo  
zure kantatxo politik,  
orreatiketan etzaigu joango  
penarikan biyotzetik.

Ez gera bada zutzaz aztuko  
munduban bizi geranak,  
ez du merezi, ez, aztutzia  
zuk egin dituzun lanak;  
alde danetan zabaldu dira  
zure bertsoxoen famak,  
neke guziyen sari ederra  
eman dezaizula Jaunak.

*Rosario Artola*

\* \* \*

### MAISU OTAÑO RI

Eriotz otzak gugandi batetan  
usoa modu creman zinduben;  
argati zutaz oroiturik emen  
biotzak samiñ dadukaz benetan.

Ill zera, ill, bai... Baño or goietan  
izkuntz maitea zeruban mintzatzen,  
Jaunaren urbil zaude an... kantatzen  
Euskal erria bertso ederretan!

O,... Pello Mari, goituba zaudena,  
bertsolari euskal bikañena,  
lotsaz betea fruta nairik eman  
laja zenduben izkuntzik zarrena!  
Argatik zugan amorioz dena,  
goora joan nai du txori gisa egan!

*Alejandro Berroa*

\* \* \*

### ON PEDRO MARI

*Karidade*-ko seme ospatsu,  
jakintsu eta bikaña,

nola sinistu illa zaudela?...  
-Lagun zaidazu, mingaña-.  
Bada gizonik lotozkintz ontan  
atxitu dubenik gaña,  
zeiñ izango da Euskal-errian,  
Pedro Mari diñ zan baña?...  
Ez det nik uste izango danik  
besterik, ori zan aña.

Nork du kemena izkiratzeko  
*Pakea, Elizakuak,*  
*Limosnatxo bat eta Txepetxa,*  
lan eder gañ-gañekuak?  
Oroitutzian nola etzaizkit  
gaur ixuriko malkuak?  
Olatubaren antzera dabiltz  
euskaldunaren kolkoak,  
nola ez diran iñoiz aztuko  
lendik zuk egindakuak.

Nork berdiñkatu *Auntza larrera?*  
Nork gero *Artzai mutilla?*  
Pena bat daukat, lurperatua  
arkitzen dala abilla;  
ur-bestetara ustez joan zana  
bizimoduaren billa,  
sort-erriyaren laguntza gabe  
bertan gelditurik illa...  
Gure izkuntzen martiri on au  
zeruan gerta dedilla!

*Ramon Gelbentzu*

\* \* \*

### GURE ANAI OTAÑO-RI

Guri lagun bat faltatu zaigu,  
esan nezake anaia;  
ezin azturik gabiltza danok,  
ain zan gizon alaia;

noranai joan ta azkar jartzen zun  
festa bat berri-berriya,  
nork aditua etzuben falta,  
ain zan gustagarriya,  
amaika bider onratu ditu  
euskara ta Euskal-erriya.

Pedro Maria Otaño baita  
esan nai nuben laguna,  
zenbait obra on gure aurrera  
agertu izan diguna;  
erakusletzan goitsua zana  
biyotzez guztiz zan ona,  
ezagutzen det guk arrentzako  
zor aunditxo bat deguna,  
goguangarri artu liteke  
lurperatu zan eguna.

Iñon festarik egin bear bazan  
beti sartzen zan partian,  
joan da errez luzitzen gendun  
nornai arrekin batian.  
Nork ez du pena artuko orain  
egon bearra lurpian?  
Agurtze on bat egiten diyot  
Josepetara artian.

*Jose Maria Sorozabal*

\* \* \*

### ZERURA BEDI

Gizon trebe bat aztu ezin det  
Ameriketan ill dana,  
biursaririk egokiena  
nere ustean izana,  
bene-benetan maitatu baizun  
Ama Euskera laztana;  
koplakariya abilla eta  
lumakin ere bikaña,  
eriyto txarrak eraman digu  
Otaño-ko Pello zana.

Jaiot-erritik urruti ill da  
atzerriko erresuman,  
bere Gipuzkoa maitagarriya  
zedukalarik goguan;  
ez du mindura txikiya utzi  
Euskal Amaren kolkuan,  
bai eta ere erritar danen  
oroimen naigabetsuan.  
Gorde dezagun bere oroitza  
biotz erdiko txokuan,  
eskaturikan Goiko Jaunari  
sartu dezala zeruan.

*Jose Elizondo*

### BIURSARI ONARI

Esan dirate ill zeradela  
eta nik ezin xinistu,  
zerengatikan zure biziya  
guretzat eztan bukatu.  
Zuk egindako lan eder aiek  
bear ditugu agertu,  
ondorenguk irakurriyaz  
dezaten ondo pentsatu  
gure euskera ederrarentzat  
zenbat ziñaden saiatu.

Euskal-erriya ta euskaldunak  
biyotzez zenitun maite,  
zenbaterañon dan au egiya  
emen nork esan lezake?  
Baldin da iñork jakin nai badu  
irakurri lezazkike  
*Elizakuak, Limosnatxo bat,*  
*Pakia* eta ainbeste  
gauza, nun nik gaur emen  
ezin esan nezazkike.

Zuri otoitz bat gaur egitera  
onera gera etorri,

nere barrena, egiya esan  
arkitzen da oso larri.  
Zer esango diot nagon tokitik  
nere maisu on zanari?

.....  
.....(1)  
euskaldun onak eztira aztuko  
zutaz iñoiz, Pello Mari.

*Domingo Andonegi*

\* \* \*

### ILL DA!

On Pedro Mari Otaño,  
zeruetan zaudena,  
zu izandu zera beti  
gure maisu onena;  
bañan gure biotzian  
gelditu zaigu pena,  
Jaunak deitu zindunetik  
joateko beregana.

*Orain aingeru tartian,  
Jesus onakin batian,  
goza dezazu pakian.*

Euskal-erri ontan ez da  
izango euskaldunik,  
malko batzubek botiaz  
beren biotz barrendik,  
eta erreguturikan  
aren animagatik,  
gure Otaño onela  
agurtu ez dubenik.

*Ill naien ni ere, Jauna,  
nuan laister beragana!*

*Jose Guïroy*

\* \* \*

### OROITZ BAT

Zer gertatzen dan oraiñ  
adiarazten nua:  
izkuntzalari ona  
berdin gabekua,  
euskaraz mintzatutzen  
zan guztiz iaiua,  
aren bertsuak aitzen  
artzen zan gustua,  
zati bat galdua du  
euskara gaixua.(2)

Zenbait aldiz kantatu  
diyogu alkarri,  
jende askon aurrian,  
batak bestiari,  
itzak onak mintzatzen  
Pedro Mari ta ni,  
gozotasun guztiyan  
ariyaz kantari,  
indarra eman nairik  
Ama Euskarari.

Orain amabi urte  
joan zan emendikan,  
uts bat utzirik, gure  
Euskal-erritikan;  
aren diñ bertsolari  
noski oraindikan  
sortu danik ez deitzot  
gure lurretikan;  
Jaunari kontu eman  
diyo Amerikan.

Xamurtasun gozuan  
egiten zan mintza,  
aiñ gogoz jasotzen zan  
beti onen itza;

guztirako danikan  
arkitzen da gaitza,  
zer gauza ederra dan  
mundu ontan goiza!  
Nork beteko du emen  
Otaño oroitza!

Bertsuak neurturik  
goikoz zañeraño,  
oberik barrundatu  
ez det oraindaño;  
bertsolari on asko  
badirade, baño  
joaten diranak bidez  
oker besteraño;  
argiyenetan goi zan  
Pedro Mari Otaño.

Gauza obek gertatzen  
zaizkigu munduban,  
iritziz gaudelako  
leku seguruban;  
ezagutuzen da bat  
zer baliyo duban,  
eta oroitzen gera  
guziyak orduban;  
Jaunak artu dezala  
betiko zeruban.

*Jose Zapirain eta Iratorza*

\* \* \*

Bi bertso aukeratuak Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian agertu ziran, baiña zein egunetan ez dakigu. Guk Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarietik artu ditugu, onek 1910-VII-20-an agertu baitzuten, *El Pueblo Vasco*-tik kopiatu duala aitortuz, baiña egunik esan gabe.

## ILL DA OTAÑO

Euskal-Erriyak tristetu dira,  
malkoz busti euskaldunak,  
negarrez gaude toki askotan  
Otaño zanen lagunak,  
errezatutzen Jaun aundiari  
gaztiak eta aitona,  
kale aldi nola mendiyen  
bizitutzen gaituzunak.

Ama Euskeran seme leiala.  
itz neurtzalle argiya,  
bere lanakin euskal festetan  
sariyak irabaziya;  
eskribatzalle gaiñ-gaiñekua,  
oso euskaldun garbiya,  
il zan Otaño gizarajoa,  
il zan, bai, Euskal-Erriya!

*Kaietano Sanchez Irure*

\* \* \*

Txirritarenak dira beste iru bertso aukeratuak. *Txirrita'ren Testamentua* deritzaion liburuxkatik artuak ditugu.

## PEDRO MARI IL ZANIAN

Emen zizurkildar bat  
genduan gizona,  
eskola aundikua ta  
euskaldun zuzena;  
Ameriketan urte  
askuan izana,  
Pedro Mari Otaño  
zedukan izena,  
amaika bertso polit  
jarrita il zana.



Zizurkilgo seme bat  
esan dedan trazan,  
euskera predikatzen  
emen ibilli zan;  
beti konpontzen giñan  
adiskide gisan,  
ez genduen beñere  
asarrerik izan,  
irugarren bisitan  
Amerikan il zan.

Zizurkilgo seme bat  
ain gizon umilla,  
euskaldun jakintsuna,  
eskolaz abilla;  
zenbait saio egiñak  
lege zarren billa,  
nik aginduta ezta  
Jaungoikuak illa,  
zeruaren erdiyan  
gertatu dedilla.

Alkarren ezagunak eta adiskideak  
izan ziran Txirrita eta Pedro Mari, au  
Euskal-Errian izan zan urteetan. Eta  
gero, Ameriketara joan ondoren ere,  
artu-eman guztiak etziran bukatu aien  
artean.

Ona zer dion Pablo Zubiarrain-ek,  
Ernani-txikia bertsolariak alegia, bere  
*la kantatuz bezela* liburuaren itzaurre-  
an:

“Pedro Mari Otaño’k Ameriketatik  
bialdutako lendabiziko liburuak, *Alkar*  
eta *Zerbait*, Txirritari ta gure aitonari  
bialdu zizkien, bere firma ta guzi”.

1. *Euskal-Erria* aldizkariak ere bi lerro auk onela-  
xe ditu: puntuz idatzita. Baiña ez dakigu zergatik.

2. Emen, gure iritiz, *gaixuak* bearko luke.

## ONDORENGOEN BERRI BATZUK

*La Baskonia*-ren 601 zenbakian, 1910-eko ekainaren 10-ean, eskaera bat egiten zan:

*"Pedro María Otaño. Con objeto de aliviar la precaria situación de la familia del finado poeta, cuyo nombre encabeza estas líneas, la sociedad "Laurak Bai" ha abierto una suscripción invitando a todos los socios a contribuir con sus donativos a engrosar la suma.*

*Invitación que repetimos nosotros, no dudando que, dado el fin noble y caritativo de esa iniciativa, ha de merecer el apoyo de todos nuestros paisanos."*

Baiña *La Baskonia*-k ez du diru-laguntza ori geiago aitatzen, eta zenbaterainokoa izan zan ez dakigu. Garai artan ezeren babesik ez baitzegoan, zerbaiten bearra izango zuten aren alargunak eta utzi zituan seme-alabak. Dakigunez, sei ziran auek, iru emen eta beste irurak an jaiok. Zaarrenak emezortzi urte zituan.

Noizbeinka bada ere, agertu izan dira aren familiaren berri batzuk Euskal-Erriko agerkarietan.

Basarrik, adibidez, onela zion bere *Nere bordatxotik* saillean, 1980-ko ilbeltzaren 19-an:

*"La tarde del jueves tuve la inmensa satisfacción de recibir en Zarautz la visita de la hija y de la nieta del insigne bertsolari zizurkildarra, Pedro Mari Otaño.*

*Con acusada simpatía y amabilidad, ambas fueron contestando a las preguntas que les formulaba. Después de la gratísima entrevista, llegué a la conclusión de que Otaño, en vida, fue como yo me lo imaginaba: un creyente y un vasco integral, sin ambiciones materiales, sin ansias de riquezas.*

*Saboreando los maravillosos versos de Pedro Mari, uno se hace cargo de cómo tuvo que ser el autor de los mismos. Y recibí la confirmación de labios de su hija María Teresa Otaño y de su nieta Magdalena Araceli.*

*Pedro Mari Otaño nació en Cizúrquil, el 25 de enero de 1857.*

*Murió en la Argentina el 7 de mayo de 1910. A los 53 años, por consiguiente.*

*María Teresa contaba con diez años cuando falleció su padre, edad poco adecuada para recordar con exactitud su carácter y su modo de ser. Pero gracias a Dios, la esposa del bertsolari, María Magdalena Alberdi, que era donostiarra, vivió hasta el 5 de mayo de 1934.*

*Decía María Teresa:*

*- Desde el año 1910, que falleció mi padre, hasta el año 1934, que dejó de existir mi madre, en nuestro hogar no hubo un solo día sin mencionar a papá. Siempre le tuvimos presente, particularmente mamá.*

*Pedro Mari y Magdalena Alberdi tuvieron seis hijos: tres varones y tres mujeres. Viven tres en la actualidad.*

*Pedro Mari Otaño emigró a los veinte años(1), siguiendo el ejemplo de centenares de guipuzcoanos que, en aquellos años (lo mismo que ahora aquí) no había oportunidades para ganar el sustento.*

*Los males de ahora son producto de la crisis que estamos atravesando, siendo un país industrial.*

*En aquellos lejanos tiempos no había industria, no había medios de vida para los hijos de caserío que no fueran mayorazgos.*



Pedro Maria Otañoren iru alabak, Lasarteko *Gure Etxea* ostatuan.

Otaño vino tres veces a la tierra de su origen. Fue precisamente en el tercer viaje cuando conoció a María Magdalena Alberdi(2) y entabló relaciones con la que debía ser tan ejemplar esposa. Contrajo matrimonio en San Sebastián; tres de sus hijos nacieron aquí y fueron bautizados en Donosti.

Los otros tres, en la Argentina.

Pedro Mari, en sus años de soltero, trabajó en Brasil, Uruguay y Argentina.

Después ya, con esposa e hijos, se estableció en Pehuajó (Argentina).

Fue allí donde dejó de existir(3), si bien su obsesión era la de morir en su tierra natal, como magistralmente nos dice en uno de sus poemas.

María me contaba que era muy fino y delicado; de gran apego a la familia.

Después de una dura jornada de trabajo, llegadá la noche, dejaba escrita una estrofa para su querida esposa. Así se explica que en aquel hogar, entre 1910 y 1934, no hubiese un sólo día sin el recuerdo del gran bertsolari.

Otra cosa que yo me figuraba y su hija se encargó de corroborar: Pedro Mari era un lector empedernido.

María Teresa me contó que Pedro Mari adoraba a su tío José Bernardo Otaño, famosísimo bertsolari que tanto alternó con Udarregui y Pello Errota. Más que a su propio padre.

Tío y sobrino mantenían incesante correspondencia, con la particularidad de que eran cartas escritas en verso.

María Teresa estima que no se ha realizado un estudio sobre la rica personalidad de su tío José Bernardo y que bien merece la pena de llevarlo a cabo. La nieta es de la misma opinión.

Aún debe vivir en Cizúrquil una prima carnal de Pedro Mari, según me refirió María Teresa.

Tomó la palabra la nieta para decirme:

- Hay unos 25 bisnietos en la Argentina que mantienen el culto a su bisabuelo; que se enorgullecen de él.

He conocido a muchos Otaños, familiares de Pedro Mari, en Guipúzcoa e incluso en Bayona. Todos ellos sentían verdadera veneración hacia el gran bertsolari, como seguirán sintiendo los que aún viven.

Los vínculos familiares eran mucho más estrechos que ahora en la época de Pedro Mari, y los Otaño eran punto y aparte.

Tanto la madre como la hija se llevan un recuerdo imperecedero del Campeonato de Bertsolaris

que presenciaron el Día de Reyes. "Aquel silencio entre estrofa y estrofa me dijeron fue impresionante. Nunca lo olvidaremos". Regresarán a la Argentina a finales de este mes".

Bertsolari txapelketa jokatu bainan Donostian urte artako Errege egunean. Pedro Mariren alabak, ain zuzen, oltzadurara igo eta itz batzuk esan zituan.

\* \* \*

J. Ignacio Tellechea Idígoras apaiz jaunak, *El Diario Vasco* egunkarian, 1985-eko maiatzaren 14-ean, *Homenaje a Pedro Mari Otaño / Del ombú al nogal* izeneko idazlana argitaratu zuan, beste zenbait gauzaren artean onela esanez:

"...visité la hermosísima ciudad de La Plata, con sus calles geométricas y su fantástica catedral... La sorpresa mayúscula e impensable de aquella tarde fue que me esperaba en su casa doña María Teresa Otaño, hija del poeta, y una nieta suya, Magdalena Araceli... Fue un encuentro emocionante en que parecía palparse carne y espíritu del poeta, recuerdos vivos y muertos. Allí el Diccionario de Novia Salcedo (Tolosa 1887) que utilizaba el vate. El cartel Euskal erriko anaidea. P. M. Otaño ama euskera aipamen onragarria. El libreto de la ópera Artzai mutilla. Ópera bascongada en 3 actos, Letra de Pedro Mari Otaño. Música de Félix Ortiz de San Pelayo. Buenos Aires. Tipografía la Vasconia. Avda. de Mayo, 781, 1900, 34 pp.

Doña Teresa, tez sonrosada y cabello plateado, me muestra con amor otro librito:

"Alkar. Poesías escogidas de P. M. Otaño (en idioma euskaro). Buenos Aires, Tipografía La Baskonia, 1904, 84 pp. En la pared cuelgan un retrato de la abuela y un diploma conmemorativo que dice: "Al feliz intérprete del romance don Pedro Mari Otaño, autor del libreto de la ópera "Artzai mutilla", le dedican este recuerdo en reconocimiento al mérito de la obra los miembros de

la Comunidad Directiva de Laurak bat la noche de su beneficio. Buenos Aires, 22 de febrero de 1900". Más allá, bien enmarcado, otro diploma recuerda el paso de Otaño por San Sebastián y lleva la firma de Alfredo Laffite.(4)

*Doña Teresa no se cansa de hablarme de su aita con sonoro acento argentino y me encarga una visita a la familia Tapia Otaño, de Zizurkil. También a ella le tira la tierra. Y el recuerdo de su padre. Van a intentar recuperar la música de "Artzai mutilla" en los inmensos archivos del Teatro Colón, donde se estrenó. Pedro Mari sigue vivo y presente en su corazón..."*

1. Leen esan degunez, emezortzi urterekin joan za-la uste degu.

2. Obeto esateko, bere jaioterri aldera bitan etorri zan, eta irutan emendik Ameriketara joan. Andik onerako bigarrenean ezkondu zan.

3. Esan degunez, Rosario de Santa Fe-n il zan.

4. Pedro Marik 1892-an *Ama Euskara* izeneko bertso-sailla aurkeztu zuan Donostiko olerki sariketara, eta aipamen onragarria irabazi; *mención honorífica* alegia. Orren ezaugarria izango da dalako *diploma* ori, Alfredo Laffite jaunak izenpetua, arduradun eta antolatzailleetako bat bera baitzan.

## OTAÑOTARRAK DONOSTIAN

Pedro Mari Otañoren aita-eta, leen esan degunez, Zizurkil utzi eta Donostira aldatu ziran bizi izatera. Aien 1899 urtera arteko pausoak esan ditugu. Andik aurrerakoak, berriz, onako auek izan ziran.

Juan Pedro Otaño Lasa, Pedro Mariren aita, 1901-eko ilbeltzaren 4-ean il zan, irurogei ta amaika urterekin, Avenidako 25-garren zenbakian, "*de muerte natural ocasionada por edema pulmonar*".

Aren il berria eman zuan Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere, onela esanez:

*"Fallecimiento. Víctima de penosa enfermedad ha fallecido en San Sebastián el Sr. Juan Pedro Otaño, padre de nuestro estimado amigo e inspirado poeta D. Pedro María, que, como saben nuestros lectores, reside en este país.*

*Según leemos en las crónicas de los colegas donostiarra, a la conducción del cadáver asistió numerosa concurrencia..*

*A toda la familia del finado enviamos la expresión de nuestro sentido pésame."*

Urte berean, azaroaren 4-ean, Maria Krutz Otaño Iparragirre il zan, ia amabi urtekoa, pulmoniaz, Avenidako 25-garren zenbakian.(2)

Andik bi urtera, 1903-ko abuztuaren 2-an, Juan Jose Otaño Lasa il zan, irurogei ta zortzi urtekoa, ezkondu ga-

bea, Ondarrabia kaleko 20-garren zenbakian, "*por un tumor*".(3)

Dakigunez, auxe zan Juan Pello eta Jose Bernardoren beste anaia, gaiñerako senideak arrebak baitzituzten. Leen ere esan degunez, anai Juan Jose au Ameriketara joan eta urte batzuetan aren berririk gabe egon ziran etxean. Bizirik eta ondo zala jakindakoan, beraren anai Jose Bernardok bertso eder batzuk jarri zituan.

Pedro Maria Otañoren anaia, berriz, Bernardo Otaño Barriola alegia, 1925-eko martxoaren 19-an il zan, irurogei urterekin, Triunfo kaleko 4-garren zenbakian, "*a consecuencia de un ataque de asistolia*".(4)

Beraren emaztea, Juana Iparragirre Iztueta, irurogei ta amazpi urterekin il zan, 1941-eko ilbeltzaren 23-an, Donostian.

Bernardo Otaño onen seme bat, Inazio, Lezon ezkondu zan, 1921-eko apirillaren 2-an, Manuela Lopez-Alen andereñoarekin.

Manuela Lopez-Alen au Donostia-ko euskaltzale sutsu baten alaba zan: Frantzisko Lopez-Alen (1866-1910). Pintorea izan zan; *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendaria; euskal olerkari eta idazlea; kondaira-azterketak ere egiten zituan; *Academia de San Fer-*



Eseritako gizonzkoak, Bernardo eta Juan Pedro Otaño Barriola, Pedro Mariren anaiak, beren emazte eta ondorengoekin.

nando eta *Academia de la Historia*-n sartuta zegoan. Gero ere esango degunez, Pedro Mari Otañorekin artu-emanak izan zituan, au Donostian bizi izan denboran.

Inazio Otaño eta Manuela Lopez-Alen auen alaba batekin itzeginda gaude. Manuela bera ere izenez. Bere aitona Bernardo Otañoren berri batzuk eman dizkigu, ama zanari entzunak. Onelatsu esan zigun:

"Erraiña eta aitagiarebaren arteko artu-emanak ez dira beti oso leunak izaten, baiña gure ama eta aitonarekin alderantziz gertatu zan. Biak alkar asko maite zuten. Onela esaten zuan gure ama zanak: Nere aitagiareba gizon altua zan; ille oria, begi urdiñak, abots ederra eta atsegiña, jaun baten eskuak, zoko illunik gabeko anima... Berezko dotoretasuna zuana zan. Aurtxoekin oso gozoa. Oso arpegi adierazkorra: ezer esan gabe ere zer sentitzen zuan azaltzen zuana. Baiña berak ere galde-tu bearrik etzeukan, lagun urkoaren sentimentuak zer ziran igertzeko. Bai

itzegiñez eta bai ixilik egonez, zoriontasuna zabaltzen zuana. Bein ere ez nuan asarre ikusi; ezta berotu eta abotsa altxatuta ere. Bere anai Pedro Mari adoratu egiten zuan arek; eta aren bertsoekin zoratu egiten zan. Bizitzari gozotasunik atera dionik baldin bada, uraxe bat. Bein ere gaixorik egon gabea, azkenerako gripe edo pulmonia arrapatu zuan. Ala, oian zegoala, famili tarteko batzuk etorri zitzaizkion bisitatzera. Txanpaiña ateratzea agindu zuan, eta berak ere tragoska bat edan. Biaramonean il zan, pake-pakean, lo artu izan balu bezela".

---


1. Donostiako Artzai Onaren elizako 3-garren eriotz-liburuan, 15-garren orrian.

2. Donostiako Artzai Onaren elizako 3-garren eriotz-liburuan, 39 orrian.

3. Donostiako Artzai Onaren elizako 4-garren eriotz-liburuan, 289 liburuan.

4. Donostiako Artzai Onaren elizako 7-garren eriotz-liburuan, 20-garren orrian.





Eserita daudenetan, ezkerretik leenengoa eta bigarrena: Juan Pedro eta Bernardo Otaño Barriola, Pedro Mariren anaiak.

## PEDRO MARI OTAÑORI ESKEIÑITAKO BESTE BERTSO BATZUK

Euskal-Erriak gogoan eduki du beti Pedro María Otaño. Zer esanik ez bertsolariak edo bertso-jartzailleak. Auek Zizurkilko bertsolari aundiaren omenez moldatutako zenbait bertso-sail gurekin ditugu, eta liburu ontan sartu bearrak dirala derizkiogu.

Leenengo bertso auek Pedro Maria Otañori eskeiñita daude, izenburuaren azpian esaten danez. Baiña ez dira berari buruz jarriak. Emendik urruti bizi dan euskaldun baten erri-miña agertzen digute. Ain zuzen, orretxegatik pentsatuko zuan egilleak Otañori eskeintzea, onek baiño obeto ez baitu iñork erri-min ori zer dan adierazi.

### NERE LUR GURTUA-RI

*(Composición premiada con mención honorífica)*

*Euskal biursari bikaiñ on Pedro M<sup>a</sup> Otaño-ri.*

1/ Urruti nago bañan aztutzen ez naiz iñoiz zuregatik, zeñ egon litekien begira naiz txulo txiki batetik. Zureganako pentsamentua ezin det kendu burutik, beti maitatzen zaitutalako biyotz nerean erditik.

2/ Emen arki naiz, ez dakit nola etorri nitzan onera, biur al banei joango nitzake berielaxen orrera; ortaratutzen banaiz desio detan bezela oster, ez naiz ni joango penaz malkorik zu utzirik ixurtzera.

3/ Oso gaztetan utzi zindutan, orain nago zaturikan, zenbat eta zarrago geiago oroitzen naiz zugatikan. Bañan oraindik ez det pentsatzen ikusi gabetanikan, Jaunan laguntza izaten badet, geldituko naizenikan.

4/ Nere biyotzak izan lezaken damu ta penik geiena, litzake galtzen ikusitzia lur nere maite goiena; gañerakuan utziya daukat Jaunaren eskura dena, naieraz nere etorkizuna izan dediyen zuzena.

5/ Nere seaska pare gabia, euskaldunaren kabiya, zure semeak barrun ortara dute maitasun guztiya; beti ospatsu izandu zera eta kondairaz aundiya, doakundeaz beterik zaude izanik garailariya.



Bernardo Otaño Barriola eta Juana Iparragirre Iztueta, senar-emazteak.

- 6/ O!, zenbat egin oi zuten gure  
aitonak danagatikan,  
ikusirikan bekaiztiyak  
asko gaitz egin nairikan;  
bañan nola aiek uzten etzuten  
beren bide zuzenikan,  
beti laguntza izaten zuten  
gure Jaunarengandikan.
- 7/ Ez iñoiz utzi, anai maiteak,  
aien biderik okertzen,  
bestela zalla izango dala  
uste det berriz zuzentzen;  
badakizute erreza dala  
okerturikan erortzen,  
nola dan zalla indarrrik gabe  
erortzen dana altxatzen.
- 8/ Elkarturikan bizi zaitezte  
danari kontu egiñaz,  
arkitu gabe etsai artean  
bururik altxa eziñaz;  
segi zazute beti aurrera  
barrundik datorren griñaz,  
oroiturikan arbol onari  
zarrez sortutako miñaz.

Felipe Kasal Otegi-k  
(Euskal Festak Donostiyan,  
Oroimengarria, 1894)

\* \* \*

Erderazko bertso auek Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian arkitu ditugu, beraren 250 zenbakian, 1900-eko irailaren 10-ean. Firmak egillearen izenaren asierako letrak ematen dizkigu. Orrekin bakarrik, guk beintzat ezin igerrri nor izan ditekén.

AL NOTABLE Y LAUREADO POETA  
VASCONGADO PEDRO M. OTAÑO

I

*¡Titánica batalla estás librando  
sin que nadie se fije en tus proezas!  
Recrudece el combate; y tú, callando,  
laureles sin cesar vas conquistando,  
que aumentan el caudal de tus grandezas.*

II

*Ondas sonoras de tu lira de oro  
recuerdos gratos despertar hicieron;  
y el alma, agradecida a tal tesoro,  
se asocia ansiosa al bullicioso coro  
que forman los que hasta hoy te comprendieron.*

III

*Tu sacra inspiración, fuego sagrado  
que hizo retoñar dentro del pecho  
el árbol del amor más acendrado  
que es el lejano hogar, me ha entusiasmado,  
dejándome tranquilo y satisfecho.*

IV

*¿Qué importan en la vida sinsabores  
si llega, al fin, el anhelado instante  
en que se truecan en fragantes flores  
las espinas que causan los dolores  
y se dice gozoso: "Soy triunfante"?*

V

*La palma del martirio se marchita  
reverdeciendo del laurel la gloria;  
suena de redención la hora bendita,  
y aquel genio del mal se precipita  
al negro averno, sin dejar memoria.*

VI

*Mi aplauso otorgo al inspirado vate  
que vio la luz en la euskalduna zona;  
y aplico a mi bridón el acicate  
por hallarme a su altura, ya que late  
en ambos pechos la pasión vasca.*

H. G. de A.  
(Setiembre 28 de 1900)

\* \* \*

- 1/ O, Zizurkilko izar argia,  
gaur nator zure gorantzan,  
zauden tokitik neri entzuten  
ote zauden esperantzan;  
zure mingaña bezin iaierik  
garai artan emen etzan,  
etxe ta kanpo zure ametsa  
jakiñekoa izaten zan,  
lorerik mardulena zu ziñan  
bertsolarien baratzan.
- 2/ Badakit ainbat urte itxasoz  
arunztik egin ziñula,  
zure ezurak Amerikako  
Pampa zabalak ditula.  
Zure gogoan etzan emendik  
iñora aldatu sekula,  
zure bertsoen usai gozoa  
bai indartsu ta mardula!  
Jaio ziñan lur bedeinkatua  
bai gogoz maite zendula!
- 3/ O, Pedro Mari, zure bertsoak  
urrezko letretan daude,  
ta irakurtzen ari geranak  
ezti miazketan gaude;  
biotz osoa agertzen dezu zuk,  
etzenduan ezer gorde,  
atseden gabe lan egiteko  
gure izkuntzaren alde...  
Ai, Europa ta Amerikan gaur  
Otaño asko baleude!
- 4/ Zutiñik daude baserri txuri,  
soro, zelai, baso, mendik...  
Errekatxo ta ibaiak berdin,  
aldakuntza gabetanik.  
O, Pedro Mari, au zorigaitza!  
Gauz bat atzendu da lendik,  
beldur naiz baña ez al da, noski,  
ezkutatuko gugandik...  
Zuk ain kutuna zendun izkuntzak  
arnasa badu oraindik.

- 5/ Beti-betiko atsedenean  
zu goxoki egon zaite,  
zure aginduk gogoan daude  
ta badago zeñek bete;  
asmo bizi ta zaletasuna  
gaur ainbat gaztek daukate,  
zuk botatako sustrai sendoak  
kimu bikaña dakarte,  
zure bidetik jarraiko degu  
Jaungoikoak nai dun arte.

Basarri

*La Voz de España*, 1949-XI-13  
*Basarri' ren bertso sorta*, Zarautz, 1950  
*Zeruko Argia*, 1965-V-9  
*Auspoaren Sail Nagusia*, 1992


\* \* \*

1965 urteko maiatzaren 9-an,  
omenaldi eder bat egin zitzaion Pedro  
Maria Otañori Zizurkillen, Errekalde  
bere jaiotetxean oroitarri bat eta erriko  
plazan arrizko iduri bat jarritz.

Jaiotetxeko oroitarria agertze-  
rakoan, bera baitzegoan an bertsolari  
bakarra, bi bertso auk kantatu zituan  
Asteasuko Bautista Ondartzza Pello  
Errotaren billoba zanak:

Etxe onetan jaio omen zan  
Otaño Pedro Maria,  
leku guzitan ezagutu zan  
bertsolari dotoria;  
bera ondratzera etorri zaio  
euskaldun jende trebia,  
merezki zuan gizona zan da  
aitortu' iogun beria.

Gazte denboran egin omen zun  
Amerikara bisita,  
bere erriko lagun maiteak  
sentimentutan utzita.



Errekalde baserriko goiko atea, 1965-ean ezarritako oroitarriarekin.

Zeñek etzuan pena artuko  
gizon ura ikusita?  
Euskaldun asko geratu ziran  
begiak malkoz bustita.

\* \* \*

Ondoren, plazan, beste bi bertso  
auek kantatu zituan:

Poz utsarekin egondu gera  
juan daneko bi urtian,  
bañan gogua azaldutzen da  
Asteasuko partian.  
Bertsolai oiek fama aundikuak  
len nola izan baidian,  
Pello Errotana egingo degu  
uztaillan amaikian.

Ameriketean Pedro Mai il zan  
bere ezurrak utzirik,  
mundu ontara jaiotzen danak  
ez baidu segurantzirik.  
Aldi ontatik juaten bada  
andik ez da notizirik,  
ixtimatuko genduen danok  
gaur egon balitz bizirik.

\* \* \*

Egun berean, Lazkao-Txikik beste  
bertso au kantatu zuan:

O, Pedro Mari, maitatzen zera  
lurrean da zeruetan,  
orregatikan il ezkeroztik  
zaude zu iru pusketan:  
animaz Jaunak Beragan zauzka,  
gorputzez Ameriketean,  
biotzez, berriz, Euskal-Errian  
zure bertso bikaiñetan.

1965-eko maiatzaren 9-an Otaño-  
ren omenaldia Zizurkillen ospatu  
ondoren, biaramon illunabarrean,  
Donostiako *Radio Guipúzcoa*-tik,  
onako iru bertso auek kantatu zituan  
Basarrik:

- 1/ Arrigarria bertsozaleak  
eman zuten erantzuna,  
arnasik degun artean beti  
gogoratuko deguna.  
Atzoko orri esaten diot  
nik benetako eguna,  
o, Pedro Mari, egin dizugu  
ondo merezi zenduna.
- 2/ Gazte jendea indartsu dator,  
ezta ixiltzen bertsorik,  
Garizumaren izan ezean  
gero eztator Pazkorik.  
Otaño maite, zuk etzenduen  
alperrik galdu denborik,  
garaiz azaldu ezpaziña zu  
etzegon ondorengorik.
- 3/ Erri bakoitzak bere señale  
txit bereziak badauzka,  
eztauka iñork zertan nekatu  
zurea zein dan galdezka.  
Zizurkill maite, egon zindezke  
pozkiro, irri-parrezka,  
zu baitzaitugu, zorionean,  
Otaño-tarren seaska.



PEDRO MARI, ZU, MAITLA ZERA  
LURREAN DA ZERUETAN  
ORREGATIKAN IL EZGEROZTIK  
ZAUDE BAI IRU PUSKETAN  
ANIMAZ JAUNAK BERAGAN ZAUZKA  
GORPUTZEZ AMERIKETAN  
BIOTZEZ BERRIZ EUSKALERRIAN  
ZURE BERTSO BIKANETAN

LAZKAO TXIKI

OTANO-TAR PEDRO  
MARI  
BERE OROIMENEZ  
ZIZURKIL-KO ERRIAK  
1965-KO LORAILLAREN  
9-AN

Pedro Maria Otañoren irudia eta Lazkao-txiki bertsolaria zana. Zizurkil, 1965-V-9.



PEDRO MARIA OTAÑORI

- 1/ Gipuzkoko erritxo  
Zizurkill onetan  
Pedro Mari jaio zan  
Errekalde ortan.  
Bere omen egunez  
iritxi naiz bertan,  
biotza pozez eta  
begiak malkotan,  
oinbesterik eztitut  
ikusi askotan.
- 2/ Zizurkill, adi zazu  
nere aitomena,  
au ez esateakin  
izango nun pena.  
Itz gutxirekin ezin  
nik agertu dena,  
baña bai biotzetik  
zein dedan naiena,  
bertsoak jarri zitun  
bertsolariena.
- 3/ Gauza bat zebilkizun  
buru-biotzetan:  
beti sorterriakin  
ziñan ametsetan.  
Urritzen baizijoan  
euskera itzetan,  
emengo baso, zelai,  
mendi ta arkaitzetan,  
zure bearra bazan  
bere ekaitzetan.
- 4/ Bertsoak jarri ziñun  
gozo ta miñakin,  
biozkadak jaulkiaz  
zentzuz mingañakin.  
Ezin ixildurikan  
zeure samiñakin,  
urez beste aldeko  
erresumiñakin,  
irrikitzen baizeunden  
etorri eziñakin.
- 5/ Zenbat altxa zenduen  
gure izkuntza zarra,  
euskaldun danok ortan  
badaukagu zorra.  
Zer egin bear degun  
badakigu sobra,  
zuk aurretikan bixtan  
jarri iguzu obra,  
zure izenik gero  
ezin leike borra.
- 6/ Biotza zendukazun  
beti su eta gar,  
argatikan ainbeste  
bertso zenduen jar.  
Guri animaraño  
egin zaizkigu sar,  
miaturikan danak  
nola berri ta zar,  
oiekin bestek ezin  
egin lezake par.
- 7/ Daukaten mami goxo  
ta beren joskera  
ikusita, gu nola  
poztuko ez gera?  
Ondo begiratuta  
doaitsua zera,  
artutako gaietan  
ai, ori izkera!  
Zuk bai egitan maite  
zendula euskera!

8/ Iñor izandu bada  
maitatu duanik,  
zuk baño geiago ez  
esango nuke nik.  
Ain urrutitaraño  
emendikan junik,  
bera aipatu gabe  
etzenduan onik,  
gabak ere zuretzat  
etzuten illunik.

9/ Berdin sinisten zendun  
begik itxita're,  
orren uste onakin  
gaur ain gutxi daude.  
Euskerarik etzala  
galduko iñola're  
sarritan esana zu,  
ziñetan alare,  
zerutarra dalako  
du ainbat ondare.

10/ Auxen da zoritxarra  
etorri zaiguna:  
atzeritarrez bete  
Euskalerra dana.  
Ikasiko balute  
guk mintza deguna,  
lurrealde au izango  
litzake ederrena,  
euskerak orixe du  
gauzik bearrena.

11/ Egilleak etzigun  
bizi lurrik neurtu,  
kanpotar danak ondo  
beaitugu artu.  
Maitasuna eskeñi  
eta ez zigortu,  
alde egitera iñor  
ez leike beartu,  
zu bezela euskaldun  
nai duna biurtu.

12/ Bertako asko daude  
mintzo au aztuta,  
aidean nola ibilli  
egoak moztuta?  
Arnasa jun ezkeroz  
ez leike piztu-ta,  
iltzen utzi duanak  
ardurik eztu-ta,  
orretxengatik dago  
Ama zapuztuta.

*Gillermo Albizu, Urnieta.  
Zeruko Argia, 1967-V-14.*

## ZIZURKILKO ERREKALDE BASERRIARI BEGIRA

1/ Zizurkilko erritik  
urrutira gabe,  
sortaldera pixka bat  
sartzen bagerade,  
lore usaia duten  
oroipenen jabe,  
bildotx maite otzan bat  
bezin pake zale,  
tontor baten oñean  
dago Errekalde.

2/ Ara or Pedro Mari  
jaio zan kabia,  
intxaur arbola batek  
erdi estalia;  
mundutik joan zan baiño  
ez da itzalia,  
goi urdiñean dago  
diz-dizka jarria,  
zure tellatupean  
sortu zan argia.

- 3/ Begira Errekaldek bere edergarri aurrean daukan intxaur arbol ederrari; badu guretzako zer gogora ekarri, zenbat aldiz gogo bat ortxe ameslari, bere itzala baizan amets aien argi.
- 4/ Errekalde ondoko Osasun-iturri, izen au deitzen zaizu ain egoki zuri; eten gabe or zaude eman da ixuri, Pedro Mari oroitzen dagola diruri, gozoa bezin eder dan ur garbi ori.
- 5/ Etxe ori izenez deitzen dan moduan, errekatxo garbi bat dijoa onduan; mar-mar gozoan ura etorri ta juan, Pedro Mari berorren eredu genduan, on egiñaz igaro zitzaigun munduan.
- 6/ Txoko ortako gauzak nor zan izar ori aditzera ematen ari dira guri; ez banintz geldituko ain txiki ta urri, Errekalde ondoa edesti arturi(k), zenbat gauza eder ez leizke irakurri!

*Teodoro Mujika, Zizurkil*

## JOXE BERNARDO OTAÑORI

- 1/ Joxe Bernardo, goraiatzeko zure maillako gizonik, ez derizkiot bear ainbeste ta gutxiago naizenik. Baiñan zugandik gertu daukadan biotz txiki bat izanik, bere barruan senti dedana pozik eskeintzen dizut nik.
- 2/ Bere izena ez genduke nai neurri gabe ugaritu, zintasun osoz aitortzen degu nai badu iñork aditu. Bertsolarien aita on batek merezi ainbat meritu, gure iritziz, aipatu degun gizon onetxek baditu.
- 3/ Guraso zarrak esana degu guk beratzaz dakiguna, gure aitonak au zan sarritan aitortu izan ziguna: soin dotoreko bertsolaria, pare gabeko iztuna, garai artako ainbat euskaldun gozatu izan zituna.
- 4/ Otañotarren lur sendo artan bazan bertsolari zaiña, apartekoa zala dirudi aien grazizko mingaiña. Osaba guziz ederra bazan illoba zeinën liraiña, sendi batean gutxitan sortu oi dan bikote bikaiña.

- 5/ Joxe Bernardok abestutako  
ainbat bertso eder, bikain,  
jasotze lana norbaitek artu  
izan bazuen bere gain,  
osatuko zan liburu on bat  
ederki betetzeko lain,  
baiñan tamalez oietatikan  
geiegi ez dira orain.
- 6/ Baiñan erabat galtzen ez bada  
gure aotiko itza,  
eta berari eusten saiatzen  
bagera beintzat bakoitza,  
aruntz-onuntza ibili arren  
aurkako aize zikoitza,  
Euskal-Erriak ez du galduko  
Otañotarren oroitza.

*Teodoro Mujika, Zizurkil*

## PEDRO MARI OTAÑORI

- 1/ Euskaldun denen aita  
degu Pedro Mari,  
goikoaren argitan  
arkitu bedi.  
Berak eman baizigun  
arrazoi ugari,  
izkuntz au gordetzeko  
txukun eta garbi,  
ainbat gizon argi,  
nola idazlari,  
ala bertsolari,  
begira berari,  
eta artu dezagun  
gure gidari.
- 2/ Bertsoan itz gozorik  
badauka esanik,

beiñere galdu gabe  
garbitasunik,  
bere aotik iñoiz  
ez baita entzunik,  
itxurarik gabeko  
izketa lizunik.  
Alako gizonik  
ez dakit bazan nik,  
guretzat gauz onik  
erakutsi zunik,  
ikasi nai badegu  
bide zuzenik.

- 3/ Bere itzak etzuten  
ainbat espiritu,  
goi maitasunik gabe  
esan balitu.  
Guretzat zoriona  
nai zuen arkitu,  
euskaldun zintzo eta  
onak ugaritu,  
lausoak garbitu,  
buruak argitu,  
gogoak berritu,  
ta zenbat meritu  
alako gizon batek  
merezi ditu?
- 4/ Aitormen au egingo  
nioke bertsoan,  
sentimentu goxo bat  
agertzekotan:  
zerorri jaiotako  
mendi ta basotan,  
jaio eta bizia  
naiz urte askotan,  
gure txoko ortan  
zenbat aldiz lotan  
artu det aurtxotan  
amaren besotan  
zure bertso ederren  
usai gozotan.

*Teodoro Mujika, Zizurkil.*

ERREKALDEKO  
INTXAUR ARBOL  
IGARRARI BEGIRA

- 1/ Zure gañetik ez du emango  
ontzak gaueko lantua,  
ain gutxi berriz txori alaiak  
uda berriko kantua.  
Pedro Mariren bertso gozoak  
ain maiteki laztandua,  
jaio ziñan da noizbait bukatu  
bear zenduan mundua,  
igartu zera, Errekaldeko  
intxaur arbola santua.
- 2/ Enbor egiñik zauden tokitik  
pixkatxo bat goragoan,  
ikusten degu gazte lerden bat  
indartsu nola dagoan.  
Naiz ta mundutik gu eta beste  
ondorengo asko joan,  
zure antzeko seme leialak  
dituzun arte ondoan,  
onbu zarraren bertso bikaiñak  
jasoko dira gogoan.
- 3/ Gure aurretik igaro ziran  
aien gogo eta itzak,  
zerbait zentzuzko garrantzirik  
baldin badaukate beintzat.  
Señale batzuk bearrezkoak  
ditugu oroigarritzat.  
Euskadirentzat duan bezela  
Gernikan degun aritzak,  
Errekaldeko intxaur arbolak  
dezala bertsolaritzak.

*Teodoro Mujika, Zizurkil.*

(1985)  
PELLO MARI OTAÑORI  
IRUROGEI TA  
AMABOSTURRENEAN

- 1/ Norbaitek jantzi ditu  
bere jakinduriz  
zelai ederrak lorez  
eta apainduriz,  
mendiak zuaitz berdez  
ta txori kantariz,  
baita gure Euskadi  
ere bertsolariz.
- 2/ Pozgarri da lorea  
belaz dotorian,  
eta txori alai  
mendi tontorrian;  
bertso ederrak ere  
beren umorian,  
ainbat edo geiago  
aien ondorian.
- 3/ Lore eta txoriak  
bertsolariekin,  
zerbaiten antz irudi  
degu alkarrekin;  
gauza danak sustraia  
badute berekin,  
Norbaitek ez du ezer  
utserako egin.
- 4/ Oraintxe irurogei  
ta amabost urte  
Pedro Mari il zala  
esaten digute;  
baiñan bere bertsoak  
bizia daukate.  
izkuntz onek arnasik  
galtzen ez dun arte.

- 5/ Argirik biziena  
dute bere itzak,  
emen illuntasunik  
danik ez deritzat;  
bere bertsoak dira,  
nere ustez beintzat,  
Euskadi apaindu nai  
duten urre printzak.
- 6/ Gizontasun jatorrez  
egin digu diz-diz,  
eta euskaldun asko  
bete dira argiz,  
biotzak indar sendoz  
ta buruak egiz;  
sermoi bat baiño obe  
dira bere bi itz.
- 7/ Guretzat idaztia  
orrenbeste bertso,  
etzitzaizun izandu  
beññere nekoso;  
maite giñuzulako  
biotzetik oso,  
oiek biurtu zindun  
gure ezti gozo.

- 8/ Oraindikan ez ditu  
Euskadi guriak  
galdu zure antzeko  
gizon irudiak;  
Pedro Mari, ez dira  
emaitzik gabiak,  
zain ortatik atera  
diran landariak.
- 9/ Eskerrik asko zure  
arnas beroari,  
Euskadin sortu zaigu  
ainbat bertsolari;  
zure izar bizia  
betiko dago argi,  
gora euskera eta  
gora Pedro Mari!

*Teodoro Mujika, Zizurkil.*

## JUAN JOXE UGARTE (JUAN JOSE BELDERRAIN BARRIOLA) (1854-1920)

Juan Jose Ugarte esaten zioten bertsolaria ere izan zan Zizurkillen. Baiña *Ugarte* jaiotetxearen izena zan. Abizenak, berriz, Belderrain Barriola zituan.

Bigarren abizena kontuan artzekoa da. Orixe zan, dakigunez, Pedro Maria Otañoren bigarrenkoa ere. Bien amak aizpak baitziran. Leengusu propioak, beraz, Pedro Mari eta beste bertsolari au.

Juan Jose Ugarte 1854-eko martxoaren 5-ean jaio zan. Beraren gurasoak: Jose Maria Belderrain eta Juana Antonia Barriola, biak zizurkildarrak eta bertan bizi ziranak.

Aitaren aldeko aiton-amonak: Juan Frantzisko, Zizurkilkoa, eta Maria Frantziska Maritxalar, Berastegikoa. Amaren aldekoak: Frantzisko Maria Barriola, zizurkildarra, eta Maria Mikaela Arregi, Billabonakoa.(1)

Senide auek izan zituan Juan Josek, Zizurkilko bataio-agirietan arkitu degunez: Frantzisko Maria, 1855-eko abenduaren 7-an jaioa; Maria Katalina, 1858-ko ilbeltzaren 14-ean; Jose Domingo, 1859-ko urriaren 24-ean; Juana Josefa, 1862-ko martxoaren 6-an; Maria Brijida eta Juan Tomas, biz-

kiak, 1864-eko otsaillaren 12-an; eta Manuela Josefa, 1866-ko martxoaren 15-ean.(2)

Maria Brijidaren amaþontekoa Juana Inazia Belderrain izan zan, aita-aren arreba ziur aski; eta aitapontekoa, Juan Pedro Otaño; gure Pedro Maria Otañoren aita, beraz. Baiña Juan Pedro ori ezin etorri-edo, eta aren ordezko beraren aita izan zan, Pedro Maria Otaño Tapia, *Errekalde Zaarra* bertsolaria, Pedro Mariren aitona. Bi familiarak, Ugartetarrak eta Errekaldetarrak, artu-eman gozotan bizi ziran, beraz.

Etixerako gelditu zana Juan Jose izan zan, gure bertsolaria alegia.

Ogei ta amabi urterekin ezkondu zan, Zizurkillen bertan, 1886-ko maiatzaren 15-ean. Andregaiia Eustakia Oiartzabal Belderrain izan zan, Zizurkilko alaba bera, emezortzi urtekoa. Beraren ama Juan Joseraren amaren aizpa zan. Leengusu-ezkontza, beraz. Orregatik, baimena eskatu bear izan zuten: "*con dispensa del impedimento de segundo grado de consanguinidad*".

Egun berean, eta zalantzarik gabe elizkizun berean, Frantzisko Maria Oiartzabal, ogei ta iru urtekoa, eta

Manuela Josefa Belderrain, ogei urtekoa, ezkondu ziran. Bi anai-arreba beste bi anai-arrebekin, beraz.(3)

Juan Josek eta bere emazte Eustakia seme-alaba aukeratu zituzten: Justo, 1886-ko abuztuaren 6-an jaioa; Jose Maria, 1888-ko abuztuaren 15-ean; Manuel Antonio, 1890-eko abuztuaren 26-an; Jose Juan, 1892-ko azaroaren 23-an; Juana Josefa, 1895-eko martxoaren 28-an; Jose Frantzisko, 1897-ko apirilaren 8-an; Juana Frantziska, 1899-ko maiatzaren 31-ean; Jose Domingo, 1902-ko ilbeltzaren 4-ean; eta Katalina, 1906-ko ilbeltzaren 25-ean.(4)

Bederatzi senide aukeratu Ugarte baserrian jaio ziran.

Beren ama, Eustakia Oiartzabal Belderrain, 1906-ko maiatzaren 21-ean hil zan, pulmoniaz, Ugarte baserrian, ogei ta emezortzi urterekin.

Beraren senarra, berriz, Juan Jose Belderrain Barriola, Juan Jose Ugarte bertsolaria alegia, 1920-ko urriaren 31-n hil zan, Ugarte baserrian, irurogei ta sei urterekin.(5)

\* \* \*

Juan Jose Ugarte bertsolariak bertsozori paperean jarri ote zuan ez dakigu. Bearbada olakorik ere moldatutakoa izango zan ura, baiña gure eskue-taraiño ez da alerik iritxi, beraren ize-narekin beintzat. Aotik aorako batzuk bildu aal izan ditugu, ordea, eta oietxek eskeiñiko dizkiogu orain irakurle-ari.

Juan Joxe Ugarteren bi bertso aukeratu Andoaingo Jose Antonio Loinaz

Otaño apaiz jaunaren eskutik jasotako ditugu. Zizurkilko Antonio Mendizabalek esan zigunez, Ostegun Santu batean kantatuak dira:

Kristo gure Jauna da  
guziyon arbola,  
bere umerik ez du  
ukatu sekula;  
badakigu guztiyok  
bizirik dagola,  
gugatik ixuri zuben  
arek bere odola,  
izan gaitezen beti  
goguan degula.

Bere Ama ederra da  
Maria Birjiña,  
amaika negar triste  
gugatik egiña;  
guztiyok badakigu  
dala oso fiña,  
artxek erakutsiya  
dakigu dotriña,  
ai, ori aztu gabe  
biziko bagiña!

\* \* \*

Gertaera eta leenengo bertsoa beste onela kontatzen ditu Jose Bernardoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok, Zizurkilko Teodoro Mujika adiskideak jasotako zionez:

“Juan Joxe Ugarteren denboran mi-xiolari batzuk izan omen ziran Zizurkillen, beren itzaldiak egiten. Bukaerako egunean, erretore jaunari Juan Joxe bere etxera eramatea gogoratu omen zitzaion, aparitxo bat egiñez bertso batzuk izlari oien aurrean kanta





Ugarte baserria, Zizurkil.

erazteko. Negarrez jarri erazteraño ikutu omen zioten biotza Juan Joxeren bertsoak.

Tamalez, ez degu oietatik bertso au besterik:

Kristo gure Jauna da  
guztien arbola,  
bere semerik ez du  
ukatu sekula;  
guregatik ixuri  
zuen ark odola,  
eta sinista zagon  
bizirik dagola,  
bizi gaitzela au  
gogoan degula."

\* \* \*

Urrengo bertso au Juan Joxe Ugartek, begietan malkoak zituala, kantatu omen zuan. Zizurkilko Antonio Mendizabalen aotik jaso genduan.

Melillara dijuaz  
soldadu gaztiak,  
Amerikara berriz  
gañera bestiak;  
mundu ontan ez dira  
ain gutxi kostiak,  
zer egin bear degu  
aitona tristiak?

\* \* \*

Beste bertso au ere Juan Joxe Ugartek kantatua omen da, Jose Bernardoren alaba Plazidarengatik. Jose Antonio Loinaz Otaño apaiz jaunari zor diogu.

Gaur ikusi det zure  
alaba Plazida,  
aspaldiyan orixe  
ni ainbat azi da;  
mutillai begirutzen  
panparroi asi da,  
gazterik oartzeko  
tokiyan bizi da.

Beste batzuek beste modu ontara kantatzen omen dute:

Jose Bernardon alabak  
izena Plazida,  
aspalditxuan ori  
galanki azi da;  
mutil gaztai ere  
beiratzen asi da,  
gazterik goatzeko  
tokiyan bizi da.

\* \* \*

Zizurkilko Serapio Mendizabalek, berriz, Juan Jose Ugarte eta Plazida alkarrekin ezkondu asmotan edo tratabi-dean asi egin zirala esan digu; baiña etzirala konpondu. Ondoren onela jarraitu zuan:

"Nik oiek iru bertso ikasi nituan. Gure ama zanak kantatzen zituan.

Asiera du orrek, Juan Tomas Galar-di zana eta Beibategiko Miel Mari zana, *Portotxa* esaten ziotena, izketan ari zirala Beibategiko etxe ondoko lasterbidean -orain kamioa egiña dago bi-detxior artan-, eta neska-mutillen gorabeerekin ari omen ziran.

Bordaburuko gizona, berriz, Billa-bonara omen zettorren enkargutara.

Geratu da ura ere bide bazterrean tertulian, eta ari esan ezkontza nola galdu zan. Eta arek, Bordaburuk, Billabonan kontatu eta zabaldu.

Baiña Juan Jose Ugarte enteratu da, eta orduan iru bertso auek moldatu:

Errekaldekua da  
alaba Plazida,  
aspaldi ontan ori  
ni ainbat azi da;  
mutillak toriatzen  
gazterik asi da,  
izan ere alako  
tokian bizi da.

Zenbat pertsona geran  
ainbeste jeniyo,  
Bordaburuk badauka  
milla amoriyo;  
ezkontza galdu dala  
berak ala diyo,  
Juan Tomas ta Portotxa  
dirala meriyo.

Jose Bernardok dauka  
eztaitako txala,  
bi urte badirade  
ura jaio zala.  
Besterikan ez dauka:  
ezurra ta azala;  
Aita San Antoniok  
bedeinka dezala."

Baiña azken bertso au Asteasuko Agustin Zakarrarena zala jaso genion Pello Errotaren alaba Mikelari. Ikus *Pello Errota* liburua (Auspoaren Sail Nagusia, 5, 1992), 429 orrialdean.

\* \* \*

Beste bertso au, aurreko adierazpenarekin, Zizurkilko Teodoro Mujikak bertako Errekalden jaio eta Jose Bernardo Otañoren illoba dan Jesus Iztueta Otañoren aotik jaso zuan:

"Urte aietan Zizurkillen sekretario zan Bitorio Lizarraga tentatzen ari omen ziran bertako emakume edo atso batzuk, oietako alabaren batekin ezkondu erazteko; eta Juan Joxek onela kantatu omen zuen:

Laxter ezkontzen dala  
askok ala diyo,  
bañan ni oraindikan  
ez naiz oso piyo.  
Atso zar deabruak  
dirala meriyo  
galduko ote zaigu  
gure Bitorio?"

\* \* \*

Beste gertaera onek ere iturri bera du: Jose Bernardo Otañoren billoba dan Jesus Iztueta Otañok esan, eta Teodoro Mujikak aren aotik jaso eta guri bialdua:

"Zizurkilko parrokiak San Millan du bere Zaindari. Egun ortan zintzo jouten omen ziran Jose Bernardo eta bere lagun istimatua zuen Juan Jose Ugarte meza nagusira.

San Millan egun batez, meza ondo-renean santuaren erlikiari muin egiteko oitura zutenez, Juan Joxe zintzo jouten omen zan. Baiña Jose Bernardo, presa zuelako, ez omen zan muin egitera joan.

Apaizak orduan onela dio jendeari,  
Jose Bernardori atzetik begira:

- Ori ere nere artaldeko bildotsa ote da?

Eta Juan Joxek erantzun:

- Bai; eta ez saillean dan txarrena ere.

\* \* \*

Juan Joxe Ugarte bertsolariari buruz idazlan mamitsua argitaratu zuan Zizurkilko Teodoro Mujikak *El Diario Vasco* egunkarian, 1989-ko apirillaren 7-an. Merezi du oso-osorik onera aldatzea:

“Zizurkilko Ugarte baserrian jaio, bizi eta il zitzaiGUN Juan Joxe Belderrain, gutxi diran bezelako gizon apal eta atsegiña, berezko benetako bertsolaria, Pedro Maria Otañoren lengusua, biak amak aizpak zituztenez. Zizurkilko Iragorri baserriko alabak ain zuzen. Beraz, bigarren abizena Barriola zuten biak.

Zizurkildik Asteasura bitarteko egaltxo batean dago Ugarte baserria, gaur egun benetan dotorea.

Juan Joxe ezagutzera oso juxtutik ez giñan iritxi, bañan aoz-ao gutxi bezelakoa zala aitortu izan ziguten gure gurasoak.

Bere bertso-lagunik gogozkoenak Joxe Bernardo Otaño eta Pello Errota izan bear zuten, lenengo au bere famili ingurukoa zuelako noski. Bañan Txirritak berak ere oso gogozkoa izan bear zuen Juan Joxe.

Ala ere, ostatu-giro edo lagunartetik kanpo, oso motz gelditzen omen zan.

Ez nuke nai nere erritarrik zapaldu; bañan zizurkildarrak geienetan plazagizon gogorak ez gerala izan aitortu bearra daukagu, nere ustez. Eta ez bakarrik bertsoetan; baita edozein joko eta kirol-gaietan ere.

Orregatik ere, gaur egun dauzkagun bertso-ikastolak bearrezkoak dirala esango nuke, trebetasunean sartzeko bereziki.

Juan Joxek bertso idatzirik utzi ez bazigun ere, bere aoz abestutakoak baditugu buruz ikasiak. Irakurleari gogozko bazaizkio, ara emen oietako batzuek.

Egun batez, Kamio eta Benezi etxe artean, bere lagun batzuekin zijoala, norbaitek engañuzko zerbait esan omen zion. Bañan Juan Joxe argi egon nolabait. Onela abestu omen zuen:

Kamiyon pasa eta  
iy-iyá Beneziñ,  
gizon bat bada emen  
sartuba maleziñ.  
Saiatuagatikan  
egiñala guziñ,  
gu engañatutzeko  
biar gaña eziñ.

Jai-egun batez, bi gizon aserretu eta borroka-saioa egin omen zuten. Bietako batek, belarritik ozka egin eta odoletan utzirik kontrarioa, iges egin. Oni *Zapoa* deitzen omen zioten. Odoletan zegoenak, Joxe Antonio izena. Onela dio Juan Joxek orduan:

Zer moduz zaude, aizu,  
Joxe Antoniyo?

Len baju baziñaden  
etzerade iyo.  
Zapo orrek bazuen  
ainbeste jeniyo,  
nunbait gose zan eta  
ozka egin diyo.

\* \* \*

Joxe Bernardorekin artu-eman asko  
zuenez, bere etxera sarritan irixten za-  
na izan bear zuen. Bera sentitzen zue-  
nean, Joxe Benardoren alaba Plazida  
dotore agertzen zitzaion nunbait Juan  
Joxeri. Orrelako batean onela bota  
omen zion:

Plazidak entzuten du  
Juan Joxeren boza,  
sentitzen dubenian  
artzen duben poza!  
Neskatx umil batekiñ  
bear det esposa,  
ez nuke nai zu beziñ  
gallarda airosa.

Erri txikietan kultura-gizonak bazi-  
ran noski ordurako. Bañan, tamalez,  
Juan Joxe eta bere antzeko askori ez  
dirudi arreta geiegirik zietenik. Orrela  
izan balitz, izango zan bertso eder  
ugari jaso.

Juan Joxeri egiñaz  
bertsozko agurra,  
amaitzera nijoa  
nere lan laburra.  
Al dedan eran beintzat  
izan det ardura,  
bertsolari-sallean  
sartzeko barrura,  
aiñ umil igaro zan  
zizurkildar ura."

Egunkariaren idazlan orretaz gain,  
Juan Joxe Ugarteren beste gertaera eta  
bertso auek bialdu zizkigun Teodoro  
Mujika adiskideak, makinaz idatzita:

"Juan Joxek ateraldi egoki asko  
omen zuen, bañan oso urriak dira gu-  
regana iritxi diranak.

Gure gurasoengandik auxe ikasi  
gendun: gizon atsegin eta gozo aparta  
zala.

Bertsotarako gogo askorik gabe sa-  
rritan ibiliko zan gizarajoa. Nolabait  
penak aztu bearko zituen, eta egun pa-  
sa batzuek egiten omen zituen. Bañan  
geienetan jai illunabar aldera biltzen  
omen zan ostatura.

Egun batez, ostatura sartu orduko,  
galde egin omen zion norbaitek:

- Juan Joxe, atari-zakur bat bear  
nuke. Bai al daukazu bakarren bat sal-  
tzeko?

- Baita bi ere.

- Bañan zertarakoak dauzkazu?

- Bat eperrerakoa eta bestea alpe-  
rrerakoa.

Zizurkilla lenengo egin zan ka-  
mioa, Olentzaro baserriaren ondotik  
erantsi zioten Billabonatik Asteasu al-  
dera dijoan kamioari; 1919 eta 1920  
urtean egiña omen da.

Gaur oraindik Olentzaro baserria  
baño goraxeago nabarmen dago lengo  
bide zarraren sarrera. Altzeta erreka-  
ren ertzetik, Alkanitz errota ezkerreta-  
ra uzten zala, irixten zan Altziturri ba-  
serri ederrera. Andik gora bereala irix-  
ten zan Zizurkilla.

Altzeta erreka ertz au bide txarra izateaz gañera, bi mendiren tarteko zoko eta arbolpe illun bat zalarik, garai batean lasto balazko su eta kandelazko parol-argiarekin pasako zan bide artan bertako eta kanpoko jendea.

Pestetan ere, Abemaritako kanpaia jo baño leenago jetxiko zan neskatxa pranko Zizurkildik beera.

Egun batez, bertso-saio luze xamarrin egin ondoren, etxeratze oso berandutu egin omen zitzaion Juan Joxeri; eta bidean argi egiteko lasto-balarik eta kandela-parolik ez eta al zuen moduan etorri bear bide zar aietan.

Leen aipatu ditugun Olentzaro baserriaren ondotik eta Alkanitz errotatik Altziturri baserrira ez-ezik, Asteasu alderago dagoen Mekola baserriraiño iritxi bear zuen. Ortik oso gertu zan bere etxe Ugarte.

Altziturri baserri ingurura iritxi zanean, bertako etxeo-andrea konturatu omen zan norbait bazetorrela bide zar artan, *tirriki-tarraka* otsa atereaz; eta parola pizturik atera omen zitzaion etxeoandre au, esanez:

- Bañan zer zabiltza, Juan Joxe, ordu auetan?

Juan Joxek:

- Nun naiz?

Altziturriko etxeoandreak zer atearazi:

- Mekolan.

Eta besteak:

- Ez nintzala iritxiko uste niñan sekulan.

Etxekoandre jator arek eman zion parol-argiarekin joan omen zan etxera.

Zizurkillen bada etxe bat Bidegurutz izenekoa, lau alderdietara bideak gurutze egiten duten toki berean. Bañan zizurkildarrok Birautz esanik ulertzen degu.

Etxe ontan, Juan Joxeren garaietan, tabernatxo ere bai omen zan, eta bertara jai-egunetan askotan biltzen ziran gizon xeblebre batzuk bai omen ziran Zizurkillen, beti alkarrekin jokoan eta nundik nori pegatu ibiltzen ziranak. Bat, *Panparron* deitzen ziotena; bestea, *Polio*; irugarrena, *Pantasia*; eta laugarrena, izenik dotoreeneko: *Putza-Erosia*.

Egun batez, jokuan ari omen ziran oietako batek botillero egiten zuela, norbaitek zirikatu omen zuen Juan Joxe, aiei bertso bat botatzeko, eta Juan Joxek bai bota ere. Bañan nik iru puntu auek bakarrik ditut gogoan:

Emen juntatu zaigu  
koadrilla klasia:  
*Panparron* da *Polio*  
eta *Pantasia*,  
laugarren botillero  
*Putza-Erosia*.

Beste egun batez, bai omen zetozen Birautz izeneko ostatutxora *Pantasia* eta *Putza* deitzen zioten biak, eta Juan Joxe ordurako ostatu ortan omen zegoen.

Amabi deitzen zaion baserritik Birautz aldera zetozela, Juan Joxe tentatu omen zuten bi gizon oiei bertso bat botatzeko. Onela kantatu omen zuen:

Bi gizon badatozti  
Amabin onuntza,  
bat dala *Pantasiya*  
ta bestia *Putza*;  
gizon jator xamarrek  
balirake utsa,  
amaiketako billa  
datozti Birautza.

Juan Joxek, noizean bein egun pasa egiten zuenean, bazkal ondoko kuluskatxoa exeririk zegoen maian bertan egiteko oitura omen zuen. Ori egin ondoren botatzen omen zituen bertsoirik ederrenak.

Egun batez, lo gozoan zegoela, kolpe bat emanik esnatu omen zuen bere lagun batek, eskuak luzatuz eta onela esanez:

- Juan Joxe, emaikidak bi bosteko!

Eta onek:

- Alajainkua! Etzaidak asko kostako!

Esnaera zoragarria omen zuen Juan Joxek, eta bera esnatzeko zai egoten omen ziran, bertsoak entzuteko, orduko gazte eta zarrak ere.

Egun batez, egun pasa egin ondoren, abiatu dira etxera bidean, gauean berandu xamar noski, Juan Joxe beste lagun batekin. Oskarbi eta gau giro ederra omen zegoen, illargi betearekin.

Etixerako erdi bidea egin baño leen, exeri omen ziran munto koxka polit batean; eta biak loak artu omen zituen, eta egun-txintan esnatu.

Orduan bruxa beltzarekin ibiltzen ziran baserritarrik geienak, eta Juan Joxeren laguna konturatu omen zan bruxak izotzarekin zuriturik zeuzkate-la.

Onela dio bere lagunak Juan Joxeri:  
- Izotzak zuritu dizkigu bruxak!

Eta Juan Joxek:

- Arraio-arraioa! Epela izango uan!

Zizurkilko erriari desondra aundirik utzi gabea izango zan Ugarteko Juan Joxe Belderrain gizarajoa. Goiko Jaunak bere agitan beza!

Pello Mari Otañok eta Juan Joxe Ugartek amak aizpak zituzten; Irigorri baserrikoak eta Barriolatarrak, ain zuzen.

Adunibar-errotan jaio eta Otañotarren kastakoa zan Emiliano Bengoetxea zanak(6) egun batez esan zigunez, Otañotarrak eta Barriolatarrak alkarrekin setatsu antzean ibiltzen omen ziran.

Otañotarrak oso Errekaldetarra zala esaten omen zuten Pello Mari. Barriolatarrak, berriz, Errekaldetarra ainbat bazuela Iragorritarra ere; Juan Joxe Ugarte zala eredu garbia.

Ala ere, konturatuko zirala uste degu, bai alde batekoak eta bai bestekoak, odoletik artu zuten bertsolari-izate orri beren umiltasun eta fedea eman ziotela zentzu eta argitasun berezi bat."

\* \* \*

Beste gertaera au ere Zizurkilko Teodoro Mujikak idatzia da:

"Arjentinan irurogei urte egiñik etorri berria dan Zizurkilko Pantxikane ostatuko alaba dan Ixabel Mendizabal emakume gozoari Juan Joxe Ugarteren oroipenik bazuen galdetu genionean, bere arpegia irrifarrezko argiz bete zitziola zirudien. Lenengo itza onela atera zitzaion:

- Juan Joxe Ugarte! Ura gizona!

Ondoren onela esan zuen:

- Bertsolari ona izatea bat da, gizon gozoa eta atsegiña izatea bestea, eta ori guztia zuen Juan Joxek. Pena aundia daukat gure amari berak bota zion bertso bat gogoan ez izatea.

Eta jarraitu zigun esanez:

- Zuk ongi dakizunez, gure Pantxikane jaiotetxean taberna, denda eta panaderia ziran gure gazte denboran; eta gure ama gaixo Joxepa Antonik, bere bederatzi seme-alabekin eta etxeko martxarekin, lan asko egin bear izaten zuen. Arritzekoa ez danez, bein ere naiko lorik egin gabe ibiltzen zan. Ala, jai bazkalondo batez, sukaldean bere seme txikiena zuen Enrikeri bularretik ematen ari zitzaioła, loak artu zuen gure ama gaixoa. Juan Joxe Ugarteri biotza ikutu zion emakumearen jarre-rak, eta exeririk zegoen tokitik altxa, berarengana inguratu, bizkarretik maitekiro eldu eta aurrari begira bertso gozo eta sentikor bat bota zion.

Berriro onela esan zuen Ixabelek:

- Pena aundia det bertso ura gogoan ez izatea!

Eta, au esatearekin, negarrari eman zion.

Juan Joxe ordurako alargundua zan, eta seme-alaba asko zituen aita; eta orregatik ere ama on arek ikutuko zion biotza.

Orrelako unetan ateratzen diran zenbat bertso sentikor galdu ote da gure artean?"

\* \* \*

Zizurkilko Adunibar baserriko Serapio Mendizabalek, berriz, Juan Jose Ugarteren beste gertaera eta bertso auk eman dizkigu:

“Batean, San Juan bezperan Iturriotza joan, gau pasa egin eta urrengo egunean ermitan meza nagusia. Ala, mezetara joan zan Juan Joxe Ugarte ori; baiña gau pasa egiña nola zan, lo artu omen zuan, eta meza erdiko txin-tzarriarekin esnatu. Esnatu eta, tabernan zalakoan, bertsotan asi. Zizurkilko Zalduko Anjel Mari aldamenen, eta arek ixildu omen zuan.

Beste batean, Pantxikaenean, Juan Joxe Ugartek pipa tabakoarekin kargatu omen zuan, baiña piztutzeko poxpolorik ez. Bertako neskameak Berta omen zuan izena, eta berari esan omen zion:

- Aizu, Berta: poxpoloak ekarri izkidazu.

Ala, poxpoloak ekarri omen zituan. Baiña ekarri ez-ezik, piztu ere berak egin omen zion pipa. Eta Juan Joxek orduan neskame orri bertso au kantatu:

Berta auxen daukagu  
neskatxa iaiua,  
amaren sabeletik  
ala da jaiua;  
geroztikan badauka  
bere baliyua,  
neronek billatuko  
dizut nobiyua.

Juan Joxe Ugarte ori, Billabonara etorri zan batean, Albateko tabernan sartu omen zan. Bertako nagusia, Roke izena zuana bera, konkorduna



omen zan, eta familia izateko esperoan omen zegoan aren emaztea. Tabernariak bertsoa kantatu arazi nai, baiña bes-teak gogorik ez.

Roke orrek onela esaten omen zion:

- Kantatu, kantatu edozein bertso!

Juan Joxe Ugartek:

- Ni edozein bertso kantatzen asten banaiz, asarretu egingo zera.

Besteak:

- Ez. Ez naiz asarretuko.

Eta, esan bezela, aren emaztea familia izateko esperoan baitzegoan, bertso au kantatu omen zion:

Roke, ez al daukazu  
etxerako kezka?

Aurki asi bearra zaude  
bulla eta oska.

Aitak bezela badu  
bizkarrian koska,  
zure andre gaxuak  
ixtilluak dauzka.(7)

Bertsolari ona omen zan Juan Joxe Ugarte au. Gure ama zanari ala entzuten genion. Pello Errota ere askotan estutzen omen zuan”.

\* \* \*

Juan Jose Ugarte bertsolari au guxtienez bi bider aitatzen du *Euskal-Erria* aldizkariak.

Irungo 1881 urteko Euskal Feste-tan, iraillaren 10 eta 11-n -larunbata eta igandea- bertso-saioak egin ziran, eta Juan Jose Ugarte onek ere kantatu zuan. Onela dio *Euskal-Erria* dalako orrek, bere IV tomoan, 1881 urtean:

”Los improvisadores que se han presentado a tomar parte en las dos sesiones anunciadas... son los siguientes: Pedro Elizegui (a) Asteasuco errotariya; Juan José Alcain (a) Udarregui, de Usúrbil; Bautista Urquia (a) Gorriya, de San Sebastián; Juan Cruz Elicegui (a) Oyarzungo errotariya, de Asteasu; Juan José Belderrain, de Cizúrquil; José Cruz Sagardía Olloqui, de Igueldo (hijo del afamado improvisador del mismo apellido), y los tres hermanos Labandibar (Nicolás, Francisco y José Antonio), de Fuenterrabía.

La sesión celebrada la mañana del sábado en el teatro de la villa, ante una gran concurrencia, fue muy interesante. La que tuvo lugar el domingo por la tarde hubo necesidad de precipitarla y aun de suspenderla, antes de tiempo, por efecto de la lluvia.

El Jurado calificó en primer término a los ya famosos bersolaris Elicegui, Gorriya y Udarregui; en 2º lugar a Elicegui menor, Olloqui y Belderrain, y en 3º a los hermanos Labandibar, acordando distribuir los varios premios entre ellos, señalando cinco duros a cada uno de los tres primeros, cuatro a cada uno de los tres segundos, y a tres a los designados en el último lugar”.

Urte berean, Santo Tomas egunean, abenduaren 21-ean alegia, Teatro Zaarrean kantatu zuan Juan Jose Ugartek. Gaiñontzeko bertsolariak, Pello Errota, Udarregi, Gorriya, Juan Krutz Elizegi eta Isidro Arantzegi izan ziran. Azken onekin egin zuan Ugartek bere saioa, ogei ta iruna bertso kantatuz. Aldi artan Jose Bernardo Otaño epai-maikoa izan zan.

Aitamen geiago ere egingo ditu be-  
arbada *Euskal-Erria* orrek, baiña oie-  
txek dira guk arkitu ditugunak.

1. Zizurkilko bostgarren bataio-liburuan, 10-garren orrian.

2. Zizurkilko bostgarren bataio-liburuan, 25, 41, 59, 95 eta 133-garren orrietan.

3. Zizurkilko bigarren ezkontza-liburuan, 103 eta 104-garren orrietan.

4. Zizurkilko seigarren bataio-liburutik ateratako argibideak.

5. Zizurkilko bostgarren eriotz-liburuan, leendabiziko orrian.

6, Emiliano onen amona Salbadoraren aita, Juan Jose, Errekalde Zaarraren anaia. Emiliano ori, beraz, Pedro Mari Otañoren illoba txikia.

7, Bertso au bere aitarena zala esan zigun Pello Errotaren alaba Mikelak. Ikus: *Pello Errota* liburuan (Auspoaren Sail Nagusia, 5, 1992), 60-garren orrialdean.

**DONOSTIAKO BERTSOAK**  
**(1890 - 1898)**

(1891)

## AMETS BAT

*(On Ramon Artola euskal-izkribilari zarrari ordaiñez.)*

Ni jaio nintzan Euskal-lurreko  
leku pozgarri abetan  
eta euskera irintsi nuben  
lenbiziko asnasetan,  
amak siaskan nedukanian  
edo bere besuetan,  
kontu politak esanaz beti,  
kantatuaz batzubetan  
geren aitonak moldatutako  
10 itz neurtu ta bertsuetan.  
Neri begira eziñ aspertuz  
antxen ordu osuetan,  
semetxuaren bizigarriya  
berak bere petxubetan  
emanaz, azi ninduben aiiñ  
izaera goxuetan,  
non egundaño etzaidan aztu  
geroz nere pausuetan,  
iñoiz arkitu izanagatik  
20 bizitza erosuetan;  
ainbesteraño baturik negon  
neronen gurasuetan  
ta txikitatik nere onduan  
ikusitako gauzetan;  
bañan etsaiak miñ artzen nonbait  
gure poz ta jolasetan,  
argatik gerok batere kulpik  
ez gendubela ezertan,  
txit urrutira joan biarra  
30 izandu nuben batetan;

oso gazterik arkitu nintzan  
Amerikako Panpetan,  
ta bizimodu txit erosua  
iduki arren an bertan,  
nere biyotzak etziran uzten  
sekulan ere paketan,  
iduri zuben berriz eguak  
neukazkiyela anketan;  
esaten da bat bizi leikela  
40 ondo alderdi danetan,  
-bai asetzia beste gauzarik  
ezpadu artzen arretan-;  
bañan gizonak odol pixka bat  
baldin badu erraietan,  
eta txikitan bizitu bada  
esan dan modu aietan,  
egunaz zerbait atzendu leike  
darabilzkiyen lanetan,  
bañan pentsatzen jartzen danian  
50 bakardadian gaubetan,  
zenbateraño supritutzen dan  
nik ondo progradu det an:  
iñola ezin pentsatu nuben  
nere lurrian bestetan,  
eta ara zer gerta zitzaidan  
arrats batez ametsetan.  
Amets eragiñ ziran  
neukan desiuak,  
non artu ordurako  
60 arrats artan luak,  
beriala zabaldu  
zizkiran eguak,  
eta lagundurikan  
betiko leluak,  
ixtanpatez igaro  
nituben leguak,  
mendi eta zelaiak,  
tontor ta zuluak,  
legor eta bustiyak,  
70 ur ta itsasuak,  
laño eta odaiak,  
erri ta basuak,

batere neke gabe  
egiñaz pausuak,  
neretzat bire denak  
ziran erosuak;  
inbiriya ziraten  
aideko usuak,  
80 atzian gelditutzen  
ziran balazuak,  
ta etziran segitzen  
tximistaren suak;  
eziñ busti ninduben  
euri erasuak,  
aitu ziraden traba  
eta arazuak;  
urruti egon arren  
nere gurasuak,  
90 Amerikan zabaldu  
orduko besuak,  
biyen tartian artu  
nituben gaxuak.  
*Nik:* - Ama!... Aita!... Amatxo!!  
*Amak:* - Nere seme!!... Semetxo!!  
Nere besuetan... o!!  
*Aitak:* - Mutill, emen aiz? Nola ago?  
*Amak:* - Ai! Eutsi, nere xeme...  
Muxu bat, onlaxe:  
*Má, má!* Berriz ere bai,  
100 *má!*, len bezelaxe...  
Jango zinduzket dana,  
aren nago gose...  
Auxen da zoramena,  
ni eziñ naiz ase...  
Nere seme laztana,  
ondo zaude noski?  
Ni illko ninduke zu  
ikustiak gaizki...  
Sekulan ez det izan,  
110 ai!, onenbeste poz,  
argatikan begiyak  
bete zaizkit malkoz;  
bañan biyotzetikan  
aiñ eztiro datoz,

- farrez baño geiago  
gozatu det askoz;  
nere seme ederra,  
eldu berriz, atoz.
- 120 *Nik:* - Ama, aita...  
aparte bizi beraz  
onenbeste naita!!
- Aitak:* Mutill, auxen nai nikan,  
oraiñ emen ago  
ta ez dek noski berriz  
asmorik izango  
gure aldamenetik  
joateko geiago;  
ez al diguk orlako  
penarik emango!
- Amak:* Zer da, nere senarra,  
zer da kontu ori?  
Geiago orlakorik  
begira gero neri  
aipatutzen banazu!  
Atoz, Pello Mari,  
laztan goxo bat, muxu...  
orlaxen... amari...

\* \* \*

- 140 Nere seme ederra,  
au poz eman diak!  
Iya ler egiñ zikan  
nere barrunbiak!  
Ama guztiyak gaituk  
semien zaliak,  
bañan nork izate'izkik  
onlako aliak?  
Nik egiñgo nizkikek  
millaka galdiak,  
nekatuba ez baldiñ
- 150 baeuka biriak,  
bañan nola egongo  
aizen logaliak,  
ondo gobernatuta  
oiera joan biak.

Denak lotan zioztik  
ire senidiak,  
i ezkeroztik sortu-  
tako landariak;  
bigar gonbidatuko  
dizkiyat aidiak  
160 eta ingurumari-  
ko adiskidiak;  
pobre izan arren ez  
gaituk eskaliak,  
zer jana bazedukak  
gure sukaldiak;  
bañan nik badizkiyat  
mokaru obiak,  
armariyo txokuan  
iretzat gordiak,  
170 umotutako sagar  
eta udariak,  
jarri ezkeroz iñork  
ikutu gabiak...  
Ia, semetxo, muxu  
bat eman akiak,  
goxatzen aukanian  
oieko pakiak,  
aiek janaz kontubak  
esango nazkiak...

\* \* \*

180 *Aitak:* Zer goguangarriya  
dan gaurko eguna!  
Auxen da suertia  
izandu deguna,  
etortziaz gañera  
gure seme ona,  
guk etxian ostatuz  
daukagun amona!...

*Amak:* Iya ez nintzan artaz  
190 oroitzen, gizona;  
gure mutillak eman  
digun poztasuna



dala meriyo, neukan  
burutikan juna.  
Uraxen da xarra ta  
polita zegona!  
Begiyetan, aldizka,  
zer alaitasuna!  
Bañan galdu xamarra  
dauka osasuna,  
200 edo barrenen zerbait  
berak nai eztuna.  
Suspiriyo batzubek  
ixilik entzuna  
nago berari, eta  
pentsatzen egona:  
“Atso xar polit onek  
zer ote du, Jauna?  
Semien bat agiyan  
aldegiñ dubana?”.  
210 Ainbeste begiramen  
neukan beragana,  
ikusirik aiñ xarra  
garbi ta txukuna,  
berrogei arabakiz  
konponduba gona,  
alde danetara aiñ  
modu polit duna,  
diruri aingeruben  
kolkoko kutuna.  
220 Kontatu digu bere  
bizitza astuna.  
Guk zer baliyo degu?  
Ura da iztuna!  
Ai aiek gauz ederrak  
esan dizkiguna!  
Bañan erana dago  
nonbait beazuna;  
negarrez aipatutzen  
du etorkizuna.  
230 Nik ere nola deran  
txit biyotz biguna,  
berialaxen artu  
diyot naitasuna,

eta galdeturikan  
ai beziñ leguna:  
- Ama, bedori zein da,  
anbat alarguna?  
Erantzun dit esanaz:  
- Ni naiz *Euskalduna*.

\* \* \*

240 Onen ondoren, amak  
agindu bezela,  
eskuban arturikan  
piztuta kandela,  
ta esanaz Jainkuak  
gaubon ziyotela,  
zai nedukan oiera  
joan nintzan berela,  
amona xar on ura  
goguan nubela.

250 Erantzi ta maindire  
tarteko epela  
goxatzen, iya luak  
artuban neguela,  
ta begiyak itxiyak  
nedukazkiyela,  
kolpez ikusi nuben  
argituba gela,  
eta erdi-erdiyan  
txutik zeguela,

260 amona xar bat diz-diz  
egiten zubela,  
zeña izketan asi  
zitzaidan onela:

- Ama Euskera naiz, Pello Mari,  
etzaitzela bildurtu;  
kezketan nator beste aldera  
ote zeraden biurtu.

Ainbeste semek iges egin dit,  
iya naiz negarrez urtu!  
270 Ez ote dezu zuk ere naiko  
nere malkorik legortu?

Au aditzian odol guztiyak  
ur biurtu zitzaizkian,  
eta saltatu nintzan oietik  
zergatik negon gaizki an,  
esanaz: -Ama, bere lurrian  
beraz berori eskian?  
Beria nau ta agindu bizait  
nik zer egiñ nezakian.

280 - Gauza aundirik etzenezake,  
ezagututzen det ori;  
urruti izan dan batentzako  
franko lan zalla diruri;  
bañan eztiyot nik eskatutzen  
eziñ dubenik iñori,  
eta ara zer agindutzeko  
asmoa daukadan zuri.

290 Eskutik eldu ta muñ emanaz  
bertan belaunikaturik,  
erantzun niyon: - Ama, agindu,  
ez izan nitzaz ardurik.  
Beraz bedorren lurrian dago  
euskera iya galdurik?  
Ni beria nau eta ez det nai  
kontzientziko kargurik.

300 - Diyozun aña maite badezu  
zartu dan Ama Euskera,  
billa ezazu *Euskal-Erria*  
izendatzen dan papera;  
ura da nere bizi-lekuba,  
ez det nai andik atera;  
seme leialak an biltzen zaizkit,  
joan zaitez aien artera.

Ama Euskerak au esan ziran  
jarririk begi alaiak,  
orreatatik nakar onera  
berari lagundu naiak.

310

Gutxi nezake, oso txikiyak  
dira nik dauzkadan gaiak;  
bañan pozkiroz egiñgo ditut  
gaubak egun, aste jaiak;  
leku pixka bat *Euskal-Erria*'n  
eskatze'izutet, anaiak.

\* \* \*

Bertso-sail luze au Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artu degu.

Onek egun bat idatzia dauka saillaren ondoren: "Donostiyan, Marchuaren 20an 1891n". Baita beste bertso au ere:

Lan onen ondorian  
egiñ nitubenak  
nere memoritikan  
joan dira geienak;  
emen ipiñi arren  
buruban daudenak,  
motxak irteten dira  
nere *Oroimenak*.

Aztutako bertsoak ere bazituala, beraz, eta bere bertso-bilduma urri xamarra izango ote zan bildur zala.

\* \* \*

Esku-idatzi onek ez ditu 224 eta 225'garren lerroak. *Zerbait* liburuak ere ez ditu. *Euskal-Erria* aldizkaritik artuak ditugu. Gure iritzirako, aldizkari ontara kopia bat etorriko zan, eta

beste oietara bestea bana. Eta bigarrenengo kopia auk, idazterakoan aztuta-edo, lerro oien faltan gelditu. Berriro ere saillean sartu bearrak zirala pentsatu degu, ta bai ala egin ere.

Esku-idatzi onek eta *Zerbait* liburuak onela dituzte 160 eta 161'garren lerroak: ta ingurumariko / adiskidiak. Neurri traketsa, beraz. Orregatik, *Euskal-Erria*'k dauzkan bezela idatzi ditugu.

\* \* \*

Esan bezela, *Euskal-Erria* aldizkarian ere argitaratu ziran bertso auk, XXIV tomoan, 1891 urtean, 229 orrialdetan.

Onek beste egun au jartzen du, bertsoen ondotik: "*Donostiyan, Marchuaren 5-ean, 1891-an*". Batetik bestera amabost eguneko alde, beraz. Aintzakotzat artzerik merezi ez duan uskeri bat noski.

Aldaketa bat du *Euskal-Erria* aldizkari onek, 23'garren lerroan: ta jaiotzatik beti onduan.

\* \* \*

Ona emen sail onen beste argitaraldi batzuk:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait liburu: "Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895 urtean"*. Onek dana esku-idatziak bezela. Baiña 211'garren lerroa beste onela: neukan beregana.

Pedro Maria Otaño: *Alkar, Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia" Victoria 1088, 1904*. Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez du. Ia danak, moldiztegi-okarren bat zuzentzea edo fonetismoren bat gramatikatzea; besterik ez. Berdin esan genezake urrengo argitaraldiengatik ere.

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki onenak, Alkar, Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay 28, Donostia, 1930*. Onek aurrekoari kopiatzen dio. Moldiztegi-okerrik ere badu. Fonetismoak eta erriaren izketa-moduak gramatikaritzen alegintzen da. Geiegitxo ere bai; 51'garren lerroa, adibidez, onela dauka: *zenbateraño supritzen dan*, neurria aldrebestuz. Otañok *zenbateraño supritutzen dan* idatzi zuan, ta ala bear du. Erriaren bertsogintza eta gramatika ez baidira beti ondo ezkontzen. Ortaz gaiñera: 213, 224 eta 225-garren garren lerroak falta ditu. Eta 262: eta izketan asi.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak*, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua. Onek aurrekoari kopiatzen dio. Ortaz gaiñera: 294: Beria nau eta ez det nai.

\* \* \*

Ameriketatik osaba Jose Bernardori bialdutako ogei ta bi bertsoa sailla,

1889 urtekoa da, leen ere esan degunez. Au, berriz, andik bi urtera jarria, Martxoan gaiñera. Etzan, beraz, Pedro Mari Euskal-Errira oso etorri zaarra izango.

Sail onek, Otañoren gai kuttunenak erabiltzen ditu: familia, erri-miña, euskera... Baiña badu beste intentzio bat ere, azken lerroetan agertzen dana. Ama Euskerak onela esaten dio:

billa ezazu *Euskal-Erria*  
izendatzen dan papera.

Eta eskaera batekin bukatzen du Otañok:

leku pixka bat *Euskal-Erria*'n  
eskatzeizutet, anaiak.

*Euskal-Erria* izendatzen zan papera zer zan somatzen ez da zailla: Donostiako *Euskal-Erria* aldizkaria, Jose Manterolak 1880'an asiera eman ziona.

Baiña *Oroimenak* izeneko Otañoren esku-idatzi orrek onela esaten du izenburuaren aurretik:

"Amerikatik etorri ta lenbiziko izkribu-lana "Euskal-Erria"-rako moldatua".

Pedro Marik, Arjentinatik etorri eta bere bertsoak argitaratu aal izateko lekua eskatzen dio alegia.

Esan bearrik ez dago, arrera ona izan zuala. Ango atea zabal-zabalik izango zituan andik aurrera zizurkildar bertsolariak. Baiña ondo gogoan artu bear dan gauza zera da: auek dirala aldizkari orrek Otañori argitaratu zizkion leendabiziko bertsoak.

Ori ala izanik, garrantzi aundiko unea gertatu zan ura Pedro Marirentzat. Ordurarte, ez det uste iñun ere bertsoarik argitara emana zuanik. Bertsolaririk geienak, garai artakoak batez ere, bertso-paperetan zabaltzen zituzten beren bertsoak. Otañok, berriaz, ortik batere pasa gabe, bat-batean aldizkarietan sartzen da. Artean, edozein bertsolari bezela izan zan. Emendik aurrera, naiz eta bertsolari-kutsua iñoiz ere ez galdu, garai artako olerkari edo itz-neurtzailleen bideak probatzen asiko da.

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkarian, sail onen izenburuaren azpian onela irakurtzen da: “*On Ramon Artola euskal-izkribalari zarrari ordaiñez*”.

Ramon Artola ori Tolosan jaio zan, 1831'ko abuztuaren 31'an; eta Donostian il, 1906'ko abuztuaren 20'an. Oso bertso-jartzaille ugaria izan zan.

Artola onek, aldizkari berean, 1891 urtearen asierako zenbaki batean, “*Martin berak paratako estroparako kantak saltzen*” izeneko bertsoak plazaratu zituan, Otañori eskeiñita: “*On Pedro Maria Otaño, euskal izkribalari berriyari*”. Batek sakea eta besteak errestua, beraz.

Baiña beti ere Artolaren eskeintza orrek zera adierazten digu: Pedro Mari Argentinatik etorri berria zala artean.

\* \* \*

Ona emen Ramon Artolak Pedro Mari Otañori eskeiñi zizkion bertsoak, Bilintxen *Juana Bixenta Olabe*'ren doiñuaz kanta bearrekoak:

MARTIN  
BERAK PARATAKO ESTROPARAKO KANTAK  
SALTZEN

(*On Pedro Maria Otaño, euskal izkribalari berriyari*)

*Martin:* Andre Asensi,  
kantak erosi  
bizaizkit, gaur naiz ta saldutzen asi.  
*Asensi:* Etzatoz tratu txarra aututa,  
dendara kanta zarrak artuta.  
*Martin:* Ez dira zarrak,  
eragin eraztikoak farrak;  
jotzea libre badira txarrak.

Ia, ar bitza,  
irakur bitza,  
emateiot onak dirala itza;  
ez bedi gelditu paper gabe,  
lenbailen egin obe du jabe.  
*Asensi:* Ez daukat betik,  
ken zaitez nere aldamenetik,  
ken zaitez, kendu, zuaz emendik.

*Martin:* Letzen balitu,  
ta entenditu,  
emango leieke milla meritu;  
onlako kantikan aspaldiyan,  
edo oraingo giza-aldiyan,  
ezta argira;  
paper bat artu eta begira  
jar bedi, jarri; ederrak dira.

Nola dan kia,  
ain da merkia  
lan ontan nik egin detan nekia;  
artu bizaizkit txakur biyan bi,  
bestela amarrekin amabi.  
*Asensi:* Ez, ez, ez, ez, ez;  
ez gaude zure kanten bearrez,  
aituba zaude ezetz ta ezetz.

*Martin:* Bañan, *Asensi*,  
obek ez utzi;  
artu bear nazki ditzan ikasi.  
*Asensi:* Artuko detana da nik kana,  
puntan burni lodiya daukana,  
aguro gero  
zuri kostillak jartzeko bero,  
jira nai baldin banazu ero.

*Martin:* Eztet galduko,  
ditut salduko,  
erostunak dira, bai, azalduko;  
adios, etxekoandre miña,  
piper geiegirekin egiña,  
beste bat arte;  
bedorrengandik nai det aparte  
bizi, munduba bukatu arte.

(1892)  
NASKETAK

Lengo egun batian  
Juan eta Andres,  
inguraturik beren  
ume eta andrez,  
asi ziran izketan  
bullan eta oska,  
bazirudiñ norbait jan  
nai zutela ozka.  
Andre eta umiak  
10 gero etxera juan,  
ta bakarrik gelditu  
ziran Andres ta Juan.  
Biyak mintzatzen ziran  
ainbesteko suban,  
jende ark nunbait txit miñ  
izan biar zuban.  
Andresek onla ziyon:  
“Adi ezazu, Juan:  
lengo oitura onak  
20 nora zaizkigu juan?”  
“Lengo oitura onak  
nora juan diran?  
Baziñaki bada zer  
su ematen diran...”  
“Zu ematen dizula?”  
“Su esan dizut, *su*;  
zer euskaldun andaluz  
zerade berriz *zu*?”  
30 “Nik ori esan arren,  
euskaldun bikaña,



lur au maite detana  
agiyan bik aña.  
Nola esan nik zenbat  
maite detan bera!  
Ikusten deranian  
dijuala beera,  
negarrez urtutzen da  
nere biyotz beraa.  
40 Gure ontasun danak  
dizkigute ostu,  
gero sutan gaudela  
nola ordia oztu?  
Guri bildu zaizkigu  
urtiak gañera,  
ta semiak soldaru  
eraman gañera.  
Eziñ gusto emanaz  
ainbeste erori,  
50 guk zer egingo degu?  
Lurpera erori!  
Nere emaztiari  
begira negon atzo,  
gaztia dalarikan  
biurtu zait atso.  
Txardiña zarra jan ta  
gañetikan ura,  
nola onduko zaio  
kolore txar ura?  
60 Ezurretan barrena  
sartu zaio otza,  
gau guztiyan badegu  
eztularen otsa.  
Seme bat du ta bera  
soldaruskan sartu,  
bat denbora baño len  
nola ez bada zartu?  
Oraindik gaztia da  
urtez eta illez,  
70 buru dana betia  
biar zuben illez,  
ortzak ere jua zaizka  
indar danak illez.

Aren kolore onak  
zeduzkanak igez,  
egiñ diote noski  
sekulako iges.  
Len pozez mendiraño  
oi zana atera,  
gaur ozta azaltzen da  
80 etxeko atera.  
Beldur nintzan gaitz ura  
geiegi eltzia,  
ta salda onarekiñ  
jartzekotz eltzia,  
biarrezkua nuben  
zerbaiti eltzia.  
Ill nituben lau ollo,  
ollarra ta atia,  
bañan nere andriak  
90 eziñ pasa atia.  
Beiak ere esnerik  
etzedukan iya,  
zergatik jaten zuben  
zingirako iya.  
Onelakoxe lanak  
etorririk guri,  
iya igartu gera  
len geundenak guri”.  
“Zure koitak ixillik  
100 dizkitzut aditu,  
esan dezu nekian  
zerala aritu,  
lengo ontasun danak  
ala ere aitu,  
sinista zazu ez naiz  
batere arritu.  
Ni gauz oien gañian  
izketan astian,  
ari neike ixildu  
110 gabe bi astian.  
Nik guztiyak esango  
banizkitzu zuri,  
izubak ipiñiko  
zinduzke aiñ zuri,

- non egingo zenduken  
zuk, ezikan eze,  
ikararen indarrez  
balantz edo ese,  
120 ta lurrera erori  
igar eta eze.  
Nik ere banituben  
lau bei ta bi ari,  
gañera berdumenak(1)  
zenbait libra ari;  
nere andria beti  
ardatzian ari,  
semiari esanaz  
“Mutill, saia ari”,  
130 danak eman giñuzkan  
zure etsai ari.  
Nik ere banituben  
ala ta botia,(2)  
diana darukat aiñ  
urruti botia,  
gomak ez luke egiñgo  
aiñ luze botia.  
Oraiñ etorri zaigu  
bizi-modu zalla,  
galdu gendubelako  
140 len gendukan salla.  
Lo egiteko daukat  
oirik ez ta aska,  
alperrik da nai arren  
memoriya aska,  
ill arte bizi biar  
burubari azka”.  
Izugarrizkua zan  
gizon aien miñtza,  
argatikan ziraden  
150 era ortan mintza,  
aserrez gorriturik  
aurpegiko mintza.  
Aiek esango zuten  
geiago're anbat,  
bañan ezin zeikian  
beti egon an bat.

160 Argatik ez nioten  
geiago aditu,  
ta neronek somatzen  
ez det nai aritu.

*Donostian, Ilbeltzaren 21-ean, 1892-  
garren urtean.*

\* \* \*

Bertso-sail au, oker ez bagaude, *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zan leenengoz, beraren XXVI tomoan, 1892 urtean. Onek izenburua *Nasketak* idazten du. Baiña beste argitaraldi guzietan, baita Otañoren denborako *Zerbait* eta *Alkar* liburuetan ere, *Nasketak* esaten da. Orregatik, guk ere orrela ezarri degu.

Andik iru urtera, *Zerbait* izeneko liburuxkan agertu zan, *Donostiyan Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian*. Aldaketak: 33: Nola esan nik zenbait.

Pedro Maria Otaño: *Alkar, Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia" - Victoria 1088 -1904*. Aldaketak: 88: ollarra ta aatia; 125 eta 126: falta; 133: diana dadukat aiñ.

Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak, bere 564 zenbakian, 1909-ko maiatzaren 30-ean, sail ontako leendabiziko amasei lerroak argitaratu zituan, batere aldaketarik gabe.

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki onenak - Alkar - Iñaki Deunaren irarkolan - Garibay, 28 - Donostia 1930*. Aldaketak: 4: umez eta andrez; 36: dijuala bera; 38: nere biotz bera; 45: ta semiak soldadu; 64: soldaruzkan sartu;

88: ollarra ta aatia; 125 eta 126: falta; 133: diana dadukat aiñ.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Itxaropena argitaldaria, Zarautz, 1959, Kuliska sorta 31-32, I. Unzurrunzagak prestatua. Aldaketak: aurrekoak dituanak.*

\* \* \*

Edozein bertsozalek dakianez, bertso batean itz bera puntu edo *rimarako* bi bider erabiltzea poto egitea da. Akats aundizatatzat juzkatzen da; bertsoari bere edertasuna galeratzen dio.

Baina badira itz batzuk bi esan-nai oso ezberdiñak dituztenak. Itz oiei gazteleraz *homónimos* esaten zaie. Adibidez: *ura* (gizon *ura* eta iturriko *ura*); *astea* (joan dan *astea* eta lanean *astea*); eta abar. Ala, itz bera bertso batean bi bider punturako erabiltzen bada, baiña esan nai ezberdiñarekin, orduan ez da poto, oso bertso jatorra baizik.

Ori ala izanik, bertsoaren batzuk egin izan dituzte oraingo bertsolari batek baiña geiagok, itz bera bertso berean puntua egiteko bi, iru edo lau aldi-taraño ere erabiliz eta poto egin gabe, aldi bakoitzean esan-nai ezberdiña dualako.

Joko ori bera egin zuan Otañok *Nasketak* izeneko bertso-sail ontan. Baiña itz berdin berdiñak ez-ezik, letra batez aldatzen diranak ere erabiltzen ditu. Adibidez: *atzo* eta *atso*; *otza* eta *otsa*; *aditu* eta *aritu* eta abar.

Gai ontaz onela zion Basarrik *Zeruko Argia* astekarian, 1965'eko maiatzaren 9'an:

“Bertso bukaeran itz berdiñak agertzen diranean, danok dakigu “poto” izaten dala. Egizagun kontu lenengo puntua “lanean” itzarekin bukatzen dala. Berriro irugarren, laugarren edo bosgarren puntuan “lanean” agertzen bada, “poto” garbia egin du ala kantatu dun edo idatzi dun bertsolariak.

Gure izkuntzan (beste izkuntza askotan bezelaxe) badira berdiñ idatzi, berdiñ esan eta oso ezberdiñak diran itzak.

Alakorik bertso batean gertatu ezker, ura ezta “poto”, bertso zoragarria baizik. Meriturik aundiñeko bertsoa da alakoa. Begiratu onoko oni:

Nola esan nik zenbat  
maite dedan bera!  
Ikusten dedanean  
dijoala bera,  
negarrez urtutzen da  
nere biotz bera.

Emen, irakurle, iru bukaerak berdiñak dira. “Bera” itza agertzen zaigu irurretan. Oso esanai diperentea dute ordea, konturatuko ziñanez. Aztertu ondorengo au:

Sardiña zarra janda  
gañetikan ura,

nola onduko zaio  
kolore txar ura?

Edo beste au:

Oraindik gaztea da  
urtez eta illez,  
buru dana betea  
bear zuen illez,  
ortzak ere jun zaizka  
indar danak illez.

Au izkuntzaren aberastasuna da. Puntu berdiñak eta esanai ezberdiña. Or eztago “poto” arrastorik, sustantzi bikaña baizik.

“Nasketak” izeneko sallean agertzen dira Otañoen itz joko egoki aukerak. Arreraz irakurtzea merezi dutenak dira. Bertsolari ta bertsozale diranak, batez ere.

Gure artean beste akats nabarmen bat dago. Jende asko ta asko “S” ta “Z” letrak berezteko ez kapaz izatea.

Miñ ematen du belarritan “eseren” tokian “zeta” entzutea, ta baita batekoz bestera danean ere.

Entzuteak miñ ematen badu, are ta itxusiago derizkiogu moldeko letretan pausotik pausora oker oiek arkitzea...

Letra oiek bear dan tokian jartzeak zer garrantzi dun ikus dezazuten, goazen Otaño'ren “Nasketak” izeneko sailera.

Nere emazteari  
begira nengon atzo,  
gaztea dalarikan  
biurtu zait atso.”

Basarrik beste adibide batzuk ere ematen ditu. Baiña irakurleak or goien dituan ezkerro, ez ditugu emen bigarren aldiz jarriko. Ondoren onela bukatzen du Basarrik:

“Ejenplurik asko bada, noski, jarri ditugun oietan. “Nasketa” auen grazi ta indarra “ese” ta “zeta” letrak bear diran tokian jartzetik dator. Beste ga-

ñontzean ez luteke xentimo bat baliio...”.

---

1. Berdumenak: *hilo crudo*, Azkueren iztegiak dakarrenez. Lioaren eta ardatzaren lanak etxeetan bukatu ziranean galdutako itza noski, gaur egunean beste lan-mota asko bukatzearekin itz asko galtzen ari diran bezela.

2. *Ala* txalupa-mota bat da, txikia; eta *botia* erde-razko *bote* da emen.

(1892)  
**B'REKIÑ**

- Baldiñ bizi baleike  
bat bakarrik berez,  
besteren biarrikan  
bage, bakardadez,  
baliteke buruba  
berotzia birez;  
bañan bakoitzak beti  
biar badu bestez,  
beti baldiñ bagabiltz  
10 biarren biarrez,...  
begiratu biagu  
bi begiz biyotzez;  
burlarikan beñepeñ  
bajuai beñerez,  
bestela bildu biar  
baletorke... baietz,  
baldiñ begiramenik  
bage, banidadez,  
bagabiltz bekokiya  
20 biurturikan beltz.  
Bagebiltzke beñ beren  
besteren bildurrez,  
biar bezelakuak  
bagiña barrunbez?

\* \* \*

Onen ondoren jarritakuak  
beste batzубek baziran;  
bañan etzaizkit bururatutzen,  
ai, zenbat aztu zaizkiran!

\* \* \*

Itz neurtu auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzian arkitu ditugu.

*Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu ziran leenengoz, XXVI tomoan, 1892 urtean. Baiña Otañok bere esku-idatzian *biar*, *biyotzez*, *bildur* eta abar idazten duanean, onek *bear*, *biotzez*, *beldur* eta abar zuzentzen ditu. Eta bukaerako laukote ori ez du.

Tolosa'ko *El Cántabro* aldizkaria, 1893-IV-8. Onek, berak ere adierazten duanez, *Euskal-Erria*-ri kopiatzen dio.

Pedro Maria Otaño: *Zerbait*, "Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian". Aldaketak: 13-14: falta; 20: bihurturik beltz.

*La Vasconia*, Buenos Aires, 217 zenbakian, 1899, urriak 10. Onek ere bi lerro falta ditu: 13 eta 14-garrena.

Bertsogintzarako zuan abildadea erakusten digu emen Otañok, sail ontako itz guziak "b" izkiarekin asirik.

Baiña ez da bera bakarra ortan saiatu dana. Donostiako Pepe Artolak ere badu olako beste bat, askoz luzeagoa gaiñera, ontan bezela itz guztiak "b" izkiarekin asita. *Ibaizabal* astekarian agertu zan, 1902-V-25'ean.

Beste laburrago bat ere badu, itzak "a" izkiarekin asten dirana. Periodikomutur batean daukagu, eta egunkariaren izena ezin eman dezakegu; ezta eguna ere.

Garai artako bertso jartzailleak edo itz-neurlariak olako geiago ere izango dituzte, seguru asko.



(1892)  
**ORDAÑAK**

- 1/ Beti oitura deran bezela,  
juan dan larunbatian,  
lantegitikan atera eta  
afaltzera bitartian,  
*Lenguxu*-nera juan nintzan ta  
sartu orduko atian,  
*Pakok* sei bertso eman zizkidan  
papertxo txuri batian,  
esanaz: “Ia asmatzen dezun  
zeñek moldatubak diran”.
  
- 2/ Añ griña aundiz gelditu nintzan  
begira paper artara,  
non irakurri nitubeneko  
bost edo sei errenkara,  
erantzun nion: “*Pako*, kantu au  
izugarri ederra da,  
ta nere ustez etzitzakian  
*Sarituak* bestek para;  
nik dakidanik ura bakarrik  
irixten da orretara”.
  
- 3/ “Asmatu dezu -zion far-irriz-,  
ark berak ipiñi ditu,  
ta badiruri ederragorik  
eziñ leikela aditu;  
or ezagun da nola etzaizkan  
oraïndik indarrak aitu,  
bañan txit onak arek jartziaz  
eziñ giñtezke arritu,  
sinisten zaill bai izango zala  
txarrak azaldu balitu”.

- 4/ Askok aitortzen ez du dubela  
euskerak edertasunik,  
ezagutzen ez dakitenentzat  
ezer ez baita gauz onik;  
bañan paper au irakurrita  
zuri esaten dizut nik:  
kantu doaiez betetako au  
bear bezela entzunik,  
ez nuke nere lagun izan nai  
limurtzen ez dan gizonik.
- 5/ *Sarituaren* muñetan suba  
Musak zuten irazeki,  
ta pentsaerik aundienentzat  
badu bear aña toki;  
jakintsu danen gisara egiten  
du bere buruba txiki,  
aiñ maite duben Ama Euskera  
nairik lurretik eraki,  
biursarien galdezka dator  
ta berak aña nork daki?
- 6/ Ama Euskera maite dutenak  
zenbait euskaldun onradu  
oraindik ere arkitzen dira,  
ontan suerte ona du;  
bañan aiñ ego motxak dauzkagu,  
eziñ jua gera gora gu;  
zu, *Saritua*, zuaz aurretik  
eta bandera zabaldu,  
nik desio det ibillitzia  
zure atzetik soldadu.
- 7/ Beste izkuntzik galtzen saiatu  
ez bada Ama Euskera,  
zertako datoz atzerritarrak  
*oso* zegona austera?  
Pixti gaizto bat balitz bezela  
sartu naian auspera?(1)  
Nola ez gera gu altxatuko  
Amari txutik eustera?  
Izan gaitezen seme leialak  
goitu dediyen ostera.

8/ *Sarituari* nik opa diot  
esan dedan aña sari,  
batek bear du ta zergatikan  
au ez izan buruzari?  
Gañera emen badaude onak  
beste zenbait biursari,  
buru ta biotzezko lan ontan  
oi diranak tajuz ari,  
Amak eskerrak emango dizka  
seme danen laguntzari.

Bertso auek Pedro Maria Otañoren *Zerbait* izeneko liburutik artuak ditugu. Liburu ori *Donostiyen - Victoriano Iraola-ren moldizkiran - 1895 garren urtian* argitaratu zan.

*Euskal-Erria* aldizkariak ere argitaratu eman zituan, bere XXVII tomoan, 1892 urtean. Aldaketak, uste gabeko okerrak noski: 2/5: erantzun nion: *Pako*, kantuan; 4/7: kantu doaiez betetako an.

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere argitaratu zituan, bere 216 zenbakian, 1899-ko iraillaren 30-ean. Onek aldaketarik ez du.

*Bertsolariya* astekaria, 1932-VII-3. Aldaketak: 2/5: erantzun nion: *Pako*, kantuan; 4/1: Askok aitortzen ez dubela; 6/9: nik desio det ibiltzia; 8/9: ama euskerak emango dizka.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Itxaropena argitaldaria, Žarautz, 1959, Kuliska sorta 31-32, I.* Unzurrunzagak prestatua. Onek aurrekoa bezelaxe ditu bertso guziak.

\* \* \*

Otañok bertso auetan esaten digunez, oitura zuan bezela, larunbat-illunabar batean, *Lenguxu*-nera joan zan. Taberna edo billera-lekuren bat izango zuan ori. Antxe *Pako* izeneko adiskide batekin topo egin zuan. Onek sei bertso erakutsi zizkion, egillearen izenik salatu gabe. Pedro Marik, ordea, bost edo sei lerro irakurri orduko, nork jarriak ziran antzeman zion: *Saritua*-k. Baiña, zoritxarrez, etzigun beraren izenik esan. Ala ere, nor izan diteken somatu degulakoan gaude.

*Saritua* bazan, garai artako olerki-sariketaren batean saria irabazitakoren bat bear du. Otañoren bertsoak, berriz, 1892 urtean argitaratu ziran, *Euskal-Erria* aldizkarian. Aurreko urtean, 1891-n alegia, bi erritan ospatu ziran Euskal Festak, olerki sariketa banarekin: Donostian eta Igorretan. Igorretakoan, ain zuzen, bigarren saria Biktoriano Iraolak irabazi zuan, *Pedro Mari biursari gozotsuarentzat* itz neurtuekin.

Otañori berari eskeiñia zan, beraz; eta orregatik Pedro Marik bere eran-



Frantzisko Lopez-Alen (1866-1910)

tzuerari *Ordañak* izenburua eman zion.

*Pako* dalako orrek sei bertso erakutsi zizkion; eta Iraolak jarriak ere sei bertso dira.

Onela esaten dio Otañok: “or ezagun da nola etzaizkan oraindik indarrak aitu”. Bere sasoirik onena pasatakoa bear du, beraz. Iraolak, ain zuzen, 1841-ean jaioa baitzan, berrogei ta amar bat urte zituan orduan, eta Otaño baiño amasei urtez zaarragoa zan.

Otañoren laugarren bertsoan euskeraren edertasuna aitutzen da. Baita Iraolaren irugarrenean ere.

Ez ixiltzeko esaten dio *Saritua* dalako orrek Pedro Mariri. Ta onek buelta onela ematen dio bostgarren bertsoan: “biursarien galdezka dator ta berak aña nork daki?”.

*Ordañak* izeneko zortzi bertso auek Pedro Marik Iraolari zuzentzen dion erantzuerara dirala ematen du, beraz. Ona, bada, Iraolaren olerki ori, *Euskal-Erria* aldizkariak bere XXV tomoan, 1891 urtean, dakarrenez:

PEDRO MARI BIURSARI  
GOZOTSUARENTZAT

1/ Dakidalarik, kasikan iya ezin sinistu det nik, ai!,  
Aitorren seme biursariyak  
eztubela kantatu nai;  
zerubak zuri euskal izkuntzan  
emanik ainbeste doai,  
Ama Euskara zu entzuteko  
gaisoa or daukazu zai,  
poztu deriyen esan zaiozu:  
“Bai, kantatuko dizut, bai!”.

- 2/ Esan zaiozu bete-beterik  
petxu leiala su-garrez,  
kanta zaiozu iruki gabe  
Ama maitia negarrez,  
arranoaren egaa moduan  
goititurikan indarrez,  
estali zazu berdin gabeko  
itz gozo garbi ederrez,  
nola zeruba estalitzen dan  
gau garbiyetan izarrez.
- 3/ Txoriyak bere umearentzat  
eztu ainbeste naitasun,  
nola zuk, Pedro, mantxa gabeko  
lur santuari diyozen;  
saroi tarteko txori egazti  
danak nai zaituzte entzun,  
euskera zarren edertasunak  
nola goititzen dituzun...  
Zuk eztakizu izkuntz arrek  
zenbat poztutzen gaituzun!
- 4/ Kantatu zazu saroi berdean,  
kantatu mendi goietan,  
baso beltzean, errekatxoan,  
zelai ta bordatxoetan;  
kantatu zazu ibai ertzean,  
arbol tantaian gañetan,  
usai gozozko baratza loraz  
ederki apainduetan,  
baitare ibar alaitsu eta  
atari garbi aietan.
- 5/ Zure itz eder eztitsu aiek  
esanaz alako bigun,  
biyotzeraño allegatutzen  
dira eztiro ta legun;  
eztakit zuri zer jaungoikozko  
graziyak sartu zaizkitzun,  
beti oparo argiratzeko  
orrenbeste edertasun,  
Pedro, uste det neurri gabeko  
doaiak ote dituzun.

6/ Ondar txe-txea milizkatuaz  
goititzen dira ur meak,  
goititzen dira nagirik gabe  
pizti ta beren umeak;  
modu berean astindu eta  
kanporaturik nekeak,  
ala gainduko dituzu gure  
izkera eta legeak,  
esanaz zer dan euskal lurra ta  
zer diran bere semeak.

\* \* \*

Eta, azkenik, *Pako* ori nor ote da? Pedro Mari il zan urte berean, 1910-an, Donostiako euskaltzale sutsu bat ere itzali zan: Frantzisko Lopez-Alen bera, 1866-an jaioa. Pintore ospetsua ere izan zan; *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendaritza eraman zuan; kondaira azterketak egin zituan; eta euskal olerkari oparoa eta fiña izan zan, sari asko irabazirik.

Il ondoren, Pedro Mariri egin zion bezela, Lopez-Alen oni ere zenbaki berezia eskeiñi zion *Euskal-Erria*-k, bera goraltzeko zenbait idazlan eta bertso agerturik. Auetako bat gaztele-

razko soneto bat da, Práxedes Diego Altunak izenpetuta; eta izenburua onela du: *¡Paco!*

Otañoren bertsoetan aitatzen dan *Pako* ori, Frantzisko Lopez Alen ote degu, beraz? Ditekena da noski, Pedro Mari Donostian bizi izan zan urteetan alkar ezagutu eta tratatu zutela dudarik ez baita. Adiskidetasuna eta konfiantza ere izango zuten, abizena baztertu eta izenez alkarri deitzeko.

Are geiago: zera ontaz itzegiñak gera Frantzisko Lopez-Alen jaunaren billoba batekin: Manuela Otaño Lopez-Alen andereñoarekin. Baietz esan digu; bere aitonari *Pako* esaten ziotela. Baiña orduan, naiz eta adiskide miñak izan, etzutela pentsatu ere egingo Pedro Marik eta Lopez-Alen onek denborarekin famili tarteko egingo zirala alkarrekin. Pedro Mariren anai Bernardoren seme bat, Inazio, Frantzisko Lopez-Alen orren alaba batekin, Manuelarekin, ezkonduko baitzan, Lezon, 1921-eko apirillaren 2-an.

---

1. Lerro au, dagoan bezela, neurrian motz dago. Gure iritzirako, *naiean* edo *nayian* bearako luke.

(1892)  
**AMA EUSKARA**

Esan beldurrik gabe  
Euskaldunak gera.

*Iparragirre*

- 1/ Bizi-lekutxo txiki batean  
berez toki zekenean,  
bañan ala ere pozez semeak  
bildurik zeduzkanean,  
bizi zan ama biyotz samurra  
berien aldamenean;  
danak alkarri lagun egiñaz  
saiaturikan lanean,  
iritxi ziran larreak baratz  
biurtzera azkenean.
- 2/ Jaungoiko onak ikusirikan  
jende aren ontasuna,  
beti oparo ematen zien  
indarra ta osasuna;  
lanaren birez berendu zuten  
lur zallaren erantzuna,  
urrutietan ere izan da  
geroz askotan entzuna,  
nola mirariz artu oi zuten  
ango ugaritasuna.
- 3/ Ainbeste zuten lur zikoitz ura  
landu eta ongarritu,  
non eman zuben jankaiarekiñ  
danak oi ziran arritu;  
bañan jatunak ere geiegi  
nola ziran ugaritu,  
ta leku txiki edertu ura  
eziñ zeikian aunditu,  
norabaitera joan bearrean  
asko ziraden arkitu.

- 4/ Lur txiki artan guzien diña  
gauza nola etzegoan,  
seme batzuek txit urrutira  
bear izan zuten joan;  
bañan, ai, nola arkitzen ziran  
andik aldegingakoa!  
Itz bat bakarra zebillen aien  
biotzean ta aboan:  
ama gaxoa beste gauzarik  
etzeramaten gogoan.
- 5/ Atze-errian noizean beiñka  
beren aldeko berriak  
artzen zituzten seme on aiek,  
bañan txit negargarriak;  
alako batez bat altxatu zan  
malkoz bustirik begiak,  
esanaz: "Ama galdu ez dezan  
norbaiten gaiztakeriak,  
ekairazute besarkara bat,  
beragana joan nai diat".
- 6/ Batzuek penaz utzi ta pozez  
besteen aldamenara  
abiyatu zan seme leial au  
bide luzean aurrera;  
noizbait azkenik inguratu zan  
bera jaio zan lurrera,  
egualdi otzak ziran denboran,  
Egoarriak aldera,  
ai zer barrendik egiñ zion bati  
bere amaren galdeera!
- 7/ "Adiskidea, bai al dakizu  
gure ama ona non dan?"  
"Bai, ala fede, eta nola ez  
gaur gaubean bere onran  
festa degu ta? Begira zazu  
apaiñduta nola noan;  
etziñan bada galdez asiko  
aldi egokiagoan,  
atoz nerekiñ ikusitzera  
zeñen alaia dagoan".



8/ Anai leial ta seme on ura  
bestien ondora pozik  
joan zan bilguma eder batera,  
eziñ geldituz biotzik;  
nola etzuben ikusitzea  
espero alako gauzik,  
“ama” deadar egiñ nai zuben  
ta eziñ asmatu itzik,  
barren-barrendik Jaungoikoari  
esker ematea baizik.

9/ Ama onratzen ikusirikan  
bere anai ta lagunak,  
au esan zuben urrutitikan  
etorri zan euskaldunak:  
"Euskaragatik albiste txarrak  
guri eman dizkigunak,  
ez ditu ondo ezagututzen  
gure itz ezti legunak,  
alkar maiteak izan gaitezen  
izen santu au degunak".

Bederatzi bertso auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku idatzitik artuak ditugu.

Beste toki auetan ere argitara atera dira: *Euskal-festak Donostian Oroimengarria*, 1892 liburua, *Donostian, Ignazio Ramon Baroja-ren moldizkiran*. Aldaketa: 2/6: lur zallaren eztasuna;

*Euskal-Erria* aldizkaria, XXVIII tomoa, 1893. Onek oar batean argibide jakingarri au ematen digu: "*Composición señalada con mención honorífica en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892*".

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola ren moldizkiran*, 1895 garren urtian.

\* \* \*

*La Vasconia* aldizkaria, Buenos Aires, 245 zenbakia, 1900-VII-21.

*Bertsolariya* astekaria, 39-gn zenbakian, 1932-VI-12-an.

*Argia* astekaria, ez dakigu zein egunetan, ori apuntatu gabeko paper-punta batean jaso ditugu ta.

*Pedro Maria Otaño' ren bertsoak*, I. Unzurrunzagak prestatutako liburua, *Kuliska-Sorta 31-32, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz' en*, 1959.

Argitaraldi auek ez dute aldaketa-rik, aintzakotzat artzeko modukorik beintzat.

\* \* \*

Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* dalako esku idatzi ortan, bertso-sail onen izenburuaren segidan, onela irakurtzen da: "*Saritua 1892'an*" .

Zer sari eman ote zioten, bada? Erantzuna, *Euskal-festak Donostian - Oroimengarria, 1892* izeneko liburuxka orrek ematen digu. Euskal festa oiek urte artako abenduaren azken amar egunetan egin ziran. Beste ospakizun askoren artean, *izkribatzallean indar neurtzea* ere izan zan, bai itz-lauz eta bai bertsoz. Auetako bat, gai librean. Oñarrietan onela esaten zan:

"Artez edo manoro egintako zerbait gauza, edozein gai eta neurritan jarritako biursakintza ederrenaren egilleari. Ez dira sariztatuko, puntu ontan len bi bider sariztatuak izan diradenen moldaerak Euskal itz jostaldien Bazar onen aldetik. Aldeera: Bitezar onoretzu bat."

Euskera ori zail xamarra baita, eta oñarriak bi izkuntzetan dauden ezkerro, erderazkoa ere agertuko degu:

"*Un objeto de arte, al autor de la mejor poesía bascongada con libertad de asunto y de metro, quedando excluidos de este punto del Programa los que antes hubiesen sido dos veces laureados en él por el Consistorio. Accésit: Diploma de honor.*"

*Consistorio* ori *Consistorio de los Juegos Florales* zeritzaiona zan. Sariketa aukerantolaten zituana alkar-tea, alegia. Lanak, "edozein izkera mota" edo euskalkietan bialdu zitezkean, baiña azaroaren 20-aren arratsaldeko seiak baiña len.

Pedro Maria Otañok *Ama Euskara* izeneko au bialdu zuan. Etzan bakarra izan. Beste onako aukerak ere aurkeztu ziran: *Ongille bat, Arrantzalienen bizitza, Justitari, Bizi bedi Euskara, Bi anai fedez sutubak alkarri izketan, Lore bat, Laugarren saria, Pirri... pipi... pi, Belentxori, Ipuiak, Andre moskorak, Gernikako Arbolari eta Esan bildurrik gabe euskaldunak gera.*

Otañorena azken au da. *Sobre* edo estalkiaren kanpo aldetik ori jarriko zuan, oñarri au betetzearren:

"Paper bakoitzean ipiñiko da lan bakoitza, jarririk berari ezagungarri bat, eta, itxia ere egongo dan beste papertxo batean, ipiñiko dira izkribatzallearen izen lonbreak, eta bere bizi lekuaren señaik barrendik, eta ezagungarri ura ber bera kanpotik."

Amairu lan baziran, beraz. Egille guziak nor izan ziran ezin esango degu, dalako *Oroimengarri* orrek ez baititu saritu etziran egilleen izenak.

Leenengo saria *Lore bat* izenekoak eramane zuan. Egillea, Jose Ansuarena. Ezezaguna guretzat. Izkera Bidasoaz ipar aldekoa du eta angoa izango zan.

*Accésit* edo aldaera, *Gernikako Arbola* deritzaionak irabazi zuan. Egillea, Jose Zapirain izan zan, donostiarra edo bertan bizi zana beintzat.

Otañorenak, berriz, *Euskal-Erria* aldizkariak ere esan digun bezela, *mención honorífica* izan zuan, beste aukerak batera: *Bizi bedi Euskara*, Jose Marino Arrietarena; *Pirri... pipi... pi*, Toribio Elolarena; eta *Ipuiak*, Rosario Artolarena.

Jose Marino Arrieta dalako ori nai-ko bertso-jartzaille saiaturia izan zan. Toribio Elola ori nor izan zan ez dakigu. Rosario Artola, berriz, Ramon Artolaren alaba izan zan, eta Pepe Artolaren arreba. Aita eta anaiaren antzera, bera ere bertso jartzaille saiaturia.

Otaño, artean Arjentinatik etorri berria zan. Eta, oker ez bagaude, au da iñungo saritan aurkeztu zuan leenengo bertso sailla. Andik aurrera, maiz xamar bialduko zituan bere lanak, bein baiño geiagotan leendabiziko saria irabaziz.

Norgeiagoka oiek zirala bide, bertso asko jarri zituan Pedro Marik, Donostian bizi izan zan urteetan. Meritu ori ere aitortu bear zaie noski antolatzaillerei.

Nor ziran auek? Euskal festa oietan beste sariketa bat ere bazegoan: “Sei sari, dibujatzeko estutxe edo beste orlako gauzen batzuek, 10-tik 15 urtera bitarteko sei mutill gazte, euskeraz ondoena irakurri eta izkribatu, ordu laurden batean, egiten dutenentzat”. Artarako izena, Abenduaren 10-eko arratsaldeko seiak baiño leen eman bear zan, jaun auetako bati: Martzelino Soroa, Ramon Artola edo Jose Zapirain.

Martzelino Soroa (1848-1902), Bidasoaz ego aldean euskal antzerkiari asiera eman ziona izan zan. Ramon Artola (1831-1906) eta Jose Zapirain,

berriz, leen ere aitatu ditugun bertso-jartzailleak. Beroiek bakarrik etzituzten euskal festa oiek antolatuko. Baiña tarteko izango zirala dudarik ez da.

Beste bi antolatzaillari eta arduradun, Alfredo Lafitte eta Antonio Arzak izango ziran. Leenengoa Alkarteko *dianagusia* edo *presidente* baitzan; eta bestea, *goarpelaria* edo *sekretario*, eta itz-neurlari fiña benetan.

Epai-maiko jaunak nor izan ziran ez dakigu. Aitatutako izenetatik bi beintzat baztertu bearrak ditugu. Jose Zapirain bat, berak ere lan bat aurkeztu baitzuan. Bestea, Ramon Artola. Ez baitegu uste alabaren bertsoak epaitzea naiko zuanik.

Leen ere adierazi degunez, sari-banaketa egiteko, jaialdi bikaiña egin zan abenduaren 30-ean, gaueko zortzietan, Teatro Zaarrean: euskal kanta batzuk izan ziran; bi antzerki ere bai: Bitoriano Iraolaren *Onentzaro gaba* eta Toribio Alzagaren *San Tomaseko feriya*; beste ospakizun bat, “izkribalari eta musikalarien indar-neurtzan sariztatuak izan diran izenen deia, eta sariya eraman duten izkribuen irakurtza”. Eta bukatzeko: “itz-neurlari edo bertsolarien kantuzko jolasbidea, Gipuzkoako bi bertsolaririk onenetakoen artean”.

Pedro Maria Otañok, aldaera edo *accesit* izan baitzuan, eta ez saria, etzuan bere lana an jende aurrean irakurriko.

(1893)  
**PERRANDO AMEZKETARRA**

Egon oi dira gordiak  
loriak;  
nik nai det billatzen saia  
usaia,  
eta arki leike errez  
berez,  
nola dakarkiyen legez  
*loriak usaia berez.*

Zenbat gauza on munduan  
txokuan  
daude larpian galdurik  
azturik,  
eta gelditzen dirala  
ala!  
Ez ditzagun utzi bada  
*txokuan azturik ala.*

Sasipietan egonak  
gizonak  
diamante ta urrien  
lorien  
antzera oi dira izan  
gisan.  
Ai!, zenbat ote dabiltzan  
*gizonak lorien gisan.*

Azaldu gabia ondo  
Perrando,  
zabaldu arren usaia  
artzaia,  
bañan lezateke esan  
nor zan  
Amezketan ta Tolosan  
*Perrando artzaia nor zan.*

On geiena dan lekutik,  
zerutik,  
ez eskolan ikasiya,  
jatxiya,  
zebillera ardi ondoren  
zuben  
Perrandok suba barrunen,  
*zerutik jatxiya zuben.*

Arek etzekiyen asko  
moldezko  
ta esku-izkribuetan  
letretan;  
bañan ura zan euskera  
bera.  
Argatik nai det atera  
moldezko letretan bera.

\* \* \*

Bertso auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu ditugu. Guk dakigula, aldizkari eta liburu auetan argitaratu dira:

*Euskal-Erria* aldizkaria, XXVIII tomoa, 1893 urtean.

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtean.*

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburua, *Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar / Iñaki Deunaren irarkolan / Garibay, 28. Donostia / 1930.*

Aldaketak: 2/3: daude lurpian galdurik; 3/1: Zazprietan egonak; 4/7: falta.

*Bertsolariya* astekaria, 15-garren zenbakian, 1931-XII-27'an.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959.* Onek aurrekoak bezelaxe bertso guziak.

Argitaraldi auek ez dute aitatzetik merezi duan aldaketarik.

(1893)

## REPUBLIKA TA FUEROAK EDO MENDIBURUKO MAIZTARRA

- 1/ Alaba, suia eta illobak  
ikustera, aita zarra,  
puxka maiteak emen, kalean,  
daduzkan baserritarra,  
urte luzeai gallen egiñaz  
gazte bat beziñ azkarra,  
Donostiyara etorri zaigu  
utzirik bere baztarra,  
Tolosa bañan goragotikan,  
Mendiburuko maiztarra.
- 2/ Igaro dira egun batzuek  
sekulako azkarrena,  
eta aitonak or azaltzen du  
len barrenen zekarrena:  
zortzi urteko mutill koxkor bat,  
Joxe, illobik zarrena,  
eskatutzen du eramateko  
-ai, ura amaren pena!-,  
esanaz zorrotz kalea dala  
gaztientzako txarrena.
- 3/ Bere ait'amen baimenarekiñ  
Joxetxo au Goierrira  
joan zan, oitura onak artzera  
aitonaren baserrira.  
Geroztik ama gaxua beti  
alde artara begira,  
eziñ bizi zan bere semea  
joan zanetik urte bira;  
bañan azkenik bere aitona  
zarrarekiñ etorri da.

- 4/ Lenbizi utzi diote egiten  
amarekiñ milla jolas,  
bañan txandikan nola ematen  
etzuten oiek iñolaz,  
ta aitak ere begiratudzen  
ziyon benaz ta ajolaz,  
galdetu ziyon aiton zarrari  
far-irriyan, erdi burlaz:  
"Mutill ederra dakarki, bañan  
nol'ote dago eskolaz?"
- 5/ Ori aditu zuben denboran,  
aitonak, altxarik garboz,  
erantzun ziyon: "Eskol'oberik  
eziñ eska leike aboz;  
euskalduna da eta *pueroak*  
maitatzen ditu oraingoz;  
nola karrika beterik dagon  
*erreplurikano* gaiztoz,  
eraman nuben ta obe luke  
berriz an balego askoz".
- 6/ "Republika zer dala uste du?  
Aitona, betor onuntza;  
eztegu ondo entenditutzen,  
ez baita gure izkuntza;  
bañan eskatzen du egiteko  
denok elkarri laguntza,  
beren modura gobernatubaz  
probintzi t'erri bakoitza,  
ortik fuerora zer diferentzi  
dago, aitona? Zer? Utsa."
- 7/ "Zure tokiyan beste zenbaitek  
itzegiñ balit orrela,  
animatikan aitortzen dizut  
sinistuko ez nubela;  
bañan zu, suia, nik ondo dakit  
egitiya zeradela,  
eta diyozu *erreplurikak*  
*puerua* dakarrela...  
Orduban saia gaitezen denok  
ta lenbailen datorrela."

\* \* \*

Zazpi bertso auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu ditugu.

Esku-idatzi ontan, izenburuaren azpian, onela irakurtzen da: *Juventud Republicana*. Oker ez bagaude, aldizkari bat izan zan. Pedro Maria Otaño errepublika-zalea baitzan, ez degu zer arriturik lan au ara bialtzeaz.

Aldizkari orren sorta osoa ez degu guk ezagutzen. Baiña Errenteriko Enrike Elizetxearen bilduman, paper-punta bat arkitu degu bertso auekin, saietsean lapitzez idatzita itz auek dituana: “*La Juventud Republicana, San Sebastián 2 de Junio de 1893*”.

Eta bertsoen ondotik, moldiztegi letraz idatzita, orrela irakurtzen da: “*San Sebastian: Establecimiento tipográfico de Pozo, Calle de Fuente-rrabía, 14*”.

Beste toki auetan ere argitara atera ziran bertso auek:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait liburu*, Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian.

*Bertsolariya* astekaria, 10 zenbakian, 1931-XI-22.

*Argia* astekaria; baiña ez dakigu zein egunetakoa, ori apuntatu gabeko paper-punta batean bildu baititugu.



(1893)  
**BASTILLA**

- 1/ Jakitearen argitasuna  
iritxi zaioten denak,  
nola itsasoz aruntzkotarrak  
ala onontztik daudenak,  
eta geiago oien tartian  
biyotz altxia dubenak,  
gaur Frantziyari biraltzen dizka  
eskumuñ bereztubenak;  
gutxiyagorik ez du merezi  
Bastilla'ren oroimenak.
  
- 2/ Bastilla deitzen zitzaion etxe  
tzar bat Parixen gainduba,  
agintariyen josta-lekuba,  
mendekuen infernuba,  
jende "txe" dena oiñperatubaz  
luzaruan egonduba;  
gaur eun ta lau urte, altxarik  
aserre erri miñduba,  
onen indarrez izan zan ura  
purrukatu ta kenduba.
  
- 3/ Erriya ala ikusitzian,  
agintariyak atiak  
itxi zituzten, bañan aitubak  
zeuden aien agintiak;  
Parixko seme alkar maitiak,  
samiñtasunez betiak,  
autsi zituzten beren anaiak  
lotzeko zeuden katiak,  
eta len goien zeudenak izan  
ziran azpira botiak.

- 4/ Nola itsaso aserretua  
iñoiz biurtzen dan apar,  
gisa berian altxatu ziran  
aiñbeste milla atzapar;  
txikiyak laxter aunditu ziran  
artu zutenian alkar,  
aundiyak berriz -eta nola ez!-  
txikitu ziraden azkar;  
Frantziyak daukan edertasuna  
egun santu arek dakar.
- 5/ Uzta-illaren amalaubian,  
gaur eun eta lau urte,  
frantzesak azañ izugarri au  
egiñ izan ez balute,  
etorkizuna etzitekian  
daukan aña argiz bete.  
Bai, animako ogiya denoi  
bidean jarri digute;  
agur ditzagun gure maisuak,  
guztiya merezi dute.

(Donostiyan, Uzta-illaren 14' an, 1893' an.)

\* \* \*

Bost bertso auek ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu ditugu.

Izenburuaren saiets batean onela irakurtzen da: *Juventud republicana*. Leen ere esan degunez, aldizkariren bat izan bear du. Bearbada, Otañoren bertso auek an agertuko ziran leenengoz.

Pedro Mari Otañoren *Zerbait* liburuan ere argitaratu ziran bertso auek, "*Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian*".

Baita *Bertsolariya* astekarian ere, 44 zenbakian, 1932-VII-17'an.

Argitaraldi auek ez dute alkarren artean aldaketarik.

\* \* \*

Bertsoen azpiko egun eta urtea *Oroimenak* izeneko esku-idatzi orrek bakarrik dauka. Beste argitaraldiak orren gabe daude. Bear aundirik ere ez, ordea. Bestela ere, bertsoetan alegia, bi bider eguna eta urtea

adierazten baitira: 2/7 eta 5/2 lerroetan, Bastilla artu zanetik “gaur -Uzta-illaren amalaubian, alegia- eun eta lau urte” betetzen dirala esaten baita. Bastilla ori 1789-ko uztaillaren

14-ean artu zuan erriak; eta 104 erantsita, 1893 urtea degu. Gertaera ortan ikusi izan da beti Frantziako Iraultzaren garaipena. Egun ortan festa egin oi da geroztik Frantzian.

(1893)  
ESPAÑOLAK ETA MORUAK

- 1/ Erdi lotan bezela  
joan dan aspaldiyan,  
iñoren parragarri  
geunden Españiyan;  
argatikan moruak,  
ausardi aundiyan,  
artu nai zuten legoi  
zarra oñ azpiyan,  
ta gaztiak azaldu  
zaizkate kabiyan.
  
- 2/ Zar-itxuran dagoen  
legoia tximutzat  
artuko zuten bada?  
Oiek astaputzak!  
Berak nola diraden  
animali utsak,  
izan arren Koran ta  
Mahoma laguntzat,  
astinduko dizkate  
txilabako autsak.
  
- 3/ Españiyan biyotzak  
daude txit jasuak,  
legoia esnatu du  
tximu-erasuak;  
baleudezke seguru  
joan diran gaxuak,  
arentzako dauzkala  
beren gurasuak  
malko bat illentzako,  
bizintzat besuak.

Iru bertso aukeratuak ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu.

Izenburuaren azpian itz aukeratuak irakurtzen dira: (*Melilla*) (*Juventud Republicana*) (*Euskal-erria*). Zer esan nai duten igertzen oso erreza da.

*Melilla* itzak garai artan Melillan izan ziran gertakariei jarritako bertsoak dirala adierazi naiko du, dudarik gabe. Gertakari oietaz aurreraxeago itzegingo degu.

*Juventud Republicana*, berriz, leen ere esan degunez, aldizkari bat zan, eta bertso aukeratuak antxe argitaratu emango zituan Otañok.

*Euskal-Erria* aldizkarian, berriz, 1893 urtean argitaratu ziran, XXIX tomoan, 426 orri-aldean.

Pedro Maria Otañoren *Zerbait* liburuan ere agertu ziran, *Donostian, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian*.

Baita *Bertsolariya* astekarian ere, 38 zenbakian, 1932'ko garagarillaren 5'ean.

Argitaraldi aukeratuak aldaketarik gabekak dira.

\* \* \*

Zer izan ote ziran, bada, Melillako gertaera oiek? Kondaira-liburuetan arkitutako argibide batzuk eskeiñiko dizkiogu irakurleari.

Españitarrak guda-gaztelu bat egiten asi ziran Mellila ondoan, Sidi Aguariach deritzaion lekuan. Artarako eskubidea bai omen zeukaten, 1860-an Was-Ras-eko itzarmenean moroak onartuta. Auek, ordea, leku ura santua zala eta beste tokiren batera aldatzeko eskatu zuten. Baiña Melillako gobernadore militarrek, García Margallo'k, entzungor egin zien eta lanak aurrera jarraitu zuten.

Ala, erramintak gordetzeko estalpea puskatu zuten moroak 1893-ko iraillaren 26-an. Urrena, tiroka eraso. Españitarrak Melillaraño erretiratu ziran. Orduan Madrilleko gobernuak indar berriak bialdu zituan, eta borroka latzak izan ziran. García Margallo ori tiro batez il zuten.

Azkenean, ogei ta bi milla soldadu igaro omen ziran Españitik Melillara, Martínez Campos'en agindupean. Baiña, gerrara jo gabe, konponbide bat billatu zuten jeneral orrek eta sultanak.

Gertaera oiek zirala-ta, españiar abertzaletasunak sugar berriak atera zituan. Sugar oien txinparta batzuk dirala esan genezake Otañoren bertso aukeratuak.

Legoiaren iduria erabiltzen du zizurkildarrak. Etzan bakarra izan. N. Torcal y Chueca izeneko olerkari batek ere onela zion erderaz:

*Ya agita su melena  
fiero el león de España  
y su rugido suena  
del uno al otro confín...*

(1893)  
**LIMOSNATXO BAT**

- 1/ Mutill koxkor bat itxu aurreko  
zubela aldamenian,  
gizon buru soll, bizar zuri bat,  
bi makuluren gañian,  
kale eskiñan ikusi nuben  
iñora eziñ joanian;  
ta bera nor zan jakiñ nayian  
inguratu nintzanian,  
limosnatxo bat eskatu ziran  
Jainkuaren izenian.
  
- 2/ Zerbait emanaz galdetu niyon,  
al zan modu onenian,  
jaiotzatikan al zeukan ala  
gaitzak artuba mendian;  
erantzun ziran: “Ez, semia, ez;  
nik sasoia nubenian,  
ez nuben uste iritxitzerik  
onetara azkenian...  
Gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian”.
  
- 3/ Eta segitu zuben esanaz:  
“Lengo gerrate denian  
ni aurren xamar ibiltzen nintzan  
beti edo geienian,  
nekatu gabe aisa igoaz  
aldapik luzienian;  
etzan burura asko etortzen  
gu ala gebiltzanian,  
gero limosna eskatutzerik  
Jainkuaren izenian.

- 4/ Odolak bero eta buruba  
arrua daguenian,  
edozeiñ moduz sartutzen da bat  
alako itxumenian;  
atsekabe ta negar samiñak  
badatoz ondorenian;  
nola ere bait batek biziya  
utzitzen ez dubenian,  
limosnatxo bat eskatu biar  
Jainkuaren izenian.
- 5/ Iñoiz pentsatzen nere artian  
ni jarritzen naizenian,  
gaur ere asko dirala joango  
lirakenak zuzenian,  
ez luke iñork sinistatuko  
zer pena ematen dian.  
Ai!, orla nintzan ni ere sano  
ta gazte nenguenian...  
Gaur limosna bat eskatutzen det  
Jainkuaren izenian.
- 6/ Ai!, txorakeri asko egiten  
da zentzurik ez darian,  
sinista zazu ur au pasia  
daukanaren esanian;  
obiago da sasoi dan arte  
saiatutzia lanian,  
negar egiñaz ibilli gabe  
gero denbora joanian,  
limosnatxo bat bildu eziñik  
Jainkuaren izenian”.

Sei bertso auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu.

Aldaketa bat sartu degu: bostgarren bertsoaren seigarren lerroa *diran* itzarekin bukatzen da. Guk *dian* idatzi degu, puntuak ala eskatzen baitu.

Bertso auek askotan argitaratu dirala esan bearrik ez dago. Ona emen argitaraldi batzuk:

*Euskal-Erria* aldizkaria, 1893 urtean, XXVIII tomoan. Izenburuaren azpian onela dio: (*On Antonio Arzac jaunari donkitua*). Antonio Arzak au (1855-1904), euskal idazle eta olerkaria izan zan; baita *Euskal-Erria*’ren zuzendaria ere 1884’tik 1904’ra, Pedro Marik aldizkari ortan bere bertsoak argitaratu zituan urteetan alegia; eta eskeintza onekin bere esker ona agertu naiko zion.

Pedro Maria Otaño: *Zerbait izeneko liburua, Donostiyan, Victoriano Iraola ren moldizkiran, 1895 garren urtian.*

*La Voz de Guipúzcoa* egunkaria, 1895-VII-20, larunbata.

*La Tradition au Pays Basque* liburua, Paris, 1899.

*La Vasconia* aldizkaria, Buenos Aires, 248 zenbakia, 1900-VIII-20.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* izeneko liburua, Buenos Aires, *Tipografía "La Baskonia"*, Victoria 1088, 1904.

*La Baskonia* aldizkaria, Buenos Aires, 549 zenbakia, 1908-XII-30. Onek egillearen izena onela idazten du: *Juan Pedro Olano*. Gero adieraziko degu zergatik.

*Argia* astekaria, 35 zenbakian, 1921, lotazilla, 18. Onek doiñuarekin argitaratu zuan. Ori aurrena berak egin zuala uste degu. Doiñu ori, andik aurrera, *Mutil koxkor bat* edo *Limosnatxo bat* izenarekin ezagutuko zan bertsozaleen artean.

*Juventud* aldizkaria, (*Publicación de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa*), 1929-I-31.

*Mariya, Imprimerie M. Mendiburu, Bordeaux*. Zein urtetan argitara atera zan ez du esaten kantutegi onek.

*Euskal Kantak (Cantos populares del País Vasco)*, Donostia, 1959.

*Euskal Kantak*, Bilbo, 1960.

*Gure kanta zar jatorrenak, Librería Mugica, San Sebastián*. Argitaratu zan urtea ez du esaten liburuxka onek.

*Kantu kanta kantore kanta bilduma*, Baiona, 1967.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburua, *Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay 28, Donostia, 1930*. Aldaketak: 1/5: kale (i) ertzian ikusi nuben; 2/6: nik indarra nubenian; 3/1: Eta jarraitu zuben esanaz; 4/3: edozein eran sartutzen da bat; 5/7: Ai! orla nintzan ni ere sendo; 6/5: obiago da garai dan arte; 6/6: alegintzia lanian.

Esan bearrik ez dago aldaketa auek Otañoren euskera garbitzearren sartuak dirala. Andik aurrera, zoritxarrez, 1930-eko *Alkar* liburu oni kopiatuko zioten argitalpen guztiak edo geienak, aldaketa oiek onartuz. Orrelakoak ditugu ondoren aitatuako ditugunak.

*Bertsolariya* astekaria, 26 zenbakian, 1932-III-13.

*Argia* astekaria, egunik ez dakigu, paper-punta batean etorri baitzaigu. Baiña *galde-erantzuerak* izeneko saillean agertu zan, 2.259 zenbakiarekin.

*Argia* astekaria, 1933-III-26, *Galde-erantzuerak* saillean au ere, 3.420 zenbakiarekin.

*Argia* astekaria, beste argitalpen bat. Aldi ontan ere egunik ez dakigu.

Bertso papera, *Imp. R. Altuna.- San Sebastián*, Donostiako Juan Iturralde (Juanito Kojua) jaunaren eskutik jaso.

Bertso-papera, au ere *Imp. R. Altuna.- San Sebastián* moldiztegian argitara emana. Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan.

Bertso-papera: *Tip. Iriondo y Cía*, au ere Donostiako Juan Iturralde (Juanito Kojua) jaunaren eskutik jaso. Paper onek beste bi aldaketa auek ditu: 1/9: gaur limosna bat eskatutzen det; 1/10: Jaungoikuaren izenian.



Bertso-papera, *Elustondo - Zarauz* moldiztegian argitara emana. Onek ere 1930-eko *Alkar* liburuari kopiatzen dio. Baiña 6/6: saiaturzia lanian.

Bertso-papera, *Imp. J. Díaz. - Irún* moldiztegian argitara emana, Lekarotzen, Aita Donosti zanaren artxiboan.

*Euskal Erriko kanta zarrak, Tomo I, Imp. Macazaga, Rentería.*

*Gure kanta zar jatorrenak, Librería Múgica, San Sebastián.* Liburuxka onek ez du urterik esaten.

Aita Onaindia: *Milla euskal olerki eder*, Larrea Amorebieta, 1954. Onek fonetismo asko kentzen ditu: *zubela, ziran, niyon, artuba* eta abar idatzi berrean, *zuela, zidan, nion, artua* eta abar.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak*, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak presatua.

*Boga-boga (Erri abesti xorta)*, Donostiako apaiztegia, 1959.

*Euskal Kantak*, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1960.

*Príncipe de Viana* aldizkaria, 1982, otsailla.

1972'ko Maiatzaren 11'an, Tolosan, Uztapide, Lasarte, Garmendia eta Lazkao Txiki bertsolariekin jaialdi bat egin zan. Artarako dei-orrian, atzeko aldetik sei bertso auek erantsi zituzten.

Bertso auek ain ezagunak izanik, toki geiagotan ere agertuko ziran noski.

\* \* \*

Leen aitaturako *La Tradition au Pays Basque, Paris 1899* liburuan, 1897-ko abuztuan Donibane-Lohizuneko euskal festetako itzaldia eta lanak bildu ziran. Baita saritutako itz neurtuak ere.

Leenengo saria, eun libera alegia, Donostia-ko Felipe Casal Otegik irabazi zuan, *Gure ama maitia* olerkiarekin. Bigarren sariaren irabazleak, biak batera eta berrogei ta amarna libera jasoz: *Harrazpi* Becas jauna, Bidarteko apaiza alegia, *Santsin* olerkiarekin, eta Pedro Maria Otaño, *Limosnatxo bat* onekin. Beste berrogei ta amar libera irabazi zituana: *A. Pheza*, Diharrasarry jauna, Ortzaizeko apaiza, bere *Menderen mendetan* San Juan Bataitzaillearen omenezko kantuaren doiñu eta bertsoengatik.

Arrigarri samarra ere bada, gure us-tetan, 1893-an argitaraturako bertso batzuk 1897-ko sariketa batera bialtzea. Baiña, itxura danez, gauzak orrelaxe gertatu ziran.

Etzioten, ordea, leenengo saria Pedro Maria Otañori eman. Ala ere, Felipe Casal Otegiren sailla gaur ez du iñork ere ezagutzen; Otaño'rena, berri, noiznai kantatzen da.

*La Tradition au Pays Basque* liburu ortan agertzen danez, bertso auek etzitan Pedro Marik bere izenean bialdu. "*Juan Pedro Otano, de Saint Sébastien*" ematen da bialtzailletzat. Zergatik ote?

Pedro Maria Otaño, bere familiarekin, andikan laster, 1898-1-26-an, joango zan Ameriketara. Arako asmoak buruan erabiliko zituan ordurako, ber-

tso auek bialtzerako alegia. Eta sariak banatzean itxasoz arunttik edo onunttik izatea gauza segurua ez baitzan, bada ezpada ere bere aitaren izenean aurkeztuko zituan.

Leen esan degunez, *La Baskonia* aldizkariak bertso auek 1908 urtean ere argitaratu zituan, baiña egillearen izena onela idatzirik: *Juan Pedro Olano*. Aldaketa ori nundik sortu dan errez soma diteke. *La Baskonia* onek *La Tradition au Pays Basque* liburutik kopiatuko zituan bertso auek. Onek, frantzesak “ñ” letrarik ez baidute, *Otaño* idatzi bearrean, *Otano* ipiñi zuan. Gero, *La Baskonia*-k, *Otano* ezin zitekeala eta *Olano* jarri.

Aldaketa orrek etzion grazi aundirik egingo Pedro Mariri. Ordurako au, Buenos Aires utzi eta Santa Fé irian biziko zan.

\* \* \*

Gure iritzirako, itxu au ez da Otañoren iduripenaren asmakizun bat, bene-benetako gizon bat baizik. Pedro Marik dion bezela, gizon buru soil bizar zuri bat ikusi zuan bein batez kale eskiñaren batean, bi makuluren gaine-

an eta iñora ezin joanik, mutil koxkor bat itxu aurreko aldamenean zuala.

Itxuak aitortzen dionez, argia eta sasoitsua izanik, leengo gerrate denean aurren xamar ibiltzen zan beti edo geienetan, edozein moduz sartuz. Itxumen orren ondorioa du orain itxu izatea.

Zein gerrate ote da doakabe onek begietako bista galdu zuana? Bertsoak 1893-koak izanik, karlisten leenengoa izan diteke (1833-1839). Baiña seguruagoa degu karlisten bigarrenengoa izatea (1872-1876).

\* \* \*

Ona emen, azkenik, bertso auen doiñua, *Juventud* aldizkariak dakarren bezela:

Bertso auen doiñua lau modutara jaso degu. Doiñua bat bakarra izango da sustraiez, baiña gero kantari bakoitzak bere aldaketak sartzen dizkio. Leenengoa, *Juventud* aldizkariak argitaratu zuana da. Bigarrena eta irugarrena, Zizurkilko Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak kantatu dizkigute. Laugarrena, Ondarroako Jose Maria Etxaburuk bialdua degu.

Mu - til kox -  
 kor bat i-txu au-re-ko zu-be-la  
 al-da-me-ni-an gi-zon bu-  
 ru soil bi-zar zu-ri bat bi ma-ku-  
 lu-ren ga-fi-an. Mu-til kox -  
 an ka-le er-tzi-an i-ku-si  
 nu-en i-fio-ra e-zin joa-ni-  
 an. Ta be-ra nor zan ja-kin na-  
 yi-an in-gu-ra-tu ni-tza-ni-  
 an... li-mos-na-txo bat es-ka-tu  
 zi-dan Jain-ku-a-ren i-ze-ni-  
 an. Ka-le er-an.

Mu - til kox -  
 kor bat i-txu au-rre-ko zu-be-la  
 al-da-me-ni-an, gi-zon bu-  
 ru soil bi-zar zu-ri bat bi ma-ku-  
 lu-ren ga-fi-an ka-le es-  
 ki-fian i-ku-si nu-ben i-fio-ra  
 e-ziñ joa-ni-an; ta be-ra  
 nor zan ja-kiñ na-yi-an in-gu-ra-  
 tu nin-tza-ni-an, li-mos-na-  
 txo bat es-ka-tu zi-dan, Jain-ku-a-  
 ren i-ze-ni-an.

Mu - til kox -  
kor bat i-txu au - rre-ko zu - e - la  
al - da-me - ni - an, ai - ton bu -  
ru soil txit zar - tu - rik bat bi ma - ku -  
lu - ren ga - fii - an i - ku - si  
nu - en ka - le er - tzi - an i - fio - ra  
e - zin joa - ni - an; ta be - ra  
nor zan ja - kin na - yi - an in - gu - ra  
tu nin - tza - ni - an, li - mos - na -  
txo bat es - ka - tu zi - dan Jaun - goi - ku -  
a - ren i - ze - ni - an.

Mu - til kox -  
kor bat i - txu au - rre-ko zu - be - la  
al - da-me - ni - an gi - zon bu -  
ru - soil bi - zar zu - ri bat bi ma - ku -  
lu - ren ga - fii - an ka - le er -  
tzi - an i - ku - si nu - ben i - fio - ra  
e - zin joa - ni - an. Ta be - ra  
nor zan ja - kin na - i - an in - gu - ra  
tu nin - tza - ni - an... li - mos - na -  
txo bat es - ka - tu zi - dan Jain - ku - a -  
ren i - ze - ni - an.

## BETI-BETIKO

*(Nere adiskide maite Buenabentura Soroa'ren  
doñurako egiñdako letra.)*

*Galaiak:* Zure aita ta amari  
-trantze estua-  
izandu naiz eskatzen  
zedorren eskua;  
egiña zendukazula  
amarekikua  
zuk esan eta nedukan  
sinistua;  
aita berriz mintzatu zait  
aiñ prestua,  
baietz agiñdu dit eta  
-au da gustua!-  
nere biyotz gaxua dago  
birpiztua.

*Damak:* Nola dezun zuk barren bat  
danik onena,  
beti izan dizut nik  
zuri sinismena;  
bañan falta zitzaigun  
lanikan zallena:  
nere aita prestuaren  
aitormena;  
aspalditik banekiyen  
amarena,  
ta oraiñ badegulako  
biyen baimena,  
badakizu ni zuretzako  
naguena.

*Galaiak:* Nola mundu onetan ez  
dezun berdiñik,  
eziñ arki nezake  
nik zure ordañik;  
neretzako zeradela  
sinistu eziñik,  
aspaldiyan igaro det  
gau samiñik;  
bañan ez da mudakorrik  
biyotz fiñik;  
oraiñ lengo traba denak  
alderagiñik,  
biziko gerade gu biyok  
bat egiñik.

*Galaiak:* Ai, nik zenbat nai dizudan!

*Damak:* Eta nik zuri?

*Galaiak:* Mingañez eziñ esan  
genezake ori.  
Biyotzak aiñ alkartu  
zaizkigu biyori,  
nola bildu etzaiozkan  
len iñori,  
petxu batian daudela  
badiruri.  
Ori egiya izanik...  
muxu bat neri  
ez al nazu bada emango?

*Damak:* Tori, tori.

Pedro Maria Otañoren *Oroimenak*  
esku-idatzitik ditugu bertso auek ere.

P. M. Otaño: *Zerbait* liburuan,  
*Donostiyan, Victoriano Iraola-ren*  
 *moldizkiran, 1895-garren urtian.*

Baita ere *Etxeverria y Guimón-en*  
*Ecos de Vasconia* bilduman, 27:  
*Música de Buenaventura Soroa.*  
*Poesía de Pedro María Otaño.*

Oar batean au dio: *Escrito expresa-*  
*mente para esta colección y publicado*

*en la forma remitida por su autor. Eta*  
*aurretik eskeintza:*

*Beren lagun Manuel*  
*Cendoya jaunari*  
*egilleak Bentura*  
*eta Pello Mari.*

Manuel Zendoia eta Buenaventura  
Soroa oiek nor izan ziran ezdakigu.

Ona bertso auen doiñua, *Ecos de*  
*Vasconia*-tik artua:

Beren lagun Manuel  
Candoya jaunari  
Egilleak Ventura  
eta Pello Mari.

Nº 27.

Beti-Betiko.<sup>(1)</sup>

Música de Buenaventura Soroa.

Aire Vascongado.

Poesía de Pedro M<sup>o</sup> Otaño.

Andante. (120 = ♩)

1. Zu - re ai - ta ta a -

ma - ri (tran - tze es - tu - a) i - zan - du naiz es -

ka - tzen ze - do - rren es - ku - a e - gi - ña zen - du -

ka - zu - la a - ma - re - ki - ku - a zuk e - san e - ta

(1) Escrito expresamente para esta colección y publicado en la forma remitida por su autor.  
D. y 49 Cía

ne - du - kan si - nis - tu - a ai - ta be - rriz min -

tza - tu zait aih pres - tu - a ba - yetz a - gin - du dit e - ta au -

da gus - tu - a ne - re bi - yotz ga - shu - a da - go bir - piz - tu - a.

*rit.*

*col canto*

D. C.

**Galayak.** Zure aita ta amari **Damak.** Nola dezun zuk barren bat **Galayak.** Nola mundu onetan ez **Galayak.** Ai, nik zenbat nai dizudani!  
 (Trantze estua!) Danik onena, Dezun berdiñik **Damak.** ¿Eta nik zuri?  
 Izandu natz eskatzen Nik izan dizut beti Ezin arki nezake **Galayak.** Mingañez ezin esan  
 Zedorren eskua, Zuri sinismena, Nik zure ordañik; Neretzako zeradela  
 Egiña zendukazula Baña falta zitzaigun Neretzako zeradela  
 amarekikua, Lanikan zallena: Sinistu eziniñk Sinistu eziniñk  
 Zuk esan eta nedukan Nere aita prestuaren Aspaldiyan igaro det Aspaldiyan igaro det  
 sinistua, aitormena: Gau samñik; Gau samñik;  
 Aita berriz mintzatu zait Aspalditik banekiyen Bañan ez da mudakorrik Bañan ez da mudakorrik  
 ain prestua, amarena, biyotz fiñik; biyotz fiñik;  
 Bayetz agiñdu dit eta Ta orañ badegulako Orañ lengo traba denak Orañ lengo traba denak  
 au da gustual Biyen baimena, Alderagiñik. Alderagiñik.  
 Nere biyotz gashua dago Bada kizu ni zuretzako Biziko gerade gu biyok Biziko gerade gu biyok  
 birpiztua. naguena. bat egiñik. **Damak.** Tori, tori.



**ELIZAKUAK**  
**EDO**  
**AU MUNDUA!**

10            Illunak nabarturik  
              bideko tiñua  
              zeukan, ta ixildu zan  
              txorien doñua;  
              odoi tartetik iñoiz  
              izarren keñua  
              senti zan, bañan bian  
              sortu zan lañua;  
              argi baten aurretik  
              kolpez errañua  
              azaldu zan, ta laxter  
              -eliza-siñua-  
              gugana iritxi zan  
              txintzarri-soñua.

\* \* \*

20            *Txilin-txilin* jo zuben  
              berriz txintzarriyak,  
              aditzera emanaz  
              gauza mirariyak,  
              beti txit onak, bañan  
              iñoiz miñgarriyak,  
              izaten diranian  
              gaitzak ekarriyak.  
              Oso tristetu ziran  
              gure aurpegiyak,  
              ta beria azaldu  
              zuben illargiyak;

30 eskuban arturikan  
buru-estalkiyak,  
lurrian belauniko  
an geunden jarriyak,  
ta parte artu zuben  
zeru-gau-argiyak:  
an pasa biar zuben  
Jaungoiko aundi yak!

\* \* \*

40 Eukaristi Santua  
jarriya Maisuak  
ziju an pasatzen, ta  
beraren pausuak  
umill agurtzen ditu  
kristau fedetsuak;  
ta nola emen ala  
geran geientsuak,  
gertatzen diranian  
alako kasuak,  
burubak makur eta  
biyotzak jasuak,  
barrendikan egiten  
dira errezuak,  
50 meserez izan ditzan  
miñ duben gaxuak.

\* \* \*

60 Pentsatutzen munduko  
izate aulian,  
kasikan lorik egiñ  
ez nuben gaubian,  
ta urrengo goizian  
zortziyak aldian  
joan nintzan, Jauna artu  
zunaren galdian.  
Eskaratz zar batera  
sartu ondorian,  
kanta-otsa senti zan  
etxe-barrunbian,

guztizko doñu alai  
eta ederrian.  
Pozez bera aditzen  
negola an bian,  
biziro berri onak  
ziraden idian,  
70 gizon bat azaldu zan  
ate-brinbalian,  
eta nere galdeera  
egiñ niyonian,  
malko bi zerorizkan  
bere masallian,  
ta ziyon: “Ortxen dago  
gaxu’iy’illian!”.  
Bere ama maitia  
zedukan oyian!  
80 Arriturik gelditu  
nintzaion aurrian,  
ta kanta otsa nola  
senti zan artian,  
esan niyon: “Or nola  
daude umorian,  
agoniya arkitzen  
bada etxe berian?  
Ori ez da kabitzen  
kristauben legian”.  
Eta erantzun ziran  
90 erdi negarrian:  
“Ai! Or famili asko  
nola bizi dian,  
anbat jakingo ere  
ez dute ordian  
desgrazi au arkitzen  
danikan gurian.  
Eziñ biziya gauxka  
aiñ bakardadian,  
ixil-ixilik geren  
100 baztartxo pobrian,  
beste guztietatik  
kasikan gordian,  
ez bagiña bezela  
jaiuak lurrian!...

Iltzia obe izan  
liteke aldian,  
bizi ez danarentzat  
itxura obian!...”  
Zenbat olako oi da  
mundu zabalian!!

Sail au ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artua degu.

Aldaketa bat sartu degu 92'garren lerroan. Esku-idatzi ortan *nola bizi dieran* irakurtzen da. Guk *nola bizi dian* idatzi degu, punturako ala bear dualako.

Beste toki auetan ere argitaratu zan:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian.*

*La Voz de Guipúzcoa* egunkaria, 1895-IV-4, osteguna.

*La Vasconia* aldizkaria, Buenos Aires, 236 zenbakian, 1900-VI-20.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburua, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904. Aldaketa: 42: geron geientsuak.

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak, Alkar* liburua, *Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28, Donostia, 1930.* Aldaketak: 6: falta da; 25: ta beriala azaldu; 42: geron geientsuak; 68: ziraden ustian; 109: zenbat onlako oi da.

Beroni kopiatzen diote ondorengo auek danak, eta aldaketak berak dauzkate:

*Bertsolariya* asterokoa, 20 zenbakian, 1932-I-31. Onek 42'garrena onela: geran geientsuak.

Aita Onaindia: *Milla euskal-olerki eder* liburua, Larrea-Amorebieta, 1954. Eta 76: gaxua ia illian!. Baita ere fonetismo asko kendu: *txintxarriyak, mirariyak, mingarriyak, eskuban* idatzi bearrean, *txintxarriak, mirariak, mingarriak, eskuan.*

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua. I. Unzurrunzagak prestatua, Itxaropena, Zarautz, 1959. Onek aurrekoari kopiatzen dio, eta aldaketa oiek berak ditu.

\* \* \*

Adiñeko jendeak argibide bearrik ez du bertso sail au ondo ulertzeko. Baiña gazteentzat zerbait esan dezagun.

Gaur egunean, elizakoak ixillean eta izkutuan eramaten zaizkio gaixoari, etxeakoak bakarrik jakiñaren gaiñean dirala. Garai batean, ordea, erriak ere parte artzen zuan. Apaiza elizatik ateratzerakoan, kanpai-ots ezagun bat jotzen zan. Gero, kale edo bideetan barrena, eliz-mutil bat edo sakristaua joango zan aurretik, esku batean argi-parola zuala eta bestearekin txintxarria joz. Urrena, geienetan beintzat, lagun batzuk kandela piztu banarekin. Ondoren apaiza, Jauna eskuetan zeramakiala. Kanean edo bidean zijoaze-

nak, txintxarriaren otsa aditzean, txapela kendu eta belaunikatu egiten ziran, Jauna pasa bitartean. Baita ere geienak, Otañok dion bezela, otoitzen bat gaixoaren alde egin.

Oitura ori erabat galdu da. Baiña leengo oiñean jarraitzen du bertso sailontan esaten danak: famili batean kan-

ta-otsa eta umorea, eta bestean agonia eta tristura. Zizurkilko baserrietan edo Arjentinako Panpetan baiño nabarmenago ikusiko zuan ori Pedro Marik Donostiako bizitza askoko etxe aundi oietako batean, teillatupe berean bi gauza oiek batera ezagutuz; eta bertso-tarako gaia ortik artu.

## GU TA GUTARRAK

(*Antonino Esponda-k eskatu ta egiña.*)

“Zer da Euskara, nor euskaldunak,  
zeiñ ta nongotarrak dira?”  
galdezka daude atzerritarrak  
alde ontara begira,  
mundu guztiyan bere berdiñik  
ez duben Euskalerrira.  
Eziñ ikusi gaituzte ondo,  
irten gaitezen argira,  
iñork mantxarrik sortu ez dezan  
gure jatorri garbira.

Bertso bakar au ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artua degu.

Izenburuaren ondotik azaltzen dan *Antonino Esponda* ori guk beintzat ez dakigu nor izan zan.

Beste leku auetan ere arkitu degu bertso au:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola ren moldizkiran, 1895 garren urtian*.

Onek *Antonio Esponda* idazten du.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburuan, *Bueno Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904*.

Onek ez du *Antonino* edo *Antonio Esponda* ori aipatzen. Ezta ere onen urrengo argitaraldiak.

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak, Alkar* liburuan, *Iñaki Deunaren* irarkolan, Garibay, 28. Donostia, 1930.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua, I. Unzurrunzagak prestatua, Itxaropena, Zarautz, 1959.

# ERNANI

*(On Manuel Zendoyari)*

- 1/ Urbietako Juanen  
sorterriya orra,  
seme leial askoren  
siaska jatorra;  
biyotz biguñekoa,  
gudari gogorra,  
zure izen maitia  
ez liteke borra,  
zergatikan zeraden  
euskaldunen onra.
  
- 2/ Ez izanagatikan  
aundi ta bikaña,  
aiñ zerade polita,  
txukun ta apaña,  
gañera euskalduna  
besterik ez aña;  
lur ontan biyotztsuak  
denak dira, baña,  
nere ustez, Ernani,  
zu zera estraña.
  
- 3/ Euskaldunen oiturak  
ta gure izkuntza  
jakin nai ditubena  
joan bedi aruntza;  
nola euskara dagon  
iya umezurtza,  
au-sapai txarrekuak  
nai diyote bultza...  
Ernani, zu zerade  
ezti onen eultza.

- 4/ Inguruan daruzkan  
menditxuak berriz,  
aiñ politikan ez det  
nik ikusi begiz;  
betiak gaztañez ta  
sagar muxu gorriz,  
denetan politena  
tontortuba arriz,  
santa baten izena  
dauka edergarriz.
- 5/ Begira zaiozute  
Santa Barbarari,  
ardiyak zaitzen dagon  
artzaia diruri,  
beti ernai “otsorik”  
ote dan agiri;  
ez diyo txarkeririk  
egiñ nai iñori,  
baizik lagundu bere  
erri maitiari.
- 6/ Asko lezakiana  
edo indartsua  
bezela da Ernani  
prestu ta mantsua;  
bartzartutzen dubena  
etsai setatsua,  
bizi da lagundubaz  
jende biartsua;  
nik agurtutzen zaitut,  
erri doatsua.
- 7/ Ernaniko alaba  
eder ta txukunak,  
zubek zerate egi-  
azko euskaldunak;  
oraiñdikan zautenak  
aiñgeru kutunak,  
gero izan zaitezte  
andre t’ama onak,  
beti sortu ditezen  
seme biyotzdunak.



Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak dira zazpi bertso aukeratuak.

Guk beintzat ez dakigu *On Manuel Zendoya* jaun ori nor izan zan.

Beste toki auctan ere arkitu ditugu bertso aukeratuak:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* izeneko liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola'ren moldizkiran, 1895 garren urtian.*

Aldaketa: 4/3: aĩn alakiyan ez det. Onek ere aipatzen du *On Manuel Zendoya* jauna. Ez, ordea, emendik aurrerako argitaraldiak.

Erreteriko *Bertsolariya* asterokoa, 28 zenbakia, 1932-III-27. Aldaketak: 4/3: aĩn alakiyan ez det; 6/9-10: falta.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua, I. Unzurrunzagak prestatua, Itxaropena, Zarautz, 1959. Aldaketak: 4/3: aĩn alayikan ez det; 6/9-10: falta.

Donostiko *El Diario Vasco* egunkaria, 1982-II-5. Aldaketak: 4/3: ain alai-rikan ez det; eta uste gabeko oker bat edo beste.


\*\*\*

Bi doiñu aukeratuak Adunibar-errotako Serapio eta Inazio Mendizabalek kantatu dizkigute:

Ur - bi - e - ta - ko  
 Jua - nen sor - te - rri - a o -  
 rra, se - me lei - al as -  
 ko - ren si - as - ka ja - to -  
 rra; bi - yotz bi - gu - ñe -  
 ku - a, gu - da - ri go - go -  
 rra, zu - re i - zen mai -  
 ti - a ez li - te - ke bo -  
 rra, zer - ga - ti - kan ze -  
 ra - den eus - kal - du - nen on - ra.



Ur-bi - e ta - ko Jua-nen  
sor-te - rri-ya o - rra,  
se - me le-ial as - ko-ren  
si - as - ka ja - to - rra;  
bi - otz bi - gu - ñe - ku - a,



gu - da - ri go - go - rra,  
zu - re i - zen mai - ti - a  
ez li - te - ke bo - rra,  
zer - ga - ti - kan ze - ra - den  
eus - kal - du - nen on - ra.

(1894)  
**AZPEITIKO PREMIOA ZALA-TA**

Bederatzi puntuko bertso au, bere aurreko argibidearekin, Pedro Maria Otañoren illoba zan José Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna zanak bialdu zigun:

“Azpeitiko premiotzaz Udarregi ta Pello Errotak alkar bertso-burruka sor-

tuta, sartu bearra izan zuan Jose Bernardo Otañok pakeak egiteko aien artean.

Ortarako, bere bertsoak Pedro Mariri biali zizkion (beti bezela), aurrez ikusi ta bere iritzia emateko. Ara emen Pedro Mariren iritzia:

Egondu naiz bedorren  
bertsuei begira,  
t'ez pentsatu nuala  
inbusterira.  
Famatu bearrikan  
ez dutenak dira,  
nik aitortuko niyon  
koxkorak balira.  
Azpeitiko jira  
ta aren segira  
orain etorri da  
bear dan tokira,  
arrazoizko gizonak  
baldin badira."

(1894)  
**TXEPETXA**

- 1/ Askotan esan izandu dute  
gizon ikastun argiyak  
nola pixtiyak izan litezken  
gure erakuslariyak;  
erlia da bat aipatzen dana,  
o zer lan arrigarriyak  
jartzen dituzten gure aurrian  
onek eta txingurriyak!  
Txepetxak berriz erakusten du  
aĩnbeste nola aik biyak.
  
- 2/ Euskal lurreko txorietan dan  
txikitxuena da bera,  
gaztañ kolore bakarrekua,  
nai bada ez da ederra;  
begi argiyak, buru xanpala,  
moko ttentia aurrera,  
korputza motxa, anka laburrak,  
xaltokako ibillera,  
xalapartako egalariya  
eta kantari ergela.
  
- 3/ Txotx batek aisa jasoko luke  
nola karga gutxi duan,  
bañan gustatzen zaio jartzia  
adar sendoxiaguan;  
amildu arren ez leike galdu  
dakiyelako eguan,  
bañan arkitzen baldin bada ere  
burnizko aldamiyuan,  
iru-lau aldiz xanpatutzen du  
seguru ote dagan.

- 4/ Udaberriyan lendabiziko  
kabiya txepetxarena  
azaldutzen da, ta ezaguna:  
goroldiyozkua dena;  
arbol-gerriyan untza-tartian  
du lekurik maitiena,  
ta gizon askok ikusitzian  
irixpirian daguena,  
esan oi dute: “Zer konfiantza,  
txori txar onek dubena!”.
- 5/ Ta edozeñek esan lezake,  
berari begiratzian,  
arretarikan ez dadukala  
egiñ leioken gaitzian;  
ez-iduriyan ark kabiya  
beste zulu atzian  
egiten diyo, andik joateko  
aurrekoa tapatzian,  
erakutsiyaz pentsa zagula  
nola atera sartzian.

Bost bertso auek Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu.

Esku-idatzi ortan, izenburuaren ondoan, onela irakurtzen da: (*Thunthunian*). Leen ere esan degunez, *El Thun Thun* izenarekin aldizkari bat ateratzen zan garai artan Donostian, *Poetas Vascongados* izeneko sail bat zuana. Orrialde batean olerkari baten marrazkia edo *caricatura* agertzen zuan, eta bestean beraren bertso batzuk. Ala, 15-garren zenbakian, 1894-eko uztailaren 1-ean, Pedro Mari Otañoren txanda izan zan: ezkerreko orrialdean, aren marrazkia, guk ere emen azaltzen deguna; eta eskubikoan, *Txepetxa* izeneko bost bertso auek. Moldatu ere orduan egingo zituan, aldizkari ortan argitara emateko.

Bertso auek, guk dakigularik beintzat, beste argitaraldi auek ere izan dituzte:

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian.*

*Euskalzale* astekaria, 1897-XI-11. Aldaketak: 4/9: esan oi dute: Zer ustakida. Fonetismoak kenduta daude. Eta bertsoen azpian, firmaren tokian, onela irakurtzen da: X. Egille ez-ezaguna, alegia. Baiña *Euskalzale* onek seguruena *Zerbait* liburutik artuko zituan bertso auek, eta egillearen izena antxe zeukan garbi asko jarria.

*Ibaizabal* astekaria, 1903, epaillak 8.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburua, *Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*



Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910), Donostiako *El Thun Thun* aldizkaritik (1894-VII-1).

*El Pueblo Vasco*, 1906-X-12.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburua, *Iñaki Deunaren Irarkolan*, Garibay 28 Donostia, 1930.

*Argia* astekarian gutxienez bi bider: aurrena, 1922-VI-18-an; bigarrena, ez dakigu zein egunetan, guri egunik apuntatu gabeko paper-punta edo *recorte* batean iritxi zaigulako.

*Bertsolariya* astekaria, 26 zenbakian, 1932-III-13.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak*, liburua, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua.

Argitaraldi auek, *Euskalzale* astekariak izan ezik, ez dute aldaketarik.

(1894)  
**DONOSTIYA**  
**UXUA**

Nola gizon guztiyak  
txit aundiyak diran  
eta oso txikiyak  
denbora berian,  
batek asko pentsatu  
eta ondorian,  
igartzen diyo nola  
gauz asko lurrian,  
ainbeste itsasuan  
ala legorrian,  
egonagatik anbat  
gugandik urrian,  
Jaungoikuak daduzkan  
betiko gordian.

Argatik dago txutik  
betiko galdeera:  
“Zergatikan da gauz au,  
beste ori zer da?”  
Iñoiz erantzuteko  
izaten da era,  
gizona iritxi da  
zerbait jakitera,  
illunpetatik gauza  
asko du atera;  
bañan jakintsunetan  
geiena dan bera,  
erortzen da maizena  
galde egitera:  
“Zergatikan da gauz au,  
beste ori zer da?”.



Ixiltzen diranian  
gizon jakintsunak,  
izketan asten gera  
gutxi dakigunak;  
aientzat bide asko  
daude txit illunak,  
estrapozoz betiak  
eta trabadunak;  
guretzat berriz denak  
lirañ ta legunak,  
gañera geren ustez  
oso ezagunak;  
ez bestek erakutsi  
izan dizkigunak,  
edo ikasbiretik  
datorkizkigunak,  
baizikan ametsetan  
sortzen zaizkigunak.  
Naiz farra egiñ iñoiz  
aditzen digunak,  
beti izango dira  
guretzat lagunak.

Argatik galdetzian:  
“Donostiya zer da?”,  
ikusten da, lenago  
diyotan bezela,  
jakintsu aundi denak  
ixilik daudela,  
edo geienaz ere  
mintzatzen dutela  
lan ori erabaki  
eziñ ditekela;  
ametsgilliak berriz  
kolpian, berela,  
bere erantzuera  
ematen dubela,  
esanaz: “Donostiya?  
Kantauriko perla”,  
ta beste izen asko  
errezki, orrela,

txit ondo datozenak  
jartzen ditubela.  
Nork ukatu doaia  
berez datorrela!

Naspillaturik beren  
pisuz eta neurriz,  
mundu guztiya bete  
nai dutenak egiz,  
bete oi dutena da  
kopeta izerdiz,  
gauzak ezagutzeko  
arreta geiegiz.  
Nik agurtutzen ditut  
begiramen aundiz,  
naiz berak farra egiñ  
gure umekeriz.  
Or konpon ditezela  
beren jakinduriz,  
neretzat Donostiya  
ara zer dan berriz:

Uso bat biralduba  
Noeren arkatik,  
iñon legorrik bazan  
jakitiagatik;  
pixti leial gaxua,  
al zuben lekutik,  
izpi bat txintxilika  
zubela mokotik,  
aditzera emanaz  
argiro gogotik  
azaltzen ari zala  
lurra ujalpetik,  
biurtu zan atzera  
urditza artatik,  
lokabetuaz denak  
zeukaten dudatik.

Putzuban emanikan  
len ainbeste jira,

uso ona biraldu  
zutenak urdira,  
noizbait iritxi ziran  
Ararat mendira,  
lenbizi egokitu  
zan legortegira.  
Noe buruzariyak,  
irtenik erdira  
ta eskerrak emanaz  
zerura begira,  
itza bireztu zuben  
bere familira,  
esanaz: “Sem ta Jafet,  
egun’etorri da,  
ta Jaunak agindubak  
egiñ bear dira.  
Zeron emazteakiñ  
biyak urrutira  
joan bear dezute  
bizitza berrira;  
Kan ta bere andrea  
nerekiñ baitira;  
ait’amak zarrak gaude  
ta izan kupira,  
ez lotsikan biraldu  
gure aurpegira.  
Oraiñ bendiziyua  
ar zazute, tira!”  
Eta agindu zuben  
beste alderdira:  
“Pixti denak bijoaz  
al duten tokira”.

Aiñ leial legor billa  
joan zan egaztiya,  
ekarririk birpiztu  
zituben izpiya,  
pixti denak bezela  
izan zan utziya;  
bañan argitasunez  
nola zan jantziya,  
aurrera eramanik  
bere iritziya,

laster igaro zuben  
legordi guztiya.  
Oroitutzen zan leku  
on bat ikusiya,  
eta bera izanik  
txit egalariya,  
alderdi artara zan  
berela abiya,  
topatzera goguan  
zedukan tokiya.  
Iritxi zubenian  
berriz Kantauriya,  
ementxen autu zuben  
beretzat kabiya;  
etziñ zan, eta ez da  
geroztik jaikiya;  
begira non dagan  
gaxua jatxiya:  
len uxua zan eta  
oraiñ Donostiya.

Buruba ageri du  
Gaztelu orretan,  
korputza Donostiko  
etxe ederretan,  
ta isatsa Loiola-  
ko erriberetan;  
eskuiko egua  
Ategorriyetan,  
eta ezkerrekoa  
Antiguan bertan,  
edo alde artara  
dauden birieta.  
Beste pixti batzuben  
egope onetan  
ikusten dira iñoiz  
uda-egunetan,  
beren lumak bustiyaz  
Kontxako oletan,  
pozkidaz dabilzala  
jostatzen uretan...

Sartu gabe kondaira  
luziaguetan,  
orra nere iritziz  
Donostiya zer dan.

Donostiyan, 1894' garrenian.

\* \* \*

Sail luze au Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu degu.

Argitaraldi auek ere izan ditu:

1894 *Euskal-festak Donostian Oroimengarria - Uri ontako bilguma bereziaren erabakiz argitaratua*. - *Donostian: Victoriano Iraola-ren moldizkidan*.

Pedro Maria Otaño: *Zerbait* izeneko liburua, *Donostiyan, Victoriano Iraola ren moldizkiran, 1895-garren urtian*.

*Euskal-Erria* aldizkaria, XXXII tomoa, 1895, oar onekin: "*Composición premiada con una pluma de plata sobredorada, en los Juegos florales celebrados en esta ciudad en 1894*".

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere argitaratu zuan, bere 193 zenbakian, 1899 ko otsaillaren 10 ean.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* izeneko liburua, *Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia, Victoria 1088, 1904*. Aldaketa bakarra ia bukaeran: Kontxako bagetan.

Pedro Maria Otaño: *Alkar* izeneko liburua, *Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28, Donostia, 1930*. Onek ere: Kontxako bagetan. Eta beste aldaketa berri bat: ta isatsa Loiola'ko ibar politean.

Aita Onaindia: *Milla euskal olerki eder, Larrea Amorebieta, 1954*. Onek, aurrekoaren bi aldaketa oiek eta beste au 19'garren lerroan: Iñolaz erantzuteko. Ortaz gaiñera, fonetismo asko kendu, puntua egiten ez dutenetan beintzat. Adibidez, *guztiyak, aundiak, txikiyak, dubela* idatzi bearrean, *guztiak, aundiak, txikiak, duela*.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua, I. Unzurrunzagak prestatua, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959. Onek ere: ta isatsa Loiola'ko ibar politean; Kontxako bagetan.

\* \* \*

Urte artan, 1894'an, Pedro Maria Otañoren lan onek irabazi zuan Donostian leenengo saria. Nor geiagoka orri *izkribatzalleen indar neurtzea* deitzen zioten. Sari bat baiño geiago ziran noski. Pedro Marik irabazi zuana onela iragarrita zegoan aurrez:

"Zillarrezko luma urrezestali bat, *Donostiar argidotarren bizitzeen gainean*, itz-neurtu edo larrietan, lanik onena aurkezten duenari; edo Donostia zer nolako uda-lekua dan obeto agertzen duen lanaren egilleari.

Lenbiziko gaiari dagokionez, lan au izan liteke ala Uri ontako euren jakin-duriaz, balore edo birtuteagatik berezitu izan diran seme guzien gutiste bat, nola aietako batzuen gañeko erakasde bat."

Erderaz, berriz, onela esaten zan:

*"Una pluma de plata sobredorada, al autor del mejor trabajo biográfico en prosa o verso, sobre Easonenses ilustres, o de una descripción de la Ciudad de San Sebastián como punto veraniego.*

*Respecto al primer punto, este estudio podrá ser, bien una galería de hijos de la Ciudad que se hayan distinguido por su saber, su valor o sus virtudes, o bien un estudio de uno o varios beneméritos."*

Emen ikusten danez, antolatzaillak aukera pixka bat ematen zuten, eta Otañok zera oni eldu zion: "Donostia zer nolako uda lekua" dan; edo erderaz esanda: "*una descripción de la Ciudad de San Sebastián como punto veraniego*".

Obeto esateko, Donostia zer dan adierazten du, usoaren iduria edo konparaketa jarritz; eta bukaeran, eskatutako gaian ondo sartu dedin, udazaleen aitamena egin.

Idazlan asko aurkeztu ziran. Guzira, ogei ta emezortzi. Oietako bat aitatu bearrean gaude: Felipe Kasal Otegiren *Nere lur gurtuari*, zortzi zortziko nagusitan, Otañori eskeiñita: *Euskal biursari bikaiñ On Pedro M<sup>o</sup> Otaño-ri*. Zizurkilko bertsolariaren ospea gora zijoan, beraz. Sail onek aitamena berezia irabazi zuan: *mención honorífica*.

Sari banaketa abenduaren 21-ean egin zan, Teatro Zaarrean. Ospakizunaren artean, bigarrena auxe zan: "Izkribalari eta musikariaren indar neurtzan sariztatuak izan diran izenen deia, eta sariya eraman duten izkribuen irakurtza".

Bukaeran, berriz, bertsolari saioa: "Itz-neurlari edo bertsolarien kantuzko jolasbidea Gipuzkoako onenetakoen artean".

(1895)  
OROITZA

Saiatutzen da billera zar au  
Ondo egiten denari,  
Ceñ dan askotan galdetu gabe  
Inguratzen zaionari.  
Eskalerikan ez du utzitzen  
Datorrenik negargarri,  
Au da ematen diona beti  
Dena laguntasunari.

Umore ona doakabeak  
Nai baldin badu arkitu,  
Iyo dedilla gela ontara  
Ori bakarrik aski du.  
Nola ez leiken emen tristerik

Alaitu gabe gelditu,  
Rau!, kolpez miñak joango zaizka  
Ta aurpegia argitu.  
Emen mintsuak sendatu dira,  
Sanorik ez da gaizkitu,  
Argatikan au zerua dala  
Neri oi zait iduritu,  
Agurrak merezi ditu.

Bertso-lantxo au Pedro Maria Otañoren *Zerbait* liburuan agertu zan: “*Donostiyan, Victoriano Iraola-ren moldizkiran, 1895-garren urtian*”, 3<sup>o</sup>garren orrialdean.

Lerro bakoitzaren leenengo izki edo letra berezi eta goitik beera irakurrita, *Sociedad Unión Artesana* irakurriko degu. Erderaz esaten danez, *acróstico* bat da, beraz. Ori nabarmenago ager arazteko, maiuskulaz idatzi ditugu lerroen asierako izki oiek da-

nak. Baita ere *ceñ* eta ez *zeñ*, *Sociedad* irakur dedin.

Elkarte ori zaarrenetakoa degu Donostian; eta lantxo au eskeñi zionerako, ez litzake batere arritzekoa izango Pedro Mari Otaño ere ango bazkide izatea, Donostian bizi izan zan urteetan.

Garai artan Plaza Lasala-n zegoan elkarte ori. Orduko paperik ez dutela esan digute. Gaur Soraluze kalean dauka bere egoitza bazkun orrek.

(1895)  
**KARIDADEA!**

Españi triste ontan  
aspalditik geunden  
atsekabe gogorrek  
sentirik barrunen;  
munduko mirariyak  
izan giñanak len,  
ez dakit ontara zerk  
ekarri gaituben.  
Ain gauza miñgarriyak  
pasa dira emen,  
ta ez gentzake esan  
kulpa zeñek duben.

Lagun bear ditugun  
urak eta suak,  
nola biyak diraden  
gauza indartsuak,  
pixti gogorren gisa  
kalparrak jasuak,  
zelatatzen dituzte  
gizonen pausuak,  
balirake bezela  
etsaien lazuak;  
bestela esan bitza  
Santander gaxuak  
guztiyok memoriyan  
dauzkagun kasuak,  
ta beste Españiko  
famili osuak,  
ondatu zitubenak  
ujal erasuak.



Aien ondoren oraiñ  
berriz itsasuak,  
erakutsiyaz bere  
zelaidi mantsuak,  
zabaltzen balizkigu  
bezela besuak...  
Orra zer egiñ digun  
betiko paltsuak.

Zan Martxoko illaren  
amargarrenian,  
oraiñ arkitzen geran  
urte barrenian;  
guda-ontzi bikaiñ bat  
Kadiz'ko urian,  
zisne bat bezin liraiñ  
itsas bazterrian,  
aiñ itxura egoki  
eta ederrian  
arkitutzen zan jende  
askoren aurrian,  
aruntz-onuntz txiki bat  
egiñ bearrian.

Ikustera jauregi  
ur gañeko ura,  
ainbeste lagun bildu  
ziran ingurura,  
mirariztera berak  
zedukan itxura,  
iritziyak emanaz  
nork bere modura.

Askok goititutzean  
begiyak zerura,  
eguzkiya par-irriz  
zeguan lekura,  
ta gero ikustean  
itsasoko ura,  
urdiñ ta geldi belar  
soruen modura,

lasaitasun bat sartzen  
zitzaien petxura;  
ta zenbati etorri  
zitzaion burura  
pozik egiñ zeikela  
juan etorri ura!

Ontan azaldu ziran  
itsas gudariak,  
ontzi eder artako  
jaun agintariak,  
ondoren zituztela  
beren mirabiak,  
ta inguruan moro  
biotzik gabiak:  
oiek Marrueko'tik  
etorri berriak,  
guri erakustera  
Koran'en legiak;  
emen janik an baño  
mokadu obiak,  
esker gabeko gizon  
erdi aberiak,  
laguntzalle emanaz  
Españi nobliak  
berak ainbeste maite  
zituben semiak,  
utzirik ama, aita,  
andre ta umiak,  
beren lur maite, lagun  
eta senidiak,  
pixti tzar aiekin joan  
ziraden jendiak,  
par irriz alaiturik  
beren aurpegiak.  
Eta andikan laxter...  
A, doakabiak!!

Lareun eta geiago  
gizon biotztsuak  
menderaturik uste  
etzan erasuak,

*Reina Regente* eder  
artako maisuak,  
nagusi eta morroi,  
guztiyak osuak,  
gorde ditu asetzen  
ez dan itsasuak.

Oraiñ or daruzkagu  
oien gurasuak,  
buruak makurturik  
miñ ezin jasuak,  
eta alargundurik  
emazte txintxuak,  
negarrez ikusirik  
umezurtzatxuak,  
malezirik oraiñdik  
ez duten uxuak,  
luzatzen dizkatela  
beren eskutxuak,  
amatxori esanaz  
onla kontutxuak,  
purrakatuaz onen  
biotz ta petxuak:  
“Aitak noiz ekarriko  
dizkigu goxuak?”.  
Amak, aurreraturik  
orduban besuak,  
biltzen ditu, esanaz:  
“Ai, aingerutxuak!”,  
ta partituaz malko  
tartian muxuak,  
ez daki zer erantzun,  
eziñ du gaxuak!!

Joan ziran itxas-gizon  
prestuak Tanger'a,  
moro zatarrak bizi  
diran parajera,  
egualdiyak emanik  
alako aukera,  
Mahomaren illobak  
pakian uztera.

Jiratu ziranian  
Españi aldera,  
lurretik aldegiñez  
itsas zabalera,  
onek kolpez galdurik  
lengo urdinkera,  
beltza ta itsusiya  
azaldu zan bera.  
Eguzkiya sarturik  
lotsaz odoipera,  
aizeak altxa zuben  
alako kolera,  
non zirudien goiak  
zetozela beera,  
ta itsasuak beren  
oitik irtetera;  
olatuak igoaz  
elkarren gañera,  
egiñik suge amo-  
rratuen papera,  
bazetozen bezela  
guztiyak jatera,  
saltatutzen ziraden  
*Reina Regente*'ra;  
iduri zuben mundu-  
aren bukaera.  
Ta ala ere gure  
gud'ontzi ederra  
beldur gabe sartu zan  
guztiyen tartera,  
esanaz: "Bire, bire!  
Españolak gera,  
ta iritxi nai degu  
geren lur maitera!".  
Ta kapitanak ziyon:  
"Aurrera, aurrera!".  
Trafalgar inguruan  
gutxi gora bera  
uste da joan zirala  
denak itxaspera!!

Trafalgar!... O, zer izen  
goguangarriya,  
odolezko letrakiñ  
kondairan jarriya!  
Nork ez daki au dala  
Txurruka aundiya  
egun batez betiko  
galdu zan tokiya?  
Bañan gerran illtzia  
gizon gudariya,  
irabazten dubela  
betiko gloriya,  
tristeia dalarikan  
da alaigarriya.  
Orain gertatu dana  
da negargarriya,  
argatikan bete da  
lutoz Españiya.  
Ez balira bezela  
diña gure penak,  
galduarekiñ *Reina*  
*Regente*'n zeudenak,  
ontzi *Carpio*'kuak  
ito dira denak,  
beregaturikan  
itsaso zekenak.  
Guztiyak ziran seme  
Españiyarenak  
eta gure anaiak,  
galdu diradenak.  
Nola ez negar egiñ  
biyotzik dubenak!

Erregutu dezagun  
ito zan jendea  
Jaunak iduki dezan  
berekin gordea,  
eta egiñik bizi  
diranen galdea,  
lagun dezagun triste-  
en bakardadea.  
Au da egiñ bearra  
daukagun tarea.

O, zer gauza ederra  
dan karidadea!!

*Reina Regente* itxasontziari buruz moldatutako bertso-sail au Pedro Maria Otañoren *Zerbait* izeneko liburutik artua degu. Liburu ori *Donostian Victoriano Iraola-ren moldizkiran 1895-garren urtian* argitaratu zan. Bertso-sail onek beste argitaraldirik izan ote zuan ez dakigu. Guk beintzat ez degu ezagutzen.

\* \* \*

*Reina Regente* dalako ori gerra-itxasontzi bat izan zan; 1895-eko martxoaren asieran Kadiztik Tanjerra joan zan, Madrillen izana zan Sidi Brusha Marruekosko ordezkaria eramatera.

Andik Españi aldera martxoaren 11-n abiatu zan, eta itxasoak irentsi zuan. Lareun lagun zijoazen itxasontzi ortan, eta aietatik bakar bat ere etzan bizirik atera.

Ezbear ori zala-ta, Txirritak bost bertso jarri zituan. *Auspoa* ren sail nagusian, Txirritari buruzko liburuan arkituko ditu irakurleak, 431 orrialdean.

\* \* \*

*La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren zenbakietan ederki ageri da zer izan zan ezbear ura. Berarengandik artuak ditugu onako lerro auk:

1985-III-15: "...*Todo hace creer que el crucero se ha perdido... El Reina Regente es un crucero de primera clase, construido en Klidebach (Glasgow), y botado al agua en 14 de Febrero de 1887. El casco es de acero y el buque mide 97 metros de eslora en la flotación, 15'43 de manga y 8'92 de puntal desde la cubierta*".

1985-III-17: "*Desgraciadamente no se ha recibido aún ninguna noticia acerca del paradero del buque Reina Regente.*

*Hasta la fecha, todas cuantas investigaciones se vienen haciendo resultan estériles.*

*En el ministerio de Marina se suceden a cada momento escenas desconsoladoras, promovidas por los parientes de los tripulantes del ignorado barco, cuya suerte absorbe por completo la atención pública.*

*El gobierno telegrafía constantemente pidiendo noticias al ministro de Marina, que aún permanece en Cádiz.... El Isla de Luzón, un crucero inglés de Gibraltar y otros vapores recorten sin cesar la costa, pero hasta ahora resulta infructuoso su trabajo.*

*El capitán del vapor Lisbonne, procedente de Gibraltar, encontró ayer, a quince millas de Trafalgar, un pedazo de cubierta con las planchas hundidas.*

*Comunican de Tarifa que el mar acaba de arrojar sobre la playa un cojín de terciopelo granate oscuro de 2'20 metros de largo y 0'50 de ancho. Se ignora su procedencia.*

*...El Alfonso XII ha fondeado en Tarifa, después de recorrer toda la costa, sin encontrar nada que dé indicio del paradero del Reina Regente.*

*En la costa se tienen toda la noche hogueras que puedan servir de señal. Los representantes diplomáticos de Tánger han ordenado que, tanto a caballo como en los barcos disponibles, se inspeccione constantemente toda la costa africana.*

1895-III-18: "*Se ha confirmado oficialmente que el cojín encontrado a quince millas de Tarifa pertenecía al crucero Reina Regente. Créese que el buque está perdido*".

1895-III-19: "...*Los buques de guerra disponibles y el vapor correo de Tánger Joaquín Piélagos salieron a explorar el mar y las costas, hasta ahora infructuosamente.*

...Los despojos del temporal arrojados a las playas de Tarifa y la bahía de Algeciras no arrojan ninguna luz. Cuanto se habla fúndase únicamente en conjeturas.

...El capitán del Masfield ha confirmado en Barcelona las noticias que circularon sobre haber visto un crucero de guerra en mala situación”.

1895-III-20: "Se da como seguro que el crucero Alfonso XII ha encontrado al Reina Regente sumergido en el bajo de las Aceiteras, viéndose sobre la superficie del agua medio metro de uno de los palos.

El Alfonso XII trajo a Cádiz treinta cadáveres y volvió a salir para el lugar de la catástrofe llevando buzos y aparatos para explorar el mar”.

\* \* \*

Asi eta laster samar Santanderko ezbearren bat aitatzen da sail ontan. Ura zer izan ote zan jakin nairik, Espasa iztegia begiratu degu eta ona beraren itzak:

"En 1893 fue Santander teatro y víctima de una horrorosa catástrofe; el vapor Cabo Machichaco que, cargado con cajas de dinamita, había sido atraído imprudentemente en el muelle de Maliaño, fue

presa de voraz incendio. Una inmensa muchedumbre de curiosos, que ignoraban el cargamento del buque, acudió a presenciar el espectáculo. Prodújose la formidable explosión que es de suponer, y en un momento quedaron en el muelle unos 600 cadáveres y hasta unos 1.000 heridos, en tanto que el fuego destruía 50 o 60 edificios del muelle y sus inmediaciones. La hermosa calle de Méndez Núñez y la de Calderón quedaron completamente destruidas y arruinados la Audiencia, el convento de Religiosas Terciarias de San Francisco, el depósito de tabacos de la Compañía Arrendataria, y parte de la línea telegráfica. No hay recuerdo en España de una catástrofe semejante, ni hay palabras con que poder describirla. El eminente novelista montañés, Pereda, da la triste impresión de la misma en estas palabras: ...lo que pasó no tiene nombre en ninguna lengua conocida. En la pobre fantasía de los hombres no hay término de comparación para el sonar de aquellos dos estallidos, casi simultáneos; para aquel cráter horrible que se abrió con ellos; para aquella inmensa columna de fuego que se elevó al espacio y en cuya cima humeante flotaban, entre denegridas espirales, cuerpos humanos; para aquella infernal metralla de candentes y retorcidos hierros que vomitaron los senos del vapor entre infectas olas de cieno del fondo de la mar sobre las apiñadas, desprevénidas e indefensas multitudes; para el color extraño de aquella luz que se enseñoreó del aire, empañando la del sol, que corría a precipitarse en el ocaso como si huyera de alumbrar tantos desastres acumulados en tan reducido lugar y en tan breve tiempo."

(1895)

## KARIDADEA!

(*Migel Oñate' ren doñuan*)

Ea, ea, euskaldunak,  
malkuak legortutzera,  
tristeak alaitutzera,  
atozte, bada, lagunak.  
Denak, denak itsasuak  
berekiañ eramanak,  
*Reina Regente*'n ziranak  
illak dirade gaxuak.  
Umezurtzak eta alargunak  
daude laguntzaren eske;  
gu nola egon gintezke(1)  
lertu gaberik barrunak?  
Gaxo aien bakardadea  
alaitutzen ote degun,  
aurreratu zaiotegun  
guztियon karidadea.  
Zer gauza ederra  
dan karidadea!!

*Reina Regente* itxasontziari molda-  
tutako beste bertso-sail au ere, Pedro  
Maria Otañoren *Zerbait* izeneko libu-  
rutik artu degu: *Donostiyen, Victori-  
ano Iraola' ren moldizkiran, 1895-ga-  
rren urtian.*

Emen ageri danez, jaialdiren bat  
antolatu zan Donostian-edo, ontzi or-  
tako mariñelen umezurtz eta alargunei  
laguntza ematearren; eta Pedro Maria  
Otañok bertso auek moldatu zituan,  
Migel Oñate dalako orren doiñuaz  
kantatzeko.

Bein baiño geiagotan egin zuan  
Otañok lan ori bera: Migel Oñate dala-  
koaren doiñu bati berak letra jartzea:  
*Karidadea* izeneko au, *Maitaro* eta  
*Larriya*. Egiñalean saiatu gera doiñu  
oien billa, baiña bakararra arkitu degu,  
*Larriya* izenekoarena, Errenteriko  
*Eresbil* elkartearen, aurrerago adieraziko  
degunez.

*Eresbil* ortan Migel Oñateri buruz-  
ko argibide batzuk ere eman zizkigu-  
ten. Donostian jaiou zan, 1868 urteko  
apirillaren 28'an. Iribe zuan bigarren  
abizena.



Bi bider ezkondu zan. Leenengo, Donostiako alaba zan Anjela Otazo Irazokirekin. Bigarren, alargundu eta Maria Teodora Alkaiaga Arsuagarekin, 1904'ko otsaillaren 6'an. Au ere Donostiako alaba.

Lekeitioko musika-bandaren zuzendaritza irabazi zuan, eta amar edo amabi urte bertan igaro zituan.

Opera bat idatzi omen zuan. Baita txistu eta pianorako doiñu batzuk ere.

Eta dantzatzeko beste asko ere bai.

Donostian il zan, 1941'eko ilbeltzaren 21'e an, irurogei ta amabi urterekin.

Bertso auen beste argitaraldi bat: *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959. Aldaketarik ez du.

---

1. *Zerbait* liburuan gitezke dago. Dudarik ez da in-  
tezte bear duala.

(1895)

## LARRIYA

*(Romanza de Oñate)*

Uxo ego txuriya  
jatxiya zerutik,  
izate guziya  
emango det zugatik.

Entzun nazazu arren,  
aingeru kutuna,  
nai dizun biyotzak  
gaur esaten dizuna.

10 Adoratutzen zaitut,  
ume zoragarriya,  
belauniko zugatik  
emen nago jarriya.  
Atoz, munduko illunkentzalle,  
izar argiya;  
atoz kentzera, maitea,  
nik daukadan larriya.

20 Zerutikan mundura  
jatxi zerade egan,  
ta gloriyaren puxka bat  
nola zerori ala zeran,  
-nik ez dakit au zer dan!-,  
txoratzen naiz zure aurrean...  
Urrikaldu zaitea  
ta barkatu, maitea,  
nik zuregandik aldegittea.

Illko naiz miñez  
zu gabe, ederra; atozkit onera...

30 Ez, ez...  
Joan zaite meserez.

Agur, laztana,  
bai, betiko agur;  
deitutzen dit Jaunak,  
Jaunak,  
bere ondora gaur.

40 Jaungoikoak nai du  
ni ara joatia,  
maitia!  
Egiñ bedi bada Jaunaren  
borondatia.

Izenburuak esaten digunez, itz neurtu auek doiñu batentzat Otañok jarritako letra dira. Doiñu ori, leen ere aitatu degun Migel Oñaterena da.

Itz neurtu oiek Pedro Maria Otañoren *Zerbait* liburutik artuak ditugu: *Donostiyan Victoriano Iraola-ren moldizkiran 1895-garren urtian*. Aldaketa bat sartu degu: 35'garren leerroan *bere ondoren gaur* irakurtzen da *Zerbait* izeneko liburu ontan. Beste-etan, berriz, *bere ondora gaur*. Onela bear du, dudarik gabe, eta olaxe idatzi degu.

Doiñua eta letra oso dotore argitaratu ziran: ¡¡¡Larriya!!! *Romanza vascongada para canto y piano. Música de Miguel Oñate. Poesía de Pedro M<sup>a</sup> Otaño. San Sebastián. Santesteban Editor. 32 Avenida de la Libertad 32*. Onek baditu errepikapen bat edo beste, eta a!" edo alako asperen bat bi bider-edo, *Zerbait* liburuak ez dakartzkianak. Oiek doiñuak eskatzen dituan apaingarriak izango dira. Baiña ez det

uste aldaketa bezela emen aitatzetik merezi dutenik.

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkariak ere agertu zituan itz neurtu auek, bere XXXII tomoan, 1895 urtean. Onek Santestebanen argitaraldiari kopiatzen dio. Aurretik, argibide jakingarri batzuk ematen ditu:

"...Tócanos hoy, por tanto, hablar de la romanza bascongada para piano y canto que la acreditada casa editorial de Santesteban acaba de poner a la venta, siendo autores los errikoixemes Miguel Oñate, en cuanto a la música, y de la letra Pedro María Otaño, que dedican la obra a nuestro convecino D. Manuel Vidarte, distinguido tenor de la capilla de la iglesia de San Vicente, para quien está expresamente escrita."

Otañori ere *errikoseme* esaten dio. Ori orrela etzala esan bearrik ez dago. Baiña ez det uste ura orregatik asarretuko zanik. Ainbeste urte igaro zituan

arek Donostian, eta ainbeste maitezuan iri au, bere bertsoetan bein eta berriro ageri danez.

Ondoren, Migel Oñatek asmatutako doiñuaren goralpenak egindakoa, onela esaten du *Euskal-Erria*'k Otaño-ren letragatik:

*"Respecto a la letra de la romanza, nuestro juicio es sencillo. Su autor, el celebrado vate Sr. Otaño, ha dado una vez más gallarda prueba de poseer alma de inspirado poeta, justificando así los lauros conquistados en los torneos literarios. Es tal el sentimiento con que están escritos sus versos, tal la forma en que se hallan adaptados a la partitura, que para que se vea que no pecamos de exagerados y se aprecie siquiera en parte su mérito, vamos a reproducirlos seguidamente, dando con tanto fin a las presentes líneas."*

Donostiako *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak ere argitaratu zituan itz neurtu auek, baita erderazko lerro oiek ere, 1895 urteko martxoaren 28-an.

Baiña nork nori kopiatzen dion ez dakigu.

\* \* \*

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere argitara eman zituan, bere 223 zenbakian, 1899-ko abenduaren 10-ean. Baiña onek Otaño-ren letra dakar soil-soillik, batere argibiderik gabe.

Beste argitaraldi batzuk: *Bertsolariya* astekaria, 1932-VI-26.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua.

Santestebanen argitaraldia Errenteriko *Eresbil* elkarteak jarri zuan gure eskuetan. Milla esker berari. Urrengo orrialdeetan eskeintzen diogu irakurleari.

419



III LARRIYÁ!!!  
III ROMANZA  
VASCONGADA  
para  
PIANO Y CANTO  
Musica de  
MIGUEL OÑATE  
Poesia de  
PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO.

Precio net. 2<sup>o</sup> 00.

SAN SEBASTIAN\_SANTESTEBAN\_ Editor  
32 Avenida de la Libertad, 32.



Propiedad de los Autores.

Depositado.

# LARRIYÁ!!

## ROMANZA.

Vascongada  
para Tenor.

Música de M. Oñate.

Poesia de Pedro M<sup>a</sup> Otaño.

Introduccion.  
Moderato.

CANTO.

PIANO.

The first system of the musical score consists of two staves. The top staff is for the voice (CANTO) and the bottom staff is for the piano (PIANO). The key signature is three flats (B-flat, E-flat, A-flat) and the time signature is 3/4. The piano part begins with a piano (*p*) dynamic and features a rhythmic accompaniment of eighth notes. The vocal line is mostly rests, indicating the start of the piece.

The second system continues the piano accompaniment. It features a variety of dynamics, including *f* (forte) and *mf* (mezzo-forte). The piano part includes arpeggiated chords and flowing eighth-note passages. The vocal line remains empty.

The third system continues the piano accompaniment. It features dynamics such as *p* (piano), *pp* (pianissimo), and *pp morendo pp*. The piano part includes arpeggiated chords and flowing eighth-note passages. The vocal line remains empty.

Andante.

*poco rit.*

Us - ho e - go chu - ri - ya

ja - chi - ya ze - ru - tik,

The fourth system is the first system with lyrics. It features a vocal line and piano accompaniment. The tempo is marked *Andante* and the dynamics include *p* (piano) and *poco rit.* (poco ritardando). The piano part includes arpeggiated chords and flowing eighth-note passages. The vocal line has lyrics in Spanish.

*p* A - - toz mun - du - ko i - llun - ken - tza - lle i - - zar *rit.*

*pp* ar - gi - ya; *a tempo* a - toz ken - tze - ra mai - te - a *f* nik dau - ka - dan *rit.* la - rri - ya.

*cresc.* *pp* *rit.* *ppp*

*a tempo* *pp* Ze - ru - ti - kan mun - du - ra ja - chi ze - ra - de e - gan *p* ta glo - ri - ya - -

ren push - ka bat no - la ze - ro - ri a - la ze - ran, *cresc.* nik ez - da - kit au zer - dan!;

A gur laz - ta - na, bai be - ti - ko a - gur, dei - tu - tzen dit Jau -

*p*

This system contains the first line of the musical score. It features a vocal line in the upper staff and a piano accompaniment in the lower staff. The key signature has two flats, and the time signature is 3/4. The lyrics are "A gur laz - ta - na, bai be - ti - ko a - gur, dei - tu - tzen dit Jau -". A dynamic marking of *p* (piano) is placed above the vocal line.

nak dei - - tu - tzen dit Jau - - -

*cresc.*

This system contains the second line of the musical score. The lyrics are "nak dei - - tu - tzen dit Jau - - -". A dynamic marking of *cresc.* (crescendo) is placed above the vocal line.

nak be - ro on - do - ra gaur. Jaun goi - ko - ak nai - du ni a - ra joa - ti -

*ritard.* *p*

This system contains the third line of the musical score. The lyrics are "nak be - ro on - do - ra gaur. Jaun goi - ko - ak nai - du ni a - ra joa - ti -". Dynamic markings include *ritard.* (ritardando) above the vocal line and *p* (piano) below the piano accompaniment.

a, mai - ti - a; e - gin be - di ba - da Jau - na - ren bo - ron - da - ti - a.

*a piacere* *ff* *ff* *cresc.*

This system contains the fourth line of the musical score. The lyrics are "a, mai - ti - a; e - gin be - di ba - da Jau - na - ren bo - ron - da - ti - a.". Dynamic markings include *a piacere* above the vocal line, *ff* (fortissimo) below the piano accompaniment, and *cresc.* (crescendo) at the end of the system.

*cresc.* *fff* *ff*

This system contains the fifth and final line of the musical score. It features a piano accompaniment with dynamic markings of *cresc.* (crescendo), *fff* (fortississimo), and *ff* (fortissimo).



(1895)

## LARRALDEKO MAGDALENA

- 1/ Frantzes euskara itzegiten dan  
mendi tantaien artean,  
Sara deritzan uri kutuna  
dago ibartxo batean;  
erri leial au edertutzen da  
bere kondaira maitean,  
irakurriaz edo entzunaz  
zer gerta zan jakitean,  
milla zazpireun larogei eta  
amairugarren urtean.
  
- 2/ Erri ontako aingerutxo bat  
Larraldeko Magdalena  
zan, amazapi urte besterik  
oraindik etzitubena,  
guraso onak eska lezaken  
alabarik leialena;  
ikusirikan inguru artan  
apaizik etzeguena,  
konfesatzeagatikan sartu  
zan Españian barrena.
  
- 3/ Fedeagatik joan ta egondu  
zan Naparroako Beran,  
an konfesatu eta gaxoa  
etxeruntzko etorreran,  
Españia ta Frantzia nola  
zeuden gudan edo gerran,  
katibaturik gelditu zuten  
bere lurreko sarreran,  
ta koitaduak zion: “Ez dakit  
zertan gaizki egin deran!”.

- 4/ Arrano tzarren atzaparretan  
mantxa gabeko uxua  
arkitutzen dan bezela zegon  
Magdalenatxo gaxua;  
gudari aien agintaria  
izanik errukitsua,  
esaten zion: “Uka ezazu  
gaur eman dezun pausua”.  
Erantzun zuben: “Ez det egiño  
nik juramentu faltsua”.
- 5/ Ibilli izan balitz bezela  
ixpi edo zelatari  
aur maite ura, gaitzik beñere  
egiñ gabea iñori,  
aurkeztu bear izan zioten  
Pinet buruzagiari;  
onek berela agindu zuben:  
“*Gillotina* jaso bedi  
eta lepoa kendu bizaio  
Magdalena Larralderi”.
- 6/ Jesus maiteak guruzpidea  
igaro zuben modura,  
barkazioa ta naitasuna  
banatuaz ingurura,  
“*Salve, Regina*” kantatuaz ta  
begiratuaz zerura,  
gillotinara igo ta ill zan  
zoragarritzko aur ura,  
ta aingeruak eraman zuten  
santuen bizi-lekura.

\* \* \*

Sei bertso auk Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-  
-idatzitik kopiatu ditugu.

*Euskal-Erria* aldizkarian XXXIII  
tomoan, 1895 urtean, 218 orrialdean  
argitaratu ziran. Aldaketak: 1/1:

Frantzes euskaraz itzegiten dan; 3/10:  
zertan gaizki egiñ dedan.

*Otaño-tar Pedro M'ren: Olerki  
Onenak Alkar, Iñaki Deunaren irarko-  
lan, Garibay, 28, Donostia, 1930, 121  
orrialdean.*

Aldaketak: Izenburua: Larraldeko Madalento garbia; 1/1: Frantzes euskeraz itz egiten dan; 1/2: mendi tantai bin artcan; 1/3: Sara deritzan uri kutun bat; 1/5: Ango jendia ezagutzen zan; 1/6: lengo kondaira maitian; 1/7: irakurriyaz edo entzunaz zer; 1/8: gertatzen zan esatian; 1/9: milla zazpireun irurogeita; 1/10: amalaugarren urtian; 2/1: Erriyartako aingerutxo bat; 2/4: artean etzitubena; 2/5: guraso batek ezagutzen dun; 2/6: alabarik laztanena; 2/7: ikusirikan inguru aitan; 2/9: konpesatziagatik sartu zan; 2/10: España zear barrena; 3/1: Pediaगतिक juan da izandu; 3/3: an konpesatu eta ondoren; 3/4: etxerako etorreran; 3/6: zeuden setan edo gerran; 3/7: katiaturik gelditu zuten; 3/8: bere (i) erriko sarreran; 3/9: ta koitara ark ziyon ez dakit; 3/10: zertan gaizki egin detan; 4/1: Arrano zarren atzaparretan; 4/3: il da lurpian an sartu zuten; 4/5: agintariyen buruzagiya; 4/6: zan guztiz errukitsuba; 4/7: ark esan ziyon uka ezazu; 4/9: eran-tzun ziyon ez det egin nai; 5/2: izpi edo zelatari; 5/3: sekulan gaitzik egin gabia; 5/4: aur gaxo ura iñori; 5/5: agertu bear izan ziyoten; 5/6: Finer buruzagiari; 5/7: ark esan zuben berialaxen; 5/9: eta lepua kendu ziyoten; 5/10: Madalena gaxuari; 6/4: zabalduaz inguruan; 6/5: gillotinara igo ta il zan; 6/6: zoragarriko aur ura; 6/7: "Salve Regina" kantatu zuben; 6/8: ta begiratuaz Zerura; 6/9: aingerutxuak eraman zuten.

*Bertsolariya* astekaria, 1932-VI-10. Aldaketak: 1/3: Sara deritzan odei kutun bat; 1/5: Erri leyal au nabaitutzen da; 1/9: milla zortzireun eta; 1/10: amabigarren urtian; 2/1: Erriya artako aingerutxo bat; 2/4: artian etzituana; 2/7: ikusirikan erriya artan; 3/3: an konfesatu eta gajua; 3/4: etxerako etorreran; 3/7: katiatuta gelditu zuten; 3/8: bere erriko sarreran; 3/9: eta Kottadak ziyon: Ez dakit; 4/3: illtzana bezala gelditu zuten; 4/4: ai Madalena gajua; 4/5: Agintariyen buruzariya; 4/8: gaur emandako pausua; 4/9: erantzun ziyon: Ez det egingo; 5/3: aur maite ura gaitzik sekulan; 5/5: Agertu bear izan ziyoten; 5/6: Fiñer buruzariari; 5/7: ark bereala agindu zuan; 6/1: Jesus maitiak gogoz bidia; 6/7: gillotinara igo ta ill zuten; 6/9: ta aingeruak eramana da.

Gure iritzi bat agertu nai genduke orain. Buenos Airesen 1904 urtean argitaratu zan *Alkar* izeneko liburuak Magdalena Larralderi buruzko bertso auk ez ditu. Baiña Donostian 1930' ean izen berarekin agertu zan liburuak bai. Baita *Bertsolariya* aldizkariak ere 1932-VII-10-ean.

Aldaketaz josiak, ordea, biak ere, ikusi degunez. Orrek zera esan naiko du: argitaraldi auk egiteko bi emale ezberdiñen aotik jaso zirala bertso auk, eta ez *Euskal-Erria* aldizkaritik.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak* liburua, *Kuliska Sorta, Itxaropena, Zarautz, 1959 I.* Unzurrunzagak presatua, 109 orrialdean. Onek aurrekoari kopiatu dio, Donostiako 1930'eko *Alkar* izeneko liburuari, eta aldaketa oiek berak ditu.

\* \* \*

Donibane Garaziko Euskal Festetako itz neurtuen sariketarako jarri zan leenengoz Magdalena Larralderen gaia, *Euskal-Erria* aldizkarian, XXX tomoan, 1894 urtean, 465 orrialdean, onako idazlan ontan adierazten danez:

MADALEN LARRALDE, SARAKO MARTIRAREN KONDAIRA

Otoiztu dut Sarako jaun erretora, jakiteko zerbeit istorioa ezagutua baita arras ongi Sarako jendez. Madalen Larralde Sarako martiraren gainean, zoinaren Jaun erretorak egorri nau lan hori.

Ene primak emanak izanen dire Donibane Garazin, buruilako hilabetian. Orok suieta bera izanen dute; hau da: "*Madalen Larralde Sarako martiraren istorioa*". Xuxen den bezala, primak izanen dituzte hobekierna istorio hori presentatzen dutenak.

Lan horiek errezibituak izanen dira Lasserren imprimerian, Bayonan, Gambetta-ren karrikan, uztailaren lehen arte.

Aditu dut askaindar baten ganik neskatxa hori *Magnificat* kantatuz zohala gillotinarat. Sarako jaun erretorak eta bertze frangok erran dute kantatzen zuela *Salve Regina*. Menturaz biak kantatzen zituen. Guzien gainetik neskatxa eskualdun hori izan da martirak bezen handi, zeren nahiago izan duen hil, ezen-ez gezur itipi bat erran.

Badakite guziek eskualdun gizonak fetxoak direla; baina nahi nuke jakin dezaten ere, eskualdun emazteak fetxoago direla.

*Anton Abbadia, Subernoarra*

*Madalen Larralde, Sarako martiraren kondaira*

Duela mende bat zen; xuxen-xuxena mintzatzeko, milla zazpi ehun eta lauetan hogoi eta hamalauetan; Frantzia guzian, Eskual-Herria barne, nausituak ziren gaixtaginak, Jainkoaren etsaiak. Elizak etsiak ziren edo aberetegi bilakatuak; hil etzizutzen apezak, gordeak edo ihesi guanak. Ez mezarik, ez sakramendurik herrietan, ixilka baizen, eta gaizkirik handiena, lepoa moztea edo itotzea zakarken gaizkia zen giristino urratsetan agertzea.

Bada, Sarako herrian, Larrondo-xaarrean, orai Beltxaenea deitzen da etxe hura, bizi ziren denbora izigarri hetan, beren anaia Piarresekin, lau etxeko alaba: Graziana, Garaxina-txiki, Maria eta Madalen Larralde. Lauak jainkotiarrek, bainan guziz azkena.

Bertze asko bezala, Sarako apezak, Teillary erreto-  
ra, Bordagibel eta Laetusan bikarioak, hauk biak herri-  
ko seme, Espainiarat ihesi guanak ziren. Etortzen ziren,  
bai, ahal bezain maiz herrira, sakramenduen ixilka eta  
gordeka emaitera. Bainan halere etzen errex heiekin ko-  
fesatzea, eta Sarako jendea bazoan ala Berako eta  
Zugarramurdiko apezetara.

Egun batez, Berako kaputxinetan kofesaturik, Madalen Larralde etxerat heldu zen Lizuniako errekan barna. Bakar bakarra guana ote zen, ala lagunetarik bidean berexia? Xuxen ez dakigu. An behinik-behin bakarrik zen. Eta huna nun soldadu batzu ateratzen zaizkon sasitik.

- Nondik heldu zare? -diote galdatzen.

- Beratik.

- Zertara guana zinen Berara?

- Kofesatzera.

- O! Xuhur baduzi, etzazula holakorik erran. Holakorik aitortzen baduzi, zureak egin du.

- Nahi badu, bai; bainan ez tuf gezurrik erranen. Nitaz egizue nahi duzuen.

Soldadoek orduan hartzen dute eta erematen beren aitzindari Pinet -gaztea- jeneralaren gana. Huni ere urrikaltzen zaio neskata gaztea; hunek ere nahi lioke erranarazi Espainiara gana zela, edo Frantziako nahas-  
menduek iziturik edo ahaide zenbaiten ikustea gatik. Bainan Madalen hitz berean dago: kofesatzen izan da eta ez tuf bertzerik erranen. Gezurrik ezta haren ahotik ateratuko.

Donibane Lohizunen zen eskualde hartako tribuna-  
la, Donibaneko plazaren erdian gau eta egun xutik, beti  
odolen egarri, *gillotina*. Agorriaren hogoi eta zazpian  
Pinet jeneralaren anaiak manatzen du Madalen ereman  
dezaten Donibanerat, an juiatua izateko. Bildotx ezta  
otsoen artean, zenbat etzuken pairatu bide luze hortan!  
Errana da, soldadoek xizpa zurez joka zarabilatela. oihu  
eginarazi beharrez: *Biba la nazione!*; Madalenak aldiz  
beti ihardesten: *Biba la religion!* Nazione pulita alaba-  
nan orduan gure Frantzia maitea, beren meneko zauka-  
ten eta haren izenean mintzo ziren hauekin. Nausi heiek  
egiakizi iduri baitzuten debru gizon eginak!

Holako gizonen bihotzean nola izanen zen urrikal-  
mendurik Madaleneztat? Eta bertzenaz ere, neskata  
gazteak Berara kofesatzera guana zela erraitearekin,  
naiz bazakien hemen, Saran bezala, aitortzea bezain se-  
gur hitztea izanen duela, garbiki dio: "Kofesatzen nin-  
tzen".

Berehala hiltzera kondenatzen dute. Bainan  
Madalen ezta kantitzen.

Ezta gehiago kantituko sarri, *gillotinarat* erematen  
dutenean, tresna ikaragarria agertzen zaionean. Haren  
ondoan iragaiten denean, hain gazte, hain laño, hain  
amultsu ikustearekin, jendea nigarrez dago. Madalen  
aldiz, begiak zerurat altxatuak, kantu ezti batean ari da;  
kantatzen du *Salve Regina*; iduri du jadanik lurra utzia  
duela; iduri, zeruko Erregina, bere Ama ona bidera hel-  
du zaiola ikusirik, dioela agur egiten: *Salve Regina!*  
Otoitz horren azken hitzak kantatu dituen bezain laster,  
lepoa mozten diote.

Errana da, Madalen *gillotinara* hurbiltzearekin tiro  
bat aditu zela; errana tiro hura egin zuela haren anaia  
Piarresek, bere arrebaren etsai norbait hil nahiz. Bainan  
horiek ez dira *enak* baizen. Ez *omena*, bainan osoki se-  
gura den gauza hau da: saratar neskata batek, Madalen  
Larralde, nahiago izan duela hil, *ezen-ez* gezur xume  
bat erran, *ezen-ez* den gutiena bere arimaren edertasuna  
istu. Hori badakite Sarako jende guziek; hori elizaik  
errepikatu izan dute, ehun urte huntan, Sarako erretor  
guziek.

Lenbiziko sariya irabaziko du Sarako martiraren  
kondair'au bertsozko kantu batean hobeto jartzen due-  
nak."

\* \* \*

Olerki sariketa ori zala ta Madalena  
Larralderen eriotzari buruz esan zira-  
nak, Saran aotik aora eta gizaldiz-gi-

zaldi zetorren tradizioan oiñarrirituta daude.

Baiña J. B. Daranatz-ek idazlan luze bat argitaratu zuan *Gure Herria* aldizkarian, 1926 urteko abenduan, *Madeleine Larralde* izenburuarekin. Daranatz jaunak Parisko *Ministère de la Guerre* dalakoaren kondaira edo istoria-saillari idatzi zion, Madalena Larralderen auziaren paperak gordezten ote ziran galdetuz. Baietz erantzun zioten, eta bai kopia bialdu ere.

Paper oietan ageri danez, Madalenak ogei ta amabost urte zituan, eta ez amasei edo amazapi. Eulea omen zan. Frantziak eta Espāñiak illebete batzuk gerran zeramazkitela, mugaz beste aldetik, Bera-Bidasoatik Sarara aria pasa omen zuan. Ari orrekin oiala egin eta Berara eraman. Bertan gelditu zala, etsaiarentzat lan egiñez. Frantzes soldaduak Bera artu zutenean, berriz, izkutatu egin zala. Baiña ezagutu zutela, eta atxilotu eta auzitara eraman. Epailleak, berriz, oben auek arkitu zizkiotela: etsaiarekin artu-emanak izanak zituala; eta Frantziatik aldegiña zala, *émigré* alegia. Aldegingako oiek betirako erbesteratuta gelditzen ziran, eta aien ondasunak gobernuak berenagatu egiten zituan.

Ala, Madalena Larralderi eriotz-zigorra eman zioten, eta 1794-eko irailaren 19-an lepoa moztu, *gillotinat*u alegia, Donibane-Lohizunen, gaur egunean Luis XIV-ren plaza deitzen zaion ortan.

Ikusten degunez, Sarako tradizioa eta Parisko paperak ez datoz bat. Arrazoi nork zeukan argitu nairik, auziaren *procès verbal* eskatu zuan

Daranatz jaunak. Baiña alakorik etze-goala erantzun zioten Paristik.

Madalenak zenbat urte zituan ere aztertu nai izan zuan. Baiña eliz-papereetan ez omen da aren bataio-agiririk azaldu. Ezin erabaki, beraz, amazapi ala ogei ta amabost urte zituan.

Garbi dagoana zera da: Madalena Larralderi buruzko olerki-sariketako baldintzetan erriaren tradizioa zabaldu zala, eta olerkariak tradizio ortan oiñarriritu zirala beren bertso edo itz-neurtuak jartzeko. Baita Pedro Maria Otaño ere noski.

\* \* \*

Donibane Garaziko euskal festa oiek, abuztuaren 26, 27, 28 eta 29-garren egunetan ospatu ziran. Leenengo saria *Baigurako bi artzain'ek* irabazi zuten, beren *Madalena Larralde hamabortz urteko neskatxa* lanarekin. Baigurako bi artzain oiek Ortzaitzeko Diharasarry eta Irisarriko Dagerre omen ziran, biak apaizak. Bigarren saria, berriz, Joanes Oxalde bertsolariak eraman zuan, bere *Madalen Larralde orai duela ehun urte martir izan denaren kantuak* izeneko bertsoekin.(1)

\* \* \*

Urrengo urtean, 1895-eko abuztuaren 3, 4 eta 5-ean, Beran egin ziran euskal festak. Itz-neurtuen sariketarako osterata ere Magdalena Larralderen gaia jarri zan. Onela zion *Euskal-Erria* aldizkariak, XXXII tomoan, 1895-ean, 511 orrialdean:

JUEGOS FLORALES EN VERA

*El concurso de literatura euskara que todos los años se celebra bajo los auspicios del ilustre bascófilo D. Antonio d'Abbadie, se celebrará este año en Vera, los días 3, 4 y 5 de Agosto.*

*Los literatos bascongados que deseen tomar parte en este concurso deberán remitir sus trabajos para el 1º de Julio al señor Lasserre, librero, rue Gambetta, Bayonne, (Francia).*

*En una makila y 80 francos consistirá el premio al autor de la mejor balada que se presente sobre el martirio de la joven Magdalena Larralde, que murió víctima de su fe cristiana.*

*El asunto de esta balada, que deberá tener de 50 a 60 versos, es el siguiente:*

*Magdalena Larralde, de Sara, no sabiendo dónde podría encontrar un sacerdote en el nefasto año de 1793 para confesarse, fue a Vera de Nabarra, cuando estaban en guerra con los españoles, siendo detenida a su regreso, como espía, por los soldados franceses que guardaban la frontera. Su oficial, temeroso del peligro que correría esta joven de 17 años, diciendo la verdad, insistió en aconsejarla dijera no había estado en Vera más que a visitar a una amiga; pero Magdalena persistió en no mentir. Entonces Pinet, que era el jefe superior de aquellas fuerzas, mandó guillotinarla, para que el castigo sirviera de escarmiento. Magdalena marchó al suplicio cantando el Salve Regina y prefirió morir antes que ofender a Dios con una mentira”.*

\* \* \*

Pedro Maria Otañok Berako sariketa ontara bialdu zituan Sarako Magdalena Larralderi buruz moldatu zituan bertsoak.

Berak ere ala aitortzen du bere *Oroimenak* izeneko esku-idatzian, izenburuaren azpian onela idatziz:

*”Mr. Antoine d'Abbadie. Vera. 60 versos o líneas. Tema obligado”.*

Oietxek baitziran, or goien adierazi danez, sariketa ortan parte artzeko bete bear ziran baldintzak. Esan ere, ez du Otañok Magdalenaren bizitzaren la-

burpen ortan adierazten dana baiño geiago esaten. Eta, sei amarreko moldaturik, irurogei lerro juxtu bialdu zituan, antolatzaillak eskatu bezela.

\* \* \*

Euskal festa oiek ospatu ziran, eta *Euskal-Erria* aldizkari orrek berak idazlan bat argitaratzen du bere 1895 urtean, XXXIII tomoan, 145 orrialdean, festa oien berri ematearren, *Fiestas euskaras en Bera* izenburuarekin eta *Martin Etxeberría* firmarekin. Idazlan ortatik onako pasarte auek bereizten ditugu:

*”Terminada la Misa, y ya en la Casa Capitular, los concejales, Mr. d'Abbadie y comitiva, se dio conocimiento de que por no llenar las condiciones exigidas las composiciones escritas sobre la muerte de Magdalena Larralde, la mártir de Sara, se declaraba desierto el concurso, reservando el premio para las fiestas euskaras que se celebren el próximo año de 1896, pero disponiendo, sin embargo, dedicar un recuerdo al trabajo del Sr. López-Alen, por resultar el más aproximado a la verdad histórica”.*

Ondoren, *Concurso literario* izenburuarekin, onako eskutitz au argitaratu zan:

*”Irún, 6 de Agosto de 1895.*

*Sr. D. Antonio Arzác.*

*Mi muy apreciado D. Antonio: Me escribe el ilustre euskarólogo Mr. Antoine d'Abbadie que el concurso de literatura de Bera y cuyo tema era ”El martirio de Magdalena Larralde de Sara” ha quedado desierto. Entre las 26 composiciones que se han presentado, sólo ha agradado la que llevaba por lema ”Aingeru bat geyago” y cuyo autor es D. Francisco López Alen, a quien Mr. d'Abbadie no ha querido dejar sin una recompensa en metálico, para que le sirva de estímulo. En vista de este resultado, el tema del concurso del próximo año será el mismo.*

*Suplico a V. encarecidamente publique en su interesante revista Euskal-Erria la citada composición.*

*Siempre de V. agradecido amigo y s. s.*

Guillermo Iguarán ”.

Ondoren, Lopez-Alen jaunaren *Aingeru bat geiago* izeneko olerkia argitaratzen du. Nai duanak, *Euskal-Erria* aldizkariaren XXXIII tomoan arkituko du, 1895 urtean, 150 orrialdean.

\* \* \*

Ona, azkenik, bertso aukeratuak kantatzeko Aita Donostik Ernanin jaso zuan doiñua. *Euskal eres sorta, 1921* kanta bilduman agertzen denez.

Doiñuarekin batera, leenengo bertsoaren letra dakar Aita Donostik, beste onela ordea:

Prantzes euskera deitzen dioten  
Sarako mendi batian,  
aur kutun ori billatu zuten  
ibarso zabal batian,  
erri noblian suertatu zan  
gure kondaia maitian,  
irakurriyaz edo entzunaz  
zer pasa dan esatian,  
milla sei eun irurogei ta  
amairugarren urtian.

Pran - tzes eus -  
ke-ra dei-tzen di - o - ten Sa-ra-ko  
men - di ba - ti - an aur ku - tun  
o - ri bi - lla - tu zu - ten i - bar - so  
za - bal ba - ti - an, e - rri no -  
bli - an su - er - ta - tu zan gu - re kon -  
da - ia mai - ti - an i - ra - ku -  
rri - yaz e - do en - tzun - az zer pa - sa  
dan e - sa - ti - an mi - lla sei  
e - un i - ru - ro - gei ta a - mai - ru -  
ga - ren ur - ti - an.

1. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura, Vol. I, San Sebastián 1969, pág. 549.*

## IRI APUSTU BATEN BIREZ

Batek iri obiak zeuzkala ederrez,  
pisuban ta neurriyan eta indarrez;  
bestiak geiaguak berriz leialtarez,  
ankaz ta intentziyoz, lepoz ta bularrez;  
    biyak alde aurrez  
    urrutitik farrez,  
    aldetik bildurrez,  
    nola etzan errez  
jakiten irabazi zeiken edo ez.

Bederatzi puntuko bertso bakar au  
Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* ize-

neko esku-idatzitik artua degu. Eta ez  
degu iñun ere argitaraturik arkitu.



(1896)

## TOLOSAR BIURSARI GAZTEARI

- 1/ Irakurririk zure itz neurtu  
eztitsuak *La Voz*'ian,  
oraiñ dirala egun batzuek  
joan dan igande goizian,  
barka zaidazu, on Emeterio,  
orren denbora luzian  
erantzun gabe ni egotia;  
sentitzen det biotzian.
  
- 2/ On Emeterio Arrese, zatoz  
zu argi billa nigana,  
ez al dakizu pittiña dala  
nerekiñ dakarkidana?  
Zer ikasiko dezu nik esan  
arren zuri dakidana,  
zerorri baldin bazera neri  
argi egiten dirana?
  
- 3/ Asmo senduak izanagatik  
askok oi dute gogaitu,  
landarerikan onena ere  
beti bear da jorraitu,  
bestela nai dan etorkizunik  
eziñ lezake garaitu;  
zer esango det zure izkuntzak  
denok arritzen bagaitu?

- 4/ Illargiaren gisara askok  
besterengandik argiya  
artu oi dute, nola alperrak  
langillien izerdiya;  
bañan zu zera, on Emeterio,  
aiñ euskal iztun garbiya,  
gure illobak autan izango  
zaituzten biursariya.
  
- 5/ Eguzkiaren irteera da  
aiñ pozgarri ta alaia,  
gisa berean azaldu zaigu  
gaur Tolosako galaiya;  
zayikan gabe iriñ fiñ utsa  
iragazten duben baiya  
ez dezazula galdutzen utzi,  
oraiñ da zure garaia.
  
- 6/ Aipatzen dezun lore-baratza,  
Pollitena deritzana,  
da arrats batez oso pozkiroz  
zurekiñ bildu nintzana.  
*Zerbait*'en billa *uso* argiya  
da Ararat'en izana,  
osatu gabe geldí etzediñ  
orduán itzegiñ zana.

\* \* \*

Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu sei bertso aukerak.

*Tolosar biursari gazte* ori, bertsoetan esaten denez, Emeterio Arrese olerkaria degu, 1869-ko martxoaren 3'an jaioa, eta bertan illa, larogei ta bost urterekin, 1954-eko apirilaren 7-an. Olerki asko moldatu zituan. Baita beste idazlan batzuk ere. Iru liburu ere argitaratu eman zituan: *Nere bidean*, *Txindor* eta *Olerki berritze*. Pedro

Mari Otañoren lagun aundia izan zan. Atlantikoa, aruntz edo onuntz, berrogei ta zortzi bider igaro omen zuan.

Ez degu, zertaz arritu bear Otañok Arreseri *biursari gaztea* esatearekin, au orduan, 1896-ko otsailaren bukaran, ogei ta zazpi urte betetzeko baitzegoan.

Seigarren bertsoan ikusten denez, billeraren bat egiña zuten alkarrekin *Pollitena* izeneko baratza batean, eta barra-barra itzegin. Esan bearrik ez dago aien itz-jarioaren gaia euskera eta euskal bertsoak izango zirala. Alka-

rren lagun miñak izango ziran beti, eta beren adiskidetasun orrek baratz artan izango zuan ziur aski asiera.

Otañok, sail ontako seigarren bertsoaren bostgarren lerroan, oar bat egiten du *zerbait* itzak aldi ontan zer esan nai duan aditzera emateko, onela esanez: “Zerbait liburua”.

*Zerbait* izeneko liburua, izan ere, orduantxe kaleratua zuan, bere ordura arteko bertso-bilduma batekin, *Donostiyan Victoriano Iraola-ren moldizkiran* argitara emana.

Leenengo bertsoan esaten duanez, Pedro Marik Emeterio Arreseren bertsoaren batzuk irakurri berriak zituan. Ain zuzen, *La Voz*’ian argitaratuak.

Ori *La Voz de Guipúzcoa* Donostiako egunkaria izango zala dudarik etzegoan. Ara jo genduan, beraz, eta bereala arkitu genituan Arreseren bertso oiek, 1896-ko otsaillaren 23-ko zenbakian, igandearekin:

## ZERBAIT

1/ Zerbait’engatik, on Pello Mari,  
milla kezka eta naspill  
biotz barrendik dauzkatalako  
zori gaiztoaz narabill;  
kolko agorra dedan bezela  
egarriya nairikan ill,  
nere gogoa iturri billa  
*zerbait* ‘en galdez darabill.

2/ Eskeñi on bat egin zirazun  
alkartu giñan gabian,  
lore gozozko baratzatxoa  
*politena* dan batian.  
Uso txuriyak bere egatzetan  
Ararat’eko atian  
euki ninduben, eta geroztik  
nago *zerbait*’en ustian.

3/ Gaban itzala asten danian  
illuntasuna zabaltzen,  
ta goizeko eran lañu zuriya  
mendi zokotik altxatzen,  
buru gaisoa zoramen aundiz  
jarririk beti pentsatzen,  
*zerbait*’en billa dabillearik  
ez du ezertxo billatzen.

4/ Ez nazazula egun geiagoz,  
biursari on garbiya,  
*zerbait* orrentxen esperantzetan  
euki luzaro jarriya.  
Arren!, ekatzu, on Pello Mari,  
gogo detan pozgarriya;  
itxu dagonak zer nai lezake  
baldin ez bada argiya?

Emeterio Arrese  
Tolosa, 20 febrero 1896

Ageri danez, Arrese jakiñaren gainean zegoan Otañoren *Zerbait* liburua agertua zala; eta, beraren izenburuarekin itz-joko batzuk egin ondoren, leenbaileen bialtzea eskatzen dio.

*Zerbait* itz ori azpimarratua dago beti, leenengo bertsoaren leenengo lerroan izan ezik. Guk dagoan bezela utzi degu aldi guzietan.

Esan bearrik ez dago, Otañoren bertsoak askoz obeto ulertzen dirala Arreserenak irakurri ondoren, auei ematen dien erantzuna baitira.

Bigarren bertsoa *usoa* izendatzen du. Otañoren *Donostiya - Uxua* deritzan sailla aitatu nai duala dudarik ez da. Leen ere esan degunez, bertso-lan luze ori argitaratuta zegoan. Itxura danez, Arreseren eskuetara etorria ere bai. Irakurri eta *Zerbait* liburua noiz begien aurrean izango zuan irrikitan jarri.

Pedro Mariren bertsoak ere *La Voz de Guipúzcoa* egunkari ortan argitaratu ziran, batere aldaketarik gabe, 1896-ko martxoaren 1-ean, igandearekin. Bertsoen ondoren eguna eta firma onelaxe datoz: *San Sebastián 29 febrero de 1896 Pedro M. Otaño.*

\* \* \*

Baiña Emeterio Arresek berriro erantzun zion Pedro Mariri, beste sei bertsorekin. Moldatu, 1896-ko martxoaren 3-an egin zituan, bertsoen ondoren esaten danez; eta andik sei egunera, martxoaren 9-an, leengo lekua be-  
rean, *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian alegia, argitaratu. Onela diote:

## UTSA

- 1/ Nundik irten da on Pello Mari doai aundizko iztuna?  
Nundik irten da nere biotza zorionez bete duna?  
Au da zerubak omengarritzaz guri bialtzen diguna,  
Amatxo zarren titi gozoa erandako euskalduna.
- 2/ Irudimenez, lagun Otaño, anbat zerade bizkorra,  
goiko zabalde miragarriyan nola izar igeskorra,  
ega biziyaz iragoturik zeru, itxas ta legorra;  
aize biguñez egala zera, biursari on jatorra.

- 3/ Arrazoiakin esaten dezu askok dutela gogaitzen;  
asmo sendoak izanagatik bada etzait iduritzen,  
ega motxakin erreza danik aize gogorra llabaintzen:  
eralki nai ta ezin eralki emen nabill ni zorutzen.

- 4/ Odoi tartian egon ez nediñ eskatu nizun argiya,  
*Zerbait* onakin eman dirazu neretzat leiken guztiya;  
baño naigatik eziñ ikusi aiñ dago dizdizariya,  
nola nezake aurre-aurretik begiratu eguzkiya?

- 5/ Aurpegin suba arrazidazu, ez dakit zer esan iya,  
*La Voz*'ko zure itz neurtuak lotsaz naukate jarriya.  
Igande ezkeroz emen narabill goitik astinduaz baia,  
zeñak ez daki fiñ iragazten, baizik autsa edo zaia.

- 6/ Besarkera bat bialtzen diot nere lagun Otañori,  
besarkera bat Euskal-Erriko seme leiala danari;  
zure *Ametza* irakurririk malko bi zaizkit ixuri,  
*Zerbait*'en ordez artu nazkizu laztan batez, Pello..., tori.

Esan bearrik ez dago, noski, azken bertsoaren bostgarren lerroan aitatzen dan *Ametza*, naiz eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkarian izki arruntaz idatzita egon, Otañoren izen bereko

bertso-sailla dala, irakurtzerakoan  
Arreseri begiak busti arazi zizkiona,  
berak aitortzen duanez.

\* \* \*

\* \* \*

Bi bertso sail auek bere *Nere bidean* liburuan ere  
(Tolosa, 1913) argitratu zituan Arresek, baiña oso alda-  
tuta. Orregatik, oso-osorik jarriko ditugu berrito emen:

NOIZBAIT

*Len esandako idazti (liburu) ori bidaldu ziranean.*

### GOITIZLARIEN AITARI

*Zerbait deritzaion liburua egilleak eskeñi ta ondo-  
ren artu zai negoala idatziaik.*

1/ Ez dakit baiñan... *zerbait* 'en gatik

oinbeste kezka ta naspill  
muñetan sartu zaizkidalako  
atseden gabe narabill;  
kolko legortu baten antzera  
egarri latza nairik ill,  
nere gogoa iturri billa  
"Zerbait" -en galdez darabill.

2/ Eskeñi on bat egin zidazun  
elkartu giñan gaubian,  
lagundi zarren billera-toki  
"Politena" dan batian;  
"Uxua" (1) gero zure abotik  
"Ararat"eko(2) atian  
entzun nuen ta ordutik ala  
nago zerbaiten ustian.

3/ Arratsaldero dijoan garaiz  
argitasuna makaltzen,  
ta goiz-aldean mendi zokotik  
lañua gorontz banatzen,  
nere nai goen irazekiyaz  
beti gauza bat oroitzen,  
zerbaiten billa nabillelarik  
ezertxo ez det arkitzen.

4/ Ez dezazula inñolaz ere,  
euskeldun goitizlariya,  
egun bat geigo luzatu "Zerbait"  
orren zai dagon aldiya;  
zabiltz arduraz; arren, ekatzu  
gogo detan pozgarriya;  
itxu dagonak zer nai lezake  
ezpada baldin argiya?

1/ Nundik irten da, zer gai narotik  
oinbeste dakin iztuna;  
nundikan sortu bere biotza  
atsegiñez bete duna?  
Ori da nunbait erakasletzat  
Aitor-ek eman ziguna,  
Ama xarraren(3) bular gozoaz  
ernetu zan euskalduna.

2/ Irudimenez an oz-garbiko  
izar polit igeskorra  
bezin argitsu t'azkarra zera,  
goitizlari on jatorra;  
ega biziyaz igaroturik  
zeru, itxas ta legorra,  
zuk aixa gaintzen dakizu beste  
iñork ezin dun tontorra.

3/ Ongi diyozu lan ontan asko  
sarri dirala gogaitzen;  
ez derizkiyot, asmo sendua  
ortarako izan arren,  
ego motxakin erreza danik  
urrutiraño irixten,  
goitaratu nai t'ezin goiturik  
emen nabil ni zoratzcn.

4/ Odoi tartcan egon ez nedin  
eskatu nizam argiya  
ta gaur emanik arindu dezu  
neukan illunpe nagiya;  
goibeltasunak urratu dira,  
alai dakust eguzkiya,  
asnas on berri kementsu batez  
mugi zait barren guziya.

5/ Biotz-esnale oberik ez det  
egundaño irakurri,  
zure "Zerbait"-ek orri gutxitan  
erakusten dit ugari.  
Eman dirazun alaitasuna  
eskertu nai arren ongi,  
itzez inñundik enezake ta...  
laztan bat ordañez... tori!

1. Izen onekin bere liburu ortan dauden neurtitzak.  
(Arreseren oarra.)
2. Bera bizi zan etxearen izena. (Id.)
3. Ama Euskera. (Id.)

(1896)  
**AITONA GIZAGAISOA**

Udaberriko usai gozozko  
illunabartxo batian,  
Donostiyatik urruti gabe,  
uri ontako partian,  
baserritikan onontz datorren  
bidetxigor politian,  
sagar ta gaztañ, aritz, elorri,  
urriz ta lore tartian,  
10 azpi aldian errekatxua  
marmariyaz ostopian,  
eguzkiaren azken dizdizak  
aruntzko mendi tentian,  
kuku ta beste txorien kantak  
baso guztiak betian,  
kabi batian lau txorikume  
txillar tarteko otian,  
gauz abei denai begiratuaz  
emen, gure lur maitian,  
20 “iñon ez dago onelakorik”  
esanaz nere artian  
netorren, eta alako batez,  
jiratxo bat ematian,  
aitonatxo bat arkitu nuben  
eserleku arlotian,  
berekín zeukan penaren kargak  
lurrera iya botian.  
Garai ta leku pozgarri artan  
gizon ura ikustian,  
alaitasunez inguratua  
30 aiñ egoera tristian,  
beregánatu nintzaion zerbait  
itzegiteko ustian.

Iruditzen zait gaur oraindikan  
bera ikusten naguela,  
arri tontortxo baten gañian  
eserita daguela,  
belaun nekatu bien tartean  
urritz makill bat dubela,  
beraren puntan ipiñirik len  
40 buruan zuben txapela,  
bi eskuakiñ gogor elduaz  
kontu egiñaz onela,  
eta kokotza oien gañean  
lotan balego bezela.  
Nola jostatzen pill-pill zebillen  
egoaizetxo epela,  
buruko ille txuri bakanak  
egara zijoazela  
esan zeikian, uste det berak  
50 sentitutzen etzubela.  
Antxen nenguan bere onduan  
zer egiñ ez nekiyela,  
laguntzarik nai zuben galdetu  
edo aldegiñ bestela;  
itzegiñ zuben eta kezkatik  
atera nintzan berela.

Asnas lodi bat irten zitzaion  
petxu estutik jasua,  
ta lenbiziko au esan zuben:  
60 “Nere euskara gaxua!!”.

Esan onetan ezagaturik  
aitonak zedukan miña,  
erantzun nion: “Jauna, euskara  
ez dago aiñ aldegiña,  
orañdik ere lur maite ontan  
bada zeñek itzegiña...”  
Bañan nere itz motxak etziran  
bera lasaitzeko diña,  
70 ta zion: “Ondo ikusitzen det  
datorkigun erasua;  
ez da biziko, laster illko da  
gure euskara gaxua”.



80 “Jauna, ez bedi orla tristetu,  
ez dago euskara juna.  
Ez du sentitzen inguru ontan  
daguena alaitasuna?  
Ez du ikusten ez dala gaitza,  
baizik dena osasuna?  
Euskalerriko txorien kantak  
ez dago pozez entzuna?”.  
“Bai; len bezela saiatzen dira  
kukua eta xoxua;  
oiek or daude, bañan galdu da  
gure euskara gaxua”.

90 “Jauna, barkatu bizait, berriro  
gogor egiten badiyot;  
euskara orain baño txarrago  
egon dala derizkiyot.  
Ez du ikusten nola izkuntza  
ontan ari geran biyok?  
Gaur Donostiyan ez dakienik  
ez du aitortu nai iñork”.  
“Bañan erderak betiak dauzka  
erriya eta basua;  
alferrik zabiltz, galdua dago  
gure euskara gaxua”.

100 “Jauna, alaitzen asi gintezke  
euskara maite degunak,  
badatoz ustez iya betiko  
galdutzat zeuden egunak;  
len aintzakotzat artzen etzuten  
damatxo txapela-dunak,  
gaur erantzuten dute biotzez:  
"Gu gerade euskaldunak”.  
“Bañan ainbestek jartzen diote  
traba edo arazua,  
nola nai dezu indartutzia  
gure euskara gaxua?”.

- 110 “Jauna, badaki nola lenago  
ez genekiyen erderik,  
eta guraso leial on askok  
umiak argitu nairik,  
aldi batean non ikusi da  
izkuntz au gabeko mairik?  
Orrengatikan dago euskara  
lotsaz txokuan gorderik”.  
“Bukatu bedi oitura orren  
epea edo plazua,
- 120 izan zazute maitexiago  
gure euskara gaxua”.
- “Jauna, ez beza negarrik egiñ;  
esan diotan bezela,  
ikusitzen du lenago baño  
askoz obeto gaudela;  
luza lezake zergatik zaill dan  
oso indartzen berela...”.  
Ontan malkuak kolpez kendurik  
erantzun ziran onela:
- 130 “Nik erderarik ez dakit eta  
nere illobak... au sua!  
ni bezelaxe burlatzen dute  
gure euskara gaxua”.
- Au mintzatzian arkitu zuben  
nonbait aïñ estu barrena,  
non altxarikan eserlekutik  
al zezaken azkarrena,  
esan ziran: “Ai! Denak nai dute  
lege zarrak dakarrena,  
eta ez dute ezagututzen
- 140 izkuntza dala aurrena.  
Miru gaiztoak menderatutzen  
duten bezela uxua,  
etzazutela illtzera utzi  
gure euskara gaxua”.

150      Eskuarekiñ agur egiñaz,  
arturik makillatxua,  
etxe aldera abiatu zan  
aiñ euskaldun doatsua.  
Geldi-geldika jarraitu nion  
neurtuaz bere pausua,  
illobetara biurtu zediñ  
aitona gizagaisoa.

\* \* \*

*Aitona gizagaixua* deritzan sail au ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artua degu.

Guk dakigularik, leku, auetan argitaratu da:

*Euskal-festak - Mondragoen - Oroimengarria - 1896. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.*

*Euskal-Erria* aldizkaria, XXXV tomoan, 1896, orrialdean. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.

Bertso-papera, *V. Iraola-ren moldizkiran*, Elgoibarko Antonio Arrillagaren eskutik jaso. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.

Bertso-papera, *Imp. J. Díaz. - Irún* moldiztegian argitara emana. Aaztu egin zitzaidan noren eskutik jaso nuan kontuan artzea. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.

*La Vasconia* aldizkaria, Buenos Aires, 183 zenbakian, 1898-ko urriaren 30-an. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.

*Pedro Maria Otaño: Alkar, Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia",*

Victoria 1088, 1904 .

*Baserritarra* astekaria, 145 zenbakian, 1910-IV-23-an. Aldaketa: 83: oiek or daude, bañan galduta.

*Otaño'tar Pedro M'ren: Olerki onenak -Alkâr- Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay 28, Donostia, 1930. Onek euskara jarri bearrean, euskera idazten du beti. Beste aldaketa auek ere baditu: 50: nabaitutzen etzubela; 75: ez du nabaitzen inguru ontan; 126: luza lezake, txit zaila da-ta; 141: izkuntz dala aurrena.*

*Bertsolariya* aldizkaria 1932-IX-18. Onek aldaketarik ez du, moldiztegi utsegite bat edo beste izan ezik.

Basarrik gerra aurreko Argia astekarian argitaratu zuan bertso sail au, *Aitona gizagaxoa* izeneko idazlan batean, 1934-III-14-ean. Onek ere, aurrekoak bezelaxe, *euskara* bearrean, *euskera* idazten du; 126: luza lezake, txit zaila da ta; eta fonetismoak kendu: *batean, partean, duela, zuela, makil, umeak, zidan* eta abar, Otañok bezela *batian, partian, dubela, zubela, makill, umiak, ziran* eta abar idatzi bearrean. Eta 85-garren lerrotik 96-garrenean, falta. Itxura danez, Sebero Altuberen *Erderismos* liburua irakurri berria zuan Basarrik, eta onela dio bertsoen aurretik:

1896

Euskal-itz jostaldien Batazearra

Euskal-festen XV. <sup>60.000</sup>urtea

# AITONA GIZAGAISOA

Larogei pezetako sari bat eta bitezarra Mendragoin irabazitako moldaera

Udaberriko usai gozotzko  
 Ilonabarcho batian,  
 Donostiyatik urruti gabe  
 uri ontako partian,  
 haserrikian onantz datorren  
 bidehegior politian,  
 sagar ta gaztali, srita, sibri,  
 urritz ta lore tartian;  
 azpi aldian errekatua  
 marmariyaz ostoplan,  
 aguzkiaren azken dizalzak  
 arantzako mendi tentian;  
 kuku ta beste chorien kantak  
 baso guztiak betian;  
 kabi batian lau chorikume  
 chillar tarteko otan.  
 Gauz abai denai begiratuz  
 eman, gure lur maition,  
 "ifiton ez dago onelakorik,  
 esanaz nere artian,  
 norrenen, eta alako bates  
 jiracho bat ematian,  
 aitonacho bat arkitu nuben  
 eserleku arlotian,  
 berokin zeukan penaren kargak  
 lurrrera iya lotian,  
 Gatsa ta leku pozgarri artan  
 gizon ura ikustian;  
 alaitasunez inguratuz  
 aifi egoera tristian,  
 bereganatu nintzayon zerbait  
 itzegitako ustian.

Iruditzen zait gauz arandikan  
 bera ikusten naguela,  
 arri tontercho baten gafian  
 eserita daguela;  
 belain nekatu bien tartean  
 urritz makill bat dubela,  
 beraren puntan ipiritik lan  
 buruan zuben chapela,  
 bi eskuatik gogor aldusa,  
 kontu egifiaz onela,  
 eta kokotza onen ganean  
 lotan balago bezela.  
 Nola jostetzen pill pill,sebillen  
 egositzecho epela,  
 baruko ille churi bakarrak  
 egara zizonela  
 esan zeikian, uto dat herak  
 sentituzten ezubela.  
 Ancha nenguan, bere oduan,  
 zor egif ez nekiyela,  
 laguntzarik nai zuben galdetu

edo aldegia bestela;  
 itzegif zuben, eta kekatuk  
 atara nintzaa berela.

Amanz lodi bat irien zitzaion  
 pechu estetik jasua,  
 ta lenbiziko au esan zuben  
 —Nere Euskara gasna!

—Ean onetan ezaguturik,  
 aitonak zedukan maia,  
 erantzau nion:—Jauna, Euskara  
 ez dago aifi aldegia,  
 erandik ere lur maite ontan  
 bada zozok itzegina....  
 —Banan nere itz mochak atiran  
 hera lasaitzeko ditza,  
 ta zion:—Ondo ikusitzen det  
 datorrigun esasia;  
 ez da biriko, laster iliko da  
 gure Euskara gasna.

Jauna; ea bedi oria tristeta,  
 ez dago Euskara jua,  
 giza du sentitzen inguru oantan  
 deguen alaitasuna;  
 ez du ikusten ez dala gasna,  
 baizik dena osasuna;  
 Euskal-erriko chorien kantak  
 ez dago pozez antzuna?  
 —Bai, lan bezela sayatzen dira  
 kukua eta sosua;  
 opek or daude, banan galduta  
 gure Euskara gasna.

Jauna, barkatu bizait, berriro  
 gogor egiten badiyot,  
 Euskara orain bera chamrago  
 egon dala derikiyot;  
 ez du ikusten nola ikuntza  
 oantan ari gerai biyok?  
 Gauz Donostiyen ez dakiyenik  
 ez du aitortu nai inorik.  
 —Banan erderak betiak dauzka  
 erriya eta hasua;  
 alperrik zabiltz, galdua dago  
 gure Euskara gasna.

Jauna, alaitzen asi gintezke  
 Euskara maite dogunak;  
 badator, utoz iya betiko  
 galdutuz kendon egunak  
 lan aintzakotzat irizen etzuten  
 diamacho chapela-dunak.

gauz erantuten dute biotza;  
 —"gu gerade euskaldunak,  
 —"Banan ambestek jartzen diote  
 traba edo arazua....  
 [Nola nai dezu indartutza  
 gure Euskara gasna!

Jauna, badaki, nola lenago  
 ez genakiyen erderik,  
 eta garas leyal on askok  
 umiak argitu narrik,  
 aldi batean zion ikusi da  
 izkanta an gabeko mairik?  
 Orerangaitan dago Euskara  
 lotsa chokuan garderik.  
 —Barkatu bedi oitza oren  
 opea edo plazua;  
 izan kazute maiteago  
 gure Euskara gasna.

Jauna, ez bera negarrik egif;  
 esan diton bezela,  
 ikusitzen du lenago bala  
 askok obeto gaudela;  
 luza lezake, zergatik zailf dan  
 oso indartzen berela....  
 —Otan maikuak kolpez kendurik  
 erantzau ziran onela.  
 —Nik erderarik ez dakit, eta,  
 nere illobak, ... "au sua!  
 ni bezelase burlatzen dute  
 gure Euskara gasna.

Au mintzatzian arkitu zuben  
 nonbait aifi esan barrena,  
 non alcharikan eserlekatik  
 algezaken azkarrena,  
 esan ziran:—Ail Denak nai dute  
 lege zarrak dakarrena,  
 eta ez dute ezagutzen  
 izkantz dala auzrena.  
 "Miru gaitoak manderatuzten  
 "duten bezela usua,  
 "ezagutela ilizora utzi  
 "gure Euskara gasna.

Eskuarekin sagar egifiaz  
 arturik makillachua,  
 eho aldera abiatu zan  
 aifi eskaldun doatsua;  
 galdi-geldiku jarraitu nion  
 meurtiaz bere pausua,  
 illobetara biurtu zedin  
 aitona gizagaisoa.

V. Irigoin eta Mendragoin.

PRIMO M. OTRAÑO.

"...Idazle batzuen lanak gogor itundu naute. Altube'n liburua gaitzat artuta, otz ikaraz josi didate barenena.

Euskeraren eriotza gertu ote dan iragarri dute bat baño geiagok. Errua idazleak ote duten gañera. Au komerija! Gure elea mendi goitarario aldendu dala irakurri dedanean, Otaño'tar Kepa Mirena, artzaï apal ta erri olerkari aundi aretzaz gogoratu naiz, ta bere "Aiton gizagaixoa" izen buruzko olerki sakona irakurtzen jarri. Senide danak oieratu ondoren, arrats beltz luzeko ixiltasunean bere liburutxoa det lagun. *Euzkadi*-ko irakurleai atsegin izango zaiotelakoan, berak idazten ditut".

### Eta ondoren:

"Jator asko agertu zituan pasadizoak Otaño, bertso-lari bikañak. Ta olerki txukun mamitsu au irakurri ondoren, ementxe gelditu naiz zalantza bizian.

Olerkariak ala aitonak du arrazoi?" Au da gaurko euskel idazlien auzi garrantzitsua".

Orixe da, izan ere, Otañoaren bertso auen muiña: euskeraren etorkizunaren zalantza. Zer izango da azkenean: euskaltzaleak nai deguna ala bildur deguna? Basarri ondo jabetu zan ortaz.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatutako argitaraldia. Onek, aurrekoak bezelaxe, euskara bearrean, euskera; eta 126: luza lezake, txit zailla da-ta; 141: izkuntz dala aurrena.*

Aita Onaindia: *Milla euskal-olerki eder, Karmeldar idaztiak, Larrea-Amorebieta, Bizkaia, 1954. Aldaketak: 50; nabaitutzen etzuela; 90: ari geran biok? (ontan falta); 116: Orren-gaitikan dago euskera; 126: luza lezake, txit zailla da-ta; 141: izkuntz dala aurrena. Ortik aparte, fonetismorik geienak kenduak: nuben, zuben, erri-*

*ya, iya, ziran, aiñ, bizait eta abar idatzi bearrean, nuen, zuen, erria, ia, zidan, ain, bezait eta abar.*

\* \* \*

Euskal festak egin ziran Mondragoien 1896-an. Amabostgarren urtea zan, ain zuzen, euskal festak ospatzen zirala. Beste batzuen artean, onako sari auek jarri ziran, *Euskal-Erria* aldizkariak (XXXIV, 1896-I) eta *Euskal festak Mondragonen - Oroimengarria, 1896* liburuskak dakartenez:

"Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, edozein gai, neurri eta euskal izkera motan jarritako itz-neurtu edo bertso moldaera ederrenaren egilleari, ogei ta amar bertsoaldetik gora iragotzen ez dala.

Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, Kubako gerran Españiaren osotasuna defenditzen duten soldaduak itz-neurtuetan donkitutako oroitzik onenari".

### Erderaz, berriz, onela:

"Un premio de ochenta pesetas y diploma al autor de la mejor composición poética escrita en cualquiera de los dialectos del idioma euskaro, con libertad de asunto y de metro. no debiendo exceder de treinta estrofas.

Un premio de ochenta pesetas y diploma al autor del mejor recuerdo poético consagrado a los soldados españoles que defienden la integridad de la patria en Cuba".

Idazlanak aurkeztutzeko epea onela mugatzen zan euskeraz:

"Lan guziak bialdu bear dira indar-neurtze ontarako, esan dan eran, datorren Garagarrillaren 15-erako".

### Eta erderaz:

"El plazo para la presentación de los trabajos espirará el día 15 de Junio".

\* \* \*

1896 urteko Mondragoiko Euskal Festa oiek uztaren 4, 5, 6 eta 7-an ospatu ziran.

Leenengo egunean, 4-ean, arratsaldeko zazpitan, gotzai eta diputadu jaunak etorri ziran eta aiei arrera egin. Zazpi ta erdietan, salbea.

Bigarreanean, 5-ean, goizeko amarretan, meza nagusia. Sermoia, Aita Vinuesak. Eguerdian, bazkaria udal-txean. Ondoren, Antonio Arzak jaunaren itzaldia. Lau ta erdietan, *esku-dantza* eta txistularien sariketa, Mondragoiko eta Zumarragako taldeak parte artu eta leenengoak irabazirik.

Irugarren egunean, 6'an, goizeko amarretan, *aurresku*, *ezpata-dantza* eta *makilla-dantza*. Arratsaldeko bostetan, literatura-sarien banaketa. Maian eseri ziran jaunak: Inazio Lardizabal diputadua, Alfredo Laffitte, Karmelo Etxegaray, Txomin Agirre, Migel Antonio Iñarra, Migel Salaberria, Felipe Arrese Beitia, Jose Zapi-rain eta Antonio Arzak. Onek irakurri zuan juraduaren erabakia:

“Donostiako Euskal-itz jostaldien Batzarrea dator gaur Mondragoira, kontu ematera, bear dan errespeto-arekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolako-koa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran aldaera guziak, zeñen agiriya egiten dan urteoro-ko Oroimengarri ontan, irabazi dituzte *sariyak*, izkribatzalleen artean: On Pedro Maria Otañok bi, *Kubako gure anaiak* eta *Aitona gizagaisoa* izendatzen diranagatik; On Felipe Arrese Beitiak *Uri kondaira andiko bat* izentzat duenagatik. Irabazi dituzte *aldeerak* On Franzisko Lopez Alén, On Domingo Agirre eta On Jose Artola, *Illunabar bat*, *Agure kanta* eta *Kuban gudan dabilzan España-tarraí* izentzat dituztenen gatik.

Musikalarien artean *sariya* irabazi du On Julian Martinez Billarkoak *Nere Euskal-Errira* azalkaitzat daukan zortzikoagatik. Irabazi dituzte *aldeerak* On Migel Oñate eta On Marzelino Galatas-ek, *Erresill* eta *Zezen yayua* izentzat dituzten zortzikoagatik.

Mondragoin, 1896-ko Uztaren 6-an.

Batzarraren izenean: Dianagusia: Alfredo Laffitte. Goarpelaria: Antonio Arzac”.

Erabaki ori *Euskal-Erria* aldizkariak eta Euskal Festen *Oroimengarria*-k agitaratu zuten.

Pedro Maria Otañok bi sari irabazi zituan, beraz, egun artan, bata gai librekoa eta bestea gai jakiñekoa.

Antonio Arzak jaunak juraduaren erabakia irakurri ondoren, Txomin Agirrek bere *Agure kanta* izeneko olerkia irakurri zuan; eta Felipe Arrese Beitiak *Uri kondaira andiko bat* idaz-lana. Oso txalotuak izan omen ziran.

Saritutako gaiñontzeko lanak Iñarra, Etxegaray eta Zapi-rain jaunak irakurri zituzten. Otañok etzituan, beraz, bereak irakurri.

Urrena, egilleak edo beren ordezkariak maira urbildu ziran, Lardizabal jaunaren eskutik sariak jasotzera.

Ondoren, *eskudantza*, probintziko agintariak dantzatuta, eta bertsolariak. Auen saioa nola egingo zan onela adierazten zuan egitarauak:

“Egingo da Euskal-erriko bertsolarien bilkida edo jostaguda bat, emanik *larogei pezeta*, erdira, bi onenai, au da *berrogei pezeta* bakoitzari”.

Saio orren berri onela emango zuan gero *Euskal-Erria* aldizkariak:

“*La sesión de bersolaris improvisadores dio principio a continuación en el salón principal del Ayuntamiento, haciendo, como siempre, las delicias del público. El Jurado adjudicó el premio por iguales par-*



Jose Zampirain, Pello Errota eta Pedro Maria Otaño, Mondragoiko kalean, bertako 1896-ko Euskal Festetan.

tes a los tres de más edad, dando además una recompensa a un joven pastor de Elgueta que, si continúa ejercitándose, llegará a ser uno de los mejores” .

Zoritzarrez, bertsolarien izenak ez dira esaten.

Gauean, antzerkia. *Euskaldun Fe-dea* taldeak iru lantxo auek aurkeztu zituan: *Alkate berriya*, *Abek istillubak* eta *Aritzaren zumo gozua*.

Urrengo egunean, 7-an, nekazari eta ganaduzaleen sariak. Ondoren, Donostiko Orfeoiak euskal kanta batzuk kantatu zituan. Gauean, kantari talde ori bera Otalorako baiñu-etxera joan zan, ostatzuz an zeuden diputaduei kanta batzuk eskeintzera. Onela dio *Euskal-Erria*’k:

*”El Orfeón cantó con exquisita delicadeza y afinación varios aires euskaros, entre los que figuraban el Ume eder bat, Goizeko izarra, Boga-boga, Illunabarra, unos Coros suecos con letra bascongada, y el Gernikako arbola.*

*Los orfeonistas fueron obsequiados con café, licores, pastas y habanos en el comedor del balneario. Reinó la mayor expansión y se improvisó una sesión de bersolaris, en la que hicieron las delicias de los concu-*

*rrentes los aplaudidos D. José Zapirain y D. Pedro María Otaño” .*

Pedro Maria Otaño ere an zan, bezraz, ziur aski sariak jasotzera bezperatik etorria. Baiña, esan degunez, eta zergatik ez dakigula, bere lanak etzitian irakurri. Dakigunez, eztarri onekoa etzan eta orretxegatik izan zitekean. Baiña gero bertsotan jardun zala esaten zaigu.

Dana dala, egun aundia izan zan ura Pedro Marirentzat, bi sari eder irabazita.

*Euskal-Erria*’k egun artako argazki bat argitaratu zuan, oiñean onela esanez: *”Mondragoi-ko oroitzta - Bersolariak”*. Ezkerretik asita, onako auek dira: Donostiko Jose Zapirain, Asteasuko Pello Errota eta Pedro Maria Otaño.

Leen adierazi degunez, bertso saionan zein bertsolarik kantatu zuten ez da esaten. Baiña oietako bat, dudarik gabeko, Pello Errota izango zan.



(1896)

## KUBAKO GURE ANAI AI

- 1/ Gure lenengo guraso aita  
Adan ta ama Ebaren  
lendabiziko semeak Kain  
ta Abel izan ziraden;  
bañan, kondairan ikusten danez,  
biak anai sortu arren,  
beñere eziñ bizitu ziran  
txit adiskide elkarren;  
orra guda ta gizon illtzeak  
sustraia nondik dakarren.
  
- 2/ Ez al diruri gauza gogorra,  
izanik bi anai bakar,  
nola etziran oiek iritxi  
obeto artzera alkar?  
Kain gaiztoak Abel prestua  
ill zuen al beziñ azkar,  
geroztik onuntz esan liteke  
bizi generala su ta gar,  
oraindik ere zuzendutzeko  
itxura gutxitxo dakar.
  
- 3/ Mundutar danak ibillitzeko  
geroztik esan dan gisan,  
guk ez dakigu zergatik, baño  
nonbait ala komeni zan;  
iya sei milla urtez ondoren  
begira nola gabiltzan,  
bañan beartu izan geranez  
gerran edo gudaritzan,  
españitarrak añekorikan  
ez da beste iñor izan.

- 4/ Nork entzun ez du txit antziñako  
Altabizkarko kantua?  
Zeñek ez daki Ronzesballesko  
*Carlo Magno*'ren patua?  
*Navas de Tolosa*'ko musulmen  
indartza purrakatua,  
ta Numanzian eta Sagunton  
españolai gertatua?  
Gauz oien jabe dan dierrria(1)  
izan zagon maitatua.
- 5/ Ezagaturik *Guzman el Bueno*'k  
zer egin zuen Tarifan,  
atzerritarrak ikusten dira  
oraindik arriturikan;  
eta *Isabel la Católica*'k  
moroak Granadatan  
biraltzen ditu kristandadea  
indartutzeagatikan,  
gero Kolon'i lagundutzeko  
bere patrikaratikan.
- 6/ Arerioak edo etsaiak  
gu estali nai arren loiz,  
Españiako leoi portitza  
nol'ez dan izutu iñoiz,  
ez du galdetzen zenbat diraden,  
nondik datozen edo noiz;  
sorterri ontan beti bizirik  
daude Velarde ta Daoiz,  
zeren biotza azitzen zaion  
dabilenari arrazoiz.
- 7/ Ixil erazten dizkit gauz asko  
bukatu bearrak laster;  
español denak orla izanik  
euskaldunakgatikan zer  
esan nezake, oien laguntzik  
gabe iya iñon ezer  
egiñ ez bada? Ematen diot  
Jaungoiko onari esker,  
guretzat gorde dituelako  
orrenbeste gauza eder.

- 8/ Zenbat erauntsi(2) sartu diraden  
Españiko errietan,  
asko iritxi izandu dira  
agintzera egietan,  
Ebrotik aruntz ezagututzen  
ditugun alderdietan;  
bañan Aitorren arrazak bere  
lurra maite du ziñetan,  
ta euskaldunak libre bizitu  
dira beren mendietan.
- 9/ Nola Erromak mundu geiena  
arturik zeukan mendean,  
gutziz sinismen aundia zuen  
bere gudari jendean;  
ta *Octavio Augusto* asi  
zan euskaldunen galdean,  
esanaz bere gerra-gizonai:  
“Oraindik libre daude an!  
Ea ekarri zaizkidatzute  
auntzak bezela taldean”.
- 10/ Lekobide zan buruzagia  
orduko euskaldunena,  
eun urte eta anbat geiago  
igaroak zituena;  
gero Otzoal bere lagunak  
agintzen zuen urrena,  
Lartaun gaztea oien esana  
zintzo egiten zuena,  
ta ondorengo jende guztiya  
aien antzekoa dena.
- 11/ Sartu ziraden erromatarrak  
gure lur maite ontara,  
bañan etzuten euskaldunikan  
menperatzen iñontara;  
Lekobide ta bere mutillak  
belaun bat lurrean para  
eta tiratzen zuten etsaiak  
illtzen zituen *dardara*;  
azkenerako berak joan bear  
izan zuten Erromara.

- 12/ Erromatarrak talde gogorrek,  
lur asko zuten berendu,  
ta Lekobidek zarrai deituaz  
onela itzegiten du:  
“Jaunak, Ernion denok luzaro  
eziñ gintezke mantendu,(3)  
nere iritziz obe genduke  
alperrik gaudenak kendu,  
ta sasoikoak saia litezke  
ori egingo bagendu”.
- 13/ Gerrari zarrak erantzun zuten:  
“Ederki dago gauz ori,  
eta bertatik prest gaude emen  
denok jarraitzeko zuri;  
gu Ernioko aitzetan beera  
bosteun gizon buruzuri  
amil gaitezen, eta lenbailen  
geren odola ixuri,  
ondorengorik erromatarren  
mende ez dediñ erori”.
- 14/ Beren semeak artzen bazuten  
erromatarren morrontza,  
emazte eta alabentzako  
seguru zetorren lotsa;  
aiton aientzat au pentsatzea  
aiñ zan samiñ ta zorrotza,  
non naitasunen indarrarekin  
altxarik beren biotza,  
ondorengoak bizi zitezen  
autu zuten eriotza.
- 15/ Erromatarrak egonagatik  
oituak ateratzen jaun,  
ikusirikan ezin zutela  
lur ontan geiago irau,  
esan zioten aien errira  
bost ogeikoren kontra eun  
zijoazela; eta arturik  
larogei t’emeretzi *laun*,  
joan zan ta gallen an gertatu zan  
Oiartzungo seme Lartaun.

- 16/ Beñere bestek ez du izandu  
euskaldunak ainbat barren;  
zeñek ez daki zer gertatu zan  
bein batez Beotibarren?  
Orduan ere arerioak  
indar aundiya zekarren,  
bañan geienak gelditu ziran  
illik, maingu edo erren;  
oraindik ere lengoak gera  
askok ezetz uste arren.
- 17/ Miñberatzea gerta liteke  
zenbait egiak esanez,  
bañan ez dute kejakizunik  
Aitorren semeen lanez;  
gure diერი edo patria  
beartu izandu danez,  
naiz serbitzeko orain bezela  
premesia'rik(4) izan ez,  
Euskalerrriak lagundu dio  
bere odola emanez.
- 18/ Noiznai arkitu izandu danez  
Españia bearrean,  
naiz emen bertan edo urruti,  
munduaren bazterrean,  
leku beroan edo otzean,  
itsasoan, legorrean,  
beti azaldu zaio laguntza  
kantauritarren lurean,  
ta euskaldunak ikusi dira  
beste guztien aurrean.
- 19/ Tubal'en kastak ezin kontaala  
oroimen badadukazki,  
mundu guztiak aitortutzen du,  
ez da esatea aski:  
Okendo, Lezo ta Idiakez,  
Txurruka eta Legazpi,  
ta beste askok duten omenik  
etzuten izango noski,  
beren ekintza mirarrietan  
akindu(5) baziran gaizki.

- 20/ Oraiñ, azkenik, Españiak txit  
bera duen Habana,  
erregiñ batek Kolon'en bidez  
eskuperatu zubana,  
da lotsik eta zentzurik gabe  
gure kontra altxa dana.  
Nonbait ez daki espāñitarrak,  
bildutzean elkargana,  
beti arrazoiz guazela ta  
bentzut-eziñak gerana.
- 21/ Kubako kastak, orain dirala  
lareun urte zer ziñaten?  
Pixtien gisa jazkairik gabe  
biluzgorri zebiltzaten;  
ta erakutsi ondorenean  
jazten, izketan ta jaten,  
ari zerate zeren amari  
garratztasunak ematen!  
Ikusiko da beiñ betirako  
aspertzen ote zeraten.
- 22/ Ondo dakigu oraingo ontan  
etzeratela bakarrak,  
zirikatutzen zaituztelako  
atzetikan yankeetarrak,  
egazti arraparien gisa  
luzaturik atzaparrak;  
bañan leoia ez du izutzen  
basakatuena kalparrak,  
eguzkitara guk aterako  
ditugu zuen zatarrak.
- 23/ Zenbat guraso zuekgatikan  
gaur negarra dariola  
arkitutzen da, ikusirikan  
semea falta zaiola!  
Zenbat emazte eta andregai  
eziñ alaituz iñola!  
Ta ala ere ezagutzen da  
ez dizutela ajola;  
errespetatzen ez dezutenak  
inozenteen odola!

- 24/ Agur, gudari españitarrak,  
batez ere euskaldunak;  
zuei begira gaude guraso,  
senide eta lagunak,  
gerok urruti egonagatik  
biotza or daukagunak,  
beti kontaktzen gure ondotik  
falta zeraten egunak,  
bizi geraden arte beñere  
aztuko etzaizkigunak.
- 25/ Ikusirikan ama negarrez,  
semeai laguntza eske,  
geren odola eskeñi gabe  
gu nola egon gintezke?  
Ez, ori eziñ gerta liteke,  
beldur gabe bageundezke;  
beragatikan, anai leialak,  
beti saiatu zaitezte,  
progratu dediñ bageradela  
izena degun ainbeste.
- 26/ Seme maiteak, joan zeratenak  
gerrara Kuba aldera,  
proga zazute gure sorterri  
au dala lengoa bera;  
eta omen au zabaldurikan  
laster mundu zabalera,  
otoitz ta malkoz apaindurikan  
illtzen diranen galera,  
aurki atozte zai daukazuten  
amatxoren magalera,  
goititurikan milla lekutan  
bentzutu duben bandera.

27/ Beraz, manbisak -ja, ja, ja!- guri  
artu nai digute goia?  
Oiek oiñpean sartu nai dute  
Españiako leoia?  
Mundu guztia begira dago,  
eta orain da sasoa  
erakusteko aukeratutzen  
degula betiko oia,  
botatzen utzi baño lenago  
geren aurpegira loaia,  
zergatik gure alde dauzkagun  
indarra ta arrazoa.

*Kubako gure anaiari* deritzan bertso sail luze au ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu degu.

*Euskal-Erria* aldizkariak bere XXXV tomoan argitaratu zuan, 1896 urtean. Aldaketak: 2/4: obeto artzera elkar; 3/9: españitarrek añakorikan; 4/3: Zeñek ez daki Orreagako; 16' garren bertsoa falta; 23/3: arkituzten dan, ikusirikan; 27/10: geran aurpegira loaia.

*Euskal Festak Mondragonen - Oroimengarria - 1896* liburuskun ere agertu ziran bertso auk. Aldaketak: 3/3: guk ez dakigu zergatik, baña; 3/9: españitarrek añakorikan; 3/10: ez da beste iñon izan; 4/3: Zeñek ez daki Orreaga-ko; 16' garren bertsoa falta; 25/3: geren odola eskañi gabe.

Bertso-papera, *Imprenta y lit. de V. Iraola* moldiztegian argitaratua eta Elgoibarko Antonio Arrillagaren eskutik jasoa. Aldaketak: 3/3: guk ez dakigu zergatik baña; 3/10: ez da beste iñon izan; 16' garren bertsoa falta; 19/8: etzuten izango naski; 25/3: geren odola eskañi gabe; 25/10: izena degu ainbeste.

Bertso-papera, *C. Berroya - Vergara* moldiztegian argitaratua, eta Ondarroako Jose Maria Etxabururen eskutik jasoa. Moldiztegi-izen orren aurretik beste zerbait ere bearko luke. Bañia papera puskatuta dago eta asiera falta du. Eta 7, 14 eta 21' garren bertsoak ere ez daude osorik.

Aldaketak: 1/3: lendabiziko semeac Cain da; 1/4: Abel isandu ziraden; 1/8: chit adiskide alcarren; 3/3: guc ezdakigu zergatik bañan; 3/9: Españitarrek añacorican; 4/6: indartsu purracatua; 6/1: Arerico edo etsayac; 6/9: zeren biotza azitzen zayen; 6/10: dabiltzanari

arrasoiz; 7/3: Español danac orla izanic; 7/4: euscaldunagatic zer; 8/7: bañan aitonen arrazak bere; 10/3: egun urte ta anbat gueyago; 10/8: zintzo eguiten zuana; 10/10: oyen antcecoa dana; 11/4: menderatzen iñotara; 12/5: Jaunac Ernion danac luzaro; 13/4: danoc jarraitze-co zuri; 14/7: non maitasunen indarrarekin; 15/9: joan zan ta gayen an guertatu zan; 16' garren bertsoa falta da; 17/4: aita orren semien lanez; 17/8: prezisorikan izan ez; 18/8: cantabriaren lurrean; 19/8: etzuten izango naski; 19/9: beren eguintza mirarietan; 19/10: aguertu baziran gaizki; 20/2: berea duan Abana; 20/5: Ta lotsic edo sentzuric gabe; 20/10: benzutu eziñac gueranac; 21/2: laureun urte zer ziñaten; 21/3: pislien guisa jantziric gabe; 21/4: bilduz gorri zebiltzaten; 25/3: gueren odola eskañi gabe; 25/9: probatu dediñ bagueradela; 26/3: prueba zazute gure sorterri. Ortaz gaiñera, fonetismo berri asko sartzen ditu.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea. Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan. Alde batean bertso auk dituzte; eta bestean, onako izenburu eta asiera dutenak: Bertso Berriyak Mutrikuko Olatzko Pedro-Maria churrurkari jarriak: 1/ Esan dirate bertzo berriyak ondo para albanitza... Aldaketak: bertsoen ordena: 1, 2, 3, 23, 7, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18 eta 24. Falta, beraz, 4, 5, 6, 8, 16, 19, 20, 21, 22, 23, 25, 26 eta 27. Orretzaz gaiñera: 3/3: guk ezdakigu zergatik baña; 3/4: beguira nola dabiltzan; 3/7: europian dauden naciyo azko; 3/9: orlako negargarririk ezta; 3/10: lurraren gañian izan; 7/3: oriyec danac orla izanic; 7/6: gabe iya emen eser; 11/4: menderatzen iñotara; 15/9: joan zan ta gailen an gertatu zen; 16' garren bertsoa falta; 18/2: iñor gure bearrean; 24/1: Agur soldadu sauten gastiak.

*Bertsolariya* astekaria, 1931-XII-20. Bertsoen ordena: 1, 2, 3, 4, 5, 8, 7, 6, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 27' garrena.





Aldaketak: 1/4: ta Abel izandu ziraden; 1/7: nola etziran beñere iritxi; 1/8: maite izatera alkarren; 1/9: irra gerreta gizon iltzea; 1/10: sustraia nondik datorren; 2/1: Adan ta Eba'ren seme oriyek; 2/3: bañan etziran beñere iritxi; 2/4: maite izatera alkar; 2/5: Kain gaiztuak Abel justua; 2/9: oraindikanen mudatutzeko; 3/10: ezta beste inon izan; 4/1: Nork eztu entzun txit antziñako; 4/6: indar zar purrakatua; 4/7: Sagunto'n ta Numanzia'n; 5/1: Ezagaturik Guzman el Bueno; 5/9: gure Kolon'i laguntutzeko; 6/3: Españiako legoi portitza au; 6/7: sorterrri ontan bizi biriak; 6/9: zeren biyotza altxatzen zayon; 7/2: bukatu bear laister; 7/4: Euskalduna'gatikan zer; 7/6: gabe iya ifioiz ezer; 8/1: Zenbat crauntsi sartu izandu da; 8/5: Ebro'tik bera asi eta emen; 8/6: diraden alderdiyetan; 8/7: bañan ama onek lurra beria; 8/8: maitatutzen du ziñetan; 8/9: eta Euskaldunak libre oituak; 9/6: zan Euskaldunaren galdian; 9/10: auntzak bezela artaldian; 10/3: eun urte anbat geyago; 11/4: menderatu ifnotara; 11/7: eta tiratzen zuten kolpian; 11/8: etsaya iltzen zan dardara; 12/6: egiñ gindezke mantendu; 12/9: ta sasiyekuak saya ditezen; 13/3: eta bertatik fin gaude emen; 13/6: bost eun aiton buru zuri; 13/10: mendera ez dediñ erori; 14/1: Beren semeak artu bazuten; 14/3: emazte edo alabarentzako; 14/5: aiton oyentzat au pentsatzia; 14/6: aif samin ta zorrotza; 14/7: non naitusunaren indarrarekin; 15/2: oitura atarutzen jaun; 15/5: esan zioten oyen errira; 17/1: Minberatzia gerta litezke; 17/2: zenbat egiya esanaz; 17/5: gure dicrri edo patria au; 17/8: premi aundirik izan ez; 18/6: itsaso eta legorrian; 18/8: Kantabritarren lurrean; 19/10: portatu baziran gaizki; 20/10: eziñ bentzutu gerana; 21/1: Orain dirala lareun urte; 21/2: Kuba-tarrak zer ziñazten; 21/3: pistiyen gisa larru gorririk; 21/4: ortxen ekusten ziñazten; 21/5: gure aitonak erakutsiyak; 21/6: jaten, izketan ta jazten; 21/7: zeren amari ari zerate; 21/8: garratzasuna ematen; 23/1: Zenbat guraso zubengatikan; 23/8: ez diotela ajola; 24/1: Agur gerrari Españitarrak; 24/8: falta diraden egunak; 26/5: eta emen au zabalduरिकan; 26/11: goituri-kan milla lekutan.

\* \* \*

Argitaraldi auek danak bertso baten faltan daude: 16-garrena bera, eta ori nundik datorren somatzen oso erreza dala derizkiogu. Bertso ortan, izan ere, Beotibarko burruka aitatzen da, Erdi Aroan gipuzkoarrak naparren aurka irabazi zutena. Ori argitaratzea napa-

rentzat mingarria izango ote zan idurituko zitzaien Euskal Festen antolatzailleei eta *Euskal-Erria* aldizkariaren zuzendariari, eta baztertu egin zuten. Baiña Pedro Maria Otañok bere esku--idatzietan gorde egin zuan, eta guk andik artu.

\* \* \*

Bertso auek ere, aurreko saillaren ondotik esan degunez, Mondragoiko Euskal Festetara bialdu zituan Otañok, eta gai jakiñeko saria irabazi, gai librekoa *Aitona gizagaisoa* izeneko saillarekin bereganatu zuan bezela.

Aurreko saillarentzat emandako argibideak aski dirala uste degu, onako onentzat ere.

\* \* \*

Kubako gerra zebillen orduan. Gerra ori 1895'eko otsaillan asi zan. Kubatarren buruzagiak, Maceo eta Máximo Gómez ziran. Españiarrenak, Martínez Campos, Weyler eta abar. Gerra ori zala ta, espñiar abertzaletasunaren suak Españi guztia artu omen zuan. Baita Euskal-Erria ere. Orregatik, Mondragoiko euskal festetarako gai ori aukeratu zan: eta Otañok *Kubako gure anaiai* izena duan sail au bialdu, Españiko eta Euskal-Erriko kondairaren gertakariak aitatuz. Ernioko *leyendak* ere ederki kontatzen ditu.

Ondoren zer gerta bearra zan danok dakigu: Ipar-Amerika gerran sartu eta

Españiak Kuba, Puerto Rico eta Filipinas ugarteak galdu. Baiña ori andik bi urtera izango zan, 1898'an. Mondragoiko Euskal Festak ospatu ziranean, eta Otañok bertso auk moldatu zituanean, 1896-an alegia, etorkizuna diz-diz ikusten zuan emengo jendeak.

Kubako gerrari buruzko bertsoekin *Auspoa*-ren 161-garren zenbakia osatu genduan. Argibide geiago nai dituanak, antxe arkituko ditu.

\* \* \*

Bertso auk doiñu onekin kantatu digute Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak:

Gu - re le -  
 nen-go gu-ra - so ai-ta A-dan ta  
 a - ma E - ba - ren len-da - bi -  
 zi-ko so-me - ak Ka-in ta A-bel i -

zan zi - ra - den; ba-ñan kon-  
 dai-ran i-kus-ten da-nez bi-ak a-  
 nai sor - tu a - rren, be-ñe - re  
 e - ziñ bi-zi - tu zi-ran txit a - dis-  
 ki-de el - ka - rren, o - rra gu-  
 da ta gi-zon ill - tzeaksus-tra-i - a  
 non-dik da - ka - rren.

1. Nación. (Otañoaren oarra)
2. Invasión. (Id.)
3. Bazkatu. (Id.)
4. Obligaziorik. (Id.)
5. Portatu. (Id.)

## MAITARO

### *On Migel Oñateren musikan*

Agertzen zeranean  
goizean goizetik,  
illeak apainduaz,  
zere gelatxotik,  
atarira begira,  
leiotxoan txutik,  
eguzkiak agurtzen zaitu  
mendiyaren ertzetik.  
Txori txiki politak,  
arboletan iyuak,  
bidaltzen dizkitzute  
pipirripiyuak.  
Azkenik, denak joanik,  
eziñ utzi  
leku au nik.  
Izan zaite nitzaz  
erruki,  
ez beti penatzen  
eduki.  
Beti, beti...  
Zenbat gau eta egun  
pentsatutzen zukan!...  
Biotza  
erretzen  
dadukat  
nik suban...  
Nere biotz gaxua  
puska bat zugana  
dijoa, maite laztana.  
Esan zaidazu itz alaiez:  
Baietz, baietz...

Alkarri egiñikan  
anparo,  
biziko gera biyok  
luzaro  
maitaro.

*Maitaro* au ere Pedro Maria Otañoaren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik kopiatu da. Eta guk beintzat ez degu beste inun arkitu.

Izenburuan esaten danez, leen ere bein baiño geiagotan aitatu degun Migel Oñate musikalariai doiñuren

bat asmatu zuan, eta letra ipintzea Otañori eskatu.

Leen ere esan degunez, Migel Oñate dalako orrek *aldeera* irabazi zuan Mondragoiko Euskal Festetan, musikalarien sariketan, *Erresill* izeneko zortzikoarekin.

(1896)  
**AUR GURGARRIARI**

- 1/ Eguzki argitsua  
zeru urdiñean  
dizdiztuaz Sarako  
mendien gañean,  
ta gero egi eta  
ibar berdiñean,  
azaldu zan goiz batez  
gis atsegiñean.
  
- 2/ Irteten dan bezela  
uxoa kabitik,  
aingeru txit garbi bat  
Sarako erritik  
atera zan goiz artan  
ait'amen ondotik,  
fedearen bidea  
jarraitzeagatik.
  
- 3/ Konpesatu ta Jauna  
Naparroko Beran  
artu ta zijoala  
Frantziko sarreran,  
nola España ta  
biak zeuden gerran...  
Ai, Magdalentxo, zeñen  
kupigarri zeran!

- 4/ Gaitzik egiñ gabea  
zu zere bizitzan,  
katibatu zinduzten  
lapur baten gisan,  
ta eguzkia laster  
odeiz estali zan;  
oben(1) aren testigu  
etzuen nai izan.
- 5/ Errukiz gezurtxo bat  
eskatu zizuten,  
gaitz gabea ziñala  
ikusten baitzuten;  
ta nola etzenduen  
baietz erantzuten,  
Pinet gogorragana  
eraman zinduzten.
- 6/ O, Pinet! Zuk amarik  
bear etzenduan!  
Aingerua illtzeko  
agindu zenduan!  
Magdalena Larralde  
txit alai zeguan,  
eta *Salve Regina*  
kantatu onduan,  
Doni-Juandik irten ta  
sartu zan zeruan.

Sei bertso auk ere Pedro Maria Otañoaren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu.

Izenburuaren ondoan, ziur aski bertsoak sariketara bialdutakoan ezaugarria izan zedin, itz au irakurtzen da: *Magalentxo*.

Bertso auk ez ditugu, guk beintzat, beste iñun arkitu.

\* \* \*

Dakigunez, beste sail bat ere badu Otañok Sarako Magdalena Larralderi buruz, 1895 urtean moldatu eta Bera-Bidasoako sariketara bialdua. Leenagoko orrialde batean eskeiñi diogu irakurleari.

Bigarren sail au noizkoa ote degu?  
Bertsoak ez dute olakorik esaten.  
Baiña leenengo saillaren ondoan,  
Berako sariketaren berri ematen duan  
eskutitz bat agertu degu, Gillermo  
Iguaran dalako batek izenpetuta.  
Eskutitz ortan, besteak beste, onela  
esaten da:

*"En vista de este resultado, el tema del concurso del próximo año será el mismo".*

Ala, 1896 urteko sariketarako ere,  
gai bera jarri zan, Magdalena Larralde  
alegia, eta Zuberoan ospatu, Maulen.

*Euskal-Erria* aldizkariak onela  
adierazten zuan bere XXXV tomoan,  
1896 urtean:

*"Juegos Florales en Mauleón.*

*Los Juegos Florales que todos los años se verifican con gran brillantez en la región vasco-francesa, con la cooperación del insigne bascófilo Mr. Antoine d'Abbadie, de la Academia de Ciencias de París, se celebrarán este año en la bonita villa de Mauleón.*

*La composición bascongada versará sobre el tema "Magdalena Larralde, de Sare".*

*Hace cerca de un siglo, cuando el gobierno francés declaraba la guerra a España, ordenó al mismo tiempo a las autoridades la persecución de los católicos y la clausura de las iglesias católicas. La mayor parte de los cristianos emigraron, para escapar de las iras de sus perseguidores, y se refugiaron en gran número en la provincia de Navarra.*

*No pudiendo Magdalena Larralde encontrar un sacerdote en Sara, marchó a Vera, ya en la provincia de Navarra, a fin de recibir el Sacramento de la Penitencia.*

*A su vuelta a Sare, fue detenida por los soldados franceses que guardaban la frontera. Convencido el oficial del piquete de que Magdalena no era una espía, quiso salvarla, y al efecto la aconsejó que dijera a su jefe que había pasado a España con objeto de visitar a una amiga. A lo cual replicó Magdalena que no mentiría ni para salvar la vida.*

*Entonces el jefe de las fuerzas la condenó a muerte, sin juzgarla y sin verla siquiera.*

*Magdalena, esta mártir de la verdad, fue ejecutada en San Juan de Luz.*

*Magdalena entregó su alma a Dios entonando el "Salve Regina".*

*Esta balada basca, que debe ser cantada, no podrá tener más de cincuenta versos.*

*Las composiciones deberán ser enviadas antes del 10 de Agosto a M. Lasarre, imprenta-librería, calle Gambetta, Bayona (Francia)."*

Baiña epea luzatu egin zan. Onela  
dio *Euskal-Erria* aldizkariak, bere  
XXXV tomoan, 1896'an:

*"Fiestas Euskaras de Mauleón (Francia) Urt, 6 Agosto 1896.*

*Sr. Director de la Euskal-Erria.*

*Muy Sr. mío y de toda mi consideración: Suplico a V. tenga la bondad de anunciar que el plazo para la admisión de poesías bascongadas con destino al concurso abierto por Mr. Antoine d'Abbadie y que debía terminar el 10 de los corrientes, se prorroga hasta el 18, pudiendo por lo tanto hasta dicho día ser enviadas las composiciones que quieran entrar en el referido concurso poético. Mr. Antoine d'Abbadie, siempre generoso, se propone distribuir este año los premios de los dos últimos años también.*

*Así, pues, el premio de la mejor poesía será de 100 francos con su makilla de honor, y los 140 francos restantes serán divididos entre las dos mejores poesías que sigan a la primera.*

*Suyo afmo. Fr. Basilio Joannategui."*

Leenengo saria, Diharassarry,  
Ortzaitzeko apaizak irabazi zuan. Bere  
lanaren izena: *Madalen Larralde saratarra hamabortz urtetan hila, 1794an.* Bigarren saria, Otxandioko Felipe Arrese Beitiak. Olerkiaren izena: *Euskaldun martire, Sara-tar neskatilla Larraldeko Madalenari.* Irugarrena, Donostiako Frantzisko Lopez-Alen jaunak eskuratu zuan, *Larraldeko Madalenari oroitz bat izenekoarekin.*



Ona nola dion *Euskal-Erria* aldizkariak, bere XXXV tomoan, 1896-an:

“MAULEKO ESKUALDUN BESTAK

Aitzineko astean ziren Eskualdun Bestak Mauleko hirian. Urte oroz han edo hemen, Espainiako edo Frantziako eskualdun herri batean, aldizka eman arazten ditu besta eder hoik Antonio d'Abbadie jaun jakintsun, Eskual-herriaren ongi-egile handiak.

Behin ere baino ederrago izan dire aurten beraz besta hoik Maulen. Bazen an pilota partida ikusgarririk; ba eta koplari errikerik; asko eta asko jostagailu zaar, Eskual-herrian baizik ezagutuak ez direnik.

Orotako oroitzenen ohoragarriena eta iraunkorra besta hoitan izaten da eskualdun koplarien *prima*. Badire, han berean edozoin solas-gei hartu eta mintza direnak; zoin hobeki. Badire aitzinetik artarekin egin koplak batzu igortzen dituztenak. Aurtengo koplarien geia zen d'Abbadie jaunak berak autaturik emana.

Hirugarren aldia zuen Eskualdun Besta hoitakotzat *Madalen Larralde* saratar neskak gazte zenaren laudorioak behar zituztela koplariet egin. Lehen bi aldietan agertu koplak jaun jujeek ez aski eder atzemanik, berriz emana zen solas-gei bera, *prima* irabazi uste zuketenen eskutara.

Oraikoa hiru irabazle agertu dire: frantses bat eta bi espainiar; frantsesak ukan du lehen *prima*, *larrogei ta lau libera* eta eskualdun *makila* eder bat. Bi espainiarrek batak bigarren *prima*: *eun libera*; hirugarrenentzat, *berrogei libera*.

Lehen *prima* irabazi duen frantses eskualduna da Orzaizeko jaun erretoa. Diharasarry, Sarako semea.

Anitz atsegin dugu, zeren frantses eskualdun batek dituen hobekien emana bertsutan eskualdun frantses neskak garbi kartsuaren laudorioak. Sarako herriarentzat ere zer ohorea ez da Sarako seme batek emana izaita bertsu eder ukigarritan!

Zuzen zen hori horrela gerta zadin. Ezen alde batetik Sarako herriak aspaldidanik badaduka erlisioneari atxikimendu; bai eta eskualdun mintzaia zaharrari bertez asko herritan ez bezalako gozo bat, ahotik beharria dohana.

Bertzalde nehon ez dute *Madalen Larralde* haur gaixo zenarentzat eginak diren koplak hoiek bihotz gehiago ukituko Saran berean baino; zeren den oraino han ageri, eta xutik azkar egoki, neskak kartsuaren sort-otzea. Are gehiago atseginekin irakurtzen dituzte beraz, herritar baten oroitzenen eginak direlakotz.

Behinik behin guk hemen, *Eskualdunear*, gogotik emaiten ditugu iragan direlako bestetan lehen *prima* eramane duten bertsuak”.

Ondoren, iru irabazleen olerkiak agertzen ditu *Euskal-Erria*'k; Diharasarry, Felipe Arrese Beitia eta Frantzisko Lopez- Alen jaunena.

\* \* \*

Pedro Maria Otañok, Magdalena Larralderi moldatutako bigarren sail au Mauleko sariketara bialdu ote zuan? Saririk irabazi gabe gelditu bazan ere, ditekera da ori ere noski. Guk baietz esango genduke. Txetatsun bat bada orrela pentsa arazten diguna.

Bera-Bidasoako sariketarako, olerkiak etzuten irurogei lerrotik pasa bear. Baldintza batek ala eskatzen zuan. Eta Otañok, ain zuzen, sei amarreko egin zituan. Irurogei lerro, beraz.

Mauleko sariketa ontara, berriz, olerkiak muga estuagoa zuten: berrogei ta amar lerrotan errenditu bear. Eta Pedro Marik bost zortziko eta bukaeran amarreko bat egin zituan; berrogei ta amar lerro beraz. Baldintza orrek eskatzen zuana bete nairik ari zala ematen du.

Baiña, oker ez bagaude, zelebrekeri bat gertatu zan baldintza orrekin. Bidasoaz ego aldean oi dan bezela idatzi zituan Otañok bere bertsoak: zortzi lerrotan, *zortziko* izena ere ortik datorkie ta; eta azken bertsoa amar lerrotan, *amarrekoa* izanik. Baiña irabaztunak, Sarako semea eta Ortzaizteko erretoa zan Diharasarry jaunak alegia, ipar aldean oi dan bezela idatzi zituan bere bertsoak, lau lerrotan alegia. Ain zuzen Pello Mariren leenengo bostak bezelako-

xeak ziran bertso oiek: lau puntukoak eta puntu motxekoak. Baiña lau lerrotan idatzirik, bi aldiz geiago idatzi zezakean. Ala, amabi bertso aurkeztu zituan; berrogei ta zortzi lerro, beraz. Otañok, berriz, sei bertso besterik ezin bialdu.

Bera-Bidasoako sariketan ere berdin gertatuko zan bearbada. Irabaztu-

nak ere ipar aldekoak baitziran: *Baigurako bi artzain* Dihara-ssarry au eta Dagerre, Irisarriko erretorea eta Joanes Otxalde. Baiña auen bertsoak ez ditugu ezagutzen.

---

1. *Crimen*. (Otañoren oarra)

## AITONA ETA ILLOBA

- 1/ Esaera zarra da  
gizona zartzean,  
eta bere semeak  
guraso jartzean,  
gero illobatxoak  
beregantzean,  
aiton buruzurien  
sallean sartzean,  
berriz arkitzen dala  
gazteen antzean.
  
- 2/ Aita batek semea  
zenbat maite duan  
argiratzeko itzik  
ote da munduan?  
Bañan aitona on bat  
illoben onduan,  
etxean, atarian,  
oian, otorduan...  
Maitetasunak ez du  
izenik orduan.
  
- 3/ Jaio balitz bezela  
seme bat bi aldiz,  
aitonak illobari  
aïñ naitasun aundiz  
begiratutzen dio,  
ta beti par-irriz;  
pozkidaz betetzen da  
aren gaiztakeriz,  
esanaz: “Ondo dago;  
egïñ zazu berriz”.

- 4/ Illunabartxoan zan  
-ain daukat goguan!-,  
mendi-bide batean  
erriruntz nijuan;  
baserri txuri baten  
ate inguruan,  
aritz baten azpian  
aiton bat zeguan,  
erdi negar ta farrez  
txit desoseguan.
- 5/ Aitona maitatia  
etzegoan lasai,  
begiratuaz bere  
inguruko gauzai,  
eguzkiaren agur  
ta azken dizdizai,  
eta izar goiztarren  
argite eskasai,  
eskolara joandako  
illoba baten zai.
- 6/ Alako batez sasi  
aldamenekotik  
xoxo bat atera zan  
presaka gogotik,  
sartu zitzaiolako  
arri bat ondotik,  
ta txakur salatia  
saltatu zan goitik;  
orduante zetorren  
aurra eskolatik.
- 7/ Aitonak, egiñ nairik  
benazko papera,  
esan zion: “Illoba,  
etorri al zera?  
Eskolara bidaltzen  
zaitut ikastera,  
ta oraiñ noa zuri  
galdetzen atera;  
ez dago afaririk  
alperra bazera”.

- 8/ “*Buenas tardes, aitona;*  
Pinto, ago geldi.  
Nik berorri maite det,  
*konsolatu bedi;*  
*no me frunza Vd. el ceño*  
baldiñ al baledi,  
gaur maisuak esan dit  
noizbait gizon aundi  
ni egiñgo naizela  
jaten badet ongi”.
- 9/ “Erakusleak ori  
esan dizu beraz?  
Gustatu egingo zan  
zure izaeraz;  
bañan ni arritzen naiz  
daukazun izkeraz,  
beragatikan emen  
jakiñ nai det benaz,  
esazu: maisuak bai  
al daki euskeraz?”.
- 10/ “*Cá, hombre! Ni...*”. “*Ixo!... O!*  
Jaungoiko aundiya!  
O Tubal ta Aitorren  
izkuntza garbiya!  
Iya gaur ñorekiñ  
ez gintezke fiya...  
Ta zer erakutsitzen  
dizute, txikiya?”.  
“Estudiatzen ari  
naiz jeografiya”.
- 11/ “Jeografiya(1) nola  
gauza ona baitan,  
zuk ez dakizu zenbat  
gustatutzen zaitan.  
Esan zazu euskara  
zenbat probintzitan  
mintzatutzen dan, zenbat  
kale ta erritan,  
eta al baldin bada  
zenbat baserritan”.

12/ “Ori erakutsitzen  
ez digu maisuak,  
nik beste gauzak dauzkat  
goguan jasuak”.  
“Alderdi ona dauka  
euskara gaisuak!  
Bañan zuk oker eman  
dituzun pausuak,  
zuzenduko dituzte  
zure gurasuak.

13/ Atoz, nere iloba,  
goazen afaitera,  
zure guraso eta  
senide tartera;  
aita ta amatxori  
noa esatera,  
len zabiltzan ortatik  
lenbailen atera  
ta bidaltzeko beste  
eskola batera.

14/ Gu argitasunaren  
etsaiak ez gera,  
bañan, ai!, zu, iloba,  
zuaz buruz-beera  
zere jatorritikan  
ezkutatutzero...  
Beti saia zaitez au  
buruan artzera:  
euskera da lenengo,  
ta gero... euskera”.

Amalau bertso auek ere Pedro  
Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko  
esku-idatzian arkitu ditugu, eta andik

kopiatu. Guk beintzat ez dakigu inun  
argitaratu ziran.

1. Luziazalda. (Otañoren oarra)

(1897)

## ANAITASUNA

Ikusirikan arrai zatarrak,  
arrapatutzean aula,  
erruki gabe bizi-bizirik  
sabeleratzen duala,  
gisa berean pizti gogorrek  
menderaturik argala,  
onen karraxiz kupitu gabe  
puskatzera daramala,  
gizonak oei begiraturik  
10 esaten du bereala,  
ikaraturik nola indarrak  
daukan agintea ala,  
“arrazoiaren argirik eta  
zentzu gabeak dirala”;  
ta sinisturik bera askozaz  
biotz obekua dala,  
jakiñik Jaunak zentzua eta  
kupira eman dizkala,  
20 pentsatutzen du alako lanik  
egiño ez lukeala...  
Aitortutzen det lotsa aundi bat  
barrenen sartzen zaidala,  
iduriturik inoiz gizona  
piztiak beziñ zitala.

Arrazoiaren argi gabeak  
nola diran pizti denak,  
ta ezagutu ez litzateken  
ematen dituzten penak,  
oiek dirade barjakindeko(1)  
30 kargatik libre daudenak;



40      bañan ez dira orla arkitzen  
          gizonikan lotuenak,  
          atzera dauden basati edo  
          salbajerik galduenak,  
          zergatik diran Jainkoak bere  
          antzez egiñ zituenak.  
          Alaxen ere barkatzekuak  
          dira okerrik geienak,  
          ume traketsak beste gauzarik  
          ez diran gizon aienak.  
          Nola arritu ez egiteaz  
          obra on eta zuzenak,  
          Jesukristoren Lege Santua  
          iritxi etzaiotenak!

50      “Aita nerea, barka zaiezu,  
          ez dakite zer egiñ duten!”.  
          Begira emen Maisu aundiak  
          nola digun erakusten,  
          ezaguerarik gabeak zenbat  
          gaitz gutxiago dituzten,  
          saiatu arren beste iñoren  
          zaiñ eta ezurrak austen.  
          Nor arrituko da itxua ez  
          ibilliagatik zuzen?  
          Bañan gu oitu baldin bagera  
          txikitandikan ikusten,  
          zuzenbidea jarraitutzeko  
          argidotu baginduzten,  
          argaltasun ta zitalkeriak  
 60      zertan ez ditugu uzten?  
          Ondamutasun ta griña txarrai  
          zergatik diegu eusten?  
          Gerra kontua beste gauzarik  
          iya ez degu entzuten...  
          Agintariak, begira gero  
          zer lan egiten dezuten!

70      Kristau jatorrak izanagatik  
          asko daude gelditurik,  
          beren bizitza ta izaerak  
          orretara bearturik,



irakurritzen ez dakitenak  
ta ez aditzen oiturik  
gizon argidotarren artean  
maiz izaten dan konturik.  
Orregatikan ikusten dira  
askotan txit beroturik,  
ezer balio ez duten gauzak  
oso aundizat arturik,  
edo aundiak ezerezera  
80 beren ustez biurturik;  
erabaki nai eta iñola  
itzikan eziñ neurturik,  
beren antzeko aditzallea  
bullaka iya gorturik;  
ta berak duten trakeskeriaz  
azkenian asperturik,  
altxatzen dira eserlekutik  
atzaparrak goititurik,  
ta asten dira elkar zanpatzen  
90 ukabill tzarrak loturik.  
Ustez jakite zerbait duena,  
oieri begiraturik,  
egiten duten baldarkeriaz  
gelditzen da arriturik,  
esanaz: “Nola ezagutzen dan  
daudela atzeraturik!”.  
Bai, egiya da, ori geienak  
daukagu ezaguturik,  
bañan au errez eraman leike  
100 ez balitz okerragorik;  
aiengatikan gutxitan oi da  
familiarian lutorik;  
gizon aundien iñozokeriz  
gaude onetaraturik.  
Nola nai dute ez izatea  
berentzako errenkurik?

”*Pax in terra hominibus bonae  
voluntatis*” len esanik;  
110 “ez degiozu besteri egiñ  
zeretzat nai ez dezunik;

- gizon guztiak anai zerate;  
jakiñ zazute azkenik  
ez dala iñor Jainkoarentzat  
aztuta gelditzen danik”.  
Badago kristau egiazkorik  
txit ondo ez dakianik  
oiek Jesusen itzak dirala  
Berak legetzat emanik?  
Gañera denok barjakindean(2)  
120 dauzkagun gauzak izanik,  
eta jakiñik ontzaz kanpora  
ez dala bide zuzenik,  
nola liteke arkitutzea  
aiñ dollorrik, aiñ zekenik,  
arrazoiaren lege santura  
erori nai ez duenik?  
Begira nago ta ala ere  
eziñ det sinistatu nik  
130 kristau artean arkitutzea  
orrelako txartasunik.  
Zertako dira erakusleak,  
zertan egiñ ortan lanik  
araudeari(3) ez ematekotz  
jakintsuak aitormenik?  
Aundi gaiztuak diran tokian  
ez eskatu txiki onik!
- 140 Leundu gabe oraindik dauden  
gizon illun ta zakarrak,  
bizi diranak atzeratuak  
diralako basatarrak,  
ikusten dira beren artean  
luzaturik atzaparrak,  
lagundutzen ez diotelako  
izketan mingaiñ baldarrak,  
eta trakestu dituelako  
arduak edo pattarrak.  
Bañan orien egiñpideak  
izanagatikan txarrak,  
150 bestek gutxitan nozitzen ditu,  
baizikan beren bizkarrak.  
Aserretzera iritxitzean  
gizon aundi ta azkarrak,

160            utsa litzake ortaratuko  
                 balira berak bakarrak;  
                 ordea oiek jotzen dituzte  
                 gerra-soñuko adarrak,  
                 deituaz gazte sasoi dutenai,  
                 utzirik ume ta zarrak,  
                 ta emakume indar gabeak  
                 kendurik beren senarrak;  
                 kupitu gabe ama gaisoen  
                 zispuru eta negarrak,  
                 ta gizonari deitzen dioten  
                 emazteen deadarrak...  
                 Gisa orretan naspillaturik  
                 pakean zeuden baztarrak,  
                 bukatzen dira dama kutunen  
                 abo politeko farrak,  
170            itzaldurikan begi alaien  
                 dizdizarizko txingarrak.  
                 Aitonak makur, amak auldurik  
                 ta goseak illtzen aurrak,  
                 nola ez daukan zer kendurikan  
                 len tititsu zan bularrak,  
                 zergatik kolko oparotsuak  
                 gelditu diran medarrak.  
                 Lengo arto ta gari soroak  
                 estalitzen ditu larrak,  
180            eta etxean ziran jankaiak  
                 kixkali su eta garrak,  
                 arkiturikan lurperatuak  
                 nagusi eta maiztarrak.  
                 Baleike iñor ontaratzea  
                 munduan bizi bearrak?  
                 Begirozute albait kupidaz,  
                 o gizon argidotarrak!

                 Esaten da, ai!, bearrezkoa  
                 dala iñoiz gerratea!  
190            Zeñek naiko du bere amari  
                 iñork miñik ematea?  
                 Ez da orduan arrazoizkoa  
                 beraren alde joatea,

- 200 baldiñ oskaitu(4) al baliteke  
egiñ dioten kaltea?  
Bai, au da seme leial guztiak  
daukagun borondatea.  
Bañan zertako da ipiñtzea  
lurra odolez betea  
isurtzen dana geiena bada  
gaitzik gabeko maitea?  
Ez da ohea beste dierri(5)  
batek artzea partea,  
ta egiazko juez egiñik  
kulpaduna bereiztea?  
Merezi badu, kendu bizia  
edo erantsi katea;  
gaizkirik egiñ ez duenari  
ohea da esatea:
- 210 “Zurekiñ ez det zer ikusirik  
ta etxera joan zaitea”.  
Ama leialak beti naiko du  
seme onak izatea,  
txarkeri gabe al baldin bada  
arrazoi eramatea,  
zergatik gerrik onena baño  
beti obe da pakea.
- 220 Izutzen gera neguko arrats  
ekaitztsu ta illunean,  
oñazkarren su errabitsuaz  
turmoi t’arrijas unean,  
itsasoaren orro-burrumba  
iritxitzen zaigunean,  
ujola edo sua gallentzen  
ikusten ditugunean.  
Ikaratuak arkitzen gera  
gaitz bat datorkigunean,  
sosegu edo lasaitasunik  
iñon ez daukagunean,  
beldurrez eta larritasunez
- 230 beti estutasunean,  
gure bizia aiñ da tristea  
pakerik ez degunean!  
Ta ala ere gañera gerok  
gerra piztu azkenean?

Aitor dezagun mundutarrak ez  
gaudela zentzun onean,  
guda, burruka eta bekaitza(6)  
maiz darabiltzkigunean.  
240 Bañan oraindik sartu gintezke  
anbat bide zuzenean,  
sinistu eta pentsaturikan  
Maisuaren esanean,  
begiraturik nola negua  
igaro ta ondorean,  
itsaso ta lur, landare, lore  
denen alaitasunean,  
eguzki goxo, txori joxtallu,  
aize epel bigunean,  
250 gau izartsuan illargiaren  
begirakun txukunean,  
errekaxoen mur-mur soñuan  
non-nai, goian eta bean,  
*ori guztiya pakea dala*  
ta askoz gisa obean  
gizona aisa bizi leikela  
arrazoiztutzen danean,  
len txarrerako ainbeste griña  
onerako duanean,  
armak utzi ta aitzurrak artu  
260 eta soroan lanean,  
edo bakoitzak zerbait mesede  
egiñ lezakeanean,  
aita ta ama, senar, emazte  
ta aurrak aldamenean,  
otorduetan ta arratsean  
bildutzen diradenean,  
senide, aide t'adiskideak  
maitaro datozenean,  
pake santuak elkarganako  
270 dakarren naitasunean,  
munduan izan gintezkeala  
gu zoriontasunean,  
lagun urkoa bear bezela  
maitatzen dakigunean.  
Otoitz egiñaz bukatutzen det  
Jainkoaren izenean,

dollortasun ta gaitzak kendurik  
pakezko osasunean  
Berak ipiñi gaitzala, arren,  
denok anaitasunean.

*Gutistea*(7)

“Gerrik onena zer da azkenik?”.

“Da doakabetasuna;  
biotz gogorren zitalkeria,  
pozoiezko erantzuna;  
arlotegitza ta oñazea,  
gosea t’eritasuna;  
eriotza eta infernua...”.

“Ta pakea?”.

“Osasuna”.

Bertso sail luze au ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artua degu.

Izenburuaren azpian itz auek irakurtzen dira: (*Oyartzunako*) *Tema obligado* (*Ier premio*) (*Pakea*). Izan ere, geroago zeatzago adieraziko degunez, Oiartzungo Euskal Festetan egin zan olerki-sariketarako moldatu zuan Otañok sail au. Gai jakiña zan, eta leenengo saria berak irabazi zuan. (*Pakea*) ori, berriz, Pedro Mariren izen-abizenak gordetzen zituan sobrearen gaiñean idatzitako ezaugarria izango da.

*Euskal Festak Oyartzun-en 1897 Oroigarria* liburuxkan argitaratu zan bertso sail au, batere aldaketarik gabe.

*Euskal-Erria* aldizkaria, XXXVII tomoan, 1897. Aldaketa: 220: turmoi t’arriyaz unean.

Bertso-papera, *Imp. de V. Iraola* moldiztegian argitara emana, Tolosako Baleriano Mokoroaren paperetan ager-

tua eta beraren seme Aita Justo Marik bialdua. Aldaketarik ez du.

*Pedro Maria Otaño: Alkar liburua, Buenos Aires - Tipografía "La Baskonia" Victoria 1088 - 1904.* Aldaketa bakarra du: 281: *Gutistea* itzaren lekuan, *Laburgoa* idazten du, *resumen* esan nai duala beeko oar batean adieraziz.

*Otaño'tar Pedro M'ren: Olerki onenak - Alkar - Iñaki Deunaren irarkolan - Garibay, 28 Donostia 1930.* Aldaketak: 109: ez egiozu besteri egiñ; 148: falta; 150: baizikan beren bizarrak; 197; Bañan, ¿zertarako da ipintzea; 199: isurtzen dala, geyena bada; 208: obea esatea; 236: gaudela zentzu onean; 257: lan txarrerako ainbeste griña; 262: egiñ lezakenean; 277: dollorkeri ta gaitzak kendurik; 281: Laburgoa.

*Pedro Mari Otaño'ren Bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1959.* Onek aurrekoaren aldaketa oiek berak ditu.



\* \* \*

Esan bezela, Oiartzungo Euskal Festetako olerki-sariketarako bialdu zuan Otañok bertso sail au. Baldintzak 1897-ko apirilaren 20-an agertu ziran, eta irugarrenean onela esaten zan:

“3-garren. Larogei pezetako sari bat eta bitezarra, edozein euskal-izkera motan jarritako itz-neurtu edo bertso moldaera ederrenaren egilleari, pakearen mese-deak kantatzen dituela.”

Erderaz, berriz, onela:

“3º Un premio de ochenta pesetas y diploma al autor de la mejor composición poética, escrita en cualquiera de los dialectos del idioma euskaro, con libertad de extensión y de metro, y dedicada a cantar los beneficios de la paz” .

\* \* \*

Epai-maiaren erabakia onela eman zan, *Euskal-Erria* aldizkariak, bere XXXVII tomoan, 1897-an, dakarrenez:

“Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Oiartzuna kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoro-ko Oroimengarriyan, irabazi dituzte *sariyak*, izkriba tzalleen artean: On Blas Pradere, On Pedro Maria Otaño eta On Baleriano Mokoroak, *Oyartzun eta bere seme ospatsubak*, *Anaitasuna: Pakea*, eta *Damuba... garaiz* izentzat dituztenen gatik...

Donostian, 1897-ko Garagarillaren 26-ean.”

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkariaren zenbaki orrek berak idazlan luze bat agertzen du, *Fiestas Euskaras de Oyartzun* izen-buruarekin. Ortik artuak ditugu orain emen esango ditugunak.

Asieran onako goralpenak egiten dizkio Oiartzungo erriari:

“...*Oyartzun, en que parece como que no sólo se aspira, sino que se liba la savia de la vida euskara, el espíritu tradicional de nuestra gente, no bastardeado ni adulterado por influencias extrañas. Todo allí respira y difunde euskarismo: el ambiente, el paisaje, las gentes que lo pueblan, hasta la misma franca, sencilla y nativa rusticidad, ajena a todo amaneramiento y a todo falso convencionalismo social, que en ellas se nota.*”

Uztaren 3'an, larunbata, gotzai jaunaren etorrera. Ondoren, Eslavaren Salbea.

Biamamonean, 4-ean, igandea, amarretan, meza nagusia, Cherubiniaren meza kantatuz. Sermoia, Aita Vinue-sak. Ondoren bazkaria, erriko udaletxean. Diputazioaren buru zan Lizarriturri jaunak eta gotzai jaunak itzaldi bana egin zuten erderaz; eta Antonio Arzak jaunak beste bat euskeraz.

Arratsaldean, erriko plazan, *esku-dantz*a dantzatu zan, *aurreakua* eta *atzesakua* Jose Joakin Egaña eta Jose Elozegi diputadu jaunak egiten zutela.

Ondoren, Donostiko Orfeoia onako kantu auek: *Agur oiartzuarrak*(8), *Festara*, *Ezkonberriyak*, *Coros suecos* Pepe Artolak euskerazko letra ipiñita, *Intxauspeko alaba*, *Goizeko izarra*, *Ume eder bat*, *Boga-boga* eta, azkenik, *Gernikako Arbola*.



Urrengo egunean, 5-ean, astelena, ganaduzale eta nekazarien emaitzen erakusketa.

Arratsaldeko lau t'erdietan, udal-  
txean, idazleen sariak banatzea. Leenengo, Antonio Arzak jaunak epai-  
maiaren erabakia irakurri zuan. Urrena, Otañoren txanda. *Euskal-  
-Erria* aldizkariak onela dio:

"El laureado poeta D. Pedro María Otaño dio a  
conocer, con satisfacción de la numerosa concurrencia  
que llenaba el salón y que estalló en nutridos aplausos,  
su poesía Anaitasuna, de la cual excusamos hacer elo-  
gio alguno, después del juicio que ha merecido del  
Tribuno literario que la examinó, y que es la mejor eje-  
cutoria de su mérito."

Ondoren, saritutako beste idazle  
guziak beren lanak irakurri zituzten. Sariak gotzai jaunak banatu zituan.

Andik irten eta San Juan kalera, bertsolarien saioa entzutera. Kantatu zutenak onako auek izan ziran: Pello Errota, onen anaia Juan Krutz, Asteasuko Esteban Elola, Txirrita, Saiburu, Lexo, Altzako Artxaia eta Oiartzungo Joakin Urbieta. Onako au *Kaskazuri* izengoitiaz ezagutzen da gaur egunean ere bere jaioterrian. Saria Txirrita eta Pello Errotak eraman zuten; eta oorezko aitamena, Saiburuk.

Laugarren festa-egunean, illaren 6-  
an, arratsaldean, aurrak *aurresku*a dantzatu zuten. Ondoren, txistularien norgeiagoka, Erreteriko taldeak irabazirik. Gauean, *Euskaldun Fedea* taldeak antzeztuta, antzerki-saioa: Toribio Alzagaren *Aterako gera*; eta

Martzelino Soroaren *Barrenen arra* eta *Alkate berrija*.

Festen azken egunean, 7-an, beste ospakizun batzuk: ganaduzale eta nekazari-entzako sariak; Irungo Miakar baserriko famili ugariari saria; irrintzi-lariak, tobera-jotzailleak, emakumeen korrika-apustua buruan urez betetako suilla zutela, eta abar.

- 
1. *Conciencia*. (Otañoren oarra)
  2. *Conciencia*. (Id.)
  3. *Justicia. Derecho. Hacer justicia*: ekadoia egiñ. (Id.)
  4. *Remediar*. (Id.)
  5. *Nación*. (Id.)
  6. *Envidia*. (Id.)
  7. *Resumen*. (Id.)
  8. *Agur, oiartzuarrak* kanta au, doñu eta letraz, baiña eskuz idatzita, Erreteriko *Eresbil* elkartearen erakutsi zidaten, Letrak onela dio:

Agur, oiartzuarrak, Lartaundarren semeak,  
emen gatoz zuegana festetara senideak.  
Lengo aitonen oroimcnak betirako biotzez gorderik,  
eziñ gintezke galdu. Goazen bada beti  
euskeraz itzegiñaz, al bada, len orain ta beti,  
nola geran anaiak. Bai, guk agur oiartzuarrak.  
Ernio mendiak izketan baleki esango lituzke  
Lekobide ta Otzoal eta Lartaun zein ziraden.  
Oraindik Erroma ez dago aztua;  
beti jakin du Zelatun altsuan  
euskaldunak nola ziran alkindu.  
Lekobide zan denen buruzagi;  
asko nai zion Lartaun gazteari.  
Guk ere txit alai kanta dezagun nonai  
maitasun ta oroimenaz ill ziranai.  
Beti denok, euskaldunak,  
bil gaitzala aien maitasunak.  
Kanta zagun txori gisan gozo.  
Kukuak kantatzen du maizatzean kuku.  
Guk ere egin zagun alegere txori gisan.  
Kanta dezagun denok auzi gaberik,  
pozkidaz egiñik txori gisan oju: kuku, kuku...

(1897)

## LEGAZPI AUNDIARI

- 1/ Zure omena baño lenago  
desegingo da brontzea,  
opa zaiguzu talluntz eder au  
maitaro agurtutzea.  
Agur, Legazpi, zuk nai zenduen  
Urdanetak laguntzea,  
guztiyon onran elkaturikan  
ezpata ta gurutzea.
  
- 2/ Kolon ta Magallanes,  
Elkano altsuak,  
ta beste milla izen  
kondairan jasuak,  
illak eta biziyak,  
lur ta itsasuak,  
alaitzen ditu gaurko  
egun doatsuak.
  
- 3/ Begiratzten diyote  
beren lagunari,  
Zumarragako seme  
ospatsu danari,  
Filipinak beretu  
zizkana “amari”,  
euskaldunen onra dan  
Legazpi jaunari.

Iru bertso aukeratuak Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-  
-idatzitik artuak ditugu.

Izenburuaren azpian onela dio:  
“Zumarragan, Legazpiren talluntzaren  
agerkeran, kantaridí batek kantatua,  
lan au autua izanik beste askoren arte-  
an, 1897-ko Urriaren biyan, On  
Ignacio Buskaren (Sagastizabal) do-  
ñuan”.

*La Voz de Guipúzcoa* egunkariak  
andik bi egunera argitaratu zituan ber-  
tso aukeratuak, 1897-ko urriaren 4-ean ale-  
gia, batere aldaketarik gabe, aurretik  
onela esaten zuala: “*He aquí la letra  
del himno a Legazpi, de D. Pedro M.  
Otaño, cantado en el acto de descu-  
brir la estatua*”.

*Euskal-Erria* aldizkariak bere  
XXXVII tomoan argitaratu zituan,  
1897 urtean, aldaketarik gabe eta izen-  
buru onekin: *Berso-koroya Legazpi  
aundiari*. Izan ere, ondoren beste ber-  
tso batzuk datoz, Legazpiren omenez  
aukeratuak ere. Beren egilleak: Migel  
Antonio Iñarra, Jose Artola, Frantzis-  
ko Lopez-Alen eta Antonio Arzak.  
Ortik zalantzarik gabe, Otañoren itzak:  
“lan au autua izanik beste askoren arte-  
an”.

*Zeruko Argia* astekariak ere agertu  
zituan, 1965-eko azaroaren 21-ean, al-  
daketarik gabe, firmarik ez duan eta  
*Legazpi'n ereserkian izkia baztertua*  
izenburua daukan idazlan batean.  
Gerra geroztik letra baztertuta zegoala  
esaten zuan, eta illunpetik atera eta  
kantatu egin bear zala. Ez dakigu orain  
ala egiten dan.

\* \* \*

Zumarragako udalari eskabide bat  
egin genion, kanta onen doiñua esku-  
-ratu aal zitekean galdetuz. Partitura  
bat bialdu zigun, goiko aldean onela  
esaten duana: *Himno a Legazpi. Melo-  
día: I. Busca Sagastizabal. Armonía:  
J. G. Bastida. Letra: J. I. Pérez Orma-  
zabal* .



Letra, berriz, erderaz. Baiña aspal-  
diko urteetan orrela kantatu dala esan  
ziguten. Eta besterik etzutela.

Baiña, leen ere esan degunez, doi-  
ñuaren egillea Inazio Busca Sagasti-  
zabal jauna izan zan; Zumarragako  
udalak bialdutakoarena ere bai. Are  
geiago: doiñua arretaz begiratzan ba-  
da, zortziko nagusiaren egitura dauka-  
la ikusten da. Otañoren leenengo ber-  
tsoa ere alaxe da. Doiñu au degu, be-  
raz, ziur aski, Otañoren bertsoa kanta-  
tzeko erabili zana.

Baiña Pedro Marik bi zortziko txiki  
ere moldatu zituan, eta oiek nola kan-  
tatu bear diran ez dakigu.

Ara emen Zumarragako udalak  
bialdutako doiñua, erdal letra kenduta:





\* \* \*

Leen esan degunez, beste jartzaille  
batzuek ere jarri zizkioten Legazpiri  
bertsoak. Ona emen oien lanak,  
*Euskal-Erria* -tik artuta:




Emendikan aurrera  
burni-bidetikan  
Paris edo Madrid-a  
dijoaztenean,  
munduak esain dute  
Zumarraga aurrean,  
txapelak erantzita  
zu ikusitzean,  
Legazpi aundi ori!,  
brontzezko irudian:  
"Pakezko garaipenak  
zeiñ ederrak diran!"



*Migel Antonio Inarra-k*



Alaiturikan arkitutzen da  
Zumarragako erriya,  
goitaltzatutzen dubelako gaur  
bere seme bat aundiya;  
au da Legazpi, agertzen dana  
talluntz berriyan jarriya,  
izan dediyen euskaldun seme  
denen oroimengarriya.



*Jose Artola*

Poztu gaiten denok  
zergatik gaurtik  
Legazpiren izena  
toki guzietan  
oroituko da gogoz  
euskal biotzetan,  
nola kalean eta  
nola mendietan.

Zumarragara dator  
gaur pozez jendia,  
goitutzeko batean  
Legazpi aundia;  
ain da bere doaia  
gutzizko argia,  
gordetzeko da bere  
erria txikia.

*F. Lopez Alen*

O, Zumarragan, zure seaska  
kulunpatu zan errian,  
gaur talluntza bat altxatu zaizu  
mundu denaren aurrian;  
t'Amerikatik onontz datozen  
itsaso brumen artian...  
beti ikusiya izango zera  
Gipuzkoan ta Españian!

*Antonio Arzac*

# ARKIBIDEA

**Itzaurrea**

<b>“Errekalde Zaarra”, Pedro Maria Otaño Tapia (1803-1883)</b> .....	19
Bizitzaren argibideak .....	21
Bertso batzuk eta gertaera bat .....	25
Ondorengoak .....	33
<b>Jose Bernardo Otaño Lasa (1842-1912)</b> .....	41
Bizitzaren argibideak .....	45
Udal-gizona .....	47
Ogibidea .....	53
Aotik aora .....	59
Jose Bernardo eta Pello Errota .....	70
Aduna .....	75
“Bernardorekin kantetan” .....	80
Erriz-erri .....	82
Eriotza .....	89
Ondorengoak .....	91
Oroitzak .....	110
<b>Jose Bernardo Otañoren bertso-saillak</b> .....	113
(1878) Zizurkilko Misioak .....	115
(1888) “Billabonako kaballero bat...” .....	120
“Lau bertso berri dizkit...” .....	124
(1894) Naitasuna .....	126
Zizurkillen 1894-garren urtian Bernardo Otañok jarriak bere artian .....	130
Bertso Berriyak Zizurkil-ko Misiyuaren onran 1896-garren urtean jarriyak....	135
Aita Manuel Larramendi-ren bizitza itz neurtuetan .....	143
<b>Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910)</b> .....	149
Zizurkilko urteak .....	151
Karidadeko benta .....	157
Ameriketara leenengo joanaldia .....	164
Soldaduska .....	167
(1879) On Fidel Lizarraga-ri .....	171
Ameriketara bigarren joanaldia .....	174

“Ameriketara nua nere borondatez...”	175
Ameriketatik	179
“Nere amigo Vegari	182
(1889) Amerikatik osaba Jose Bernardori biralduak oraiñ dala bost urte	184
Anai Joxe	191
Zizurkildik Donostira	193
Arjentinatik Euskal-Errira	195
“Bera jaio zan oiaren eske”	198
Ezkontza	209
Donostian	213
(1894) Ezkontza	216
(1894) Ernanin pasia	220
Aotik aora	223
Aotik aorako beste zenbait bertso	230
Donostiako bertso-emaiza	234
(1895) <i>Zerbait</i> liburua	237
Suskrizioa	241
Arjentinara	245
Pedro Maria Otañori azken agurrak, 1898-an Ameriketara joan zanean	251
Arjentina (1898-1910)	255
(1904) <i>Alkar</i> liburua	259
Euskeraren irakasle	270
Atoz, Pedro Mari	279
Eriotza	286
Pedro Maria Otañoren eriotzaren oiartzunak Euskal-Errian	291
Ondorengo berri batzuk	303
Otañotarrak Donostian	307
Pedro Maria Otañori eskeiñitako beste bertso batzuk	311
Juan Joxe Ugarte (Juan Jose Belderrain Barriola) (1854-1920)	324
<b>Donostiako Bertsoak (1890-1898)</b>	337
(1891) Amets bat	339
(1892) Nasketak	351
(1892) B’rekiñ	358
(1892) Ordañak	360
(1892) Ama Euskara	366
(1893) Perrando Amezketarra	371
(1893) Republika ta Fuegoak edo Mendiburuko maiztarra	373
(1893) Bastilla	376
(1893) Españolak eta moruak	379
(1893) Limosnatxo bat	381
Beti-betiko	388



Elizakuak edo au mundua!.....	392
Gu ta gu-tarrak .....	397
Ernani .....	398
(1894) Azpeitiko premia zala-ta .....	402
(1894) Txepetxa .....	403
(1894) Donostiya - Uxua.....	407
(1895) Oroitza .....	414
(1895) Karidadea! .....	415
(1895) Karidadea! .....	423
(1895) Larriya!.....	425
(1895) Larraldeko Magdalena.....	432
Iri apustu baten birez.....	439
(1896) Tolosar biursari gazteari .....	440
(1896) Aitona gizagaisoa .....	446
(1896) Kubako gure anaiai.....	456
Maitaro .....	467
(1896) Aur gurgarriari.....	469
Aitona eta illoba .....	474
(1897) Anaitasuna .....	478
(1897) Legazpi aundiari .....	489

AZKUE BIBLIOTEKA  
EUSKAL TZAINDIA  
BILBO

1995 URT 2 3

90999

1000000



1006882



SPOA • SENDOA

Antonio Zavala

**PEDRO M. OTAÑO**  
**ETA BERE INGURUA (II)**



# Pedro Maria Otaño eta bere ingurua

Auspoaren Sail Nagusia



EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA



B. UGALDETXO, S/N  
☎ 49 35 51 / 49 35 52  
FAX: 493548  
20180 OIARTZUN (GIPUZKOA)

**Antonio Zavala**  
(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

**Pedro María Otaño**  
**eta bere ingurua**  
**(II)**

© SENDOA

ISBN: 84-85846-81-8

Legezko gordailua: SS.729/93

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Antza, S.A.L.





Pedro Maria Otaño Barriola (1857-1910) (Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkaritik (1900-III-2) artutako argazkia.

**ARJENTINAKO BERTSOAK**  
**(1898 - 1910)**

(1899)  
**LAZTAN EDO MUSURIK ONENA**

Musuak beti izan  
dute aitamena,  
gozo ta eztsua  
da txit amarena,  
aurrak igarri gabe  
artu lezakena,  
bañan pozkidatutzen  
du aren barrena,  
zergatik au dan izan  
leiken ederrena.  
Sentitzian far-irri  
semetxuarena,  
iduriturik dala  
esker leialena,  
neurrik gabia da  
amen zoramena,  
bere berdiñikan ez  
duben gozamena.  
Nola ez du beteko  
musuz aur lerdena,  
ezpañetan jarririk  
biyotz beraena!(1)

Musua gerta leike  
atsa ta zekena,  
edo faltsua ala  
nola Judasena,  
ta ondoren tristia  
berak lekarkena.  
Naitasunik gabeko  
musua da azkena,

askok oituragatik  
-au ez al da pena?-  
begiyak itxututa  
ematen dutena,  
ez egitiagatik  
paper lotuena...  
Musua izan leike  
ezpaiñ utsarena,  
animarik gabeko  
abo otzarena,  
au da musu saldua,  
musurik txarrena...

Bi biyotz maite bildu-  
tzian alkarrena,  
o zer poza dan musu  
batek dakarrena!...  
Argatik eman oi da  
al dan azkarrena.  
Bañan bada musu bat  
laztan aundiyena,  
ta musu guztiyetan  
maitagarriyena,  
goguan gelditzen dana  
musutan geiena,  
gizonak aita izan  
arte ez dakiyena:  
oñazez nabaiturik  
emazte zuzena,  
berari lagunduaz  
al dan gogozena,  
eta iritxitzian  
trantze garratzena,  
argiraturik sano  
seme berarena,  
irabazirik onla  
*aita*-ren izena,  
limurtzen da gizonik  
danik zikoitzena...  
Ta artuaz arpegi  
andretxuarena,

estaliyaz esker ta  
malko gozoz dena,  
*musua* da senarrak  
ematen dubena,  
nik ezagutzen deran  
musurik onena.

Amak, barka zazute  
nere oroimena,  
zergatik izango det  
beti aitormena,  
amatxoren musua  
dala santuena.

*Pedro M. Otaño*  
*Pehuajó, 23 de Febrero de 1899*

Bertso-sail au Buenos Airesko *La* iñun arkitu.  
*Vasconia* aldizkariak argitara eman  
zuan, bere 195 zenbakian, 1899-ko  
otsaillaren 28-an; eta ez degu beste

\_\_\_\_\_  
1. *El más tierno.* (Otañoaren oarra)

(1899)

## ZUGANDIK URRUTI

Mendi gurtua, urruti zaute,  
ai, au pena aundi eta lotsa!  
Ez dakit nola zuek utzita  
etorri nintzan ni onontza.

Sagasti, gaztaiñ, aritz, batzarre  
ta kanpai alaiaren otsa,  
nola sendatu aldegitean  
lertu zitzaidan, ai!, biotza?

Gaztea negon ta beregana  
deitzen ziran itsasoak;  
utzi nituen aita ta ama,  
zartutako gurasoak.

Baserri txuri maitean biak  
negarrez urtzen gaixoak,  
geroztik beti aruntz begira  
zabalik dauzkat besoak.

Aita, amatxo ta lur maitea  
utzirik urruti junak;  
zertako ditut ugaritasun  
eta aberastasunak?

Zertako ditut pozik gabeko  
gezurrezko ontasunak?  
Egarririkan illtzen ez duten  
gurutzeko beazunak.

Zu utzitzean, nere biotza  
egin zitzaidan bi parti;  
geroztik non-nai arkitutzen naiz  
doakabe ta bakarti.

Esna ta lotan, gau eta egun,  
zutzaz oroitutzen beti;  
Ama, barkatu! (*bis*)  
Ni eziñ neike bizi  
zugandik urruti.

Itz-neurtu auek Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian arkitu ditugu, beraren 221 zenbakian, 1899-ko azaroaren 20-an.

Izenburuaren azpian onela irakurtzen da: "*Duo para tenor y barítono, por F. O. S. P. Letra de P. M. Otaño*".

Ortik dakigu bertso auek aita nor duten. Eta doiñuaren egillea nor dan errez somatu diteke: *Felix Ortiz y San Pelayo*. Baiña doiñu ori ez degu iñun ere arkitu.

Aldaketa bat sartu degu. Seigarren laukoan, leenengo lerroan, *ditu* irakurtzen da *La Vasconia* dalako ortan, besteren batek itzegingo balu bezela.

Baiña beste guzietan pasadizoa gertatu zaion berbera mintzatzen da: *dakit, nitzan, zitzaidan, dauzkat, ditut...*

Orregatik, *ditut* idatzi degu aitatu-tako lerro ortan ere, orrela bear dualakoan.

## UROLARI

- 1/ Nere lagun, pakezko  
bakardadeak,  
estutasun da neke  
ta naigabeak,  
iduripen gozuak,  
izen ..geak,(1)  
eta gizon langille,  
anai nereak,  
goi eta beak...
- 2/ Laño eta odeiak,  
ur eta suak,  
erribera, muño ta  
mendi altsuak,  
iturri, ibai, itsaso  
ta errekatxuak,  
goizeko intzak eta  
aize maltsuak,  
larre dontsuak.
- 3/ Entzun zaizkidatzute,  
lagun gozuak,  
euskaldun baten kantzo  
maitatitsuak.
- 4/ Urolatxo zer txatarra sortzen  
dan Aitzgorriren kolkuan!  
Pozez, lasterka, koskortzen dator  
Zumarragaren albuan;  
Gero Azkoiti eta Azpeitiya  
igaro ta beeraguan,  
aundi ta eder oieratzen da  
Zumaiako itsasuan.



- 5/ Aitzgorritikan Zumaiaraño  
darama bide guziya,  
arrigarrizko mendi ta basoz  
bi aldetatik josiya;  
gerezi, sagar, intxaur da gaztañ,  
aritz ta pagoz jantziya,  
masusta gozoz apaindurikan  
urriz tarteko sasiya.
- 6/ Mendi tontorren egal biguñak  
luberriturikan denak,  
nekazarien beso senduak  
gogoz landuta daudenak;  
sortzen dituzte arto, gari ta  
egoskaririk onenak,  
argatik beti maitatzen ditu  
bein ikusten ditubenak.
- 7/ Egokitu zait leku askotan  
begiratzea munduba,  
ta ikusi det ibaiz, iturriz,  
basoz, lorez apainduba;  
bañan neretzat ederrena da  
Urolaren inguruba,  
an jaio nintzan eta an dauzkat  
biyotza eta buruba.

Bertso aukerak ere Pedro Mari Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzetik kopiatu ditugu.

Zenbait lerrotan, leenengo idatzita zeuden itzak tatxatu eta berriak jarrita daude. Batzuetan itz zaarrak irakur ditezke; besteetan ez. Irakur ditezken oiek onako aukerak dira: 5/7: *gozoz itza dagoan ortan, beltzez*; 6/5: *sortzen dituzte itzen lekuan, eskeintzen ditu*; 7/2: *begiratzea dagoan lekuan, oinpetutzea*.

Azkeneko lau bertsoak, zortziko nagusi diran lau oiek alegia, Azpeitiko

Fidel Uria apaiz jauna zanaren esku-idatzi batean ere arkitu genituan. Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez dute.

Baiña bertsoen azpian, Otañoren firmaren ondoren, onela irakurtzen da: "*Música de D. Félix Ortiz y S. Pelayo*".

Ori irakurrita, Erreterira jo genduan, euskal musikaren artxiboa dan *Eresbil* elkartera, eta an bildutakoak dira emendik aurrera esango ditugunak. Felix Ortiz y San Pelayo au azpeitiarra zan; 1856-an jaioa eta

1940-an Buenos Airesen illa. Ospe aundiko musikalaria izan zan bere garaian. Beraren izena bein baiño geiagotan aitatzen da liburu ontan. Arjentinan-edo alkar ezagutu eta adiskide miñak egin baitziran Pedro Maria Otaño eta biak. Batek musika eta besteak letra jarrita, lan ederrik eman zuten argitara.

Lan oietako bat, onako au: *Ortiz y San Pelayo: Canciones Vascongadas. Talleres de Grabado. Estampación de Música. A. Boileau & Bernasconi. Provenza 285. Barcelona.* Tamalez, ez du urterik esaten.

Sei kanturen bilduma da: *Urolari, Amari, Nere kabiya, Ama!, Laurak Bat* eta *Eder bati. Ama!* izeneko kantuen letra Donostiako Antonio Arzak jaunarena da. Beste bost kantuen, Otañorena.

Kantu auek sarritan kantatuak izan ziran urte aietan, *Laurak-Bat* elkarteak antolatzen zituan jai-aldietan. Aldi oietako batzuk aitatuko ditugu, zerbait berezirik dutenean. Baiña guztiak aitatzea luzegia litzake.

Urolari deritzaion onek izenburua onela du: *Urolarí - Romanza para tenor - F. Ortiz y San Pelayo-Letra de Pedro M<sup>a</sup> Otaño.* Baiña, Fidel Uria zanaren esku-idatziak bezela, azkeneko lau bertsoak bakarrik ditu; zortziko nagusi diran oiek alegia, eta aldaketa onekin: 5/6: aritz ta pagoz betia.

Kantu onen doiñua urrengo orri-aldeetan arkituko du irakurleak.

---

1. Itz onen leenengo bi letrak ezin irakurri ditugu.

# UROLARÍ

## Romanza para Tenor

Letra de  
D. Pedro M<sup>o</sup> Otano.

F. ORTIZ y SAN PELAYO

*p*

Andante: ad libitum

U - ro - la - cho                      zer cha - ta - rra sar - tren dan  
Her - mo - so U - ro - la              ovan pe - que - ño a - pa - re - ce

*pp*

Aizt go - rri ren Kol - ku an              Po - zes las ter - ka kos kortzen  
del se - no del Aiz - go - rri              lle - no de a - la - gri - a

da - tor      Zu - ma - rra - ga - ren al - bu - an      Ge - ro Az koi - ti - e ta Az -  
cre - ce      de Zu - ma - rra - ga en el um -bral      Des - pués que de koi - ti - a y As -

pei-ti - ya i - ga - ro ta be - e - ra - gu - an aundi ta  
 -pei-tia ha pa - sa - do más a - ba - jo grande y hor -

e - der o - ye - ra - tzen da Zu - ma - ya - ko i - tsa - su -  
 - mo - so él se re - cues ta jun - toa - Zu - ma - ya en el

an. mar. Aitz - go - rri - ti - kan Zu - ma - ya -  
 Dos del Aitz - go - rri has - ta Zu -

*ppp*

ra - ño da - ra - ma bi - de - guz - ti - ya A - rri - ga -  
 - ma - ya su blan - co - lea - jo co rrien - do va De pe - ñe -

rriz - ko men - di ta ba zos bi al - de - ta - tik jo - si -  
- ga - les mon - les y va - lles y de no - ga - les cer - ca - does -

ya ge - re - si sa - gar in - chaur ta - gas - tañ a - ritz ta  
- tá Dul - ces man - sa - nos y cas - ta - ña - les con - tus co -

*rit*

pa - goz bé - ti - a ma - zuz - ta go - zos a - pain - du -  
- rrien - les ba - ña - rás y ri - cas mo - ras de los zar -

ri - kan ur - ritz - tar - te - ko sa - si - ya men - di ton  
- za - les a tus ri - be - ras lle - va - rás y las lá -

*8va*

to - rren e - gal bi - gu - ña lu - be - rri - tu - ri - kan de  
 - de - ras de tus mon - ta - ñas bien - ou - ti - va - das me - co -

nak Ne - ka - za - ri - yen be so sen du ak Go goz lat  
 - rás - yel no - ble vas - co En - tre sus gri - tas Go - tas del

du - ta - dau de nak Sor tzen di tuz te ar to ga  
 al - ma ar - ro - ja - rä Ba - ñen tus o - las El nue - vo

*rit*

Urolari

ri ta E goz ka ri rik o ne nak ar ga tik  
 sur - co que her - mo - sos frutos le da - rán fru - los que en

*rit.*

be ti mai ta tzen di tu Beñi kus ten di tu be -  
 - cio - rran to - donca - ri - ño que su - poel vas - coa - te - so -

nak E go ki tu zait  
 - rar mu - chos pa - i - ses

*siempre p*

le ku az ko tan Be gi ra - tzi a mun du  
He - re - co - rri - do y mu - cho he vis - to que ad - mi -

ba - ta i ku si det i  
- rar - - - - - Fuen - tos ri - sue - - - - - ñas

ba iz i tu rriz. Ba zozlo rez a pain du  
cau - da - lo - sos ri - os cam - pos fla - ri - dos sin s -



Urolari

*con afectación*

ba ————— Ba ñan ne re tzat e der re  
- gual ————— mas ¡ Ah! de U-ro la ver-des ri -

na da U ro la ren in gu ru  
- be - ras sois las mas be - llas pa - ra

*rit.*  
ba ————— An ja yo nin tzan e ta an  
mi ————— A lli he na - ci - do y en mis

*rit.*

dauz kat Bi yo tza e ta bu ru  
sue - ños siem-pre yo cre - o es - tár a

*apresurando siempre* *alargando*

The first system consists of a vocal line on a treble clef staff and a piano accompaniment on two staves (treble and bass clefs). The key signature has two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 4/4. The vocal line begins with a fermata over the first note. The piano accompaniment features a steady eighth-note bass line and chords in the right hand.

ba an' ja yo nin tzan e ta an  
lli a lli he, na - oi - do yen mis en -

*á capricho*

The second system continues the vocal line and piano accompaniment. The vocal line has a fermata over the first note. The piano accompaniment includes a section marked *á capricho*, where the right hand plays a series of chords with a fermata, while the left hand continues with a simple bass line.

dauz kat Bi yot za e ta bu ru ba  
- sue - ños siem-pre yo òre - oes - tár a lli

The third system concludes the piece. The vocal line has a fermata over the final note. The piano accompaniment features a final chord with a fermata in the right hand and a simple bass line.

## AMARI

- 1/ Aditu degu askok  
galdetzen dubala,  
jakin nairikan zer dan  
euskeraren gala;  
eta guk erantzuten  
degu beriala  
izkuntza zerutar au  
gure Ama dala.
- 2/ Ta nola zor dizugun  
geren izatea,  
mundu guztiari nai  
degu esatea:  
biyotza maitasunez  
daukagu betea,  
gurekin konta zazu,  
Amatxo maitea.
- 3/ Ez degu nai beñere  
zugandik aldegiñ,  
askok egiñagatik  
ainbeste alegiñ.  
Ill artean euskaraz  
nai degu itzegiñ,  
gure Ama bakarrik  
gelditu ez dediñ.

Otañoren iru bertso aukeratuak Felix Ortiz y San Pelayoren *Canciones vascongadas* izeneko bilduman agertu dira.

Bilduma onen txetasunak leenago emanak ditugu.

Kanta onen izenburua onela da: *A D. José Eguiguren - AMARI - Fácil Zortziko. Letra de D. Pedro M Otaño. Música de D. Félix O. y San Pelayo.* Azkenik, ara emen Ortiz y San Pelayoren doiñua:

A D. José Eguiguren

# AMARI

## Facil Zortziko

Letra de  
D. PEDRO M. OTAÑO

Música de  
D. FELIX O. y SAN PELAYO.

CANTO

PIANO

A di tu de gu  
Siempre lo hemos o

as kok Gal de tzen du ba la Ja-kin nai ri kan zer dan  
- i - do Con in - sis - ten - te a - fan Que - quie - ren en - te - rar - se

Eus ke ra ren ga la E ta gu ke ran tzu ten De gu be ri a  
Lo que es el eus - ko - ral No - so - tros con - tes - eg - mos Sin mu - chome - di -

la — Iz kun tza ze ru tar au — Gu re a ma da la. —  
 - tar — Que enes - te be - llo i - dio - ma — A - pren - di - mos a ka - blar. —

*ca. 2<sup>a</sup> vez al Final.*

Ta no la zor di —  
 Y co - mo lo de —

*pp*

zu gun — Ge ren i za te a — Mundu guzti a ri nai —  
 - be - mos — El mo - do en - pro - sión — Con gus - to lo de - vi - mos —

De gu e sa te a — Bi yo tzamai ta zu nez — Dau ka gu be - te —  
 A to - dos por i - gual. — Ja - más consen - ti - re - mos — Se - ga - rarnos de —

*cresc.*

a — Gu re kin kon ta za zu A ma cho mai te a —  
 ti — Aun que mu-chos sees - fuer cen Cre - yen - do con - se - guir: —

*rit.*  
 Ez de gu nai be ñe re Zu gan dik al de giñ Az  
 No te - mais, no, oh ma - dre! Nun - cá lo lo - gra - rán, Por -

kok e gi ña ga - tik Ambes te a le giñ — giñ Ill  
 - que tus hi - jos lea - les No tea - ban do - na - rán — rán! No

4

ar — te an eus ka raz Nai de — gu i tze giñ Gu re a ma bà  
te — mas no joh ma dre Nun — ca — lo lo gru — rán Por — que tus hi — jos

1. ka rrik — gel di tu ez de diñ Ill diñ. —  
lea les No hò tea — ban do — na — rán — rán. —

2.

*D.C. al %*

FINAL

Iz kun taze ru tarau — Gu re a ma da la. — *Fin*  
Que en este be lloi dioma — A — prendimos a ha — blar. —

(1900)  
**NERE KABIYA**  
*(Baztandar bati)*

- 1/ Lenbiziko arnasa  
artu zan lekura,  
zeñek eztu izango  
joateko ardura?  
Txoriyak kabiya  
nai diyon modura,  
nik maitatzen det beti  
txoko eder ura.
  
- 2/ Euskal-erri guztiya  
maite det benetan,  
nere anaiak daude  
probintzi denetan.  
Bañan Naparroako  
mendi alaietan,  
an jaio nintzan eta  
ill nai det an bertan.
  
- 3/ Elizondoko uri  
maite ta laztana,  
ona seme bat zutzaz  
aztuko eztana.  
Beti eskatzen nago  
Jaungoikoagana,  
ill baño len eraman  
nazala Baztana.



Otañoren iru bertso auk ere Felix Ortiz y San Pelayoren *Canciones Vascongadas* izeneko kanta-bilduman arkitu ditugu. Bilduma orren txe-etahunak eta argibideak emanak ditugu.

Kanta onen izenburu osoa onela da: "*Canciones Vascongadas* dalako ortan: A D. Luis Labadens -NERE KABIYA- (Mi nido) Letra de D. Pedro M. Otaño. Música de D. F. Ortiz y San Pelayo."

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere argitaratu zituan iru bertso auk, bere 252 zenbakian, 1900 urteko irailaren 30-ean. Onek aldaketa bat du: 2/8: ill nai det ayetan bertan.

Beste argitaraldi batzuk, aldaketa-rik gabe:

Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak, bere 43 tomoan, 1900 urtean.

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro) Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar / Iñaki Deunaren irarkolan / Garibay, 28.- Donostia / 1930.*

*Bertsolariya* astekaria, 1932-IV-3.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak - , Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua.*

Kantu au bein baiño geiagotan kantatuko zan andik aurrera Arjentinan. Onela dio, adibidez, *La Vasconia* aldizkariak, bere 250 zenbakian, 1900 urteko irailaren 10-ean:

*"Publicamos a continuación el interesante programa de la velada que la sociedad Laurak-Bat celebrará el domingo 16 del corriente en los salones de la calle Tacuarí 253, a las 6 y 1/2 p.m.*

*...6º Nere kabiya, romanza para tenor cantada por el señor Luis Labadens y acompañada al violín y piano por los señores Dr. Tomás Otaegui y D. Escolástico Vicuña.- (Ortiz y San Pelayo)."*

Otañok, bere esku-idatzian, baztandar bati eskeintzen dio kanta au. *Canciones vascongadas* dalako bilduma ortan, berriz, a D. Luis Labadens irakurtzen da. Baiña biak bat izango dira. Tacuarí kaleko aretoetan egin zan jaialdi orren berri ematerakoan, onela esaten baitu *La Vasconia-k*, bere 250 zenbaki ortan:

*"El señor Labadens, clásico orador del Valle Baztán, brindó en el género extrabótico que cultiva."*

Zoritxarrez, ez da esaten *género extrabótico* ori zer zan.

Ona, azkenik, Felix Ortiz y San Pelayoren doiñua:

A. D. Luis Labadens

# NERE KABIYA

(MI NIDO)

Letra de  
P. PEDRO M. OTAÑO

Música de  
D. F. ORTIZ y SAN PBLAYO

Andante moderato

VÍOLIN

VOZ

Len  
Don

PIANO

*pp*

bi zi ko ar - na - sa — Ar - tu zan le ku - rá  
- de por vez pri - me - ra — Vio - se la luz del sol

*pp*

2

Ze-ñek ez tu i zan-go — Joa te ko ar-du-rá? Cho-ri-yak ka-bi-  
 Como expli-car que exis-ta — Quien no quiera vol-ver? Co-mo el pi-chon al

ya-ri — Nai di yonmo du-ra Nik mai ta tzen det be ti  
 ni-do — Qué-ro con fru-i-ción Qué-ro de mi mon-ta-ña

Cho-ko e-der u-ra. —  
 El preciado rin-con. —

Eus kal e rri guz ti ya — Maitedet be ne tan — Ne re a na yak  
*A to-do Eushalerrri - a — Loquiereo con ver-dad — Vi-ven hermanos*

*pp*

dau de — Probintzi de ne tan. Ba ñanNaparro a ko Men di a la ye  
*mi-os — En to-dasu here-dad, Po-ro en las mon-ta - ñas De la Na varra.*

tan — An ja yo nin tzan e ta Ill' naidet an - ber - tan. —  
*leal — Na-ci yoy a-lli quie - ro Por siempre des - can - sar. —*

E - li - zón do ko  
 ¡Oh pue - blo de E - li -

u ri Mai te ta laz ta na O na se me bat  
 - xón - dol A - ma do sin i - gual A - qui tie - nestu a un

zu tzaz Az tu ko ez ta na. Be ti ez ka tzen  
 hi - jo Quo no te olvi - da - rá. Por é so el Ser Su -

## EDER BATI

1/ Triste ikusten zaitut,  
mirabe garbiya,  
beti izan zerana  
lagunen argiya.  
Nora joan zaizu, non da  
lengo far-irriya?  
Zer gertatutzen zaizu,  
aur maitagarriya?

2/ Izar ederrak diz-diz  
nola egiten duban,  
odeyik gabe urdiñ  
daguena zeruban,  
zuk oraindaño ala  
egiten zenduban;  
arantzen bat al dezu  
biyotz saminduban?

3/ Zu idukirik orren  
triste ta negarti,  
nola etzaio egiten  
biyotza bi parti,  
anbat kulpa guztiyak  
dituben norbaiti?  
Nik len bezela ikusi  
nai zinduzket beti.

Iru bertso auek Felix Ortiz y San Pelayoren *Canciones Vascongadas* bilduman arkitu ditugu. Liburuxka onen txeetasunak or goien ezarriak ditugu.

Kantaren izenburuan oker nabarmen bat dago. *Eder beti* esaten du. Dudarik ez da *Eder bati* bear duala. Laster aitatu degun *Alkar* liburuak ere *Eder bati* idazten du.

Izenburu osoa, oker ori zuzenduta, onela da: *A D. Ignacio Perez Arregui. EDER BATI. Letra de Pedro M. Otaño. Música del Mtro F. Ortiz y San Pelayo.*

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak ere agertu zituan bertso auek, bere 252 zenbakian, 1900 urteko irailaren 30-ean. Baiña irugarren bertsoa falta du.

Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak ere argitaratu zituan, bere 44 tomoan, 1901-ean. Onek ere irugarren bertsoa falta du.

Beste argitaraldi bat, arestian aitatu degun liburuak egin zuan: *Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaru), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria*

*1088, 1904.* Onek ere bi bertso bakarrik ditu; irugarrena falta.

Baita ere: *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar / Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28.-Donostia. 1930.* Aldaketa: 1/3: beti izana zerana. Eta irugarren bertsoa falta.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak , Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959.* Unzurrunzagak presta-tua. Onek aurrekoa bezelaxe.

\* \* \*

*Eder bati* kanta au 1900 urteko irailaren 16-rako *Laurak-Bat*-ek antolatutako jaialdi batean kanta bearra zan, *La Vasconia* aldizkariak dionez:

"*Eder Bati, romanza para barítono cantada por el Sr. Francisco Argote y acompañada al violoncello y piano por los señores Antonio O. de Retana y E. Vicula.- (Ortiz y San Pelayo)*".

Ona Felix Ortiz y San Pelayoren doiñua:

A D. Ignacio Perez Arregui

# EDER-BETI

Letra de  
**PEDRO M. OTAÑO**

Música del  
**Mtro. F. ORTIZ y SAN PELAYO**

Molto moderato

VIOLONCELLO

VOZ

ORGANO

The first system of the musical score consists of three staves. The top staff is for Violoncello, the middle for Voice, and the bottom for Organ. The key signature is one sharp (F#) and the time signature is common time (C). The Violoncello part begins with a *p* dynamic and features a melodic line with slurs. The Organ part provides a harmonic accompaniment with chords and a bass line. The Voice part is currently silent.

The second system continues the musical score. The Violoncello and Organ parts continue with their respective parts. The Voice part enters with the lyrics: "Triste i kuztenzaitut mi ra begarbiya / Siempre te ve-o triste Don-colla angeik eal". The lyrics are written below the voice staff. The Organ part continues with its accompaniment.



Eder bati

3

Be ti i zan zi ra na La gu nen ar guiya ¿No ra jo an zaizu non  
 Tu que da que ra fuiste Eri - llo de la amis tad. ¿Di - me, don de perdis te

da Lengo far i rri ya? ¿Zer ger ta tu tzen zai zu Zer ger ta tu tzen  
 A - quolla ri sa a le gre? Queesloquea ti te o - cu - rra Cria tu ra sin i

zai zu Aur maita ga rri ya?  
 - gual, oh! Dime johl di - me?

*pp*

I zar e derraĳ diz diz      No la egi ten du ban —  
 Cual en no\_cho se - re - na      Bri\_l lan los as - tros be - llos

O de yk ga be ur diñ      Da gu en ze ru an —  
 Sin nu\_bes en el cie - lo      Lu - ciendo suec\_plen - dor,

Zuk o rain da ño a la      E gi ten zen du ban —  
 A - si tam\_bien bri\_l la - has      Sin nu\_bes en tu far —

A ran tzen bat al de zu Bi yotz sa miñ du ban?  
Al - gu - na cruel es - pi - na Tehi - rió el al - ma, qui - sa?

The first system of the musical score consists of three staves. The top staff is the vocal line, the middle staff is the piano accompaniment, and the bottom staff is the bass line. The music is in a minor key with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. The lyrics are written below the vocal line.

Zu . i du ki rik o rren Tris te ta ne gar ti ta ne gar  
Al ver - te asi llo - ro - sa Pre - sa de hon da aflic - ción, de hon da aflic -

The second system of the musical score consists of three staves. The top staff is the vocal line, the middle staff is the piano accompaniment, and the bottom staff is the bass line. The music is in a major key with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. The lyrics are written below the vocal line.

ti No la et za yoe gi ten Bi yo tza Bi  
- ción, No se co - mo re - sis - te Mi po - bre Mi

The third system of the musical score consists of three staves. The top staff is the vocal line, the middle staff is the piano accompaniment, and the bottom staff is the bass line. The music is in a major key with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. The lyrics are written below the vocal line.

yo tza bi par ti — An bat kul pe guz ti yak Di  
 po - bre co - ra - zón — Ig - no - ro yo quien se - a Quien

tu ben Di tu ben nor bai ti;  
 tohi - so, Quien tohi - soa - si su - frir;

Nik Lem be ze lai ku si Nai zin duz ket be  
 Ig - no - ro yo quien so - a El que tohi - so su -

ti \_\_\_\_\_ Nik lem be ze lai ku si nai  
- frir \_\_\_\_\_ Mas ore - e - mo que no que ro

The first system of the musical score consists of three staves. The top staff is a bass clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. It contains a melodic line with a long slur over the first two measures. The middle staff is a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a vocal line with lyrics. The bottom staff is a grand staff (treble and bass clefs) with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a piano accompaniment with chords and moving lines.

Zin duz ket be ti \_\_\_\_\_ ti \_\_\_\_\_ be ti \_\_\_\_\_ be  
Ver - te a - si \_\_\_\_\_ - si \_\_\_\_\_ ja - mas! \_\_\_\_\_ ja -

The second system of the musical score consists of three staves. The top staff is a bass clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. It contains a melodic line with two first endings, labeled '1.' and '2.'. The middle staff is a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a vocal line with lyrics. The bottom staff is a grand staff (treble and bass clefs) with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a piano accompaniment with chords and moving lines.

ti. \_\_\_\_\_  
- mis! \_\_\_\_\_

The third system of the musical score consists of three staves. The top staff is a bass clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature. It contains a melodic line. The middle staff is a treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a vocal line with lyrics. The bottom staff is a grand staff (treble and bass clefs) with a key signature of one sharp (F#) and a common time signature, containing a piano accompaniment with chords and moving lines.

(1900)  
**PERRANDO AMEZKETARRA-REN**  
**ATERAKARI BAT**

Gipuzkoan dan mendirik politena  
esan oi da dala Adunako Bulandegi.

Menditxo au zan Perrandoren  
neguko artzantza lekua.

Lenengo gerra *zibillean*, egun  
batez, Bulandegi-barrean, Aintzira-  
ko bidean, *Artxaia* jenerala (D. Gaspar  
Jáuregui) zijoan bere gudari taldeare-  
kiñ.

Perrando, azekigañean zutik, bere  
urritz-makillaren kontra, zeguan  
begira.

Bere txikitako laguna *Artxaia* zaldi  
eder baten gañian iritxi zanian Pe-  
rrando zegon lekura, onek diosala  
egiñik eta Artzaia ezaguturik berela  
zein zan, erantzun ziyon erdi farrez:

- Zer diok, Perrando? *Paziosoen*  
berririk-eta badek?

Erantzuera:

- Ba, jaune: atzo izandu nitzen  
Naparroako Gaintzen.

Zazpi edo zortzi errazio billa an  
zebiltzen.

Beste berreun omen daare Leitzen.

Beok ezpaoie obeto segitzen,

beldur naiz nee ardi txar guzik jan  
ditzeen.

*Pello Mari*

\* \* \*

Pernando Amezketarraren gertaera au Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian agertu zan, bere 247 zenbakian, 1900 urteko abuztuaren 10-ean.

Egilleak bere izenez bakarrik firmatu zuan, abizenik gabe. Baiña Pedro Mari Otaño dala segurutzat artu genezake.

Bulandegi dalako ori, izan ere, Adunako sailletan dago. Menditxo orrek ego aldera Oria ibaia dauka, eta sartaldera Adunibarko erreka. Onek egiten du Aduna eta Zizurkil arteko muga. Erreka orren bazterrean dago Errekalde baserria. Izen ori ere orregatik izango du. Bulandegi mendia eta Errekalde baserria alkarrengandik urbil daude, beraz; eta, dudarik gabe, Pedro Marik idazkitxo ontan bere etxean entzundako kontakizun bat ematen digu.

Bulandegi menditxo ori belar-meta baten antzekoa zan. Pernandoren denboran bestela egongo bazan ere, guk piñuz jantzita ezagutu genduan. Gero piñudia bota zuten. Eta ondoren, tontorreko lurra kamioikadaka eramanez, leengo itxura guzia galdua du. Orain ez luke iñork esango “Gipuzkoan dan mendirik politena” danik.

Aintzira, berriz, Bulandegi mendia eta Oria ibaiaren tartean dagoan zelaia da. Alako tokia izango zan garai batean ura, izen orren jabe izateko.

Ortik barrena gaur kamio bat dago, baiña orduan Adunatik Billabonarako bidea zijoan, ibaiaren beste aldera pasatzeko zubia artean egin gabe baitzegoan.

Pernando Amezketarra nor izan zan ez gera esaten asiko noski. Baiña ura jaio zan eta il zan urteak gogoratzea komeni dala derizkiogu: 1764-1823.

*Artxaia* ori, berriz, Gaspar Jauregi ospetsua degu, 1791-n Urretxun jaioa eta 1844-ean Gazteizen illa. Artxaia izanik, frantzesen aurka gerran asi zan, eta jeneral izateraino iritxi.

Biak txikitako lagunak zirala esaten digu idazki orrek. Baiña etzan orrela izango, ogei ta zazpi urteko alde zuten alkarrekin eta. Alkar ezagutzen zutela esanda naikoa izango da.

Pasadizo au “lenengo gerra zibillean” gertatu omen zan. Otañok ere agian ala usteko bazuan ere, gerra ori ezin izan diteke karlisten leenengoa, au 1833-1839 urteetan izan baitzan, eta Pernando 1823-an il baitzan.

Gerra ori *guerra realista* ezagutzen dana izango da: 1821-1823. Gorostidi apaiza-eta realisten aldetik altxa ziran. Baita liberalak, beren buru *Artxaia* zutela, aiek menderatzen gogotik saiatu. Baiña gerra ori realistik irabazi zuten, Frantziak orduan bialdu baitzituan “San Luisen eun milla seme” izendatzen diranak, eta orri eskerrak.

(1900)  
**AITA-SEMEAK**

- 1/ Lagundurikan denoi  
gugatik ill zanak,  
seme, azi zaitugu  
aitak eta amak,  
beti zure gidari  
izandu geranak.  
Orain gurutze onen  
oñean esanak,  
ondo goguan artu  
biaituzu danak.
- 2/ Zu Ameriketara  
joatia emendik,  
Jaunak ala nai badu,  
zer egingo det nik?  
An ez dezu izango  
aitik eta amik;  
baña etzera galduko  
noranaira joanik,  
ez bazaizu aztutzen  
gaur emen esanik.
- 3/ Gorde zazu buruan  
eta biyotzean  
aitak zer esan zizun  
onuntz laguntzean,  
bitarteko arturik  
Jesus gurutzean:  
Jaungoikua t'ait'amak  
batek aztutzean,  
ez leike ondo izan  
denbora luzean.



- 4/ Ez nizuke utziko  
joaten, egiiyetan,  
gure erlijijua  
ez balitz an bertan.  
Iritxiko baziña  
aiñ urrutiyetan,  
erri ta eleizarik  
ez dan tokiyetan,  
oroi zaitez Jainkoaz  
leku guztiyetan.
- 5/ Seme, izan goguan  
zere gurasuak,  
eta uzten dituzun  
senide gozuak;  
jaio ziñan tokiko  
mendi ta basuak,  
euskerazko otoitzak  
edo errezuak,  
erakutsiyak zure  
amatxo gaixuak.
- 6/ Iritxi da orduba  
juan bear dezuna,  
badakizu ait'amak  
emen dauzkatzuna;  
ez dezazula aztu  
gaur neri entzuna,  
itz baterako au da  
eskatzen zaizuna:  
izan zaitez non-nai ta  
beti *euskalduna*.

*Pedro M. Otaño*  
*Pehuajó, 2 de Enero 1900*

## AITA-SEMEAK

Lagundurikan denoi  
Gugatik ill zanak,  
Seme, azi zaitzagu  
Aitak eta amak,  
Beti zure gidari  
Izandu goranak.

Orain gurutze onen  
Oñean esanak,  
Ondo goguan artu  
Biaituzu danak.

Zu Ameriketara  
Joatia emendik,  
Jaunak ala nai badu  
Zer egingo det nik!  
An ez dezu izango  
Aitik eta amik;  
Baña etzera galduko  
Noranaira joanik,  
Ez bazaizu aztutzen  
Gaur emen esanik.

Gorde zazu buruan  
Eta biyotzean,  
Aitak zer esan zizun  
Onuntz laguntzean,  
Bitarteko arturik  
Jesus gurutzean:  
Jaungoikua t'ait'amak

Batek aztutzean  
Ez leike ondo izan  
Dembora luzean.

Ez nizuke utziko  
Joaten, egiyetan,  
Gure erlijyua  
Ez balitz an bertan.

Irichiko baziña'  
Ain urrutiyetan.  
Erri ta eleizarik  
Ez dan tokiyetan,  
Oroi zaitze Jaunkoaz  
Leku guztiyetan.

Seme, izan goguan  
Zere gurasuak  
Eta uzten dituzun  
Senide goznak;  
Jayo ziñan tokiko  
Mendi ta basuak,  
Euskerazko oioitzak  
Edo erreznak,  
Erakutsiyak zure  
Amacho gaisuak.

Irichi da ordua  
Juan bear dezuna,  
Badakizu ait'amak  
Emen dauzkatzuna;  
Ez dezazula aztu  
Gaur neri entzuna.  
Itz baterako au da  
Eskatzen zaizuna:  
Izan zaitze non nai ta  
Beti eskalduna.

PEDRO M. OTAÑO.

Peluañ, 2 de Enero 1900.



*Lagundurikan denoi* bertsoen leenengo argitaraldia, Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian, 1900-I-10-ean.

Oker ez bagaude, bertso auk Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak argitaratu zituan leenengoz, bere 226 zenbakian, 1900 urteko ilbeltzaren 10-ean, nun eta noiz moldatu ziran egillearen izenaren ondotik esanez.

Urrena, urte berean, 1900'ean, Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak agertu zituan, bere 42 tomoan. Onek *La Vasconia* dalako ori korreoz artuko zuan, bertso auk irakurri, gustatu eta argitara emango zituan. Aldaketarik ez du.

Bertso auen gaia, aitak seme bati, Ameriketara dijoala ta ematen dizkion kontsejuak dira. Zein aita dan eta zein seme, ez da bertsoetan adierazten. Baiña, askoren iritziz, eta itxurak ere ala dira, Arjentinara abiatzean Pedro Marik bere aitarengandik jaso zituan ongi esanak izango dira auk. Aren leenengo joanaldikoak noski, eta bertsoetan andik urteetara jarriak, itz oiek biotz barruraino sartuko zitzaizkion eta.

\* \* \*

Bertso auk, *La Vasconia* eta *Euskal-Erria*-n agertu ondoren, beste argitaraldi asko izan dituzte noski. Banaka batzuk aita ditzagun, guztiak izendatzerik eziñezkoa bada ere.

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaru), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.* Onek ere aldaketarik ez du.

*Otaño'tar Pedro M'ren olerki onenak Alkar Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28, Donostia, 1930.* Aldaketarik ez du.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I.* Unzurrunzagak prestatutako argitaraldia. Au ere aldaketarik gabe.

*Boga, boga* kanta bilduma, Donostiko apaiztegia, 1959. Onek doiñua ere badakar; bereala eskeiñiko diogu irakurleari.

Aldaketak: 1/1: Lagundurikan danoi; 1/8: oñetan esanak; 1/10: beaituzu danak; 2/8: nora nai joanik; 2/10: gaur emen entzunik; 3/4: aruntz abitzean; 3/7: Jainkoa eta aita amak; 4/2: joaten egitan; 4/5: iritxiko bai zera; 4/9: oroi zaite Jainkoaz; 4/10: leku guzietan; 5/2: zure gurasoak; 5/4: senide gaxuak. Eta zenbait fonetismo kendu. Alegia, *biailutu, egijetan* eta olakoak jarri bearrean, beaituzu, *egietan eta abar*.

*Euskal-Kantak*, Bilbo, 1960. Aita-tzerik merezi duan aldaketarik ez du onek.

*Zeruko Argia* astekaria, 115 zenbakia, 1965-V-9. Aldaketarik ez du.

Basarrik ere argitaratu zituan *El Diario Vasco* egunkarian, 1983-VII-17-an. Au ere, aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe, fonetismo batzuk kentzea izan ezik.

Moldiztegi izenik gabeko bertso-papera, Azpeitiko Elosiagan Balentin Muguruzaren eskutik jaso.

Aldaketak: 1/1: Lagundurik danori; 1/8: oñetan esanak; 1/10: biotzian danak; 2/6: aitik edo amik; 2/8: noranai joanik; 3/7: Jaungoiko aita eta ama; 4/6: txit urrutietan; 4/7: Jaungoiko edo elizarik; 4/9: oroitu Jaungoikoaz; 5/6: zelai ta basuak; 5/9: erakutsiak zeure; 6/3: badakizu aita eta ama; 6/4: amen dauzkazuna; 6/6: gaur amen entzuna; 6/9: nun nai eta beti; 6/10: izan zaitez ezkualduna.

Moldiztegi izenik gabeko beste bertso-paper bat. Ez genduan apuntatu

noren eskutik jaso genduan. Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez du.

Moldiztegi-izenik gabeko irugarren bertso-paper bat, Irungo bentetan, Antojuko-errotan, X. Lekuonaren eskutik jaso. Onek ere aitagarri izan diteken aldaketarik ez du.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea au ere, Eibarko Juan San Martin adiskidearen eskutik jaso. Aitagarri dan aldaketarik gabe au ere.

Bertso-papera, *Elustondo*.- *Zarauz* moldiztegian argitara emana; eta Oiarzungo Altxabarren, Portueneko Inozentzio Urkiaren eskutik jaso. Aitatu moduko aldaketarik ez onek ere. Baiña beste bi bertso ditu bukaeran, Otañoaren *Urte Berri* izeneko saillaren 5 eta 6-garrena.

1/1: Lagundurikan danok; 3/1: Artu zazu buruan; 3/4: aruntz juatian; 3/7: Jaungoiko, aita ta ama; 3/8: bati aztutzian; 3/9: ezin liteke bizi; 4/9: oroi zaitetz Jaungoikuaz; 5/1: Ez ditzazula aztu; 5/4: senide gaisuak; 5/5: jaio zifan lekuko; 5/8: eta errezuak; 5/9: erakutsiak zuri; 6/3: badakizu aita ta ama; 6/6: gaur emen entzuna.

Leen ere esan degunez, bertso auk, ain ezagunak baitira, toki geiagotan ere argitaratuko ziran. Baiña aitatuko oiek naikoak izango dira, nundik nora ibili diran eta nolako aldaketak berenganatu dituzten pixka bat bederen erakusteko.

\* \* \*

Ona emen, azkenik, bertso auk kantatzeko bost doiñu.

Leenengo biak, Zizurkilko Aduni-bar errotako Serapio eta Inazio Mendizabalek kantatu dizkigute; eta

Iñaki Karkamo adiskideak solfeoz idatzi.

Irugarrena, leen aitaturako *Boga-Boga* kanta bilduman agertu zan.

Laugarrena, Ondarroako Jose Mari Etxabururi zor diogu.

Bostgarrena Azkoitiko Demetrio Alberdiri jaso genion, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain adiskideak paperean idatzi zuten.

La-gun-du-ri-kan  
de-noi gu-ga-tik ill za-  
nak, se-me, a-zi zai-  
tu-gu ai-tak e-ta a-  
mak, be-ti zu-re gi-  
da-ri i-zan-du ge-ra-  
nak; o-raiñ gu-ru-tze  
o-nen o-ñe-an e-sa-  
nak, on-do go-gu-an  
ar-tu bi-ai-tu-zu da-nak.

# AITA - SEMEAK

(1)

Lagundurikan danoi  
Gugatik iltzanak,  
Seme, azi zaitugu  
Aitak eta amak,  
Beti zure gidari  
Izandu geranak.  
Orain gurutze onen  
Oñean esanak,  
Ondo goguan artu  
Baituzun danak.

(2)

Zu Ameriketara  
Joatia emendik,  
Jaunak ala nai badu  
Zer egingo det nik!  
An ez dezu izango  
Aitik eta amik;  
Baña etzera galduko  
Noranaira joanik  
Ezbazaizu aztutzen  
Gaur emen esanik.

(3)

Gorde zazu buruan  
Eta biyotzean,  
Aitak zer esan zizun  
Onuntz laguntzean  
Bitarteko arturik  
Jesus gurutzean,  
Jaungoikua t'ait amak  
Batek aztutzean,  
Ezleike ondo izan.  
Dembora luzean.

(4)

Ez nizuke utziko  
Joaten, egiyetan  
Gure erlijiyua  
Ez baliz an bertan.  
Iritxiko boziña  
Ain urrutiyetan  
Erri ta eleizarik  
Ez dan tokiyetan  
Oroizaitetz Jainkoaz  
Leku guztiyetan.

(5)

Seme izan goguan  
Zere gurasuak  
Eta uzten dituzun  
Senide gosuak;  
Jayo ziñan tokiko  
Mendi ta basuak;  
Euzkerazko otoitzak  
Edo errezuak,  
Erakutziyak zure  
Amatxo gaxuak.

(6)

Iritxi da orduba  
Juan biar dezuna,  
Badakizu ait'amak  
Emen dauzkatzuna  
Ez dezazula artu  
Gaur neri entzuna.  
Itz baterako au da  
Ezkatzen zaizuna:  
Izan zaitetz non nai ta  
Beti euskalduna.

*Lagundurikan denoi* bertsoen beste argitaraldi bat, bertso-paperetan.

Lagun-du-ri-kan denoi  
gu-ga-tik il za-nak,  
se-me, a-zi zai-tu-gu  
ai-tak e-ta a-mak,  
be-ti zu-re gi-da-ri  
i-zan-du ge-ra-nak;  
o-rain gu-ru-tze o-nen  
o-ñe-an e-sa-nak,  
on-do go-gu-an ar-tu  
bi-ai-tu-zu da-nak.

Lagun-du-ri-kan da noi  
gu-ga-tik il za-nak,  
se-me, a-zi zai-tu-gu  
ai-tak e-ta a-mak;  
be-ti zu-re gi-da-ri  
i-zan-du ge-ra-nak,  
o-raiñi gu-ru-tze o-nen  
o-ñe-tan e-sa-nak,  
on-do go-go-an ar-tu  
be-ia-tu-zu da-nak.

La-gun-du-ri-kan

da-noi gu-gai-tik il za-nak, se-

me, a-zi zai-tu-gu ai-

tak e-ta a-mak; be-ti zu-re gi-

da-ri i-zan-du ge-ra-nak, o-

rain gu-ru-tze o-nen o-

ne-tan e-sa-nak, on-do go-gu-an

ar-tu be-ar de-zuz da-nak.

La-gun-du-ri-kan

da-noi gu-gai-tik il za-nak, se-

me, a-zi zai-tu-gu ai-

tak e-ta a-mak; be-ti zu-re gi-

da-ri i-zan-du ge-ra-nak, o-

rain gu-ru-tze o-nen o-

ne-tan e-sa-nak, on-do go-gu-an

ar-tu be-ar de-zuz da-nak.

(1900)  
**ZAZPIAK BAT**

- 1/ Zazpi aizparen gai dan oiala  
ebakirikan erditik,  
alde batera iru soñeko,  
utzirikan lau bestetik;  
goraiziakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oial batetik.
  
- 2/ Oialtzat artu zagun euskera,  
goraizitzat Bidasoa,  
ibai koxkor bat besterik ez da,  
utsa balitz itsasoa;  
elkarren urbill daude zazpiak,  
muga deitzen da Pausoa,  
zergatik izan bear ez degu  
*famili bakar osoa?*
  
- 3/ Arbola baten zañetatikan  
sortzen diran landariak  
bezela gera Bidasoaren  
bi aldetako jendiak;  
berdiñak dira gure jatorri,  
oiturak eta legiak,  
Ama Euskerak magal berian  
azitako senidiak.



- 4/ Ama Euskera! Bere semeak  
gu Ameriketara zenbat  
arkitzen geran! Ta urrutitik  
maitiagotu degu anbat;  
emen ez dago Bidasoarik  
ta beste trabik an ainbat,  
Ama maitia indartu dedin  
bizi bedi "Zazpiak Bat".

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia" Victoria 1088, 1904.*

Argitaraldi au Otañoren ardurapean egingo baitzan, bertso aukeratu berari kopiatu bear zitzaizkiola iduritu zaigu, eta ala egin degu.

*Cursiva* deritzaion letraz idatzi ditugun itzak, Otañok berak argitaratu emandako *Alkar* liburu ortan ere alaxe daude.

\* \* \*

Bertso aukeratu doiñu onekin kantatu digute Zizurkilko Adunibar erroto Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak, eta Iñaki Karkamo adiskideak solfeo idatzi:



pa-ren gai dan o - ia-la e-ba - ki-ri-kan er - di - tik, al-de ba-te-ra i - ru so - ñe - ko u - tzi - ri-kan lau bes - te - tik; go-rai - zi-a-kin be-re - zi a - rren ba-koi - tza be-ren al - de - tik, e - za - gu-tzen da jan-tzi di - ra-la zaz-pi - ak o - ial ba - te - tik.

\* \* \*

Pedro Maria Otañoren sail au Jose Mendiage hazpandar bertsolariaren beste sail bati erantzuteko moldatua da. Ona emen Mendiageren bertsoak:

Jose Mendiaguk

Pedro M. Otañori

Airea: "Ume eder bat ikusi..."

- 1/ Felizitatzen zaitugu denek bihotzetikan, Otaño, zure parerik ez da agertu Ameriketara oraino; fama handiak dituzu bainan obrak hanitz handiago, zure izena ez da galduko mendeak mende direno.
- 2/ Zure burutik ateratu da pentsamendu bat ederra: Buenos Airesen ikus dezagun eskuaraz egin opera; zaharrei hola etorri zaie gazte denbora burura, gaztea berriz non sortua den bihotzez oroitu da.
- 3/ Lorientuak egondu gira zure obraren aurrian, holakorikan ez da agertu guretzat orai artian; xoraturikan beti begira pentsamenduaz airian, gorputza hemen ginduen bainan bihotza Eskual Herrian.

- 4/ Zori onean etorri zira, Pedro Otaño, gutara, Ameriketara galdu ez dadin gure ait'amen eskuara; guziek esku elgarri emanez egin dezagun indarra, ideia ona ekarri duzu, badugu zure beharra.
- 5/ Orain artean ez da agertu holako obra ederrik, Ameriketara zu izan zira egin duzuna lehenik; zure fama ez da zabaltzen *Laurak-Bat*-ean bakarrik, laudorioak hartu ditzazu zazpi probintzietarik.
- 6/ Zu bezalako asko presuna jiten bada gure aldera, emeki emeki urbil gaitezke guziak elgarretara; abiatu ziran lanari beti segitzen bazira, Ameriketara Euskal Herriak laster formatuko dira.

*José Mendiague  
Buenos Aires, 11 Marzo de 1900*

Jose Mendiageren bertso auek 1900 urtean agertu ziralara uste degu, onako liburu ontan: "*Zazpiak bat / Eskualdun kantuak*", Buenos Airesen argitaratu emana.

Baiña liburu ori guk beintzat ez degu inon arkitu. Orregatik gertatu gera "agertu ziralara uste degu" esan bearrean.

Liburu orren geroztikako beste argitaraldi bat erabili degu guk: 1916koa: "*Zazpiak bat / Eskualdun kan-*

tuak" / *Santiago de Chile / Imp. y Enc. "Central" Bandera 171 / 1916.*

Izenburua onela dute Otañoren bertsoak liburu ontan: "*Pedro M. Otaño-k, José Mendiague-ri / Airea: Ume eder bat ikusi nuben...*".

\* \* \*

Otañoren bertsoak ere liburu berean agertu ziran, Mendiageren bertsoen ondotik.

Erri-izen bat eta egun bat ere azaltzen dira bertsoen atzetik: *Pedro M. Otaño / Pehujó, 29 Marzo de 1900.* Pedro Marik egun ortan eta erri ortan bertso auk moldatu zituala, alegia.

Otañoren bertso auk bein baiño geiagotan argitaratu dira noski. Ona emen argitaraldi oietako batzuk, guztiak izendatzea eziñezkoa izango da ta. Baiña, aitatzerik merezi ez dutenak diralakoa, aldaketarik ez degu jarriko,

Donostiko *Euskal-Erria* aldizkaria, 42 tomoan, 1900 urtean.

*Otaño'tar Pedro M'ren olerki onenak / Alkar / Iñaki Deunaren irarkolan / Garibay, 28 Donostia / 1930.*

Buenos Airesko *Euzko Deya* aldizkaria, 1941-I-20.

Orixek, bere *Euskaldunak* poeman (Itxaropena, Zarautz, 1950), *Denok bat* izeneko kantuan, laukote ontatik iru bertso dakarzki, leenengo irurak alegia.

Aita Onaindia: *Milla euskal-olerki eder*, Larrea-Amorebieta, 1954.

Iruñeko *Príncipe de Viana* aldizkaria, 1982, otsailla.

*Jose Mendiague / (1845-1937) / Haren bizia eta haren kantuenak / Prestatzailea / Piarres Xarriton / Etor / Donostia / 1992.*

Xarriton jaunak argibide asko ematen dizkigu Mendiageren bizitzari buruz. Bertsolari au Hazpainen jaio zan, 1845 urtean. Ameriketara 1863-an joan zan, eta *Zazpiak bat* izeneko kanta-bilduma argitaratu arte, 1900 urtera arte alegia, Buenos Aires, Montevideo, Porto Ruiz eta San Jose-n barrena ibili omen zan. Urte orretan Montevideon kokatu, eta bertan il, 1937-an. Mendiagek 1900 urteaz geroztik jarri zituan bertsoak ere eskeintzen dizkigu Xarritonek.

\* \* \*

Esan degunez, Otañok bere lau bertso auk Mendiageri erantzuteko jarri zituan. Onk aurretik bereak bota, eta arek ordaiñetan beste oiek moldatu. Bein baiño geiagotan egin zuan Pedro Marik gauza bera, liburu ontan ikus ditekenez.

Baiña bi bertso-saillak liburu berean agertzeak arritu egiten gaitu. Onk, gure iritzirako, zera esan naiko du: aurreneko aldiz beste nunbait, aldizkariren batean-edo, azaldu zirala bertso auk, leenengo sail bat eta urrena bestea, eta gero Mendiagek bere liburu ortan biak bildu. Baiña Buenos Airesko *La Vasconia*-n ez ditugu arkitu, eta ez dakigu beste zein aldizkaritan agertu zitezkean. Edo-ta,

bestela, eskutitzen bidez egingo zuten bi bertsolari auek beren joko edo artu-  
-emana.

\* \* \*

Jose Mendiagek argi eta garbi adierazten du bertso auek moldatzera zerk mugitu zuan.

*Artzai-Mutilla*, “eskuaraz egin opera”, Buenos Airesen aurkeztu berria zan. Ori 1900 urteko otsaillaren 20-an gertatu zan. Mendiage ere jende artean zan: “Lorituak egonak gira zure obraren aurian”. Eta bertso auen bidez zorionak ematen dizkio.

Otañok ordaiñetan beste bertso batzuk jarri bear noski, eta onako auek moldatu.

Mendiagek onela esaten du bostgarren bertsoan: “Laudorioak hartu dituzu zazpi probintzietarik”.

Bearbada, aitamena orrek aukera arazi zion Pedro Mariri gai ori.

Baiña baditeke Otañok Mendiage *Zazpiak Bat* izeneko liburu bat

plazaratu asmotan zala andik edo emendik jakitea ere; eta bere zoriona bertso auen bidez eman nai izatea.

Ain zuzen, laugarren bertsoak onela du bukaera: Bizi bedi “*Zazpiak Bat*”. Kako edo comillas tartean alegia, eta aditza singularrean. Zazpi probintziak balira, “bizi bitez” bearke zuan. Baditeke, beraz, emen, saillaren bukaeran, “*Zazpiak Bat*” ori Mendiagek laster kaleratuko zuan liburuua izatea.

\* \* \*

Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkariak, bere 259 zenbakian, 1900 urteko abenduaren 10-ean, onela esaten du Mendiageren liburuaz:

*“Zazpiak Bat.- Tal es el título de una obrita poética con que nos ha obsequiado su autor D. José Mendiague, conocido vate euskaro, en cuyas páginas ha derramado en inspiradas estrofas todo el cariño que siente por la región vascongada.*

*Al agradecer tan significativo obsequio felicitamos al inspirado trovador, aconsejando a nuestros hermanos de raza lean la obrita, y se deleitarán ante la majestad de los cantos y los recuerdos gratos del solar de nuestros mayores”.*

(1900)

## AMERIKAKO PANPETAN

(Al "Coro Euskaro" de la Sociedad Laurak-bat  
de Buenos Aires)

- 1/ Euskal-Erriko lur maite artan  
jaio nintzan baserriyan,  
itzal aundiko intxaur arbol bat  
dago gure atariyan;  
aren ondotik irten da noiznai  
maldako gaztañariyan,  
edo sagarrik onenak jaten  
luberriko sagastiyan,  
arbol tartian bizitu nintzan  
gazte denbora guztiyan.
- 2/ Denak utzi ta etorri nintzan,  
lur au ikusi nai nuan!  
Aritz tantaiak, pago lerdanak  
nola ez izan goguan!  
Oraiñ artzantzan Ameriketan  
*arrantxo* baten onduan,  
eguna pasa larrian eta  
jiratzen naizen orduan,  
nere begiyak gozatzen dira  
aldameneko *ombú* 'an.
- 3/ Ainbesteraño tristetutzen naiz  
eremu (1) zabal oietan,  
arbolak, mendi eta errekek  
falta diran zelaietan,  
non etorri ta eseritzean  
*ombú* tzar onen zañetan,  
edo igo ta osto tartian  
bere adar bikañetan,  
ene, amatxo!, nik nola esan  
zenbat gozatutzen detan!



Errekalde eta bere atariko intxaurra, orain urte gutxi dala igartua.

- 4/ Txabol ondoko *ombú* laztana,  
maitatzen zaitut gogotik,  
eta biyotza erdibitzen zait  
joatian zure ondotik,  
nere burura ekartzen dezun  
oroimen gozuagatik.  
Zure itxura ikusi nai det,  
ez dizut eskatzen frutik,(2)  
ni emen bizi naizen artian,  
arren, egon zaite zutik!
- 5/ Nere lagunik maitatuena,  
*ombú* laztana, zu zera,  
argatik nator zure kolkora  
ni malkuak isurtzera,  
iduriturik naramazula  
*atariko intxaurpera...*  
Beti izango zaitut goguan,  
bañan joan nai det ostera  
Euskal-lurreko arbolpe artan  
nere ezurrak uztera.

*Pedro M. Otaño*

Bertso auen leenengo argitaraldia Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian arkitu degu, beraren 234 zenbakian, 1900 urteko martxoaren 30-ean, izenburu luze onekin: *Euskaldun baten bakar jolasak Amerikako Panpetan*.

Baiña beste argitaraldi guziak leenengo zatia kendu eta *Amerikako Panpetan* idazten dute. Baita Otañok berak prestatu zuan *Alkar* izeneko liburuan ere, 1904 urtean. Orregatik, guk ere olaxe idatzi degu izenburua.

Bigarren argitaraldia urte berean, 1900-garrenean alegia, atera zuan Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak, bere XLII tomoan.


Leen *Lagundurikan denoi* saillarengatik esan degunez, *Euskal-Erria* onek

*La Vasconia* dalako ori korreoz artuko zuan; eta Otañoren bertso auek irakurri, gustatu eta berak ere argitara eman, itzez-itx kopiatuta.

Sail ontan, tamalez, ez da firmaren ondotik egunik esaten, onen aurreko saillean eta beste batzuetan ere egiten dan bezela. Baiña moldatu berria izango zuan. Orixe esan naiko du izenburuaren azpian *Laurak-Bat*-eko kantari-taldeari egiten dion eskeintzak ere. Moldatu zaarrak izan balira, ez litzake aiek eskuan zituala iñorengana agertuko.

Orduan ez baitzuan Otañok, ala us-te degu beintzat, artzantzako bizimodurik egiten.

*Lagundurikan denoi* saillarengatik dioguna esan genezake bertso auenga-



**EUSKALDUN BATEN BAKAR JOLASAK**

**AMERIKAKO PAMPETAN**

Al calor Euskano de la hospital  
Luzan-Bat de Buenos Aires

Euskal-Erriko lur onate arau  
Jayo nintzan baserriyan.  
Irzel aundiko inchaite arbol bat  
Dago gure atariyan.  
Aren ondotik irten da oizina!  
Maldako gazteharriyan.  
Edo, sagarrak onueak jaten  
Luberriko sagaxiyan.  
Arbol tartian bazta nintzan  
Gazte denbora guztiyan.  
Denak utzi ta etorri nintzan,  
[Lur ra ikusi nai nintan!

Ariza tantayak, pago berdenak,  
[Nola ez izan guguan!  
Urtei arzuatzen Ameriketan  
Arumeko baten onduan.  
Eguna pasa berria eta  
Jiratsen naitzen orduan.  
Nero begiyak gozatzen dira  
Aldamoneko onduan.

Albesterako tristetatzen nait  
Ereun (i) zabal ayetan.  
Arbolak, mendit eta errekek  
Paiza diran zelayetan,

Nen etort ta esentzuan  
Ondu-ber onen guztiyan,  
Edo igo ta beste tartian  
Hori atar hikarrian  
[Ene! [Amoche! Nik nola esan  
Zarbat gozatutazu darian!

[Chaboi utzi-ko ombi laztana,  
Maltatzen gaituz gogotik  
Eta bigoza urdibizen zan  
Jontiaz zuz ondotik,  
Nero barura okartzan dezun!  
Oroltan gozategatik.  
Zure ichun naiz det ikusi  
Et dizat eskatzen fruitik 2)  
Ni enen bizi naitzen artian  
[Arren! egon zaita zatiki!

Nero lagatuk imitatuzona  
Onda laztana, zu zera  
Argatik nator zure kolokora,  
Ni ma'kuak isurtzera,  
[Haririk narantzena  
Atariko nichotopera. ...  
Beti izango zaituz guguan  
Budan joan nai det ostera,  
Euskal-urteko arbolak artian  
Nero gureak ostera.

PEDRO M. OTAÑO.

(1) Pampetan  
(2) Arizak



tik ere: garai bateko sentimentuak eta burutapenak jaulki zituala emen; urteen buruan barrua ustu alegia.

\* \* \*

Bertso auek izan dituzten argitaraldi guztiak aitatzea ezinezkoa izango da noski. Ala ere, banaka batzuk izendatuko ditugu.

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.* Liburu onek aldaketarik ez du.

*Euskal-Erria* aldizkaria, LXV tomoa, 1911 urtea. Aldaketarik ez du.

Urte berean Arjentinan ere kaleratu ziran bertso auek.

Argitaraldi au guk ez degu ikusi, baiña *Centenario Laurak Bat (1877-1977)* liburuxkak onela dio: "*En la... revista de Laurak-Bat, de junio del año 1911... En sus textos se publica un poema en euskera "Amerika'ko Pampetan" de Pedro María Otaño...*".

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki onenak, Alkar, Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay 28, Donostia, 1930.*

Liburu onen aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: Euskal-lurreko zuaizpe artan. Bi aldaketa auek ondo itsatsita gelditu ziran. Geroztikako argitaraldi guziak onelaxe dituzte bi lerro auek, liburu oni kopiatuko zioten eta.

Aita Onaindia: *Milla euskal-olerki eder, Karmeldar idaztiak, Larrea, Amorebieta, Bizkaia, 1954.*

Aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: Euskal-lurreko zuaizpe artan. Ortaz gaiñera, fonetismo asko kendu:

*baserriyan, biyotza* eta abar idatzi bearrean, *baserrian, biotza* eta abar.

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska* sorta 31-32, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatuta.

Aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: Euskal-lurreko zuaizpe artan;

*Goiz-Argi* aldizkarian ere agertu ziran, 68 zenbakian, 1965-VIII-68'an, *Aztiri-k* idatzitako idazlan baten barruan. Aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: euskal lurreko zuaizpe artan. Eta fonetismo asko kendu: *baserriyan, biyotza, goguan* eta abar idatzi bearrean, *baserrian, biotza, gogoan* eta abar.

*La Voz de España* egunkariak ere azaldu zituan, 1979-VI-1-ean, *Garai-ko-k* bere *Handik eta hemendik* saillean sartuta.

Aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: Euskal lurreko zuaizpe artan. Onek fonetismorik ez du kentzen. Ziur aski 1930'eko liburuari kopiatuko zion.

Naparroako *Príncipe de Viana* aldizkarian ere bai, 148 zenbakian, 1982-ko urtarrillan.

Aldaketak: 2/7: eguna igaro larrian eta; 5/9: Euskal-lurreko zuaizpe artan. Onek ere fonetismo asko kentzen ditu. Eta bertsoak beste orden ontan: 1, 4, 5, 2 eta 3'garrena.

Bertso-papera, *Elustondo. Zarauz* moldiztegian argitara emana. Ez nuan kontuan artu noren eskutik jaso nuan.

Aldaketak: 1/4: bada gure atariyan; 2/7: eguna igaro larrian eta; 2/9: nere begiyak alaitzen dira; 2/10: zuaiz onen inguruban; 3/1: Zenbait bezela eznaiz tristetzen; 3/6: zuaiz onen zañetan; 3/7: edo igota ostro tartian; 4/1: Txabol ondoko zuaiz laztana; 5/2: Ama

Euzkera zu zera; 5/9: Euskal-lurreko zuazipe artan.

Eta ondoren, *Gu ta gutarrak* izenburua duan leenago irakurleari eskeiñi dioguna, aldaketa onekin: 9: ñor errurik bota ezdezan.

\* \* \*

J. Ignacio Tellechea Idigoras apaiz jaunak, *El Diario Vasco* egunkarian, 1985-eko maiatzaren 14-ean, *Homenaje a Pedro Mari Otaño / Del ombú al nogal* idazlana argitaratu zuan *Amerikako Panpetan* izeneko bertso auek obeto ulertzen lagunduko digutelakoan, ona emen beraren zati batzuk:

*"Se me quedaron en el armario, sin airearlos, recuerdos imborrables de mi paso por Argentina. Quisiera hoy soltar al viento uno de los más bellos y entrañables, cuando apenas se han extinguido los ecos del homenaje tributado en Zizurkil al bertsolari Pedro Mari Otaño, hijo del caserío Errekalde, poeta que en Argentina sentía nostalgia incurable de su Euskalerría y la trasvasaba a sus versos.*

*Disertaba yo en el Jockey Club de Buenos Aires ante una nutrida concurrencia vasca sobre el tema "Vascos y América", tras presentación del ilustre Enrique de Gandía, pozo de saberes y figura casi mítica en Argentina. Hablé largamente de la presencia vasca en la historia americana desde los viajes de Colón hasta nuestros días, sin olvidar la participación en la ardua tarea de la independencia. Reservaba para colofón de la conferencia una alusión al bertsolarismo, con especial referencia al vate de Zizurkil que murió en Rosario y estuvo enterrado en Pehuajó hasta que, en 1971, fueron trasladados sus restos a La Plata. En el más aristocrático club de Buenos Aires leí en euskera, lo traduje y glosé el bellissimo poema que en "Amerikako Panpetan" dedica al ombú Pedro Mari Otaño. El silencio del auditorio y la emoción de los oyentes fueron inolvidables.*

*El ombú ¡qué bella palabra! es el árbol nacional. Yo lo llevaba incrustado en el alma por los versos de Casona en "Los árboles mueren de pie" y llevaba el propósito de contemplarlo por primera vez en la vida, así como la estrella Cruz del Sur. Confieso con rubor que no llegué a ver la estrella. Sí contemplé a sabor un pequeño parque con ombús, próximo al celebre cementerio de Recoletas. Yo me imaginaba un árbol gigantesco y no es así, mas es un árbol singularmente frondoso y bello, y está en el corazón de todos los argentinos. Los versos de Otaño hicieron el milagro de remover posos, hurgar en raíces aún más profundas y provocar lágrimas.*

Txabol ondoko ombu laztana...

*Otaño amaba el ombú que crecía junto a su casita campera y a su tambo. Le costaba separarse de él, porque le traía a la mente recuerdos llenos de nostalgia de su tierra. No le pedía fruto -el ombú no lo da- sino que se mantuviese enhiesto, con su silueta verde y airosa, mientras él viviera.*

Nere lagunik maitatuena...

*El ombú querido era el más amado de sus amigos y el más fiel, a cuya sombra lloraba a gusto sus penas, recordando el nogal de su lejana casa nativa. Le promete que siempre lo llevará en la memoria y en el corazón, pero confiesa que ahora que sus huesos reposan a la sombra de los árboles de su tierra, de su Zizurkil natal.*

*La poesía de Otaño hizo reverdecer hondos sentimientos en mi auditorio, removió hondas raíces. Muchos se me acercaron tras la conferencia y me mencionaban sus villas vascas de procedencia, reciente o antigua. Algunos me aseguraban viejo arraigo argentino: "Soy descendiente de Juan de Garay... Proceó de los García de Loyola". Un directivo del prestigioso centro me prometió que colocarían en el prestigioso salón una placa que conmemorase la vez primera en que resonó el euskera en aquel recinto, el euskera del vasco-argentino Otaño, que editó sus versos vascos en Buenos Aires, murió en Rosario y reposa en La Plata, añorando el nogal de su caserío, Me gustaría que la promesa hubiese sido cumplida...."*

(1) Desierto. (Otañoaren oarra.)

(2) Alortik. (Id. Ez dakiger zer esan nai duan alortik izt orrek.)

# BERTZO BERRIYAK

- 1 -

Ama Euzkera-naiz ni benetan  
etzafiezela bilduri  
kezkatian nator bestie aldera  
ota zereden burtu  
anborte zonet isez egindit  
iya naziz negar ez urbi  
ez ote dezit zuk ere naiko  
netik maikunk legortu.

- 2 -

Au aditizian odol guztiyak  
ur buru zizatzkian  
eta ntera aintzian oyetik  
zergatik negon gatzik en  
ezanaz Ama bere jarrian  
beraz berori ezkian  
bestie nautia agindu bizait  
nik zer egin nezakian

- 3 -

Ezkatik elduta mufi emanaz  
bertan belaunikaturik  
erantzun niyon ama agindu  
ez nautiz izan ardurik  
lenago egonegatik zerbait  
gure Euzkera goidarik  
indar aundiyak artzen artik  
orain nauti zabaidurik.

- 4 -

Lenago azkok aintzai artzen ez  
ginduzen gauza guztiyak  
ainbesterano ederizten ditu  
orain ezit ikuztiyak  
Euzkai erriko mendit ja zelai  
lari arkaitz ja zaziyak  
bestie ezin ezin litzake  
ayen jarrian aztiyak.

- 5 -

Zazi terriko lore eder bot  
bezela dago Euzkera  
gure amaren izkuntza da eta  
ezina oti uztera  
datorik zayatu bear genduke  
ori ondo ikaziera  
erdarazko itz oyek kenduta  
ozo garbitu oztera.

- 6 -

Zazpi aitzaren galdun oyain  
ebakirikian erditik  
alde bestera iru zonetko  
utzirikian lan bestetik  
gorazitakin moztubag gatik  
bakotiza bere aldeetik  
ezagutzenda izaitz dirala  
zazpiyak eyel batetik.

- 7 -

Oyaltzai artu zagan Euzkera  
goraitzeizal bidazoa  
lhai kozkor bai besterik ezta  
itza balitz itzazua  
arkarregandik urrian daude  
muga deitzen da pouzua  
zergatik izan biar ezdega  
famli bakar ozua.

- 8 -

Arbola baten zafetatikian  
zortzen diran lagudarik  
bezela gera bidazoren  
bi aldeleko jendiak  
berditak dira gure lotorri  
oiturak eta legiak  
Ama Euzkerak magai berian  
aziako zenidiak.

- 9 -

Ama Euzkerak au ezan zian  
jarririk begi aloyak  
arragalikian nakar onera  
berari lagundun nayak  
ezdira aundiyak izango nozki  
orain nik daukalan gayak  
zuri laguntzen pisako dirat  
gabak egun azte layak.

## Amerikatik bialduak

- 1 -

Euzkai erriko lur maite artan  
fayo nizan bazeriyen  
itzal aundiko inxaur erbol bat  
hada gure atariyan  
aren ondolik itenda noiznai  
maldako gasiaferiyen  
edo zagarrik onenak iten  
luberriko sagasiyen  
arbol terrian bitan nizan  
gazte denbora guzfiyan.

- 2 -

Denak utzia etorri nizan  
lur au ikuzi aintzun  
arbiz lanayak pazo kerdanak  
nola ez izan goguan  
orain artizetan Ameriketian  
arraniko baten ondian  
eguna igoro lartian eta  
litalzen naizen orduan  
nere begiyak aiatzen dira  
zualtz onen inguruben.

- 3 -

Zenbait bezela eznaiz frizietzen  
eremu zabal oyelan  
arbolak mendit eta errekak  
falta utran zelayetan  
nor etorria ezertizan  
zualtz onen zait etan  
edo igota ozira tartian  
bere adar bikaletan  
ene amarka nik nola ezan  
zenbait gogaituzen detan.

- 4 -

Txobot ondoko zualtz laizana.  
maitaizen zaitut gogotik  
eta biyotza erdituzen zait  
juztuan zute ondolik  
nere burua ekarizen dezun  
oroimaz gogozatik  
zure ikuzi naitel ikuzi  
ez ditut ezertzen frutik  
ni emen bizi naizen artian  
arren egon zaitte zutik.

- 5 -

Nere lagunik maitatuena  
Ama Euzkera zu zera  
argatik nator zure kolkora  
ni maikusk iuxterza  
iduriturik narainazula  
atariko inxaurpera  
bait izango zaitut goguan  
bata ioanaldet oztera  
Euzkai lurreko zualtzpe artan  
nere ezurrak uztera.

- 6 -

Zerda Euzkera nor euzkaldunak  
zeinda nongotarrak dira  
galdezka daude atzeritarrak  
alde ontara begira  
mundu guztiyan bere berdink  
ez duen Euzkai errira  
ezin ikuzi gaituzte ondo  
lriten gaitzezen argira  
litor errurik bota ezdezan  
gure lotorri garbira.

ELUSTORBO - ZARAUZ

(1900)

## ORFEON DONOSTIARRA-RI AGUR

“Agur!” orain bi urte  
esan zirazuten,  
“Agur, kantaridiya!”  
erantzun nizuten;  
agur aiek ez ditut  
biyotzetik uzten.  
Ai, bazeundete txulo  
batetik ikusten,  
nere animak nola  
agurtzen zaituzten!

Bertso au *El Correo de Guipúzcoa* egunkariak argitara eman zuan, 1900-eko uztailaren 14-ean, aldaketarik gabe eta aurretik adierazpen au erantsiz:

*"El notable poeta vascongado y socio honorario del Orfeón Donostiarra don Pedro María Otaño, que en la actualidad reside en Pehuajó (República Argentina), ha dedicado a aquella artística sociedad una inspirada y sentida poesía, en la que da una prueba más desde allende de los mares del gran cariño que profesa hacia su país natal."*

\* \* \*

*Euskal-Erria* aldizkariak ere argitaratu zuan, 1900 urtean.

Bere *Alkar* liburuan ere sartu zuan Otañok bertso au: *Alkar, Poesías*

*escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma euskaro), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*

Beste argitaraldi batzuk, aldaketarik gabe: *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak / Alkar / Iñaki Deunaren irarkolan / Garibay, 28. - Donostia / 1930.*

Baita ere: *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua.*

\* \* \*

Leen ere esan degunez, Otaño Arjentinara azken aldiz joan zan bezperan, 1898-ko ilbeltzaren 25-ean ale-

gia, gaueko amar t'erdietan, *Orfeón Donostiarra* kantari-taldea Luzuriaga bere zuzendariarekin etxeko atarira etorri eta kanta batzuk kantatu zizkion. Pedro Marik onela esaten du bere esku-idatzian:

*"El Orfeón Donostiarra, con su director mi amigo Luzuriaga al frente, nos dio una cariñosa serenata, a las 10 y media de la noche anterior, frente a la casa nº 10 (tienda) de la calle Loyola..."*.

Kantariak bukatutakoan, Otaño, eskerrak ematearren, kalera jetxi zan, taldearen erdian jarri eta iru bertso kantatu omen zituan:

*"Al terminar el orfeón su generoso cometido, les di las gracias como pude, pues la emoción me acongojaba, saliendo a la calle, colocándome en el centro de aquella simpática corporación e improvisando tres zortzikos."*

Azken agur ura gogora arazi nai du Otañok bertso ontan. "Agur orain bi urte esan zirazuten" dion ortan, kanta-

ri-talde orrek abestu zituan kantuak-eta aitatzen ditu; eta, "agur, kantarid-ya, erantzun nizuten" dionean, berak eskerrak ematearren kantatu zizkien iru zortziko aiek.

Bide batez, bertso au noiz moldatu zuan ere esaten du, agur ori egin ziotenetik bi urte joan dirala aitortzen duan ortan.

Azken agur ori 1898'an izan baitzan, bi erantsi eta 1900 urtea degu, Otañok bertso au paratu zuana.

*El Correo de Guipúzcoa* egunkariak, bere oar ortan, Pedro Mari *Orfeón Donostiarra*-ren socio numerario zala esaten du. Baditeke oker egotea; *socio honorario* baitzan, leen ere esan degunez:

*"El Orfeón Donostiarra, en prueba de cariño y consideración por sus hermosas composiciones poéticas éuskaras y muy especialmente por la dedicada a dicho Orfeón, titulada Lartaun, ha acordado nombrar a V. socio honorario del mismo y obsequiarle con una serenata el día de hoy, con motivo de su próxima marcha a América."*

## AOTIK AORA

Leen ere esan degunez, Pedro Maria Otañok eztarri bajua edo txarra zeukan. Orregatik *Kattarro* esaten zioten. Garai artan altabozik-eta ez baitzegoan, akats orrek galerazi zion plazaz-plaza kantari ibiltzea.

Ala ere, noizean bein aotik aora saiatzen zan. Olakoetan Otañok kantatutako zenbait bertso eskeiñi dizkiogu irakurleri. Orra orain emen beste batzuk, Buenos Airesko *La Vasconia*-n arkituak.

Aldizkari onek bere 250 zenbakian, 1900 urteko irailaren 10-ean, onela dio:

*"Despedida cariñosa. Fiesta verdaderamente simpática fue la que organizada por las apreciables señoritas y jóvenes del Coro Euskaro se celebró el 30 del pasado en casa del señor Artucha, para despedirse del señor Ortiz y San Pelayo, con motivo de su viaje a Europa.*

*Se improvisó una larga mesa a cuyo alrededor se sentaron más de cincuenta personas y al final de un buen lunch, esmeradamente servido por un digno ejemplar de nuestra raza, se levantó el Sr. Otaño y con su extraordinaria facilidad improvisó varias octavas, que las cantó con la entonación del himno de "Artzai-Mutilla". Reproducimos una de las que recordamos y que mejor refleja el cariño que hacia el suelo nativo siente el poeta:*

Gure mendi alai ta  
ango basuetan,  
bidetxigor, larre ta  
errekatzuetan,

poztuko zera leku  
maite goxuetan,  
bañan geiena ama-  
txoren besuetan."

\* \* \*

*La Baskonia* aldizkari orrek berak, bere 387 zenbakian, 1904-eko garagarillaren 30-ean, onela esaten du:

*"El domingo pasado invitó nuestro buen amigo D. Luis Labadens a su casa particular de la calle Coronel Pringles, que es una atrayente mansión filármonico-gastronómica, a varios de sus íntimos, con el objeto de pasar un rato de solaz, después de una opípara cena.*

*Como en la reunión se encontraba el notable poeta Pedro M. Otaño, uno de los presentes tuvo la humorada de someterle a un momento de prueba, pidiéndole contestara en verso a las preguntas que le iba a dirigir, al que accedió gustoso.*

*Como Pello-Mari domina el idioma y la métrica baskongada y está dotado de una facultad extraordinaria para improvisar, salió airosísimo en medio de la admiración del auditorio.*

*Se le presentaron pies forzados con las consonantes más rebeldes, y cada pregunta era además de un carácter enteramente diverso, pero no hubo manera de hacerle caer en un pozo.*

*Con las dos improvisaciones siguientes que pudimos anotar en aquel momento de calor, ofrecemos una pequeña prueba a nuestros lectores:*

- Iparragirre zeññ izandu zan  
orain nai genduke jakin...

- Erantzuera emango dizut nik euskaldun guztiyakin; ondo sentitzen dubenak bestek parte ez du artzen arekin, naiago nuke gaur arratsian baldin balego gurekin.

*El pensamiento del siguiente varia en absoluto del anterior, y obsérvese qué corrección en la forma y qué poéticamente está desarrollada la idea:*

- Ta iturriyen otsa garbiyak izango du bere mintza?

- Arkaitz tarteko txor-txor soñuba da Jaungoikuaren itza; au da munduba alaitutzeko zerutik jaisten dan intza, euskal lurrian maiz ikusten da, emen urruti gabiltza.

*Los que sentimos el baskongadismo jamás olvidamos ratos tan agradables que hacen revivir nuestras más caras afecciones."*

Iturriaren ots garbiak eta arkaitz tarteko errekaen soñuaz oroitzeak ez gaitu arritu bear. Olako gutxi egon bear baitu Arjentinako Panpetan. Auek zer diran ona nola adierazten duan Pedro Marik ombu laztanari moldatu-tako bertsoetan:

arbolak, mendi eta errekek  
falta diran zelaietan...

\* \* \*

Urte berean, 1904-ean alegia, abenduaren 20-an, bere 404 zenbakian,

onela esaten du Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkari orrek:

*"El domingo 11 del actual reunió el señor Andrés Iturralde, en su establecimiento de campo de San Justo, a un numeroso grupo de amigos, que no bajaría seguramente de cincuenta, para obsequiarles con la fiesta que todos los años celebra conmemorando su santo.*

*Después de un almuerzo verdaderamente opíparo y servido en forma tan irrefutable como en la principal casa de Buenos Aires, no hubo por suerte brindis en estilos más o menos lateros; pero en cambio se inició una sesión de bersolaris que dio a la fiesta una animación extraordinaria y un carácter genuinamente euskalduna.*

*Los principales contendientes eran Pello Mari y Santos, y no es para descrito el entusiasmo que a veces provocaban. Tocaron varios temas y todos ellos los trataron con altura, dominando como es natural los de sabor euskalduna. Abstraídos en tal ambiente, nos olvidamos de nuestra misión periodística y se nos pasó por alto el copiar alguna de aquellas primicias surgidas en rápidos chispazos de inspiración.*

*Al que escucha por vez primera un contrapunto de bersolaris, le causa asombrosa extrañeza; pues no se comprende que con tanta rapidez puedan desarrollarse tan diversos conceptos dentro de la más perfecta métrica.*

*Escusamos decir que en aquella controversia, que recordarán siempre los que allí aplaudían calurosamente, se destacó muy notablemente el maestro Pello Mari, que como hemos dicho ya en otras ocasiones, tiene un completo dominio del idioma y una inspiración a borbotones.*

*Para despedida, se entonaron en coro varios aires de nuestras montañas, y al aproximarse la hora del tren, partimos con pena de aquel atrayente lugar, muy agradecidos de las atenciones del Sr. Iturralde y de su amable familia".*

\* \* \*

Urrengo batean, *La Baskonia* orrek bere 413 zenbakian, 1905-eko martxoaren 20-an, esaten duanez, Otañok *brindis* bat egin zuala badakigu. Ez ote zuan bera bertsoetan moldatuko? Onela dio aldizkari orrek:

*El domingo 19 del actual se celebró en el hermoso salón de esta sociedad un banquete en conmemoración del XXVIII aniversario de su fundación.*

*El menú, que fue muy bien servido, lo transcribimos a continuación:*

#### CHEDEA

Jankai otzak.- Bakallua bizkaitar eran.- Saieski biribilduak.- Ollasko-gorritzaluak.- Osto gordiñ-gozatuak.

*Mai azkenak* .- Sagar, udare eta erreak.- Muxikak.- Ronkaleko gazta.- Aiakia (budiña).- Orekiak (masak).- Babizmiña (kafea).

*Ardoak eta lukirak*.- "Rioja Alta"-koa.-Rioja txuria.

*Sagardoak*.- "Euskaria".- "Sagardua" eta "Cima".- Txanpaña Montebello.- Koñakak.

*La cordialidad y la expansión fueron las notas salientes de aquella agradable reunión.*

*Llegados los brindis, el vicepresidente señor Sanllorenti leyó una relación retrospectiva de la sociedad en sus últimos tiempos.*

*Brindaron seguidamente el doctor Otaegui, Larrea, Cortazar, Otaño y el señor Ortiz de San Pelayo, que terminó su improvisación con un viril "¡Vivan los Fueros!" que hizo estallar una formidable salva de aplausos. A indicación, muy oportuna por cierto, del mismo señor, se resolvió unánimemente dirigir un telegrama de saludo y de adhesión a la Liga foral de Gipúzkoa..."*

\* \* \*

Beste batean, Pedro Marik kantatu zuala badakigu, kantatu zuanetik adibidetxo bakar bat ematen ez bazaigu ere. Onela baitio La *Baskonia* aldizkari orrek, bere 446 zenbakian, 1906-ko otsaillaren 20-an:

*"Bersolaris en Burzaco.- El domingo 11 pdo. se celebró una sesión de bersolaris en el próximo pueblo*

*de Burzaco, a cuya fiesta, siempre atrayente para los baskos de buena cepa, acudieron numerosos erritarras.*

*Los contrincantes eran Ignacio Sagastiaga (a) Asteasu, veterano ya en estas lides, gran improvisador y muy conocido y aplaudido siempre por todos los allí reunidos.*

*El otro, Cristóbal Arbillaga (a) Bordaberri, natural de Leiza y educado en San Sebastián, joven simpático de 24 años de edad, recién llegado a estas playas, y cuyas aptitudes, preconizadas por alguien, se deseaba conocer, resultó un brillante bersolari, digno contrincante del ingeniosísimo cuanto afamado Asteasu, causando la admiración de todos los oyentes por su pasmosa facilidad y galanura en el decir.*

*Los nutridos aplausos que se les tributó con verdadero entusiasmo, fueron ganados en justicia.*

*Presenciaron esta interesante controversia poética el maestro Pello Mari y excelentes aficionados que también improvisaron en los intervalos.*

*Unimos nuestros plácemes a los dos grandes bersolaris, lamentando que entre la colectividad baskongada no se repitan más a menudo estas deliciosas sesiones".*

Zuzenketa bat egin bearra degu: Kristobal onen abizena *Arribillaga* zala.

Kristobal edo *Bordaberri* ori Manuel Lasarte bertsolariaren famili artekoa zan, izan ere; onen amaren osaba txikia. Bere *Beranduko lanak* liburuan, *Auspoaren Sail Nagusia, III*, 159 orri-aldetik aurrera, *Borda-berri* orren berri ematen digu; eta, bestek beste, onela esaten du:

"Etzan Leitzañ bakarrik bizitua. Gaztetan Ameriketara edo Argentina aldean izana, ta Pedro Maria Otañorekin batera ibilia zala entzun genduen prankotan. Ez dakit zenbat denbora igaroko zuten alkarrekin. Baiña asko famatzen omen zuen Pedro Mari gure Krixtoalek".



(1900)  
**URTE ZAR**

Agur, urte zarra ta  
eunki argiduna,  
orrenbeste mirari  
egin dituzuna.  
Ill da zure indarra  
ta aunditasuna,  
azken orduan zer da  
uzten diguzuna?  
O, zer atsekabeak!  
Zer illuntasuna!

*Pedro M. Otaño*

Urte zaarrari eta XIX-garren eun-  
kiari azken agurra emateko moldatuta-  
ko bertso bakar au, Buenos Airesko *La*  
*Vasconia* aldizkarian argitaratu zan,

261 zenbakian, 1900 urteko abendua-  
ren 30-ean, leendabiziko orrialdean.  
Baiña beste iñun ez degu guk beintzat  
arkitu.

(1901)  
**ONGI - ETORRIYA**

Jaioterri maitera,  
Osasun ondoren,  
Sortu ziñan lurrari  
Eskatzera arren!,  
Megope(1) ta gorputza  
Aunaturik emen,  
Run-run gozuen billa  
Iritxi ziñaden.

An utzirikan oraiñ  
Lagunak ta erriya,  
Denai egiñik berriz  
Agur mingarriya,  
Sendoturik dakartzu  
Osasun berriya;  
*Rezibi* zazu nere  
Ongi-etorriya.

*Pello Marik.*

Bi bertso auk Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian argitaratu ziran, beraren 287 zenbakian, 1901-eko irailaren 20-an. Baiña ez ditugu beste iñun arkitu.

*Acróstico* bat egiten du emen Otañok. Lerro bakoitzaren leenengo izkia artu eta goitik beera irakurtzen bada, *Jose Mari Aldasoro* irakurriko baitegu.

Jaun ori nor izan zan ez dakigu. Baiña, itxura danez, Arjentinan gaixoturik, Euskalerrira etorri zan osasunaren billa; eta, sendatu eta ara ostera joan zanean, Otañok bertso aukin eman zion bere *ongi-etorriya*.

---

(1) Megopea: el espíritu. (Otañoren oarra)

(1902)  
**NOIZBAIT**

- 1/ Jeronimo Elizegi,  
zure “Oroimenak”  
pozkidaz bete ditu  
gure barrenak;  
goitaltxatu gaituzu  
Otañotar denak,  
ingurukuak eta  
urruti gaudenak,  
bizi geradenak  
ta ill ziradenak,  
pozak eta penak  
gure kastarenak...  
Ar itzatzu eskerrik  
bereziyenak.
  
- 2/ Elizegi, altxatzen  
gaituzu txit gora;  
zeiñ ez dute gauz oiek  
uzten gustora?  
Gaur ez merezi arren  
orrenbeste onra,  
irabazten saiatu  
gintezke gerora.  
Guk ortik kanpora,  
ai, zenbat denbora  
bildu gabe iñora,  
lagunen ondora!...  
Poza da ekartzia  
batek gogora.

- 3/ Erabaki zerade  
modu bikañian  
askok iritxiko ez  
luken añian,  
bederatzi puntuko  
doñu apañian;  
beragatik zenbaitek  
zauzka mingañian.  
Nik beiñik beñian,  
aiñ gogo fiñian,  
agertu danian  
euskal jardiñian  
*lore berri alai bat*  
*arantz gañian.*
- 4/ Gure euskal jardiña(1)  
arantzaz josirik,  
arritzeko da nola  
dagon bizirik;  
orrenbeste penatzen  
*Ama* ikusirik,  
bere semiak eziñ  
geundezke geldirik;  
guk zabar utzirik,  
ez ark merezirik,  
daukagu jatxirik  
ta eziñ altxarik,  
zergatik batzubek ez  
duten lotsarik.
- 5/ Kizkurturik jarritzen  
zaizkit atzaparrak,  
gogoraturik *Amak*  
dauzkan negarrak;  
ez eskeñitzekotan  
ditugun indarrak,  
zertarako gerade  
aiñ seme zabarrak?  
Ondu bitez txarrak  
ta *gizondu aurrak*,  
leial ta azkarrak,  
puskatu amarrak...  
Ez gera esker gabiak  
Otañotarrak.

- 6/ Aita ta anaia ill  
ziran ezkeroztik,  
bertsuak illunpian  
gelditu zaizkit;  
nola etzetorkidan  
iñondikan pozik,  
zure *oroimen* onak  
ederki datozkit;  
oraiñ ere ortik,  
gure sorlekutik,  
betiko txokotik,  
lagun zarretatik...  
Guztiyai eskumuñak  
gure partetik.

*Pedro M. Otaño.*

*Pehuajó-n, Abenduaren 1-ean, 1902-ian.*

Bertso auek Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian argitaratu ziran leenengo aldiz, 331 zenbakian, 1902-ko abenduaren 10-ean. Ikusi degunez, nun eta noiz jarriak ziran ere esaten zaigu. Kursiba letra motaz idatzi ditugunak, *La Baskonia*-n ere alaxe daude.

Beste argitaraldi batzuk:

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak, Alkar, Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28, Donostia, 1930. Aldaketa: 2/7: irabazten leiatu.*

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz, 1959. I.*

Unzurrunzagak prestatua. Onek aurrekoak duan aldaketa ori bera du.

\* \* \*

Bertso auek irakurtzearekin auxe ateratzen da: Jeronimo Elizegi batek bederatzi puntuko bertso batzuk aurretik, eskeiñi zizkiola, Otañotarrak goitaltxatuz; eta Pedro Marik beste bertso auekin erantzun zuala.

Jeronimo Elizegi orren bertsoak *El Correo de Guipúzcoa* egunkarian argitaratu ziran, 1902-ko urriaren 31-n. Pedro Mariren eskuetara iritxi eta onek bere auek jarri *ordañetan*.

Elizegiren bertsoak *La Baskonia*-k ere agertu zituan, Otañoeren erantzunarekin eta aldaketarik gabe. Onela diote:

## OTAÑOTAR - ARI OROIMENA

1/ Pedro Maria Otaño  
lenbizikotikan  
jartzen det paper ontan  
goititurikan.  
Euskalduna biotzez  
izanagatikan,  
juan zan gizarajua  
urrun emendikan.  
Beti esanikan  
egon naiz lendikan:  
Euskal-erritikan  
aiñ jakintsurikan  
ez da sortu amaren  
sabeletikan.

2/ Bernardo berriz degu  
gizon egokiya,  
txit onraduba eta  
bertsolariya,  
Zizurkildik onera  
noski etorriya;  
ura izan biar du  
jaio zan erriya.  
Txit alaigarriya  
orren arpegiya,  
kantari argiya,  
euskaldun garbiya,  
Karidade-ko seme  
maitagarriya.

3/ Periko ta Mikela,  
Joxe gaztiena,  
ura zan neretzako  
launik onena;  
txarkeririk etzuben,  
ona zuben dena;  
edozeñi laguntzen  
beti zan aurrena.  
Gauzik okerreña

jakindu nubena:  
lagun maitiena  
Elizegireña  
ill zala Amerikan;  
ai, ura pena!

4/ Ildakua askotan  
ezin leike aita,  
guztiarentzat pena  
izaten baita.  
Barkatuko dirate  
artu dedan gaita,  
nik emen jarri ditut  
argiratu naita.  
Aitormena maiz-ta,  
aztutzia gaitz-ta,  
asko ditut maita  
euskalduna naiz ta;  
Juan Pello argiña zan  
danaren aita.

5/ Bukatutzera nua  
fameli danakin,  
Jose Bernardo oien  
osabarekin.  
Sekulan ez du izan  
traturik nerekin,  
bañan aspaldi nuben  
zer zan ori jakin.  
Kantu lanarekin  
zeiñ jarri arrekin  
ta guztiarekin,  
naiz izan zerekin:  
euskalduna bezela  
abarkarekin.

Bigarren bertsoak aitatzen duan  
Bernardo bertsolari ori, irakurleak  
oartuko zanez, ez da Pedro Mariren  
osaba Jose Bernardo, beraren anai

# NOIZBAIT!

Gerónimo Elizegi,  
Zure "Oroimenak"  
Pozkidaz bete ditu  
Gure barenuak;  
Goitachatu gaituzu  
Otaño-tar denak,  
Inguukuak eta  
Urruti gaudenak  
Bizi geradenak.  
Ta ill ziradenak,  
Pozak eta penak.  
Gure kustarenak...  
Ar itzazu eskerrik  
Berezizyena.

Elizegi, alchatzen  
Gaituzu chit gora;  
Zeiñ ezdute gauz oyeak  
Uzten gustora!  
Gaur ez merezi arren  
Orrembeste onra,  
Irabazten sayota  
Gintezke gerora:  
Guk ortik kanpora  
Ai, zenbat denbora!  
Bildu gabe ifora,  
Laguneri ondora....  
Poza de ekartzia  
Batek gogora.

Erabuki zerade  
odu bikañian,  
skok irichiko ez  
ken añian,  
Lederatzi puntuko  
Doñu apañian,  
Beragatik zenbaitak  
Zauzka mingañian;  
Nik beñik beñian,  
Añ gogo fñian,  
Agertu danian,  
Euskal-jardiñian,  
Love berrí alai bat  
Avantz gañian.

Pehuajó-n, Abenduaren Iean., 1902ian.

Gure euskal-jardiña (1)  
Arantaz josirik,  
Arritzeko da nola  
Dagon bizirik;  
Orrembeste penätzen  
Ama ikusirik,  
Bere semok eziñ  
Genuzetzke geidirik;  
Guk zabar utzirik,  
Ez nik merezirik,  
Daukagu jachirik  
Ta eziñ alchank.  
Zergatik batzub.k ez  
Duten lotsarik.

Kizkurturik jarritzen  
Zaizkit atzaparrak,  
Gogoraturik amak  
Dauzkan negarrek;  
Ez eskeñitezkotan  
Ditugun indarrak,  
Zertarako gerade  
Añ seme zabarrak;  
Ondu bitez charrak;  
Ta *gizondu aurrak*,  
Leyal ta azkarrak  
Puskatu amarrek...  
Ez gera esker gubiuk  
Otaño-tarrak

Aita ta anaya ill  
Ziran ezkeroztik,  
Bersuak illupian  
Geiditu zaizkit;  
Nola etzetorkidan  
Inñondikan pozik,  
Zure *oroimen* onak  
Ederki dotozkit;  
Orain ere ortik,  
Gure sorlekutik,  
Belico chokotik,  
Lagun zarretatik...  
Guztiyai eskumuñak  
Gure partetik.

PEDRO M. OTAÑO.

## ENTRE POETAS

### OTAÑO TAR-ARI

#### 'OROIMENA'

Pedro Maria Otaño  
lembizikotikan  
jartzen det paper ontan  
goititurikan  
euskalduna biotzez  
izanogatikan  
juantzan gizarajua  
urrun emendikan  
beti ezanikan  
egon naiz lendikan  
Euskal eritikan  
aifñ jakintzurikan  
ez da zortu amaren  
zabeletikan.

Bernardo berriz degu  
gizon egokiya,  
chit orraduba eta  
bertzolariya.  
Zizurkildik onera  
noski etorriya.  
Ura izan biardu  
jayo zan erriya;  
chit alagariya  
arren atepgiya  
kantari argiya  
euskalduna garbiya  
Sendade-ko seme  
alagariya.

eriko ta Mikela  
... gaztierna  
ura zan neretzako  
launik onena  
charkeririk etzuben

ona zuben dena  
edozeñi laguntzen  
beti zan aurrena;  
gauzik okerrena  
jakindu nubena  
lagun mutierna  
"Eizegi"-rena  
illzala Amerikan  
¡Ay! ura pena.  
Bildukua azkotan  
ezinleike aita  
buztiyarentzat pena  
igaten baita  
barkatuko dirate  
aitu dedan gaita  
nik emen jarri ditut  
argiratu naita  
Aitormena maiz-ta  
Juan Pedro argiña zan  
danaren aita.

Bukatutzero nua  
famehi dan kin  
José Bernardo oyen  
ozabarekin  
zekulan ezdu izan  
traturik nerkin  
bañan azpaldi nuben  
zertzan ori jakin  
kantu lanarekin  
zeiñ jarri arrekín  
ta guziarekin  
naiz izan zer-ekin  
euskalduna bezela  
abarkarekin.

G. ELIZEGI.

Donostian, 1902. Iar.

Jeronimo Elizegiren *Otañotar-ari oroimena* bertsoak eta Pedro Mari Otañoaren *Noizbait* bertsoak, Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian, 1902-XII-10-ean.

Bernardo baizik. Osabaren aitamenak bostgarren bertsoak egiten ditu.

Bostgarrengo orrek, Jose Bernardo abarkaz ibiltzen zala esaten digu. Ortaz zerbait adierazten da Pello Errota liburuan, *Auspoaren Sail Nagusia*-ren 5-garrenean, 36 orrialdean.

\* \* \*

Elizegiren leenengo saillaren bertsoak Ernaniko Eduardo Egañaren aotik ere jaso nituan. Jaun au ernaniarra zan jaiotzez, baiña ogei urterekin Donibane-Lohizunera aldatua eta geroztik bertan bizia. Larogei urte zituan bertso auk eman zizkidanean, orain ia ogei ta amar urte. Buruan gordetzen dana, ordea, uste gabeen aldatu egiten da noski; eta jaun onek aldaketa aukin eman zizkidan bertso auk:

1/7: gizarajua juan zan; 1/11: ain jakintsurikan; 1/12: Euskalerritikan; 2/6: dezu etorriya; 2/8: sortu zan erriya; 2/10: aren arpegiya; 3/5: gaizkirikan etzuben; 3/11: launik maitiena; 4/3: guztiyentzako pena; 5/13: euskaldunak bezela.

\* \* \*

Esan degunez, leenengo bertso-sailla Jeronimo Elizegi dalako orrek jarri zuan; bigarrena Otañok, erantzuna emanaz; eta irugarrengo sail bat ere izan zan, Elizegik jarria, onako au alegia:

1/ Zu jaio ziñan lur eder ontan zenbait euskaldun piñ ta on pozturik daude dakitelako ondo zerala Pehuajó-n; esan izan det eta esango det zergatik seguru nagon: il eta gero salda berua naiz len txit premiyan egon. Gizon jakintsu aundiarentzat orra munduban zer dagon.

2/ Zenbait oi dira izan munduban gizon jakintsu argiyak izan diranak euskal letretan gure erakustariyak; beste batzubek koraje aundiz arraxkatubaz biziya egin dituzte gerra denboran aziyo izugarriyak; guztiarentzat berdin izan da: ill ta gero gauz aundiya!!

3/ Ni ori beti esaten nago, badakit dala alperrik, ezagutzen det zuzen juatera ez litzakela okerrik. Bañan ez al da tristia, jaunak, gizon bat bakar-bakarrik zeguan euskera ezagutuba aiñ jakintsu ta azkarrik, eta guk ala juaten uztia bera sortu zan erritik?

4/ Orrengatikan bigaldu ditu, orain dagon lekutikan, bertso batzubek esanaz nola gauden txit ondaturikan; len lur eder au lore ederrez zegola apaindurikan, eta gaur berriz dagola otez ta arantzez beterikan... Au da tristia: diyola ez dala gure kulpa besterikan.



5/ Arrazoi du ark. Zergatik dago  
lur au arantzez josiya,  
egon leikela len bezelaxe  
lore ederrez jantziya?  
Uste dezute bizi leikela  
baserri nekazariya  
izango balitz bere lurretan  
gu geran bezin utziya?  
Ez! Arrek azkar kendutzen diyo  
belar txarrari biziya!

6/ Orrela digu erakutsitzen  
nola sortu zaigun miña,  
eta gure lur eder onetan  
daukagun bizi eziña.  
Arrek ara zer lanteri daukan  
bere soroan egiña:  
belar txar dana kanpora eta  
bertan utzi berriz piña.  
Obe genduben gu're orrela  
saiatu izan bagiña.

7/ Zenbaitek nitzaz esango dute  
-ala zait iruritutzen-  
beti euskera-kontu naizela  
saiatzen iskribatutzen.  
Bañan nik onla esango diyet:  
“Ez dezute ezagutzen  
lapa arrokan dagola pozez  
ta antxen dala gozatzen?”  
Bada arrokkak lapa bezela  
nau ni euskerak poztutzen.

8/ Orra nik emen bertso batzubek  
al dedan bezela jarri,  
bukatutzera nua zergatik  
ezin leike beti ari.  
Pello, zuk nere partetik eman  
or eskumuñak danari,  
eta biotzez besarkara bat  
artu zure lagunari,  
agur, euskaldun pare gabea,  
agur, agur, Pedro Mari!

Bertso auekin Jeronimo Elizegi  
onek Otañori erantzuna ematen diola  
esan degu. Ori ez degu iñon arkitu,  
baiña bertsoetatik olaxe ikusten da.

Otañok, izan ere, onela esaten du  
laugarren bertsoan:

Gure euskal jardiña  
arantzaz josirik...

Eta Elizegik bere laugarrenean:

len lur eder au lorez bezela  
zegola apaindurikan,  
eta gaur berriz dagola otez  
ta arantzez beterikan...

Otañok laugarrenean:

guk zabar utzirik,  
ez ark merezirik,  
daukagu jatxirik  
ta eziñ altxarik,  
zergatik batzubek ez  
duten lotsarik.

Eta Elizegik laugarrenean:

Au da tristia: diyola ez dala  
gure kulpa besterikan.

Otañok, bere bertso oien bukaeran,  
bera orduan bizi zan erria aitutzen du:  
Pehuajó.

Eta Elizegi onek, bere leenengo  
bertsoan, erri ori bera izendatzen digu.

\* \* \*

Bertso auek, Ernanin jaio eta  
Donostiko txistularia izan zan Isidro  
Ansorenak eman zizkidan, eskuz

idatzitako orri batean. Idazki ori da bertso auen kopiariak zaarrena, guk ezagutzen ditugunetan. Kopiatzaillearen oker nabarmen batzuk zuzendu ditugu. Adibidez, onela idatzita zegoan: 4/5: zen lur eder au lore ederrez; 4/8: ta arratsez beterikan.

Lasarteko Basoandiko Isabel Zuaznabar adiskidearen eskutik bertso-paper bat jaso nuan bertso auekin. Moldiztegi izena: *Imp. R. Altuna. San Sebastián*. Baiña Ansorenarena baiña kopia berriagoa dala ematen du.

Aldaketak: 1/2: zenbat euskaldun pin ta on; 1/4: ondo zerala Peru'ra jun; 1/5: Esan, esan det eta esango det; 2/1: Zenbat oi dira izan munduban; 2/9: guziyarentzat berdin izan; 3/10: bera sortu zan lurretik; 4/5: Zer lur ederran lore ederrez; 4/7: eta orain berriz dagola otez; 4/8: ta arantzaz beterikan; 4/9: au da tristia diyo eztala; 5/1: Arrazoi du ark zergatik dagon; 5/3: egon leikela len bezin klasian; 5/9: ez, orrek azkar kenduko diyo; 6/5: Ara arrek zer lanteri daukan; 6/7: belar txar danak kanpora bota; 7/5: Baiña nik ere esango diyet; 8/5: Pello, zuk eman nere partetik; 8/9: agur euskaldun parre gabeak.

Ernaniko Antonino Pagola zanak ere eman zizkidan bertso auek, eskuz idatzitako orri batean.

Aldaketak: 1/2: zenbat euskaldun pin ta on; 1/4: ondo zerala Peruajon; 2/1: Zenbat oi dira izan munduan; 2/4: gure erakuslariak; 2/6: arraiskaturik biziak; 2/7: egin dituenak gerra denboran; 2/9: guztientzako berdin izan da; 3/1: Ni beti ori esaten nago; 3/3: sinistatzen det zuzen joatera; 3/7: zegon euskera ezagutua; 3/9: da orren aisa joaten uztea; 3/10: bera sortu zan lurretik; 4/2: berak esplikatutikan; 4/9: au da tristia, dio ez dala; 5/1: Arrazoi du ark, zergatik dagon; 5/6: basarrin nekazaria; 6/1: Orrengatikan esaten digu; 6/5: Begira ark ze lanteri daukan; 6/9: obe genduen gu ere ola; 7/4: saiatzen eskribitutzen; 8/4: ezin niteke beti ari; 8/5: Pello, zuk eman nere partetik; 8/6: or eskumiñak danairi; 8/8: artu zere lagunari.

Ernaniko Pablo Zubiarrain Ernani-Txikia bertsolariak eskuz idatzitako beste kopia bat eman zidan. Baiña onek Donostiako Altunaenean argitara emandako bertso-paperari kopiatu dio. Aldaketa berria: 4/4: dauden txit ondatutikan.

(1902)  
IÑUZENTE - EGUNA

Gaitzik gabien egun onetan  
jaio zan gure aita zana,  
urtiak joanik egun berian  
ill zan amatxo laztana;  
iru arreba umerik illak,  
anai bat berriro joana,  
guri kendu ta eraman ditu  
Jaungoikoak beregana.  
Irakurliak, erreza zagan  
denok aitagure bana!

*Pellomari*

Bertso bakar au Buenos Airesko *La Vasconia* aldizkarian agertu zan, 333 zenbakian, 1902-ko abenduaren 30-ean.

Leenengo lerroetan esaten duanez, oso egun gogoangarria zuan orixe Pedro Marik. Egun orretan, izan ere, 1829-an, aitaren jaiotza gertatu zan; 1879-an, berriz, amaren eriotza.

Urrena, “iru arreba umerik illak” esaten digu. Leen ere adierazi degu-

nez, Mikaela bere arreba bizki ura amairu illebeterekin il zitzaion, 1858-ko martxoaren 1-ean. Beste biena Pedro Marik esaten duan bezela izango da, baiña gu beintzat ez gera artxi-boetan ori arkitzeko gauza izan.

Eta azkenik, “anai bat berriro joana” dio. Anai onen aitamenak leen ere egin ditugu. Jose Frantzisko zeritzan, baiña Joxe deitzen zioten. Ameriketara joan eta bertan il zan.

(1903)

## "URTE BERRI"

*(Euskaldun jator On Luzio Kortejarena'ri donkituba)*

- 1/ Ogeigarren eunkiyan  
kristauben bizitzan,  
bi urte igaruak  
dauzkagu desditzan;  
begira dierriyak(1)  
zer nola dabilizan,  
elkar purrakatutzen  
non-nai arakintzan,  
aurreratutzen guaz...  
txangurruben gisan.
- 2/ Gizon eta erriyak  
dabiliza bildurrez,  
elkar zelatatubaz  
legorrez ta urez,  
itz ederrak esanaz  
barrendik gezurrez:  
"Zeiñ dirade gaiztuak?  
Bestiak bai, gu ez...".  
Indarra nagusi ta  
gogorrena juez.
- 3/ Aurreratu dubela  
gizonak lurrian  
esaten da mirari  
askoren aurrian;  
bañan gizatzarraren  
biyotz gogorrian,  
eta arro dollorren  
zentzu laburrian,  
aunditasuna dago  
eskumuturrian.

- 4/ Asko aurreratu da  
bañan zertarako,  
ez bada naitasunik  
elkarrenganako?  
Atzaparrak dabilta  
biyurturik kako,  
bestientzat bezela  
Euskal-errirako...  
Ez degu arrazoyik  
gutxi geralako.
- 5/ Gutxi! Jú, jú!... Eztakit...  
Ala ote gera,  
begiratubagatik  
askok goitik beera?  
Gu ez guaz beñere  
besteren kaltera,  
ta zeñek daki nola  
gintezken atera,  
bilduko bagiñake  
zazpiyak batera?
- 6/ Aundiyak izan arren  
euskaldunak neurriz,  
nekatubak gauzkate  
gauza lotsagarritz.  
Munduban garbiyenak  
gu gera jatorriz;  
anaiak, poz gaitezen  
sortu giñan erriz,  
agurtutzen zaituztet  
denak Urteberriz.

Bertso auei buruz aurrena au esan  
dezagun: on Luzio Kortejarena ori nor  
izan zan ez dakigula.

\* \* \*

Bertso auen leenengo argitaraldia  
Buenok Airesko *La Baskonia* aldiz-  
kariak egin zuan, bere 334 zenbakian,

1903-ko ilbeltzaren 10-ean. Urtebe-  
rriz, beraz, zenbaki ura urte artako au-  
rrera baitzan.

Urrena, Otañok bere liburu ontan  
sartu eta argitaratu zuan: *Alkar,*  
*Poesías escogidas de Pedro M. Otaño*  
(*en idioma éuskaro*), Buenos Aires,  
*Tipografía "La Baskonia"*, Victoria  
1088, 1904. Aldaketarik ez du.

Beste argitaraldi batzuk, aldaketarik gabe auek ere:

*Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak, Alkar, Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28, Donostia, 1930. Aldaketarik ez du.*

*Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1959, I. Unzurrunzagak prestatuta. Aldaketarik ez du.*

\* \* \*

Sei bertso auek Oiarzungo Antonio Olloki'ren aotik ere jaso nituan. Iñoren buruan bertsoak nola alda-

tzen diran ikusteko, komeni dala uste degu emale onen aldaketak eman jartzea:

1/2: gizonen bizitzan; 1/5: begira dierrian; 1/6: zer moduz gabiltzan; 1/7: alkar purrukatutzen; 1/10: zangurruen gisan; 2/3: alkar zelatatuak; 2/4: legor eta urez; 3/1: Irabazi duela; 3/3: aditzen da mirari; 3/8: edo arro dollorraren; 4/1: Irabazi degula; 4/3: maitasunik ez bada; 4/4: alkarrenganako; 4/5: biurtuta dabilta; 4/6: atzaparrak kako; 4/8: euskaldunentzako; 5/1: Gutxigo gu gerala; 5/8: giñezken atera; 6/3: nazkaturik gauzkate; 6/9: adoratzen zaituztet; 6/10: danak Urteberriz.

---

I. Las naciones. (Otañoen oarra)

# BERTZO BERRIYAK

- 1 -

Jakin nayen zera den munduban  
jakintzerikan zarrera  
anda jakintze uskoak zentzua  
makaturik dastarrena  
lan ezalera bilizten etzan  
hadator zarizen barena  
ta gaur geyanak alorzen dute  
Euzkera zela zarrera.

- 2 -

Gertotarik zoztu ta hadatorrik  
zerebat jakintza zede 3  
getintzerikan luperaturik  
beriko mudi ta bil  
Euzkera gaitzen zayatu arren  
azko burritxo eta zezil  
indar berriyek arizen ordea  
gysat bai bezela dabil.

- 3 -

Munda guzian arkitzen diran  
jakintzurik anduzyenak  
ta bazezere orain Londresen  
eta Desiderio dauzenak  
erain diruzte Euzkerogonik  
akibatirik dauzak  
sakina diruten ergatik dira  
ezagutzen ezakitenak.

- 4 -

Baha akibat utzi ditzagun  
ezalikerik jakintzeriyak  
ta Euzkaldunak izan gaitzen  
prozubak eta auzpizak  
zer egiten du zerebat makurak  
akibatzen dute erriyak  
lindatzenak berdeko diru  
datoren egun berriyak.

- 5 -

Didaxozaren bi aldetarik  
Euzkaldunak izan jarri  
Euzkari iriyaren oragatik  
mizakizen dirado zari  
lengo oturak baizuzela  
ezazte dirado alkerri  
ta burritxoak bakat  
oyek itzake akerti.

- 6 -

Guro lur edar malte ezalera  
biti diruden anyak  
Euzkerazana diru odolek  
ta denek bai izan nayek  
Buena Arresen bitubak daude  
Euzkera indaritzeko goyak  
poziti gaitzen ta Euzkaldunak  
badator egun anyak.

- 7 -

Denak bai egin eta zayatu  
gaitzen aisgintzen  
gure itzuntza eta oturak  
ipintzen baren ofian  
ezuliyok egun gaitzake zerbait  
bokatuzak aldan anion  
Jaungoikoa eta Euzkera lortzen  
gaitza guzizten gaitian.

- 8 -

Ni layo nintzen euzkari lurreko  
leku pozgarri abetan  
eta euzkera irintzi nuen  
jenditiko azuzalera  
amak zuzenak hadakentian  
edo hert bezelatan  
kantu politak ezazte beti  
abestuak baizuzela.

- 9 -

Malte badate gure egunero  
egiten degun euzkara  
bilu ezazte orain Arria  
deritzen diru guri papera  
ori da nere izi lekua  
ez del nri andak atzo  
sente leyoak an bilzen zalzki  
joan zalte ayen jariera.

# AITAK SEMEARI

- 1 -

Lagundurikan geroi  
gurelik it zanak  
seme ari zintzua  
Aitak eta Amak  
beti zere guden  
izanda geyanak  
orain gureta ohen  
onian ezazek  
ando gogun aru  
bituztu danak.

- 2 -

Zis Amakitoro  
mudi ezandik  
jakurk eta nabidur  
zer ezango der nik  
an ezazu bange  
dabil eta amik  
bata ezazu galduko  
nora baita joanik  
ez bazazte azuzzen  
gure emen ezanik.

- 3 -

Gorde zara burdan  
eta biyuzien  
Aitak zer ezan zara  
onin ta guretzan  
bitariko arerik  
Jesus guretzan  
Jaungoikoa Aita Amak  
futek azuztan  
ez teke ando izan  
daturu lutan.

- 4 -

Ez azuzte bitako  
lonka guretzan  
gure guretzan  
ez baita an berdan  
bitako bazira  
an oruzuztan  
eri ta vlezanik  
ardan tokiyetan  
uroi azize lankoz  
leku guzizteko.

- 5 -

Seme izan goguan  
zere jarraituzak  
eta nuen diruam  
seulde gurelik  
layo ziran tekoak  
mandi eta basurak  
euzkeragko otulizak  
edo orreusak  
orakutizyak zure  
Ametxo gurelik.

- 6 -

Bitriku orduan  
joan bene akasun  
badator Aita Amak  
emeri guretzan  
ez dezazte gure  
gure neri gureta  
ta biteroko an da  
ezakiten zalzuna  
izan zalte noraita  
beti euzkalduna.

- 7 -

Luge zarren bita gu  
orain ari gera  
bitriku bier gurelik  
guziyok baitara  
gu ez gure benero  
inoren kaltera  
ta zerebet baki nola  
ezinzeren aiera  
larriko baghake  
zarriyak bitara.

- 8 -

Aundiyak izan arren  
euzkaldunak neuziz  
ez degu mor gaudu  
guzia lotsagarritz  
munda gerbiyanak  
gerude bitoreta  
amak guz gaitzen  
zote zifan eriz  
aguriz gure zariztel  
ta bazara beriz.

Beste bertso-paper bat, Pedro Maria Otañoren bertsoekin.

(1903)

## AUNTZA LARRERA

*Euskal biursari denai donkituba*

Baserri eder bat, aitag utziya, beria zuben. Soro zabalak, baso bikañak, mendi galantak, sagasti oparotiyak.

Ikulluba bei gizenez, txal guri-guriz eta zekor mardulez betia.

Artalde ugariya larrian, naiko arku-me ta gazta saltzeko, eta aari talkalari aundi bat etxian, ardua eraten zekiye-na.

Gañera esan oi zan bazubela lakari bat urre, eta berak ere etzuban ukatzen.

Bi morroi baserri lanetarako, eta artzai bat, irurak zeñ baño zeñ langileguak, eta itzero jauna eta beori esaten ziyotenak.

Biarko!

Inguruko auzotarrak -bere maiztarak batzube-, denak berorika itzegiten ziyoten, aserretu etzediñ.

Etziyon iñori dirurik prestatzen, baña zan conseju emalle izugarriya.

Berrogei ta amar urte zituben eta ezkongai zeguan.

Etxekoandretzat zeukan irurogei urteko izeba neska zar bat, zeñak egunaren erdiya pasatzen zuban erreztzen, eta beste erdiya erritan.



Martolo jauna deitzen zitzaion gizon oni.

\* \* \*

Inguruko baserririk txarrenetako batian bizi zan Borda izendatzen zan gizon argi bat, berrogei urtekua, bere emazte Opathoni, lau seme eta iru alaba alaien lagunkidan.

Borda au zan bertsolari onenetako bat, eta bizi zan txit arlote, bañan kontentu eta alegere.

Etzan eskatzallia; miñ ematen ziyon iñor biartziak; etzuben nai emalliaren mende jartzia bere libretasuna.

Au bakarrik zan, ingurumari artan, etxealdeko nagusiyari, Martolo jaunari, zuka itzegiten ziyonik.

Egun batez, otabar batzuek ebakitzten ari zala, aizkoraren kirtena autsi zitzaion gure Bordari; eta, nola esku tsik gelditu zan, joan biar izan zuben Martoloren etxera, aizkora bat presta zeioten, kirten berri bat egiteko.

*Dan! Dan!* jo zuben atia, eta azaldu zitzaion nagusiya bera.

- Jainkuak dizula egun on, Martolo.

- Bai zuri're, Borda. Zer zabilta?

- Ementxe. Gurdi bat ote ebakitzen ari naizela, aizkoraren kirtena autsi zait, eta berri bat egiñ ote nezakian nator.

- Ez al dezu otesegik?

- Otabarrak ebakitzen ari naiz or dia...

- Otabarrak edo *otatrabak* maiz izate'itu zenbaitek. Beira zazu, Borda:

zu gizon on bat zera, gañera famili aundiya daukazu, eta nik pozik lagun- duko nizuke askotan, baño, baño...

- Zer da?

- Ze izango da! Bertsolariyak txalo asko irabazten ditu, baño diru gutxi.

- Tori! Okolo eskaliak sekulan eztu bertso bat bakarrik moldatu, bañan...

- Zuk, berriz, geiegi.

- Baliteke.

- Buruz azkarrak zeratelarik, zer umiak zeraten bertsolari denak! Eta zenbat eta obia, ura ta umego. Txori- yai segika dabillen umiak, mandatuba berandu egiten du beti, eta geienian gaizki. Buruba bertsoz betia dabilkin gizonak, maiz izango ditu esku utsak. Zerura begira dabillanak, sarritan egingo du estrapozo. Ametsetako ira- baziyak, esnatzian ariyo. Au zuk nik baño obeto dakizu, Borda. Ez da egi- ya?

- Ala diruri. Ni beti lanian bizi naiz, dakizun bezela, ez naiz gastatza- llia, ta ala ere sekulan ez det txanpon bat nere mendian.

- Bertsuak dute kulpa guztiya. Utzi zazu griña galgarri (y) ori alde bat, eta segi zaiozu lanari, *lanian pentsatubaz*. Orain tori aizkora, ar zazu otesega au ere eta zuaz zere lanera. Neri bertsuak gustatzen zaizkit, bañan zuk bota ditu- zu naikua. Asko dezu. Nik ikusten ba- det nere esan onak zintzo egiten ditu- zula, etzaizu paltako lana ta irabazpi- dia. Akorda zaite zere familiaz. Egingo dezu nik esan bezela?

- Saiatuko naiz.

\* \* \*

Borda gizagajua, lotsaturik, itzuli zan berriz otelarrera, bere artian esanaz: "Arrazoi ote du gizon orrek? Orañ erortzen naiz kontura, egiaz, ez derala ezagutu bertsolari aberatsik, eta lengo zarrakgatik ere beti entzun izan det oso pobriak zirala. Ez ote zaio Jainkoari bertsorik gustatzen? Edo au ote da sari bat, dirubaren orde ematen diguna? Biyak eskatzia anbat geiegi litzake. Martolok diyo asko derala bertsoz. Proga zagun Martoloren konsejuba".

\* \* \*

Igaro ziran zortzi egun, amabost, illabete.

Bordaren etxian etzan sentitzen, len beti oi zan bezela, kanta otsik.

Aita ixildu zanian, mututu ziran ama ta umiak.

Azuak arriturik zeuden, zer gertatzen ote zan.

Martolo bakarrik zebillen txit kontentu, pozez arrotuba, egiñ zuben azañagatik.

Illabete t'erdi bezela zan, Borda Martoloren konsejubakiñ burruka zebillela; larunbata zan eta gure bertsolari izanduba joan zan Tolosako merkatura, lau sagar landare bizkarrian zitubela, aien baliyuarekin gastuba pagatzeko asmu.

Saldu zituben landariak bosna errialian, eta, bere duro aundiya poltsan zubela, sartu zan amaiketakua egitera, Martolo larunbatero joan oi zan ardandegian.

Eskatu zuban kuartillu bat ardo; eskeñi ziyon Martolori, eta onek atera zuben beste kuartillu bat.

Nola Borda gizagajuak etzuben aspaldi artan ardorik progatu, aiñ gogoz eran zuben, non asi zitzaion buruba pixka bat berotzen.

Atera zuben duro aundi eder ura bere gerrikuaren muturretik, eta esan ziyon tabernariyari:

- Ekar zazu kuartillu bat geiago, eta tori: kobratu nere kontuba.

Aiñ gustatu zitzaion Martolori Bordaren joera, non beñere ikusi etziztaion beziñ arpegi alaiarekiñ, rau!, altxa zan bere alkitik eta esan ziyon eskuba luzatubaz:

- Bejondaizula, Borda! Ekatzu bosteku ori. Ez nizun nik esaten? Ara or bost peztakua, len txanponik etzan tokiyan. Ai, nere konsejubak lenago artu izan bazindu! Zenbat ontzakoren jabe ote ziñan oraingoz!

- Sagar landarien diruba da au, Martolo.

- Bai, badakit ez dala bertsuena.

- Zuk konsejurik eman baño lenago landatubak ziran, *zea*, Martolo. Kantari ari nintzala aldatu nitun... (Ekatzu beste kuartillu bat, tabernariya.)

\* \* \*

- Amaiketako aundiskua egin degu, Borda.

- Gure neurtzallia nor da?

- Ara, ara gure bertsolariya berriz piztu.

- Ez dezazula sinistu;  
bertsolariya ez da ill,  
bañan oso gaizki dabill  
illabete ta erdi (y) ontan.  
Ai! Damutu zait prankotan!
- Zerena dezu damuba?
- Zuk sartutako amuba  
daukat barrenen gordia;  
aterako det ordia  
tximista demoniñu au,  
bestela penak ilko nau.
- Beste gizonik ziñala uste nuben,  
Borda; esker ederra ematen dirazu!  
Ezagun da dirutu zerala... Aizkorak salt-  
zen dira Tolosan.
- Len ere obe izango zan  
emendik eraman banu;  
eman dit amaika damu  
zure etxetik irtenak,  
aizkorak eta kirtenak...
- Gero izan zaitez ona!
- Zaude ixilik, gizona,  
eta urrengo batian,  
konsejubak ematian,  
begira ezazu zeñi;  
ez neri berriz eskeñi  
kirten okerrik zuzentzat,  
gorde itzatzu zeretzat.  
Biyar goizian atzera  
joango'ira zure etxera  
aizkora ta otesega.  
Eskerrik asko gañera.  
Ta konsejubak ordañez,  
geldi etzaitezen gañez,  
emango dizkitzut aurki,  
eta goguan iduki.  
Ez pentsatu kalterikan  
egingo dizutenikan  
neri zuriak bezela,  
bildurtu etzaitzezela.

Martolo, gaur nere txanda,  
lenago zuria zan da.  
Odolkiyak ordañetan  
izate'ira lur onetan.

*(Kantari)*

Nola zu jaio ziñan  
aberatsengandik,  
zerorrek ezertxo're  
egiñ gabetandik,  
oparo datorkizu  
jakin gabe nondik;  
bizitzia zer lan dan  
ez dakizu oraindik.

Ikustak engañatzen  
du bat gogotikan,  
begiratutzen badu  
beti txit goitikan.  
Biria ez da ondo  
neurtzen balkoitikan,  
pixkabana ikasten da  
ibiltzen zutikan.

Konsejubak ematen  
kontu biar da txit,  
ontzat artutzen ditu  
askotatik gutxik;  
itzez buruba bete  
ta eskubak utsik,  
zeñi gustatzen zaio  
alako laguntzik?

Martolo, griña txarrik  
ez daukat zugana,  
ta ez txarrera artu  
esan dizudana;  
neretzat on ustian  
egiñ dezu dana,  
nik ez det gorrotatzen  
kulpik ez dubana.

Kontura erortzia  
nai nuke beinguan,  
eta idukitzia  
betiko goguan:  
bi gizon igualikan  
ez gera munduban,  
argatik sentitzen du  
nork bere moduban.

Zure konsejubakiñ  
burruka, askotan,  
naspillatu naiz juan dan  
illabete ontan;  
iñon ezin bizirik  
ez esna ta ez lotan,  
ni lertuko nitzake  
ez kantatzekotan.

Itotzeko bildurrez  
uzteko urari,  
nola esango zaio  
arrai bizkorrari?  
Ez dedilla egaatu  
uso azkarrari,  
eta ixildutzeko  
erretxiñolari?

Amorraia jatorriz  
dijua urera,  
uso ta arranuak  
odoien aldera;  
otsua sasira ta  
satorra lurpera,  
mitxirrika argira  
ta auntza larrera.

*Martolok:*

Aizu: gizonak ere  
orrelatsu gera...

*Bordak:*

Torizu bostekua,  
konturatu zera.

Kontu au Otañok bere bigarren liburuxkan sartu zuan: *Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro)*, Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904. Beroni kopiatu diogu, argitaraldi au arreta geiagoz egiña eta egilleak aztertua izango dalakoan.

Baiña leenagoko beste argitaraldi bat ere bada: *La Baskonia*, Buenos Aires, 353 zenbakian, 1903-ko uztailaren 20-an. Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez du. Baiña beste argibide jakingarri bat ematen digu: nun eta noiz idatzia dan: "*Pehuajon 1903 urteko Uztaren 15-ean*".

Bilboko *Ibaizabal* astekariak ere argitara eman zuan kontu au, bere 87 zenbakian, 1903-ko agorrillaren (abuztuaren) 30-an. Onek fonetismoak zuzendu egiten ditu. Alegia, Otañok *beria, oparotiyak, larrian, betia, eraten, ziyotenak* eta abar papereratu zuanean, onek *berea, oparotiak, larrean, betea, edaten, ziotenak* eta abar idazten du.

Bukaeran, berriz, onela dio: "Argentina-ko Pehuajon-en (Amerikan) bizi dan napar-euskalduna da jaun au. Ango albistari batetik artu ta eskeintzen deutsegu irakurleai euskera garbian egindako lan polit au, erakusgaitzat zelan saiatzan diran urriñetako euskaldunak, etxean gurasoakaz ikasitako euskera ederrean". Napar-euskalduntzat artzen du, beraz, Otaño...

Baiña bada txetasun bat oso gogoan artzekoa: Buenos Airesen 1903-ko uztailaren 20-an argitaratutako idazlan bat, emen andik berrogei egunera, urte bereko abuztuaren 30-an alegia, berriro argitara ematen zala.

Beste argitaraldi bat: *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak Alkar Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay, 28. Donostia, 1930*. Onek bi edo iru tokitan itzen batzuk falta ditu, kopia-tzaillearen uste gabeko utsegitez-edo. Baiña naita kenduak ere baditu. Adibidez, *nola* itza bi bider-edo, *erde-razko como* danean. Baita ere *non* itza, *consecutiva* danean; aurreko *ain* batekin uztartzen danean alegia. Eta Otañok *libretasuna, akorda* edo *pobre-ak* idazten duanean, onek *askatasuna, gogora* edo *beartsuak* jartzen du.

Beste argitaraldi bat: *Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, Kuliska sorta 31-32, Editorial Itxaropena, Zarautz, 1959, I. Unzurrunzagak prestatua*. Onek aurrekoari kopiatzen dio.

\* \* \*

J. S. J. izkiekin(1) izenpetzen duan batek, *La Baskonia* aldizkarian, 355 zenbakian, 1903-ko abuztuaren 10-ean, idazlan luze bat argitaratu zuan erderaz. Merezi du eta oso-osorik aldatuko degu onera:

PEDRO MARIA DE OTAÑO  
"AUNTZA LARRERA"

*Euskal biursari denai donkituba.*

*Traducción: La cabra tira al monte. Lo que les ocurre a todos los bersolaris.*

*El trabajo que con el título basko con que se encabezan estas líneas ha publicado en el penúltimo número de esta Revista el señor Pedro M. Otaño es notable en todos conceptos; tan notable, que creo es uno de los mejores que ha publicado la Revista en su género, si no por su alcance, al menos por la limpieza y pureza del lenguaje, la facilidad y sencillez del estilo, la amena naturalidad del diálogo, la verdad del concepto y la dulce armonía del conjunto.*



*Difícilmente en idioma alguno puede retratarse con igual caudal de frases la vida psicológica y social de un bersolari, o, más propiamente, poner tan de relieve su concepto y manera de ser.*

*Los que poseyendo el baskuenze presumen que este idioma carece de la flexibilidad necesaria para las producciones literarias, deben leer este trabajo de Otaño, para convencerse de su lamentable error.*

*La hacienda de Martolo y su alta prosopopeya por el reflejo de esta su riqueza, están trazadas en este estudio con mano maestra, lo mismo que la pobreza y la ingénita altivez del bersolari Borda, que atento a las recomendaciones de Martolo, que se empeña en enriquecerle con consejos, sacrifica mes y medio sus aficciones poéticas, con menoscabo de la alegría doméstica y el asombro del vecindario, que no comprende el silencio de Borda, cuando antes alegraba la casa y el barrio con sus cantos y ocurrencias improvisaciones.*

*Pero donde descuella el autor, donde se ve el ingenio de Otaño y se señala la hermosa peculiaridad del baskuenze para expresar los afectos del ánimo con franca cordialidad y gráfica y convincente expresión, es cuando el bersolari Borda, sentado mano a mano con Martolo en la taberna, libando vino, da rienda suelta a sus sentimientos y convence de su error a este positivista mentor, creyente de que el poeta pueda dejar de ser poeta".*

## Ondoren, Bordaren lau bertso eskeintzen ditu, onela jarraitzeko:

artzaiak nituban,  
ta ni ere ala naiz,  
zer egingo nuban?  
Udan ibiltzen gera  
nai degun moduban,  
bañan zer bizimodu  
tristia neguban!

Bertso bakar au ere *La Baskonia* al-  
dizkarian arkitu degu, beraren 391  
zenbakian, 1904-eko abuztuaren 10-  
ean, *portada* edo kanpoko azalean.

*Portada* orrek irudi bat agertzen  
du, eta bean bertso au. Irudiak, urren-  
go orrialdean ikusten danez, artzai bat

erakusten digu, bere makilla ta guzi,  
inguruan mendi eta basoak dituana.  
Irudi ori zer dan, oar batean esaten da:  
*De la galería del Dr. T. Otaegui.*  
(*Acuarela de T. Erenchun.*) Bertsoa,  
berriz, euskaldun orren mingaiñean  
jartzen du Otañok.



BEREGANDUA—(ENSIMISMADO)

Alta eta aitona, artzayak nituban,  
Ta, ni ere ala naiz Zer egingo nuban?  
Udan ibiltzen gera, nai degutu moduban,  
Bañan zer bizimodu tristia, neguban!

E. M. 1904

(1904)  
**EGURRETAN**  
*(DE HACER LEÑA)*

Nere aita ta anaia  
joan zaizkit perira,  
ta biyak apaltzera  
laster emen dira;  
surik ez neukan eta  
presaka mendira  
etorri naiz, egurra  
dagan tokira;  
sorta egin det eta  
nuan baserrira.

*Pello-Mari.*

Bertso bakar au ere Buenos Aires-ko *La Baskonia* aldizkariak agertu zuan, bere 394 zenbakian, 1904-eko iraillaren 10-ean, leenengo orrian, *portada* edo kanpoko azalean.

Goien irudi bat ageri da, guk ere

urrengo orrialdean argitaratzen deguna, neskatxa bat, aizkora eta egur sorta batekin. Bertsoa, berriz, irudi orren oiñean dago, beraren adierazpena bezela; eta neskatzak esaten du, zertan ari dan adieraztearren.



EGURRETAN.—(DE HACER LEÑA)

Nere aita ta anaya, joan zaizkit peri-ri,  
Ta biyak apaltzera, laster emen dira:  
Surik ezuekan eta, presaka mendizá  
Etorri naiz, egurra daguan lokira:  
Sorta egin det eta, nuau baserrira.

*Pello-Mari*

**(1904)**  
**ZUTIK**  
**(DE PIE)**

*Señor presidente, señoras, señores:*

*Dispensadme si mi voz empobrecida no me permite exteriorizar con suficiente claridad los cortos y sencillos conceptos que tengo el honor de dirigir.*

*Contando con vuestra benevolencia, trataré concisamente de manifestaros el grandioso y transcendental significado que, a mi entender, encarna la inauguración oficial de este Centro euskaro que hoy celebramos, cuya fiesta, realzada por la numerosa y selectísima concurrencia, y poetizada con la presencia de ese ramillete de flores del sexo que no en vano se llama bello, puesto que sin ellas no existiría la belleza sobre la tierra; todo este hermoso conjunto, señores, es la expresión palmaria y genuina de los sentimientos profundos que hierven ya en los pechos euskaldunas.*

*Es la expresión viril de la perenne protesta contra los usurpadores de nuestros indiscutibles derechos, protesta simbolizada en la muy elocuente aunque muda alegoría que preside a este gran edificio, honra de la colectividad baskongada y digno corolario de los laudables esfuerzos de la*



*Sociedad "Laurak-Bat", cuyo origen fue la misma repetida protesta.*

*Aprovechemos esta oportunidad para ensalzar la personalidad de aquellos varones insignes, aquellos íntegros euskaldunas, que, henchidos de noble indignación y sin reparar en sacrificios personales, fundaron esta brillante Sociedad archifuerista a raíz del doloroso despojo de nuestro derecho sempiterno.*

*Dediquemos un recuerdo piadoso, como testimonio de nuestro eterno reconocimiento, a los que rindiendo tributo a la inexorable ley de la Naturaleza, desaparecieron para siempre de sus filas, elevándose a otras regiones, dejándonos en pos de sí luminosa estela, y que desde las alturas nos están contemplando sin duda, satisfechos del incremento progresivo de esta soberbia institución, hija de su gloriosa iniciativa.*

*Cumplido este grato deber para con aquellos queridos e inolvidables extintos, saludemos también con un aplauso espontáneo a sus dignos compañeros supervivientes y a todos los señores continuadores celosos de la simpática obra.*

*En la República Argentina, nuestra segunda patria; en este país democrático, patria legítima de nuestros hijos, donde todo lo noble tiene libérrimo curso, nos es dado expandirnos en la forma que lo estamos haciendo en estos momentos.*

*Nuestros hermanos de allende el Atlántico, cuyos inflamados pechos devoran las torturas de Tántalo; po-*

*bres hermanos a quienes está vedado escribir verdades, como el proferir razones en pro de su santa causa; aquellos seres queridos dignos de respirar aires más puros, vuelven con angustia sus expresivos ojos hacia nosotros, libres porque residimos en país libre, como en suprema demanda de un soplo vivificador, de un arranque que a todos nos dignifique.*

*Y no se verán defraudados en su fe, no, por cierto, porque el espacio de tiempo y la distancia que nos separa centuplica nuestros amores.*

*Somos hijos, y si en su propio hogar supimos amar a nuestra santa madre, hoy, que nos hallamos lejos de su regazo, sentimos por ella verdadera adoración.*

*A los que nos atacan por su ignorancia no podemos odiarlos, porque no saben lo que hacen; pero sí repelelos, siempre que persistan en su malhadado empeño. Ilustrémoslos en el conocimiento de nuestra causa, hablando y escribiéndoles en su propia lengua.*

*A los que conociéndonos nos atribuyan sentimientos egoístas, les diremos que basta ya de hipocresía. que el lema bascongado ha sido y es siempre el sublime “eman da zabal zazu munduban frutuba” (da y esparce tus frutos por el mundo), cantado por el inmortal Iparraguirre, puesto que en la nunca domeñada Euskaria no se ha conocido jamás la esclavitud; puesto que en la autóctona Euskal-erria los propios y los extraños han gozado siempre de la más amplia libertad, dentro de la moral, y que una raza que*

*en ninguna época consintió tener cautivos por serle repulsiva toda bajeza, no puede ser sometida a que torpes genizaros la encadenen, sin más razón que la fuerza bruta.*

*Aquellos mal aconsejados señores que hace ventiocho años pisotean nuestros sacrosantos derechos, cercenados ya desde el año 39 del fenecido siglo, en cuya época se cimentó la consabida injusticia; aquellos... hombres fueron incapaces de conocer ni de apreciar la fibra euskalduna, puesto que con maquiavélica sonrisa predecían que la entonces futura generación bascongada, que es la juventud actual, una vez saturada del nuevo ambiente, jamás se acordaría de nuestros Fueros, y que, si alguna vez lo hiciera, sería para mofarse de ellos como de cosa anticuada y ridícula.*

*¡Cuán absurda resulta, señores, aquella predicción burda, al contemplar el fogoso renacimiento de nuestros ideales, que resurgen potentes allende y aquende los mares!*

*Allí la juventud se aúna con inquebrantable decisión; aquí el corazón de nuestros hijos vibra al unísono con el de sus agobiados hermanos; allí se enseña el euskera en varios colegios; aquí no se tardará en hacer lo mismo, puesto que el idioma es antorcha muy eficaz para conservar el fuego sagrado que, pese a quien pese, no se ha de apagar mientras exista el mundo.*

*Otras obras de mérito, que ponen de relieve los elevados y humanitarios sentimientos de nuestra raza, se están llevando a cabo allá y en esta República.*

*Ante este conjunto de causas que nos honran, ningún hombre de bien que las conozca puede ser enemigo nuestro, y los euskaros estamos siempre prontos para estrechar la mano, y aun abrazarle, al que con sinceridad y nobleza se nos adhiera, venga de donde viniere y llámesele como quiera.*

*En resumen, todo lo que pedimos los bascos se reduce a esta palabra: justicia.*

*Sigamos unidos y llegaremos al pínaculo de nuestros legítimos anhelos.*

*Para terminar, señores, permitidme que os dirija algunas palabras más en nuestro patrio idioma, el nunca bien ponderado euskera, en esa lengua tan escarnecida por algunos obcecados, como admirada por todos los sabios filólogos del mundo entero.*

\* \* \*

Damak, jaunak:

Amak bere magalian ginduzkan garai pozgarri artan guganatzen zuben izkuntza gozo maitagarri ura, ez degu aztutzen utzi biar beñere.

Siaskari eragiñaz kantatu oi zizkigun zortziko eztitsu kuttun aiek, goguan izan biar ditugu beti; eta ez ori bakarrik, baita erakutsi ere gure ondorenguai.

Esaten da gutxi general euskaldunak; beragatik izan biar degu alkar maitego.

Urre gutxik geiago baliyo du, arri koskor eta zaburreri askok baño.

Begira zaiogun Amerika aundi ontan zeñen zabaldua eta ondo ikusiya

tagon euskaldunen izena; zenbat gizon eta emakume argidotarrek, zenbat jaun eta zenbat etxekoandrek, zenbat galai eta zenbat damatxo laztanek, eta zenbat aur ederrek daramaten euskal jatorrizko izengaiñ garbi maitagarriya!

Gañera ikusten degu, geren sorterri maitetik onenbeste leguaz urruti, nola iritxi geran alkarganatzera euskaldunen jauregi eder ontan, nun esan gentzakian geren lurrian gaudela.

Begiratuko ziyozuten noski etxe galant onen gañian arkitzen dan adieragoi esagerle edo asko esan nai duben agerkai bikaiñ orri, zeñak adierazitzen duben gaurko eguneko Euskal-erriaren egoera mintsu eta kupigarriya.

Odol euskalduna zañetan daukanari nola etzaio biyotza altxatuko gauz oien aurrian?

Bai; iritxi da orduba zutitzeko, obeto ezagutu gaitzan mundubak.

Guk geren eskubidean dauzkagun gauzak zergatik eskatu besteri?

Zergatik izan onen umillak, ume-illak bagañake bezela?

Ez degu ikusten, zenbat eta geiago makurtzen geran, orduban eta karga geiago botatzen digutela bizkarrera?

Zer esango luteke denbora bateko Lekobide, Lartaun eta beste, munduba arritu izandu zuten gure aurreko gizon biyotztsu aiek, ikusirik gure zabartasuna?

Jaunak, asko da nagitasunez; asko da makurtzez; aspertu gera eskatzez zor zaiguna. Artu dezagun gerok, berdin guria da ta.

Gabiltzan zutik, burubak goititubaz, arrokeri gabe, baña gogor, arrazoia banderatzat degula, euskaldunai eta "Lauburu"-ri dagokiyen bezela.

Izan gaitezen seme zuzenak, nai baditugu izan ondorengo leialak.

Eta ala, lendabiziko gizonak euskaldunak izandu ziran bezela, euskeraz itzegingo da mundubaren bukaeran.

Begira zaiozute,  
ara or euskera,  
nun datorren semeai  
loturak kentzera.  
O, Amatxo! Zu beti  
gure Ama zera!  
Odolik degun arte  
guazen laguntzera.

\* \* \*


Erderaz asi eta euskeraz bukatzen dan itzaldi au, Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzian arkitu degu.

Otañoren esku-idatzian, izenburua-  
ren ondoan, urtea irakurtzen da:  
"1904?". Baiña galdera egiñez. Guk  
ori gabe idatzi degu, urte ori dala se-  
gurutzat jo diteke eta. Itzaldian ari da-  
la, Otañok onela esaten baitu: "*Aque-  
llos mal aconsejados señorones que  
hace ventiocho años pisotearon nues-  
tros sacrosantos derechos...*". Itz oie-  
kin fueroen galera aitatzen da. Ori  
1876-an gertatu baitzan, ogei ta zortzi  
erantsirik, 1904 urtea degu.

Bestetik, berriz, etxe berria zutela  
esaten du: "*trataré concisamente de  
manifestaros el grandioso y transcen-  
dental significado que, a mi entender,  
encarna la inauguración oficial de es-  
te Centro euskaro que hoy celebra-  
mos...*"

Zein Euskal Etxe, ordea? Buenos  
Airesko *Laurak-Bat* izeneko etxe be-  
rria. Lengoa Rivadavia kalean, 875  
zenbakian, omen zegoan. Berria, be-  
rriz, Belgrano kalean, 924-ean; eta  
1904 urteko azaroan idiki zan.

Etxe berri ortaz onela esaten digu  
Buenos Airesko *La Baskonia* aldizka-  
riak, bere 400 zenbakian, 1904'ko aza-  
roaren 10-ean:



Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkarteko leenengo etxea, Rivadavia kalean, 875 zenbakian.

*"El nuevo edificio hállase emplazado en uno de los puntos más céntricos y animados de la ciudad: en la calle Belgrano, frente a la iglesia de Monserrat.*

*Como se ve en el grabado que publicamos en la primera página, la forma exterior es muy vistosa, y en su estilo más bien domina el capricho del constructor que el de un orden arquitectónico definido.*

*Una amplia escalera de mármol da acceso al precioso vestíbulo, cubierto de una galería de vidrios de colores de tonos delicados. En las paredes de ambos lados figuran las armas de Alaba, Gipúzkoa, Navarra y Bizkaia en relieve y colores.*

*Las rosetas de la parte superior de los marcos de las puertas ostentan los nombres de Astarloa, Aizkibel, Arana-Goiri, Larramendi, Campión, Eslava, Iparraguirre, Zamácola, Samaniego, Loyola, Trueba, Moraza...."*

Etxearen edertasuna adierazten jarraitzen du *La Baskonia* dalako orrek. Ondoren, bedeinkazio-egunaren festak zer izan ziran esaten du. Aldizkari orren itz guziak onera aldatzea luzeezia litzake. Orregatik, Pedro Maria Otañorekin zer ikusirik daukatena bakarrik eskeñiko ditugu:

*"A las nueve (de la noche), el salón ofrecía un aspecto soberbio. Es imposible describir aquel hermoso cuadro...*

*El tenor señor Pedro Zabala cantó Urolari, bella romanza, compuesta para el acto por el señor Ortiz y San Pelayo: una página musical muy bien sentida y que lleva por digno cuadro una inspirada letra del poeta Pello Mari...*

*El señor Pedro M. Otaño probó en su disertación la necesidad de que los baskos se unan y despojados de timideces impropias de la raza emprendan una campaña franca para recuperar nuestras libertades, para lo que pueden influir mucho los baskos de América enviándoles desde aquí los ecos entusiastas de sus iniciativas, y dio fin a su notable peroración con unas frases en baskuente...*

*El señor Francisco Mendizabal, que por su carácter expansivo cuenta tantas simpatías, escuchó muchas palmadas al terminar el zortziko Laurak-Bat, escrito y dedicado al mismo por el señor Félix Ortiz y San Pelayo. Cantó con el gusto que frecuentemente ha demostrado en las numerosas audiciones de su variado repertorio.*

*El valiente Himno a los Fueros de la ópera Artzai Mutilla cantado por el señor Labadens y el coro dio fin a la parte musical, cuyas últimas notas fueron confundidas con una salva de aplausos del imponente auditorio".*

Ikusten degunez, etxe berria bedeinkatu zan egunerako itzaldiren bat egiteko eskatu zioten Pedro Maria Otañori, eta onek onako au prestatu, erderaz eta euskeraz. Euskerazkoak ez gaitu arritzen. Baiña erderazkoa berak bakarrik moldatu al zuan? Ala balitz, erdera ere oso mendea zeukala aitortu bearra dago.

*Laurak-Bat* elkarte orrek 1877 urtean izan zuan asiera, fueroak galdu eta urrengo urtean, leen ere esan degunez. Beraren araudian, 86 artikuluan, one-latsu esaten omen zan, Basalduaren idazlan batean adierazten denez(1):


*"Las Comisiones Directivas se obligaban, en la forma que juzgaran más conveniente, a exteriorizar su protesta contra las Leyes Abolitorias de los Fueros Vascos."*

Ala, 1902 urtean, araudiaren artikululu ori batzar berezi batean onartu zan. Urrango urtean, berriz, 1903'ko uztai-illean, protesta idiki bat egin zan.

Andik urtebetera, 1904-ean, onako agiri au zabaltzen da:

*"Venimos este año a cumplir el deber que nos impone nuestra condición de vascos, de hijos de un pueblo que jamás consentirá sin viril protesta el desgarramiento de su dignidad, y al cumplirlo, rebosa en nuestra alma el dolor y la amargura originados al contemplar a nuestra raza viviendo sin el amparo de sus venerandas leyes, tan sabias en su concepto y tan grandes por el respeto que a la dignidad humana proclaman. Nuestra protesta queremos exteriorizarla en for-*





Buenos Airesko Laurak-Bat elkarteko bigarren etxea, Belgrano kalcen, 924 zenbakian.

ma tal que ella demuestre al mundo que la raza a la que pertenecemos no acepta la humillación que en sí lleva el ultraje de sus libertades y que, por el contrario, perseveran en los descendientes del País Vasco todas las cualidades, sentimientos y características esenciales que lo hicieron grande y famoso en sus luchas homéricas por su independencia. Los Gobiernos españoles, sin razón ni derecho, desoyendo los mandatos de la justicia al respeto a nuestro pueblo, no vacilaron, en ingratitud manifiesta, en despojarlo de sus leyes, en destruir con mano airada la libertad que a Euzkadi garantizaban sus fueros, suyos esencialmente suyos, por nadie otorgados, nacidos de sus propias necesidades, de su carácter, en fin, de sí mismo como pueblo libre que era."

Agiri ontan esaten diranak eta Otañok gaztelerazko zatian jaulkitzen dituanak oso berdintsuak dira. Gai ori jorratzeko esango zioten. Esan bearrik ez dago gustoko agindua izango zala arentzat uraxe.

\* \* \*

*La Baskonia* aldizkariak, beraren 401 zenbakian, 1904-eko azaroaren 20'an, itzaldi au oso-osorik dakar. Eskatu egingo zion Otañori bertan argitaratzeko, eta arek eman. Aldizkari orrek, *Zutik* izenburuaren azpian, argibide au ematen du: "*Discurso pronunciado por el Sr. Pedro M. Otaño en la fiesta inaugural de la Sociedad Laurak Bat*".

---

1. *El Laurak Bat de Buenos Aires y el Zazpirak Bat de Rosario, Euzko Deya, Buenos Aires, 1939-X-10.*

## LAURAK-BAT

- 1/ Euskal jauregi onen gañean  
or dago Ama Euskera,  
etorri dana lotsagarrizko  
kate gogorrek austera,  
gelditzen zaigun bide bakarra  
semeai erakustera,  
lagun dezagun izan gaitezen  
len beziñ libre ostera.
  
- 2/ Euskal-erriyak, etsai  
asko garaiturik,  
beñere katibatu  
ez du mendekorik;  
ta besteak indarra  
legetzat arturik,  
eduki nai gaituzte  
ankaperaturik.
  
- 3/ Gure etsai zitala  
arrazoiz balebill,  
gu egongo giñake  
ixil eta umill;  
bañan altxako gera,  
txarkeriz baitabill;  
katibu bizi baño  
naiago degu ill.

4/ Eskatutzen dizutet,  
anai ta lagunak,  
laster buka ditezen  
lotsazko egunak;  
Amerika librean  
gauden euskaldunak,  
lenbiziko ojuba  
eman zagun, jaunak.

Lau bertso auek ere Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* esku-idatzitik artuak ditugu.

\* \* \*

Leenengo bertsoan onela esaten du Otañok:

Euskal jauregi onen gañean  
or dago Ama Euskera...

Zer jauregi ote da ori? Dударik ga-be, Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkar-tearen etxea. Eta aren gañean Ama Euskera omen zegoan. Ain zuzen, onela dio *La Baskonia* aldizkariak bere 400 zenbakian, 1904-eko azaroaren 10-ean:

*"Se fundó en son de protesta, y como tal debe continuar hasta que recuperemos las libertades que arbitrariamente nos arrebataron. El grupo alegórico que corona el edificio justifica precisamente este sentimiento, y para desvirtuar las exageradas interpretaciones que se han dado a ese símbolo, creemos oportuno estampar su verdadera significación:*

*La figura culminante, la que se destaca en el primer término, representa una bizarra mujer, indumentada como la diosa Belona, pero con las modificaciones que requiere el asunto. Así, en vez de casco, lleva boina, para estar en carácter, y el escudo que embraza es el Lauburu con esta leyenda en el exergo: Jaungoikoa eta Fucroak.- Euskalerría.*

*Esta figura encarna el espíritu inmortal de la raza, no alterado, de consiguiente, por las contingencias de la vida y las vicisitudes de la Historia, y, como antes, tiene ahora bajo el pie, pisándolo con expresión, un vampiro o un dragón, en todo caso, un monstruo coronado, símbolo, no de uno, sino de todos los poderes personales, cualquiera que sea su denominación, mientras que con el brazo derecho, armado de espada y alzado en actitud enérgica, amenaza romper la cadena con la que el monstruo sujeta a un baserritar, símbolo del pueblo euskaldun, quien a su vez forcejea para desembarazarse de esa oprobiosa ligadura.*

*Al fondo, se ve en perspectiva la Casa de Juntas de Gernika.*

*Eso es todo, y eso lo sienten en el fondo de su alma los hijos que no hayan abdicado de la idolatría que deben sentir por su adorable madre Euskaria. Para eso se fundó justamente la sociedad, para lo que plásticamente significa dicha alegoría."*

Irudi ori Ama Euskera zan, beraz, Pedro Maria Otañorentzat.

Euskerazko zatian, berriz, onela esaten du *Zutik* izeneko itzaldian:

“Begiratuko ziyozuten noski etxe galant onen gañian arkitzen dan adieragoi esagerle, edo asko esan nai duben agerkai bikain orri, zeñak adierazitzen duben gaurko eguneko Euskal-erriaren egoera mintsu eta kupigarriya”.

\* \* \*

Leen ere esan degunez, 1877-ko martxoaren 15-ean sortu zan *Laurak-Bat* dalako ori. Elkarte au oso fuerozalea agertu zan asieratik. Izan ere, urtebete oraindik etzan euskal fueroak kendu zituztela. Ikusi degunez, 1904 urtean egin zuan itzaldian ere, fueroen alde mintzatu zan Otaño. Bertso aue-tan ere orixe du bere gaia.

\* \* \*

Felix Ortiz y San Pelayoren *Canciones Vascongadas* izeneko kanta bilduman ere arkitu ditugu bertso auek, izenburu osoa onela dutela: *Al vascongado más entusiasta por las costumbres del querido país de los fueros, D. Francisco Mendizabal. LAURAK BAT y Zortziko. Letra de Pedro M<sup>a</sup> Otaño. Música de F. Ortiz y San Pelayo.* Bilduma orren txecetasu-nak, berriz, leenago eskeiñi ditugu.

Baiña letrak aldaketa au du bilduma ortan: 1/1: Zutik jarrita mendi gañean. Izan ere, *Canciones Vascongadas* dalako bilduma ori argitaratu zanean, 1899 urtean-edo, *Laurak-Bat* elkartearen etxe berria egin gabe zegotan, eta leen aitatu degun Ama Euskeraren irudi edo *alegoría* ori an jarriko zuten andik urteetara.

Gure iritzirako, beraz, Otañok leenengo idazkeran *Zutik jarrita mendi gañean* papereratuko zuan; eta gero, irudi ori ipiñitakoan, itz oiek aldatu egingo zituan.

\* \* \*

*Laurak-Bat* elkartearen etxe berria bedeinkatu zanean, 1904-ko azaroan, leen ere esan degunez, itzaldi bat eman zuan Otañok erderaz eta euskeraz. Ondoren, *Laurak-Bat* izeneko zortziko au kantatu zan, eta kantua eskeiñia izan zan Frantzisko Mendizabal jaun orrek berak kantatu ere. Onela dio *La Baskonia* aldizkariak:

*"El señor Francisco Mendizabal, que por su carácter expansivo cuenta tantas simpatías, escuchó muchas palmadas al terminar el zortziko Laurak-Bat, escrito y dedicado al mismo por el señor Félix Ortiz y San Pelayo. Cantó con el gusto que frecuentemente ha demostrado en las numerosas audiciones de su variado repertorio".*

\* \* \*

Azkenik, orra Felix Ortiz San Pelayoren doiñua urrengo orri-aldeetan:

Al vascongado más entusiasta por las costumbres del querido país de los fueros.  
D. Francisco Mendizabal

# Laurak Bat

## Recitativo y Zortziko

Letra de *Pedro Maria Otaño*.

Música de  
*F. ORTIZ y SAN PBLAYO*

Andante Recitativo (ad libitum)

VOZ

Su tik ja - rri - ta men di ga - ñe - an Or da go  
Con fren - te er - gui - da En - tre mon - ta - ñas Es - tá mi

PIANO *pp*

a - ma Eus - ke - ra E - to - rri da - na lo - tsa - ga -  
ma - dre Eus - ke - ra Dis - pusa - ta siem - pre A dos - a -

- rriz - ko ka - te go - go - rrak aus - te - ra Gel - di - tzen  
sir - so Del yugo in - fa - me y trai - dor Só - lo nos

zai - gun bi - de ba - ka - rra Se - me - a - i e - ra - kus - te -  
 que - da Un buen ca - mi - no Que en - se - ñar á la ju - von -

- ra La - gun de - za - gun i - zan gai - te - zen Len be - ziñ  
 tud. Quo se u - nan siem - pre y nun - ca de - jen Do tra - ba -

li - bre os - te - ra. -  
 - jar por su li - ber - tud.

Eus - kal - e - rri - yak e - tsai ——— As - ko ga - rai - tu - rik ———  
*Xun - ca la pa - tria Eus - ka - ra ——— Hen - chi - da de mal - dad ———*

Bei - ñe - re ka - ti - ga - tu ——— Ez du men - de - ko - rik. ———  
*Qui - so ha - cer es - cla - va ——— A o - tra her - ma - na re - gión ———*

Ta bes - te - ak in - da - rra ——— Le - get - zat ar - tu - rik ———  
*Su - fre hoy por des - ven - tu - ra ——— La más du - ra o - pre - sión ———*

E - du - ki nai gai - tuz - te ——— An - ka - pe - ra - tu - rik. ———  
*De quie - nes con - fun - die - ron ——— La fuer - za y la ra - sión ———*

*rit.*



*rit.*

Gu - re e - tsai zi - ta - la A - rra - zoiz ba - le - bill  
 Son nues - tros e - ne - mi - gos, Que no pue - den su - frir

Gu e - gon go gi - na - ke Ys - hill e - ta u - mill; Ba -  
 Pue - dan los vas - con - ga - dos Con paz y ho - nor vi - vir Mas

- nan al cha - ko ge - ra Char - ke - riz bai - ta - bill, ka -  
 jah! es bien po - si - ble No quie - ra to - le - rar Que

ti - gu bi - zi ba - ño Na - ya - go de - gu ill  
 gon - te do - sal - ma - da Nos ven - ga á per - tur - bar

Es - - ka - - tu - tzen di - zu - tet  
Por - - tan - - to hē - jos de Eus - ka - ria

A - nai ta la - gu - - nak Las - ter bu - ka di -  
De - be - mos pro - ou - rar Con - clu - - yan pa - ra

te - - zen La - tzas - - ko e - gu - nak; A -  
siem - - pro Los dus - - los del ho - gar ¡Oh

me - - - ri - ka li - bre - an Gau - -  
no - - - bles vas - con - ga - dos Que a - -

den eus kal - du - nak Len - bi - - - zi - ko o -  
mo - ri - ca ha - bi - - - tais Pe - did - - - con ia - sis -

1.  
- yu - ba E - man - za - gun, jau - nak A -  
- ion - cia La san - ta li - ber - tad / Oh

2.  
E - man - za - gun, jau - nak  
La san - ta li - ber - tad

(1904)  
**BATASUNA**

- 1/ Jakin nayian zein dan munduko  
izkuntzarikan zarrena,  
au da jakintsu askok zentzuba  
nekaturik dakarrena;  
len azaletik ibiltzen ziran,  
badatoz sartzen barrena,  
ta gaur geienak aitortzen dute  
euskera zala aurrena.
  
- 2/ Geroztik sortu ta indarturik  
zenbat izkuntza ez da ill,  
gelditurikan lurperaturik,  
betiko mutu ta ixill!  
Euskera galtzen saiatu arren  
asko berritxu ta zirtzill,  
indar berriyak artzen ari da,  
gazte bat bezela dabill.
  
- 3/ Mundu guztiyan arkitzen diran  
jakintsurik aundiyenak,  
ta batez ere orain Londres'en  
eta Berlin'en daudenak,  
eman dituzte euskeragatik  
albisterikan onenak;  
burlatzen duten ergelak dira  
ezagutzen ez dutenak.

- 4/ Bañan alde bat utzi ditzagun  
ezjakiñen txarkeriyak,  
ta euskaldunak izan gaitezen  
prestubak eta aundiak.  
Zer egingo du maisu zitalak  
agintzen duten erriyak?  
Illuntasunak kenduko ditu  
datorren egun berriyak.
- 5/ Bidasoaren bi aldeetatik  
anaiak deika elkarri  
ari dirala jakindu degu,  
ta bilduko dira sarri;  
lengo oitura onak ostera  
nai lituzteke ezarri,  
ta “batasunak” bakar-bakarrik  
litzake oiek ekarri.
- 6/ Gure Euskal-lur eder maitean  
bizi diraden anaiak,  
elkarganatu ditu odolak  
ta “denak bat” izan naiak;  
Buenos Aires'en bildubak daude  
euskera indartzeko gaiak;  
poztu gaitezen, o euskaldunak,  
badatoz egun alaiak.
- 7/ “Denak bat” egin eta saiatu  
gaitezen alegiñian,  
gure izkuntza eta oiturak  
ipintzen beren oñian;  
guztiyok egiñ gentzake zerbait  
bakoitzak al dun añian,  
Jaungoikua ta euskera jartzen  
gauza guztiyen gañian.

8/ Batek egiñ nai luken guztiya  
nola ez daukan aukeran,  
borondatia badaukat baño  
asko ez nezake eman;  
liburutxo bat izkribatu det  
Gipuzkoako izkeran,  
zuek esango dezute ondo  
edo gaizki egin deran;  
irakurliak, barka zazute  
ez badago txit naieran,  
eta lagundu dezagun alkar  
ia indartutzen geran.

*Alkar, Poesías escogidas de Pedro M. Otaño (en idioma éuskaro), Buenos Aires, Tipografía "La Baskonia", Victoria 1088, 1904.*

*Otaño'tar Pedro M'ren olerki one-na, Alkar, Iñaki Deunaren irarkolan, Garibay 28, Donostia, 1930 Aldaketa bakarra: 8/2: ez dauka (i) aukeran eta.*

*Bertsolariya astekaria, 1932-IV-24. Aldaketak: 5/4: bilduko dira sarri; 7/6: baitzak aldun añian; 8/2: ez dauka aukeran eta; 8/6: Gipuzkoa'ko izan.*

*Bertso-papera, Elustondo.-Zarauz moldiztegian argitara emana, eta Oiartzunen, Altzibarko Portuene base-riko Inozentzio Urkiaren eskutik jaso. Goien bertso auek ditu; bean, "Lagundurikan denoi" asten diranak.*

*Aldaketak: 3/6: albizterik onenak; 3/7: ezekaz dauden ergelak dira 4/5: zer egingo du zenbait maisuk; 4/6: agintzen duen erriyak; 5/1: Bidazoaren bi aldetatik; 5/2: euzkaldunak ziran jarri; 5/3: Euskal erriyaren onagatik; 5/4: mintzaten dirade zarri; 5/5: lengo oiturak biaituztela; 5/6: ezanez daude alkarri; 5/8: oyek litzake ekarri; 6/1: Gure lur eder maite onetan; zortzigarrena falta. Baiña aren lekuan beste bi bertso daude. Zortzigarrenaren zenbakiarekin, *Amets bat* izeneko sail-laren lecnengo zortzi lerroak, zortzigarren lerroa *kantatubaz* dion tokian *abestuaz* idatzirik. Eta bederatziga-*

*rrenaren zenbakiarekin, sail bereko azken bigarren bertsoa, 296-garren lerrotik 303-garrene-ra dijoazen lerroak alegia, beste onela ordea:*

*Maite badezu guk egunero  
egiten degun euskera,  
billa ezazu orain Argia  
deritzen diyogun papera;  
ori da nere bizi lekuba,  
ez det nai andik atera,  
seme leialak an biltzen zaizkit,  
joan zaitez aien tartera.*

*Pedro Marik Euskal-Erria idatzi zuan tokian, garai artako aldizkariagatik noski, bertso-paper onek Argia ipintzen du. Andik urteetara sortu zan astekaria da au noski. Bertso-paper ori, beraz, aldizkari onen denborakoa degu.*

\* \* \*

*Onako sail au, azken bertsoan garbi agertzen danez, itzaurre bat da: bere bigarren liburuarentzat, Alkar izeneko-arentzat alegia, Otañok bertsoan mol-datu zuan itzaurrea alegia:*

*Liburutxo bat izkribatu det  
Gipuzkoako izkeran...*

Beste itzaurre bat ere badu liburu orrek; baiña ura gazteleraz dago eta iñork izenpetu gabe.

\* \* \*

Esan-naiaren aldetik argibide bearririk ez dutela ematen dute bertso auk. Ez da orrela, ordea. Itz batzuk, izan ere, *comillas* edo kako tartean idatzi zituan Otañok: 5/7: “batasunak”; 6/4 eta 7/1: “denak bat”. Zergatik ote? Otañok itz oietan bi esan-nai erabiltzen ditualako. Bata, euskaldunok “batasuna” bear degula; “denak bat” egin alegia. Millaka aldiz euskaldunok alkarri egin diogun *sermoia* noski; baiña oraindik betetzen ikasi ez deguna. Eta bestea, Buenos Airesko *Laurak-Bat* etxean sortu zan itz-bide edo eztabai-dagatik.

Etxe ori, izan ere, leen ere esan degunez, 1877 urtean sortu zan, eta *Laurak-Bat* izena artu.

Baiña gero, Rivadavia kalera aldatu zanean, etxe berria idiki zan eguneko itzaldian, 1897-ko abuztuaren 29-an, onela esan zuan Jose Antonio Lasarte bertako leendakariak:

*“Que era menester hacer del Laurak Bat, una Sociedad formidable que cobijara sin distinción a todos los vascos, cambiando incluso si fuera preciso de nombre por Denak Bat o Euskalerría, refundiendo en ella al Centro Vasco Francés y al Centro Navarro, ad-*

*mitiendo en su seno a los vascos de ambas márgenes del Bidasoa, desde el Adour hasta el Ebro”.*(1)

Naparrak zer esanik etzuten izango noski *Laurak-Bat* izenagatik, beren erreinu zaarra ere barruan sartzen baitzan. Baiña izen orrek kanpoan uzten zituan Bidasoaz iparraldeko anaiak. Bostgarren bertsoak orregatik esango du:

Bidasoaren bi aldeetatik  
anaiak deika elkarri  
ari dirala jakindu degu,  
ta bilduko dira sarri.  
Lengo oitura onak osteranai  
lituzteke ezarri,  
ta “batasunak” bakar-bakarrik  
litzake oiek ekarri.

*Batasuna* itza ere *Laurak-Bat*-en orde z izen berria izatea naiko zuten bearbada batenbatzuek.

Argi eta garbi dagoana zera da, guk uste: *Laurak-Bat* izena estuegia gertatzen zitzaiela batzuei. Itxura danez, Pedro Maria Otaño ere izen berriaren alde zegoan. Baiña etzan aldatu eta lengo izen zaarrak jarraitu zuan.

1 Pedro de Basaldua: “Cómo y por qué se fundó el *Laurak Bat*”, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 1977-VII-IX.

**(1905)**  
**NERE ADISKIDE BONIFAZIO LATXA-RI**  
**SENDAGAIA**

- 1/ Bere gaitzaren sendagai billa  
neregana dator Boni,  
eta nik eziñ uka neioke  
al deranik lagun oni;  
bañan oinbeste samintasun da  
oñaze, sugar ta agoni,  
nola nai dezu nik kendutzia,  
zu bezela banago ni?
  
- 2/ Boni, txit ondo ezagutzen det  
zuri gertatzen zaizuna,  
aiñ aundiya da zuk biyotzian  
senti dezun naitasuna,  
oroiturikan biziya eta  
bularra eman zizuna!  
Bañan, ai!, Boni, au ez da gaitza,  
au da gure osasuna.
  
- 3/ Egiya da, bat eziñ etsiyak  
errukigarri jartzen du,  
zergatik bere oroitz gozuak  
eziñ dituben atzendu;  
ala ere, Boni, ez dezazula  
arren arantz ori kendu,  
kupigarriyak giñake egiyaz  
naitasunik ez bagendu.



- 4/ Asko ikusten dira lur ontan  
beste aldera emanak,  
nun sortu ziran eta nor diran  
oroitutzen ez diranak.  
Zertako dira naitasun gabe  
diru, jan eta edanak?  
Zu ta ni baño gaizkigo bizi  
dira orrelako danak.
- 5/ Txorakeriyak dirala oiek  
aditu arren askori,  
etzaitezela, Jainkuagatik,  
alde ortara erori.  
Beti nai izan biar diyogu  
zuk ondo dakizu nori,  
kutun bat balitz bezela gorde  
zazu arantz santu ori.
- 6/ Ez dezagula gugandik utzi,  
arantza onekiñ gabiltzan;  
ori gaberik biyok giñake  
txit negargarrikeritzan.  
Egunen batez bera joango da,  
Boni, ez bildurrik izan,  
lur maiteari muñ ematian  
Iparragirreran gisan.

*Pello-Mari*

Sei bertso auek Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian arkitu ditugu, beraren 420 zenbakian, 1905-eko maiatzaren 30-ean. Eta, guk dakigularik, etziran beste inun argitaratu.

Bonifazio Latxa -bigarren abizena Agirre zuan- nor izan zan, guk beintzat ez dakigu. Auñamendiren *Enciclopedia*-n (Literatura, II) agertzen denez, Ubideakoa omen zan. Baiña ez da jaio eta il zan urterik esaten. Ura ere Arjentinara joana, eta *La Baskonia* or-

tan sarritan argitaratzen zituan bere lanak. Gizon eskolatua izango zan, musika ere bazekian eta erderaz ere idazten zuan eta.

Bertso auetan aditzera ematen denez, Bonifazio Latxa orrek beste bertsoen batzuk eskeiñi dizkio Otañori, eta onek sail onekin erantzuera ematen du.

Latxaren bertso oiek ere, sei guzira, *La Baskonia* ortan argitaratu ziran,

beraren 419 zenbakian, 1905-eko maiatzaren 20-an. Onela dira:

NERE ADISKIDE  
MAITE PELLO MARIRI

- 1/ Zu zara nere osagillea,  
zu, Pello Mari Otaño,  
ez det nik beste osagillerik  
billatzen emen zu baño,  
lur onetara eldu nintzanik  
ta gaurko eguneraño;  
atara zazu daukadan nar au  
sarturik biyotzeraño.
- 2/ Ezin det gaubaz lorikan egiñ  
izanagaiti logura,  
bada nar aiek igoten zaizkit  
biyotzetikan burura.  
Baldiñ zuk, Pello, ez badeustazu  
gaur ataritzen nar ura,  
laister, bai, laister juan biar det  
emendik beste mundura.
- 3/ Erraz dezu bada(1)  
neronen narra atara,  
juan naitian egunen baten  
nere gustura lotara.  
Entzun egizuz erregu oiek,  
entzun egidazuz bada,  
onetariko zauri gaiztoen  
osagillia zu zara.

- 4/ Zauri gaizto au osatutzeko  
erraz edo orpotikan,  
ez det billatzen osagillerik  
ta osagarririk botikan.  
Utsa zan, Pello, sartu banintzan  
bakarrik bat edo bitan,  
baña sartu naiz beraren billa  
ainbeste milla tokitan.
- 5/ Badakit nun dan zauri onentzat  
nik osagarritegiya,  
baña... urruti, urruti dago  
belar osaki mendiya!  
Urrun ta urrun aurkitzen da gaur  
nere bizitza erdiya,  
zein dedan beti illarteraño  
Amatxu Euskal-erriya.
- 6/ Amatxu arek ezin du eta,  
Pello, osatu dezazu:  
biyotz onentzat pozkida pixkat  
bada arren eman zazu.  
Zeure bertsuak entzundakuan  
ni osatuko naitzatzu,  
eta lotxuak esan naiko du:  
“Boni, etzaite esnatu”.

*Bonifazio Latxa eta Agirre*

---

1. Esan bearrik ez dago lerro ontan zerbait falta  
dala; itzen bat edo beste, alegia.

(1905)

## IRITZI BAT

### *Zamarripa-ko Paulori*

- 1/ Zure bertsuak edo biurtsak  
niganatu dira, Paulo,  
eskerrik asko, lagun maitia,  
pozez jotzen dizut txalo;  
bañan zertako guk malkoz bete  
orrenbeste begi-txulo?  
Aurrentzat utzi bear ditugu  
negarrak, titiya ta lo.
  
- 2/ Eri dan amak ikusitzean  
seme larri ta indartsuak  
nola gabiltzan burumakurka,  
umill eta negartsuak,  
zer egingo du negar besterik?  
Zer egingo du gaxuak?  
Beste sendagai bat biar luke  
miñez dagon gurasuak.
  
- 3/ Egunen batez illtzen bazaigu  
ainbeste nai diyoguna,  
zori gaiztuan etortzen bada  
aiñ patu beltz ta illuna,  
ordubantxe bai negar samiñak,  
orduban, nere laguna!  
Bañan bizi dan arte ez da ori  
guk egiñ biar deguna.

- 4/ Seme prestuba, limurtzen zera  
Ama ikusirik negarrez,  
eta biyotza lertutzen zaizu  
miñ garratzaren indarrez;  
begira zazu beste aldera,  
an dago ugazama parrez...  
Ta joango dira zure malkuak  
aserrearen asarrez.
- 5/ Gure negarrak kendutzen dizka  
bere indarrak Amari,  
eta zer poza ematen zaion  
ugazama zatarrari!  
Utzi ditzagun malkuak eta  
jarrai zaiogun lanari,  
negarti izana damutan dago  
zure lagun

*Pello Mari.*

*Buenos Aires, 1905-eko azaroaren 20-an.*

Bost bertso auek bi tokitatik ditugu: bata, Otañoren *Oroimena* izeneko esku-idatzia. Bestea, Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkaria, beraren 439 zenbakia, 1905-eko abenduaren 10-ean. Aldaketa bakarra dute beren artean. Eguna onela jartzen du esku-idatziak: *1905-eko azaroaren 20-an*; eta *La Baskonia* k: *1905-eko azaroaren 30-an*.

\* \* \*

Sail au, leenengo bertsoak esaten digunez, Paulo Zamarridak jarritako

beste sail bati Pedro Marik ematen dion erantzuna da. Zamarridakaren beste sail ori ere *La Baskonia* dalako ortan agertu zan, beraren 435 zenbakian, 1905-eko urriaren 30-ean. Onela dio:

### NEGARGARRIAK

*(Pedro Maria Otaño-ri donkitua)*

- 1/ Nere maitea negarrez dago,  
negarrez dago laztana,  
ta bere negar samur-samurrik  
biraltzen ditu nigana.  
Negar orrekaz busti nai neunke  
bular ezker au dan-dana,(1)  
ia bularrak gero badakar  
negarra begiekana!

2/ Aiñbatxo negar sortuten ditu  
nire biotza amatarrak.  
Benetan! Baiña legortzen deustez  
naigabe zitalen garrak.  
Betoz, bai, betoz, Ama maitea,  
nigana zure negarrak,  
ia negarrez jartzen banabe  
zure negarren indarrak!

3/ Erderaturik dakustaz emen(2)  
gizon euskaldun guztiak,  
euskera barik aurrik geienak  
lur ontan jaio ta aziak!  
Ta esan, euskera: zelan ikusi  
eiñ leikez nire begiak,  
naigabeturik, negar eiñ barik,  
gauza aiñ negargarriak?

*Paulo Zamarripa eta Uranga  
1905-ko urtean.*

- 
1. Dan-dana: *todo entero* (Zamarriparen oarra.)
  2. Dakustaz emen: *los veo aquí* (Id.)

(1905)  
“BUKATU BITEZ GAIZAKERIAK...”

Bukatu bitez gaizakeriak,  
zintzotu bitez eruak,  
eta utzi bitza jende zitalak  
urte zarreko lekuak;  
gu, euskaldunok, naspilla gabe,  
izan gaitezen linguak,  
urte berriak bekar pakea  
eta guretzat Fueruak.

*Pello Mari*

Bertso bakar au Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkaritik artua degu. Onek bere 441 zenbakian argitaratu zuan, 1905-eko abenduaren 30-ean, urtearen bukaerarekin beraz, *portada* edo kanpoko azalean.

Erdi-erdian neskatxa baten arpegia ikusten da, apaingarriz inguratua eta beeko aldean *Mil Felicidades* itzak irakurtzen dirala. Azpian, berriz, bertso au, Otañok urte berria zoriontzearen moldatua.

(1906)  
**GAZTELU-GORRIYA**  
**OROITZA**

1/ Aditu det ill dala  
Gaztelu-Gorriya,  
nere adiskide ta  
lagun aundiya;  
aiñ zan gizon prestuba  
ta maitagarriya,  
etzuben ezagutzen  
zer zan txarkeriya;  
biyotzez garbiya  
ta buruz argiya,  
txit bertsolariya,  
leial geiegiya;  
sinisten det arentzat  
dala gloriya.

2/ Nere lagun maitia,  
mundutik joan zera,  
toki ederraguak  
ezagutzera;  
zeruban irten zaitetz  
noizik beñ atera,  
San Pedrokeiñ jolas  
batzuk egitera,  
beiratubaz beera,  
gu gauden aldera;  
deitubaz orrera,  
zure aldamenera...  
Itxon zazu pixka bat,  
laster or gera.

*Pello-Mari*

Bederatzi puntuko bi bertso auek *La Baskonia* aldizkarian arkitu ditugu, beraren 443 zenbakian, 1906-ko ilbel-tzaren 20-an.

*Gaztelu-Gorriya* garai artako bertsolari bat izan zan, Xenpelarrekin-eta kantatua, Usurbilko semea.

Leen ere esan degunez, Pasaian antxe zan, Pedro Mariri azken agurra ematera etorria, au Ameriketara geia-go ez etortzeko joan zanean:

*"Al embarcarnos en Pasajes. como antes digo, el 26 de Enero del 98, día en que yo cumplía cuarenta y un años de edad, fuimos objeto también de tiernísima despedida.*

*Improvisaron en nuestro honor, colocándose junto al vapor Córscica, en el que estábamos embarcados (eran las dos de la tarde) y rodeados de infinidad de parientes y amigos nuestros, mis inolvidables compañeros los improvisadores Gaztelu (Gorriya), Chirrita y mi compadre José María Arregui, de Montefrío (Urnieta)."*

Nunbaitetik ere ikasi zuan Otañok Arjentinan Gaztelu-Gorriaren il-berria,

eta bere kantu-laguna izandakoaren-tzat bi bertso auek moldatu zituan.

Eriotz ori 1905-eko abenduaren 4-ean gertatu zan, Donostian, Esterlines kaleko 10-garren zenbakian, irugarren bizitzan, "*por reblandecimiento cerebral senil*" eriotz-agiriak esaten duanez.

Juan Bautista Urkia Zaldua zeri-tzan. Aita, Juan Bautista, Usurbilkoa; ama, Josefa, Amasa-Billabonakoa. Kontzepzion Aranzadiren alarguna zan. Irurogei ta zortzi urte zituan.(1)

"Itxon zazu pixka bat, laster or gera" esaten zion Otañok bere lagun za-arrari bigarren bertsoaren bukaeran. Gertatu ere alaxe gertatuko zan, andik lau urtera.

1. Donostiako San Bizenteko 10-garren eriotz-libu-rutik ateratako argibideak.



(1906)  
OROITZA

III omen da Felipe  
Arrese Beitia,  
euskal biursarien  
maisu goitia,  
Ama Euskeraren seme  
leial ta maitia,  
izar argi-emalle  
dizdizaz betia;  
mundu arlotia  
utzi ta joatia  
ez da deseitia  
zure izatia;  
egiñ bedi Jaunaren  
borondatia.

*Pello Mari*

Bertso au Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak argitara eman zuan, bere 446 zenbakian, 1906-ko martxoaren 20-an. Eta guk beintzat ez degu beste inun arkitu.


Bertsoak esaten duanez, Felipe Arrese Beitiaren il-berria iritxi zan Arjentinaraño ere, eta Otañok bederatzi puntuko bertso au eskeiñi zion.

*La Baskonia* orrek, zenbaki berean, kanpoko azalean Arreseren argazki bat zekarren. Barruan, berriz, bizkaitar olerkari oni buruzko idazlan bat eta beraren *Bizi da Ama Euskera* izeneko bertso-sailla.

Felipe Arrese Beitia Otxandion jaio zan, 1841-eko maiatzaren 25-ean, eta bertan il, 1906-ko ilbeltzaren 16-an. Oso bertso-jartzaille ugaria izan zan, eta bein baiño geiagotan sariak irabazia.

Aren lanak garai artako aldizkarietan sakabanatuta daude. Ondoren liburuetan jaso dira. Baiña ez degu uste guztiak bildu diranik.

Bertso ontan ikusten danèz, Otañok benetan estimatzen zuan Arrese Beitia. Ezagutu ere egingo zuten aiek alkar, euskal festaren batzuetan-edo topo eginda.



Felipe Arrese Beitia (1841-1906).

(1906)  
**GURE ARITZA**

- 1/ Gernikako arbola  
da euskaldunena,  
gure biotzak guztiz  
maite dubena,  
munduban izandu dan  
aritzik onena,  
Iparragirre zanak  
kantatu zubena;  
igartu zan lena,  
badu ondorena,  
seme berarena,  
liraiñ ta lerdena,  
aitaren lege bera  
dakarkiena.

Eman da zabaldurik  
munduban frutuba,  
Buenos Aires-en egon  
zan landatuba,  
Plaza Euskeran bere  
seme indartuba,  
ikusi degu azi  
eta edertuba;  
landare santuba  
berriz aldatuba,  
zañak urratuba  
dago igartuba,  
*Laurak-Bat*-en baratzan  
txokoratuba.

Bañan *Laurak-Bat*-ean,  
Gernikan bezela,  
ezagun da *aritz*a  
maite dutela;  
ikusirikan zarra  
illa zeguela,  
ordaña jarri dute  
gazte bat berela;  
ikusi det bera  
sasoi dakarrela,  
guztiak orrela  
jakiñ dezatela  
euskera sekulan ill  
ez ditekela.

*Pello-Mari*

Iru bertso auk Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkariak eman zituan argitara, bere 453 zenbakian, 1906-ko apirilaren 30-ean; eta guk beintzat ez ditugu beste iñun arkitu.

Aldaketa bat sartu degu. Leenengo bertsoaren bederatzigarren lerroan onela irakurtzen da aldizkari ortan: *igartua zan lena*. Ala bear dualakoan, *igartu zan lena* idatzi degu guk. Ain zuzen, Gernikako arbol zaarra 1892 urtera arte bizi izan omen zan.

Bigarren bertsoaren bostgarren lerroak *Plaza Euskera* aitatzten du, eta antxe Gernikako arbolaren seme bat aldatuta zegoala.

Leen ere esan degunez, Buenos Airesko *Laurak-Bat* elkarteak 1877 urtean sortu zan, eta leenengo etxea Rivadavia kalean izan zuan, 875 zenbakian. Gero, 1881'ean, Plaza Euskara izenekoa idiki zan. *La Baskonia* aldizkari ortan, egillearen izenik gabeko *La Sociedad Laurak-Bat* idazlanean, onela esaten da:

*"Durante la Comisión que el año 1881 presidía D. Antonio M. Apellaniz, se fundó la Plaza Euskara... En aquella Plaza, inaugurada el 1º de Noviembre de 1882, se celebraron memorables partidos de pelota que tuvieron gran repercusión hasta en Europa, y que más tarde perdieron su carácter de pureza por haberlos convertido gran parte del público en un degradante y desenfrenado juego".*

Azkenean, *Plaza Euskara* ori saldu egin omen zan:

*"Por último, para encauzar por nuevas vías a la sociedad, se enajenó la Plaza Euskara en 270.000 pesos moneda legal, se canceló la obligación hipotecaria del 100.000 que sobre ella gravaba y se adquirió en 61.000 pesos el terreno apropiado para edificar una casa de nueva planta."*

Etxe berri ori Belgrano kalean zegoan, 924 zenbakian, eta 1904 urtean bedeinkatu zan. *Plaza Euskara* dalako artan, esañ bezela, Gernikako arbol zaarraren seme bat aldatu omen zuten. Leku berrira joaterakoan, ura ere bateatik bestera eraman zuten. Baiña igartu egin omen zan:

*"En Marzo de 1882, aquella amplia Plaza quedó coronada con la plantación del vástago del Roble euskaro que simboliza las libertades de nuestra raza, que desgraciadamente ha tenido un epílogo fatal al ser trasplantado al jardín del nuevo edificio..."*

### **Eta ondoren:**

*"En el centro del jardín, trazado con gusto, se encuentra el tronco del retoño del "Arbol de Gernika" completamente seco, por la sensible circunstancia que ya hemos consignado".*

**Enbor igartu ura ikusteak min ematen zien noski Arjentinako euskaldunei, eta beste landare bat ekarri eta antxe aldatu zuten, 1906'ko martxoaren 18'an. Onela dio *La Baskonia* aldizkariak:**

*"Con gran lucimiento se festejó el domingo 18 del actual el 29º aniversario de la fundación de la sociedad Laurak-Bat, y la bendición del retoño del Arbol de Gernika, de aquel agosto Roble que simboliza la altivez de la raza y al pueblo más democrático y amante de la libertad..."*

*El pequeño vástago del Arbol de Gernika, traído hace poco por el actual presidente Sr. Nicomedes M. de Landáburu, con todas las formalidades llenadas por la Exma. Diputación de Bizkaya que justifican la legitimidad de su origen, fue bendecido por el P. Nicasio Cortabarría, a las 11 de la mañana, terminados los acordes de la Marcha de San Ignacio ejecutada por los tambolinteros...*

*El hijuelo de nuestro Roble secular se presenta brioso: tiene ya más de metro y medio de alto..."*

**Argibide auekin Otañoren bertso oiek obeto ulertuko dira.**

(1906)  
**BIYOTZA**

Ara nun diran mendi maiteak,  
ara nun diran zelaiaik...  
Iparragirrek Endaiaian

*Luziok Altsasun:*

Orra iritxi, ementxen gera,  
Eujenio, biyok Altsasun,  
esan zaidazu zure biyotza  
barrenen kabitzen zaizun.  
Aurki Tolosan... O, Jaungoikua!  
Nik onenbeste ondasun!  
Amets ote dan galdezka nago,  
ez dakit nola erantzun.

*Eujeniok:*

Aspaldiyetan biyok gendukan  
onera etorri naia,  
gure biyotzak pozkidatzeko  
oraiñtxen dator garaia;  
begira zagun, ara or bertan  
Gipuzkoako arraia...  
Trena badator, igo gaitezen,  
guazen lenbailen, anaia.

*Biyak:*

Aurki Aralar atzian utzi  
ta Tolosan gera laster,  
alderatutzen ari gerade  
gure Jainkuari esker;  
ara or gure Paradisua  
ama on bat beziñ eder,  
bildurrez nago pozarez pozez  
egiñgo ote deran ler.

*Pello Mari.*

*Buenos Airesen, 1906-garren urteko Apirillaren 25-ean.*

\* \* \*

Iru bertso auek, Otañoren *Oroime-nak* izeneko esku-idatzian arkitu ditugu.

Baita ere *La Baskonia* aldizkarian, beraren 454 zenbakian, 1906-ko

maiatzaren 10-ean. Baiña onek bukaerari oar jakingarri bat dakar:

“ *Poesía entregada por Pello-Mari a sus amigos Lucio y Eugenio Cortejarena al embarcarse éstos recientemente en el vapor Orione con destino a Europa.*

Luzio Kortejarena bat leen ere aita-tu du Otañok: *Urte Berri* bertso saila, 1903-I-10-ean *La Baskonia*-n argitaratua, berari eskeiñi zion.

(1906)

## OROITZA

(*Orfeón Donostiarra-ri*)

- 1/ Donostiyako kantaridiya  
gallendu dala Parisen  
*El Pueblo Vasco*-n irakurri det  
eta zenbat poztu naizen!  
Ezagutuzten zaituztet eta  
ni ez naiz ortzaz arritzen;  
penaz bizi naiz ez detalako  
zuen kanturik aditzen.
  
- 2/ Orra merezi dezuten legez  
zuen izena omendu,  
len etziñaten orain bezela  
mundu guztiyan lenendu;  
euskaldun fiñen aunditasuna  
iñork ez lezake kendu,  
gallen giñake gauza denetan  
elkar artuko bagendu.
  
- 3/ Lenago ere nik zuek beziñ  
iaiorik ez nuben senti,  
egiyaz oraiñ egiñ zerate  
ospatsu eta omenti;  
eziñ agindu neizukete ta  
biurtutzen naiz arrenti:  
euskaldun jaio giñan guztiyok  
elkar maita zagun beti.

*Pedro M. Otaño*  
*Buenos Aires-en, 1906-garren urteko*  
*Uztaillean*



Iru bertso auek *La Baskonia* aldizkarian arkitu ditugu, beraren 462 zenbakian, 1906-ko uztaillaren 30-ean. Guk dakigularik beintzat, ez dira beste inun argitaratu.

Leenengo bertsoak dionez, donostiarrak garaipen aundiren bat lortua zuten Parisen; eta Otañok, berri on ori Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkarian irakurritakoan, bertso auek moldatau zituan.

*La Baskonia* orrek berak garaipen orren berri ederki ematen du bere 460 zenbakian, 1906-ko uztaillaren 10-ean, eta berari kopiatuko diogu:

#### CONCURSO DE ORFEONES EN PARIS TRIUNFO DEL ORFEON DONOSTIARRA

*En el brillante certamen musical que acaba de celebrarse en París, ha obtenido una gran victoria el laureado Orfeón Donostiarra.*

*El concurso se celebró en la Sociedad de Agricultura, ante enorme concurrencia.*

*Primeramente comenzó el orfeón titulado "Harmonie Gauloise" de Lyon, que cantó el Te-Deum", pieza impuesta del concurso. Después entró el orfeón belga "Reunion Chorale" de Bruselas. La impresión que este orfeón produjo era admirable: lo componían 160 ejecutantes, todos correctamente vestidos y personas de aspecto distinguido. No tardó en darse cuenta el público, al escuchar a esta masa coral, de su notable estructura, rica de voces y perfecta disciplina. Fue ruidosamente aplaudido, y en seguida penetró en la sala el Donostiarra.*

*Nuestros orfeonistas se presentaron modestamente vestidos, sin uniformidad en la indumentaria: comenzaron, cantaron, matizaron la obra, terminaron y el público les ovacionó en una forma delirante.*

*Pasión de familia aparte, en los numerosos periódicos franceses que hemos recibido, vemos que los nuestros estuvieron sublimes.*

*Al conocerse el fallo del jurado, los orfeonistas salieron locos de contento, arrojando las boinas al aire.*

*Por la tarde el público era mayor y más distinguido. La sala del concurso estaba abarrotada de gente, así como los corredores y las escaleras. Empezaron*

*cantando los de Lyon. Luego cantaron los belgas. Ultimamente entraron los donostiarras y, como estos se descubrieran, el jurado les suplicó que se pusieran las boinas, puesto que así presentaban un bello golpe de vista.*

*El Orfeón Donostiarra cantó admirablemente. La primera pieza obligada, "L'Enemi", no resultó todo lo bien que debiera, porque a última hora surgió un conflicto lamentable, y fue que las partituras de los bajos y barítonos habían quedado olvidadas en San Sebastián; pero usando de las partituras de los lyonenses, y poniéndoles la letra baskongada, pudo salvarse esta dificultad. La segunda pieza libre, "Fe", resultó magistral: la cantaron con más entusiasmo que nunca, con una delicadeza tal que al terminar hicieron una ovación prolongada y nutrida.*

*La lucha, pues, quedaba limitada a los dos orfeones belga y donostiarra.*

*Las opiniones eran encontradas, nadie se atrevía a fallar entre el público; algunos opinaban que el premio se distribuiría a medias... Entonces salió Laurent de Rillé al escenario y adjudicó el premio de honor al Orfeón Donostiarra.*

*A la salida, el público aclamó a los simpáticos orfeonistas ruidosamente.*

*En el ejercicio de lectura a primera vista obtuvo también el Orfeón Donostiarra el segundo premio, y es indudable que esto constituye un triunfo más y no menos importante que el anterior, pues para apreciarlo hay que tener en cuenta que el ejercicio de lectura a primera vista era con letra, esto es, letra y música juntas; Y (aparte de que ese requisito no se exige por lo general en los concursos), y por consiguiente como nuestro Orfeón no se halla acostumbrado a él, existía la ventaja, a favor de los otros Orfeones, de la pronunciación, pues si no son equivocados nuestros informes, la letra de la obra musical estaba escrita en francés.*

*No obstante, y siendo tres los orfeones ejecutantes, el nuestro alcanzó el segundo premio en el ejercicio que se ha indicado.*

*Tal era la opinión de todos los entendidos en música, y tal era también el sentir del pueblo. Celebróse en las Tullerías un festival que resultó soberbio, tomando parte en él ¡veinte mil! ejecutantes.*

*El desfile de los orfeones fue una nota de brillante efecto. Las boinas encarnadas de los donostiarras provocaban, al pasar, aplausos, vivas y aclamaciones. La ovación fue prolongadísima.*

*Desfilaron todos en correcta formación y a un paso marcadamente militar. La colonia donostiarra agreda al orfeón desfiló con él y también lo hicieron al-*

gunas bellas señoritas. Por último, se verificó en el Ayuntamiento la repartición de premios, acto solemne que coronó la fiesta, que ha sido en verdad soberbia, imponderable.

*En San Sebastián produjo un júbilo estupendo la noticia del triunfo, y la Sociedad Artesana tomó inmediatamente la iniciativa de preparar un recibimiento digno del galardón alcanzado en la capital francesa por el Orfeón Donostiarra."*

\* \* \*

*La Baskonia* orrek berak, urrengo zenbakian, 461-ean, 1906-ko uztaillaren 20-an, Donostiako erriak bere kantari-taldeari egin zion ongi etorria konstatzen du.

Estazioaren inguruak jendez estalita omen zeuden. Agintariak ere an ziran. Trena etorri zanean, danak ojuka ekin. Kantariak beren txapelak eragin. Musika-bandak "Gernikako arbola" jo. Jendea deadarka eta ojuka. Etxafue-goak ere bai. Estaziotik, aurretik musika-banda bat zala, orfeoia eta agintariak kalez-kale Diputazioko etxera. Andik, bear ziran itzalditxoak eta abar egin ondoren, Udaletxe zaarrrera, emen ere zorionak eta eskerrak alkarri emateko.

(1906)  
**ORRA!**

Nere adiskide maite  
On Ramon Artola  
paperetan letu det  
illa dagola;  
sinisten det zerubak  
deituko ziyola,  
jakiñik aingeru bat  
falta zitzaiola.  
Agur, maisu ona,  
gure letren onra,  
igo zera gora  
lagunen ondora;  
zutzaz Euskalerrriya  
oroituko da.

*Pello-Mari*


Bertso au Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkarian argitaratu zan, beraren 469 zenbakian, 1906 urteko urriaren 10-ean. Eta, guk dakigularik, beste iñun ez da kaleratu.

Ramon Artola, Pepe eta Rosario Artolaren aita, oso bertso jartzaille ugaria izan zan. Tolosan jaio zan, 1831-ko abuztuaren 31-n. Donostian egin zuan bere denborarik geiena, eta bertan il, 1906-ko abuztuaren 20-an.

“Nere adiskide maite” esaten dio Otañok Artolari. Ura 1890-ean Arjentinatik etorri eta 1898-an oster

joan zan arte, alkar ezagutu eta adiskide miñak egingo ziran, biak ere Donostian bizi eta ain euskaltzale eta bertsozale izanik.

Ain zuzen, Ramon Artola, leen ere esan degunez, Otañoren balioaz bereala oartu zan, eta bere bertso-sail bat, *Martin, berak paratako estroparako kantak saltzen* izenekoa, berari eskeiñi zion, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1891 urtean, onela esanez: *On Pedro María Otaño, euskal-izkribalari berriyari*. Onek, berriz, *Amets bat* izeneko sail bikaiña eskeiñi zion, aldizkari eta urte



Ramón Artola (1831-1906)

berean, izenburuaren azpian onela idatziz: *On Ramon Artola euskal-izkribalari zarrari (ordañez)*.

Artolaren il-berria nola ikasi zuan ere esaten du Otañok: “paperetan letu det illa dagola”. Paper oiek *La Baskonia* aldizkaria izango dira bearbada, aldizkari onek albiste goibel ori 1906’ko irailaren 30-ean eman baitzuan, bere 468 zenbakian, Frantzisko Lopez-Alen jaunaren idazlan baten bidez.

Agian, idazlan ori leenengo Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian agertuko zan, eta Buenos Airesko *La Baskonia*-k andik kopiatu.

Lopez-Alen-ek onela esaten zuan:

*“Las letras euskaras experimentan con dolor la pérdida de uno de sus más fervientes cultivadores. El decano de los escritores euskaldunas ha pasado a mejor vida y su nombre figurará, desde ahora, al lado de los Larramendi, Iztueta, Manterola, Arzak, Bilinch y todos los que rindieron verdadero culto a la lengua euskara.”*

Beste euskaltzale batzuen izenak ematen dira lerro oietan, eta bearbada orregatik esango du Otañok: “igo zera gora lagunen ondora...”.

Lopez-Alen jaun onen berriak leen eman ditugu, Otañoren *Ordañak* izeneko saillaren argibideak eskeintzera-koan.

(1906)  
GU TA GUK

(LEMA(1): "BETI")

*Poesía de Pedro M. Otaño que ha obtenido el premio de 120 francos (1er premio) en el primer concurso de poesías euskaras, celebrado en América. Fundado por el periódico La Euskaria.*

*Buenos Aires, Noviembre de 1906.*

- 1/ Noiz izandu zan, nun eta nola  
euskaldunen asiera?  
Nondikan dator gure izkuntza,  
noiztik gure izaera?  
Ipuñak dio *Fenix* bat zala  
eta beti *Fenix* bera,  
egazti ortan, o euskaldunak,  
gu bakarrik bizi gera.
- 2/ Euskalerritik irten da zerbait  
mundu korritu dubenak,  
ta batez ere Egoaldeko  
Ameriketara dagoenak,  
ikusten ditu konturatzekeo  
argibiderik onenak:  
non-nai maitaro artutzen gaitu  
ezagutzen gaitubenak.
- 3/ Urte asko da, baña etzait aztu,  
beti datorkit gogora,  
nola joan nintzan beñ *motz* batekiñ  
Montevideon kanpora;  
etxe batean eraman zuten  
*Motza* (2) sukalde-txokora,  
ta ni maiera deitu ninduten  
nagusiaren ondora.

- 4/ Erriko-seme beltzeran bat zan  
nagusiya, ortarako,  
ta ez ginduzen ezagutuzen  
len izan ez giñalako.  
Zergatik bada bereizte ori:  
bestea txarra zalako?  
Ez; aiñ ondo ni artu ninduten  
euskalduna nintzalako.
- 5/ Amerikatar ume batekiñ  
nonbait arkitutzen banaiz,  
badet oitura galdetutzeko:  
“Aizak, mutill, nungotarra aiz?”.  
Pozez beterik entzun izan det  
leku askotan eta maiz:  
“Ni kriolloa, jauna; gañera  
euskaldunen semea naiz”.
- 6/ Askotan uste izaten degu  
gutxi geradela, baña  
non argiratu da beste iñor  
gure aurrekoak aña?  
Ondo egiñak ekarritzen du  
nekez bada ere ordaña,  
Ameriketan goiturik dago  
euskaldunen izengaña.
- 7/ Ala jauregi goitienetan  
nola baztarreko bordan,  
naiz etxerikan apañenean  
edo mendiko txabolan,  
itsasoetan da leorrear,  
ondo ta gaizki-denboran,  
berez euskaldun garbia danak  
ez daki ukatzen nor dan.
- 8/ Ez da euskera beziñ izkuntza  
maitagarririk munduban,  
jakiña dago deabru zarrak  
nola ikasi etzuban.  
Aiñ da santuba, eziñ mintzatu  
dezakete infernuban,  
orregatikan denak euskeraz  
kantatzen dute zeruban.

- 9/ Alperrikako lana irten zan  
deabruaren jarduntza,  
eziñ eraman izandu zuben  
euskerarikan aruntza;  
infernuetan ez leike sartu  
birau bageko izkuntza,  
mantxa gabea dalako dauka  
Jaungoikoaren laguntza.
- 10/ Beiñ infernuko ateondoan  
-berak etzekiela non-,  
oroitutzen naiz euskaldun bati  
zer egokitu zitzaion:  
ango atezai adardunari  
diasola egin ziyon,  
esanaz: “Eup! Ni nun ote nabill?  
Jainkuak dizula gabon”.
- 11/ Ori entzunik, ango atezai  
muturzikiñ itsusiyak  
galdetu zuben: “Zer esan nai du  
gizon orren erausiyak?”.  
Ta lagun batek erantzun zion:  
“Jakingo du nagusiyak,  
zergatik berak ezagututzen  
ditu izkuntza guziyak”.
- 12/ Iñork deitzeko premirik gabe  
an agertu zan *Luzifer*,  
ta txit aserrez galdetu zuben:  
“Zer gertatzen da emen, zer?  
Ez al dizutet lenago esan,  
gutxienaz milla bider,  
nik ez detala euskaldunakiñ  
sekulan jakiñ nai ezer?”.
- 13/ Suzko sarde bat atezaiari  
sartu ziyon bizkarretik,  
ta bota zuben kiskaltzen zegon  
tximini-zulo batetik.  
“Iñor geiago etortzen bada  
-zion- jaun orren lurretik,  
nik ikusiko detan baño len  
bial zazute aurretik”.



- 14/ Bi adarrakiñ purrustadan jo  
ta itxi zuben atia,  
esanaz gure erritarrari:  
“Ortik urundu zaitia”.  
Sarde zorrotza dardaratubaz,  
*Luzifer*, lotsaz betia,  
joan zan barrena, purrakatzera  
bere mendeko jendia.
- 15/ Gure anaiak zion beregan:  
“Emen gauz onik ez dabill:  
au infernuba izan bear du,  
surtan eiten dute murgill!  
Baña neroni iruditzen zait  
oraindik ez naizela ill...  
Eziñ antzeman diot iñola,  
ametsetan ote nabill?”.
- 16/ Ontan asi zan egaan igotzen  
berak jakiñ gabe nora,  
tximista baño aguroago  
zijoan gora ta gora;  
etzuben neurtu bere joaneran  
igaro zuben denbora,  
goiko lagunak eraman zuten  
zeruko atalondora.
- 17/ Bizarzuridun gizon eder bat  
eserita zizelluban,(3)  
begiratuba txit barrenkoia,  
urrezko giltzak eskuban,  
arrigarrizko ate izartsu  
baten aurrian zeguan,  
ta euskaldunak igerri zion  
iritxi zala zeruban.
- 18/ Jaun aundi ura San Pedro zala  
bereala ezaguturik,  
biotzak salto egiten zion  
iñon eziñ gelditurik;  
infernuetan egondu zanak,  
beldur gabe zutiturik,  
“Jaungoikoak diola egun on”  
esan zuben makurturik.

- 19/ San Pedro jauna begiratubaz  
maitati eta gozatsu,  
erantzun zion: “Orain betiko  
egiñ zerade doatsu.  
Guazen barrena, o euskalduna,  
atoz, eskuba ekatzu;  
emen euskeraz itzegiten da  
ta lagunak zai dauzkatzu”.
- 20/ Ez da izkuntzik mintzatutzeko,  
sartu zanean barrena,  
gutarrak zeukan zoriontasun,  
pozkida ta gozamina;  
alaitasun da eztitasuna,  
doatsunde garaiena,  
au izandu zan lendabiziko  
berak sentitu zubena.
- 21/ Belaunikatuz, Jaungoikoari  
eskerrak eman onduan,  
ikusi zuben nola millakak  
arrigarrizko doñuban,  
Gernikakoa irudi duben  
aritz baten inguruban,  
kantatzen zuten gure izkuntzan,  
ara zer aditu zuban:
- 22/ “Gernikako arbolak  
zeruban du aita,  
onek bialdu zigun  
guri ondo naita;  
biyak bear ditugu  
biotzetik maita,  
euskera ez da galduko  
zerutarra baita”.

Bertso-sail au bertso-paperetan argitaratu zan, Arjentinan bertan, moldiztegi-izenik gabe eta Otañoaren argazki batekin. Ale bat Pedro Mariren alaba Maria Teresak bialdu zigun.

Izenburuaren azpian jarri degun argibide luze eta jakingarri ori bertso-

-paper ortan olaxe dator. Guk kopiatu besterik ez degu egin.

Euskal-Errian ere agertu ziran bertso auek paperetan. Oietako, bat Valverde-Rentería moldiztegian argitara emana, Donostian jaso genduan, Lexo bertsolariaren alaba Adelina



# GU TA GUK

(LEMA "BETTI")

Presente de **Pedro M. Oribe** que ha obtenido el premio de 120 pesetas (120 pesetas) en el primer concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA.

Buenos Aires, Noviembre de 1906.



**Pedro M. Oribe**

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

En el mundo de los poetas, el premio que se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen, es el que más honra a la obra y al poeta. Este premio ha sido otorgado en este concurso de poemas inéditos, celebrado en Anderno, fundado por el periódico LA BISKARIA. El premio es de 120 pesetas y se otorga al autor de la obra que mejor se ajuste a las condiciones que se le imponen.

Gu ta guk saillaren bertso-papera.

Sarasolaren eskutik. Errata mordo bat badu paper onek, baiña aldaketarik ez, aitatzerik merezi duanik beintzat.

*Bertsolariya* astekaria, 1932-IV-3. Onek ere errata mordo du, baiña aldaketarik ez.

Beste argitaraldi bat: Pedro Mari Otaño'ren bertsoak, *Kuliska Sorta 31-32, Itxaropena, Zarautz, 1959, I*. Unzurrunzagak prestatua. Onek ere aldaketarik ez, baiña errata-mordo bat bai.

Bertso auen beste argitaraldirik ez degu ezagutzen. Baiña *La Euskaria* egunkari orrek bearbada leenago agertuko zituan.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auk. Adibidez, Errenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren paperetan azaldu zan bertso auen kopia bat, eskuz egiña. Beste kopia bat, Donostiako Oriamendi baserriko Anizeto Kalonjeren eskutik jaso nuan. Irugarren kopia bat, makinaz idatzia, Don Manuel Lekuona zanak eman zidan. Iru kopia auk ez dute aitatzerik merezi duan aldaketarik.

Zizurkilko Adunibar errotako Serapio Mujikak edo Martuteneko Goiatz baserriko Pedro Almandotzek, bitatik batek alegia, sail ontako amaika bertso eman zizkidan, buruz zekizkien beze-la: 10, 11, 12, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 21 eta 22'garrena, aldaketa aukin:

11/1: Au entzunikan ango atezai; 11/3: galdetzen zuen: "Zer esan nai du; 11/5: ta lagun batek erantzun diyo; 11/7: zergatik arek ezagututzen; 12/3: asarreturik galdetzen zuben; 13/2: sarturikan bizkarretik; 13/3: an bota zuen kiskaltzen zegon; 13/5: Geiago iñor etortzen bada; 13/6: euskaldunaren lurretik; 15/1: Gure euskaldunak ziyon beregan; 15/5: neroni berriz iruditzen zait; 16/7: ta aingeruak eraman zuten; 17/3: begiratu txit alaia ta; 17/5: berdingabeko ate izartsu; 17/6: baten onduan zeguan; 18/8: esan ziyon arriturik; 19/1: San Pedro jauna begiraturik; 19/3: erantzun ziyon: "Gaurtik betiko; 19/5: Toki onera iritxi zera; 21/1: Zeru barrena an sartu zuan; 21/2: beste askoren moduan; 21/3: ez, gizon txarra izandu baltiz; 21/4: bizi zan arte munduan; 21/6: arbola baten onduan; 22/4: guri asko naita.

\* \* \*

Leendabiziko bertsoak Fenix egaztia aitatzen du. Il ondoren bere errautsetatik berriro piztutzen zana omen zan, antziñako erromatarrak-edo sinisten zutenez. Euskerarekin ere gauza bera gertatzen dala esan naiko du emen Otañok: naiz-eta aldietan itxuraz beintzat ia eriotzeraño iritxi, berriro arnas berria artu eta gora altxatzen dala.

\*\*\*

Bertso auk doiñu onekin kantatu digute Zizurkilko Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabal anaiak:

1. Azalkaia. (Otañoen, oarra)

2. *Mote que se da al que no habla vascuence. (Id.)*

3. *Escaño.*

# GU TA GUK

1.<sup>a</sup>  
 Zein izandri zar gure eta erri  
 Euskaldunen asiera?  
 Nindikan dator gure izakuntza,  
 Nosatik guce izatera?  
 Izanik dio Pante bat dela  
 Eta beti beti bere  
 Egusi orain jo euskaldunak!  
 Gu bakarrik bita gara

2.<sup>a</sup>  
 Euskaldunak irten da ezarri  
 Manda hasiri dabilenak  
 Ta, berezere Euskaldunak  
 Ameriketan dagoenak  
 Ikusten ditu konpartzerenak  
 Argibiderik onenak  
 Non bai maitaro artalaren gaitu  
 Berritaren gabarenak.

3.<sup>a</sup>  
 Ute asatu da, baina ezan aizu  
 bizi dazurki zokora  
 Nolla izen nintzan bizi mota batekin  
 Maiteliden kampaia.  
 Erte baten orainan zuten  
 Mota (O) sukabea zuzena  
 Ta, ni maitaro daitu nintzara  
 Nagusiaten ondara.

4.<sup>a</sup>  
 Herri seme beltzeran bat zan  
 Nagusiya ortaraka.  
 Ta egonduzen erakutsuten  
 Lan izen egitakara  
 Zer gaitu bida beretzere ort  
 Besteak charra zelako  
 Ez, uti ondo ni arto indiatzen  
 Euskalduna nintzarako.

5.<sup>a</sup>  
 Ameriketan aizu berekita  
 Nonhai arkituzten banait.  
 Bader oitara galdelutzeko  
 Aizak, maititi, e, Nagusiarra aiz?  
 Puzoz berrik, entzun izan det.  
 Lezu arkitara eta auzi.  
 Ni kiritilloa, izana denera  
 Euskaldunen semea naitz.

6.<sup>a</sup>  
 Askotan usn izuten degu,  
 Guchi gersalea baina  
 Non argitaru da beste izur  
 Gure aurkikoki ana?  
 Ondo egitak elkaritzen da  
 Nekiz badacere ezdunak  
 Ameriketan guturki dago  
 Euskaldunen izengoa.

7.<sup>a</sup>  
 Aiz laureti goitinetan  
 Nola baztereko bordan  
 Naitz eburkian apeninan  
 Edo mendiko Chabalán,  
 Iazozetan da leorren  
 Ondo ta gaitu denberan  
 Berex usen izan garbia dazak  
 ezaki akaten nor daz.

8.<sup>a</sup>  
 Ezta Euskera bezin izakuntza  
 maitagaririk erakutsuten  
 Iakitia dago deabru zarak  
 Nola ikasi ezarbit.  
 Aiz da sentisul eiza mirtosata  
 Otsaketa infernuban:  
 Orreagafikan ditzak euzkeras  
 Katsiatzen dute zeruban.

9.<sup>a</sup>  
 Alperrikoko leuz irten zan  
 Deabruaren jardutea  
 Len gramian izandis zuben  
 Euzkeretikan auzota,  
 Infernetan ezlake sartu  
 Bizozabeko izakuntza.  
 Marcha zuben daitko daita  
 Jaungoikoan izakuntza

10.<sup>a</sup>  
 Berrik infernetako ateoradon  
 Berak ezekeia non  
 Orotatzen naitz, euskaldun bati  
 Zer ezekeitu zizaiton  
 Ango atera adardunart  
 Daxola egu aizon.  
 Ezanar -- Ilon! (niu min ote nabill)  
 Izanitak daitu gabon.

11.<sup>a</sup>  
 Ort erdituak angu atera  
 Mairuzik izakuntza  
 Galdutu zuben -- Zer eman zait du  
 Oitron berrin erakuntzarak?  
 Ta, lagun batek erakuntzin zitan  
 Jakingo du Nagusiyak  
 Zeratik berak ezekeituzen  
 Ditu izakuntza gaitzak.

12.<sup>a</sup>  
 Inork ditzeko premirik gabe  
 An agerri zan luter  
 Ta, Chir agerrez galdutu zuben  
 Ezer galduten da erren, zer?  
 Erakuntzen fegado ezan,  
 Guituzar milia bider,  
 Nik ezletala euskaldunakita,  
 Sekulan jakin ozer?

13.<sup>a</sup>  
 Susto asatu atezyara  
 Sarta zizon bizakuntza  
 Ta bota zuben kiskalizen zegan  
 Chimint-zulo batetik  
 Ibor gergaio otortaza badi  
 izan, izan ezten lurratik,  
 Nik ikariko daitu bano leu,  
 Bizi zaita emendik.

14.<sup>a</sup>  
 Bi adarrikak puztatzen jo  
 Ta izen zuben oia,  
 Esanar gure eritlarort  
 Ortik urronda zaita  
 Sarte zorrotza dardatutak,  
 Luzer izozte betia,  
 Izan zan bariena parrakatzera  
 Bera mendeko jentia

15.<sup>a</sup>  
 Gure anayak zion berengan  
 erren yezakirik ezdunak,  
 a iz infernetas izan ber du  
 Sostan atrea dute otorgill!  
 Bada berria izuditzen zait  
 Oyatitak ematze il,  
 Ezin artzaman diet izola  
 Ametzetan ote nabill?

16.<sup>a</sup>  
 Ontan asi zan egan igortzen  
 Berak jekiti gabe nora  
 Chimista bano agerongo  
 Zibon jota ta gura  
 Berbera noutu bere izorrenan  
 Izere zuben denbera  
 Gotoi lagunak araman zuten  
 Zeruko aratondora!

17.<sup>a</sup>  
 Bizuzkudun gizon eder bat,  
 Escrite zizuduban,  
 Begiratuta chui berrontzoya  
 Urrezko gutzak ezuban,  
 Arrigartisko ate izortu  
 Baten aurrian zegusia  
 Ta, euskaldunak igertit zion  
 Irhiti zala zeruban.

18.<sup>a</sup>  
 Izan gundi ura, San Pedro zala,  
 Bercaia ezagutirik  
 Bizozak sastro egiten zion  
 Inon eren galdutirik,  
 Infernetan egondoz zarrik  
 Beldar gste zittitirik,  
 Jaungoikoak diola egunon  
 Izan zuben ezakutirik

19.<sup>a</sup>  
 San Pedro izan begirambaz  
 Maititi eta gazeta  
 Eragiten zion -- Orain betiko  
 Igin zerade daitu.  
 Gogozen bariena (O) euskalduna!  
 Auzo ezakite auzitu  
 Erren bideras izogitarka  
 Ta lagunak zait daituzta.

20.<sup>a</sup>  
 Ezta izakuntak mirituztuzeko  
 Sarta sarvan barrerik  
 Oituzatik zenbuz korintuzen  
 Pozkila ta gozuzen,  
 Alafuzan da ezizazina  
 Dazuzen da goraleña  
 Au izanda zan leudabizitako  
 Berak kentira zuben.

21.<sup>a</sup>  
 Belauntzakar jaungoikoari  
 Eskerrik eman goguzan  
 Izan zuben nola miltakak  
 Arrigorriko dabanen  
 Oituzkako trufi daben  
 Arto batin inguraban  
 Kantatzen zutira gure izakuntzen  
 Arrezer auzitu zuben.

22.<sup>a</sup>  
 Oituzkako arbulak  
 Zerubun da aita  
 Oituz badiu izan  
 Gert oituz naitz  
 Biyak ber otuzgi  
 Botzetik naita  
 Euzkeren ezda galduko  
 Zerutera baita.

Pedro M. Otaño

Buenos Aires, ano de 1906.



Noiz i-zan-duzan, noiz e-  
ta no-la euskal - du-nen a-si-e-  
ra? Non-di - kan da-tor gu-re  
iz -kuntza, noiz tik gure i-za-e-  
ra? I-pui - ak di-o Fenix  
bat za-la e-ta be - ti Fe-nix be-  
ra, e-gaz - ti ontan, o eus-  
kaldu-nak, gu ba-kærrik bi-zige-ra.

(1906)

**ARANA ETA GOIRI'TAR SABIN ZANARI  
BERE ERIOTZAREN IRUGARREN URTE-MUGAN**

- 1/ Illbeltzak ogei ta sei zituben,  
neguba bete-betian,  
milla zortzireun irurogei ta  
bostgarrena zan urtian,  
Abando deitzen dan Bizkaiako  
erri pozgarri batian,  
seme maite bat munduratu zan  
jende prestuben artian.
  
- 2/ Arana eta Goiri'tar Sabin  
izendatu zuten bera,  
ta txit gazterik aurreratu zan  
gauz asko ezagutzera;  
ainbesteraño maite zituben  
euskaldunak eta euskera,  
bere biziya emateraño  
Jesukristoren antzera!
  
- 3/ Leñargitia(1), ziaditsua,(2)  
leial da kupidakorra,  
biotzberaa(3) zan ezin geiago  
eta jainkoti jatorra;  
guregatican igaro zuben  
bizitza latz ta gogorra,  
nola ordaindu euskaldun danok  
berari diyogun zorra?

- 4/ Bera izan zan, Sabin aundiya,  
ondokidatu(4) ziguna,  
gaur euskaldunok ainbeste maite  
degun dierritasuna;(5)  
Jesusen gisan edan zituben  
ozpiña(6) ta beazuna,(7)  
gaur ez dakit non egongo giñan  
euki balu osasuna.
- 5/ Goitanditasun neurrigabia  
nola zeukan gu denontzat,  
ezagutzeko diñ etziranak  
iduki zuten erotzat;  
bañan bideko arantz ta larrak  
artu gabe aintzakotzat,  
aurrera joan zan. Ai, gaur bagendu  
beste alako gizon bat!
- 6/ Aberatsa zan, bizi zeikian  
lasai losintxak(9) entzunik,  
ez balu izan gureganako  
ainbesteko naitasunik;  
galdu zituben ondasun asko  
eta biziya azkenik;  
esker gabiak ez du merezi  
euskaldunaren izenik!
- 7/ Milla bederatzireun da iruban  
gauzak aiñ gaizki zebiltzan...  
Azaroaren ogei ta bosta  
nola ez gogoan izan?  
Sabin leiala kaltarraitua(10)  
aiñ gogor bere bizitzan,  
Sokarrietan ogei ta eme-  
zortzi urterekiñ ill zan!
- 8/ Jaungoikua ta Lagi zarra zan  
bere azalkai(11) jakiña,  
eta gazterik ill zuten penak,  
o, euskaldunak, zer miña!  
Jaso dezagun bere bandera,  
egiñ zagun alegiña,  
ez dakitenai erakutsiyaz  
maisuzanaren dotriña.(12)



Bertso auk Pedro Maria Otañoren *Oroimenak* izeneko esku-idatzitik artuak ditugu. Ez dakigu inñun ere argitaratu ziran.

Zazpigarren bertsoak dionez, Sabino Arana 1903 urteko azaroaren 25-ean il zan. Izenburuak esaten duenez, berriz, bertso auk aren eriotzaren irugarren urtemugan moldatu zituan Otañok; 1906-an, beraz.

- (1) *Noble*. (Otañoren oarra)
- (2) *Ingenioso*. (Id.)
- (3) *Piadoso*. (Id.)
- (4) *Fundar*. (Id.)
- (5) *Nacionalismo*. (Id.)
- (6) *Vinagre*. (Id.)
- (7) *Hiel*. (Id.)
- (8) *Sublimidad*. (Id.)
- (9) *Adulación*. (Id.)
- (10) *Perseguido*. (Id.)
- (11) *Lema*.
- (12) *Erakuspena. Ikasbidea*. (Id.)

## AITOR-EN SEMEAK ETA ERROMA

Ez naute nai lotuak (1)  
ni libre aurrean,  
ta da ez dakitelako  
zeiñ naizen lurrean.  
Laño gis libre dana  
uztarpera ez dator,  
bere odolen sortzalle  
izan bazan Aitor.

Egunen batez bear bagendu  
bizia eman gurutzean,  
kantari joango giñake aruntz,  
iñoiz argia da illtzean.  
(Ta) gure doaien oroimen ona  
eunkietan biziko da,  
aztu gaberik ez Gurutzeta  
ta ausardizko ill-kantzoa.  
*Ez naute nai lotuak...*

Lañoen gisa  
jaun ta libre,  
uztarperatu  
eziñ leike,  
bere zañetan  
duna jator  
odol noblea  
nola Aitor.(2)

### GORA

Euskal semeak jaso ditzagun(3)  
biyotz elkartubak gora,

eta lenbailen bildu gaitezen  
denok elkarren ondora;  
berriturikan Lekobideren  
eta Lartaunen denbora,  
igoko gera gure gaztelu  
betiko dan Erniyora.

DIALOGO. ELKARRIZKETA.  
HITZELKARRA

Erromatarrak txit ausardiyan(4)  
sartu ziraden Euskalerriyen;  
indarrarekin, arrazoi gabe,  
egiñ nai zuten jaun eta jabe.  
Asko ziraden erromatarrak,  
eta euskaldunak gutxi bakarrak,  
bañan Erniyo an dago zutik  
len eta geroztik.(5)

Lekobide ta Lartaun  
ta beren lagunak,  
guk geren izatea  
zor diotegunak,(6)  
dira espillutzat artu  
bear ditugunak,  
euskaldunen odola  
zañetan degunak.

ELKARRIZKETA

- 1º: Erniyo zer da?
- 2º: Mendi arkaizti tontor aundiya  
ta euskaldunen libretokiya.
- 1º: Gaurko euskaldunak zergatik bada  
ez dira joaten mendi artara?
- 2º: Tontor artara ez leike igo(7)  
bidea jarri gabe garbiro.(8)

- 1<sup>o</sup>: Zer sasi daude, ta zer naspillak,  
orla egoteko mendi-mutillak?
- 2<sup>o</sup>: Animan sartzen diran lar latzak,  
biotza jotzen duten arantzak.
- 1<sup>o</sup>: Baña euskaldunak nola utzi zuten  
belar gaiztuak indar artutzen?
- 2<sup>o</sup>: Patu gaiztoko ereintzalleak  
nastu zituzten ango bideak.(9)
- 1<sup>o</sup>: Orain badakit: alkartasuna  
da euskaldunai falta zaiguna.
- 2<sup>o</sup>: Esku zitalak azi gaiztoa  
banatu zuten Euskalerrian;  
argatik orain sasiyak daude(10)  
loreak baizik etzan tokiyan.
- 1<sup>o</sup>: Ez al ditezke baztarreratu?
- 2<sup>o</sup>: Bai, nai bagendu denok saiatu;  
eta denboraz Euskalerriyak  
ager litzake lore berriyak.
- 1<sup>o</sup>: Nik izan nai det aurren-aurrena  
lan orretara joango naizena.
- 2<sup>o</sup>: Ez; bakarrikan joango etzera;  
nai dezu guazen biyok batera?(11)
- 1<sup>o</sup>: Nola ez det naiko? Ta gogo aundiz,  
denok batian, al baldin balitz.
- 2<sup>o</sup>: Deitu ditzagun maitetasunez  
euskaldun seme guztiyak,  
elkarganatu gaitezen denok  
azturik zapuzkeriyak.

*Los dos*

Deitu ditzagun maitetasunez  
euskaldun seme jator guztiyak,  
elkarganatu gaitezen onez(12)  
utzirik lengo zapuzkeriyak.

*Los dos*

Beti berriyak diran oitura  
zar aien amoriyuan,  
gure sorterri ta familiya  
eukirik beti goguan,(13)  
zuzenbideztu ditzagun gauzak  
guraso zarren moduan,(14)  
euskaldunak zer jende geraden  
jakiñ dezaten munduan.

*Coro final*

Atozte, guazen denok,  
anai euskaltarrak,  
galdu bañan lenago  
fueruen kondarrak;  
zerutik txalo joko  
digute lendarrak,  
Lekobide ta bere  
lagun fiñ azkarrak,  
Euskalerriyagatik  
ill ziraden zarrak.

Zer oitura garbiyak,  
zer lege santuak,  
arkitzen diran iya  
ankaperatuak!  
Amatxo, zure begi  
malkoz tapatuak  
alaituko dituzte  
seme maitatuak,  
urraturikan kate  
madarikatuak.

Coro

Ama, zutitu zaitez  
ta semeai deitu,  
esanaz euskera nai  
dezula aditu;  
bat bakarrik joan gabe  
ez leike gelditu.  
O, Amatxok fueruak  
beti bear ditu,  
bestela illa dago  
galdutzen baditu.

Gora Euskalerriya  
ta semeai deitu,  
esanaz euskera nai  
dezula aditu;  
bat bakarrik atzera  
ez leike gelditu.  
Gure erriyak Fueruak  
txit bereak ditu,  
ta illko da betiko  
galdutzen baditu.(15)

Bertso auek Otañoen *Oroime-nak* izeneko esku-idatzian arkitu ditugu.

Opera baten zati bat izan ditezke bertso auek. Itxura ala dute beintzat. Beti ere, agertokiren batean talde baten kantatzeko bertsoak. Gaia, berriz, *leyenda* batetik artua: erromatarrak eta euskaldunak Ernio mendian alkarrekin izan zuten gerra.

(1) Lerro onen bukaeran onela idatzi zuan Otañoek: (katibuak).

(2) Bertso onen ondoren onako oar au egiten du Otañoek: "*Ruego se me dispense la falta de exactitud en la adjunta traducción, pues se comprenderá que además de mi ineptitud, he tropezado (así se me encargó) con que la última palabra debía de ser "Aitor". Y como los "Hijos de Aitor" siempre serán "Aitor-en semeak..."*"

*Se ofrece su afmo..."*

Baiña bukatu gabeko lana da. Bertsoak zuzenketaz beteak baitaude. An eta emen, aurrena idatzita zeukana tatxatu eta gaiñetik beste itz berri batzuk erantsita dauzka. Zuzenketa oiek oarretan ezarri ditugu. Baiña zera erakusten digute: Pedro Marik bere bertsoak bein ta berriro aztertzen eta jorratzen zituala.

Bertso auek itzulpena dira, beraz. Norbaitek erderazko kanturen bat-edo egin zuan, euskerazko letra ere erantsi nai zion, eta eginkizun ori Pedro Mariri eskatu.

(3) Aurrena idatzia: *Euskaldun denok.*

(4) Aurrena idatzia: *indar aundiyan.*

(5) Bertso au, eta bai urrengoa ere, goitik beera tatxatuta daude Otañoen esku-idatzian.

(6) Irugarren eta laugarren lerroetan aurrena idatzi zuana: *Erniyon gogor egin zuten euskaldunak.*

(7) Aurrena idatzia: *igoko bada.*

(8) Aurrena idatzia: *bidea garbi jarri bear da. Baiña* azkeneko bi itz auek ez ditugu oso garbi irakurtzen.

(9) Aurrena idatzia: *jendeak*.

(10) Aurrena idatzia: *sasiyak* itzaren lekuan, *osiñak*.

(11) Bi lerro auek aurrena beste onela idatzi zituan: *Ez; zu bakarrik izango etzera; joango gerade biyok*

*batera*.

(12) Aurrena idatzia: *onez* itzaren tokian, *denok*.

(13) Lerro au aurrena onela idatzi zuan: *beti eukirik goguan*.

(14) Aurrena idatzia: *guraso* itzaren tokian, *gure aita*.

(15) Bertso bera bi aldiz idatzia, beraz, batetik bestera zenbait aldaketa sarturik.

**(1910)**  
**EUSKALDUNAK ARJENTINAN**  
**DIERRI ONEN LOKABETASUNAREN**  
**LENENGO EUNKI-MUGAN(1)**

1/ Zer gertatzen da Buenos Airesen,  
zer Arjentina guztiyan?  
Zeri zor zaio alaitasun au  
gure bigarren erriyan,  
ta gure seme euskalkumeak  
jaio ziraden tokiyan?  
A, nola denok ez pozkidatu  
gaur ospatzen(2) dan eunkiyan?(3)

2/ Eun urte dira dieronde(4) au,  
ume zana gizondurik,  
lengo gidari eta iñudeak  
alde batera kendurik,  
zutitu zala kitapetzeko(5)  
asmo sendoz goiturik,  
ta gaur munduba begira dauka  
bera danaz arriturik.

3/ Orain eun urte zan maiatzaren  
ogei ta bigarrenguan,  
nola erri au besteren mende  
txit aspertuba zeguan;  
bertako seme ausarditsuak(6)  
batzarrean “kabilduan”(7)  
bildu ziraden, menpetasunak  
astindutzeko asmuan.



- 4/ Erregeordeko edo “virreya”,  
Espaniaren aurkeztari,  
Cisneros jauna arkitutzen zan  
lur onetan agintari;  
ta gizon portitz biotztsu aiek  
esan ziyoten berari:  
“Jauna, loturak kentzera gatoz  
gu sortu giñan lurrari”.
- 5/ Gizon gidari zentzudun aiek  
ontan zeuden bitartian,  
zebillen, “*Venticinco de Mayo*”  
deitzen dan plaza batian,  
zintzo ta zorrotz begiratubaz,  
kabilduaren atian,  
erri geiena, bere biziya  
jokatutzeko ustian.
- 6/ Arkiturikan inguratuba  
jende sutsu eta beroz,  
ta nabaiturik plaz’auñdi ura  
estaliya erdi-eroz,  
bere buruba eskukatubaz(8)  
txokoratu zan Cisneros;  
Arjentinak ez du nagusirik  
au gertatu zan ezkeroz.
- 7/ Maiatzak ogei ta bost zituban,  
egun goguangarriya!  
Ura odolēn irakitea,  
ura biyotzen larriya!  
Sortaldetikan eguzki gozo,  
paketsu, maitagarriya,  
igo zan geldi-geldiro emen  
ixuriz bere argiya.
- 8/ Gogaikarrizko morroitasunak  
alderantzirik goi ta be,  
len menpetubak zeuden semeak  
arkitu ziran lokabe;(9)  
eguzki alai aren azpiyan,  
odolik ixuri gabe,  
zer gauz’ederra gelditutzea  
beren burubaren jabe!

- 9/ Eronde(10) berri bat osaturik  
bertatik gizon zuzenak,  
bederatzi jaun izandu ziran  
izendatutako denak;  
oien artean iru gutarrak,  
gogoan daude izenak,  
euskal odola beren zañetan  
garbiro zeramatenak.
- 10/ Ala gizonak, nola erriyak,  
denok dakigun moduban,  
geldi-geldika azipuruba  
iristen duten orduban,  
nagusi edo *jaberik beintzat*  
ez dute nai inguruban;  
libertaderik gabe ez dago  
aurrerapenik munduban.
- 11/ Ez da iñolaz arritzekua  
iru bederatzitatik  
buruzagitzat autatutzea  
Tubal'en semietatik,  
nola jator dan oiek lan ura  
ontzat artzea bertatik,  
zeren arraz'au beti librea  
izan dan asieratik.
- 12/ Omen aundiko zenbait euskaldun  
argiraturik lenago,  
zenbateraño goititu ziran  
kondairan jarriya dago;  
geroztik ere iñor ez da igo  
gutarrak bañan gorago,  
beren izenak dira lan ontan  
jar leizken baño geiago.
- 13/ Ez Arjentinan bakarrik, baizik  
beste dierri askotan,  
txit jakiña da euskal semeak  
Amerika zabal ontan  
beren ekintzaz mirarizturik  
nola dauzkaten abotan;  
au ikusirik poztutzen gera  
gu bein baño geiagotan.

- 14/ Lege-emalleak(11), araujakiñak(12)  
eta gudari(13) trebeak  
merkatari ta nekazariyak,  
larre ta elejabeak,(14)  
otsankidari(15) ta sendakiñak(16)  
langille paregabeak,  
lur eder ontan ziran ta dira  
beti Aitorren semeak.
- 15/ Orañ eun urte ta askoz geroztik  
jatxi ziranak lurpera,  
burubak jaso ta begiratu  
al balezate onera,  
gaur ez luteke sinistatuko  
au dala lur ura bera,  
zergatik gauzak aldatu dira  
arratsetik egunera.
- 16/ Lengo eremu(17) zakartsu asko,  
gaur jantzirik belar berdez,  
ikusten dira beteak zaldiz,  
abelgorriz eta artalde;  
bukaerik ez duten soroak  
artoz, gariz, nai dan alez,  
inguratubak, beren bordakiñ,  
jauregiz(18) eta etxalde.(19)
- 17/ Len txabolikan etzan tokiyan  
erri politen biziya  
agertutzen da, sal-erosiko  
etxe bikañez jantziya;  
burnibideak alde danetan,  
non-nai uri(20) bereziya,  
ta Buenos Aires danen gañean,  
euskaldun batek asiya.
- 18/ Indar aundiyak artu ditu ta  
noski ez liteke galdu,  
bañan oraindik -ain da zabalal-  
lan berri asko bear du;  
lur onek daukan etorkizuna  
iñork ezagutzen al du,  
zenbateraño iritxiko dan  
onela jarraitzen badu.

- 19/ Aurrerapen au otsanditzeko(21)  
lenbiziko eunki-mugan,  
ikusten degu mundu guztiyak  
zenbat parte artzen duban;  
gu, euskaldunok, azaldu gabe  
nola geundezke orduban,  
aunditze onen indar geiena  
arkitutzen bada gugan?
- 20/ Gure bigarren bizitegiyan  
izerdi asko irtenaz,  
jarraitu degu txit luzaroan  
ondo, gaizki, pozez, penaz;  
ondorengoan sorterri(22) or<sup>1</sup> au  
laxandutzen degu benaz,  
beste zenbaitek maitatuko du,  
bañan guk ainbat geienaz.
- 21/ O, Arjentina, erri gaztea,  
oraindik atzo zihan aur,  
eta mundubak zure aurrean  
txapela erazten du gaur;  
nork daki zenbat igoko zeran  
emendik denbora labur?  
Euskaldun denon biyotzetikan:  
“Agur! Agur! Agur! Agur!”.
- 22/ Bukatu ziran emengo leiak,(23)  
aitu ziraden auziyak,(24)  
ta zer ederki egaatzen duban  
libre dagon egaztiyak!  
Denok maitaro agurtzen degun  
maiatzeko eguzkiyak,  
aska ditzala euskal lurra ta  
katibu dauden guztiyak.

Bertso auk Pedro Maria Otañoren  
*Oroimenak* izeneko esku-idatzitik ko-  
piatu ditugu.

Argitaratu, onako liburu ontan egin  
ziran: *Los Baskos en el Centenario  
Adhesión de la colectividad baskonga-  
da al Centenario Argentino 1810  
Mayo 1910 Buenos Aires, Tipografía*

*“La Baskonia”, 1389 Belgrano 1389,  
1910. Aldaketarik ez du.*

Urte artan, 1910-ean alegia, Arjen-  
tinak askatasuna lortu zuaneko eunga-  
rren urtea betetzen zan. Ori zala-ta, li-  
buru dotore bat argitaratu zuten ango  
euskaldunak, idazle askoren lanez osa-

tuta. Lan aien artean, Otañoren bertso-sail au.

*Euskal-Erria* aldizkariak, beraren LXXII tomoan, 1915 urtean, sail ontako amar bertso agertu zituan: 12'garrenetik 21'garrenera. Aitatzetik merezi duan aldaketarik ez du.

\* \* \*

*La Baskonia* aldizkarian argibide batzuk arkitu ditugu Otañoren bertso sail au eta *Los baskos en el centenario* liburua nola egin ziran erakusten dutenak. Aldizkari orrek, bere 586 zenbakian, 1910-eko ilbeltzaren 10-ean, onela esaten du: ”

**Los baskos en el Centenario.**- *La idea lanzada por la dirección de esta revista de asociarse los baskos a la conmemoración del Centenario por medio de un hermoso número extraordinario, ha merecido cariñosa acogida por toda la prensa de la república.*

*Dando comienzo a la obra bajo tan buenos auspicios, el éxito dependerá únicamente del apoyo que todos los baskos, sin distinción de colores políticos, presenten al citado proyecto, que constituirá un timbre de honor para nuestra colectividad tan querida y respetada por los hijos de esta tierra”.*

Urrengo zenbakian, 587-an, 1910-eko ilbeltzaren 20-an, onela esaten zuan:

” **Los baskos en el Centenario.**- *Recordamos a todos nuestros paisanos, recomendándoles al propio tiempo a cuantos deseen cooperar a la magnífica obra que vamos a emprender, relacionada con el título de estas líneas, se apresuren a remitir las fotografías de sus casas de comercio, establecimientos industriales, estancias, retratos y datos para publicar en la sección titulada “Los Baskos en la Argentina”, que constituirá*

*la más elocuente demostración de nuestras actividades en el desarrollo y progreso de este país...”*

Eta 603 zenbakian, 1910-eko garrillaren 30-ean, onela dio:

” **Los Baskos en el Centenario.** *Por fin, acaba de salir esta obra, que tomó mayores proporciones de las que nos habíamos propuesto al principio.*

*Está impresa en el mejor papel “glacé” que se conoce y lleva una multitud de grabados. Colaboran en ella...”*

Emen idazleen zerrenda ematen du, onela bukatzeko:

”...el malogrado poeta Pedro M. Otaño, de cuya sensible pérdida tuvimos noticia a los pocos días que corrigiera las pruebas en esta redacción”.

Pedro Mari 1910-eko maiatzaren 6-an edo 7-an il zan.

Bere 600 zenbakian, 1910-eko maiatzaren 30-ean, idazlan bat agertu zuan *La Baskonia*-k ari buruz, bertso sail onengatik itz auek esaten zituala:

” *La última producción de Pello Mari, terminada días antes de morir, ha sido para el libro “Los Baskos en el Centenario”. Nada denota en ella que tan rápidamente fuera a extinguirse la luz de su nada vulgar inteligencia”.*

Arjentinari eskeiñitako auek dira, beraz, Otañoren azken bertsoak; eta, itxura danez, berak etzitian argitaratuta ikusi.

(1) *En el primer centenario de la liberación de esta nación.* (Otañoren oarra)

(2) *Celebrar.* (Id.)

(3) *Siglo.* (Id.)

(4) *República.* (Id.)

(5) *Redimir.* (Id.)

(6) *Denodados.* (Id.)

(7) *Kabildu; reunirse en acción.* (Id.)

(8) *Manoseando.* (Id.) (Jaun onen izen osoa Baltasar Hidalgo de Cisneros zan, eta Arjentinako - virrey - kargua zcukan, Españaiko gobernuak artarako izendatua.)

(9) *Libres.* (Id.)

(10) *Gobierno.* (Id.)

(11) *Legisladores.* (Id.)

(12) *Jurisconsultos.* (Id.)

(13) *Militares.* (Id.)

(14) *Ganaderos.* (Id.)

(15) *Músicos.* (Id.)

(16) *Médicos.* (Id.)

(17) *Desiertos.* (Id.)

(18) *Palacios.* (Id.)

(19) *Granjas.* (Id.)

(20) *Ciudad.* (Id.)

(21) *Solemnizar.* (Id.)

**ARTZAI - MUTILLA**  
**(OPERA)**  
**(1900)**

## OAR BATZUK

*Artzai-mutilla* operaren musika, lehen esan bezela, Felix Ortiz y San Pelayo azpeitiar musikalaria sortu zuan. Letra, berriz, Pedro Maria Otaño bertsolariak.

Musika ez dakigu gaur egunean nun izan ditekian. Musikaren esku-idatziaren orrialde bat *La Baskonia*-k argitaratu zuan. Orri ori bera guk ere agertzen degu, aldizkari ortatik artuta.

Letra, berriz, emen eskeintzen degu iru iturritatik jasota.

Leenengoa, Otañoren esku-idatzia, Arjentinatik onera argazkiz bialdua. Ezeren zalantzarik bazegoan, esku-idatzi oni eman diogu beti nagusitasuna; berak daukan bezela guk idatzi alegia.

Bigarrena, Buenos Airesko *La Baskonia* aldizkari ori. Onek *Artzai-mutilla*-ren letra bere 231, 232 eta 233 zenbakietan agertu zuan, 1900-eko martxoaren 2, 10 eta 20-an.

Iruugarrena, liburuxka bat, izenburu eta argibide auek dauzkana: *Artzai Mutilla / (El zagal) / Opera bascongada / en 3 actos / Letra de Pedro M Otaño / Música de Félix Ortiz y San Pelayo / Buenos Aires / Tip. La Vasconia, Avenida de Mayo 781 / 1900.*

Batetik bestera dauden aldaketak eta beste adieraz bear guziak oarretan ezarriko ditugu. Ala ere, fonetismoak ez ditugu aitatu. Adibidez, Otañok bere esku-idatzian *biyotza*, *aundiya*, *sartubaz* eta *munduba* idazten du; eta *La Baskonia*-k eta liburuska orrek, *biotza*, *aundia*, *sartuaz* eta *mundua*. Guk Otañoren esku-idatziarena artu degu.

Otañok bertsoetan sailkatu gabe idatzi zuan opera ontako letra, aldi batzuetan beintzat. Puntuak binaka eta irunaka uztartuz, alegia. Orrelakoetan, dana segidan jarri degu aren letra. Bestetan, ordea, bertso edo aapaldietan sailkatzen du bere testua. Zenbait alditan, bertso-mota klasikoak dira; beste zenbaitetan, berriz, bertso-mota berria da; berak asmatua, alegia. Orrelakoak, bertso klasikoak eta berriak alegia, alkarrengandik berezi egin ditugu, tarte bat ipiñiz.

Buenos Airesen argitaratutako liburuxka orrek letraren laburpen bat du aurretik erderaz. Ori, zalantzarik gabe, ango erdaldunak operaren gaiak jabetu zitezten jarria izango da.

Donostiako *Euskal-Erria* aldizkariak, bere 42 tomoan, 1900 urtean, opera onen berri ematen du, itz auekin:



# ARTZALMUTILLA

Romance de pastor en el acto tercero. — Análogo de la pastorela.

*Andante - moderato*

*Largo appassionato*

The image displays a handwritten musical score for the piece 'Artzalmutilla'. It is written on a grid of musical staves. The score is divided into several systems, each containing a vocal line and a piano accompaniment line. The lyrics are written in a mix of Basque and Spanish. The first system includes the tempo marking 'Andante - moderato' and the tempo change 'Largo appassionato'. The lyrics for the first system are 'Barramutilla det barrena - eatar' and 'Nere - tu - tain'. The second system has lyrics 'et amesate - eatar am - fern' and 'o - ri - z - n - e - ta - na'. The third system has lyrics 'Nere burua eatar nare Nere'. The fourth system has lyrics 'Zate gure - e - n - o - y - nere - e - ta - gure - e - barramutilla'. The fifth system has lyrics 'Nere arka gure - e - ta - n - e - ta - na - e - ta - na - e - ta - na' and the tempo marking 'tutti molto'. The score is written in a cursive hand and includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings.

"Artzai Mutilla". Opera bascongada. En la prensa llegada de Buenos Aires acabamos de leer, con viva satisfacción, los mayores elogios acerca de esa obra, debida a dos queridos amigos, colaboradores y paisanos nuestros: D. Félix Ortiz y San Pelayo, de quien recientemente nos hemos ocupado en estas páginas, autor de la música; y D. Pedro María Otaño, autor de la letra.

Quedamos deseando saborear las bellezas de su celebrada producción y por hoy sólo les decimos:

Bejundaizutela!"

Urrengo batean, berriz, onela dio:

"Artzai Mutilla Opera bascongada. Por el último correo llegado de Buenos Aires vemos, con satisfacción de hermanos, los entusiastas y unánimes elogios que la prensa de aquella hermosa capital tributa a los autores de esta aplaudida obra, que son, como decíamos en nuestro número anterior, los amantes hijos de Guipúzcoa D. Félix Ortiz y San Pelayo y D. Pedro María Otaño, a quienes se debe respectivamente la música y el libreto, dignos la una del otro."

Ondoren, gaiaren laburpen bat ematen du, eta letraren zatitxo bat eskeintzen dio irakurleari.

Artzai-mutilla opera au Buenos Airesko Teatro Victoria edo Teatro de la Victoria-n aurkeztu zan, La

Baskonia aldizkarian bein baiño geiagotan ageri danez.

Zein egunetan, ordea? Ori Félix Ortiz y San Pelayok esaten digu, gero oso-osorik eskeiñiko degun idazlan batean, onela esanez:

"El diez y ocho de Febrero, después de haber comido, salí de mi casa en dirección al teatro..." . Opera aurkeztera alegia.

Ortaz gaiñera, La Baskonia-k onela dio, Artzai-mutilla operaz mintzatzean, 1900-eko otsaillaren 20-an: "La noche del domingo será inolvidable para todos cuantos fuimos al teatro Victoria..."

Aurreko igandearen gauean, beraz. Ala, 1900-eko otsaillaren 20-a astearen zein egunetan egokitu zan somatu bear genduan. Egutegi zaarretan begiratuta, egun ori astearte izan zala aterra zitzaigun. Aurreko igandea illaren 18-a, beraz. Egun ortan, 1900-ko otsaillaren 18-an, aurkeztu zan, beraz, Artzai-Mutilla euskal opera.

# ARTZAI MUTILLA

(EL ZAGAL)

ÓPERA BASCONGADA

EN 3 ACTOS

Letra de Pedro M. Otaño

Música de Felix Ortiz y San Pelayo



BUENOS AIRES

TIP. LA VASCONIA, AVENIDA DE MAYO 781

1900

*Artzai-Mutilla* operaren libreto-aren azala.

# ARTZAI-MUTILLA (OPERA) EGINTZA IRUTAN(1)

*Iruditegiak aurkeztatzen ditu itsas-  
ondoko Kantauri-mendiak*

*Irudigilleak (2)*

*Egintzalleak*

Artzai mutilla (Patxiko)

*D. Francisco Argote*

Peru (Patxikoren aita)

*D. Matías Echeberria*

Iñazio (etxe-jauna)

*D. Luis Labadens*

Artzai neskatilla (Maritxu)

*Srta. Matilde Isasi*

Andre Josepa (Maritxuren ama)

*Sra. de Mirabel*

*Baserritar erromeritarrak dira  
Laurak-Bat-eko euskal kantaridiak,  
